AITA ONAINDIA

MILA EUSKAL-OLERKI EDER



I

AITA ONAINDIA

Karmeldaŕa

MIĹA EUSKAL-OLERKI EDER

ALDIZ-UŔEN AUKERATUTA

Karmeldar Idaztiak
LAŔEA - AMOREBIETA
(BIZKAIA)

1954

CENSORES ORDINIS:
Fr. Linus a Sacra Familia
Fr. Michael Maria a Puero Jesu

IMPRIMI POTEST:
Larreae, 2 aprilis 1954
Fr. Amalius a Sto. Aloisio Gonzagae,
Provincialis

JABEA DAU

NIHIL OBSTAT:
Anicetus de Zugasti,
Censor Curiae

IMPRIMATUR:
S. Sebastiani, 2 octobris 1954
Dr. Josephus Sudupe,
Vicarius Generalis

Eskeintza

1) *Eusko gogoa, gizaldiak zear zaindu ta eri-olerki bikaiñez apaindu duten kobla-zale ta bertsolari ixil guztiei;*

2) *Euskal-bizitza gizonkiro abestu duzuten olerkari jantzioi;*

3) *Lur puska zoragari onetan bizi zeraten euskaldunoi; baita, osto ¡gara ekaitzegoz bezela, atzeri zear sakabanatuta zabiltzaten maiteoi ere;*

4) *An nai emen, odol-indar berdiñak bilduta, eusko gogoa betikoz il ez dedin, lan dagizutenoi;*

biotz-ikara samurez,

AUKERATZAILEAK

Heuskara,
jalgi adi kanpora.
Heuskara,
habil mundu guzira.

Beñat Etxepare
(1545)

Euskerak burua jasotzea,
Jainkoak nai du.

Aita Kardoberatz agurgariak
(1703-1770)

Euskaldun jaio nintzan,
Euskaldun azi,
Euskara utsik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite-maite,
Zabiltz neugaz beti.
Euskara il ezkero,
Fz dot gura bizi

Arese ta Beitia
(1841-1906)

ITZ BI

Aita Onaindia'k itz bi eskatu deustaz bere liburu «.Mila Euskal Olerki'» onen sarerako. Mila euskal olerki? Ba ete da ainbesterik? Eta zelakoak e/e dira? Nik uste bai'ño gei'ago (a obeak dira bi'lduma ontakoak. Liburu bera ez doi i'kusi, baiña bai aurkibidea, eta ortatik emon negike nire eritxia.

Auretik esan, olango liburu bat bear-beareko dogu, geurok zerbait ikasi' dagigun, eta batez be, gure gaztediak.

Ez neuke esango gure Bilbilitaragaz sunt mala, bai sunt bona eia optima; mediocria bere bai', baiña euren tokia ba-dabe liburuan orerk be. Erdi'-merdikogure onei'k baiñO kaxka-ragorik agiri da beste erietako lorateai edo anthologietan. Oreik be, euren mendeko bari' emoten deuskue, ta, ondo begira ezkeliño, ba-dabe alderdi'ren bat poli'ta. Gure olerkari' gazteok ba-dabe nun ikasi. Kanta zaretan ba-di'ra bi'kai'ñak eta tankera banakoak. Lau aizaldi'etako olerkiak dakaz aldi'z-urenka, eta guenez, gure mendea.

Eri'txiketan asi' barik, itz bi' esan bear dodaz, eta onetxek di'ra.- egia, zentzuna. Olerkari'ak askotan burua laregí' zoroz-ten dabe iñok esan ez dauana esateko. Ortatik datoz mila xo-

rozkeri edo xoxokeri, eta ez diranean, geldi lotzen gara balio daben bururakizunak ete diran, ala buru-zofozkeriak. Qure mendeko olerkarietan agin dira, gitxi edo asko, atzerira begira, erdera edo moda txar oreen mendeko. Alan ia guzti be, ez (¡ure inguruko erdal-eñetan beste.

Beste afixkua, biotzari yagokonez, guzur-adia edo guzur-asperena, erderaz esan el suspiro de falsete. *Ontatik ugari da gure inguruko erderetan. Buruaren egia edo egi-aniza bear dogu lelengo, ta ufena, biotzaren egia. Zulo bi oreitan jausi ez gadizan, gure bertsolariak ditugu eredu: Xenpelar, Otaño, Otxalde, Ÿibararte... Qure egunotan saria lortu dauan Aita ^Mitxelena'k ortara joten dau, ta pozgafi yata.*

Beste doaia zentzuna da. Elizako Quraso batek poietes *deritxo Jaungoikoari, eta Dabid'ek diñoskunez,* opera manuum eius veritas et iudicium. *Jaunak egiñiko* poiesi *oreik* egia *ta zentzuna dira. Au du modurik ederena, ta gure bertsolarien betiko moda. Bide bafirik ez da, baizik bere, bide berean dabiíanak ba-dauala bere ibil tankera. Bidea bide, ba kotxa beli bera da.*

Jtz bi baño geiago dira, irakurle, ela parkatu.

ORIXE

S A R R E R A

líai-baneko beriso-egiieak, bere ser-izatcan ei loturik lez, ertz bi daukaz oso bedeznrrak: baia., poesi-era errikoi onen antxiñakolasuna ia. bestea, bertsolariaren arima-ustutze bele-belea. Aspaldi bateko erririk geienak, izan be, euren asieran baeben olako zerbait, gerora askok gizalege la kultura obe batez ornidurik —euren ustez beintzat— albora itxia edo galdua. Gogo-lantze, kultura ori, baiña, guzur-oskolez jantzia dogu geienetan' ezta ots-otsekoa, burutik arakoa, barne-mandioan arretaz erabilli ia ausnartua baiño Eiorrí-ala esanak, edo arima barruan luze ausnartuak, agertu ta adierazten ete dausku obeto geure izanaren muiñean daroaguna?

Euskaldunok oraindik benso-era zar ori zutik daukagu. Arritzekoa izanda be, guk ba-ditugu oraindiño bai-bateko jardunean euren barruak ustu oi dabezan berisolariak. Eta jokabide au ezta alzo goizeko gauzea, ziurrik a>ko edesti ator elik datorkiguna baiño: euskera bera baizen antxiñakoa, esan gengike. Gure gurasoen aurretikoak ortik, antza, ainbeste maite ebezan bertsolariak. Egia esateko, gu baiño zar zaleago ziran.

Gaur be, bai, euskal bertsolaria mendi-erpin zear dabilkigu; ainbat saio, ainbat txapelketa emen naiz an. Erria be ez dabil nagi ta zabar, gure erri xea, erti-min dan gure erria, bertsolariak orren bero ta gartsu txalotzen dabezan euskal erria. Egiazko be'tsolariak, dudarik bage, garapenak eta txaloak merezi ditu, nun-nai ela beti. Orixe dogu, izan be, aozko literaturaren ezaugarririk bizkor nabarmenena; ela ez bakarrik eskola andi bako

erriaren poesi-kutsua dariolako, baitu erri-bioizaren eragin samurrak eta ikutu gozoenak bertsoz iraultzen trebe dalako be.

Guk ederti-gai guztietan, baiña batez be literaturan, geure kera berezia dogu. Eia literaturako kera edo jokabide aparteko au ezta, berieían sakoridu ezkero, gure inguruko klasikoen antzekoa, laliñetik edo gerkeraiik artua. Geitre-geurea dogu. Kera au, estilo au, barriz, bertsolariak zaindu ia gorde izan dabe gizaldiak zear. Bertsolariak ba-leiteke olako era-ez ta naste antza iñoizka erakustea; baiña, errazoiketa laizez gauzak aztertu daroazan ikasian onela iduritu arren, berez ez dozu ori naste, egokitasun utsa baiño. "Gure bertsolaria da —diño Oteiza'k— estilorik garbiena, ta gure ariean argitasunik kilikagarri ta andienekoa" (Quousque tándem, *9).Egiazko euskaldun dan euskalduna kera ori besterik ezia, ta naitaez bertsolaria txalotu bear. Or jai-egunez erriko plaza. Bertsolari batek, bik edo geiagok bertsotan diardue. Erri osoaren arei entzun-bearra! Bertsolaria ta erria, kera bal berean, ixil-ikutu gozoz kateaturik daukaguz.*

Kera ori zertan dagoan ezta errez esaten. Baiña gai onetan kezka asko sortu dituan Oteiza'k onela diño: "Izkuntzan dago gure egiazko erraza; gizona ta izkuntza dira lenengo begiz joten doguzanak, baiña oindiño barrurago dago gure kera berezia, gure estiloa, gure gogozko erraza" (22). *Gogozko mundua, bertsolariak berez-berez, nai~noz agertu oi dauana. Zer ete da? Barrutik kanpora, illunetik argitara etorte bat; bizitzara, itzera, esaerara azaltze bat. Orrek bere kera dau, ta kera berezi ori bertsolariak agertzen dausku ondo ta egokien. Zelan? Len ibilli bidea ostera egiñik; len barrura joan da, ta landara dator orain, argitasunez gaiñezka; barren ortatik, dizditsu ta eder, dan bestean, euskal gogoa eskintzen dausku. Bertsogintzan, sarri, ara ta ona dabil, pentsamentu ta iduri zearkakoz; iñoizka batasunak uls-emoten dautsola dirudi, eztabil gure kultura ta ikasien lege arauz. Baiña barrutiko zalantzazko jeera ori da, ain zuzen, euskal egikerarik lerdenena.*

Euskaldunok arima sortzaille balen jabe gar& Ta adore ortan daukagu, euki be, geure gogo zarra, inguruko erri-endakaz zerikusi andirik ez dauana. Sortzaille izanik, or itxi dau gizaldiak barrena bere zatiren bat ari edo oni erantsia. Lenen, orain millaka urte, aizkora landuart itxi euskun zerbait, gero kanpai antzeko

edontzietan, il-arrielan, metaletan, eta geroago erromatarren izkuntzetan. Aro luze orreitan, gure gogo zarra bizi-bizi egona ta iñarrosia da, tximilol antzera auts-urrea or-emen itxirik. Alan be, inguruko erriak, kondaira argitan batez be, ainbat iskanbil arroturik, gure gogoa ixil samar irauna dogu. Ez, baiña, arnasa barik. Arnas ori elertían daukagu, bereziki; arpeelako marrazkietan eta mendietako arrespilletan dizdiz dagi arnasa orrek; baiña izkuntzan eta literaturan batez be. Erromatarrak, keltarrak eta indi-europarrak baiño lenago giñean gu Europa zar onetan; kondaira aurretik datorkigu geugaz euskera, ta euskeraz abestu dabe bertsolariak euren joera berezian.. Eia kanta zar asko galduak ba'ditugu be, mordoka doguz oraindiño, bertsolarien ertilanak nunbait, gure edestiaren sabeletikoak, gure gogozarraren arnasa boladak.

Noiz asi zan gizona ertilari agertzen? Arrizko aiztoak egiten asi zanean, artzuloko ormea laukitzai (huadrotzat) artu ebanean, eztanilik agora berez etorkion kantua oroimen-arasetan ermoizen asi zanean. Arri landuak ara ta ona eroango ditu; bertsoak, barriz, alkarri erakutsiko. Emen daukagu, beraz, gure kanta ta bertso zar askoren sorburua: edesti aurretiko une ezkutu illunen altzoan. Alegiñak egin arren, egia, ez dogu gaur jakingo noizkoak diran erdizka lez dazauguzan kanta zatiok; baiña oso antxiñakoak dirala autortu bear dogu. Gure mendietako il-arri ta arrespil (krorúek) zarrak ba'dira, gure bertsolarien esan, atsotitz, kopla ta kanta-saillak eztira gazteagoak. Zenbat urte ete ditue, adibidez, gure esakun zarrak, eusko gogoak urtez-urte sorturiko bertso bikote jakituriz beteak?

Euskaldunok izadi-arlo eder au, Euskalerria deritxoguna dogu bizilegi. Lur~azal au gu baiño lenagokoa da, bizi izateko naitaez lur-zati balen bearra dogu-ia. Ona elorri gintzan —noiz}— nunbaitetik; eta izadi-muskil onetan osotu dogu geure kondaira, idatzia ta idatzi bagea. Idatzi ez arren, kondairarik ez dogunik ezin gengike egundo esan: izadi oni deutsogula dagigu edestia, ta gizona eztau egin oi edestirik ez eukiteak, bere edesti edo kondaira ortako zerbait ulertzeak baiño. Zer da, izan be, edestia? Jazo edo gertatzen dana. Baiña ez orain jazoten dana bakarrik, lenago jazo zana ta gero jazoko dana be bai; aldiaren barruan jazoten dana, naiz len, naiz orin, naiz gero. Eta jazoera oneik

euren imeko, momeniuko zerbait itxi daroa: Santimamiñe'ko gizonak euren tresna zakarrak, Gorbeia'ko artzaiñak euren eskona ta arri-pilloak, bertsolariak —antxiñako aro arelan eizan, artzaintzan edo nekazaritzan ziarduan bertsolariak nunbait— kopla zarrak.

Literatura ezta besterik erri-gogoaren ispillu baiño. Azi-eskola ta ikastetxeak gizonaren geriza ei dira; literatura, ostera, sorterri baten adierazpen. Oitura ta gogo erriarentzat bardin dira, ta gizaldiak zear onein abotsa entzulen dogu bakarrik, baiña guganaiño eltzen dan abots orren babespean olako barailla gozo bal, erle-zunburrun antzeko bat dantzugu. Gure bertsoetan, esaterako, berisolariagaz batera kantatzen eban erriaren abots me doiñu askotarikoa. Bertsolari ta erri, or kultura balen jabe; andi naiz txiki, erri guztiak eurena daben kultura, garrantzi andiko kultura.

Oraintsu arte kultura bat bakarrik ezagutzen genduan. Egipto, Grezi, Erroma, Erdi-Aroa, une baizuk baiño etziran maillaka; gaurko osotasunera eurotatik eldu yakun kultura guztia, la batez be literatura. Gaur, baiña, errazoi so-egiñik, ugaritu egin dogu kultura bakar ori; ta erri txikien arimeari —esakun, egite, bertso, idatzi la abarrí— inportantzi andia emon oi yako. India'n eta Txina'n euren kultura dabe, Europa'n ela Afrika'n orobat. Eia zail izanik be, kultura oneitatik zein dan garaien autortu baiño len, lerro bardiñean ipiñi bear doguz danak. Au ez dagigun bitartean, ezin gengike —orrela uste da gaur— eritxi ziurrik emon. Erraza guztiak dabez euren garailasunak. Eta geienetan norbere seta-izakerak eta inguruko giroak oretzen dabez gure erti-lanak.

Guk geure izkuntza dogu, eta gizaldietan zear euskeraz itzegin dogu beli. Gaur len baiño gora ta zer-ikusi geiago dabe izkuntzak, baita gureak be. Eguzkiaren printzak lez, gero ta geiago zabalduaz doa munduko gogolantze edo kultura, erri nagusi ta era batekoa atan be. Baiña izkuntza txikien kukurari be balio andia ezarten yako, izkuntza edatuei baizen andia esan geinke. Ikusten danez, beiñola ostikope erabillitako erraza askoren kidtura *ta jakituria be aintzat artu nai dira. Ezta bide okerra gizadiaren obekuntzarako. Guk, geure txikian, ez dogu beste errialderik zapaldu, ez gara ain edatuak izan. Baiña geure arimea*

dogu, beste nainorena baizen eder joria; geure kultura dogu. Gaur mundu guztian zabalduak gara, eta mundu-barrutiko gogo~ lantze arloan ez gara egundo be azkenengo ibilli.

*Kultura onetan erritar literatura ugaria dogu, geienbat aoz-ao guganaiño eldua. Igaroak, joanak eztau itzulirik; baiña nobere gomutapenez eta iñoren esanez joana gogora ekarri oi dogu. Gure literatura, idatzi aurretik be, aoz-to luzerazo ta ekarri dauskuenak bertsolariak izan dira. Euskal erriak beli izan ditu onakoak. Gaur asko ditugula diñogun arren, lenago askoz geiago ziran, dudarik bage. Gizon ta emakume gai ziran edozein urietan bertsoz mintzaLzeko. Ikus bestelan, adibide bat baiño ez jartzeko, Bulroe*ko Joanaren etorria. Gomiz Gonzalez eta Elbira Leibako'ren alabea zan au, Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko Aide Nagusien artekoa; HSO'ko urtarrillaren 18'an ezkondu zan Olaso-torreko Matxin Ganboa!gaz. Baiña Aide Nagusien alderdi biak asarre bizitan egozala-ta, alkartze ori beraren amak galazo nai izan eban. Joana'k, artutako erabagia aurrera eroateko gertu egoala adierazoz, urrengo lauko au abestu eutson amari:*

«Berba orren berba gazia,
Berba orri nai ez dakiola balift:
Dardoak e^iñarrún bere aldia,
Olaso du f-ne c-goteko aulkia».

Erritar utsa da bertsolaria, erriagaz bat-egiñik dabil. Erriaren asmo, gurari, ta buru-austeak arduraz jaso daroaz. Berau dogu, ba, euskal erriaren "gogo-azalpena", biotz-zirkiña. Eta, gizaldi askotan beintzat, beronegandik alera geinke, gure erriaren kondaira. Gaur tresna egokirik asko ditugu geure asmo ta pentsamentuak liburuetan idazteko. Lenago etzan olakorik. Batzar eta biüerak ziran orduan erabagi ta naiak ara-ona eroan eta zabaltzeko bide bakarrak. Orduko azoka ta periak etziran igali la frutuak saltzeko bakarrik; Jauregi jaunak diñoskunez, "munduko eia errielako gora-berak, gertaerak, esamesak, berriak, iritziak eta asmaketak zabalizeko ta jakiteko ere bide oi ziran"' (Xenpelar bertsolaria, 14 orr.). *Eta or ebiltzan berisolariak, orain barnbilla, gero paper saltzen.*

Eta oneik, len ugari zirala, gaur eztira gitxi. Or dabiltz, oso ederki, erriz-erri ta jairik jai, asmotsu la bizkor, ainbat edertasun

euskaldunen adimen-biotzetan ereiñik. Ainbat txapelketa, norgeiagoka, eratzen dira or ia emen. Eurok beitez aspaldi balen, Erdi-Aroan, Probentza'ko trobadorak lez, erri-izkuntzaren zuzpertzaille, euskera maitearen jasotzaille gaillen!

Baiña gizon jator oneik, zuzen jokatzen ete dabe beti euren arazo garrantzitsuan? Ederra azaltzean, itsuan ete dabiltz ala legerik ete dabe? Ondorengo lerro-$aillok$_f$ olerkarienizal be egoki diran airen, beritolariei begira idatziak dira. Bertsolari pizkunde garai ontan gauzak ganoraz egin bearrean gagoz. Bertsolariak gero ta geiago jkasi egin bear dau: ez geiegi, bere arlotik aldendu ez daiten, baiña naikoa bai. Batzuk ba-dira, tamalez, berezkoagaz naikoa dabela diñoenak. Berezko senak, alan be, berezko etorriak, landu barik itxi ezkero, zer ekarriko dausku? Ezin daike idurimen jori barik teknika trebe batek gauza andirik egin; baiña ezer gitxi berezkoak be, landu ia joriiu ezik. Jakintsu iñoan Orati'k:

> tfEgo nec studium xine dlvlte vena,
> *nec* rude Qiüd possit video ingenium».
> fNik ez dakust zer egln daJkean erttaJ;
> etorri barik, edo berezfco senak ikasi barik.)
> *i De Arte poética.* 4fl9)

Auxegaitik dira lerro oneik. Bertsolariari nundik nora ibilli erakusteko, erriz-erri dabillela antzetsu jokatu dagian, plaza guztietan artista agertu dedin. Ikasiago ta trebeago, ziur asko.

Bai, bertsolari maiteok, irakurri ta ikasi gogoz ondorengo lerruok, eta askoz ederragoa izango da zuen jarduna. Ikasiz jazten da gizona. Zuok be bai. Lurrari, goldez irauli ondoren, ongarria emoten yako; zuok be guriiu ta joritu zeuen berezko sena ia etorria. Ortarako dozuez emen doazan bertsolari-edesti, beruo-mueta, lege, aran ta gaiñerakoak. Eurotatik ekiñez, gero ta bikaiñago izango da zuen bertsolaritza.

Larrea, 1964-VI-24'an

A T A /? I A

Euskal olerti barafzetik natorkizu, irakurle maite, argiíiluraz gaiñezka dugun baratz joririk. Ixil ixilik, baratz ortako ataka ideki ta barnean sar naiz. Ta zer dut bertan aurkifu? Gar urdiña darion sua, biotzen pilpira azartua, asmu goiza/ea; au da, eusko-gogoa dan bezin mardul ta guri. Auxe dugu euskal-olerkia ta auxe dan bezela eskeintzen dizut, zuk ere gozartu dezazun, baren-ikara utsean, ari darion ezti gorizka.

Baiña leenik auren-solas antzera, emen dituzu zenbait olerti xeetasun, naiz ta eikortxo, ark eman ederaren guna osorik jasotzea erezago dakizun, ta zabal gaiíenago arekiko poz-atsegiña. Lenengo: euskal-olertia zer dan; bigaren: euskalo/erkiaren edesti apur bat.

1. Etiskal-oleríia zer dan.- *Ba ditugu guk ere, euskaldunok. edozein erik legez, geure nortasun ezaugariak, ots, jolas, oitura, erfi, izkunfza... Ta auek oro euskal-gogoaren agergari, antza. Jakintsuen iritziz, baña, euskal-lokaririk estu ta biurena, gure gogoa dan bezela erakusten diguna, euskera danik ezin ukatu iñork ere Ta euskalduna, gaurdaño beintzat, euskeraz mintzatu da; geiago: kantuz ta bertsoz azaldu digu bere izakera. Eriak oro guixi-askO' kantari, gurea oso kantari. Guk ere ba-dugu, beraz, geure oferkisaila, ta ez makal uria, beerago ikusiko dugunez, jator oparoa baizik.*

Or bi gizon erti-arloan. bata edestian lotua, olertiari bestea: gai bat bera erabi/i aren, ez dizkigute gauzak berdin azaldu ta adierazten. Ark gerta ziran bezela, itz lauz; onek gerta-edo litezkean bezela, itz oskidetsu ta neurtuetan. Esa-

kun bat adibidez; jakitunak dio: Egoki ta zuzen da euskerak edozertarako balio izatea. Lizardi'k askoz gizonkiago:

Baña nik, izkuntza larekoa,
nai aunat ere noranaíkoa;
jakite-egoak igoa¡
sona zar, befí gogoa;
azal orízta, mami betirakoa.

Zer da beraz, olerkia? Itz-joku antzedun bitartez gogaiak. eta eder-eredua batez, ere, adierazi ta agertzea. Bere ¡o muga ta asmo berezia? Liliak usaia damalen bezela eder txantxíla opatu, eztiz gaiñezka, gure gogoa atsegin bitsetan jaririk; geienez beintzat.eztu beste elbururik. Ez oraitio izaditik arturiko edera eskeiñi bakar-bakarik, geiago ere ba dagi: onek eskeiñi ta aureratzen dizkion gai soi/ak jaso. alkafekin bildu ta osoturik, erti edera sor oi du nolabait, alik bikaiñena, gogoeta soiñez ta itz-estalgi leunez apaindurik. Olertia, ba, mintzo ertietan nagusi ezertariko ezpai gabe, edera agertzea baita bere asmo ta xede uts. Ut hera/. itxusi oro, eder jauregiko solairupean gaude-ta.

Eder-zaleak zer goga/du ta senti, uraxe izan diteke olerkiaren mami, gogoari a/s emanik edera sor ba'dagi bederen. Olerkian ez da noski beste minfzoianetan aiña batasun bila bear; baiña bai asieratik azkeneraño, esanaralik pifikaetan ere, geiturik doan ardura, giro epe! ta biotzgara. Baita olerki-izkefak ere ba-ditu bere alderdi bereziak, irudimen eta biotz-ondoa beste ertietan baiño lasaiago dabiltza-ta. Bedi, bai, iñorena baiño bizi, loretsu ta giarago olerkiaren izketa. Eskuarki erabifi oi ditu augatik oldargi ra barne ikutuz eiotako antz-irudi ta esaera azartuak; ta auek zeregin bakara dute: olerkiaren gogapenak bizi ta tinko, barnetik jaiki diranez, asma lanean josi ta mu/kotu. Ta auexek ditugu, azkenik, o/erki-iankera edo 'estiloa dagitenak. berarizko tankera, norbere tankera.*

Eta olerkariak, geienez, zein ifuritan edaten ote? Gogo barenea n, ala kanpoko lats ibil tartán? Bietan, noski. Olerki-gaiak, edo era/tik atera zerbait di/u, edota kanpoko gauzetatik artuak; aurki-bide auetara jo bear nai-ta ez gai eske. Ez ditzagun, ala ere, bata besfeagandik ¡ar urun ezari: eguzki musua /orean bezela, alkar nasi/a idoro oi dira, ta bear. Lirikar olerkiak aurenik gogo-muiñera begiratzen du,

epikareta antzerkiak landako gertakizunen bat abestu edo antzeztu oi ditue. Esana dut, ala ere, muga berdin-ezak eduki aren, ez dioaz alkafi sakaka. besoz-beso adiskide legez baizik, xede berdiñak e/buru dituztela: edefa adierazi. naiz baru naiz azal. Lirikuak itzez azaltzen dituzte gogai ta biotz-muiña. bide dan bezela nortasun osoa neurtitz-Jefoetan egotzirik; epikuak. befiz. ostendu fa gorde egin oi du nortasun ori, atetiko izatasuna guri ager- erazi naiean; antzerkiak, atzenez, gizarteko ar-emanak, griña ta asmoak. diran bezela gordin nai samur, gazi nai geza, antzez-lagunei itz eragiñik, aras bizi ta gartsuki begifarieratzen dizkigu.

Auetatik, zein ote dugu aufenen? Jakin ez. Hegeíek epikua daia dio; antziñako gizonak ez bai-zekifen barnera so egiten, izadira baizik, india'ko bedatar olerkariak esaterako. Baiña lirikuak ez zuan, aurki, kanpoko gauzak begiztatu beafik barne-zauskadak samur-samur adierazteko. Olerkirik zafenak. egia esan, liriku ta epiku dira, edozein erüan. Guk Perutxo ren kanta ongi barneko dugu, baita makiña bat eri-lelo zar ere. Epikurik ez bide genuen, igoigorik beintzat. Martin tiiribafen apezak bere Eskaldunak *(Baiona, 18531 ta Orixe jaunak alako* Euskaldunak *(Zarautz. 1950) edefa egin aite. Antzerki-sailean bai ba- ditugu geuregeure batzuk,* Pastoralak, *batez ere Xubero li'luragaftan oso egoki antzeztu oi zituzrenak, eta gaur ere olako euskal-jaietati ikusi ditzakegunak.*

Olerkia neurtua dugu geien bat, bertsoz idatzia. Ezta beafezko. ala ere, itz-banatze ori; ainbarik ere eder azaldu geni/zake gogai ta gauzak; Axular eta Txomin Agiré k, esaterako, itz lauz ari zirala, zein goxo ta olerkitsu idatzi zuten.' Maizenik, ordea, neufiz egiña izan oi da, ber/so ta ahapaidietan taiutua. Zergatik órela? Nork jakin! Bertsoa ren aizeari so ezkero, gaitz dakigu aren sorburura eltzea, bertso neurtu ori bagea baiño len munduko elerti guztietan daurkigu-ta. Antziña aldi aietan, gaur ere bai sari, musika ta dantzari itz egokia, neurtua noski, eza ft bear; guk gaiñera, berez bijatzen dugu an nai emen neurkera ta laiua, ta askozaz geiago mintzoaren bitartez gogoari ats eman nai dio gunean. Orain-zaleen artean ba-dira neurtu bear au olerkigintzarako elkortze ta kaltegafi zaiela diotenak; baiña negar-erosta au ez dut uste aintzat artu bear danik, neuriak ezpaitu egorik mozten, ez zoztofik jartzen. Benetan oler

kari danik ez da iñoiz ikaratzen bertsuaren gaizfasunari buruz, fa geienez ez du bape zail aurkitzen bide ori. goi argi ra indar baizik.

Jakite ta gai guztiak dituzte/ako, bertsogintzak ere baditu bere urats eta lege bereziak. Atzeki au gogoan izanik. arlo ori lotua dan euskal-neurtiziariak ere, iru gauza ok beintzat, ez ditu a/bora utzi bear: neuria, tarteko etena ta azken- berdintzea. Iru xeetasun auetatik batek uts eman ezkero, bertsoa ez litzake bikain.

Neurtzeko, zenbat bokal ainbat piko, silaba bikoitzetan ezik. Euskeraz geien erabili oi dana, edo mugaz andikoak beintzat asko ta asko erabili dutena, amairu pikodun bertsoa dala esan bear. Esanaren eutsigariz ar dezagun eredu au:

Lili bat ikusi dut baratze batean,
Desiratzen bainuke nere sahetsean;
Lorea ez du galtzera udan ez neguan,
Harén parerik ez da bertze bat munduan!

Bi zati oiek, dakusgunez, onela ezariak dira: 7 piko lenen, ebaki edo geldi-aldi bat, eia azkenez beste 6 piko. Ba-dira, ta guztiz bikaiñak, amabost pikodunak ere. Ortik gorakoak luzeegi ta gogortxo iifzaizkigu. Amazorfzikoa, ostera, aras ezaguna fa ospetsua dugu, baiña era askotara idatzirik Oneri iru geidí-une ezartzen zaizko: 5x5x&. Geie. net.m ez da binako ahapaldietan idazten, launakoetan baizik, ta. orduan zortziko nagusia berbera egin oi du. Ar zazu, adibidez. Árese-Beitia'ren oierki au. oso gartsu ta bioztia, bere guztiak be/.ela:

Agur iíun bat egin deuskue
Guraso zaien legiak,
Umezurtz batzuk gelditu gara
Bilosik foru bagiak;
Izan ba'giña eurak legetxe
Euskeraren zaliak,
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura ain miragariak.

Bada zortziko txikia deritzaiguna ere, zerbait ezaguna. Sei bertso laudun ditu ta biirudun, aiek azken-buíatze gabe ta auek itz ber di nez amaituta. Ona oiefako bat, Beñat Etxepare apezarena:

Ene gogoa/nola baita/zuzen jafi/liargana,
Harenere/Jaungoikoak/dakafela/nigana,
Ene pena/sar dakion/bihotzian/bafena,
Gogo hunez/egin dazan/desiratzen/dudana.

/. Vinson jaunak dionez. XVI ta XVII garen gizaldietan egindako neurtitzak, amabost oiñeko bertsoz daude, 4. 8 ta /2'garenean etena duielarik. Etxepare (1545), Elxeberi (1627), Harizmendi (1660) ta Argaiñaratz (1665) neuri onetan mintzatu omen ziran, bere iritziz. Baiña au ez dugu osoan egi. Etxepare'k bai, neurtitzik geienak neurkera ortan egin zituan; beste irurak ba-dituzte os/antzekoak ere, ta ez gutxi. Geiago: Oihenar/ eta Gazleluzar, mende artakoak izan aren, ez ziran sekula neuri ortaz saiatu.

Oraindik ere ezagun dugu zortzikoaren antzeko beste neurkera berezi bat, alegi, maite olerki ta zear-bertsoetan erabili oi dana: zortzi bertsoko ahapaldia; banakoak zazpi piko dituzte azken-berdintze gabe, ta biñakoak sei, azkenean berdin bururatzen dutela. Ba-ditugu oiekin nastean beste zenbait neurkera ere, oso erez-goxoak, seinakoak, zazpinakoak, bederatzinakoak eta amaikanakoak bereziki. Baiña aski dugu jakin-ezaugafi ariñokin. Ba-dira gai onetzaz ederki jardun dutenak; ikus J. Vinson, RIEV *(1923); j K. Gera,* Euskal-Esnalea *(1922); Orixe.* EuskaJefiaren Alde *(1930); J. M Leizao/a,* Estudios sobre la Poesía V*sca *(1951).*

EK. dugu, antza, azkenpikoetako berdin-amaitzea onen bearezko; ger ka ¡at iñak, dakigunez, ez zuten erabillen. Oraingo izkuntzetan bai. ordea, erabili oi dugu: gure euskera zarean ere bai. Azken urteotan ba-dira, ala eia guzti, olako tokirik nai ez luketenak. Auzi ontaz Orixe'k au dio: 'Xakuraren bertsoak Zaldubi'ren Xurikdz ari da— ba dute mamia, bai azala polita ere: xa mu fa, ma ku ra, mutura, hezu fa. *Biz batean ere naikoa zan berdin-bukatze ori. gure be/ari gaizki oituentzar ere. Batere bage litzake obeenik, baiño ez genduke etsiko... Azentu indarduna, gutxi edo asko beara da bertsoak neurtzeko edo irakurtzeko. edo ori gabe nekez irakuri ditezke gure bi zor/zikoak. Baiño azkeneko silabaetan berdin-bukatze ori, nondik sortu da? Tartean bear du bertsoak neuria, tartean; eta azken ori, tarte bat besterik ez da; askotan bertsoa zatitu bai-liteke andik edo emendik. Azkenenan ez dago buruz malda jo bearik. Berdin-bukatze onen kontra ari nindeke neke bage. Euskeraz edo erdeíaz*

ere diran bertsorik edefenak. ofek ilxustu ditu. Gure belo-ri/tk. ordea, ostera /aririk daudela esango didazue. Minga f i da! itzen berdin-bukatze ori. bi/atzen aritzea baiño ez ari-tzea obe ta efezago da; ta lefoxka aldioro baiño biz batean eratsuago; ta silaba berdiña baiño berdinlsua erezago: ta bi silabaetan baiño balean erezago; ta silaba osoan baiño azkeneko boknlean *erezago. Aspaldiko gerka-laliñak etzuten ofelara ¡o bearik. eta makar aundia zerizkioten bertsoan berdin- bukatze ori. Baita gaur bertako erderan ere itz aska-tuetan ari dirala. Gu ere oitu gindezke. tarteko neuria ona izan ezkero». Ikus* Euskalefiaren Alde *(1930), 166 of. Esa nak esan, orain arteko euskal-literaturan beintzat, olerki gutxi ditugu azken- berdin tze ori gabe.*

Arestian ikusi dugunez, bertso-moiarik asko dazaguz euskeraz, batzuk luze, beste baizuk labur Zeintzuk obe? Poesi-sorburura jo ezketiño, an naiz emen, neurkin motza duzu leendik; orlaxe gerkafen eresi ta maite kantak, orlaxe kloka *sanskrifafak. ela antzekoak. Gure arfean ere Lelo'ren kanta zafa zortziko labufez egiña: geroago eldu zaigun bertso ta poesi luze miña. Txiki ta labufa nainoiz zaigu irakur gozoa go, au egi uisa. Baiña gure itz neurtuetan, da-gokien lekuan ixil-unea egin ezkero beiñik-bein, ez dugu bal ere olerkirik luzez gogaikafi zitzaigunik Saiatu bitez, ba, gure olerkariak nai luze nai labur; baiña saiatu beti neurtitz efez goxo bikaiñez.*

Norbaitek esango dit: Zertako ote euskalolerk/a? Ba-dira or-emenka, barnea olerkiz ustea txaldankeri etsi oi dutenak: zentzun ufi erakus, antza, arazo orlan diardugu-nok Adi, ala ere, Lizardi argian'; naiz-ta luzetxo izan, gai oneri buruz berak diona emen ezafi nai dizuet. 'Neurtitza —dio- edefik da, ta ulermenak ezin asma dezake bere emaitz joria jaulkilzeko era atsegiñagorik. Neurlitzaz ez-tala, alegia, ¡ende xeea mintzatzen ? .. Baiñan, izkera berdiña bear ere al dute eguneroko gora-bera utsak eta egiazko olerkariaren amets eta ikuskizun goilafak?. . Olerkariaizun askoek neurtitza nardagafi biur omen dute... Ta olerkari banaka batzuk, befiz, mintzabiderik eztien. Zenbait also Ia gizonen jardun txotxoloei begiratu ezkero, aren mintzatze utsa ere iguingafi etsi-beafak giñake. Izneurtuetan beie-gafi edo <ripio> askotxo oi dirala .. Olerkari motzak oi dute ori ere. Ta zer dafaika oferi? Izneurgintza eginkizun gaitza

*dala, argi-aria arkitzea erez ez izaki antzo. Baiña, argi-aria itsusi danik?... Azkenik, esan-alak entzunik gera oskidetza edo *rima> dalakoan buruzki. Jakiña. neurtitzak eztu berezko, ez bearezko oskidetasun ori. Gabe ere egin izan dira ta ba-ditezke egin neurtitz eder askoak; agian ederagoak. Baiña, berez bezela, esaldia biuritu gaberik, olerkariaren antzetsuz datofenean, belariak, egia esan, eztu ain gaizki artzen»,* Itz-lauz, *35 or.*

Bai. olerkaria ezta edozer gauza, bearezko duguna baizik. Gizonak itxia izan oi du geienez bere barne atea; naigabe-lañopean aurkitu aren, ez du deusik esango, ez agerferaziko; ¡ria/gara gabe darama biotza, itxas ondara bezin mutu ta zital. Nork antz eman zer gogo dun ? Olerkaria, beriz, alai ta zintzo dagerku beti; ez du sekula erio-antzik, ez itzalik; zorion ateak iribar gozoz idekiak dauzka; barnea ere, dan giñoan, asmo ta arnasa egiazkoz azaltzen du. Berak abestu oi ditu, neurtitz berotan, Jainko-siñesmen argia, gizabiotzeko maitasuna, sorterriaren oiu latza, eriotz- ukaldi bizia, guda-ekintz arigariak, eta ebar. Gurean ere, zenbat olerkari txukun diran, gai eder oiek gogoan izanik, konta ezin-ala neurtitz zoragari osotu dituztenak! Aitzol jaunak ederki: 'Euskalerria, biotz-naiaz aberatsa dalako, olerkari ugarien sorlekua izan da. Baiño, zenbat olerkarien, bertsoak ez-ezik, izen utsak ere galdu dira?>*

Olerkaria eder-zalea da, ta porrokatua ala ere; edera du gai bere antze-lanefan. Zer dugu, baiña, edera? PJaton'en iritziz egiaren antz dirdaitsua. *Órela egi oro eder, esan genezake; baiña ez gorderik iakaripean bezela, egiña ta dirdaifsua baizik; augatik esan zuan Hegeí'ek egia sumagariro agertzea zalo edera. Bitarikoa dugu:* sortzezkoa, *ots, Jainkoak sortu ta izadian eurez barraiatua; ta* aamaiuzkoa, *au da, gizonak asmatu ta egiña, ertí-lanetan ageri dana. Edertasuna gauzen arima omen da', izadikoetan Jainkoaren aztarena ta asmatuetan gizonarena. Ta gizonak begiko du beti ere bere arima eder agertzea. Nola baiña? Ba-ditu ortarako almen bikaiñak. Jainkoak emanak: ezagu/nen, asmamen, irudimen, ta abar. Oien bitartez, zernaitarj erabíli oi du edozer, edera adierazi ta antz ematean bereziki. Antz emate ori askotara izan diteke; obeto: gizonak bere arimaren edertasuna ainitz eraz agertzen du; argiñak mukuiuz, margolariak kolorez, musikariak ereskiz ta izlariak mintzoz. Sail*

guztiotan eder-eraiñuak dizdiz egiten du, argi^begiaren antz era.

Ata ere, antze guztien artean olerkia *nagusi; oro baitago bere mende; adimenaren sorpen sakon ta biotzaren zauskada me ta zorotz, oro du bere agindupe goxoan; ez du mugarik ezagutzen, itzaren bitartez baita zer nai uraxe adierazteko aiña. Ez uste oraiño edonor olerkari danik, goiargiak ikututa antzezko edera sor daroana baiño; ortarako gai izan bear: asmamen joria, biot'/ondo samura, eder-sen bizia ra esaera txanbeliña bear diru olerkari danak. Gaitasun oek. doai ederok erdiz jitetik ta erdiz ikastetik daiozkigula esan bear. Sortzeiik ezpa-dugu ezer, nekez izango olerkari egiazko; baiña Jainkoagandiko eder jit-izpirik ba'dugu. doai orí azkarru, argitu ta berotu dezakegu. Mendierpin jaikiak ez dute obeagofzerik; beti dirauie erlantz berdiñean. Guk. ordea, sortzetiko gaitasunak ugaritu ditzakegu: idurimena bide zabal artezez zuzendu, giza- barenari so ondoren edersena osotu, biotzzokoa goisuz pizkortu. erti-fegeak ikasi ¡a norbere setaz bat datozan ereduak irakuriz idaz- tankera berezia iritxi. Eguneroko jardunak ereztasun izugafia eman oi du.*

I*I*. Euskal-olerkiaren edesti apur bal. - *Euskaidunok. ezinbesfeko /uralde ontan jakin ez noiztik bizi garean. Barandiaran jaunak, gureieizear fzuloe/ako irudi-aztarnak begipe ditula, au dio: «Euskalefiko gizonaren bizkera ta gogo/antzea goien paleolitos-aroaren asieratik gaurdaño oso berezi ta bakarekoa izan da, ta bitarte onetan eri aldaketarik emen ezagun ez dala, argi adierazten digu Arkeo/ojiak*. Ikus* 6uskalefiko leen-gizona *(Donostia, 1934). 24 or. Garai ori igaro zala, batzuen iritziz. amalau mila urte dira; beste batzuentzat zazpi edo sei mila bakarik. Dana dala, eri bakoitzak bere gogo-lan tze edo kultur jakintza bedegafa du, ots, esku arteko lanbide ta asmaktzunak, adimen-argia lagun, landu ta egokitu oi ditu; ta ortik sortzen gero, lanerako tresna, erJ-balz, erfi, jakintza, ta abar. Gure oraingo gogo-lantzearen zati batzuek, ordea, edesti auretik edo goien arotik datozkigu, garai artako lofatzak dira.*

Eta onek darakusgunez, aldi zar artan ere. inguruko erten aidean goi ta galen genbi/tzan gu zemaitako erti-lanean: margoz egiñak ditugu ikusgarienak, bai eta ariz, ezurez ta adarez e$ku~tramankuiuetan moldaturiko antz-irudiak

ere ba-dute zer ikusia. Ala ere. ezerk baiño geiago gure nagusirasuna dirdaitsu jartzen duana, euskal-aditz zoragafia noski; ez. euskera ez dugu nainork asmatua. Gaiñera, guztiz egokia biita eder-lanetarako; ta gaitasun berdiñez ageri zaigu, bai orduan bai gaur. Begira, ezpaere, edesti auretik datorkigun aoz-aozko elertiari. Gure bertso zarak nun dute sorf oe? Edeskiaren len atal itun ixillan, aurki; aoz-ao el zaizkigu, ordutikoak izan aren. Ta nola sortu? Or gaur ere gure bertsolariak. Olaxe du asiera gure eri olerkiak.

Gaur, idazte ia irartze gabe, ezin diteke elertirik, zen bailen ustez. Ez da ziur, ordea, idazleak ainbat garantzi duanik: eri-elertia zer oso antzetsuz gaiñezka daukagu, ta guzti au aoz ao el zaigu, batere idatzi beafik gabe. Ez zan gure auretiko euskalduna, bere gogai ta biorz-zarastak agertzen atzekiana; trebe ta an/ze/ari zan, gu heste edo geiago; idatzia ez zuan ezagun, ra aoz-ao iraun-erazi bear asma ta kantuz erauntsia. Euskaldunari beti izan zaio atsegin aotik aora eman elertia, baita irarkola asmatu ondoan ere. Órela gure ipui zarik asko. Juan Kurutz Zapirain bertsolariak etzekian idazten ez irakurtzen; ala ere. zenbat bertso dituan, Brabante'ko Genobeba'rena esaterako. Poema onek 163 ahapaldi ditu zortzi bertsodunak, eta guztiak buruz egiñak; bear gaiak negu otzez sutondoan emazteak irakufitakotik artu Ia lo bitartean ahapaldiak eio. Ogei ta amar urte geroago ere. entzun nai zion edozeñi osorik bir esateko ez zukean iñoiz nagirik. Au eia bost, onelakoxeak dituzu gure bertsolari aipatuak.

Ta noiz-koa ote dugu guk olerki zarena, idatzita? Jakin ez, ziur beintzat^ XIV ta XV'garen gizaldietan ba-ditugu eresi batzuk, bertsoz egiñak; eri kanta zar asko ere ordukoak direan/k ezin ukatu. Euskaleiian, noiz eta garai aretan ere, naste biuriak izan ziran, baitik-bat oiñaz ta ganboaren artekoa, ta gudu naste auek bide ainitz eratako epikar olerkitxoak sortu. Ta taiu oretan tobera, olentzero, maia ta eska/e-kan/arik asko ta asko.

Antziña gaur baiño bertso-zaleago zan euskalduna. Lekuona jaunak dionez. edonork zerbait ikasia ba'zan, ber' fso-gintzan jardun omen zun; ta bertso oiek geienez, eresi ta negar-kamak zenituan. Esj/erako. XV'garen gizaldiz Alos'ko Usoa andre aundikiak Deba'n eta Lastur andera ñoak Arasate'n abesturikoak. Arlo oneri lotu oi diranak, ala

ere, ez ditugu nolanaikoak. gizon prestu, trebe ta landu-xeak baizik. Gure eriak badu sen berezi bat bertso jasotzeko, ta bertsolari ez uste beretzat nornai danik; ez dauka arta-kotzat ahapaldi batzuk buruz ikasi ta abesten dakiana; beste zerbait bear du: asmamen zorotz, berezko et ori. esaera txingartsu. Olakoaren aurean bai, oro begi ta belari, giza taldeak dio: Au iñundik ere bertsolari dugu! Ta órela sortuak gure kanta zar geienak. Jakin ez damurik nortzuk diran egite, euskaldunok Iotsor gera-ta; idaz-lanen bat argitara-tzekoan. ez dugu bosfe/ik bein geure izenez agertzen, or-dezkoz baiño, ta auek sari bi ta iru dira. Ta gero nork antz eman norena dan? Ta zabarkeri origatik. zenbat gauza eder gure edesti auts artean! XVTgaren mende aufetikoak dira ziurki gure Pastoralak *ere. Baiña, zein urtetakoak gutxi gorabera ?*

Irarkintza asma ondoan argitara emandako euskal-olerkirik zarena. Perutxo'ren kanta noski, La Tercera Celes-tina *(Toledo, 1536) deritzan liburuan Menendez Pelayo'k estalgetua ta gure Urkixo jaunak ederki adierazia. Andik bederatzi urtera, beste euskal-liburu bikain bat agertu zan: Beñat Etxepare apez jaunaren* Linguae Vasconum primiiiee *(Bordele, 1545), euskal-izkuntzaren leen-zifuak. Etzan au, egia esan, gizon epela, argi ta entzute aundikoa baizik. Liburu ortan ba-ditu jainkozko zenbait poesi, baita maite-kantak ere; batzuk bear bada godintxoegiak apaiz batentzat; gero, Bearne'ko presontegian, zio gabe antza, giltzape sar zutenen kontrako bertsu minkorak; ta azkenez, dantzarako bi abesti euskal ele zara mundua zear jauzkari ikus nairik. Liburu onek ba-ditu bere akatsak, baita zenbait obari ere; akatsak: izkera baldan ta uria, luze-zale ta garatu gabea; obariak: neurgintzan ereza, barnea agertzen zintzo, eri-maitale ta bide beriz doana.*

Ona emen XVII'garen mendearen asieran Noiakoa gure euskera zararentzat? Ona esan bearko; garai onetan asi zan beintzat mende ¡uzeen lo-zofotik zerbait esnafzen. O/erki-saíla etzan gaizki landua izan. Naparu datorkigu aurenen, an baiditugu bost neurtizlari orduko aski baliotsuak: Pedro Ezkura, Migel Aldatz, Joan Eliza/de, Martin Portal ta Ofeaga ko Andre Mari'ren kanta egin zuana. Iruña'ko Gotzain jau-nak ¡ai aundi bat antola zuan, 1609'an, Aldareko Gorputz Saindua goratzeko asmuz, baita olerki-norgeiagoka eratu

ere. erderaz ta euskeraz. Lenengo irurak saria jaso zuten; laugarrenak etzuen noski eskularurik nai. Egiaz omengari d. gu batza/di ura.

Geroxeago, Laburdi'n. Joanes Etxeberi ziburutarak iru eleiz-Iiburu atera zituan bertsoz: Manuel debozionezkoa *(1627).* Noelak *(1631) ta* Elizara) erabíllzeko *(1636). Danak izan ez aren eleiz-abestiak, asmu txalogaria berak erabilia: Jainkoa on eta eder danez, guk ere Arekiko oroitz Jardunean ederki ekin bear. Bs-dítu banaka-banaka bertso gogor samarak, baiña mamiz aberats, gartsu ta sakon zaigu beti. Ta Xubero aldean, aldi onetan erpiñeraño igoa. A ¡Iende Oihenart legegizon argia dugu; mauletar onek etzun askorik idatzi. olerkiz beiñik-bein, baiña garbi ta gizonki bai Bere euskafliburu aitatuenak zati bi ditu: 1)* Atsotitzak *edo refrauak. ta 2)* O'ten Gaztaroa neurtitzetan *(Paris, 1657); danak ez dira bere-bereak, Katul, Tibul. Marot eta beste batzuen negar eresiak euskerara irzu/iz, gure izkuntzaren efez-ugaritasuna ager erazten saiatu zaigun-eta. Olerkari yaukal zuberotar au, ala ere. edera ¡aso ta eskeintzen zekiana; naras antzo ibili aren iñoizka. Argia poematxoan Joana bere emaztearen il-eresia, lau karbariena ta abar, ez dira nolanaikoak.*

Bi eguzki oien biran dabiltza beste auek ere: Migel Sueskun jakituna (1625), S- Pouvreau, Doktrina kristiana *(Paris, 1656) idatzi zuana; K. Harizmendi,* Ama Birjiñaren Ofiziori *(1658) bertsoz euskeratu zuana; Argaiñaratz,* Deboten Brebiarioa'ren *(Baiona, 1665) egilea. Baiña XVII'garen mende azkeneruntz olerkari goi-arnasez betea, Aita Beñat Gazteluzar dugu. Bere liburu oso ezaguna.* Egia Katolikak *(1686). guztia bertso arin gozoz egiña. Etxeberi apezak eta josulagun onek, eguneroko gauzarik afuntenak, lan, jolas, antze ta abar, otoitz lufunez kutsutu nai zituzten. Ba'/iteke olerkari sakona ez izatea, baiña bai txukun, garbi, zernaitako ta ongi neurtua. Ego-ukaJdi bat Iruña'ra ta an aurkituko olerkari bi zokora eziñak: Aita F. Aleson ta J. Agiré (1665). IV Pelipe il zanean, aren gorapenezko poesi-egileak.*

Itxasoaren antzera egin oi dute eleriiak ere, gora ta bera, gaur jaiki aldi azkar, biar etzanaldi alper. Aureko mendean, ikus dugunez, esnatze edera izan zuan euskal-olertiak; baiña laster etzana ere, negu-eguzki gisan. XVIII'garen mendea oso erkiña dugu, olerki arloan beintzat; urte luze aietan barna ez zaigun batere goragaririk jaiki neurfizlarietan.

A. Th. Abbadie lapurditar jakintsuaren taguntasurez, asi ziranean, mordoka ditugu olerkari jagiak: Agustin Etxeberi, Lafafde Bordaxuri. Arosagarai <Borde/,j. fiiriart, Laralde sendagilea, G- Haroztegi, Borda apeza, Gilbo, Oibert,* A *Mendibil, Darupetiarluxi, Dabid mirikua, Elizalde Tipi. Betiro Olhondo, Duvoisin kapiraina, Xalbador, M. Egiategi, Berjes. tiarispe, Dukos sendagilea; fa auek baiño bikaiñago: J. M. Hiribafen apeza, /. Otxalde Beskoiize'ko zapataria Dibafart Jatsutara, Elizanburu gudu-gizona ta Adema-Za id ubi kalonjea. Ta azken biok bikain-bikaiñen. Nork ez itu abestu, ta gogotik.* Nere etxea, *edo* Iragan beste biharamunean, *ede* Aingeru bali, *edo* Xori beriketaria? *Aren esanaren gozotasunak samurki lazíantzen gaitu; zintzo ta bakuna aldi berean, ez du iñundik ere alozik; biotzez ¿Iguin, goga/z jaiki, auxe dugu Elizanburu kapitaina. Zein goxo senti zuen euskera* fa Eu&kalefíko gauzak? Za/dubi"k ere aren gazfe-lagunak, bere kanta ta ipuiak, bere eleiz ta en-abestiak gizonki landu' zituan' irakur) bere edo-zein olerki, ta guztietan aurkituko) duzu alako- indar berezi ba?, olerki-ma min et ik jaiki fa eztigari zaigsm zerbait. Onexek dira, nire ustez, mugaz andik orain arfe sortutako olerkaririk a andienak, gero ei zaizkigun! Barbier. Oxobi ta l/uralde bikain izaki.*

Poesi-gara tze lerdena, dakusgunez. Baiña erra gauza/ bat:, asko edo gtitxi guztiok gara eder-zah. ia olerkari, ortarako azia danok daramagu barneam; gaitasunak. osfera$_{V}$ ixilaz'r oi ditugu sari, argitan azaldu nai ez kirikio temaíii antzo. Labur: norbaitek aizatu bear ezer egiteko, ta aizatzaile oriek, jainkoari milesker, etziran palta XlX'garen gizaldian An emenka begirari zeuden euskaltzale porokatw ta zuzpenzate bipiták: Bonaparte. Vimson, Abbadie, flariet^ Duvoisin, IthuH, trabre, Intxauspe, fa abar. Abbadie jaunak^ enddrgauzetan bezin ikasia euskarazko gaietan ere, zenbat nai euskai-¡ai, sariketa ta nor geiagoka eratu zituan, geien bat bere sakelez ta urgaziz: Wruña^ñ (Í860-62-63 6S.)$_{V}$ Sara'n(t8.66-67-68),Donapaleu'n(1877). Elizonde n{1879),. Maule n (1.880), Markiña'n (1885), Durango'n (1886), Gernika'n (1888), Uztaritze'n (1.892)-, Donibane Loitzun'en-(1894), Nazparne'n (1895), Maule'n (Í896), Kanbo n(í89€),. Azpeifi'n (1893), Sara'n (1897), Oiartzun en (1897), Zesíua'n (1898), AramaioTn (1-899), ta aba/r. Giptxzkoa'n ere baziran, egia esan, euskera maite zuten gizon ta. eúi-seme

leialak, J. Manterola apaiz argia ta Euskal-Efia *amaboste-rokoa sort zutenak batez ere; gaiñera, andik laster. 188Tan Euskal Lorejokuen Bazkuna eratu zutenean, alkarte onek bere lepo ar zuan ia urtero euskal jolas ta sarikefak egitea. Batera samar Bizkaia aldean berebat loa astinduz zioazen. Bilbao'n euskahalkartasun bat sortu ta olerki batza/diak antolaturik. Azkue jaunak berekiko* Euskalzale *(1897-1899) argitara eman zuan, ta ondoren* Ibaizabal, *Bustintza'tar Ebaista ^Kirikiño* idazle trebeak lagunduta. Makiña bat neurtitz agertu zan biotan. Napafu'n ere, naizta gure iz-kuntza gaxoa /urak jota euki urteetan, Aranzadi, O/oriz, ituralde. Kanpion eta beste euskaltzale zindo batzuen ar tean, Euskal-Alkartasuna zeritzaion bazkuna osotu zulen, baita bertso-jaiak egin ere, Elizondo'n lenena, 1879'an. Afese-Beitia gartsuak an egin zuan bere agerpen zoragafia;* Ama euskerari azken-agufak *lensariz omendua.*

XX'garen mendea. 1882'an asia dugu aurki euskerari aukerapen galanta eman zion piztu-beafa. Ta indar ezanze au nundik norakoa dan jakin nai izan ezkero. Abando' ra jo bear, an dugu gizon bat zaintsu ta bizia. Arana Ooiri tar Sabin zeri/zana. Onen al ta eskuarteari mila esker, goiz-eguzkiaren eraiñu antzera, Euskalefiko zokorik ezkutuene-iara elduko da arako bero ixil biguna. Etzuen asko idatzi idazle bezela, baiña ark idatzia ez dezagun narda. Entzun Orixe jaunari: <Noizbait ari izan aren, ez da euskal-idazlarí izan; utzi zigunfxoa, ofegatik, ez da galtzeko. Jeau-Krislo' ren Nekaustea *Mateo Deunaren araura.* Lenengo Egutegi bizkaitaía, *ta poesi batzuk daduzkagu burutan. Ez polilikaz ba ka rik, bai idaz- tankeraz ere i ¡doa ufa tu digu Euskera garbitzea ez~ezen, euskeraz burutapen sendoak agertzea izan zuen xeede ta asmo, ta garai artarako iñork ardietsi zezakena ardietsi zizun... Andik onata euskera aufera doa, arek eman ziztua geitzen dularik. Ez dakigu ¡len ote den, agian ez, baiño biziko ba'da, geroak esanen du Arana'ren bultzavaz noraiño diteken gure mintzo ta literatura*.* EuskaJ-Esnalea, *1927, 151 of.*

Berein gauza zebiltzan esku tarte ta gaitz orotan gaiñe-ko ir/etea. Euskerari buruz ba-zuan gar berezi bat: zeuzkan lizun, erdoi ta apakiñak xautu ta soiñeko dirdaitsuz jantzi. Iritxi ote? Osorik ez-ta ere, naikoa bai Itz lauz ta olerkiz sala zan ortarako. Bere neurtitzak asmo ta arnasa aundiko

*ditugu. Eleizalde euakaftzaindikoak argitaldu ziruan. 4 ereserki, 8 i/ots etñ IS abestiían banandurik; aren itzaurean onela mintzo da: *Goitar dabil beti, aranoa egaz bezela. olerkari bikain aunen oldozkuna Lureko z<rtzilkerietan ez dozu iñoiz idoroko. Bere askua ore/akoxea izan zan. eta asku ori egikunetan ¡gari bear, nai ala ez... Euskel ertiai?. oraindaño, aunelako gutxi txo sortu da. Árese ta Beitia'k olerki geiago egin ebazan, ez baña obeak; gozoagoak, samuragoak agian; ez baña kementsuagoak, ezta gizonezkoagoak.* Lenago il *irakurzu. aren** Olerkijdk, *(Bilbao, 1919).*

Onek ezar/tako suak piztuta, zenbat jaiki zirean gerol' Zingira baketsuara zotz naiz ari bat jaurtzen baldin ba' duzu, ango urak oro nasi ta ikara dagi te bai-batez. Olatsu gure elertían ere; igi bizkortze bizi bat sortu zan, oneranaia, leia zuzpergari bat; ta argia eguzkiari bezela, abandotar ari zor diogu obera-bear oren as tapen eragiiea. Orduan azaldu zazkigun or emen ka gure ele zarari adore berezia arerazi ziotenak; eta, jakiña, olerki-sailekoak etziran atzenengo; beti ere, esan dugunez, oek bai-dira izkuntza berpí/.tun dutenak, geienetan beintzat.

Aldi berean ager zazkigun, lenak itzali aren, aldizkari beri indardunak: Bizkaitafa, Euzkadi, Euzko Deya, Jesus'en Bioizaren Deya, jdungoiko-Zale. euzkerea. Ekin. Krirrren'go Argia, Afaii'ko Deya. *Bizkaia'n bakarik Eta guzti oietan —egia aitor dezagun- idazle bikaiñak ziran bai iiz lauz bai olerkiz ziardutenak. Olerki-sailekoak baiño ez aitatzeko. J. M. Etxeita, ainbat ele-ederen jaube; Zamaripa apaiza, geroago euskaltzaindikoa, ainitz bidar sariztatua. ber/00batzaldietan; AizkibeldarBingen'ek bere* Ureixindora *(Bilbao, 1918) olerki sorta polita damagu, garai arfakorik onena, apika; Dabid erregearen eresi mordoa euskeraldu zizun Aita Ariandiaga'kij. Aregi'k, Heine'ren olerkiak; Etxebari, Altuna, Arue, Gallastegi. Eraz ti ta abar, eri kan ta ta seaskazkoetan jardunak dira; Bustintza', gure ^Kirikiño* jatorak ere ba-dauzka bereak; ezin kon-ala Enbeita anaiak egin zituztenak; Gabirel Manterola idñzle azkarak bere* Goi-izpiak *(Zornotza, 1924) argitara eman zizkizun; baita Maruri abak ere bi liburu oso txanbeliñak:* Biotza abeslari *ta* Lilitxingar *(Tolosa, 1928). Ta gero.* Euskaltzaleak *bazkv nak bultz eraginda geien bat, ¡zarak bezin ugari ditugu olerkariak, eta askotxo bikain-bikaiñak: Urkiaga, Lontzi Aba,*

Erkiaga, Onaindia, Zidofa, Erletxue, Batiz, Atutxa, Muniategi, Goiria, J, Manterola, Gefika-Etxebafia, Aufaitz, Arteaga, Mañariko, t. a.

Gipuzkoafak beren aldetik etzebiltzan iñolaz ere zabar ta nagi. E. Árese olerkari jatofakgizaldiaren asiera-izpiakin baten atera zuan bere len-olerki-liburu Nei e bidean *(Tolosa, 1912); aurkezpenean onela dio: 'Udazkeneko txori-negafak orbel tartean banatzen diran bezela goitifz-osfo zurbil oietan mintsu dijoaz —ez dakit nora— nere biotzeko eresirik geienak*. Aldizkarietan bikainki idazten zutenak ba-ziran: Intzagarai apaiza, Efenderi Aba, EItzo, Aita Aruti, Aita Altzo-Azpi, ta Iraola bereziki. Garai artan, gaiñera, aldizkari befi bat agertu zaigun,* Euskalefiaren alde *(1911), laster aituko zan* Euskal-EfiaVe/7 *ordez. Kanpion, K. Etxegarai, Txomin Agiré ta G. Muxika tarteko zirala. Onek ere, antziñako oiturari jafaiki, poesi sariketak jai edefez osotu zituan. Ondáfabi'n lenena (1914), naiz-ta zoztor latzak goi/u bear; Eroman .Intzagarai apaiz jaunaren* Afantzale baten ufumak *sarizfua. Orduan faikitako olerkari bikain EItzo ta Efenderi ditugu, noski. Ta ondoren aldiz aldi, J. Elizondo, Irure, L. E/iza/de, Beroa, Aita Bera, Garmendia, J. M. Mokoroa, 'Teñe*, Sagartzazu, Oñatz-mendi, Ezenafo, R. Azkarate, Iruzubi, Argarafe, ¡maz, Luistar, Liligofiaga; Urtsuia, 'Zubigar', Sabiaga; ta goien maiiako, 'Lizardi*, Jauregi, Lekuona, 'Orixe*, Jaka-Kortajarena, 'Loramendi*, Tapiaperurena, Zaitegi, Lo/di, Gaztelu; ta azken orduko auek: Aita Iraizoz, Markiegi, Urkidi, Zugasti, Aita Arin, Kerexeta, Etxaniz, Aita Mitxelena, }. M. Lekuona, Monzon-Olaso, 'Basafi*, F. Arto/a, Aita Alus/itza, Agefe, Efezola, Basurko, Irigoien, t. a. Ba-zuten nun idatzi ere:* Basefilafa, Argia, Euskal-Esnalea, Zeruko Argia, Yakintza, *ta gaurko* Euzkogogoa, Gernika, Egan, /. *a. Oien ofia/deetan ari izan dira geienok, bizi ta gartsu. Amaika bertso eder argitara zan,* Euskallzaleak *olerki-egunak ospatzen asi-ta gero! 192H'an sortua dugu alkarte au, Euskalefi osoa zutik /ari zuena. Zenbat lan eder euskera alde! Berak eratu zuan lendabizikoz Efenderi'ko euskal-poesi-eguna, gero ere sei urtez beintzat jafaiturik or-emenka, ta beti indar geiagoz. Ara bidalitako olerkiz liburu txukuna osotu zuten, baita ufengo urteetan ere; onela Aitzol jaunak itzaufean: 'Eusko-elertia, ordea, guztion laguntz leial beafean dagoala-ta, 'Euskaltzaleak**

bazkunak ere, urte oro olerti-batzaldia egitea erabaki du, zilarezko aritz abarlxoa saritzat ordainduaz». Eusko-olerkiak *(Donostia, 1930), 12 or. Ordukoa duzu Lizardi, olerkarietan nagusi, nere ustez; ordukoak geien bat Orixe, poemaetan punterengo, Jauregi, Loramendi, Zaitegi, Etxebefia, Tapia-perurena, Gaztelu... eusko-e/erti-pjzkunde egunetan sotil bezin zoragari agertu zaizkigunak.*

Mugaz bestetik gure anai lapurditar, zuberotar ta baxenapartar maiteak ere ez zeuden lo; an zan Eskualduna *asteroko pinpiriña, irakurgai sakon atsegiñez bitxitu oi zutena. Baita* Gure Hefia *ere, J. Barbier Sanpereko ere/ore jaunak, 1921'an, sortua. Biak dituzte bertso samurak beren onetan. Aipa ditzagun noizka agertzen diran olerkari izen batzuek: Bekas idazle zorotza, Jean eta Leon Barbier anai biozti ta bakunak, Zerbitzari, Eramuzpe, Etxamendi, Saldunbide, Bidart. Leon ta Ithufalde apezak, aras eztiak biok, Has to/', Hegiapal, Ohitx, Oxobi alegigile zalua, L. Jauregi, MáTin bertsolaria; Etxahun, Iratzeder Beloke'ko lekaide a./for-semea, Ligeix, Babak/', Pei/en, Sa Ia ber/' apeza, Kruwing, Mirande, ta abar. Guztion olerki edefak dauzkagu antoloji ontan.*

Izenak aitatu besterik ez dugu egin itzaure erkin ta erage au barna; ala ere, argi ta garbi dakusgu gure o/erki-sai/a noiakoa dan. Ba-dira gazte ta zar, bai buruz bai biotzez, goitar indar meetan jori ager diranak. Eta nai- ta- ezko ditugu auek euskera Jasotzeako, gure elertían mendu gazteak txertatuaz sendotzeko. Oiek, beraz, sutatu ta gar gorítan jari bear. Orain ere garai egokia dugunik ezin ukatu. Entzun Aitzol jaunari: <Gure sorterian —dio— olerkoriak, eta ugaritsu, ale mardulak bezela, sortzen ez ba'dira, euskera loretsu, kemen biziz indartua eta euskaldunen ezpaiñetan iribar antzera ikusi bearean, oraindik argal eta beartsu luzaroan aurkituko degu. Olerki oparo ugaritsu gabe euskera ez da ernaituko, iñungo izkerarik poesi-neurtitzik gabe garatu eta sendotu ez dan bezela. Ele apain, bigun, biur'/, irudiz erez, adiz sakona, idazle ¡umetatik arin, aizetsu eta ¡eun ixurlzeko euskerari beste biderik ez dagokio. Izkera-langile bearenekoak, olerkariak dira. Oiek ele gogor eta gordiña, o/aefan burni goria meetzen duten eran, bizkortu eta gozofzen dute; oiek irudi biziz, asmaketa zorotzaz, eta amets- ereduz aberas.'utzen dute; oiek itz joskera beri-arigariak sumatzen dituzte. Idazleak aisago eta erezago ibili ditezen, olerkariak,

erdikaldi nekeak igarota, buru-auste goriak ikusita, izkera-ren bide zabalak idikitzen dituzte, izkera guzien laraldeetan sasi eta Zarak garbitu dituztenak, soroefan azia lendabizi erain dutenak, olerkariak izan dira. Rapsodak zeritzaioten bertsolariak, aspaldiko greziera edertu zuten, tiomero oler-kari ospetsuenari argi eginaz. Onen Odisea latinera Livio Andronimo'k biurtuta gero, Erowa'n lenengo olerkaria Kinto Ennio sortu zan, beste edozein idazleen aure zala. Sizilia eta Toskana'ko bertsolariak italiera iñork baño len oraztu zuten, Dante'ri bidea ereztuaz. Prantzi eta Probentza aldeetan, ba-tez ere, trobadore bertsolariak gerozko olerkarien ^u^rj bezela ezagutu bear lirake. Españeraz asi^rali'agertutako erYffóñ'éria FJ Mío Cid, *eresjj dakusgu, h'émani'n Martman von Auek egiríddko zaldun olerkia antzin-antziñako doixtar idazkitzat aitortzen dute, eta lendabiziko idazle bikaiñentzat Klopstck olerkaria. Zeintzuk inglandera apaindu eta ugaritu ote zuten* minatrele *zeritzaioten koplakarlak ez ¡zanik? Sha-kespeare eta Milton, antziñako il-idazle áurenetakoenak, ez ote ziran olerkariak? Esko/zera baztertu eta ezetzia, Burns olerkariak bezin egoki nork goratu ote du?Nork Eskandina-bia'ko izkera, antziñan, der Vondel'ek aña landu, eta orain-goan íbsen olerkariak bezela Europa guziaren aurean, ain sotil eta zoragafi azaldu?... Ez, ora or bide bakara. Euskera piztu/zea nai izanik, eusko-olerfia zabaldu. Olerkariak go-ratu, txalotu eta indartu bear, euskera eder-sendoa nai ba' degu».* Eusko-olerkiak, *(Donostia, 1930), 4 or.*

Aitatze luzeegia bear bada, baiña egi utsa.

Nundik-nora ibili naizen, olerki-mordoska au biltzeko? Gai asko/an ditugu oindiño sasiz ta lafez bideak, uratu ta nasai gabe; ezta olerkj-saílean ere, ez dugu izerdi-patsik atera, esatekorik beintzat. Amaika bertso eder bada or libu-rutegi edo arasa bazterefan sitsak janda, lizunak urdinduta, batez ere azken igaro gizaldian zein-geiagokoak sortu ezke-ro! Oietatik batzuk, bai, argitara zituzten-, eta beste guztiak? Ez ote ziran aintzagari? Exkasak. -rtnbait, eta zarara? En-tzuna danez, ba omen dira Paris'en, New-York'en eta Ma-drid'en olako pilo gizenak, au: jartean noski, esku maitakor baten zal. Gure artean ere badira antzeko mordoak, eskuz

idatziak; bi/tze au egitean, neronek ere asko erabili ditut bai Gipuzkoa'n bai mugaz andik. Guzti oiekin, nork olerki-liburua osotu? Eder bikain zoragaria litzake. Eroapen aundiz babestu bear ziurki, danak banan-banan irakuri ta oberenak aukera/zeko.

Bidea uratu gabe ta sasiz dagola diot, eta egia. Eskuratu ditzakegu bilduma bat edo beste, euskal-sortaldekoak geien; baiña txit uri tamalez. Ona maizenik, zeintzuk erabili ditudan esku artean.

Prantzi-aldekoak: *F. Michel,* Le Pays Basque *(1857); P.'i-arná^O'J, Qnquante* Chants Pyrénéens *(1869);]. D. ¡. Sallaberry,* Cha?,[1]? ^'puiairC; du Pays Basque *(1870);.* Kantika Ezpiritualak *(Baiona, 1829); Vinson,* Le Polk-Lore du Pays Basque *(1883); Charles Blriz*,* Uskal Noel'en Lilia *(Paris, 1897);* D¡x cantiques populaires basques en dialecle souletin *(Paris), ta* Dou/.e Chíinsons Amoureuses du Pays Basque-Francaia *(Paris, 1898); J. Jaurgain,* Quelques legéndes Poéliques du Pays de Soule; Eliza-Kantuak, *(Tours, 1913); R. Gallop,* Vingt-cinq Chansons populaires d'Euskal-Hefia *(Baiona,, 1928), fa* A Book of lhe Basques *(London, 1930); Dr. A. Goienetxe,* Eskualdun Kantaria *(Baiona);* Misionetako ela efelrelako Kantikak *(Baiona, 1922);* Eskualdun Kantariak *(Baiona, 1922); P. Aradoi,* Xaramela *(Baiona, 1951); Nehor-Dufan-Donosti,* «Gure Herria»'n *(Baiona, 1923-1931); P. Lafitte,* Kantuz *eta* Errepikan *(Baiona, 1944); Aita Lertxundi,* K&r.iikak *(Baiona, 1946h* Mariya *(Bordele). Baita aldizkari oek ere:* Eskualduna, Gure Herria, Aintziña, Euzko-Enda, Herria, Euiko-Deya, Alderdi, Gure Almanaka.

Napafuakoak: 5¿vista Euskai*a,* Naparlafa, Zeruko Argia, Amayur. •

Gipuzkoafak:/. *Manterola,* Cancionero Basco *(Donostia, 1877-1880); Aita Donosti,* Euskel-eres-sorta *(Madrid, 1921),* Eleiz-Abesti sorta *(Zornotza, 1924).). K. Gera,* Los Cantares antiguos del Euskera <*Euskaleriaren Alde* (Donostia, 1921-1923);* Eliz-Abestiak *(Zornotza, 1925); N. Ormaetxea (Orixe*,* Euskal-literaturaren atze edo edesti labufa, • *Euskal-Esnalea» (Dons&üv. 1927);* Berísolariya *(Erenderi, 1931-1932);* Nere Atsegina *(Erenderi);* Euskal-Eriko Kanta zarak *(Erenderi);* Eusko-01e1'...¨ak, *5 ale (Donostia, 1930-1935); M:\Lekuona,* Literatura orai euskérica *(Zarautz, 1936).*

Aldizkariak: Euskal-Efio, Basefitafa, Euskal Esnalea, Argia, yakintza. Aranzazu, Egan.

Bizkaikoak: *I?. M. Azkue.* Cancionero Popular Vasco, *XI ate (Barcelona), ta* Euskale fiaren Yakintza *(Madrid 1944);* Euskel-Abcstijak, *3 ingurazti (Zornotza, 1916):* Ereserkiak... *(Bilbao); Aita Jose Domingo,* Catorce Canciones Vascas *(Bilbao, 1953); Frantzisko Bengoa,* 5Canciones Vascas *(Bilbao, 1953). Aldizkariak:* Euskalzale, Ibaizabal, Euzkadi, *(aldizkari ta egunerokoa),* EuzkOTDeya, Aben, Mendigoxale, Hermes, Jesus'en Biotzaren Deya, Euzkerea, Jaungoiko-zale, Ekin, Karmen'go Argia, Karmeldar Eguiegia.

Arabarak: Anuario de Eusko-Folklore.

Amerikakoak: La Baskonia. Pairia Vasca, Euskal-Efia. Gernika, Euzko Gogoa *ta abar.*

Euskaleriko beste aldizkari, eguneroko Ia olerkari bakoitzak argitara emandako poesi liburuak ez dira emen aitatzen; gero, bakoitzaren atarian, bai ditut ezariko xeetasun oiek.

Eta bikain oberenak ole mordoska ontako bertsu ok? Ba/iteke ezetz. Ora zergatik diodan mila eder, *ta ez* oberenak. *Zer dala-ta, gauza bat eder? Edo ikusiz ta entzunez atsegin zaigu/ako, edo-ta zerez ta taiuz poz ematen digu lako. Ba-dira, gorago ikusi dagunez, beste zio askorik ere, baiña guretzat aski. Emen aukera ditugun neurtitz ok ba-dute ederik, bai barne-ikaraz, bai adimen-suz, baita zaritzalez. Irakur itzazu zerorek, euskaltzale maite, ta baietz esango didazu, ore/axe dala, aotik ezin utzia bai-duzu ematen dizudan jakia.*

Ala ere, norbaitek yarki dezaket: gure euskal-olerki-alorean ba-dira oriek baiño obeak ere. Ez diot nik ukatzen. Bakoitzak du bere ao, bere ole; ta, jakiña, oneri eder ta gozo zalona, ari geza ta motel. Au ere sariegi gerta oi dana. Baiña, oian sasitsu zear gabiltzala, norbaitek bidea askatu bear; ona nik egin dudana, ta txalogari ez naizenik ez dit iñork esango, naiz-ta utsak izan ugari. Betor atzetik obeto dagiana. Ez naiz, gaiñera, eder bila bakorik ibili; nere lenbiziko saioa ori zan aren, iñoren esanari ekin diot gerora, ta euskal-elertiaren edesti antzera egiteko esan didate, gure olerkari guzti, edo bientzaf geienen, bertsoak aldiz uren aukera ta sarturik; órela egiten alegindu naiz. Ezta, dakuskezunez,

sail exkasa. Baldan samar egiña bada, ezta sai/arena erua, nerea baizik.

Darabiltan idazkeraz (ortografi) ere iiz-erditxoa. Batasun-miñak eraginda dagi! onela. Auzi au bai zara! Aita Kardaberatz agurgaria, Euskeraren Befi Onak *idaztean, luze jarduna dugu gai onetzaz. Ez gara, haiña, oraindik batasun ortara eldu, ta geure eruz aurki. Euskaldunok ba-ditugu onoimenak, bai akatsak ere, ta auelan bat, guzti-zaleak bearean, norbere iritzi-zale porokatu izatea. Gai oneri buruz naikoa zarata atera zan orain ogeta amar bat urte. Ta azkenik, Euskaltzaindia osotzen zuten aiek, aburu ta iritziak oro balean bildurik, euskal-orlografí berezia eskeiñi ziguten. 1920 ko urtarilaren 8'an, Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian, alkietan batzarkide Azkue, Broussain, Kanpion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagarai, Landerelxe, Lbande. Olabide, Urkixo, ta Zinkunegi euskaltzain jaunak zirala, berentzat euskalabeze au artu zuten:* a, e, i, o, u, ii, *(sudur-aboskienlzat, euskalkiren baten bear ba'lira, izki orien gaiñean mara txiki bat ¡ari);* b, d, d, f, g, h, |, k, !, ¡, m, n, ñ, p, r, f, s, x, 1, f, ts, ix, iz, y, z. *Ta ondoren agindueskari au: <Euskaltzaindia'k gure i/.kerazko idazle guztiei eskatzen die, aren, ahal dalarik beintzat, idazkera auxe, ta besterik ez, erabili dagiela». Ikus <Euskera» agerkaria (1919-1920), 64 or. Gerozkoan, luzaro samar ariek ontzat emanan jaraiki ibiliak gara; gaur, ostera, auzi bera maiera ezari ta nahas-mahas. Nik ez nai auzi ortan sartu, baiña bai edozertan ere euskal-batasunari lagundu. Beraz, askoren iritzia jaso ta gero, liburu ontan sar ditudan olerkari guztiak era berdiñean idaztera jarten azartu naiz. Barkatu, batez ere, zuek lapurditar, zuberotar eta be-napartar maiteak. ET. dut ezer egin zuek samurtzearen, euskeraren onerako baizik.*

Ta azkenez, mí/esker biotzetik. Esker onak mesede beriak sor oi ditun ezkero, eskerak oparo lagundu didatenei. Zuk aolkuz, ark gai ta txeraz arnasa berezia eman didazute: guztiok zaituet Upar ontan nere barne-muin beroan. Jakizute: lan au zuena ere bai-da. Ar-zazute, beraz, ta jan asetzeraño berak darion ezti joria.

Larrea'ko Karmeldar Lekaidetxean,
1954'ko epailak 25.

I. EGI-OLERKIAK

Hertso-gaietan ere, beste ainbat arlori buruz bezela, bi olerki-mueta ezagutzen ditugu: jakitunen olerkiak eta criarenak. Ona aitorpen gogoangari bat: Lenengoak, «oraindainokoan, argalegi eta kaskaregiak izan zaizkigu; erdel kutsuak íkutuak; eusko gogoari dagokion edertasun gutxi sortu digute. Ez diot, noski, gaurko olerkari yaioengatik, desadana» (J. Aitzol, *Yakintza,* 193-1, 3-H or.) Carazt.voa bearbada, baiña, naita osoan ez, egia. Olerkari jantziak azken-urtcotara arte, iru edo lau atera ezkero, mugaz andikoak Prantzi'ko clertiari ta emengoak Gaztela'koari lotuegi ari izan dira, ta ortik datorkite erdel-kutsu gogaikari ori.

Eri-olerkiak bestera dira, ez dute olako akatsik. Efia eder-zale da, nor bakoitza lez. Gaiña au ez izan naikoa: edera dan giñoan ikusi, entzun cta adierazi cdo erakutsi bear Ta gure criak goi-arnas zindo ta eder sen meez. oída dagi geienetan: eder-gaia, irudi ta oldozkun bikaiñez, bertso sotiletan borobilduta, adierazi ta opatu. Ikus eza zu gure edozein eíikoi olerki. Euskaldun begiz ikusi ta efi-biotzez maiíatutako gaiak, zein jori ia aberats erakutsi dizkigun[1] Ta eder ikuste ta erakuste oiek bai ditula borc-bercak, euskal olerkí-kera berezia dagitenak, noski!

Nun datza tankera ori? Irudi ala asmoan? Bietan, nai-ta-ez. Irudi ta ametsereduak izadikoak ditu, geienez, eri-olcrkariak. Ta ez doa ntuncra igesi gai oricn bila,; etxe baruan, bizi dan lur-zntal aratzean dauzka naibeste,- ez du iñoiz erablíi arteko etzaion gauzarik; arnntzaleak itxas zabal urdiñean, nekazariak soro-belardietan, artzaiak niendi-zclaietan badu irudi ta eder-gairik aski, jainkoak emanda. Adi czaiozu beriz ere Aitzol jaunari, «Euzkelduna —dio— izadizale purukatua zaigu. Berez dioazkiote guretarei, ez uritaíei noski bai mendikoci ordea, buru belan begiak izadi gaien ondoren Inguruko txori, abere, mendi, zelaiak dituzte maite. Coiz-txintako egaztien kanta guziak ezagunak zaizkate; zugatzen itzal, lerclentasun, gogortasun eu sotiltasunez begiak aserik bizi dira, abere eta piztien aztaroa. uratsak eta mantak nekerik gabe nabaitzen dituzte. Oien oroen margo bizitasunekin, otzen leuntasunakin, izate tinkotasunakin, ibiltze-arintasunakin, ikutze-gozotasunakin naiko badute, beroiek gogoz maitatzeko... Onela, usterik gabe, olerkari crikoiei auretik bizikiro so egiñik bereganatu dituzten makiña bat edergaiez, aberastutzen zaiote irudipena. Bartiak agintzen diotenean olermena arotzcn zaiote, bat-bateau, irudipen- labea gorituri bertso eder mordoak, ápaldietan borobilduta, an dioazkiote oartu gabe» (Loe. cit., 351 or)

Eta oldozkuna^ Ba-du irudiakin zer ikusirik' Alkar artzen ote? Cure eri-olerkiak lenen irudi ertzak damazkigu, oldozkuna gero. Ikus ahapaldi au

«Zeruan eder izara,
efekaldian lizafa;
etxe ontako nagusi jaunak
ufe goíizko bizaía».

Lenengo bi bertsoak irudi bezela, ta azken bietan bertsolariak esan gogo duana; irudia eguzki-eraiñu antzo, oldozpena ondoren eguzki osoa bezela. Ta au, irudi-oldozpen-bikotasun au, edozein bertsotan daurkigu, erikoia bada beintzat, maite-lelo, dantza-abesti, eskale-kanta, t.a.

Oietakorik milaka dira gure olerti zarean. Eta, jakiña, zeinbati leku eman bear antoloji ontan, eusko gogoa dan bezin aratz agertzen diguten ezkero. Ezta, izan ere, sail makala beroiekin egiña. Zenbat irudi sotil ta esakun antziñako! Eder-zaleok badugu non ase geure len-olerti-gosea; baita non ikasi ere, eusko ederkera bereziz oldoztu ta idazteko.

Sei zatitan banatu ditut:

1) **Gerta-olerkiak:** zar ta bikaiñak, rzan ere.
2) **Maitc-leloak:** maite-minduen antzia gozoak.
3) \i'\ **ta negar:** baren-muin ifikoidun zoíotzak.
4) **Ardo-kanlak:** «euskalolertiaren bikaiñenak», antza.
5) **jaínkofiak:** Jainkoa kanta-gai duten eder-jaikiak.
6) **Pastoralak:** Oicri dagozkiten xeetasunak gero aitatuko.

1) GERTA-OLERKI ZARAK

I. LELO'REN KANTA

Noiz ¡llalli (le? 1539'gafeoeruntz Egitea hizkaitara, ta Aratl aldekoa alan bc, ango izkclgiz dago-ta; *Tratado de las cosas de Vizcaya* idatzi eban Anton Bedia aratiar zaldun argi V Karlos eregearcn jauregi otsein izanarena, ete dan diño Gera jaunak. Len-aizez egiña dala iluntxu yakun aren, ba-dau olerki-gara. Antxiñako gudu-nasteak, eromatarak gure luraz jabetu naita eukitakoak, dakaz gogora. Kanta au be, ainbat bertso eder lez, galdua gendun, baiña Humboldt doixtafak, Markiña'n P. B. Mugartegi zanaren liburutegian egozan Ibarguen cta Kntxupiu Iaunen paper zafetatik artu ta, 1817'an, argitara emon eban Afezkero, asko onetzaz idatzi dabenak: Mogel, Manterola, J. Urkixo, L. I.ezama-Legiza-mon. Cera; ta azken urteotan, J Garate, *ñolelin de Ia* /?. 5 *dc los Amigos dei País* (Donostia, 1950), ta |. Corostiaga, *Épica y Lírica vizcaína antigua* (Bilbao, 1952). Aitu.erezago daiten, itz batztlk aldatu egin ditugu pizkat, Gera (a Gorostiaga jaun argien lofotzak jaraituaz.

Lelo il Lelo, Lelo il Lelo,
Leloa, Zarak il Leloa.
Roma'ko armak alegin eta
lir.-k.ii.t'k daro zantsoa.

Bildurik gitxi arma bardiñaz,
—Oramaia, zu gexoa—
Saiak gogorak ba'dituez,
Na fu biíoxa surboa[3].

Oktabiano munduko jauna,
Lekobidi Bizkaikoa.
Itxasotati eta leofez
Imiñi deusku moltsoa.

Bost urtetako egun-gabean,
Geldi bagarik potxoa[4].
Cureko bata il ba'dagian,
Bost eromafen galdoa.

Leor zelaiak bereak dira,
Mendi-tantaiak leusoa[1].
Leku ironian[5] gagozancan,
Nok-bera sendo gogoa.

Aek anitz ta guk gitxi ta ia
Azken in dugu lá-alboa[6].
Ceure lurean ta aen erian
Birotx[6] ain baten zamoa[7].

Tiber lekua geldiko zabal,
Utxin[8] ta .iiii.ini grandoa.
Andiar istak" geizto zindoaz,
Betiko naiaz nar doa[10].

1) *leza,* caverna; *2)* favorable;; 3) *sur ba- doa,* ágil; 4) trinchera; 5) *lá,* neke; 6) *birotx.* doble; 7) *zamu.* bandera, 3) *ufxin,* dejar, 9) *andiar istak,* infatuados; 10) naraz joan.

2. QANSOARENA

Au be, Ibarguen'en paper zaretan daukagu. Ta gaitzat, jakiña, anai arteko liskara izan bear. 1448'an, batetik Guraia oínazcara ta bestetik Bañetz ganboara Afasate'ko eri-agintari bjak sumindu ziran uskeriz, ta bakoitzak bere aldcrdikoari dei egiñik, abere antzo eraso eutsen alkarj. An zan Gomiz Gonzalez oiñaztafa bere seme Juani kote ta Presebal'ekin,-an ziran Belaz Gebara, Peru Abendano, Abendañuxe *Motela*, ta abar, ganboarak. Gomiz ta bereak gogor eutsi aren, San Juan bezperan, oíko sa ta dantza bitartean, ganboarak etiari su emon eutsoen; an il ziran Jnanikote ta Presebal ereta. Ozaeta'ko jaun gazteak iges, ta efekaz andik, Maiña donearen eleizan eskerka.

Gomiz'ek asko lagunik:
zabal arabaarik,
giputz ondo ederik,
bizkaitar urduri-gogorik.

Ez diazo bakarik,
ze an dok PresebaTik
Juanikote'gaz lagundurik,
txibuluen' ospe bagerik,
ez ufun Maala'ganík*.

Argi-izarak urten dau
zeruan goian ostantzean[3].
Bergaraíak asi dira
traizioe baten asmatzean,
euroen artean dioela:

—«Ere dezagun Mundragoe¡
lastefean joan gaitez».
Kantoeko sartzaikeran
aen bízafak ikara zirean,
armakaz ezin ezer egin legez.

Ganboarak su emaitean
asi dira, ta onegaz
urten daude berealan
oñeztar bafunangoak,
zein ere ez zitezan.

Gomiz Gonzalez bertan zan,
beragaz Presebal'en kaltean,
Juaniko'k eta beste askok
eudela parte bertan.

Oin-oía2¡an luma,
Ozaeta'ko jaun gazteak,
bazter baten igaro zan
uraz-alde bestean.
Ama bereak esaku zan:
—Semea, zer dok orelaní

—Zaurietan zura dot-eta,
ama, nagozu oera.
—Egun bein or jarita?
Ganboa'k seme lastefa,
ara beste lasterago
Abendañuxe Motela.

«Esker asko emoten deutsat
Andra Santa Maina'i,
bere elexan sartu, ta
etxera bidaldu nau ni>.

)) pífano,- 2) Arasate ondoko ola; 3) ekaitz ostean,

3. BEOTIBAR'KO GUDUA

Alkar maiíatze au txit zara ei dogu, 1311'koa gitxienez. Beotibar zelaian ñapar cla giputzen arteko buruka. Antxiñakoa izan aren, Gipuzko erietan, gizaldiz-gizaldl. gaur arte kanta oi dabe ango gudubafla. Caríbal jaunak bere kondairan onela dakar -Mila urte igarota, - ura bere bidean. - Gipuzkoarak tartu dira - Caztelu'ko etxean - Nafafa'kin batu dira - Beotibar'en pelean...» Zaldibia'k *Suma de l.i.s cosas cantábricas y guipuzcoanas* (1564), Lope tsarti'k *Compendio Historial de Guipúzcoa* (1635), Argote Molina'k *Discurso sobre la poesia castellana...* (1575) diralako liburuetan dakare. l:men jarten doguna, K. Otaegi (1836-1890) olerkariak umetan efiko mutikoen aotik ikasia dozu, Ikusi J. K. Cera, *Euskalerriaren Alde* (1932), 5 of.

Beotibar'ko zelaiak
len ilunak, gaur alaiak!
Beotibar'ko arkaitzetan
frantzesak gure onetan.

Lafean emaztetxuak,
begian negar-malkuak.
Atoz len-bai-len etxera,
bestela oso galdu zera!

Aro asko sartu ziran,
umil asko irten ziran,-
Oñaz, agintari aundia,
zuretzat gure bizia!

«Alífera, mutil maiteak,
etxera doilorkumiak,
il emen edo garaitu»
- Oñaz jaunak esaten du —.

Nora zuaz, Oñaz jauna,
Frantzes jendearengana?
Edur maluta ugaria,
ugariago etsaia.

Zein gelditzen da atzian
Oñaz ikusita aufian?
Zu zera nere nagusi,
zurekin il edo bizi.

Jun dira emendik betiko,
ez dira iñoiz etoíiko;
beti euskaldun mendiak,
ez besterentzat gaziak.

4. MILIA LASTUR'EN ERESIA

Garibai euskaltzaleak (15331599) damosku au be, onetariko eresi ta gauza eder askoren antzera. IE)milia Lacrar, Dcba'koa, Peru Garzia'kin ezkondiuik, Arasate'ra joan zan bizi Izatera; ta an. gazterik scin egitean ¡I. Alargunak bigarrenez ezkondu gura ebalako esamesa zan, Marina Afazola'ko len maite izanakin. Ileta egun batean, bazkaritan zirala, ilaren aizteak ona barena ustu,- balta alargunaren arebak egoki erantzun be. Ederto egiña da, oso aitu ereza.

Aizpak. «Zer ete da andra erdiáen zauria?
Sagar erea eta ardao gona.
Alabaia, kontrario da Milia,
Azpian lur otza ta gañean aria.
Lastur'era bear dozu. Milia:
Aita-jaunak eresten dau elia,
Ama-andreak apainketan obia;
Ara bear dozu, andra Milia!
Jausi da zerurean aria,
Aurkitu dau Lastur'en tofe bana,
Edegi dio almenean erdia:
Lastur'era bear dozu, Milia!
ArenI ene andra Milia L.astur'ko,
Peru Garzia'k egin deusku laburto,
Egin dau andra Marina Afazola'ko,-
Ezkon bekio, bere idea dauko».

Eikon-aixpak. «Ez dauko Peru Garzia'k beafik
Ain gatx andia apukaduagaitik,
Zeruetako mandatua izanik
Andrari ok, ala kunpli, jasorik.
Gizon txipi sotil baten andra zan,
Ate-arte zabalean oi zan,
Giltza-pora andiaren jabe zan,
Onía andi asko kunplitu yakan».

Aizpak. «Aren, ene andra Milia Lastur'ko,
Mandatariak egin deust gaixtoto.
Zerurean jausi da abea,
Ju dau Lastur'ko toíe gorea,
Eroan ditu ango jauna ta andrea,
Bara leen, gero bestea.
Bidaldu dogu zeruetara kartea,
Aren, diguela geure andrea!
Mondragoe'ri artu deutsat goroto,
Giputz androk artu ditu gaixtoto:
Ituriotz-kalean andra Maria Balda'ko,
Artekalean andra Otxanda Gabiola'ko,
Eribalean andra Milia Lastur'ko».

6. PERUTXO'RENA

Gaspar Gomez'k, *Tercera Parte de la Celestina* (Toledo, 1536) deritxonean argitaratu. Menendez y Pelayo'k aurkitu ta gure Urkixo jaunak azaldua. Ikusi RIEV, 1910, 578 of. Perutxo, jaiotzez bizkaitara, Fclidcs'en zaldizaña dogu. Uíun ataD be, erdera mordolloz mintzatu afen, lan bitartean, euskel-kanta zafez murmuzi. Obeto aituteko, J. *M.* Leizaola jaunak bere liburu *Estudios sobre la Poesia* Pasca'n (Buenos Aires, 1951) dakafentxoa ezarten dot.

Lelo lirelo, zar ai leroba.
laz zoegia nintzan,
aurten erua.
Ai, joat gabiraia
astor usua.

Abesti, abesti, ator abesti.
Igaz zuregia nintzan,
aurten erua.
Ai, jun zak gabiraia
basa-usuetara.

Lelo lirelo, zar ai leroba.
Ai, joat gabiraia
Astorbizara[1].

Abesti, abesti, ator abesti.
Ai, jun zait gabiraia
Astobiza'ra.

Etx. o ai ii oi, ui
gaxo nazala,
penaz nazala,
jatorkedala.

Esaiok ainorari
gaxo naizela,
penaz naizela,
datorkidala.

Lelo lirelo, zar ai leroba.

Abesti, abesti, ator abesti.

1) Lezama Araba efitxoko auzunea, Altube mendi bizkarean.

6. ALTABIZKAR'KO KANTUA

Oreaga'ko garai pena dakargu goftora Antxiñatik zabal ibilia ta oso ezagu-na zalako, luzaro bestera uste izan afen bc, ezta ezpan-belafi gizaldietan bizi izana. Garai Monglave jaunak pranizeraz egin *li Journal de r Instituí hlstorique* beiak sortu ta zuzenduan argitara emon eban, 1845'an. L Duhalde ezpelc-tafak euskeraldua, antza Olerkiz ezta txara, badau gni-arnasa; euskal-kutsu gitxi, alan be. itzulia ta neuri barik egiña dalako. Idaz lan bat naita elertiz kaskar izan, jator-zunda ta zar-itiala ba'dau, atsegin yaku geienez. Kantu oneik, euskal elertiaren aizeari so ezkero, ba-dabe gafantzi ta zer ikusi berezia.

Oiu bat aditua izan da
Eskualdunen mendien artetik,
lita etxeko jauna, bere atearen aintzinean zutik,
Idekítu beafiak eta eran du: —«Nor da hor? Zer nahi dautek?>
bta xakufa, bere nausiaren oiñetan lo zaguena,
Altxatu da, eta kai'asiz Altabizkar'en inguruak bete ditu.

Ibañeta'ren lepoan hafabots bat agertzen da,
Urbiltzen da, arokak ezker eta eskuin jotzen dit delarik.
Hori da uruntik heldu den armada baten buruma.
Mendien kapetaterik[1], guziek erepuesta eman diote,
Berek duten seinua adierazi dute,
Eta etxeko jaunak bere dardak zofozten tu.
«Heldu dira, heldu dira. Zer lanzazko sasia!
Nola zer-nahi kolorezko banderak heien erdian agertzen diren!
Zer ximistak ateratzen diren heien armetarik!
Zenbat dira? Haura, kondatzak ongi>.
— «Bat, biga, hirur, laur, bortz, ser, zazpi,
Zortzi, bederatzi, hamar, hameka, hamabi,
Hamahirur, hamalaur, hamabortz, hamasei,
Hamazazpi, hemezortzi, hemeretzi, hogoi».

— «Ogoi eta milaka oraino;
Heien kondatzea denboraren galtzea liteke.
Urbilt ditzagun gure beso zailak, efotik atera ditzagun aroka horiek.
Bota ditzagun mendiaren patara' behera,
Heien buruen gaineraino,-
Leher ditzagun, herioaz jo ditzagun.

Zer nahi zuten gure mendietarik Norte'ko gizon horiek?
Zertako jin dira gure bakearen nahastera?
Jaungoikoak mendiak in dituenean nahi izan du hel< gizonek ez
Bainan arokak biribil-kolika erortzen dira; [pasatzea".
Tropak lehertzen dituzte.
Odola xufutan ba-doa; haragi-puskak dardaran daude.
O, zenbat hezur karaskatuak! Zer odolezko itsasoa!

Eskapa, eskapa indar eta zaldi dituzuenak.
Eskapa hadi, Karlomano erege,
Hire luma beltzekin eta hire kapa gofiarekin.
Hire ¡loba maitea, Eroian zangara, hantxet hila dago.
Bere zangartasuna beretako ez du izan.

Eta orai. Eskualdunak, utz ditzagun gure dardak
eskapatzen direnen kontra.
Ba-doazi, badoazi. Non da, bada, lanzazko sasi hura?
Non dira heien erdian ageri ziren zer nahi kolorezko bandera hek?
Ez da gehiago ximistarik ateratzen heien arma odolez betelarik?

Zenbat dira? Haufa, kondatzak ongi».
- «Hogoi, hemeretzi, hemezortzi, hamazazpi,

Hamasei, hamabortz, hamalau, hamahirnr,
Hamabi, hameka, hamar, bederatzi, zortzi,
Zazpi, sei, bortz, laur, hiiur, biga, bat».
— «Bat; ez da bizirik agertzen gehiago».

Akabo da. Etxeko jauna, joaiten ahal zira zure xakuíekin,
Zure emaztearen eta zure hauren besarkatzera,
Zure darden garbitzera cta altxatzera zure tutekin",
Eta gero heien gaiñean etzatera eta lo itera.

Cabaz aranoak joanen dira haragi-puska lehertu lioriek jatera.
Eta hezur honek oro xurituko dira eternitatean.

I) tontor; 2) aldapa; 3) adafa, turuta.

7. ALOS-TOREA

Deba'n. Beltran Alos-tofeko nagusiak, lenen ezkontzmtik alaba bat izan cuan: Usoa, txit lirain ta zintzoa. Bigafenez, Azpeiti'ko Basozabat jauregiko ugazabaren alaba Otxantla'gaz buztartu zan, onegandik alaba bi Milia ta Ximene izanik Liskar ta asarcaldiak maiz samar. Beltran gudura doa Gaztela aldera. Orxanda'k izorkeriz seme, ta Usoa'ri erua egotzi. Naste bluriak Aita kezkaz ta samiñez il. Usoak il-gauez, bere bertsotarako sena erakutsiz, aita liaren zeraldo alboan, ta aide-adiskideen aurean, Otxanda'ren likiskeri ta doilorkeria azaltzen ditu lkusi Etxaide'tar Yon, *Alos-lofea,* (Zarautz, 1950).

Alos-tofea bai, Alos torea;
Alos toreko zurubi luzea!
Alos-torcan nengoanean
goruetan, bela beltzak
Kua! kua! kua! kua! leioetan.

Etxe eder leio bage onetan
enaiz sartu zazpi urte auetan;
eta zortzigafenean,
neretzat zorigaitzean,
Aita Beltran'en iltzean.
Amandrea nerea nitzaz
bi erdi egin zanean
mila "ilo il ziran
ezkaratzean,
zazpi zezen kontu ere
enparantzean.

Ni ere ba-nengoen
lumatxo artean,
eta nere ama andrea
ure-gortiña artean.
Gero Bidania guzian
bat zan erorik
eta zororik;
Aita Jauna nereak aura
senartzat eman dit;
baiña ez nuke trukatuko
obeagoagatik.
Aita Jauna nereak
niri eman zidan
¡minian dotea;
amandreak ere ixilik
bere partea.
Lenen ganean
begiak, biotzak, loen mendean,
baita befiz ere bigarrenean,-
irugarrena igaro baño len
ondo poztu ziñan, Alos-torea,
eldu zalako neregan semea.

Alos-torea, bai, Alos-torea,
Alos-toreko zurubi-luzea!
Alos-torean nengoanean
goruetan, bela beltzak
kua! kua! kua! kua! leioetan.

Andik jaiki eta
ure-goruaz jo nuan,-
baiñan andik laister
befi gaiztoak jo ninduan.
Zaldunak esan zion:
—«Ixo, ixo!, ama-doiíorkumea,
ez da bada ori zure esaterea>.
— «Ixo, ixo!, zaldun
odol txafeko gaztea,
ala ere gutxiago zan
zure eginpidea».

Aizpa edefak or daude
cdcfik eta galantik,

atz ederak eraztunez beterik,
ez daukatela mantuetan zulorik;
ala ere gutxiago begian negank,
Amandreari ere bai
poza dario.
Nere biotzan bakafik
mindura jario!
Aita Jauna nerea
Gaztela'n zanean,
ixil askorik jaio zan
Alos-torean semea;
eta alare ixilagorik dago bakean,
azitzen Zarautz aldean,
gure jatonaren loitukerian.
Ai, au mindura beltza!
Au nere lotsa!
Alabak negara ta
Aitak lur otza!

Zeiñek loitu zaitu,
Alos-tofea!
Ai, nere Aita maite,
Aita maitea!
Iltzea ondo egin dezu,
Aita Jaun maitea!

8. **BERETERETXEN** KANTORIA

Agramunt eta Beamimt arteko buruka; XV'gn. mendean oso etsai ziran alderdi biok; gaur be, Etxebar'tik Ezpeldoi'rako bidean, bost gizaldi dirala an ipiñitako ari bedegar bat aurkitzen da, odol-ixurtze a nun gerta zan diñoskuna. Nor ete dogu, *jaun kunti* ain indartsua? Luis Beamunt, noski, Lerin'go len-kuntia, Napafu'ko Juana Karlos Zintzoaren ixil-alabakin, 1425'an, ezkondua, lkusi Salabefi, *Chants*, 150 of; Jaurgain, *Traditlon Basque*, 368 or.; Azkue, *Cancionero*, 393; Cera, *Canciones, E. A.*, 1921, 295 of.; A. Riezu, *Flor*, 262 of., H. Cave!, *Beretefetxen Khantoria* (Baiona, 1924).

Altzak eztu bihotzik,
ez gaztanberak ezufik...
Enian uste eraiten ziela aitunen semek gezurik.

Andoze'ko ibaia,
ala zer ibar luzea!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Bereteretxe'k oheti
neskatuari eztiki:
—Abil, eta so egin ezan gizonik denez ageri.

Neskatuak berhala,
ikusi zian bezala:
hirur dozena ba-zabiltzala leio bateti besteala.

Beretefetxe'k leioti
jaun kuntiari goraintzi:
chun behi ba-zereitzola beren zezena ondoti.

Jaun kuntiak berhala,
traidore batek bezala:
— Bercteretx, aigü bortala; ützuliren hiz berhala.

— Ama, indazüt atora,
menturaz sekulakua!
Bizi denak orit ukenen' du Bazko-gaiherdi-ondua.

Mari-Santz'en lastefa
Bostmendietan behera!
Bi belaiñez' ef están sartu Lakafi-Buztanobi'ra.

—Buztanobi gaztia,
ene anaie maitia:
hitzaz hunik ezpalin bada, ene semia juan da.

— Areba, ago ixilik!
Ez, otoi, egin nigarik!
Hire semia bizi bada, Mauli'ala dun juanik.

Mari-Santz'en lastera
jaun kuntiaren bortala!
«Ai! eil eta, jauna, nun duzie ene seme galanta?»

—Hik bahiena semerik
Bereteretxe'z besterik?
Ezpeldoi altian" dun hilik; abil, eraikan bizirik!

Ezpeldoi'ko jentiak,
ala sendimentu gabiak!
Hila ain bailan' uken eta deusere etzakienak!

Czpeldoi'ko alaba,
Margarita deitzen dena,
Beretefetxe'n odoletik ahürkaz[5] biltzen ari da.

Ezpeldoi'ko bukata,"
ala bukata edera!
Bereteí'etxe'n atore (arik hirur dozena ümen' da.

I) gogoan izan; ?) belaun; 3) aldean; 4) cerca; 5) a manos llenas; 6) colada; 7} el

9. URUTIA'KO ANPHPIA

Zubero'n, 1423'garen inguruan, Alzuruku'ko Menanton, Urutia jauregiko zalduo jauna, ta Ahetze'ko Domenja, ezkondu ziran. Senara, susinoti, biur, bekaizkor ta aiuri gaiztokoa, 1453'tik 1-164ra Zubero'ko epaikari izana; ta emaztea, zintzo ta biotZ'Samura baizen etorki argikoa. fsloizka izan oi ebezan, alkarekin, olako ardai! ta zalapartak, lkusi Jllirgam, *Quelquea legéndes poétlques du pnys deSoule.*

Ahetze'ko anderia
Urutia'n korpitzez;
or dizu bere buria,
kanpoan da biotzez.

—Nur du bere maitia?
Nai nuke egia.
Jinkoak nai ba'du,
iltzia ukenen du.

—Gure Jaon Urutia,
ketxian beti zira;
eradazut zertako,
ni enuzu kanpoko.

—Urunt zite ni ganik,
eztit zure bearik;
bazoaza kanpora
en] adar biltzera,

—Jaona, olako gaizak,
Ahetze'ko anderiak
eztitizu ikasi;
ez doazu ihesi.

tile oiek aotik
jaikitzen zielarik,
Ufutia'k bilotik[1]
teresta du ebili.

—Jinkoa, zer bizia!
oi, Jaon Urutia,
ni Ahetz'ko etxian
nunduzun, bai, bakian!

Unat jin bear nizun,
ene zortia zuzun,
biotz-min ukeiteko,
zure kctxarazteko;
ogen gabe zu beti
mintzo zitzaist gogorki,
otoi, zure begiak
utz ditzala ketxiak.

Coizian goizik jeikirik,
ogi-opilak egiñik,
Ahetze'ko anderia,
lehia dun andia
zareta bat burian
kanpoi at jalkitzian,
Musde Uiutia'k zian
baratu, bai, bidian.

—Nun zabiltza ain goizik,
jauregia usturik?
galdatzen do Uruti'k,
begiak oldarturik[2].

—Jaona, ikusiren duzu,
nai balio ba'duzu,
nurat orain nabilan,
zareta au burian.

Jente eskeliari
emaiteko sokot'i,
Madama Ufutja'k
artu zutian bidiak.

Opilez zaria beitzen
beterik jente prauben[a],
Urutia'k zarian
eskia[4] ezari zian.

Opilak, ordu artan,
jtn ziren aiíikotan[5];
Urutia'k berala
uste trunpatu zela.

— Euliaren etxera
zoaza bilberaztera?[3]
—Jaona, ikusten duzu...
Orai, zuk badakizu...

—Parka izadazut, aren,
bekaitz enuzu izanen:
emazte un zirela
orai badit nik proba.

I) uletik; 2) asare, 3) pobre; 4) eskua; 5) ov¡llo,6) tramar.

10. EGUN BEREKO ALAROUNTSA

Zubero aldekoa au be, eri-kanca bikaiñenak lez. Peru Irigarai, Altzai ta Mendikota etxeetako jauna, Cabirele Loitegi, Aintzile ta (partze jauregietriko zaldunaren alabeagaz ezkondu zan, 1633'lco gara garifa re o 8'ao. Eta eztegu-jai dirdaicsuan bertan, il ta zeraldo jausi zan gaixoa. Andere erukariak, emazte ca alargun egun berean, eriotz atan ezin etsirik, etxean euki nai gorpua alik eta luzaroen, mosu ta igurtziz ezkou-maite-sua erakutsiaz.

Goizian goizik jeiki ninduzun, ezkuntu nintzan goizian;
bai eta ere zetaz beztitu ekia[1] jeiki zenian.
Etxek'andere zabal ninduzun eguerdi erditan,
bai eta ere alarguntsa gazte ekia sartu zenian.

Musde Irigara¡; ene jauna, a(txa izadazut buria,-
ala dolutzen ote zaizu enekila[2] ezkuntzia?
—«£z, ez, etzitadazu dolutzen zure espusatzia,
ez eta ere doluturen bizi nizano, maitia.

Nik ba-nizun maiteto bat mundu ororen ixilik,
mundu ororen ixilik eta Jinko Jaunari ageririk,-
buket bat igon ditadazut lili aíaroz egiñik,
lili araroz egiñik eta erdia pozuaturik>.

—«Zazpi urtez etxeki[8] dizut gizon hila kanberan,
egunaz lur hotzian eta gaiaz[4] bi besuen artian;
zitru hurez ukuzten[5] nizun astian egun bacian,
astian egun batian, eta ostirale goizian».

1) eguzkia; 2) nigaz; 3) gorde; *4)* gabaz,- 5) garbitu.

11. UNDURAIN ANDERIAREN KANTA

Kantari au, Peru Undurain aitor-semearen alaba, Haux ea (S) jaio zan, 1701 ko azilak 6'an. Ondorez aberatsa zalako, izan eban nogaz ezkondu,- baiña guztieri artean Mikel Reyau-Laruos eskutari ta legegizon argíari ezkon-icza emon eutsan. Etzan au aitaren begiko, ta alabea asmu ortatik atdentzeko, lekaime-komeotü baten sarazo eban. Alan be lortu ezin nai ebana; ta aikenik, 5727'an, maitale biak ezkondu ziran, ta aitak bere alabeari parkatu eutson. Ikus Jaurgaio, RIEV, 1909, 456 oí. Olerki samur polita.

«Maitia, nun zira?
Nik etzutut ikusten,
ez beririk jakiten;
nurat galdu zira?
Ala, kanbiatu da zure deseiña"?
Hitz eman zenereitan,
ez behin, bai herirán,
enia zinela.

—Oikna nüzü,
enu2u kanbiatu,
bihotzian beinin hartu,
eta zei maitatu.
Aita jeloskor batek dizu kausatu,
zure ikustetik,
geiago mintzatzetik
hark nizü pribatu.

—Aita jeloskoral
Zuk alaba igon,
arauz ene ihesi,
komentu hartara!
Ar'eta ez ahal da sarturen serora;
fede bedera dugu,
alkari eman tugu,
gauza segura da.

—Zamariz jganik,
jin[1] zazkit ikustera,
ene kontsolatzera,
aitaren ixilik.
Hogei eta lau urte batizít beterik:
urte baten burian,
nik eztiket ordian
aitaren axolik,

Alaba diener
eranen* dit orori:
so'gidaziet eni,
beha en'eraner:
«Gazteto direlarik untsa[3] diziplina,-
handitu direnian,
berant date ordian,
nik ba-dakit untsa».

1) ctofi; 3) esan; 3) ondo.

12. ATARATZE JAUREGIKO ANDEREARENA

Lukuze, Ataratze U inguruetako zaldun ospetsuak, alargun bost seme-alabakiu ta berogcta amar urte gain. Mari Jaurgain amazazpi urteko neskatx liraña emaztctz.it artu eban. 15S4'an czkon-jaiak aundikiro egin ta Maule'ko bere jauregira bizi izaten aldaturik; baina erlejiñonasteak zirala-ta. toki areik itxi ta mugaz onuntz Otxagabi'ra iges egin bear 1593'an, oraitiño, atzera biurtu ziran eureu jauregi maitera. Orduko asi-oraziak dakarskuz gogora kanta onek lkusi jaurgain, *Tradition Basque*, 383 or., J. K. Cera, *Cantares, E. A.*, 1932, 370 of; A Irigarai -RIEV-, 1928. 230 or, A. Riezu, *Flor*. 126 oí.

Ozaze jaurgaiñian bi ¡ itroin doratu,
Ataíatze'ko jaunak b¿:a du galdatu[1],
uken du arapostu eztnrela kuntu',
kunturik direnian bato ukcnen du.

— Portaliala juan zite, aizpa maitia,
¡ngoiti* hora duzu Ataratze'ko jauna;
otoi, eran izozu ni eri nizala,-
zazpi egun hoietan ohian nizala.

— Bai, bena enukezu hortan sinetsia:
hari eraiten badot zu eri zirela,
zazpi egun hoietan ohian zirela,
bera nahi dukezu ¡in zu ziren lekila'.

Aizpa, jaunts ezazu arauba xuria,
nik ete jauntsiren dit ene zaia berdia;
ingoiti hora duzu zure senar geia;
botzik lei ta ezazu zure sor-etxia.

— Klara, zuaza orai salako leihora,
ipar ala hegua denez jakitera:
¡para balin bada, goraintzi Sala'ri
ene korpitzaren xerka ¡in dadila sari[5].

Ama juanen gira oro alkareki;
etxerat jinen zira xangri handireki,
bihotza kargaturik, begiak bustirik,
eta zure alaba timban ehortzirik.

Ozaze'ko zeñiak du afapikatzen,
Jaurgaiñek'anderia heritik partitzen,-
liaren peko zaldia urhez da zelatzen,
banko txipi-handiak beltzez dira bestitzen.

Ataratze'ko hiria hiri ordoki:[6]
Ivur handi bat badizu alde bateti,
erege-bidia erdi erditi,
Maria-Maidalena beste aldeti.

—Ama, saldu naizu biga bat bezala,
bai eta desteratu, oi!, Españiala;
aita bizi uken banu, ama, zu bezala,
enunduzun ezkunturen Ataratze'ko sálala.

1) eskatu, *1)* madurar,- 3) ya,- 4) lekura! *5)* bizkor; 6) laua.

15. MUSDE SARI

Janpiera Sari zalduna, Iruri'ko jaunaren seme mía dozu,- Iruri'n eta Petiriña'n luzaro apaiz egona. 1777'an. Maule'n il, eta Barkoxe'ko eliza sartzean eortzia datza. Badau gatz-ozpiña olerkitxo onek, luralde areitako geienen antzera.

Urzo luma gris gaxua,
ore bidajin[1] bahua;
gertalzen bazaik Musde Sari, jaun apetitü hun hura,
begiz ikusten balin bahai, Petiriña'lat bahua.

Llizo gaxualc ümilki
diozu Musde Sari'ri:
egundaiño eztereiola ogenik egin jaun hari,
utzi dezan igaraitera usatu dian bideti.

— «Auher[1] duk, auher, urzua!
Juratu diat fedia
aurten, aurten jin behar diala eneki Petiriña'la,-
han nik emanen dereiat artoz eta ziz[B] asia».

— «Artoz asia hun duzu,
libertatia ba'gumi;
Orhiko bago ezkurto hurak guri hobexe zizkützu,-
Anglesa Franlzia'n sartzen ba'da, Españia'lat baguatzu».

— «Urzua, ago ixilik,
Prantzia'n eztük Ángleslk;
Baiuna'ra jiten ba'dira Agramuntek hilen tik,
Petiriña'lat cztuk hclturcn -/.aragoila' luze hetarik»

— «Fida niz zure efaner,
fi'dago ene hegaler;
goraintzi eran behar derezü jiten ba'dira Angleser,
nik ere ber gisan eranen diet Español papo gorier».

— «Go'aintzi efaile **Angleser**
nik naik ezarten mezuler?
Orai diat, orai, ikusten nitzaz hizala trufatzen[5];
bena enaik beste urte batez bortian hotzeraziren».

— «Jauna, zuaza etxerat,
Maule'tik Petiriña'lar,
xori eta bilagafo gizen zünbaiten jatera,-
urzo hegal azkarío hoiek eztira zure bianda».

1) vas de viaje; *7)* alperik; 3) ezkufa; 4) calzón; 5) burla egin.

14 ANDFRE LOKARTUA

Andero bat eloripean lokartua iru kapitainck aurkitu dabe, ta zamarían ezaririk Paris'era daroe; ez bere oldez, noski, indarean eta atzipetuta baiño. Ostatuan aparirík nai ez, ta ilda jausi yake. Non lura emongo? Aitaren baratzean, Uño-liliz estalirik. Irugafen egunerako señera da, ta aitak gizkarbi irautearen ilari diru-mordo damotsa, gazte aberats batekin ezkondu daiten.

Elori xuriaren azpian anderea lokartu,
afosa bezen eder, elura bezen xuririk,
hirur kapitainek hor deramate goitez enganaturik.

Hirur kapitainak jin ziren anderearen xerka[1];
zamarian ezafi dute mantoaz trozaturik,
Paris'erat eraman dute ait'amek jakin gaberik.

Paris'en ostalertsa'' batek ederki saiutatu,
ederki saiutatu, beriak ere galdetu:
— «Bortxaz[3] ala amodiozjina ziren, anderea, erazu?>

Anderea zen orduian eztiki deklaratu:
—«Ez, ez, ene bihotza aras bortxaz jiña duzu,
hirur kapitainek galerintik ebatsirik jiña nuzu>.

Kapitainek bitz hori entzunik jiri ziren andereaganat:
— «Anderea, afal zaite eztirik eta irankilik,
hirur kapitain ba-dituzketzu gaur zure zerbitzari».

Anderea hitz hori entzunik hil hotza zen erori;
kapitainak ere partitu bere trbpak harturik,
ongi nigar egiten zutela andereari dolu emanik.

— «Anderea hila da, nun ehortziren dugu?
Aitaren baratzean ezpelaren azpian,
liho liliz estalirik eta tonba eder batian».

Handik hirurgaren egunean, hilak aitari oihu:
— «Aita, entzun nezazu, ni orai hemen nuzu,
birjinitatea behatu nahiz hila egona nuzu».

— «Hori hola egin ba'duzu, bear bezalakoa zira zu.
Moltsan* sartzen tut* eskuak zure eskonarazteko,
jaun gazte aberats batekilan zure kalitaleko»

I) bila; 2) oslatari; 3) indafez,- 4) sakelcan; 3) ditut.

16. ARBOTTKO PRIMA EIJERA

Zuberotar koblakari batek ondutako beit&u oneik, XVHI'gn. mende erdi tsuan, Uñarte Amikuze'ko jaun gaztea Arboti'ko jaunaren alabarekin ezkondu zanean, egiñak ditugu. Azkeneko iru ahapaldiak, Aita Donosti'k bilduak, ez dabe antza lenengo irurakaz zer ikusirik, lkusi A. Donosti, «RIEV i, 1927, 699 *oí* , Cera. *Can/ares, E.A* , 1923, 19 oí.

Jaun hai nak' aspaldin
Xedcrak' hedatu zütin,
Xori eijer bat hatzaman dizu Paube'ko seroren komentin;
Orai harekin biziren duzu, aspaldian gogun beitzin,

Jaun barua, orain zu,
Felizitatzen zütügü,
Zeren beituzu Musde La Plaza'ren prima eijera esposatu;
Andere hori irus duzu: zuri ezteizügü dolu.

Xedera balitz halako
Merkatietan saltzeko,
Ziberu'ko aitunen semek eros litzazkie oro,
Halako xori eijerfo zunbaiten hatzamaiteko!

—Igaran apirilaren burian,
Armadaren erdian,
Züntüdan bihotzian, armak oro eskian:
Present espiritian, manka[3] besuen artian.

—Jauna, maite ba'naizü,
Eraiten duzun bezala,
rOta[11] ezazu, kita ezazu Efegearen zerbutxia[5]
Eta maita hería, uken dezadan plazera.

—Eztiot kjta, maitia,
Eregeren zerbutxia;
Sortu nüzü uhurezko[6] Eregeren zerbutxuko:
Maite dit uhuria zugatik, xannagaria.

I) baTÓD; 2) lazo, 3) faltar,- 4) dejar; 5) servicio; 6) honor.

16. NESKATX ONTZ1RATUA

Neskatx bat, oso polita, iruten itxas-ertzeko etxe zurian. Kulunka gozoz ontzi bat ureratu, kanta kantari. Amak esanik, neskatxa leiora; jaun kapitainak atzipetu ta ontzira daroa, zitalbedarez lotan murgildurik. Itxartzean, ariskuan ta amagandik urin, ezpata dau sartzen biotzetik, ta ila hirera doa; iixas-ondoa areD iíobi. Ama damu2 leiotik begira, uiñak bai-darabiíe alaba gaxua.

Brodatzen ari nintzen ene salan jafirik;
aire bat entzun nuen itsasoko aldetik;
itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Brodatzeá utzirik, gan nintzen amagana:
thean jaliko[1] ninczen gibeleko leiora,
gibeleko leiora, itsasoko aldera?»

—«Bai, hábil, hauía, hábil, eron kapitainari
jin dadin afaitera, hemen deskantsatzera,
hemen deskantsatzera, salaren ikustera».

—«Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana,
jin zaiten afaitera, hantxet deskantsatzera,
hantxet deskantsatzera, salaren ikustera».

—«Andre gazte xarmanta, oí, ezin ditekena!
Ipar haizea dugu, gan bear dut aitzína!
Ezin ukia[2] baitut, hauxe da ene pena.

Andre gazte xarmanta, zu sar zaite untzira,
gurekin afaitera, eta deskantsatzera,
hortxet deskantsatzera, salaren ikustera».

Andre gazte xarmanta igaiten da untzira,-
han emaiten diote *lo-be/ara* papora,
eta untzi handian lo dago gaixo haufa».

—«Jaun kapitaina, nora deramazu zuk haufa?
Zaluxko itzulazu hartu duzun lekura,
hartu duzun lekura, aita-amen gortera!»

—«Nere mariñel ona, hedazak heda bela!
Beti nahi nuena jiña zaitak aldera!
Ez duk hain usu jiten zoriona eskura!»

—«Jaun kapitaina, nora ekafi nauzu huna?
Zalu[s] itzul nezazu hartu nauzun lekura,
hartu nauzun lekura, aita-amen gortera».

—«Andre gazte xarmanta, hori ezin egiña.
Hiru ehun lekutan juanak gira aitzina...
Ene meneko zira, orai duzu orena...»

Andre gazte xarmantak, hor hartzen du ezpata,
bihotzetik sartzen ta, hila doa lufera...!
Aldiz harén arima hegaldaka zerura!

—«Nere kapitain jauna, hauxe duzu malura!
—«Nere mariñel ona, norat aurtiki* haufa?
—«Norat aurtiki haufa? Hortxet itsas-zolara!»

Hiru ehun lekutan dago itsas-leiofa:
oi, Ama Anderea, so egizu leiora...
Zur'alaba gaixoa, uhinak derabila.

1) salir, 3) urten; 3) bereala; 4) lanzar,

17. PERU GUREA

Ipuin oso zabala, ta saritan jazo oí. Ba-zan osagile bat iñoren emazteagaz ixiíean bizi zana, ta bien arteko biziera nabarmena ederto estaltzen eben; emazteak Uri egin oi eban ga'xoarena, gizona senda-bedafetan hialdur.k Iruña'ra, Gazteiz'era, ia iñoiz Londres'craño. Etxeko moroitxoaren bitartez, jakin eban senafak zer jazoten zan. Ikus Azkue, *Euaha/eriaren Yakintza* (Madrid, 1947), IV, 183 or.¡ A Riezu, *Flor*, 290 or.

—Peru gurea Londres'en
zirin-bedafak ekarten,-
bera andik dan artean,
gu emen dantza gaitezen.
—Oi, au egia!
daigun jira bi, Maria.

—Kapoiak dagoz ereten,
oiíaskotxuak mutiltzen;
oiek ondo efe artean,
gu emen dantza gaitezen.
—Oi, au egia!
daigun jira bi, Maria.

—Neure oiíanda nabaía,
txikara, baina zabala,
zetan oa i auzora,
etxean oilara dónala?
—Oi, au egia!
daigun jira bi, Maria.

—Neuk ugazaba nekusan
Izurdia'ko zubian;
neugaz atzera ekafi neban
sardin-saskitxo banan.
—Oi, au egia!
orain dok ire aldia.

—Neure mutiltxu txoria,
ik esan eustan egia:
gaur gabean dantzauko zala
nire emazte Maria.
-Oi, au egia!
iretzat mando zuria.

18. URTSUA'N ILA

Baztan'go ipuin zar baten ondafalc Lantaina'ko alaba aundiki bai Urtsua Arizkun eta Azpilkueta bitartean datzan jauregiko semeagaz ezkondu zan; izor antza. Scnafak au jakiñik, an bertan, Ana donearen eliz-ondoan, eriotza emon eutsan, ta ixilean mugaz aruntz igesi. Ikus Azkue, *Euskalerriaren yakintza.* IV *U6* of.; A. Riezu, *Flor,* 274 or.

Goiti zazu burua,
ene areba Juana.
—Eztezaket goratu,
anai Batista jauna.

—Izora[1] omen zara,
ene areba Juana.
—Zertan zagutzen nauzu,
ene anaia jauna?

Zazpi eiota beri,
zortzi jauregi xuri:
orien guzien gatik
nik ez Urtsu'ra nari.[5]

—Zaldia zelarekin*
zuretzat jafia da.
—Nik iten dudan aura
zure besokoa izain da.

Urtsuan zazpi leio,
zazpiak lero-lero,-
Lantaina'ko alaba
Urtsuan defuntu dago.

Urtsuan, defuntua
Santa-Anan kausitua[4];
adiós eran gabe
etxetik partitua.

1) preñada; 2) ir; 3) silla; 4) encontrar.

2) MAITA-LELOAK

18. MUNDIAN DEN EDERENA

Ziberutarez. A la ra tze'n batua, diño Azkue'k (C. 64); baña iru ahapaldi dakaz bakarik, Aita Ricxirk lau *(F/or de Canciones Populares Vascas%* 83'gn. or.), ta Rodiicy Gallop jaunak zortzi, bere *Six Basque FolksongS* liburuan.

Mundian den ederena zelian[1] ekia[8]/
lufeko anderetan, oi! ene maitia;
begia duzu ñabara, xuri-gofi lana[3],
ene begietako xarmagaíia.

Erak, amodioa, niganik nuiz hua?
Ilarazi gabetanik, otoi, abilua;
ez dezadala galdu osoki gogua,
xurit eztakidan gazterik bilhua*.

Ra-dakizu aspald ba-nabiíala
urzo baten ondoan oianiala;
orai etsitzen dizut ezin dirodala,
ezin ikusten beitut, oi! baten egala.

—Ihizlari fidela balin bazira,
nulaz eraiten duzu ezin naikezula?
Jinen duzu denbora, ez uken antsia[5];
benturaz izanen gira biak algarekila.

1) zerua; 2) eguzkia; 3) larua; *A)* pelo; 5) cuidado.

19. ARGIZAGI EDEPA

Laburderaz. Ikus Charles Bordes, *Douze Chdnaons Amoureuses du Paya Basque Fr.»n$ai3,* (Paris, 1898); A. Ritrzu, *Flor,* 112'gn. or. Kanta onek, musika guztiz biozkora dau, u bai Guridi, bai Donosti ta Elduaycn Aiuk, iñoiz crabili dabe eres-eredutzat.

Argizagi edera, argi egidazu!
oraino bide luzean joan behafa inizii:
gau huntan nahi nuke maitea kausitu;
liaren bortaraino[1] argi egidazu.

—Lotara ziradea, lozale polita?
Lotara ez bazira, so'giri dazu leiora,
eta egiaz mintza, oi izar edefa!
zur'ama ote denez oraino lotara.

Etxeak eder du, bai, saihetsean labe;
zer ala zu ez zauzke goardiarik gabe"?
Maitea, ni ez nauke egia eian gabe:
noiztenka holakoak tronpatzen dirade.

Kanpotik sartu eta barnera ondoan,
maitearekin nindagon, oí! gustu onean;
amak bautemanikan, oi! uste gabean,
gaiñetik jautsi[2] zaukun kolera handitan,

—Zu zinela ez nuen gogoan pasatzen
niri beben[6] berean afrontu egiten;
jenden efanez ez niz ez oraino estonaízen[4],
etsenplu dudanean nihaurek ikusten.

—Orai ba-noako, adiós efanik,
bertz jiteko ere ez esperantzarik,-
kitatzen ez ba'nuzu aras[s] bihotzettk,
zureganako bidea hautseko[8] dut nik,

Jendek efaiten dute hai* ez dena franko,
izar xarmagaíia, zur' et' enetako:
gu ez gírela gisan elgarekilako;
bihok akort ba'gira, nori zer dohako?

I) atea; *7)* bajar; 3) emen,- 4) asombrar; 5) guztiz; 6) violar.

20. MAITIAK BILHOA HOLl

ZiberutaíeT.. Ch. Bordes: 11 *Chansons Amoureuses;* A. Riezu, *Flor, 6Y* gn. or. Au ta *Nik ba-dut maiteño bat* antz aundikoak dira, ta biak oso politak.

Maitiak bilhoa hoTì
eta koloria gori,
eskuko lana xuri, zilar fina iduri,
eta bera xarmagafi best[1] ororen gaineti.

«Etxefo bat ba-dizut nik
jauregi baten parerik;
artan barnen egonen zira zilhar kaideran' jaririk,
ihurk ezpeiteizu eranen nahi eztuzun elerik,

Nik ba-ditut mila ardi
bortian artzañeki;
Kataluña'n ehun mando bere zilhar kargekii
hurak oro ba-ditukeizu, jiten ba'zira eneki»,

—«Ba-duzia mila ardi
bortian artzañeki?
Kataluña'n ehun mando zilhar diharureki?
Hurak oro ukenik ere, eniz jinen zureki».

—«Maitenaren etxekoak,
kexu umen ziradeie:
alaba ene emaztetako sobera umen zaizie,
Ez emazte, bai amore: sofritu behar duke,

Senartako emozie
Frantzia'ko erege;
Frantzia'n ezpada ere, España'koa bedere:
bada erege, enperadore, pintsela[5]ja ez tuke»,

i) silla; *7)* doncella.

21. AITARIK EZ DUT

lkusi Sallaberry, *Chants*, I92'gn. or.

Aitarik ez dut eta ama ere zahartu,
norbeiten beafa ere etxian ba-dugu;
zuk hala plazer ba'zindu, nahi zinduzket zu;
ene desira zer den orai ba-dakizu.

Etxeko andarla, zure niz ahalge[1],
zure alaba prima[3] gald'egiteko ene,-
ukan dut adiskide bai eta efaile,
jarikiten zaiola bertze zonbeit ere.

—Neguaren ondotik jiten duzu uda:
zertako egiten duzu horenbeste duda?
Zer uste duzu? ala hateu* dela beti
gortiaren egitia prima gaztiari?

—Etxeko anderia, jiten[4] niz zugana
entzunik ba-duzula lili bat xarmanta,
entzunik ba-duzula lili bat xarmanta,
lili bat xarmanta eta bihotz bat net ona.

I) timidei; 2) heredera; 3) Wcito; -I) etoi'i.

22. ANDEREÑO BAT

Sallaberry, *Chanta,* 222'gn. or.

Andcreño bat ikusi nuen igande goizño batez;
bista berian agradatu nintzan harén begiez;
ez dut uste ba-duela parerik eztitasunez,-
ene bihotza tristerik dago harekin izan beafez.

— Anitz maite ba-duzula fama hedatu' zauzu;
egun guziez maite befi bat egiten omen duzu;
horiek hola balin badira, nor fidaturen zauzu?
Kanbiatu bear duzu, ni nahi balin banuzu.

—Ba-duzuia dudarik zu enetuz geroztik,
nahi ere ba-nukeela zutaz bertze maiterik?
Ez dut uste balaitekela mundu huntan gizonik
kontent bizi laitckeenik zu kitatuz* geroztik.

— Minian dutzun ele ederak bihotzian ba'zintu,
menturaz zure maitatzia efesoli[3] niokezu,-
bainan gero desplazeíik eman gogo ba'duzu,
otoizten zaitut hemen berian lurez estal nezazu!

1) difundir; 2) abandonar; 3) decidirle.

23. LILI EDER BAT

Ikusi Umazou, *Chanta Pyrénéens;* Sallaberry, *Chants,* 230'gn. or.

Lili eder bat ba-dut nik
aspaldi begixtaturik;
bainan ez nainle mcntura harén eskura hartzera,

banaki zer den lanjefa,
juan nindaiteke aldera.

Lili edera, so'idazu,
maite nauzunez efazu.
Zure begiak bihotza barnarik deraut kolpatu;
kolpe huntarik ba-dizu
granganatzeko herixku.

—Ez nuke nahi malufik
balin bazindu nigatik;
ez dut uste ene begiek eman dautzuten koiperik;
ez duzu beraz lanjefik[1],
etzira hilen hortarik.

—Mintzo zirade poíiki,
poliki eta tendreki.
Bisitaño bat nahi nuke egin nik zure ganat Iaburzkij
desira ba-dut segurki
bazinezadat permeti.

—Permeti niro, maitia,
ez dut hain bihotz dorpia;
bainan lehenik nahi dut jakin zure desira guzia:
zu ene ganat jitiaz
estona[2] laite mundia,

—Ez ahal nuzu dukia,
ez eta Aitor'en semia!
Hola nehoren estonatzeko ez da sujet bat handia;
zuhaur zirade sinplia,
opinionez[8] betia.

—Badakit sinple nizela;
hori segurki hala da;
iduritzen zaut atsolutoki ezagutzetan zirela;
orai nik badut fortuna;
bainan ez dut zuk emana.

1) peligro; 2) sorprender; 3) prejuicio.

24 AHAIRE ZAHAR HUNTAN

J. Sallaberi, Maule'ko legegizon argia, *Chanfs Populaires du Pays Basque* (Bayona, 1870), bigareuez (Paris, 1930), euskeraz, 244 or,; *Gure Herria*, 1925, Il ta (928, 2; A. Riezu, *Flor*, 220'gn. or.

Ahaire zahar huntan bi berset beririk
alagrantziareki kantatu nahi tít>
bihotza libraturik pena orotarik,
desir nian maitia beitut gogaturik[1].

Enukian sinhetsi, ezpeitzin iduri,
goga turen niala maitia jagoiti;
mintzatzen nintzirozun ahalaz eijerki,
ene erana gatik hura ezin kunberti.

—Zazpi urte ba-dizu, ene kariua,
zutan ezañ nila ene amodioa;
gerozti nabilazu tristerik gogua,
beldurez etzizadan zu goga, gaxua.

—Zazpi urtez zitzaitzat ebili ondoti,
ene trunpatu nahiz malezian beti.
Orai egiña gatik aisa[2] eni eri,
begiraizu Jinkuak zu etzítzan puni[3].

—Zeluko Jinko Jaunak ba-du pietate,
bere denbora dizu erota egile;
urgulutsiaren bortxaz um i lie razie;
feit[4] horez orhit zite, maitia, zu ere.

—Uhaiña ihizlari arain hurin deno,
gizon gaztiak tendré amoros direno;
neskatiler ordian doloruski mintzo:
desira kunplit eta haientzat adió.

—Pikanti mintzo zira gizoner, maitia,
ez, sunja[5] ba'zeneza duzun estatia;
ez palinbanu maite fidelitatia,
elitzeikezu kunbeni hola mintzatzia.

—Zaldi xuri bat ba-dit zure zerbutxuko,
zuk plazer duzunian biak juaiteko.
Etxekuer efezu dolorez adió,
itzuliren etzira menturaz haboro[6].

1) halagar; 2) efez; 3) castigar; *4)* juicio; 5) pensar; 6) más,

25. NIK BA-DUT MAITEÑO BAT

Be-napaferaz. Ikus Bordes, *La Tradi/lon au Pays Basque,* (Paris,)899), 333'gn. or.; baica 12 *Chansons Amoureuses'eav,* ta A. Riezu, *Flor, 145'gn.* orialdean.

Nik ba-dut maiteño bat, oi bena nolako?
Ez da. tipi, ez handi, bai bien arteko;
begia polita du, dena amorio:
bihotzian sartu zaut, ezbaitzaut jalgiko[1].

Zuri nuzu hersatzen[2], arosa edera,
pena gaitz hoietarik nezazun atera;
balin badut hortatik hiltzeko malura,
bazindukea bada bihotzian pena?

Amodioaren pena, oi! pena kiratsa!
Orai dut ezagutzen harek daukan pena.
Amodioa ezpaliz den bezain krudela,
Ez nezakezu eran maite zaitudala.

Munduan zenbat urhats, oi! eztut egiten!
Ez ahal dira ere alferak ¡zanen.
Jendek eranagatik guretako ele,
Orotaz trufa[3] neinte, zu ba'zindut neure.

Zeruan zenbat ¡zar, maitea, ahal da?
Zure parerik ene begietan ez da.
Neke da partitzia, maitia, enetzat;
Adió nik derautzut denbora batentzat.

Zuri efanik ere, maitia, adió,
Ez nezazula, otoi, ni ukan hastio'':
Bainan bai bibotzetik izan amodio,
Etzaitut kitaturen tonban sar artio.

1) salir; *2)* confiarse; 3) burlar, 4) euojo.

26. MAITALE GlBELATUA

Ikus Fr Mictiel, *Le Pays Basque, sa populaiion, sa langue, ses moeurs, Sa Hltéralure el sa musique* (Paris, 1857), 313'íiii. or.; batez be, XI atal osoa euskal eri-olerkjaczaz.

Gabaz ¡Ifiun euria denian,
Bai eta iihun euria denian,-
Mhun izanagatik euria denian,
Gogua alegera dut zureganat jítian[1].

Izar xarmagaíia, oherat joan zireia?
Oherat ez ba'zira joan, so egizu leihora.
Zure mintzatzeko nik dizit desira,
Aspaldi handian emen bai nabila.

—Ez dizit idokitzen gabaz nilc leihorik,
Zeren eta baitut anhitz ixterbegi[2],-
Eta zu ere bertziak iduri:
Ni ez naiz fidatzen nehori,

—Izar xarmagaíia, fída zite niri:
Ez deraurzut egin nahi nik obeoik zuri;
Otoitz egin nezake belaunikaturik,
Amodioa zuk enetako hartziagatik,

—Ez dizit idokitzen[3] gabaz nik leihorik.
Otoit2 eginen duzu zuk, plazer ba'duzu;
Bainan ene perilik sekulan e2 duzu.
Bertze zenbeitendako otoitzak eginzkitzu.

1) etoíi; 0) enemigo; 3) kendu.

27. MAITALE KONTSOLATIA

Fr. Michel, *Li Pays Basque,* 321'go. orialdean,

Gaztetasunak bai-nevabila
Airean ainhara[1] bezala;
Gauak pasatzen ditut ardura
Eguna ba'hre bezala;
Oi!
Ardura nabila maitia gana.

—Maite nauzula zuk eraiteaz,
Ni ez naiz alegeratzen,-
Baizikan ere nere bihotza
Aras duzu tristetzen.
Oi!
Zeren ez nauzun kitatzen?[2]

—Amodioak nik ba-dudala
Ez zeratzuia bada iduri?
Itsasoan pasa niro
Zuregatik igeri.
Oi!
Zeren zaren xarmagari!

—Xarmagarri ba'niza ere,
Ez naiteke izan zure.
Ba-da munduan berczerik
Nitaz agradatzen denik:
Oi!
Ufun zaite níganik.

Kantu hoien emaileak
Ez zuen eskripularik;
Kaderan[8] dago jaririk,
Segur alegerarik,
Oi!
Penarik gabe bat galduagatik.

!) golondrina; 2) dejar. 3) lilia.

28. ENE MAITEA

Laburtk'raz Musika bai, baña olerkia ez ei da onen zara, arako C. H. batek, Oraintsu egiña baño *Oum HcNa,* 1929, I; A. Riezu, 49'gn. ostaldean.

Ene maitea, xarmegaria,
dohain ederez zirela betea.
Zuk egin afrontua sartu zait bihoczera,
heldu baitzait gogora, ardura.
Nik orai pena,- zure malura
denborak emanen du agertzera.

Xoratu nau/.u, tronpatu[1] nauzu,
ene bihotza eri tu dautazu.
Denborak beharko du ene pena kasatu*,
bihotz' alegeratu, sendatu.
Hube bat ustez nauzu kitatu,
zure malura[3] Kortan egin duzu.

Zuk kitaturik, xangrinaturik,
bi urte egotu naiz pasaturik.
Ene bihotz tendrea, nihor maite gaberik,
etzagoken bakafik, tristerik.
Maite beri bat du hautaturik[4],
hark ezari nau alegeraturik.

Adió, enea, lehen maitea,
desir onez dut bihotza betea.
Zuk egin afrontua aspaldi barkatua,
desir dautzut, gaixoa, zerua,-
munduan ere bizi luzea,
egiñik zure gostuko maitea.

1) engañar; *7)* disipar; 3) infortunio; 4) elegir.

29. ZAZPI EIHERA BA-DITUT

Fr. Michel, *Le Bays Basque,* 268'gu. of.; *Oure Hería,* 1932, 1; A. Riezu 131'gn. of. Kanta zar bikaña.

Zazpi eihera[1] ba-ditut efeka batean,
zortzigarena aldiz etxe saihetsean;
hiru uso doazi karosa batean,
hetarik erdikua ene bihotzean.

Etxea omen duzu ongi teilaztatu,
ganbera befi bat ere bai pintatu;
erdiko uso noren perilik ez duzu:
noren enplegua hauzuan ba-duzu.

—Ene aitak eta amak zutenean jakin
amodiotan ginela biak elgafekin,
enganioz ninduten plazarat ekari
eta lagun batekin komentuan ezari.

—Zure aita deia hoin gizon krudela,
komentuan baitzerauzka krimine! bat bezala?
Zure eta ene amodioa hoztu nahia da;
bainan ez du eginen: tronpaturen da.

Airera ba'nindadi ainhera[2] bezala,
ardura[3] joan nindaite komentuko leihora
eta maitiarekin han pasa denbora,
bien pena dotorez elgar kontsola.

Komentuko paretak, oi pareta finak!
ofiziale onek dirade egiñak;
doblezka ba-dituzte leihoetan burdinak...
Maitiaren ikustera ni ezin sar hará!

I) molino,- 2) golondrina; 3) frecuentemente.

50. AGOTA

Ziberutafez. Sallaberry, *Chanís Popula/res.* 118'gn. of.; A. Riezu, *Flor,*)21'gn. of. Zer, nortzuk eta zelakoak ziran Agotak, ta gaur zelan bizi diran batez be Bozate'n, Arizkun-Baztan'go auzotegian, ikus J. K. Baroja: *La Vida Rural en Vera de Bidasoa* (Madrid, 1944); Ph. Veyrin: *Les Basques,* 70'gn. oí. R. Gallop: *A Book of the Basques,* 58 gn. of., Nogaret; *Pelile Hlsloire du Pays Basque Francais,* 64'gn. of.; ta abar.

Argi-azkorian jinik ene afesekila',
beti bea entzun nahiz nunbaitik zure botza,-
ardiak nun utzi tuzu? zerentako erada"
nigaíez ikusten deizut zure begi edefa?

— «Ene aitaren ixilik jin nuzu zure gana
bihotza erdiraturik, zihauri efaitera
kanbiatu deitadala ardien alhagia',
sekulakoz defendatu zureki mintzatzia»

— «Gor niza, ala entzun dut? eian deitadazia
sekulakoz jin zaiztala adío eraitera?
Etziradia orhitzen guk hitz eman dugula
lurian bizi gireno alkaren maitatzia?»

—«Atzo nurbait ¡zan duzu ene ait'ametara,
guk alkar maite dugula naien abertitzera;
huruntaaztez alkar ganik lite[4] ditin lehia
eta eztitian junta kasta Agotarekila».

— «Agotak ba-diadila ba-dizut entzutia;
zuk efaiten deitadazut ni ere ba-nizala,-
egundano uken ba'nu demendren* leinliuria,
eninduzun ausarturen begila so'gitera».

—«Jenletan den ederena uraen duzu Agota:
bilho holi, laru xuri eta begi nabat'a.
Nik ikusi artzaiñetan zu zira ederena;
eder izateko aments[6] Agot izan behar da?»

— «So'izu nuntik ezagutzen dien zuin den Agota:
lehen sua egiten zaio hari behariala;
bata handiago dizu eta aldiz bestia
biribil et'orotarik bilhoz inguratia».

—«Hori hala balinbada, haietarik etzira,
ezi zure behanak alkar ¡duru dira,-
Agot denak xipiago ba'du behari bata,
aitari eranen biot biak bardin tuzula».

I) rebaño, 3) colmado, 3) pastizal. *A)* pronto: 5) ztrbait, 6) tal vez.

31. GOIZEAN GOIZ JEIKIRIK

Latmideraz. *Oure Hería,* 1933, 4; R. Callop, 23 *Chants,* ta Azkue. C 4?; A. Riezu, *Flor,* I57'an; P. Afadoi, *Xaramela,* 47 of.

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,
urera joan ninduzun pegara harturik.

Jaun txapeldun gazte bat jin zautan ondotik,
beia nahi nuenez urera lagunik.

Nik ez nueía nahi urera lagunik,
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz eian gatik,
pegara joan zerautan besotik harturik.

Urera ginenian, biak musuz-musu,
galdegin zautan ere: —«Zonbat urte tutzu?»

—«Hamasei.... hamazazpi orain'ez konplitu:
zurekin ezkontzeko gazteegi nuzu».

Etxerat itzultzeko nik dutan beldufa,
ez jakin nola pentsa amari gezura!

—«Neska, nahi duzuia nik erakuts zuri,
etxerat etortzean zer eran amari?

Urxo xuri polit bat, gabaz dabilana,
hark ura zikindurik, egotu naiz, ama».

—«Dakigunaz geroztiz zer eran amari,
dugun pegara pausa, gaitezen liberti».

52. EGUN ON

Bizkaieraz Azkue, *R/„* IV, 181'an; Afazola'n entzuna.

Egun on Jainkoak dizula
andratxo gaztea.
—Baita zeurori bere,
galaitxo maitea.

Senarik eta ba-aldozu,
andratxo gaztea?
—Bi seme-alaba,
jauna, or dira.

Umeok nundik dabiltzuz,
andratxo gaztea?
—Eskolak ikastera,
galaitxo maitea.

Zanko edefa dozu,
andratxo gaztea.
—Nik alan ofaztuta,
galaitxo maitea.

Surtan efeko al zara,
andratxo gaztea.
—Zeu ilinti zareala,
galaitxo maitea.

Urak eroango al zaitu,
andratxo gaztea.
—Zeu aufetik zareala,
galaitxo maitea.

53. AGUR. Ol IZAR MAITIA!

Laburderaz Ikus *Gure Hería,* 1923, 4; A. Riezu, *Flor,* I84'an

«Agur, oi izar maitia, iduzki eder-begia!
Zure gatikan nik utzi niro bizi naizen hería,
eta aldcrat zure ganat jin, izar xarmagaria».

—«Mintzo zira, bai, ederki, ederki eta oneski;
2ure ganikan nahi nuke nik jakindu bereziki
noiz ¡zanen zuretzat izar edo iduzki».

—«Zazpi urte ba-du orai uda hunetan konplitu
amodio perfeta batez zintudala maitatu,-
bainan orai ni beldur nuzu zaizkidan kanbiatu.

Eri nuzu bihotzetik, eraiten dautzut bi hitzez:
su kar ma lina k baiturik nago, zu ez izan belduíez,-
otoi, otoi, zuk senda nezazu, Iiii ez nadin xagrinez».

—«Gaitz ororen kontra ere eremedioak ba-dire:
sukar-malina balin ba'duzu, zerbitza hor barberez,
eta ez etor zu ene ganat, ni miriku beharez».

—«Urh'ereztun bat ba-dut nik, bere ederez harturik;
hura ikusi arteraino zuk zur'erian sarturik,
ene bihotzak ez du izanen oren bat deskantsurik.

—«Urh' ereztuna ba'duzu, bertze norbeiti emozu:
nere erian sarturik segur ikusiren ez duzu,-
bertze zenbeit ahal duzurtez cntseia hobe duzu».

—«Oi, eper zango gofia, airean joailia propia!
Ez duzuia bada pena ene hola ikustia?
Otoi, otoi, har nezazu, utzirikan bertziak!

Norat nahi joan nadin, ene bihotza zurekin;
plazerikan ez dut hartzen ene gazte lagunekin,
nun ez zaitudan zu ikusten, zure begi ederekin!»

— «Aíosak eder botia, ederxago du loria...
Lehen bertzetan ibili eta orai niri gorria?
Zoazkit begien bixtatik, parabolaz betia!»

54. XORI KANTATZALE EIJERA

Zjberuwrez. Ch. Bordes, 12 *Chansons Amoureuses,* Labayru, *ti. de Viz-Cdye;* 660'aa; A. Riezu, 212'an.

Xori kantatzale eijefa, nun ote hiz kantatzen?
Aspaldian nik eztiat hire botzik entzuten;
ez orenik, ez arterik eztiat eroaiten
nun ehitzaitan oritzen.

Itxasoan umen duzu kantazale eijer bat,
tronpatzen ezpalin-baniz, *zirena* deitzen det bat;
liark inganerazten tizu itxasoan gainti joailiak,
hala nula ni maítenak.

55. ARGIZAGIAK ZELUTIK

ikusi Sallaberi, *Chants,* 99'gn. orialdean

Argizagiak zelütik
argitzen dizu eijerki;
ene maite polita eztüzü ageri.
Zeluko Jinko Jauna! zer eginen dut nik?
Zer eginen dut nik?

Fiatik batere eztuzu,
inundia eriz[1] ari zaizü;
batu orotzaz agrada zira zu,
bat har ezazu, hura aski dükezü,
hoíez segur nüzü.

Urzo apalaren malura
galduz geroztik laguna!
Triste da beti bere bihotzetik,
zeren ezpeitü maitatu bat baizik,
maitatu bat baizik

Amodio beriak
sendotzen tizü eriak[2];
zure begiak ain dira eztiak,
zeren beitira eniak zuriak,
zuriak eniak,

I) reir; *7)* geixoa

56. PLAÑU **N1Z B1HOTZET1K**

Ikusi Sallaberi, *Chants,* 114'gn. orialdean.

Pianu niz bihotzetik,
gaitza zer dudan eztakit,
tristezia batek harturik;
enuke axolarik
ba'liz eremediorik
ene gaitza sendo ahal lironik;
ezta mundian barberik[1], bat baizik
ene gaitza zertarik den ezagutzen dianik,
eta hura berantetsirik
ba-niagozu, gaxua, tristerik!

—Berantetsi ninduzun,
segur beldara ba-nizun;
bena ene kointak[2] bear tuzu entzun:
Zuk uste gabetarik
zutzaz ohart[3] ninduzun;
zure mina parte eneki zuzun;
zure ganat jiteko heraberik enizun;
bena beste manerarik arte hortan ba-zuzun;
aspaldian gure etxian
kasu horez asara gintuzun.

—Jin ba'zira, jin zira,
segur hunki jin zirela!
Efaiten deizut berantetsi zintudala;
nun egon zira hola
horenbeste denbora
jin gabetarik ene ikustera?
Eztuzula axolik balikezu zunbait marka,

Orai artiño etzirenian jin ene kontsolatzera!
Jin zite ardura, ardura,[4]
penaerazi gabe ni hola.

I) médico; *2)* cuita; 3) acordarse; 4) sari.

57. GOIZETAN JELKITZEN DA

Ikus Salaberi, *Chants Populaires*, 175'an.

Goizetan jelkitzen[1] da izar bat ederik,
hura dela diote zelian ederenik.
Luiian ikusten dit bat ederagorik,
zelietan ere ezpeitu harek bere parerik.

Aspaldiko denboretan, gaiaz eta beti,
ihizen nabilazü txori eijer bati;
azkenekoz atzaman dit, oi! pena tristeki!
Lümarik eijerena beitzaio erori!

Txori kantazale, eijer, xarmagaria,
aspaldian eztit entzun zure botz eztia;
aren kontsola zite, tristeziaz betia,
etzirade ¡zanen gaizki tratatia.

—Eijerki mintzo zira, üsatü bezala,
trunpatu nahi naizüla ba-dizüt beldura.
Zu ziradila kausa galdu dit libertatia,
enezazula kita, fidela ba'zira.

—Zuk ezlakizia jaun galant bat nizala,
sekula trunpatzia pentsatu eztiana,-
ezpazira fidatzen gizon galant bati,
etzitiala fida jagoiti' besteri.

—Arosa buketo bat, uztarilan sorturik,
igofi niriozün jaun hari goraintzi;
lantaria niala liaren baratzeti,
untsa[8] begira lezan nitzaz oriturik.

Uste uken niikian plazer zükiala
bere lantaretik ukcitez buketa;
igofi ditadazüt nahi eztiala,
lanlarerik emanik oritzen eztcla.

Ene lili eijefa, hunki jin[4] hizala!
Eztat, ez, nil< eginen jaun harek bezala,-
freskorik hait etxekiren* ene bularían,
deitoratzen haidalarik jaun harén izenian.

Ene gazte lagunak libertitzen plazan,
eta ni, malerusa, tristerik kanberan!
Jaun gazte eijer bati eman neron konfidantza:
hura eni baliatu[6] traidore bezala.

I) levantar, 2) ya: 3) bien; 4) etofi: 5) conservan 6) recompensar.

58. Ol, PENARIK EZ BA'NU!

Ikus *Gure HcHa*, 1925. 176'gn. of.

Oi, penarik ez ba'nu, ez nindake mintia!
Maitia, nik ez dakit zertan dudan hutsa.
Fidel izan ba'nizu niri eman hitza,
zuria izanen zen, oi! ene bihotza.

—Xarmankí mintzo zira, oi ene maitia!
Zurekilako nintzan deliberatuia.
Handizki gertatu zait niri flakezia:
Fieportak[1] sinhetsiz naiz gibelatuia.

—Ez da ereportarik, ez arartekorik'
amodio perfeta gibelatzen[3] duenik;
bi urte ba-ditugu biek hitz emanik...
Ez nuen esperantza nolako xangrinik!

—Hitzño bat ba-dizut nik zuri eraiteko:
Ostibartara zira, ni ere Baigori'ko;
zure eta nere amodioa ez zen sekulako...
Bihotzian liar zazu, nitaz oroitzcko.

—Bihotzez eri'[1] nuzu, kanpoz alegera;
ni ere ez nidauen gauza hofen begira;
fidel izan ba'zine hitzeman bezala,
laster joanen ginen biak elizara.

I) referencias, 3) mediador; 3) iirundu, -O geixorik.

59. IZAR EDEÉAK

Bizkaieraz. Ikus Azkue, *Euskaleríaren Yakintza,* IV, I87'gn. of.; Gab¡-ka'o batua.

Izar edefak argi egiten dau
zeru altuan bakarik;
ezta bakaíik, lagunak ditu
Jaun zerukoak emonik.

Zazpi aingeru aldean ditu,
zortzigafena gaixorik;
zazpi mediku ekafi dautsez
India Madril'etatik.

Arek ¡gari, arek ¡gari
nundik dagoan gaixorik:
—Amore-miñak ba-dituz onek
efai-artean sarturik.

—Guzufa diño mediku onek;
nik eztot amore-miñik.

Gaur aratsean ilgo naz
eta etofi gorpu-ondora,
efosario zuri eder bat
esku-artean dozula.

Neu enteretan naroenean
igongo dozu korura,
andixik bera salto egingozu
Birjiña Amaren ortura.

Lafosea ta krabelinea
artungo dozuz eskura,
jente guztiak esan daiela
neure lutua dozula.

Aingerutxoak esaten dabe
Salbean Abe Maria,
gero guztiok gozadu daigun
zeru altuan gloria.

40. EIJERA ZIRA, MAITIA

Ziberutaíez. Agustin Chaho'k Baionan atera oi eban «Ariel» egunerokoan, 1845-3-yan; Fr. Michel, *Le Pays Basque,* lóO'go. orrialdean; A. Riezu, *Flor,* 86Jgn. or.

Eijera zira, maitia,
eraiten deizut egia;
nurk eraman ote deizu lehen florra?

— Eztizu egin izotzik,
ez eta ere kafunik'
ene lehen floriari kalte egin dientk.

— Landan eder iratze[2],
belai edefak aretxe;
zu bezalako politetarik desir nuke bi seme.

— Horen maite ba'naízu,
obrak irakats itzatzu:
Elizala eraman eta han espusa nezazu.

— Apezak dira España'n,
beretefak Efuma'n;
hurak hanti jin artiño, gitian txosta kanberan.

— Aita dizut hi!-beri,
amak eztizu urt'erdi;
zurekilan libertitzeko dolua dizut barnegi,

— Oihaneko otsua,
dolu dereiat, gaxua,
antxuekin[3] lo'gin eta zeren barurik beihua.

— Enun ez ni otsua,
/ gutiago gaxua,
antxuekin lo'ginik ere kuntent gabez beinua.

— Bortu goretan lanhape*,
hur-bazteretan abate[5];
zu bezaíako falsietarik eztizut nahi deusere.

1) helada; *2)* helécho; 3) borrego; 4) niebla,- 5) ánade.

41. XARMAGAR1 BAT

lkusi Sa,Uabefj, *C/ianfs,* 94'go. of

Xarmagari[1] bat ba-dit maite bihotzeti,
amodioetan gira biak alkareki;
harén aire xarrnantaz agrada niz beti,
parerik badiala ezpeitzeit iduri.

—Nulaz eraiten duzu maite naizüla ni?
Korte egiten zaude zu beste orori.
Enezazüla tronpa, mintza zite klarki,
esparantxa falsurik ez eman nihuri.

— Xori papogoriak ederki kantatzen,
gaiazko[2] alojia kanpuan xerkatzen;
ni ere gisa berian nüzü edireiten,
riiaitiak ezpadereit borta idekiten.

—Orai zireia jtten, gaiherdi onduan?
Iratzaririk nintzan eta zu goguan;
zure botza entzuten dudanin kanpuan,
ohetik jeiki eta jarten niz leiuan.

—Oi, ene bihotzeko lili haitatia[8],
ene botza entzunik leiuan zaudia?
Aspaldin enereizün ikusi begia;
barnerat sar nadin indazüt eskia[1].

—Borturik[5] gorenetan etorten elura:
tronpaturen naizüla ba-dizüt beldura;
hargatik nahi zintüket ikusi ardura,
eginen ba'düt ere, oi! ene malura!

Lumarik ederena pabuak buztanin;
maitia, etzintüdan ikusi aspaldin,-
gaiaz eta egunaz ba'zintüt enekin,
ni enarnte debeia[6], maita, zurekin.

Ai! ei! ai! ei! eia! hau da doloria!
Bi maite uken eta ezjakin zuin haita;
batak dizu xapela, besuak boneta:
xapeldunfo hura da, oi! ene bihotza.

I) encantadora; 2) gauazko; 3) escogido; 4) eskua; 5) montaña; 6) fastidiar,

42. BORTIAN AHUZKI

Ikusi Sallaberi, *Chanta,* 36'gn. ofialdean. EtxahuD'ena ete?

Bortian Ahuzki[1], hur hünak osoki;
neskatila eijefak han dira ageri;
hirur ba-dirade, oi! bena xarmantak!
Basa-Nabar orotan ez dute parerik.

Neskatila eijera, oi begi ñabaía,
nuntik jin izan zira bortu gain huntara?
Garazi'ko aldetik, desir nian bezala,
Ahuzki'k, iturila hur fresken hartzera?

Goizetan eder dizu ekiak leiñuru[2],
mundi' argitzen dizu inguru-inguru;
ni ere zur' unduan hala nabilazü:
eia maite naizünez, otoi, eradazu!

—Maitatu zintüdala ba-dizu aspaldi,
ezpenereizün eran orano zühauri[3]:
biotzian eduki pena handireki,
zühauri eraitera, oi! ezin atrebi!

—Disimula ezazü ahalaz*[1] Iuzazki,
maite ukenen zütüt nik hargatik beti,
maite ukenen zütüt nik hargatik beti;
gero izanen gira biak alkareki.

Adió, Ahuzki eta Nabolegi,
dolu egiten deiziet Lakasororeki;
goraintzi eran izozie Ziprian Pino'ri,
mil' eskar derogüla harén karesari.

I) mendi bat; *7)* resplandor; 3) zuri; 4) en lo posible.

43. INTXAUSPEKO ALABA

[ku6¡ Sallaberi, *Chants,* 261'gn. orialdean; P. Aradoi, *Xaramela,* 58 or.

Intxauspe'ko alaba dendaria,
goizian goizik jostera joailia,
nigaíetan pasatzen du bidia.
, Aprendiza kontsolatzailia.

Zelian den ¡zafik edefena
jit] ba'lekit argi egitera,
juan naite maitiaren ikustera,
ene penen hari eraitera.

Mundu huntan penarik gabetarik
bizitzeko nik eztut perilik;
maitatu dut ukanen cztudana,
hoiek baitereit bihotzian pena.

—Maitatu duzia ukanen eztuzuna,
hoiek dereizia bihotzian pena?
Maite ezazu ukan diokezuna
ela juanen da zure bihotz-mina.

—Mentikaren loriaren edeía!
Barnian dizu hexufa gogora;
gaztia niz, bai eta lodosa,
eztizut galtzen zure esperantza.

—Adiós, beraz, ene maitia, adiós!
Adiós dereizut orai sekulakoz;
ezkunt zite plazer duzunareki,
eta begira ene afakuntruti[1].

—Zer ¡zanen da zure afakuntria?
Zer ahal da zure egin ahala?
Zerbait kasu[3] nitan gertatzen bada,
sujet beri bat zutan ¡zanen da.

I) encuentro; 3) altuna cosa.

44. NERE MAITE POÜTA

Uburdcraz. A. CoicneUe, *Eskualdu/i Kantaria.* 41'gn. of. Oto edefa.

Nere maite polita, ez nauzu maitatzen!
Bihotz erdira-gari, zer duzu pentsatzen?
Hanbat denbora huntan nauzu abusatzen,-
zertako ari zare ni hola faltatzen?

Primaderaren koro, oi, [¡(tz egiña!
Goizeko txoriaren, oi, kantu ariña!
Ez duzue eztitzen nere bihotz-mina,
zeren sobera baitut amodio fina.

Maiz eraiten dautazu zuk maite nauzula,
eta jendek erasten' bertzerikan dela;
mutil gazte propitan mudakor zarela,
gizonen abusatzen zuk laket duzula.

— Sinesten ba'ditutzu jendien eranak
eta guti prezatzen[2] nere solas onak,
deus ez dira izanen zure ontasunak;
segur sinetsiren nau ni maite nauenak.

—Lilitan poíiíena elofj xuna¡
lilia joan ondoan, zein bihi[3] goria!
Bihi barnean dauka, oi, hezur gogora:
barnez gor, kanpoz eder ta bihotz elkora.

—Zelaiak buluz[4], triste, dirade neguan;
Hegaztinek ez dute kantatzen orduan.
Ez da amodiorik zure bihotzean;
kita nezazu beraz nahi duzunean.

— Etzitezela ufunt hola samurturik*!
Gau-egunak naukazu nigafez urturik;
nik ez dakit zer eran, zeren maitaturik
ez baitezaket izan nik zutaz bertzerik.

—Nahi eta beldur naiz! beldur eta nahi!...
Gizon gaztea baita, oi, enganagari!
Ez naite behin ere jar deskantsuari;
zure beldur, zu maite, ni naiz urikari!

1) hablar; 2) apreciar; 3) grano; 4) desnado; 5) asaracu.

45. EQUNTO BATEZ NINDAGUELARIK

Zíberutarez. Salaberi, *Chanls Popula/res,* 55'gn. or.; Azkue, C. 43t,- A. Riezu, *Flor,* 308'gn. oí; P. Aradoi, *Xaramela,* 36 or,

EgunEo batez nindaguelarik maitenareki leiuan,
eran uken niriozun hura niala goguan,-
ene pena doloretzaz pietate har lezan.

— Zure pena doloretzaz pietate ba-dit nik;
ene korpitz tristiareki eztirot eman plazerik:
zelin promes emanik nago Jinkoari lehenik.

—Oro eijer, oro polit zu zira, ene maitia;
zure eskutik nahi nikezü bizi nízano ogia,
eta gero ni nükezü zure zerbütxaria.

—Eraz, ez, ni hain eijera; nulaz eraiten deitazü?
Mundu huntako eijefena bertutia lükezü;
hari ogenik egin gabe, otoi, maita nezazü.

— Baratzian zuinen eijer jirofteia loratu!
Aspaldian desir nia^ orai dizut gogatu[1];
hura gogatu eztudano gauk eztizüt mankatu[2].

—Baratzian eijer deia jirofleia loratu?
Aspaldian desir züniana orai auzia gogatu?
Zerbütxatu zirenian, beria, kunta ezazü.

— Ene maite bihotz gogor, ezpiritu zorotza,
orai dizüc orai ikusten etzitzakedala goga;
amodiua utzi eta indarez dugun boroga[8].

—Jaun gaztia, otoi, parka, haur gazte bat ni nüzü;
zuri afapostu emaitez bebeiaturik'* nuzu;
efan delako indarto hura, bestetan enpleg' ezazu.

1) ganar; 2) faltar; 3) probar; 4) enojar.

46. LILI BAT IKUSI DUT

Ikus *Eskua/dun Kantaria,* 37'gn. oí; P. Afadoi, *Xarame/a,* 73 oí\

Lili bat ikusi dut baratze batean,
desiratzen bai'nuke nere sahetsean:
lorea ez du galtzen, udan ez neguan,
harén parerik ez da bertze bat munduan!

Deliberatu nuen gau batez joaitera
lili araro harén eskurat hartzera.
Ez bainuen pensatzen beiratzen zutela!...
Gau hartan uste nuen, han galtzen nintzela!

Etsenplu bat nahi dut eman guzien,
eta partJkuJarzkt jende gazteari:
Gauaz ibiltzen dena ez da zuhür ari;
ni begiraturen naiz, eskerak Jaunaril

47. TREBOLA BARATZEKOA

Azkue, *E. Y.*, 122'an Zumaia'n baiiia

Trebola baratzckoa,
lafosa maiatzekoaj
zuri begira ementxe gaude,
damatxo biotzekoa.

Zapata txuri paperez,
euriak jo ta ezer ez;
efian damak ba-dira,
baña zure parekorik ez.

Lezok ufe du *tria,*
Pasaia'k Efenteria,
erostunean' pasa diteke,
damea, zure geria.

Erostunean geria,
mardula bularteria,
neure ustean ezta faltako
zuretzat merkataria.

i) anillo.

48. JINKOAK DIZULA EGUN ON

Coi-oapafcraz. Azlcu.-, *EuskaltNaren yakintza,* IV, IHS'ga. or.,- *Kantutegian,* bariz, 992'an.

—Jinkoak dizula egun on, andere aufena[1].
— Bai eta zuri ere, galaia zalduna.

— Bokata* Utsari ari zira, andere aufena?
—Ekusi ba-dukezu, galaia zalduna.

— Eskuak gofi tuzu, andere aufena?
— Lirain barnean tinki, galaia zalduna.

— Orai non duzu senara, andere aufena?
—Efegeren serbitzuan, galaia zalduna.

-Zonbat denbora ian* zela, andere aufena?
—Orai zortzi urte, galaia zalduna.

— Eztuzuie familiarik, andere aufena?
—Bi alabatxo tit, galaia zalduna.

— Aufak non tuzu goizean, andere aufena?
—Eskolan tit biak, galaia zalduna.

—Senara fan zenean, zer eman zinakon?
—Seta-mokanes' bat nik eman niozun.

—So egizu ean au denez, andere aufena.
— Iduria dukezu hura bera dela.

— Hura ta bera duzu'au, o Margarita!

I) principal; *1)* colada; 3) joan,- 4) pañuelo de seda.

49. LURAREN PEAN

Ikus A. Goienetxe, *Eskualdan Kantaria,* 37[1]gn. or.

Luraren pean sar nindaiteke,
maitea, zure ahaigez;
bortz pentsamendu egiñik nago
zurekin egon bearez:
borta[1] barnetik zeratu eta
ganberan beti nigarez...
Pentsamenduak airean eta
bihot2etikan dolorez!
Ene xangrinez hÜarazteko
sortua zinen arabez[5].

Mariñelak joaicen dira
itsasorat untziko:
zuretzat dudan amodioa
ez dut sekulan utziko,
Xarmegaria, nahiz ez giren
elgafekilan biziko,
behin maitatu zaitut eta
ez zaitut hastiatuko[4]:
ene gogoan sartua zira
eternitate guziko.

Oren[8] onean sortua zira,
izar ororen izara,
zure parerjk ez zait agertzen
ene begien bixtara;
espos-laguntzat nahi zintudan
eran neraitzun bezala:
ordean zuri ez iduritzen
zuretzat aski nintzala,-
ni baino Jagun hobe batekin
Jainkoak gerta zaitzala.

Primaderan zoinen den eder
xoria kantuz kanpoan!
Amodioak bainerabilka,
maitea, zure ondoan;
Xarmegaria, ez zaitut nahi
bortxatu amodioan.
Ni xangrin huntan hilikan ere
satisfa zaite gogoan:
bai maluruski aski ba'nuzu
bakank niaur munduan.

1) puerta; *1)* probablemente,- 3) ordu; 4) desechar.

50. AMODIOA

Mariya, 117'gn. onbidean; *Kantuz,* 87'gn. or.

Amodioa zoin den zoroa
mundu guziak ba-daki.
Nik maiteño bat izaki
eta beste batek eramaki...
Jainko maiteak gerta dezala
enekin baino hobeki...

Geroztik ere mintzatu gira,
eia nahi ninduenez...
Harek bietan baietz eranik,
pentsa kontentu nintzanez!
Ez nuen uste harén agintza
betea zela gezuíez.

Azken pestetan egin nituen
izaíaren ezagutzak,-
denen artean ageri ziren
harén begi urdin-beltzak;
in polit bat egin baitzautan,
piztu zauztan esperantzak.

Orai bihotza urtua daukat
gatza urean bezala:
izar onaren argien ordain,
izigariko itzala!
Ohoin[1] tzar batek befiki joanik,
nola naiteke kontsolal

1) ladrón.

51. ARGIZARI EDERA

Mariya, 126'gn. or,

Argizari edera, argi egidazu
bide luze batean joan beafa nuzu!
Gau human nahi nuke maitia mintzatu,
harén ganatu arte, argi egidazu!

—Nekaturik heldu naiz bide luze huntan,
urats pausu guzian beti pentsaketan;
atora bustia dut bular-erainetan,
idortu[1] nahi nuke su ondoño hortan!

—Atora busti hori gafeia ezazu,
nik hola manaturik bustia ez duzu!...
Bidean eman gabe, kontu zuk egizu,
bidearen buruan nahi zaituzten zu?

—Ez deia bada pena eta dolorea,
nihauren maiteñoa hola suntsitzea[2]
Amets bat egin nuen zuk ni maitatze],..
Zonbat deitoragafi[3] hol' enganatzea!

i) secar; *2)* arruinar; 3) deplorable.

52. TXORI ERESIÑULA

Ziberutafez. Salabefi. *Chanls Populaires,* 23'gn. of.; A. Riezu, *Flor,* 296' gn. of.; Chaho, «Ariel», 1845-3-2'an; Manterola, *Cancionero Vasco,* I saiía, II geja 39'gn. of.

Xori eresiñula udan da kantari,
zeren ordian beitu kanpuan janari;
negian ezt' ageri; balinban ezta eri!
Udan jin ba'ledi,
konsola nainte ni.

Xori eresiñula ororen geien,
bestek beno hobeki hark beitu kantatzen;
harek du inganatzen mundia bai tronpatzen;
bera eztut ikusten,
bai botza entzuten,

Botz harén entzun nahiz hefaturik[1] nago;
ni hari hulant[2] eta hura uíunago;
jaraiki ninkiro bizia gal artiño:
aspaldi handian
desir hori nian.

Xoria zuñen eijer kantuz oíanian!
Nihaurek entzun dizut ¡garan[3] gaian.
Eia! guazen, maitia, bj-biak ikustera:
entzuten ba'duzu,
xarmaturen zaitu.

Amak utzi nindizun bedats"[1] azkenian;
geroztik nabüazu hegalez airian.
Gaiak urtuki* nindizun sasiño batetara,
han zizun xedera[s],
oi! ene malura!

—Xoria, zaude ixilik, ez egin kanturik;
xoria, zaude ixilik, ez egin kanturik;
eztuzu profeiturík ni hoJa penaturik,
ez eta plazerik
ni tunban sarturik.

—Bortiak xuri dira elur dienian,
sasiak ere ilun osto dienian.
Ala ni majerusa! zeren han sartu nintzan?
Jun ba'nintz aitíina,
eskapatzen nintzan.

—Xoria, 2aude ixilik, ez egin uigarik;
zer profeitu dukezu hola aflijiturik'?
Nik eramanen zutut, xedera laxaturik,
ohíko bortucik,
ororen ganetik.

1) vagar; *1)* cerca; 3) pasar; 4) primavera; 5) arrojar; $) lazo.

&5. AI, NEURE BALTZERANA

Bizkaieraz. Ikus Azkue, *Euskaletiaren Yakintza,* IV, 126'gn. of.; *kantu tegian,* J70'gn. oi. Forua'n batua.

Ai, neure baltzerana, aiperik galdua,
mandazaiña zenduan zuk lagun artua.
Itxarongo neuskezu pare bat urtean,
gazte zoroa nai ta galdu zenaitean.
Txio, txio, txoria,
poztu daiten abia.

Alargun naizelako, eztegu-gauean
aran-oska mutilik ager zedaitean,-
kale-mustur bietan suak eingo doguz,
Donianeko suak, otz dana berotuz.
Txio, txio, txoria,
poztu daiten abia.

64. MENDIAN ZOIN DEN EDER

Be-napareraz. Salaberi, *Chants Pópulaires,* 104'gp. or.; A. Coienetxe, *Eskualdun Kan/aria,* 37'ga. or.; *Kantuz,* 1t7'gn. or.

Mendian zoin den eder eper zango goíi!
Iiz da bear fidatu itxur'eder hori.
Ene maiteak ere bertzeak iduri:
niri hitzeman eta gibelaz itzuli.

Gaztena, ontu-eta, lurean ihaufi':
ene bihotza duzu zu ganat erori,
eta zurea aldiz hafia iduri:
ene begi gaixoak nigarez ituri.

Airea zahar eta kantorea[2] befi:
ene maite polita, zira xarmagari:
kolore xuri-gofi, arosa iduri,
mundurat jiña zira ene ihargar/i[3].

Heldu naiz zure ganat, arosa edefa,
ezin-bertze huntarik nezazun atera.
Xangrin huntan hiltzeko jin balait malura/
begian ba-zinuke betiko nigara.

1) eti abundancia; *1)* canto; 3) extenuar,- 4) desgracia.

55. XORI ERe SlÑULA

Ikus Sallabefi, *Chants.* 253'gn. oi'.

Xori eresiñula, hots, emak eneki
maícenaren bortalat biak alkarekt;
botz ezti batez izok deklara sekretki
harén adixkide bat ba-dela hireki.

Heldü gtnenian maitenaren bortala,[1]
horak[2] asi zeizkün xanpaz behala,
laster egin giñian bertan gordatzera;
eresiñula igain zühaín" batetara.

—Nor da edo zer da? —maitenak leioti.
—Adixkideak gira, ziaude beheiti;
eta borta ideki eineki emeki,
nintza ahal zitzadan ahalaz sekretki.

—Nor da edo zer da? Nunko zirade zu?
—Etxe ondorik eztit, parka izadazü;
egari handi batek harturik niagozü:
itun hun bat nun den, otoi, efadazü.

—Zure egafiaz ezta mirakulu,
egunko egunian bero egiten du.
Itun hun bat hortxe batuten[4] beitüzü,
zuk galtatzen* düzüna gure bear dugu.

I) puerta; *1)* perro,- 3) árbol; 4) encontrar; 5) eskatu.

56. SALBATORÉ GORA DA

Ikus A. Riezu, *Flor,* 240'gn. or.

Salbatore gora da, Garazi aldian:
ni ere han ninduzun ¡garan astian,
debozione gabe sentoralian[1],
ene gazte lagunak han beitziradian.

Borrietan artzain, eta ez jaizten- ardirik;
untsa jan, edan eta egin lo zabalik:
mundian ez ahal da ni bezain irusik[8];
enuke segur nahi bizitze hoberik.

Izar bat jeikiten da Goizeíi aldeti,
argi eder batetan, (eñuru bateki...
erien sendotzeko boteriareki;
hunki jin egin diat nik hari segurki.

Izar hura jiten da boztarioreki*,
zelialat emanen naiala bereki;
hitzaman diriozut nik hari segurki
harén zerbutxari nizatila beti.

— Amorio zahara, bear bait kitatu,-
hanitx pena dereitak hik eni kausatu;
maite befi bat zitak ezpiritian sartu,
hari bear deroat biotza Iibratu.

— Amorio zaharak zutia jenatzen[5],
befi baten jttiak hanitx agradatzen?
Zu ere gazteíorik hasi zinen maitatzen,-
hoberik duzunian, orai naizu kitatzen.

Zunbat aldiz nik eztut egin nigarez itufi,
zu zinadiala kausa amak eragiñak!
Afazu ere ba-ziala sobera ba-dakit,
zeren zutzaz benintzan xarmaturík beti.

Kítatzeko sujeta" ote zer ahal den,
ahal bezain etsatoki[7] ari nuzu pensatzen,-
ene buria deusetzaz ere eztit akusarzen,
tnozent nuzu; eta joan zite, aren,

1) peregrinación; *1)* ordeñar; 3) feliz; 4) alegrfa; 5) pesar,-6) motivo, 7) diligencia.

57. URZO XUPJA

Ziberutarez. Ikus Ch. Bordes, *La Traditlon Basque,* 337'gn. orialdeao,- A. Donosti, *Oüre Hería** 1928, 6; A. Riezu, *Flor,* 204'gti. or.

Urzo xuria jin izan zaikü
Arantsus'eko bortun gaiñean;
eran geneion kortereski
gaur bara ladin gureki.

«Urzo xuria, urzo xuria,
eran jzadak, otoi, egia:
norat buruz hündüen bidajez,
aldatu gabe pasajez.

— «Ene heritik partitu nintzan
España'lako deseñian,-
heltu ninduzun Arantsus'era
ene plazeren han galtzera.

Artzain gaztia bortu goretan
oiuz ari da doloretan:
antxu bat diala erosi,
bera dereiela ebatsi.

«Ene antxu, antxu karioa,
biotzez hunki maitatia,
nik etzütüt, ez, kitaturen,
lehen dit bizia galduren».

58. MAITEAK ERAN ZERAUTAN

Be-napaferaz. Azkue, *Euskalerriaren Yakintza*, IV, 189'gn. or.; *Kantutegian*, 997'an.

Maiteak eran zerautan
polit nintzanez.
Poli-polit nintzala, bainan
lafua beltz, lar/ua beltz.

Maiteak eran zerautan
primu nintzanez.
Primu, primu nintzala, bainan
etxerik ez, etxerik ez.

Maiteak eran zerautan
moltsa ba'nuenez.
Moltsa, moltsa ba-nuela, bainan
dirurik ez, dirurik ez.

Maiteak eran zerautan
lanean nakianez.
Lanean, lanean nakiala, bainan
gogorik ez, gogorik ez.

59. KAILA KANTUZ

Be-napareraz. Ch. Bordes, 12 *Chanaons Amoureuses*, 326'gn. of.; Riezu 207'gn. of.

Kaila[1] kantuz ogi petik uztaril agoriletan;
maitea ganik etxerakoan entzun izan dut bortzetan,
amodioak bainerabilkan liaren ate-leioetan.

Amodioa, amodio nahi duenak har diro;
nik batentzat hartu dut, eta sekula ez utziko,
ez sekula, tonbaren barnen sartu artiño.

Kukuiak umeak xilo tipian haritz gaiñean,
ama, ni ere nahi niz ezkondu adinak ditudanian;
ene lagunak egiñak dire juan den aspaldi handian.

Primaderan zoinen eder brioletaren loria!
Aspaldian nik eztut ikusi neure maitiaren begia;
balinba gaixoak eztu ahantze niri eman fedia.

—Oroitzen nuzu, oroitzen, ez zatazu ahanzten;
Madalena batek bezanbat munduian dut sofritzen;
jaten dudan ogia ere nigarez dut trenpatzen[2].

—Gaua ilun, bidia luze, ez dea pena handia?
Zure ikustera jiten gira, ¡zar xarmagafia;
borta irek aguzu, zuk, tendreziaz betia.

Gaua luze izanagatik, argi mentsik[5] ez dugu:
izar xarmagafi hura leioan omen dagozu;
gu etxian sartu artiño harek argituren derauku.

I) codorniz; 2) rociar,-3) falta.

60. TXOR1ÑOAK KAIOLAN

Ziberutaíez. Ikuz Saiabefi, *Chanls Populaires,* 48'gn. of.; P. Lamaiou, *Chanta, Pyrénéens,* 1869; Labayru, *Historia de Vizcaya,* (Bilbao, 1895), 677'gn. of.; «RIEV», 1935, 739'go. of.; A. Riezu, *Flor,* 254'an; J. M. de Leizaola, *Estudios sobre Ia Poesia Vasca,* (Buenos Aires, 1951), 29'an.

Txoriñoak kaiolan
itunik du kantatzen;
duelarikan zer jan, zer edan,
kanpoa du desiratzen.
Zeren? zeren?
Libertatia zeñen eder den!

Ik, kanpoko txoria,
so'giok kaiolan;
ahal balin ba'hedi,
artarik begir' adi.
Zeren? zeren?
Libertatia zeñen eder denl

Bart nik nigar egin det
ikusirikan maitia;
ikusi eta ezin mintza,
ezta samin andia,
eta ezin bestia?
Ai, naiago det iltzia!

61. ENE MAITEA, BARDA NUN ZINEN?

Ikus *Kontuz,* 121'an; *Mariya,* 97'an.

Ene maitea, barda nun zinen
nik bortaiñoa joitian?
Buruian ere min nüien, eta
dudarik gabe ohian.

Bard' aratsian, ametsetarik,
boz bat entzun dut xarmantik;
eztitasunez betia beitzen,
harén parerik ez beitzen.

Eztitasuna gauza edera!
Nork nezake ni kondena!
Gauaz lóale, egunaz ere
erepausurik batere.

Xarmagarria, lo ziradia,
eztitasunez betia?
Lo ba'zirade iratzar zite,
etziradia loz ase.

Arboletan den edefena da
oihan beltzian pagoaj
hitzak edefak ditutzu, bainan
bertzetan duzu gogoa,

Nik zureganik despegitzia
iduritzen zaut hiltzia,-
hiltzen ez ba'niz, bihurtuko niz:
indaitzüt bi pot, maitia.

62. EREGEK GIZON E**D**ERIK

Be-napaferaz. Ikus *Oure Heria,* 1923, 6.

Eregek gizon ederik guardetan ba-du segurik;
Lekunberi'ko brigadan baEo ororen gaiñetik,
neskatxen engañatzen ez baitu parerik,

— Ene maitia, zer duzu? zerk holakotzen zaitu zu?
Ez du denbora luzia zirela penetan sartu...
Plazeraren ondotik desplazera duzu...

—Mendiak bete belafez, begitartiak nigarez...
Lan eginaz uíiki dut, bainan probetxurik ez...
Orai hemen nagozu tronpaturik miñez,.,

—Mendian eder arbola luze lerdena...
Zu zirade mundu huntan nik maitatzen zaitudana...
Bisitaturen zaitut ahalik maizena...

— Lekunberi'ko neskatxak, Zuberoa'ra ba-noa,-
Zuberoa'ko kolonbak deitzen bainau bere gana;
hautatu bear dela zuzenez lehena.

65. ÉREZTUNA

[kus *Kantuz,* 109'gn. or.; *Mariya,* 138'an.

Partitu nintzen hefitik zuri promesa emanik,
enetzat fidel egon ziñien ongi gomendaturik,
ez duzu egian kasurik!

—Fidelik ez egoiteko ez dut, ez, nik arazoinik¿
ene bihotza zuk daukazu aras enganaturik,
hortaz ez izan dudarik!

— Partitzean eman zauzun seiñaleño bat nik zuri;
seiñaleño hura nik orai nahi nuke ikusi,
ez bauzu eman nehori.

—Zuk eman sinale hura ez dut eman, ez, nehori,
begiratuko ere nuen, ez balitzeraut hautsi,
bainan egin zaut bi zati]

— Nik eman eíeztun' hura ez zuzun bada kobria,
ez zen eta ere zilara, bainan zuzun uria,
diamantezko begia!

— Amodiorik ba'nizu zuk batere enetako,
poxiak[2] bildurik zintuen niri erakusteko,
satisfos ni egiteko!...

i) sortija;!) pedazo.

64. BURUILAREN ONDARA...

Ikus *Kantuz,* K 7'gjj. ofialdean.

Buruilaren ondara... Jondoni Mikele...
Maitia, ikustera heldu naiz ni ere.
Baldin plazer ba'duzu, otoi, jeiki zaite!
Zure hor ikustia desiratzen nuke...

—Ez, ez, ez naiz jeikiko, seguratu bainiz
adixkide tutzula neskatila ainitz...
Eskerak Jainkoari, hola libro bainitz!
Malunrs behar nintzen ni fidatu ba'nintz.

— Federjk ez duzula diozu ni baitan?
Entseiatu bearko bertze, zenbaitetan...
Pena handiagorik zer da mundo huntan?
Jaraiki baitzitzautzut beti alferetan...

—Ez dut bada ibiltzen sakelan limarjk,
Ta are gutiago kontrako giltzarik...
Maitatzen ez ba'nuzu, ez ideki bortarik;
etxera joanen nuzu jin nizan bidetikl

Lersunak' lero-lero bidian ba-doazi,
beruaren lekurat, hotzaren ihesi...
Ni ere beti penaz beharko naiz biz?;
zonbait aho-ktrets[2] nik beharko iretsi![8]

1) grulla) 2) herdor; 3) tragar.

65. ALARGUNTSA

lkusi *¡Izaldigk* (Donostia, 1923), 2'garea saiJa, *Euskalduna, abeslari,* Donostiar j, A.'ren itzaldia.

— Ene ama, otoi, efazu
mutil oriek zer duten.
— Ene alaba, deuserik ez,
zamari beltza galduriken.

— Ene ama, otoi, efazu
neskato orrek zer duten.
—Ene alaba, deuserik ez,
zilar untzi bat autsi duten.

— Ene ama, ez, otoi,
ez, otoi, egin nigarik;
efege jaunak ekariko du
ure eta zilar armaderik.

— Ene ama, otoi, erazu
kantu oriek ain gora zer diren.
—Ene alaba, deuserik ez,
prozesionia dajuaiten.

—Ene ama, otoi, efazu
zer saia ezar bear duden.
—Saia xuri edo gona?
Ederkiago da beltza,

—Ene ama, otoi, erazu,
tonba ori zer da ain gora?
— Ene-rena, ezin deit gorda
efege jauna eortzia.

—Ene ama, ori ure,
ufe eta zilafen giltza.
—Ene semea, ontsa azazie
eztitasun ekila.

—Lur santia erdira bedi,
ni ere sar nadin,

Lur santia zen erdiratu,
ni ere barnen sartu,-
espus jauna besarkatu.
Jinko Jauna dela laudatu.

66. ADIÓS, IZAR EDERA

Ikusi Salaberi, *Chants,)A1 oí:¡ Sfvplkan,* 8 or.

Adiós, izar edefa, adiós izara!
Zu zare Aingerua munduan bakafa!
Aingeruekin zaitut konparatzen,-
Zenbat maite zaitudan ez duzu pensatzenl

Adiós, izar edefa, eta kariua,
Meure begietako lili afarua!
Bihotzez zurekin eta gorputzez ba-nua,
Jarikiren' zautazut zur' amodiua.

Izan naiz Araguan eta Kaslliíoan,
Hitz batez efaiteko, España guzian;
Ez dut ikusi zu bezalakorik;
Nafafoa guzian zaude famaturik.

Jarikitzen ninduzun izar eder hari,
Nola mariñel ona bere oíatzari[9].
Jende onak atentzione ene arazoin huni:
Etzieztela fída amodioari!

Amodioa duzu afosaren pare:
Usaiña badu eta ondoan arhantze.
Maitia, ni enainte egon zu gana jin[B] gabe,
Hil behar banu ere hirur egun gabe!

[) seguir; 1) brújula,- 3) llegar.

67. ZAZPI-ZORTZI

Ikusi *Ef-eplkan.* 10 or.

Zazpi-zortzi bertsu ben
Nahi nituzke ezari$_y$
Gauzak diren bezala esplikatuz guzien:
Pena-xangrin handietan orai sartzera noa ni!

Aitak dio semeari:
«Utzak, utzak neska hori!
«Zendako duk etxen hori? Zeren baita beti eri!
«Utzak, utzak neska hori, gostarik ere zer-nahi!»

Semeak arapostua,
Ai! bainan ezti-eztta:
«Eria bada gaixoa, ez duke bere nahia,
«Nik han dut neure fedia: inposible zait uztia!»

68. URZOA

Ikasi *Efeplkan*, 18 of.

—Urzo luma gris xuria,
Jakintzak hire bidia.
Ziloka horiek utzirik, barazak' hemen juaitia;
Mendi pareta polit huntan, ba-duk niretzat lekia.

— Nahi dut juan erditik,
Ez duket hor nik lanjefik[2].
Nahi baduzu zuk igofi etxerat zure befirik,
Airian pasatuko niz laster Donazahafetik.

—Ez duk ikusten, urzua,
Oxkax handiko lepua?
Hango saretan utziko duk, segur hik heure burua;
Nahi baduk eskapatu, jozak hegalez zerua...

—Hanitz esker zuri, jauna:
Hartzen dut zure erana.
Oxkax'eko makil zuriak, Duprat nausiaren lana,
Utziko ditut erorterat, eta juanen niz aintziña.

—Urzuetan edefena,
Jinko Jaunak hak egiña,
Mendi gorak iragan gabe pasazak hemen eguna;
Irati'ko oihanak ez dik emanen ezkur huna.

—Ezkufak ez du parerik,
Hartarikan maite dut nik.
Bainan zure ezkufa zer den goguan dut iraganik,
Botigetan saltzen den draya harman duzula emanik..

—Urzo txar mehe perdela,
Bistatikhail berehala!
Indar handirik ez ukanez juaiten hiz apal-apala:
Agian ez duk pasatuko bizirik Oxkax hegala.

—Oraixtian[3] nintzun eder,
Kanbiatu nuzu laster.
Adiós, beraz, jaun Bidarte, bi milaka zuri esker;
Nahi baduzu gaur apaldu, habilkiago joka bester.

I) quédate; *2)* peligro; 3) hace poco.

69. MUTIL GAZTIA

Salabeñ, *Chanls,14<yno;* Duian, *Oure Hef-la.* 1906, 8; A. Riezu, *Flor,* 336'an

—Mutil gaztia, bilo horia,
burian duka banitatia?
Uste duk bai naski haizu dela beti
gortearen egitia andre orori.

—Eni haizu da galdegitia,
zure konbeni begiratzia;
hirur mutil gazte, zu nahiz emazte,
beren artian disputa ba-dute.

—Ukan bezate, nahi ba'dute;
ene perilik haiek ez dute;
ez nahiz ezkondu, ez disputan sartu,
komentu baterat orai ba-niazu.

—Andre gaztia, gomazu[1] tronpa;
zure gogua kanbiakor da.
Komentu guziak beitira betiak;
jin[2] zaite niganat, untsa[3] izanen gira.

f) cuídate; *1)* venir 3) ondo.

70. GOAZIN, LAGUN

Ikus *Gure Hefia,* 1931, 1; Mahn, *DenkmSler der Baaklacben Sprache* (Bcrlio, 1857); A. Riezu, *Flor,* 347'an.

Goazin lagun, goazin biok, goazin AtiaaneVat
uso xuri bat jalgitzen[1] da Atizane'ko plazarat;
usono hura nahi nuke bildu sarietarat,
bildu sarietarat.

Hegalak ditu ariñak eta begi ere ernea,
eta bera, heiekila[2], izpirituz betea.
Beldur nikek ez den eíex harén atzemajtea,
harén atzemaitea.

Atizane'ko plazan ba-duk ihiztari abilik;
bat edo bia jareiko ziazkok uso hari ondotik,
bainan ezin idoki[3] ziotek batere lumarik,
batere lumarik.

Xaflaxa'[1] bezain ariña ba'nintz joaiteko airean,
usoño hura harapa nrro airean edo lurean,
edo bertzela sar nindake harén usotegian,
harén usotegian.

Maiatzean zoin den eder julufraia[5] xuria!
Zenbait aldiz eran zerautan usoño harek egia:
gabaz ungi zefatzen zela harén usotegia,
harén usotegia,

I) salir; 2) con ellos; 3; quitar; 4) cernícalo; *5)* alhelí.

71. IZARA

lkusi *Efepikan,* 89 or.

Ene maiteak gaur igon daut
segeretuan mila goraintzi,
Gorputzez urun izana gatik,
bihotzez dela beti eneki;
Laster bisitaz jinen zaitala,
bizi nadien alegeraki.

—Tristerik nago, o bai tristerik
bainan ba-dakit ontsa zergatik:
Izar eder bat maitatuz geroz,
oi! bihotzaren erdi-erditik,
Hura handikan jalgiz geroztik,
ai! ei! gaixoa, zer inen dut nik?

—Ene maitea, gauza xume bat
nik nahi nuke jakin zu ganik:
Zerk zerauzkan zu hola tristerik,
zure so ezti ona galdurik,
Ala baduzun beldurkunderik
nikmaitedudanzutazbertzerik?

—Galdu duzuia zure aldetik
izar dixtira pare gaberik?
Gauaz ez daite izar eskasrk,
ez balin bada biltzen hedoyik:
Bat hauta zazu hekietarik,
ez izaiteko gero dolurik.

—Ez da zeruan izar bihirik
nik maite dudan harén parerik.
Zeruan sortu izana-gatik,
distiratzen du nola zerutik:
Izarño hori oroz gaiñetik
ez otoi hafi maite badut nik!

72. AZKEN-HASPERENA

lkusi *Efepikan*, 79 or

Zeruko izaren bidea
nik ba'naki,
han niro ene maite gaztea
, xuxen kausi;
bainan gaur jagoiti' nik hura
ez ikusi.

Haritz gazte bat nik aihotzaz[1]
trenkaturik,
iduri zait ene bihotza
kolpaturik:
eioak eroriko zaitzola
eiharturik.

Ahal balitz ene begia
zefaturik,
ene maite gaztearena
argiturik,
ezar niro ene odola
ixuririkl

Zeren baitzen lili ororen
edefena,
bai eta ene bihotzeko
maitenena,
harén izanen da ene azken
hasperena[3].

I) ya; 2) machete; 3) suspiro.

3) \Ú\ TA NEGAR

75. AMA, EZKONDU

Ikus Azkue, *Euskalef/aren Yakintza,* IV, I72'gn. ofialdean. Baralbar'en i kasia.

—Ama, ezkondu; ama, ezkondu,
gaztea naizen artean,
—Neska, ago ixilikan,
etzion ogirik etxean.

—Ama, ezkondu; ama, ezkondu,
denpora denean.
—Ene alaba, zer diraustazu?
ardorik eztago etxean.

—Galburutxo bi gorde nituen
garia genduenean;
eun anega atera nizkon
ifi-ara batean.
Ura-labiru-labiru-lena,
garia genduenean.

—Masmordotxo bat aurkitu neban
bidean ostikopean;
zortzi kantara atera nizkon
aufeko lakaiña batean.
Ufa-labiru-labiru-lena,
aureko lakaiña batean.

—Ama, ezkondu,- ama, ezkondu,
gaztea naizen artean.
—Neska, ago ixilikan,
etzion ardorik etxean,

-Ama, ezkondu,- ama, ezkondu,
gaztea naizen artean.
—Neska, ago ixilikan,
aragirik ez etxean.

— Masmordotxo bi gorde nituen
matsa genduenean,
eun karga atera nizkon
estutu-aldi batean.
Ura-labiru-labiru-lena,
matsa genduenean.

-Bein batean jari nintzan
josten laba gaiñean,
txantxangori bat etofi ta
eseri aldamenean'.
Ufa-labiru-labiru-lena,
josten laba gaiñean.

74. IKUSI NUANEAN

Azkue, *E.J.,* IV, 43'8n. of.; Orixe, *Euskaldunak,* 75'gafeaean,

Ikusi nuanean
zure ile latza,
iruditu zitzaidan
sorgiñen efatza[1].

Ikusi nuanean
zure bekokia,
iruditu zitzaidan
zartagi-ipurdia.

Ikusi nuanean
nik zure bekaina,
iruditu zitzaidan
gauaren kamaina*.

lkusi nuanean
nik zure sudura,
iruditu zitzaidan
lukainka-mutura.

Ikusi nuanean
nik zure bulara,
iruditu zitzaidan
basoan txondora.

lkusi nuanean
nik zure begia,
iruditu zitzaidan
anpolai gofia.

lkusi nuanean
nik zure agoa,
iruditu zitzaidan
karobi-zuloa.

Ikusi nuanean
nik zure mokora,
iruditu zitzaidan
Azpiroz malkora'.

Ikusi nuanean
zure helaría,
iruditu zitzaidan
azaren oria.

lkusi nuanean
nik zure okotza,
iruditu zitzaidan
gaztaina-morkotsa"

Ikusi nuanean
nik zure zangoa,
iruditu zitzaidan
auntzadarmakoa.

1) escoba,- ?) cania, 3) erizo; *4)* peñasco

75. ORA1KO NESKATXAK

lkusi *Eskualdun Kantaria.* 106 or.

-Ai! ai! ai! ama, burua min!
arto jorarat gan' ezin!
Josteko batzu nere gelan orai ba'nituzke behin;
bertzenaz ez dakit zer egin.

— Bai, nere haura, ba huake,
nahi ba'dun izan bake:
hire aitak ama-sabelaz ez din batere sineste,-
zertako hartu du emazte?

—Mankan', ama, ote da kafe?
Xortato bat nahi nuke.
Kurukaka nere sabela nihon ere ez dagokc,
laguntza zerbait bear luke.

—Bai, nere haura, ¡zanen dun,
kausi ba'dezaket nihun,-
agorient tanta bat ere xixari[3] hiltzeko on dun:
beafa ba-dut nik ere egun.

—Heriko besta emen dugu,
bearko naiz ahalketu'!
Soin beriaren egiteko aitak ez omen du diru;
bearko dugu enganatu.

—Zein ilun zauden, Piafes;
zeren duzu kopeta beltz?
—Ai, Maria! Diru galdea eta nik moltsan baterez;
etxea bete dugu zofez!

1) ir; 2) alacena; 3) lombriz; 4) avergonzarse.

76. GAN NINTZEN BARATZERA

Azkue, *E. Y.,* IV, 6l'an;/ian/ute^/a/", 309'aD. Lekarotz'en kanta oi da.

Gan[1] nintzen baratzera tipula-jofara,
oiña iristatuta erori luíera.
Tárala larala lai, tárala larala lai,
oiña iristatuta erori lufera.

Etori zan barbera* nerau ikustera,-
barberak eran zuen: «Oiña du minbera».
Tárala Jarala lai, tárala larala lai,
barberak eran zuen: «Oiña du minbera».

Etori zen maitea nigar egitera,
bereala senda nintzen ikusirik bera.
Tárala larala lai, tárala larala lai,
bereala senda nintzen ikusirik bera.

Au ikusi zuenean mintzo zan barbera:
«Gazteak sendatzeko deusik ezkera».
Tárala larala lai, tárala larala lai,
«Gazteak sendatzeko deusik ezkera».

1) joan; *1)* médico.

77. NlGAREZ SORTU

Nigafez sortu nintzan, nigafez hiltzeko;
ez ordean munduan luzaz bizitzeko:
jendek izanen dute efaiteko frango,
aita-ama maiteak zuen biendako.

Aita-ama maiteak, mundura zertako
eman izan nauzue zorigaitz huntako?
Nik ez nuen hobenik hola tratatzeko:
Federik eman gabe abandonatzeko,

Sortu nintzen ordutik hiru oren gabe,
bero-xoko batean gaixoa eman naute,-
nihaur bakafik bizi, txoriak haurhide
ene kontsolatzerat kantuz heldu dire.

Ni goizeko aroan hementxe paratu;
geroztik iguzkia gaiñetik pasatu;
aita gorde da eta amak nau ukatu:
ez ote naute bear norbaitek altxatu?

Zorfce trixte huntan naiz... mundura etofi,
oi, hemen niagozu, bildotx bat iduri:
lura seaska eta zerua estalgi,
norena ote naizen Jainkoak ba-daki,

Zeruan iguzkia zelarik apaldu,
andre gazte bat zaitan aldetik pasatu;
aingeru bat nintzela zenean onartu[1]
amultsuki[3] ninduen besoetan artu.

—Zato enekin, zato, aingeru maitea!
Dolugafi leiteke zu hemen uztea...
Bozkario[8] enetzat zutaz jabetzea;
erakutsiko dautzut zeruko bidea...

Bataiatu ondoko goiz alba gofian
Jainkoak bildu zuen agur ederean:
haufa ez da galduko munduko bizian:
aingeruekin dago zeruko lorian,

I) advertir; 2) cariñosamente,- 3) alegría.

78. EZKONT GAJTEN

lkusi *Kantuz,* 137'gn. oñaldean.

Intxauspe'ko alaba dendaria
ezkont-miñez abantxu[1] eria.
Zahar bati egin zion galdea,
gaizki zenetz espos bat hartzea.

Xaharñoa pertsulari hauta zen,
ezin mintza koblakatuz baizen.
Hiru kobla hor diozka moldatzen:
bildu ditut ahantz ez ditezen.

—«Huntz-ostoa goiti doa perderik;
herbailtzen[2] da, ez badu zurkaitzik[8];
izaitekotz zaínetan kaüpurik'*,
bego hura haitzari loturik.

Laiñoz dagon egunaren tmtea,
iguzkia delarik gordea!
Berdin trixte, gau ilargi gabea!
Izar gabe deus ez da zerua...

Ez, mertxika ez da polit neguan,
makildua agertzen denean.
Primaderan zoin eder lore-pean!
Joriago, fruituz beterikan!»

Hortan zuen xahafak bururatu,
eta nexkak ontsa konprenitu:
zurkaitz, izar, lore bai eta fruitu,
ezkontzeak emaiten baititu.

Ezkontzari aihertzen[6] zaizkionak
higuin ditu zeruko Jaun onak:
Ezkont gaiten beldurik gabe denak,
donadoak eta mutxurdinak.

\) casi.O) debilitarse; 3) euskai; 4) energía; 5) aborrecer.

n. GURE GELARlAK

Azkue, *E. y4,* IV, 40'go. or. Amikuze'n (B N) entzuna.

Gure gelariak[1] galde egin deraut
soinu-gidariak zoin ginen.
—Ahalge gabea, moko-perdea,
zertaz hiz hi enbrasatzen?*
Heri guzia dun nahasten,-
zaharak eta gazteak
oro gitun dantzaturen,-
arno unik ba-dugü, edanen;
eta hitaz kasu guci eginen.

Bertsu beriak moldaturik,
sujet* edefez egiñik,

bai eta ere aspaldian
sujetak aribaturik,
nehon ere ez izanen
bertsu hoien huntzalerik[4].
Orai ba-dugu bat hunik,
igofi deraizkot egiñik.

Sujetak dire xarmagafi,
bai eta iri-egingari.
Eztenez hala dezagun galda
Aihere'ko barberari;
harek ba-daki hobeki,
tratatu du zonbeit aldiz,-
hurbil beitziren algari,
marketatik du ageri.

Orai hasten niz deklaratzen
sujetak zer diren efaiten,
bai eta ere neska gazte
orori etsenplu emaiten,
inútil gazten ebertitzen[6],
zeren eta uste gabez
orai bat hala gertatzen;
harcaz gerade mintzatzen,

Eniza bada dolugari,
bai eta iri-egingafi?
Damua damu desohorea,
elizalat ezin jalgi;
zeren eta flakezian
erori beiniz handizki,
eta orain ezin jaiki,
estekatua[6] bortizki.

I) camareía,- *2)* apurar; 3) materia; *4)* corrector,- *5)* advertir; 6) impedido

80. GORA, GORA

Azkae, *E, Y.,* IV, 62'ari; Ipiñabtiru'n batua.

Gora, gora begitu, lañoak ageri,
ofexek mutil oiek, tontoa dirudi.

Txapel azula eta baradunak frakak,
Afatia'n ei dagoz mutilak galantak.

Orain etori yaku efira modea,
txapel azulak eta merino-jakea.

Urkíola ganeko lilio lorea,
andixe gora dago zerura bidea.

Lapatza goi-ariña, Undufa bekoa,
bien erdien dago Undufa goikoa.

Undufa goikoan dagoz iru neskatila:
kalabazea janda lodituten dira.

Itufira joanda, laster da etofi,
bafegafiren bat topau ezpalegi.

Afo-afoak dira azukariloak,
olakoxeak dira Zeanuri'koak.

A mutil anka-luze, pipa-artzailea,
txingarak efe deutso sufaren puntea.

Ikatza zabaltzeko ona da lariña:
saltzeako ei dauko alaba zafena.

Oraingo mutiltxoak bana-banakoak,
lapiko-tapatzeko alagalakoak.

O mutil anka-luze, txotxo armario,
kantzontzilo-kordela bernati dario.

Oraingo neskatilak dauken gogoagaz
ezkonduko litzakez ota-moltsoagaz.

Ama neurea beti agiraka neuri,
iluntzean goizegi etofiagaiti.

Ufengo agiraka eiten daustanean,
enazela etofiko gaberdirartean.

Araba'ko landea ba'lego Gorbeia'n,
antxe egingo geunke zirikin zakian.

Negar ta negar dago Efosa gurea,
katuak jan deutsala bai labadurea.

Ez egizu, Efosa, katua mankatu;
saguak uxetako katua beogu.

Azkenengoa da ta ibili kontuan,
amaitutera noa ufengo puntúan.

81. OILAR KOLPEKARIA

Ikusi *Efepikan,* 79'gaftn orialdean.

Oilar kruel, oilar bortitz,
o oilar fanfafuna,
gure oíloak bi aldiz
alargundu tuana:
goregi kantatzen ba'duk
ereman bitoria,
promes dauat, galduko duk
laster hire bizia!

Hire kolpe itsusiak
jakin zituztenean,
hefrko oilar guziak
bildu behar zituan,
bere lagunen odolaz
arazoin galdetzeko[1],
biri bizi kriminelaz
harén mendekatzeko.

Bakea egin deneko
ez bahaiz eskolatzen,
ez badituk hauzotako
oilarak menaiatzen,
Angletefan hautaturik
erakafiko diat,
gustatzen dena gostarik,
ojiar mendekari bat!

Gure oilar defuntuen
kukuruku eztiak
jaiki-arazten zituen
bere mugan sehjak[2]:
ez dire aski nigarak
oilar hain maiteentzat.
Hek bezelako oilarak
ez ziren eltzekotzat*.

I) pedir; 2) compañero; 3) olla.

82. URAK ERAMANA

Ikus) Azkue, *Eu$kafef/aren Yakintza,* IV, 159'garenean.

Itxas-gizonEo bat zidan
senartzat nere amak eman.
Zeren ez legor-aldera
joan beste bat artzera?
Orain zoria nuen nik,
zuri ta goriz jantzirik!

Gaixoa urak eraman zuan
San Markos goizean.
Oi, egun andi argia,
neretzat iíun tristia!
Ai'aiñen jaki izateko
sortu al ziñan, senarko?

83, ANDERE MUSTATX

lkusi *ESepikan,* 82'garenean.

Konseilu on bat nahi dut eman
mutiko gazten onetan:

Otoi, ez izan konfiantxarik
emazte mustatx' dunetan...
Nihaurk neurea hola dut eta...
pitxafaz jo nau kopetan!
Eta ez uste gabetan!

Ezkondu nintzen gaztefodanik,
gogoak hala emanik
Ezpain xuria andre-geiari
nion beti ikusten nik:
Ez bainakien sudur azpian
emaiten zela irinik!
Hortaz nago doluturik...

Andre artzean ez hanbat beha
ean den sudur-tnakufa,
Ez eta ere ekartzen duen
bizkar gaiñean konkora[5]...
Bainan, oi! kasu ean ba'duen
ezpain gaiñean bizara.
Hura baita, hura, tzaía[8]!

bigote, 2) joroba, 3) malo.

84. BEHIN BATEZ

Azkue. *E. y.*, IV, 178'ao; luuritz'en batua.

Behin batez joan ninduzun
Isturitze'ko plazalat,
andre eder bat ikusi nuen
dantza-buruan zuhala[1].

Atsoño bati galdegin nion:
—Nongoa da andre eder hori?
—Murde Beizuntz, hori duzu
Agefe"ko alaba.

—Agere'ko anderea,
liitz batez adi' nezazu;
zure alaba Kalaliñaño
emaztetako indazu.

—Ene alaba Kataliñaño
. hitz emanikan dagozu;
liaren ondoko pupuñañoa[3],
jauna, plazer ba'duzu.

— Ai! ei! ai! ci! penaz eta
ai! ei! ai! ei! ai! dolorez:
eiherala' joan bear eta
Murde Belzuncze'n belduíez.

—Hábil hortik, ergel xara!
ez dun Belzuntze'n perilik;
ihizira[5] joana ziagon,
goizean goizío jeikirik;

goizean goiz jeikirik eta
bere orak[e] harturik,

—Kataliñaño, norat xoaxi
xuhaur hola bakarik?
—Eiherala, Murde Belzuntze,
nihaur honela bakarik.

—Kataliñaño, nai duxuia
nik emanikanlagunik?
—Nik eztut lagun bearik.

Lagunak nik ukaitekotz,
neure aitamek emanik.

—Kataliñaño, baldin ba'naki
nor duxun eskolatzailia,
paga ere nezakezu
xure eskola-saria.

—Ene eskolatzailia da
heriko jaun bikaria,
ene aitamek pagatuia da
ene eskola-saria.

1) que iba,- *2)* óyeme; 3) joyita; 4) niolino; 5) caza; 6) perro.

85. ETXOLA

lkusi *Eñepikan,* 74'gareoeao.

Mendi gaiñean bi pago!
Zeru polita gorago!
Ene etxola' xuri-goria han edeíik dago!
Zola¯* oro arto-zango^
biper goriak dilingo!
Hefi guzian, mundu guzian, nor da urusago?[3]

Ardiak ditut ehunka,
hamabi ahuntz jauzika,
sei betroin* azkar, seiak esnedun, lapinez hameka!
Ogiz betea dut arka,
sotoak[3] arno ba-dauka,
ene biotzak Jainko Jaunari eskeíak diozka!

Kafikan bada gorderik,
Izar urbe bat ederik:
balio ditu ene gostuko bertze lau segurik:
nahi balu kariketik
hunat bildu ene gatik,
orduan hemen ez lizateke deuseren eskasik!

i) choza; *7)* sucio; 3) *(c\iz¡* 4) ternera; 5) bodega.

86. EZKONTZEKO KONSULTA

lkusi «Aintziña» iíerokoa, 1934, azaroan,

Ezkonduak, erazue ezkonduren nizanez?
Baztefetan ikusten tut ezkonduak nigafez...
Hutsik eginen ote daut hola hola egonez?
—Hartzen ba'duk edefa,
Hura dukek alfefa,-
Hartzen ba'duk gofia,
Hura dukek ordia;
Hartzen ba'duk xuria,
Hura beraz eria...
Ezkonduak, ezkondurik egon zaizte nigafez:
Eskerak ditut Jaunari, hola hola egonez.

Ezkonduak, erazue espos onik ba'denez?
Baztefetan aditzen tut doluturik auhenez...
Eskas handia duketa hola hola egonez?
—Hartzen ba'duk ferdea,
Oi! zein zori trixtea;
Hartzen ba'duk oria,
Hilen zeraik xoria,-
Hartzen ba'duk bel-beltza,
Adió hire bikotia...
Ezkonduak, ezkondurik egon zaizte auhenez:
Eskerak ditut Jaunari, hola hola egonez!

Ezkonduak, erazue kontent zaizten bai al'ez?
Baztefetan orhoit dira beren gazte denborez...
Ez dute míletan hobe hola hola egonez?
—Hartzen ba'duk ariña,
Bertzen dukek egina¡
Hartzen ba'duk tontoa,
Galduko duk gogoa,-
Hartzen ba'duk habila,
Harek dikek makiJa...
Ezkonduak, ezkondurik egon zaizte mil urtez:
Eskerak ditut Jaunari, hola hola egonez!...

87, MADALEN ETA BARNETXE

Orlxe jaunak Baxenabare'n bildu ta olerki-bildunja ontarako bialdu»; ¡rugaren ahapaldia, berak asmaua. Musika be ba-dau, oso bikaiña.

Madalen. —Zoazi eta erozu
ene partez goraintzi
neure adiskide Musde Barnetx'i,
ez dudaia nelior hura baizik utzi
karesatu gabe osoki;
kausa zer den berak ba-daki.
Neskatila gaztekin
ardura dela bizi,
libertituz ederki,
ez ditu kitaturen oraino naski,
ez da satifatu oraino aski;
denboraz balia bedi.

Ba ro etxe. —Bmakozu afapostu
andere Madalen'i
ez dezadaia, otoi, gezufik eran eni,
hitz eman zautan buruz gajneti
enía zela orai eta beti.
Harén hitzez nor fida ladi?
Hura zer den Barnetxe'k daki.
Ba tu bi begi,
baitere xarmagari,
izara dirudi;
kolorea gori,
ehun oscotako afosa iduri.
Neskatila gazte enganagan!
Karesatzen daki ederki;
denboraz balia bedi.

88. O PELO,' PELO!

Azkue, *E Y*, IV, 19t'garenean.

O Pelo, Pelo!
lógale nik eta
jineo niza oherat?
—Irun[1] ezan eta
gero, gero, gero,
irun ezan eta
gero, gero bai.

O Pelo, Peío!
irun diat eta
jinen niza. oherat?
—Astalka[2] zan eta
gero, gero, gero,
astalka zan eta
gero, gero bai,

O Pelo, Pelo!
astalkatu diat eta
jinen niza oherat?
—Harilka[3] zan eta
gero, gero, gero,
harilka zan eta
gero, gero bai.

O Pelo, Pelo!
harilkatu diat eta
jinen niza oherat?
"Irazki< zan eta
gero, gero, gero,
irazki zan eta
gero, gero bai.

O Pelo, Pelo!
irazki diat eta
jinen niza oherat?
—Jos ezan eta
gero, gero, gero,
jos ezan eta
gero, gero bai.

O Pelo, Pelo!
josi diat eta
jinen niza oherat?
—Argia dun eta
bihar, bihar, bihar,
argia dun eta
jinen hiz bihar.

1) hilar; 2) enmadejar; 3) ovillar; 4) devanar,

89. BARATZEKO PIKOA

Ikusi *EFepikan,* 76'gn. ofialdean.

Baratzeko pikoak hiru zurkaitz[1] ditu;
dantzan dabilan hoiek oiñak arin ditu;
oiñak ariñak eta burua ariñago;
dantzan hobeki daki arto-joran baino.

«Arto-jorara noa lur beíi-benra!»
Belafa joratu-ta, artoa sasira!
Bainan zoin eder harén dantzarako planta!
Zein airoski dabilan ezkefeko anka?

Neskatxek begi gutxi langile onari;
dantzariari aldiz eun mila iii;
ondotik ba-doazko itzul ta inguru;
nahiz mutil hofekin egon buruz-buru!

—Ba-dakit baituzula bat eta bi ere:
esperantza galdurik ez nago ni ere...
—Ene tiki polita, hainitz maite zaitut;
zato, ene zaldian eremanen zaitut.

Erdirik ez duenak lau ezin xahutu[2];
mutil andrekaria nekez aberastu;
huntan akabatzen dut egungo erana,-
jendek efanen dute nik gorde dutana.

1) puntal; 2) gastar.

90. IRUTEN ARI NUZU

Salabefi, *Chanls Populaires,* 88'gn. *or; Gure Hería,* 1925, 240'gn. of.; A, Goienetxe, *Eskua/dun Kan/ar/a,* •iO'gn. of.

Iruten ari nuzu, kilua[1] gefian,
ardura dudalarik nigafa begian.

—Nígar egiten duzu, oi suspirarekin?
Kontsolaturen zira/ oi denborárekin...

Ezkontzen balin ba'zira mariñelarekiri;
xardina janen duzu makailuafekin;

Ezkontzen balin ba'zira mando-zainarekin>
araina janen duzu oliuarekin.

—Ofiziale seme, kolore gona,
Baigori'ko neskatxen karesatzailea.

—Nik ez dut karesarik, bertzek ez duteoik;
berak dabiltza ondotik, zer eginen dut nik?

—Ezkon-mina dutala, zuk omen diozu...
Nik ez dut ezkon-minik,- gezura diozu.

Ezkon-mina dutenak seinale dirade:
Matel-hezurak[2] idor, koloriak berde,

Jendek eraiten dute: ezkondu, ezkondu...
Niri ez zait oraino gogorik berotu.

Beltxarana naizela, zuk omen diozu...
Ez naiz xuri-goria, egia diozu,

—Xuriak eta beítxak, mendian ardiak...
Ez dituzu zuk ere mentaja guziak.

—Xuriak xuri dire, ni naiz beltxarana;
ongi kontentik dago ni bear nuena,

I) rueca; 2) mejilla.

91. SENAR ZENA

lkusi *Ef-epikan,* 86'garen oñaldean.

Jaz hil ziczaitan senara,
nik nahi nuen bezala!
Itsutu zen,
matngutu zen,
elgortu[1] zen,
konkortu zen:
zahafa zen, hil bedi!
Etzuen balio lau ziri[2]!

Aurten hartu dut senara,
nik nahi nuen bezala!
Ez da itsu,
ez da lausu,
badu zentzu,
badu diru;
diru deno, bizi bedi;
gero hil dadila noiz nahi!

1) hacerse sordo; *1)* ochavo.

92. EZKONDU NINTZANEAN

Azkue, *E.* K-. IV, 37'an. Gnbika'n ikasia

Ezkondu nintzanean bost gona nituen;
bi baituran[1] jan ta bi saldu nituen,-
soiñean daukadana txito daukat zara,
bariak egiteko esperantza txara.

Bizi oi nintzanean ugazabanean
txokolatea neukan gorderik koprean;
txokolatea eta alan beste asko,
gorderik oi nituen bear nebaneko.

Azak eta borajak orioz beterik
ezin jan oi nituen nintzala bakafik.
Ezkondu eta gero, urtebete bage,
porusaldea neukan oi'iorik gabe.

Au da bizimodua dodana neuretzat,
ezin dot oriorik pofusaldarentzat.

Seintxu[5] bat sabelean, besce bat besoan,
gizona tabernan ta artoa auzoan,
iru ilinti[3] ketsu suaren ondoan;
arik datorenean, irurak lepoan.

Orako gizon ori doe neure senara,
saritan ekarten deust begira negara.
Jazo[4] al ba'litzake jazo al eztana,
laster salduko neuke nik neure senara,

Ezkondu nintzala ia dira urte bi,
eztiot koncsejurik emoten iñori.
Gazteak, entzun dozu neure kontsejua:
laster garbatu[5] yatan niri ezkondua;

1) prendar,- *1)* criatura; 3) tizóo,- *4)* suceder; 5) pesar.

95. BESTEK ETXERATUA

Azkue, *B. Y.*, IV, 34'ar»; Erenderi'koa.

Bestek etxeratua
det nik emaztea,
alpefa ta itsusia,
zafa ta dongea,
ortzak ere joanak,
juizio gabea,-
bestetik, nere gisa,
arlote pobrea.

Gau artan etzuen
argirikan piztu,
aizeak ira2eki[1] zion
lau txekortari su,
—Txantxaz[2] ala zinetan
etori zera zu?
Jakin nai nuke eta
esan bear didazu.

Ekusten izandu naiz
lengo afatsean,-
aritzen zala, zion,
noizbait ardatzean.
Lanikan etzeukala
orduan etxean,
etzanda egondu zan
denbora luzean.

Artzaia, dagonean
ardien kontuan,
orlaxen egoiten da
etzana soroan.
—Emakumea, zaude
kristauen moduan,
bat ere juiziorjk
ba'dezu buruan.

Abe Maria bezela
dira auek egiak;
arautza ainbat ba-dira
dama oren begiak,
¡lea urdiña ta
kolore oriak,
atzaparak[a] motelak,
zangoak zoliak.

1) encender,- *1)* de bromos; 3) dedo.

94. HAIKA, MUTIL

ikusi -Gure Herria», 1925, 9; A. Riezu, *Flor,* 313'an.

Haika', mutil, jeiki adi,
argia den mira adi.
— Bai, nausia, argia da,-
gur'oilara kanpoan da.

Haika, mutil, jeiki adi,
hortxet zer den mira adi.
—Bai, nausia, haízea da,-
gur'leioa ideki da.

Haika, mutil, jeiki adi,
uria[2] den mira adi.
— Bai, nausia, uria da,-
gure ora[8] bustia da.

Haika, mutil, jeiki adi,
kanpoan zer den mira adi
—Bai, nausia, elufa da;
lufa xuriz estali da.

Haika, mutij, jeiki adi,
surik badén mira adi.
-— Bai, nausia, sua ba-da,-
gur'gatua beroa da.

Haika, mutil, jeiki adi,
urean zer den mira adi.
—Bai, nausia, ardia da;
aspaldian itoa da.

Haika, mutil, jeiki adi,
zer oinon" den mira adi.
— Bai, nausia, egia da,-
mutilFo hau unhatu[5] da.

1) arribíi, 2) euria,- 3) oveja; 4) todavía; 5} cansar.

95. ENE MAITE BITXIA

llnisi *Ereplkan,* 71'garcn ofialdcan.

Ene maite gixena, ez duzu parerik,-
Ene barne guzia zutaz da goserik,
Lai-lai lai, tra la la Ia, la lai.

Bisai zabal batean, oi begi tipiak!
Sudur-poxirik gabe, bardin gare biakí

Ez da beti usaindun lili ederena:
Zuk itxura baduzu eta usain ona!

Behafik ez baituzu ile bat buruan!
jende bilo hafoak ez ditut gostuan!

Andre baten mihiak zer ez du inakurtzen'?
Zuk ez duzu, gaixoa, bitzik ateratzen.

Mundu huntanzarela mendeak baditu;
Bainan gazte.-gaztea gatzak pizten zaitu!

Nola maite zaitudan baitautet galdegin,
lhardetsi diotet: «Ogi hamitzekin!»

Jendek eraiten dautet «Zer maite bitxia»!
Bainan hortako zaitut hola berecia!

Zure izen maitea segur edera da:
Eskuaraz deitzen zare: «Baratxuri-salda».

96. TOBERAK

xe, *Euskaldunak,* 488'gafenean.

Oles, ezkonberiak,-
Jaungoikoak gabon!
Toberaketan gatoz
bost edo sei lagun,-
zuen baimenarekin
kantatu dezagun.

Kopla dezagun lenik
emazte beria;
etxeak dion eran
«eder» du «geíia»;
artazuriketan du
izena jana.

Lelo, ezfaiak, lelo
Birjin Amarekin,
toberak jo detzagun
ordu onarekin;
ordu onarekin ta
Birjiña Amarekin.

Lore-baratzan eder
arosa gofia;
gari-meta gaiñean
eder da txoria,-
bil dezake eraztunak
gaur zure gefia.

Lerden atal ondoan
¡rastor-zugatza;
gaztain lerdenak goien
gaztaiña-morkotsa...
ez du nornaik arkitzen
olako bikotza,

Etxe onek goien du
goien sapailoa;
aren alde banetan
gorago leioa;
bekokia, begia,
zuk orelakoa.

Sei gazta ben daude
erdiko leioan,
2uriz eta berdiñez
ederki leioan,-
zurigo, berdiñago
zuk ortzak agoan.

Beste leio batean
tomate gona,
Gendulain'go Kokoak
atzo ekaíia;
oí ezpain-kolorea
zuk ainbat goria!

Be-saferan bi atal,
afi-uztai mako:
bat ardi safera ta
beste beiendako;
egoki iduri zure
bi bekaiñendako.

Etxe onek ba-digu,
andreak bezala,
aurpegi zuri eta
bekoki zabala;
elkarentzat egiñak
dirudi dirala.

Oiturak ala baitu
ematen kirtena,
Gizona kopla zagun
Andreen urena.-
egun aicortu dira
bata besterena.

Olako etxe onak
onelako Jauna;
olako Emazteak
olako Gizona:
ba-dirudi zeruak
eman-ondasuna.

Aurten pagoak ba-du
ausarkt ezkuila;
Nagusi beri onek
baitu buru zura,
etxe ontan ba-daite
neguan egura,

Lelo, ezfaiak, lelo
Birjin Amarekin,
toberak jo de/zagun
ordu onarekin;
ordu onarekin fa
Birjina Amarekin.

97. **PETIR! DANBOLIN**

lkusi Orixe, *Euskaldunak,* 495'gareueaD.

Ni naiz Petiri Danbolin.
Gosea dakart nerekin.
Nik jotzen diet goserik ere
denari soñua berdin,

Nik ba-dut estamu-miña,
ezjan-edanak egiña;
ala dirudi nere gorputzak
gazitutako sardina.

Nik ez dut ortzean miñik,
ez dut ere eskas agiñik;
oraindik urak austeko dauzkat
osorik eta zorotzik.

lkusi nere sudufa,
(arua doi dun ezura;
bean okotza okozpe bage
iduriz golde-mutura.

lkusi nere esku-gaiña
pagopearen lur-gaiña;
azal-tartean kabitzen ezta,
gaiñera atera da zaina.

Izkutu daukat sabela
gorputza bezain zimela;
il naizelarik afak kabjrik
ez didate egin bela.

Olentzaro'ren zoroa
denbora bezelakoa,-
nerean ez du dunbarik txotxak,
soil-soilik kosketakoa,

Ez dut atzean ipurdi
eseritzeko bururdi,
okela-apur bat beafenean,
laru guzia zimurdi.

Koskarik gabe gefia
galtzarik ezin geldia;
jantzita ere geíikatzeko
bi eskuz ezin balia,

Ortakoz iztafak estu
bar bestez gurutzeratu;
alare lafi, gaitzik ez diten
ipurdiraño beratu.

Gosari, bazkari, aula,
baratzuri ta típula,-
oriek janez kutsu-gaitzik ez,
Jainkoak indar digula.

Ni naiz Petiri Santz Arin
eztai orotan danbolin;
eztaietako bete-aldiak
ez dit onik beiñere egin.

98. EGUBERI

lkusi Orixe, *Euskaldunak,* 189'garenean.

Oles! ta Oles! etxekotxoak!
nik jotzen ditut ateak;
nik jotzen ditut ateak eta
ongi erantzun jendeak.

Erekaldean izotza,
goiko ganbaran agotza...
bion artean kanta dezagun
Jesukristo'ren Jaiotza.

Zorioneko Eguberia,
argi baiño len asia,-
argi baiño len asia eta
dirdai obegoz jantzia.

Zeruetan gu sartzeagatik
gizon egin da Jainkoa:
esna zaitezte lo zaudetenok,
au da gauza antzekoa!

Etxe ondoan eder duzute
intxaura lerden-lerdena...
Nagusi Jauna kopla dezagun
etxeko denen aurena.

An goien-<-oien izara,
erekonduan lizaía...
etxe ontako Nagusi Jaunak
uíe-gorizko bizara.

Ure-gorizko bizara eta
ziiar zurizko bizkaia...
Efeal txikiz egiña dauka
Elizarako galtzera.

Napafoan da Bardena
Kapafoso'ren ufena...
Etxeko andrea kopla dezagun
Nagusiaren ufena,

Etxeko Andre zabala,
coki oneko alaba:
bidean nato* ondo jakiñik
eskuzabala zerala.

An goien-goien elori,
ondoan jota erori...
etxe oncako Etxeko Andreak
Ama Birjiña dirudi.

Gaiñean gona sedazkoa ta
azpian gona Olanda,-
egun ta eguzki ez dira sartzen
limosna on bat emanda.

Sentitzen zaitut sentitzen
ari zaraia jekitzen,-
zure geriko giltza-soiñua
emendixe dut aditzen.

O ra m a i ea n. sag ua,
aren begira katua...
etxe ontako okelarekin
ez da beteko zakua,

Atso zar oni ziczi dario
okotz eta mokorettk;
odol-ustu bat komeni zaio
gibel-aldeko zaiñetik.

An goien-goien laiñoa,
aren azpian otsoa...
arkakusoak itoko al dik
etxe ontako atsoa.

Atea jotzen ez dugu lanik,
dena-den dago zabala.
Etxe ontako jende noblea
Jaunak bedeinka dezala.

Askan eder da garia,
—aren gaiñean txoria —...
eraztun batek bildu lezake,
neskatxa, zure geria.

Usoak egal gofizu,
moko-aldea lumazu...
oren aingeru txukun polita,
nondik agertu zara zu?

Etxeko alaba Andretakoa:
norbaitek ba-zaitu maite,
datofen urtez garai ontako
etxeko-andretu zaite.

Kakotik ziztor, askatik urdai
kabitikan afoltzea...
Bizi-bizirik zeruan zegok
etxe ontako jendea.

99. SANTI BATEK, ANDERE

lkusi P. Aradoi, *Xaramela,* 104 or. Santibat eta iñauteri bardin dira Zubero-aldean

(tzskaleak, etxe aintzinean)

Santi batek, andere,
Aurten bezala, gerore,
Santi batek igortzen gaitu xingarketa gu ere.

Ez gabiltza ederez,
Ez eta ere beharez,
Kostuma zahafaren uztez ereprotxa beldurez.

Tolos'eta Baiona...
Jainkoak dautzul'egun ona!
Guri xingafaren emaitera, jeiki ba'zinte huna!

Ez dugu nahi urdia,
Ez et'ere erdia,
Usaia gatik, kostuma gatik, liberako zatia,
Liberako zatia eta gerenaren' betia.

Ez dugu nahi tripotik,
Bertzian izan ez denik,
Beldurez eta tronpa gaitzazten... urdekeriaz beterik.

(Etxeko anderiari)

Etxian eder geiena...
Etxek'andere lerdena,
Zur"erhiko erhaztun hortaz eros niro Baiona!

Etxian eder kortzeiru",
Dabiltzanian inguru...
Etxe huntako etxek'anderia, Parabisuan aingeru!

Etxian eder ohako,
Haura sortzen deneko...
Etxe huntako etxek'anderia zaldiz elizarako,
/.aldiz elizarako, eta zilar kadiran[3] jariko!

Landan eder ¡Iara,
Harén pean belara...
Etxe huntako etxek'anderia, zer emazte xilara!

Etxian eder fefeta,
Harén gaiñean kaneta...
Etxe huntako etxek'anderia, zer emazte plaxenta!

(Nausian, erdi lausengu, erdi mehatxu)

Etxian eder aitzura...
Nausi bilo izufa.
Kolputo bat eman ezaguzu busti dezagun zintzura!

Kadiran zaude jaririk,
Koloriak gofirik;
Guri xingarcn[1] emaitera jeiki ba'ziute hortik!

(Eskeren bihurtzea)

Eman duzu nobleki,
Konpainiak ere ba-daki;
Parabisuan sar zaitezela, hamabi aingeruekin,
Hamabi aingeruekin, eta zure familiarekin!

(Deus ukaiten ez duielarik)

Goazen, goazen hemendik,
Hemen ez duk xingafik;
Etxe huntako gazitei[8] xafian sagiak umiak Ilazten tik!

Etxian eder aihotza...
Etxek'andere hortz motza,
Su-burdinaz hauts ditzatzula sudur eta kokotza!

I) a»»doi-i 2) devanadera; 3) silla; 4) cántaro; 5) tocino; 6) saladero.

4) ARDO-KANTAK

100. AUNO ON ON...

lkusi *Hteplkan,* 78 or

Arno on on on huntarik
edan dezagun gogotik!
Mozkor-orditzearen beldura-gatík,
pasa ba'nindadi
beriz hemen gaindi,
Ifi egin nezoke barika hori!
Diskursak egiñez,
tragoño zonbait edanez:
arnoa edan, basoa bete,
iri egiñez, botoila luitsez,
ustez hola hobe den
zonbait. afatsaldez!

Igandeafats batean,
lau lagun onen artean,
Botoila bana arno edan giñian!
Lau lagun baginen,
lanak gazte ginen,
Gauaz aranlzatzerat joaiten ginen.
Hetarik batño zen
Ezin hobeki jostatzen!
Itzulipurdi, bai ihurtzuri,
Nehun ez zauken Pedro maitia!
Ikara bailezake
turko handia!

101. ARDAOTXO BALTZA

Azkue, *E.* K, 78'an; *Kanlutegia,* H7'an Yufeta'n batua.

Ardaotxo baltza, zer dakak ik?
Laregi edanak ez gauza onik.
Gizonak iminten ba-dakik ik
zutunik ibili eziñik.

Ur zikin orek, zer diraustak?
Cizonak ito daroazak.
Balbcak' arabil lankidetzat,
ur-sapaburuak edaritzat,

Gaberdi-ostean beranduan,
etxea neke andiz jo genduan;
eskaratz-aldean, sutondoan,
panpaíeria ba-genduan.

Andrea onak eranzten,
berbako amar erantzuten,-
gizonak deadar andreari:
«Jagi zaitez edo jagi adi».

Gizona aratuten[2] inguruak,
nun ete direan akuluak;
«Amatxo» deadarez aingeruak,
aitak jo eztaian, koitaduak.

I) muerte; 2) registrar.

102. AU EGUNAREN ANDIA!

Azkue, *E. Y.,* 8t'au¡ *Kanfutegia,* 160'an. Asteasu'ko kanta zafa.

Au egunaren andia!
Au poza ta gogo argia!
txir-txir jartzeko begia
maian naiko edaria:
glin, g/an bonbi/etik,
naiz gor i ta naiz txuri/ik.

Ago oneko kafea;
au da lenengo aldea,
bigaíena edatea
katalin gori maitea:
gun, g/an bonbiletik,
naiz gori ta naiz txuri/ik.

Ondoren dira besteak
edari nai-lakoxeak,
pozik jartzeko trtsteak
bustiaz ongi esteak:
glin, g/an bonbi/etik,
naiz gori fa naiz txuri/ik.

Gure nagusi jaunari,
ez iñortxorj besten,
zor zaio mesede ori;
edan zagun bada ongi:
g/in, g/an bonbiletik,
naiz gori ta naiz txuritik.

103. GIZONA, GOAZEN IXILIK

lkusi Azkue, £. *Y.,* 38 or. Orio'n batua.

Gizona, goazen ixilik pakean oiera;
eguna argitutzean Iconponduko gera;
kreditu edeíen bat ba-zoaz artzera.

Betor matsaren kasta bere adarakin,
enazu ikaratuko zure indarakin,
gizona geldi dedin kredituarekin.

Cizonak galdetzen *du-*. «Non da ardo ona?»
Ardoak erantzuten du: «Emen nago, jauna».

Neuk artu nai zinuzlcet betiko laguna,
beldur gabe pasatzeko gaua ta eguna.

Eztago filosoforik, ez teologorik
ardoari neuria artuko dionik;
gizon andiak ere ikusten ditut nik
beren mozkofa ezin disimulaturik.

Preso para ninduten úpela batean,
geroztik emen nago sei ilabetean.
Nik lagunduko dizut amodio onean.
Begira, izan eztedin zuretzat kaltean,

104. ARDOA ETA GIZONA

Ikusl Azkue, *Euska/efiaren yakintza,* 79 or. Getari'n batua.

Ardoa eta gizona dijoaz kantatzera,
ardan-andere gizena entzule dutela.
Gizonak galdetzen dio: —«Ona ote zera?»
—«Bonbilean nago eta, asi zaiz edatera».

Ardoak erantzuten du, pozak zoratürik:
—«Ezta nigana etori zu bezelakorik;
baituran[1] izan naute kortxoz estalirik.
Zuk askatu nuzu ta ez utzi tantorik»,

Ardoa: Klin klin kíin zatoz bonbiletik pozez,
puxkaz naiago zaitut, ez guztia kolpez;
usaiz ona zera ta obea kolorez,
agoan muxtatzeko[2] bamratu zaitez.

Agoan sartu ezkero ba-nuan esperantza,
eztafia dezulako elkora ta latza;
ondotxo ar nazazu, gozatu al ba'neza;
negara eldutakoan, ori dezu poza!

1) preso; 2) paladear.

105. EZKONDU NINTZANEAN

lkusi Azkue, *E. Y.,* [V, 85 *of; Kantutegian,* 170'an. Eraso-lmotz'eu ikasia.

Ezkondu nintzanean, biotza berorik,
andretzat artu nuan obea uste izanik.
Etxean, daukat orain goiz ta arats alferik,
lan bat eragiteko zer ezan ez dakit;
bost iragoten[1] diot nerea dalarik,-
or nabil zarpazarka argal biotzetik.

Josten eta ardatzean etzaku asitzen,
untzi ta sukaiderik ezttgu garbitzen.
Eskurik ez darabil atora txuritzen,
aitzurak zokoetan dirade gelditzen.
Beartzen geranean auzoa laguntzen,
or det nunbait andrea kukusoak[2] ¡Itzen.

Ardorikan edaten etzuan lenago,
ni txurikatu[3] arte zebiíela nago.
Orai edango luke, tanto bat ba'lego,
egunean pitxar bat baiño anitz geiago;
kaEalin-gori* ba'litz, are ta naiago:
andre ordirik ba'da, nere etxean dago.

1) sufrir; 2) pulga; 3) engañar; 4) aguardiente.

106. URA TA ARDOA

Azkue, *E. y.*, 91'ari; *Kanlutegla,* 194'an. AHzuruku'n ikasia.

—Noe, Lege Zafeko gizon famatia,
zuk landatu zinuen lehen mahastia.
Aihen balios hura,
nork eman zaitzun burura
lurean, ai! landatzea?
Gizona i)un beltzean
kausitzen dan tenorean,
hark dauka pozez betea.

—Ardoa nizen bezala ni naie onfatzen,
kunpaña guzietan ni naie maitatzen:
Prantzia'n, Españia'n,
bai eta ere Italia'n
nik oro xarmatzen.
Eregeren kortean
beti mahain-buruan
ni naie ezarten.

—Hire banitatia hanitz duk handia,
ehiz bada funtsean[1] hain maitagaria.
Gizona tristezian
ezarten duk mundian,
flakatzen osagaria[0].
Hik egin txaxen xaharzera,
bai eta kasatzera
ni nuk obligatua.

—Gizon bat dagoanean pentsamentukaturik,
zoinbait pena-doloreak bihotza tristeturik,
edan beza nitarik
basoa efadarik[8],
lotsa gabetarik,-
harén pena-doloreak
xangrin-pasioneak
paraturen tiat nik.

—Hire xarmek ehaie hanbat ohoratzen,
ardoan den gizona untsa eztuk oritzen.
Hire ordikeriak
eta auherkeriak[4]
¡zpiritua die galtzen.
Grazia, konstantzía,
gutiago bertutia,
hik eztuk imitatzen.

—Bekaiztia hizala zitadak iduritzen,
arazoin gabetarik behitzait mintzatzen.
Hik eztuk enetako,
horen beste efaiteko,
ene etsaik ihur ere ikusten,
Apez ala erege,
gizon ala emazte,
ni naie galtatzen,

—Arnorioak emaiten dik anitz tristezia,
gizonaren bihotz hila ardura[5] nahi-gabea,
inbidia, jelosia,
hain eta malizia,
aldiz zuhur egoitea;
ene nihauren maitatzea,
eneki egoitea:
hori duk egia, hori duk egia.

—Amorioak urari: «Ago, aren, ixilik!»
nork gure termainetan[5] deus ere esan gabetarik,
egon gure heinean
ni beiniz laidaturik,
mundu ororen ahoan,
beti (aidorioan[7]
harek nuk ezaririk,
harek nuk ezaririk.

—Egiazko laidoriuak nik diriat merezitzen,
munduko gaiza guziak ilik baititut freskatzen;
untziak itxasuan,
beti komertziuan,
nik diat ebil-arazten,
Bateiu saintiaren,
Mezako sakrifiziuan
ni beiniz kausit2en[8].

—Ni ere kausitzen nuk bai Meza santuan,
hi beno lehenago sakrifiziuan;
eztuk hoitarik abantailik[6]
bat ere ezarten munduan.
Hik bihotza tristetzen
eta nik alegerarzen
gizonen aitean.

—Hire alegrentziak íite[L0] tuk juaiten,
íamilietan deskantsitrik hik eztuk emaiten.
Gizonak estatúan"
disputara bidean
hik dituk ebil-arazten,-
haietarik naigabeak,
ardura heriotzeak
hik dituk egin-arazten.

—Eztuk ahal emaiten eraposturik.
Ago, aren ixilik konfonditurik.
Gizonak hi utzirik
eta ni majtaturik
hobeki eginen dik;
beti bake hunean,
osagari hobean,
denbora igaranen dik.

I) fondo, 2) salud; *i)* apurar; 4) flojedad; 5) sari; 6) situación; 7) loor; 8) hallar; 9) ventaja; 10) pronto; 11) posada.

107. JOAN BEAR

Azkue, *e. y,* 8S[l]an, *Kanfutegia,* 179'an.

Joan bear eta ezin elki,[1]
erori eta ezin jeiki...
Xakurak iau,
gatuak ñau,
ardoak hontara
ekafi nau,
Gauak kantuz emaiten,
ni ardoak xoratzen.
Etxean sartzean
andrea ohean,
asafe gorian,
zapia lurean,
latiña mjhi-gainean;
—«O! txirtxiía, ordia,
galdua, non ago gaur?»
—<Xo, xo, edana
niagon, aur».

Goizean argi etxaldean,
txoriak txintaz oihanean,-
abere goseak belarketan,
marumaz beitian eleketan.
Emaztea lanean,
ni zurunkaz ohean:
gelan agertuta,
ni ikusita,
leioa zabalduz,
makiía bat artuz,
litaiña beria
asten du:
—«Alfera, nagia,
gorotza, zer aiz egur>?>
—<Xo, xo, biziki'
lógale nun!...

1) partir; 2) en gran manera.

108. M6RTX1KAREN

Azkue, *B. Y.,* IV, 89'an.

Mertxíkaren[1] lorearen edefa!
barenean du ezura gogora.
Nik ez dut maiterik
besterik
alerik:
arnoak naduka ni
liíuraturik.
Ni ilten naizenean,
ez egin negarik,
ez artu dolurik;
bi bonbilkada arno
eman buruketan,
edan ditzadan
gogoz biak zeruetan.

Txoriño bat mertxika eder ofetan
txintaz[4] ari da umetxoak pozketan.
Nik aldiz txintarik
ez dut nik
aterik;
amo goriak xoillk
txintarazten dit.
Ni ilten naizenean,
zagiak osorik,
tabernak ilunik
izango dirade
nere orapenetan,
ni zoriz nagolarik
goiko mástietan.

1) melocotonero; 0) arrullo.

109. ANDRE MADALEN

lkusi *EAeprkan,* % or.

Egun batean ni ari ninízen
andrea ezin ikusirik;
Eran zautaten: «Edana dago,
ez egin hari kasurik!»

Andre Madalen, andre Madalen,
íaurden erdi bat olio!
Andreak zora in[1] eta gero/
jaunak pagatuko dio!

Ene andreak ba-daki josten
eta lisatzen[2] taula[8] gaiñean;
Arno xuria saldan emanik
maite du oroz gaiñetik!

Bere gizona utzik etxean,
Hantxe da bera patar batean:
lndafik gabe, mozkofarekin,
Lurerat joaiten da behin!

Musu emanik lur zikiñari,
Etsaien kontra badu zer efan!
Auzo guziak partida ditu,
Debru zahafa mihían!

Q

Gaixtakeriaz jo omen dute
Eta aurdiki[4] ereka zolan!
Arno-xorta bat edanez geroz,
Xuti laiteke abian!

1) egin; 2) planchar; 3) tabla; 4) arrojar.

5) JAINKOTIAR

110. O EOUBERl GAUAI

lkusi *Kantika Ezpirilualak* (Baiona, 1829), 62'an; A. Riezu, *Flor de Canciones Populares Vascas*, 277'an; A. G. Lertxundi, *Kantlkak* (Baiona, I946) 287'an.

O Eguberi gaua, bozkariozko gaua!
alegeratzen duzu bihotzean kristaua.

Mundu guzia duzu zorionez betetzen,
zeren zuk baidiozu Mesias dela sortzen.

Gau ¡lunean ez da ageri iguzkirik;
hunetan dakusagu mirakuiluz ilkirik.

O gau desiratua! argia duzu piztu,
harén mundu guzia bear baitu argitu.

Argizagiak dire bozkarioz dantzatzen,
ohi baino dutela geiago argitzen.

Aingeru onak beriz hasi dire kantatzen,
bozterat dituztela tristeak gonbidatzen.

Efepikatzen dute maniuretez' artzainek,
adarari diote ihardesten larainek.

Afainak hari dire jauzika ur barnean,
abreak[2] mendietan, hegaztinak airean.

Gauza guziak dire orai alegeratzen,
orobat egiterat gaituzte erakartzen.

Ifernuko ostea ordean ikaratzen,
harén zentzatzailea[8] delakotz orai sortzen.

ldolak aldaretan betan dire mututu;
aztiek afazoina laster dute galdetu.

Bertzerik ez diote deusere ihardetsi,
haur batek dituela baizik ixil-arazi.

Ixildu bear zuten, guk ordaiñez kantatu,
zorionean dela Jainko Semea sortu.

1) harpa; *1)* abere; 3) castigador.

111. JOSEPE TA MARIA

Ikusi A. Donosti, *Zeruko Argia,* 1919; *Anuario de Ia Sociedad de Eusko-Folklore,* 1972, 81'an; *Euskal-Esnalea,* 1928,135'an; A. Riezu, *Flor,* £>8'an.

Josepe ta Maria, beren Jesus'ekin,
joan ziran Belen'era gaurko gabarekin,

Aor goian etxea: jo daigun atea.
Gizonak ieioara nekez irtetzeal

Bi eta iru bider jo tuzte ateak:
erantzun baliete beren niaitatjak!

Gizonak íeioatik die erantzuten:
Gabaren ordu onetan zer dabiltza emen?

—Dontzela eder bat dakart nerekin aldean,
seme dakafela bere sabelean.

—Seme ta dontzeía, au nola diteke"?
Gezurti eder ori, ortikan ken zaite!

Bioztun izan zaite, bioztun, Josepe!
Gaur gure Jesus onak jaio bear luke.

Gabeko amabiak jo duten orduan
gare Jesus Aurtxoa jaio da munduan.

112. KANTA ZAGUN GUZIEK

Ikusi *Kantlka Bzpiritualak,* 67'an; A. Lertxundi, *Kentlkak,* 284'an, A. Riezu, *Flor,* 135'au. Aita Gazieluzar'ena izan bear du, nunbait.

Kanta zagun guziek ahalik gorena,
lauda zagun Maria, andre handiena.
Jakin zuen zerutik zer zen gertaturen:
birjiña gelditurík zela amaturen.

—Gure salbamenduaz efazu, Maria,
nork ekari zarotzun zerutik beria?
— Gabriel aingeruak etxean sarturik,
jainkoari zeruan gu urikaldurik.

—Zer, Aita Eternalak zuen gaztiatu?'
Gabriel aingerua nola zen mintzatu?
—Salutatzen zaitugu, Birjiña Maria,
grazia da zurekin eta Jaun handia.

—Zein lekutan zinauden hitz hauk aditzean,
Gabriel aingeruak zu salutatzean?
—Galilea'n nindagon, herí ederean,
ene gelan bakarik debozionean.

—Gabriel aingeruak zu salutaturik,
eman izan zarotzun deus bertze befirik?
—Kontzebituko duzu, ziocn, sainduki;
seme ¡zanen duzu Jainko bat segurki.

—Maria, ote zinen zure baitan laztu
hitz horiez zenean Gabriel mintzatu?
—Bai, ez bainuen nahi sekulan ezkondu,
ez eta birjiñaren ohorea galdu.

— Aingeruak zer eran zarotzun, Maria,
ikusirik zinela trublatu* guzia?
—Izpiritu Saindua da seinalatuko;
mirakuilu hori du berak obratuko.

—Maria, aingerua zinducn sinhetsi?
eta nola zinioen hari ihardetsi?
—Zeruetako Jauna dela adoratu,
liaren nahi saindua osoki konplitu.

—Erditzeko denbora zenean etofi,
eman izan zinioen Jesus munduari?
—Bai, sortu zen ordutik fruitu dibinoa,
guzien salbatzeko zeruko Jainkoa.

— Efaguzu, Maria, harén sorlekua,
ala zen palazio, ala gaztelua?
—Oi! ez zen, ez horela mundurat agertu,
heia[s] autsi bat zuen sorlckulzat hartu.

— Nor etori zitzaion agur egitera'?
hurbildu zen handirik besten emaitera'?
— Gizon eta amazte guti zen agertu;
esklabo batzu gisa gintuzten largatu.

— Ez zen bada, Maria, bederen artzainak
Jesus adoratzera leihatu" zenik?
~ Bai, artzainak zituen lehenik ikusi;
hekien bihotz onak zituen onhetsi.

— Eraguzu, Maria, bazen efegerik
zure Seme Jainkoa ikusi zuenik?
.—Hirur efege ziren ufundik hedatu,
eta beren presentez zuten ohoratu,

—Eraguzu, Maria, handitu zenean,
ea zuten guziek maitatu lurean?
—Bai, maite izan zuten, bainan czjuduek,
' koleraz, inbidiaz, heraz itsutuek.

— Hitz gutiz laburtzeko, erazu, Maria,
gurutzean itzatu zuten Jaun handia?
— Ai! bai, nzatu zuten Jainkoa habean,
gaizki akusaturik ohoinen[4] artean.

—Eraguzu, Maria, ea urun zinen,
ala hurbil Semea ikusi zinduen?
— Harén aldean nintzen ongi flakatua,
nigar kafatsenetan guzia urtua.

O Birjiña Saindua! otoizten zaitugu,
Semearen tionuaii lagun zakizkigu;
juíatzean mundua azken egunean,
egizu eman gaitzan bere eskuinean.

1) avisar,- 2) turbar; 3) pocilga; 4) apresurarse; 5) ladrón.

113. GURUTZE SANTUA

Ikusi Orixe, *Urte guzlzo Meza bezperak,* 382 or.

Kanta dezagun, Jesus'en
jatorki garaitzea,
Bera ilik, gu pizteko
jasan zun Gurutzea,-
etsaiarj kendu zion
galdu gaixo-taldea.

Erio-sagara janda
len-aitaren ozka min,
bigarenak sendatu du
beste Zugatz onekin.
Zugatz onek igalia
Kristo digu berekin.

Zugatz batek galdu gindun
an egiñez pekatu;
Gurutze dan Zugatz onek
Osasun ematen du;
Jainkoa, gu sendatzeko
bestera da jokatu.

Noízbait, erabakitako
epeak igarorik,
Aitak jetxi-arazi du
Seme ori zerutik,
aragiz jantzi zedtla
Ama Neskatxagandik.

Idiaren askan Aura,
dardar negarez ari.
Aren gorputza biltzeko,
Amak du oial txuri,
Jainkoaren esku-oiñak
an dute len-lokari.

Bete ditu gizartean
ogei ta amairu urte,-
Bere gogoz artu ditu
ainbat oñaze, neke.
Bildots au Gurutz abean,
azkenean il dute,

Ozpiña miaztatu du
Jaun onek gure egariz.
Gorputza zulatua du
iltzez, lantzaz, elofiz:
zeru, lur, itxaso, oro,
garbitu ditu izerdiz.

Biguin zaite, Zugatz aundi,
lasatu Gorputz Ori,
uko iozu, zerezko
zurun izateari;
oge goxo egiozu
Eregen Eregeri.

Gurutze! Zuk bestek ez du
Gorputz ori merezi;
mundu galdu au kaiera
ontzi ortan betorki,
ori baitu Bildotsaren
odol gorik igurtzi.

Aita, Seme, Gogo Guren,
Jainko bakar Irutan,
Iru Nortzuen, mundu,
ospe berbera eman,
len bezala orain eta
sekulen sekuletan.

114. O JESUS GURUTZERA NIGATIK

Hantika Ezpirilualak, OH'ati; A. Lertxundi, *Kgn/ikak,* 4%'an, A. Riezu, *Flor,* 320'an.

O Jesus gurutzera nigatik igan zarena, ,
ene gaztigatzera maiz beartzen zaitudana!
Orai zure aldera bihurtzen naiz, Jainko ona,
A, oroit zaite odola enetzat eman duzula!

Zure amodioak ez banau, Jauna, salbatzen,
ene bihotz gaixtoak sutara nau kondenatzen;
zure juiamenduak bortizki nau ikaratzen.
A, oroit zaite odola enetzat eman duzula!

Bear nuen bizia eman Kreatzaileari,
eman diot guzia gaixtoki kreaturari.
[tsumendu handia, ifernua dut merezi.
A, oroit zaite odola enetzat eman duzula!

Dejcu nauzu eztiki zure grazia sainduaz;
egocu naiz lazoki, enganatua munduaz,-
orai joanen naiz beti ongian aitzinatuzV
A, oroit zaite odola enetzat eman duzula!

Sobera tut maitatu munduko erokeriak;
berant tut ezagutu harén traidorekeriak.
Nahi naiz konbertitu, indazu zure graziak.
A, oroit zaite odola enetzat eman duzula!

Hanbat duzu paira tu[2] enegatik gurtzean!
Nola tuzket maitatu atsegiñak mundu pean?
Nahi naiz kanbíatu, urik) dut bihotzean.
A, oroit zaite odola enetzat eman duzula!

I) adelantar; 2) padecer.

115. ZEREN BILMA ZABILTZA?

lkusi *Zeruko Argia*, 1930; *Crónica dei Congreso de Música Sagrada* (Gazteiz, 1930), 559'ar>; A. Riezu, *Flor*, 257'an.

—Zeren bilha zabiltza, andre Madalena?
Zerk hola zaramatza desertuan barna?

—Jauna galduz geroztik eztut gogorikan;
gauza guziak ditut higuin mundu huntan,

—Zer iduokoa da zuk diozun Jauna?
Indazu zenbait markan, ene andre ona,

— Hura da xurj-gori, aita amen bakoitza,
Jainko gizon egiña, eta ene bihotza.

— Gurutzera josirik, eztuzu aditu
Juduek nola zuten hil-Kobian sartu?

— Neronek ikusi dut amaren aldean,
enegatikan Hila gurutze batean.

— Zer igurimen[1] duzu beraz liarenganik,
gaiztagin baten gisa hi! denaz geroztik?

— Oi ene jaungoikoa, zeru-luren Jauna,
mundutik beira[2] nazu, ez nazan engaña.

— Oi andre Madalena, ez izan erhoa;
oraino har ezazu jeheneko ospea.

— Hire ospe[8] lizunak aski jarraiturik,
ongi niagok orai urikiz beterik.

— Gurutzeko miñetan ganbiatzen nauzu?
Ene gozoak hola gutiesten tutzu?

— Gurtitzean tut orai ene atsegiñak,
Jaunak hartuz geroztik han nigatik miñak.

—Utzazu gurutzean, zato enekien;
desertuan eztuzu Jauna kausituren*.

—Nigar eginen diat nik eragin hutzaz;
agian kausituren Jauna bide huntaz.

—Zeruetara joan zen, ez zare oroitzen?
Aitaren eskuinetik ez dela uíuntzen?

— Zein haizen gezurtia hor duk erakusten,
orai huen gaiztagin bat zela efaiten.

—Nigarak bear dire, ba-dakit, horentzat;
ordean askiko da hiltzean ihintz[5] bat.

— Denbora sobra diat hirekien galtzen;
ba-nioak mortura; ez duk mintza zeren.

— Oi andre Madalena, hitz bat adi zazu:
bakarikan ba'zoaz, ni galduko nauzu.

— Agur, beti betikotz, mundu gezurtia;
tiitan agertuko duk liire bekzkeria.

Non zarete, mortuko abere ihiziak?
Otoi, emandatzue zuen intziriak.

Nahi dut orai bertan has diten nigafak,
garbi detzadan ongi egin tudan hutsak.

Zn, ene xuri-gorj, aita-amen bakoitza[6],
Zu ikus arteraino hemen dut egoitza.

)) esperanza; *1)* cuidar; 3) pompa; 4) hallar,- 5) lágrima; 6) ¿mico.

116. PIZTU DA...

lkusi *Kanfikak,* 510'gn. orialdeac

Piztu da Iorios
Jesus hilen artetik,
igan bitorios
zerura gure ganik.
Eta ni munduan
bila bekatuan:
oi heriotze tristea
bekatuan bizitzea!

Nik ere nahi dut,
Jauna, zurekin piztu,-
beti nahi zaitut
oraidaník maitatu.
Uzten dut mundua,
aras bekatua,-
ez, ez dut nahi bizirik
zu zerbitzatzeko baizik.

Bekatoros nintzen,
ondikozko -zorcea!
Orai naiz aurkitzen
zurekin, Jaun maitea:
zu zaitut bilhatzen,
bakarik maitatzen;
biziaz zait gabetzea
zureganik ufuntzea.

Zein naizen flakoa
miletan dut frogatu;
baiki, Jaungoikoa,
maiz zaitut ofentsatu.
Betikotz naiz galtzen,
ez bazaizkit heltzen;
mundua zait nausituren,
laster nau eskuraturen.

On bada munduan
zuri jafaikitzea/
legez da zeruan
hobe zu goratzea.
Han sarturen dena
da dohatsuena.
Oi! noiz naiz harat helduko,
noiz naiz zutaz gozatuko?

Usoa bezala
noiz naiz hegaldaturen,
noiz naiz berehala
zuganat hedaturen?
Gaizkia uzteko,
zurekin pizteko,
o Jesus, ene guzia,
otoi, indazu grazia.

117. LAUDA, SION

lkusi Orixe, *Urte guziko Meza-bezperak*, 513 or.

Sion, goretsazu Jauna,
Salbatzaile ta artzaia,
eresi ta lelotan.

AI aiña gora ezazu:
motx geldituko baitzera
Aren gorespenetan.

Ogi bizi pizgafia,
eresi-ga¡ berezia
egun gertzatzen zaigu.

Azken apari santuan
amabieri emana
sendo siñesten dugu.

Ago betez, gogo betez,
barneko pozetan gañez
goretsi dezagula.

Urte betetzea baita
mai santu au lenbizikoz
Kristok asmatu zula.

Lege beriko mai ontan
Pazko janari beriak
Pazko zara du galtzen.

Egunak gaua bezala,
argik itzala bezala,
beriak zafa aizatzen.

Kristok azken aparian
Ark egiña befitzeko
esan zun, Aren oroiz.

Erakutsi onen bidez
ogi-ardo, gorputz-odol
biurtzen dugu bakoitz.

Kristauak siñetsi beza
ogia gorputz, odola
ardo dala biurtzen.

Ez ikusiz, ez ulertuz
baña beroki siñestuz,
zalantza dugu gaintzen.

Ogi ardo itxuretan,
ez ogi ardo benetan,
ba-dugu zertaz ari.

Gorputz odol banaetan
osorik dago bietan,
Kristo gure janari.

Artzen dunak ez puskatzen,
ebakitzen, ez bereizten;
osorikan jaten du.

Batek artu, roilek artu,
milek aiña batek jan du;
jan ta jan ezin aitu.

Onak, gaiztoak, bat artzen:
biek protxu banarekin,
ari gozo, oni min.

Bat il ta bestea bizi,
janari bera jan-eta,
zer azken banarekin!

Otamena puskatzean
osoan aiña zatian
dagola, siñetsazu.

Itxura, zati egiñez,
Kristorik ez da zatitzen,
kaizu berean duzu.

Aingeruen janaria
bidekoen jan egiña,
semeen egizko jana,
ez zakufei emana.

Isaak'en oparian,
Pazkoazko bildotsean,
mana gurasoenean
zaigu adierazten.

Artzai on, egizko ogi,
Jesus, eruki zakigu.
Jan ontaz bizkor gaitzazu,
ta betiko atsedena
zeruan emaiguzu.

Lurean bizi geraño,
gu Zuk iñutzen gaituzu;
guziz altsu ta jakintsu
zeruan, angо erkide
ta mai-lagun egin gu.

118. NESKATXA TA AMA BIRJIÑA

Azkue, *B. y.*, IV, t08'an; *Kanrutegla,* 1023'an. Zoragafizko alkar-izketa, Lenitz-aldean batua.

Oriak aidez-aidez ifartxu dulzea,
Landa-mintz ederean doian erekea...
Antxe aurkitu neban Birjiña Maria,
Ofaztuten ebala buruko ulia,
Etzan a ulea, ez, ezpada urea,
Ulondo bakotxeko zerion perlea.

— Ureratu zakidaz, arima maitea,
Benetan maitatzen dot nik zure fedea,-
Eskintza oregaitik zeuk, neure alabea,
Artu izango dozu zeruko koroea.

—Nun dago, Amandrea, zeroren Semea,
Zerutik jatsiriko gure mesedea?
Berak argitu daidan neure arimea,
Ikusi daidan gero zeruko bidea?

— Or goiko munatxuan, oiñak ortotzean,
Keriz emoten deutsan ganeko arantzean.
An dago bada neure arantz-laíosea:
Zuri ta goria da neure amorea.

Begiak ditu baltzak, urezko ulia,
Aoa txit edera ta zoragaria.
A maite ez dabenak bere biotzean,
Zer maitatu daike damurik bagean?

Bere ondoren dabiltza: zeruko aingeruak,
Ibaiak apainduten lora usaintsuan
Txoriak bere pozez soiñu alegrean,
Kantau daroakez guztiak batean.

Iri-barez diardutso landako loriak,
Jantzirik bere ondran soiñeko bariak;
Lureko abereak, bere mesedean,
Jaio ta afezkero dagoz ardurean.

Zeuekaitik bakafik zerutik lurera
Jatsi da nire Jesus gizon izatera.
Agaitik, neure alaba, kantau daigun, kanta,
Berari emoteko betiko alabantza.

119. KOMUNIONE ONDOKO SANTA TERESA'REN ESKER BOZKARIOZKOAK

lkusi *Kantlka Ezplrltualak,* 46'aD; P. Lafitte, *Eskua/dun Lorategia.*

Bizirik naiz, baiñan ez, Jainkoan naiz bizia:
Orai Hark hazirikan, Hartan natza guzia.
Hura zeruan beharez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Amodio puru bat sartu zait bihotzean,
Ene Jainkoa enekin bat egin zaitanean;
Abitua[1] harén miñez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Ni libro naizelarik, hura dut esklabotzat,
Cne manu orotarat bera jari enetzat.
Jainko bat ene esklabo? Ez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Ikusirik luzatuz dohatala bizia,
Destefu gordin batez legafari josia,
Ezin pairatu dolorez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Harén gate pisuez, herestan' nabiíala,
Herioari eskua beti galdez naukola,
A! ez dukedan beldurez,
Hiltzen naiz ezin hilez,

Huía bizi, huía iraun, o dolore tristea!
Bizitzea da, Jauría, zu gabe bizitzea?
Beti hunela egonez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

HiJtzeaz plazer bezain, idurikiz dolore!
Bizia ezin jasanez, oi zenbat hefagune!
Maitearentzat huíenez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

O arasta maitea, hi! nadinfzat emanal
Betiko zoriona berekin dakartena!
Ukitua harén kolpez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Amodio zoroa, bizi dolorezkoa,
Ziakusat bertze bat, hi ez bezalakoa!
Orai hark eman indarez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Hobeki bizi hadin hilrzerat nihakarte:
Ezen hi galdurik baizen, ezin bizi naiteke;
Bizi hark ezin eg'i[J] '-,
Hiltzen naiz ezin* :z

Lurean den bizia herio bat daiteke,
Zenen herioak baizen ezin ken baítezake:
Orai ere hark iraunez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Zeruan da bakafjk ediretzen[8] bizia.
Herioa, atorkit, akaba zak hasia.
Bizitzeko hil beharez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Bizitze humanoa, hoakit ene ganik,
Ene baitan Jainkoa; Jainkoan naiz bizirik.
A! hatan atsegiñez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Herioak ez duke enetzat htrarikan:
Ene zoriona da laster etor dakidan,-
Ezen luzatuaz joanez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Maite bat izan eta, begiz ezin kontenpla,
Fedeaz ikus eta, eskuaz ezin besarka)
[ioren hiraz eta miñez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Heriotze triste bat orai ene bizia,
Gau bat ene eguna, itzal bat ene argia;
Hark niri befitu gaitzez,
Hiltzen naiz ezin hilez

Legarean'[1] araiñek hilik bere pausua,
Gudu eta bofoken aurkitzen sosegua.
A! ni bizirik izanez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Bizirik bil, hilik bizi, o bizi hilgaria!
Hagorandua[5] dolorez, ene hiragafia!
Ezin konplitu desirez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Hilikan estaliaz natza doloratua;
Herioa, he) hakit; bertzela hiratua,
Maitea u 7,edirenez,
Hiltzen. z ezin hilez.

Ba-dakizu, ene Jauna, zu zaitudan meinetik,
Plazerari beldura daraiola ondotik;
A! zohazkidan beldufez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Hiltzeraino nakare zu segurkt beharak,
Herioari oihuz herts detzan ene orenak;
Orai ere deihacbfez,
Hiltzen naiz ezin hilez.

Akaba zazu, Jauna, hagonia luze hau,-
Ezen zu gabe biziz, bihotzak ezin dirau;
Azkenekotz zure miñez,
Hiltzen naiz ezin hilez,

Ura, poroska zatzu ene gate bortitzak,
Zeruak idekirik, hanbat ene desirak.
Gate hek ezin jasanez,
Hiltzen naiz ezin hilez,

Baiñan ez, ene Jauna, hek jasan behar ditut,
Ezin hilik biziaz iraunik behar ditu,
Bizitzekotz sofri. Non ez? •
Hiltzen naiz ezin hilez.

O ez! ene arimak ez dakusa orena,
Beraturik guziaz diokena:
«A! plazer eta dotorez,
Hiltzen naiz ezin hilez!»

I) acabarse, 2) arrastrando, 3) encontrar; 4) grava; 5) afligir,

120. MARIA MAGDALEINA SA1NTIAREN DESERTUKO KANTIKA

lkusi *Gure He ti a* 1925; P. Lafltte, *Eskua/dun Lnrelegia.*

Magdaleina deserlian nigarez ari da.
Ainguriak ba-duazko kontsolatzera:

— Kontsola zite, Magdaleina,
Jesus eresusitatu da.
Zoin edefago beita ezi ez ikarikatia.
Zuazia Olibat'eko baratziala,
Han edirenen duzu benturaz.

—O Jardiner edera,
Zure faza niañifiko da,
Zure begiak ene Jinkuarenak dira,
Eta ahua ene Salbatzailiarena.

—Jardiner deitzen naizunez geroztik,
Hala nuzu bai segurki;
Ene nigarez aíosatu dit lura,
Eta ene hauren ara erosteko,
Ixuri dizut ene odola.

Magdaleina mementian
Jesus'i huilantu[1], besarkatu nahi beizian;
Jesus'ek eran dirozu apaltik:

—Magdaleina, retira zite hebetik";
Adoratzen ahal naizu,
Berta honki" behar enaizu.

Magdaleina efetiratu zen
Eta desertilat juan zen.
Zazpi urtez han
Penitentzian egon zen.
Kristi hunak, hará duatza
Bere konbersionen egitera.

Publika ditzagun mirakuliak,
Jesus gure Salbatzailiak
Desertian operatiak:
Eziñago karitatus dira.
Egizie emoina leku orotan,
Jinkuaren amurio saintia beitan,

I) acercarse; 2) emendik,- 3) tocar.

121. GAZTE-DANIK PRESTU

Ikusi *Kanllka Bzpirltualak,* 30''an.

Kristau gazte maitea, zuretzat naiz mintzo,
Adi zazu gogotik zenbeit solas[1] gozo:
Zerurako bidea zaitzu irakasten;
Eman zaite gogotik zu harén ikasten.

Goiz danik behar duzu maitatu Jainkoa,
Nahi ba'duzu izan betiko gozoa.
Gazte gaixtoak dire gehienak galtzen,
Aldiz[2] gazte prestuak zeruaz,gozatzen.

Denbora egilea bide da Jainkoa,
Adin guzien ere jabe egiazkoa:
Hala gare harenak gaztetasunean
Nola ezindu eta zahar garenean.

Hortik ba-daukagu gure eginbidea,
Iduki behar dugun bizitze moldea:
Jainkoa behar dugu orok zerbitzatu,
Harén lege saindua beti begiratu.

Nola bada, gaztea, haiz efebelatzen,
Jaunaren zerbitzutik zerk hau aldaratzen?[8]
Debrua duk hautatzen nausitzat, zoroa,
Ahantzirik hire jabe zuzenbidezkoa!

Ezagut ezak ongi hire esker gaixtoá,
Zein minki damuztatzen dukan Jaungoikoa:
Harén emaítza berez hi haitz baliatzen.
Hari gerla egite batzuen laguntzen:

Biziaren lorea da gaztetasuna,
Adin guzietan den prezatzekoena:
Gaizkira makur bedi, ez daki non bara;
Ongira itzul bedi, a! zein den suhafa!

Gazteak dire zalu, bizi, eta kartsuj
Zaharak bef-iz gogor, uzkur, nagi, pisu:
Hek uda didurite befe-egun luzetan;
Hauk aldiz negu latza ¡zotz hormatetan[4].

Etsaiarentzat bada ¡zanen ote duk
Hire adin hautua, gaztea, eraguk?
Jainkoarentzat daukak, a!, bihotz gogofal
Bekatutan iragan egunen hondafa.

Kain'en zorigaitza duk bada ahantzi,
Zikoitztasunak nola zuen galarazi?
Lufak eman ontasun bikainak gorderik,
Jaunarentzat berezi zian txafetarik.

O zu gazte zuhuía, Abel'i zaraizko,
Jaunaren araizien[5] zure ganatzeko;
Hark bezala emotzu bildox gurienenak,
Zure biziko egun diren edefenak,

Behin ba-du itsutzen mundu zoratuak;
Gogorki amafatzen jaidura[6] galduak,
Gafazki pagatuko ditu atsegiñak,
Hek artuko dituen gazte zoro-arinak.

Zer gudu, zer bofoka, zer gerla gogora,
Funtski utziko bada aztura zahara!
Bizitzez aldatzeak eziña diduri,
Estira behar zaio eman bihotzari.

Mairu beltza nekez da xuri bilakatzen;
Gaizkian ohitua hain gaitz da zenzatzen.
Gaztea hari bedi, Jauna baita mintzo,
Ohitza gaixtoari begira biozo.

Usantza, a! garhaiczen ba'lute, bortxatuz;
Gudu eta borokaz, azkarki bermatuz!
Osoki ba'Ietzake utz bere gaizkiak,
Jaunak ahantz letzake iragan guziak.

Bainan ez bekatutik ez dire hastantzen,
Ondoan gehienak hartan bai linkatzen.
I l.isi bezala dute osatzen bizia.
Dohakabe hek galtzen betiko loria.

Mirakuiluz bizia nahi ba'du aldatu;
Zenbat kanpoko traba, zenbat neke gudu?
Usantzaren gateak ezin poroskatuz,
Jaidura nausituak beti mutirituz.

Bekatoreak noizbait haux betza gateak,
Halere harén griñak ez dire xumeak;
Ezin jakin dezake eia bekatuak
Jaunaren aitzinean zaizkon barkatuak.

Oi zer erokeria, ikusak, gaztea,
Zenbait urte bakarez atsegin hartzea!
Bertze egunak bada nahi tuk iragan
Bihotz hersiura, eta nigar, auhenetan[7].

Bainan prestutasunak, Jauna maitatzeak,
Bere arima beti garbi idukitzeak,
Egiten dik Kristaua, bake egiazkoa,
Munduko atsegiñak ez bezalakoa.

Gazterik Jainkoari zaioena lotzen
Harén bihotz sa mu ra du bereganatzen:
Adin lefakor hartan zeren beita prestu,
Jaunaren atsegiñak hartaz egiten du.

Hala zeruko dohain berez-bereziak
Gazte prestuarentzat ditezke guziak:
Harén urten lorea Jainkoak izan du,
Aldiz Jainko bezala saristatuko du.

Mundu guziaz ere xoil da onhetsia,
Gaixtagin burlariez maiz ederetsia:
Bere ariman dute gu.ziek prezatten,
Bai eta geienak handizki alxatzen.

Bizian ba-dukegu hainitz ikusteko;
Ondiko, nahigabe frango jasaiteko;
Arin ditu prestuak guziak aurkitzen,
Zeren Jaun onak baidu handizki laguntzen.

Hiltzéá zaiá **gogor gazte** galduari,-
Aitzitik gozo, ezti, préstua denari:
Iragan biziak du Hura ikaratzen,
Griña gabe prestua bakean da hiltzen.

Gaztea, ibil hadi oraitik prestuki,
Mugarik ez denean ez dukan ufiki;
Ufun lagun airatu mundutafetarik,
Nahi ez ba'duk harcu hekien kutsurik.

Onhes ezak- etxea, bizitze gordea;
Ixiltasuna, lana, hire eginbidea:
Hafaiko otoitzari, irakurtzeari,
Irakufiak gogoan erabiltzeari.

Sakramenduetara, hurbilduz artoski[8],
Hire xede onetan egonen haiz tinki:
Hetan zaizkik emanen dohain bereziak,
Erexki garaitzeko hire etsai guziak.

Bekatua delakotz gaitz guzien gaitzD,
Harentzat izan ezak higuintzen higuintza:
Hartarik beti era begírauk artoski,
Bizi haizeno, hortan berma hadi tinki.

Zuk, o jesus maitea, gure jabe ona,
Jende gazte prestuak hain maite tuzuna,
Egiazko prestuak beti zatzu lagun,
Bere xede onetarik ez daitezen urun.

Gazte erebelak ere cuzu urikari,
Hekientzat ere duzu odola ixuri,
Suntsi etzatzu, Jauna, hakien ilunbeak.
Bai poíoska lotuak dauzkaten gateak.

1) itz; 2) por el contrario; 3) alejarse; 4) hielo; 5) amabilidad; 6) inclinación; 7) lameDtO; 8) con cuidado.

122. A! GIZONA

Ikusi *Kantika Ezpiri/uafak,* 18'a.n.

A! gizona, bizi haiz itsutua.
Uruntzen haiz Jaunaren legetikj
Azken finak, uztekotz bekatua,
Galdu behar ez dituk gogotik.

Hil behar haiz: zer duk segurágorik?
Hori diok zor herioari;
Etofiko zaik, hik ustekaberik:
Emok hori hire buruari,

Izanen haiz, hil eta juiatua
Jainko Jaunaz,- ordean justuki.
Zer zorigaitz, ez baduk bekatua,
Higuindurik[1], largatu osoki.

Berehala juie mendekariak
Zabalduren dik suzko lezea:
Han beharko tuk tormenta guziak
Beti jasan, o zorte dorpea!

Hala hala, sainduki bizitzerat,
Jaungoikoak hau saristatuko;
Helduren haiz eskuin alderat:
Zeruaz haiz beti gozatuko.

Hil, juiatu, galdu edo salbatu
Beharko haiz. Egia tristea!
Hire ona nahi ba'duk aurkitu,
Bila zak hire Jaun maitea.

Bere besoak darozkik zabaltzen:
Aita bat duk, nork eran zein ona?
Has hadi, bihotzez, harén maitatzen;
Hori duk hark galdetzen[2] duena.

1) detesrar; 2) pedir.

125. JAINKOAREN AMAR AGINDUAK

Ikusi *Kantika Ezpirilualak,* 14'an.

I

Jainko Jauna behar duzu bakafik adoratu,
Gauza guzien gaiñetik hura bera maitatu;
Hura gure Jabea, Gure Kreatzailea,
Salbatzeko behar diren grazien emailea.

11

Jaunaren izen saindua dedi ohoratua,
Erespetu handirekin ikaran aipatua;
Bortizki tu gastigatzen saindutasuna denak
Arinki jurainentuak egiten dituztenak.

III

Igandeák behar dire artoskl begiratu,
Beretzat ditu Jainkoak, betitik aldaratu;
Egun hék iragan beitez harén lorjnkatzén,
Sainduki gure bihotzak harén ganat altxatzen.

IV

Jainkoaren nahia da burasoak detzagun
Ekar eíespeturekin; behar orduetan lagun.
Oi! Zer bihotz gogortasun hek ez ohoratzea,
Hanbat zor diotegunak ez 2inez maitatzea!

V

Ez duzun nihoiz herarik[1] lagunaren alderat,
Beti zaren ekaria etsaien onesterat.
Gaizki guziak, zin ziñez, behar tuzu barkatu,
Elkar, hauride bezala, behai dugu maitatu.

VI

Atsegin lohi guziak urun zatzu zu ganik;
Maita zazu modestia, bihotzez, orai danik.
Oi! zenbat arima gaxo diren betikotz galtzen
Bertute maitagari hau zeren duten kolpatzen.

VII

Lagunaren ontasunaz etzare jabetuko,
Nori berea diozu zuzenki bihurtuko;
Bertzela, etsi zazu arima salbatzeaz,
Mundu huntarik lekora, zeruaz gozatzeaz,

VIII

Behar zare leiatu egiaz mintzatzera,
Lekukotasun faltsutan nihoiz ez erortzera;
Egia bera den Jaunak horela du aditzen,
Egun batez, jakinen du gezuraren punitzen.

IX

Amodio kontrakoak ez duzun bihotzean,
Ez duzu behar maitatu baizik Jainko legean;

Ohora eta begira zazu garbitasuna.
Bertute, bake gozo bat emanen datzuna.

X

Ez zaizko behar bekaiztu bertzeren ontasunari,
Ez ekar inbidiarik lagunaren onari;
Guti ba'duzu, gutiaz zare kontentaturen,
Eta diotzu Jaunari eskerak bihurturen.

I) rencor.

124. GORA BIHOTZAK

Ikusi *Kanllka Espiritualak,* 36'gn. ofialdean, baita *Crónica del Congreso de Música Sagrada* (Caxteiz, 1930), Wgafcnean be

Xoriak, zuen oianetan,
lauda ezazue Jauna,-
aipa harén ontasuna
inguru guzietan.

Ez bedi entzun baztefetan
zuen musikarik baizik:
Jaun onaren ohoretan
ez bara[1] kantatzetik.

Arditxoak, bazka'' zaitezte,-
ez dut zuen zoriona:
goiz-arax ari zarete
laudatzen Artzain ona.

Zuek, haize maitagariak,
harabotsik[8] eztienez,
munduan egin ahalez,
emotzue graziak.

Pausurík gabe', itsasoa
ofoaz bortizki dago,-
bainan ez du gutiago
ohoratzen Jainkoa.

Ni baino leialago zare,
urzo tortoila gaixoa:
laudatzen duzu Jainkoa
egun oroz zuk ere.

Nik behar nuen geihenik
Jainko Jauna ohoratu,-
eta ni naiz gutienik
hartarat lehiatu.

Ez naiz oraino abiatu
Jaun-Coikoaren maitatzen,-
eta liaren ofensatzen
urteak tut pasatu.

Ordu dut, ordu ilkitzeko[6]
etsaiaren gatetarik;
bide onean sartzeko,
bekatuak utzirik.

Huna beraz non Leidu naizen,
Jauna, urikiriz beterik;
sekulan ez dut zu baizen
maitaturen bertzerik.

Ba-dakit hobenduii naizela:
merexi dut hanitz pena,-
orhoit zaite Zu zarela
Aitarik hoberena

1) cesar; *1)* pacer; 3) murmullo, 4) sin descanso,- 5) libertar

125. JESUS'EN AMODIO TA IKUS-MINEZ

Ncurtiz (¡artsu au *Kanllka Ezplrilualak'cn* 33'gn ofialdean aurkituko dozu.

Azkenekotz zure gana, Jesus, ene bizia,
Amodioak dakarkc ene bihotz guzia,-
Ez dut nihon sosegurik, zu gozatu behafez;
Ene baitarik ba-noha, Zu maitatu plazerez.

Otoi, bada, ez hi/Izeko,
Jesus, ene bizia;
Zu beli maita zaitzadan
egidazu grazia.

Ez dakusat oren hura, ene ganit ¡Ikirik
Zurekin bat-nazakena, gorputza gabeturik:
Ene desirek balute zure besoen ahala,
Hegaldaka[1] nindohake zu gana berehala.

Hil-beldufak geienak hiltzeraino dakarzke,
Eta ni naihak ere ezin hil-araz nezake;
Hekien beldur guzia da gal dezaten bizia,
Eta ni, bizi behafez, nabila hil nahia.

Hilik baizen ezin bizi, hau da bada zortea!
Eta oraino bizi behar, bortxaz, o dolorea!
Ezin-hilak ene baitan ala baidu luzatzen!
O herioize maitea, zerk hau horla berantzen?

Amodioak ez badu ene baitan indafik,
Doloreari emozu egin dezan bakafik;
Ene ganik Zure gana natoíentzat zuzenki,
Ene hatsaz gabeturik, zurekin nadin bizi.

Ene arima gorputz liunck gatibu dadukala!
Zurekin bal izaitetik ni gíbela nezalal
Ez, ez da zeren, nolazpait, nik zurekin behar dut;
Hunekin, edo bertzela, nik Zu beharko zaitut.

Bere urhatsa[2] ez darama erbi persegituak,
Hain laster xiripetarat orkaitz" egarituak,
Nola orai sustaturik zeruko kar biziak,
Bai-narama mundu petik, Zu ganako lehiak.

Otoi, bada, ez hi ¡Izeko,
Jesus, ene bizia;
Zu beli maita zailzadan,
egidazu grazia.

I) volando,- 5) paso; 3) ciervo.

126 HÉRIOTZA

lkusi *Kdntika EzpIHtualak,* 22'gn orialdean.

Zer dire gure egunak? Zer da gure bizia?
Itzalaren pare dire: non dugu zuhurtzia?
Atsegin iragankofei bihotza largatzeaz',
Akabo da laster gutaz; orhoit gaiten hiltzeaz.

Hobira gare hurbiltzen, sortzen garen ordutik;
Herioak, gure bortxa, garamatza mundutik.
Baratzetako loreak histen[3] diren bezala,
Hola da gure bizia suntsitzen berehala.

Oi! ez dugu zeren eran gazte, sendo garela,
Herioa gure ganik oraino urun dela.
Sari lur barnean daite bizi uste duena,-
Nork daki noiz ¡zanen den gure azken orena?

Herioak nihork ez du munduan ufikari;
Bakotxari nahi dio, bere mugan, yazari;
Xumeak eta handiak ditu bere ganatzen,
Guziak, arte laburez, liefautsetan ezartzen.

Zerentzat gintuzke, beraz, munduko fagoreak?
Laster utzi behar diren ontasun-ohoreak?
Arbuia" dezagun lura, ela bila zerua,-
lian du bakarik aurkitzen bihotzak deskantsua.

Sainduki hil nahi duenak loriarat eltzeko,
Utzi behar du gaizkia ongiari lotzeko,-
Hori bera du manatzen Jaun onaren legeak,
Lureko printze, monarka, guzien Eregeak.

Jainkotiafak ez ditu hil-bcldurak lotsatzen,
Ba-dakite, Iiii orduko, direla zeruratzen;
Zenbat ere herioak begia bai du lari,
Ongi bizi direnentzat ez da ikaragari.

Zer zorte erdiragafi[1] bekatuan hiltzea!
Zer zorigaitz! zer kalte min arimaren galtzea!
Begira gaitzatzu, Jauna, heriotze gaxtotik,
Eternitate guzian efetzen egoitetik.

Jainko adoragaria, Aitarik hoberena,
Entzun zazu zure Seme gure gatik hil dena;
Grazia eske dagotzu geretzat gurutzean,
Aren, fagore gaitzatzu gure heriotzean.

Ondikoz! merezi tugu gastigu garatzenak,
Otoi, ahantz bekizkitzu, Jauna, gure hobenak.
El zakizkigu, Biryina, gure behar-orduetan,
Guziz, o Ama maitea, hiltzeko orenetan.

1) dejar; *1)* desvanecer; 3) despreciar; 4) desgarrador,

127. MUNDUKO LANYERAK

lkusi *Kantika Ezpirituelak,* 52'gn. orialdean.

[tsasoaren pareko
(Mundu hau salbamenduko,
Xume-handiak
Garen guziak
Etsaiarekin guduka
Hari beldufik boroka.

Untziak tenpestak nola
Satan'ek •arimak hala
Ditu tentatzen,
Ditu behartzen,-
Nahiz ikusi galduak,
Zerurat gure oihuak.

Nork ikusi hulakorik
Etsai nabarben gaxtorik?
Nihoiz bakerik,
Nihoiz pausurík[1],
Beti behartzen gaituzte:
Zato, Jesus, altxa zaite.

Hel, Jesus, hel zakizkigu:
Zure behafa ba-dugu.
Hau da zoria,
Oi zer furia!
Galtzeko trazak ditugu:
Hel, Jesus, hel zakizkigu.

—Ez zaiteztela ez lotsa
Ene ganat zuen boza;
Zuen nigarak,
Oihu suhafak[2]
Aditzen ditut zerutik.
Aren, beira Iotsatzetik.

Nik ixuri saíaskiak
Ene laguntzen bahiak,
Aragi, mundu,
Satán, ifernu,
Guzien dire garaiak,
Safaski nik ixuriák.

Sinhets azue egia
Ene aotik Ukia;
Uko beldurik
Ez har nitarik,
Ez ba'nauzue ukatzen:
Sinesten dugu sinesten.

Egon zaitezte enekin,
Nagon ni ere zuekin,-
Enekin juntki
Dagona finki
Deite gozoki hazia,
Zerurakotz berezia—.

Zeru-lureko gozoak
Ez berdin gozatzekoak;
Hauk zein galkorak,
Hek iraunkorak!
Orai zer dio gogoak,
Hauta, hauta zerukoak.

Tratantek aberasteko,
Gerlariek bentzuteko,
Lazeriafi
Herioari
Desafioak ematen.
Hots, kristauak, erna gaiten!

Osoki dire handiak
Guretzat dauden sariak;
Daude hautarik,
-\iai.11urik.
Zeruko gozo guziak,
Jesus onak mereziak.

Guduka, berak, guduka,
Herioraino guduka:
Balentriosen,
Bitoriosen
Prest-presta dauzka koroak
Jaungoiko soberanoak.

Mihia ao-gangari[a]
Josia hezur-gainari,
Geldi betikotz
Zu ahanztekotz!
Goiko Jaunaren egoitza,
Zutan da ene bihotza!

I) descanso; 3) fogoso; 3) paladar.

128. BEKATOREA JAINKOA GANAT ITZULTZEN

Begira egizu, nai izan ezketiño, *Kantika Ezpirilualak*, 55'gn. oílaldean.

A, mundu enganagafia,
Jakin ba'rverauk beria!
Hire agintza falsoak
Zein diren ondikozkoak[1];
A! orai diat ikusten,
Ikusteaz nauk hiratzen".

Hire lausengu edefei,
Hire atsegin galkorez,
Oi, hau da bada lastima,
Zerura dudan arima!
Huna non dudan galdua,
Bekatutan ondatua!

Nor darotzudan prezatu,
Nor dudan nausitzat hartu,
Uko egiñikan Zuri,
Oi, Jauna, zer ikusgari!
Ene zongaitz handietan
Nago Satan'en gatetan.

Hain xuri nola elufa,
Hain eder nola izara
Nuen arima gaxoa.
Helas! hau da ganbioa!
Keldefa[3] baino beltzago
Bekatuak egiña nago.

Zeruan gehiagorik,
Enetzat ez da zuzenik,
Non ez ditudan higuintzen,
Hoben guziak bofatzen,
Penitentzia egiñez
Heiagoretan* nigafez,

Alki sainduko óihuez,
Predikarien efanez,
Zu ganat, Jauna, deitua,
Amulsuki herxatua,
Heda besoa zerutik,
Heldu natzaitzu gogotik.

Ni naizen bezelakorik
Nork ikusi prodigorik^
Hark primantza[5] lafekoa,
Nik primantza zerukoa.
Biek ditugu xahutu,
Zenbatez dudan garhaitu![6]

A! prodigoa behafez
Huren hila zen gosetez:
Ordu onean etxerat,
Aitaren besoetarat,
Itzuli baitzen suharki,
Aitak hartu zein afaiki!

Nork egundaiño bestarik
lkusi hunelakorik!
Besoz-beso besarketan
Egonikan nigaretan, '
Aita semea aldean
Emana mahain onean.

Bihotz on, bekatoreak,
Zeruko Aita gureak,
Osoki konbertiturik,
Bekatuak barkaturik,
Gaitu haur majten balsarat
Hartuko bere alderat.

I) nefasto; 2) gastarse; 3) holi/n; 4) quejido; 5) herencia; 6) sobrepasar.

129. MUNDUA ZER DAN

ikusi *Kantikak*, 22'gn. oñaldean.

Ez da mundu huntan,
ez hunen agintzetan
behin ere aurkitzen
zorion faltsorik baizen.
Beti ta gezurti/ atxematen,
halere bethi/ edireiten'
ditu gizonak
fidatu nahi zaizkonak.

Lore ta liliak
nola tu iguzkiak
goiz-aldean zabaltzen,
arats berean ¡hartzen:
hala da gizona/ kanbiatzen,
harén adina da/ suntsitzen:
sortu deneko
han da afasta hiltzeko.

Mundutar arinek
ez gazte libertinek
ez darotet agintzen
atsegin gozorik baizen;
bainan pulunpatu/ bainaiz heta
ez dut aurkitu/ guzietan
deus funtsezkorik,
deus, atsegabez bertzerik.

Hi! behar gizonak
alfer tu ontasunak,
diru nekez bilduak,
urhe ta zilhar multzoak.
Mundu guziaren/ balitz jabe
eta nihoren/ behar gabe,
hil-eta zaio
kutxa xo4l bat geldituko.

Gizon aipatuak,
handi ohorátuak,
zuen titulu gorek
ez eta zuen ohorek
ez dute hiltzetik/ begiratzen,
nihor hobitik/ gibelatzen,-[2]
Jaun ala mutil
behar duzue denek hil.

Gaur doatsu dena,
urhea dariona,
inguratua pobrez
harén amoina[3] behafez,
bi arkotz daiteke/ eroria
hai eta eske/ etofia
bertzen aterat
amoinaren galdetzerat.

Atzo gaixtagina
ikusi dut ¡gana
zedro berez gorago
hufen hedoietaraino;
ordean iragan/ naizeneko
nihor ez zen han/ gehiago;
izan zen ere
ez zen seinale batere.

Gizon jakintsuhak
ta eskolatuenak
zer du bada probetxu
duelakótz izpiritu?
Ez badu justuen/ sinhestea
eta sainduen/ bertutea,
deusik ez zaio
zerukotz baliatuko.

Gizonen zortea
eta heien epea
Jaunak bakarik ditu
bere eskutan gelditu:-
Berak du ozpiña/ pitz.arazten
eta gizona/du erhausten,
har bat bezala,
guti gogoan duela.

Ez du ez pobrerik,
ez aitoren semerik
herioak berexten,
urikariz gupidesten,-[4]
laster da lufera/ jautsi bear;
harén baltsara[5] gaurtik bihar
dire guziak
xumeak eta handiak.

Ez du beraz zeren
gazteak gorputzaren
ari mainaz ekartzen
eta ederki apaintzen:
noiz ere baidoha/ ilkitzera,
atsegin bilha/ mundu-pera,
duke betea
bere egunen epea...

Gure funts-gabea,
gure doakabea
uste badugu izan
doatsu behere huntan!
Zeruan da baizen/ zoriona
deusek gutitzen/ ez duena,
Jainkoa deno
beti ¡zain dena oso.

1) hallar; *2)* apartar; 3) limosna; 4) compadecer; 5) compañía.

150. GURE AZKENA

Ikusi *Kantika Ezpirilualak,* I9'garénean.

Gizona, non duk zuhurtzia?'
Zer, ez dakik
ez dela deus ere bizia,
ke bat baizik?
Higuin zak bihotzez mundua
orai-danik)

nenoa duk tiuiL..^jd" '
hire ganik.

Mundutar, plazer zoratutan
ondatua,
gauza bat bedi hire baitan
(ínkatua;
orhoit hadi hil behar dela
azkenean,
biar beretik haitekela
lur barnean.

Aberatsa, hire diruak
hau itsutzen,
?-.gintZu faltsoez munduak
hau zoratzen.
A! has hadi enganioaz
ahalkatzen[2],
bai eta funski herioaz
beldur hartzen.

Gazte zoro, arduratua
apainduraz,
ardura zak izpiritua
sepulturaz:
herioa arokeriaz
duk trufatzen,
urguilusen hatz-emateaz
duk dostatzen[3].

Tratulari, intres gosea,
deusek ere
mundu huntan ezin asea
behinere,
sari[1] putzu bat zaik emanen
ego/.tzatzat,
bi [1] —a JurVHfck (zanen ' "'
. on»<. intasuntzat.
i,

Laboraría, alfei,
haiz nekau ' ,
• L • J i ¿\ 'etan,
maiz henoa duk, bet-tK
gu ganatzen.
Hazilian egiteko lanak
tuk niretzat,
eta fruitu heldu direnak
primuentzat[5].

Mariñel, hanbat hersturetan
habilana,
laster haiteke uhinetan
hatzemana:
ur pean edo leihorean
haiz galduko;
bizia zaik, muga denean,
eskastuko.

Bat etzaio herioari
itzuliko,
zofozki dio bakotxari
yazafiko;
ba-daramatza eregeak
tronuetarik,
hain efexki nola pobreak
zokoe tarik.

I) prudencia; 2) avergonzarse; *'i)* divertir; 4) pronto; 5) hereúlTo.

131. JAUNA. ZER ARI NAIZ?

lkusi *Kant/kak,* 26'gn. ofialdean.

Jauna, zer ari naiz,
ni zertan naiz
mundu trixte huntan?
Jauna, zer ari naiz,
ni zertan naiz,
nola bizi naiz?
' "rY^Caa fta.'en^r'.eetan,
herstua harén gateetar.
Jauna, heríora.
Zureganr
ni nola noa"

Betj herioa,
bai nobia,
Jauna, bistan ditut:
beti herioa,
bai hobia
ja idekia.
Horier begiak hertsi tut,
horier goraren egin dut,
beti, oi zoroa!
Oi Jainkoa!
ni norat noa?

Lura, zertaz nankak?
Hik plazefak
daroztak hitz-eman
Lufa, zertaz naukak?
Hik plazerak
agindu dauztak.
Gn.Kü tó £??SYSu.n
orotan hi haut nik atxeman...
Lufa, gal-bidean,
bekatuan
zertaz naukaian?

Jauna, aitor dautzut,
merezi dut
gaztiga nezazun.
Jauna, aitor dautzut,
merezi dut
huts bera in dut.
Eskefak zeren utzi nauzun
handiak, oi! galdu ez nauzun:
Jauna, hitz darotZL't.
ziñez dautzut:
damu handi dut.

Lura, atsegiñak
bai plazefak
ditiat hastandu[1];
lufa, atsegiñak
bai plazefak
hi re eskaintzat.
Zerura nahi diat heldu,
bide hartarakotz hartu:
lufa, gurutzea
bai nekea:
hofa nerea!

[1]) desechar.

152. BIURTZEA

lkusi *Kantikak,* IH'gn. ofialdcan.

Oi Jauna, zure graziak
ez zaizkit baliatu,
zure fagore guziak
battkut arbuiatu[1].
Niri ongi egitetik,
ez etzare baratu";
ordaiñez ene partetik
nola zaitut maitatu?

Laguntza bcrczienez
orai inguratua,
egia entzun dutanez
guzia hunkitua,
osoki naiz alialgetzen
bizitze íraganaz,
ene bihotza da zaurtzen
urikirik minenaz.

Hari gogoraren pare
zuretzat naiz agertu;
bizkitartean ez zare,
Jaun ona, mendekatu.
A! egun doatsu hautan
graziak nau garhaitzen,-
santia naiz ene-baitan,
funski zaitut maitatzen.

Urun liadi, bekatua,
urun ene bixtatik:
iduki nauk tronpatua,
galtzer nauk hire gatik.
Ifernurat erortzera
maiz diat ifiskalu,
su- lamerán eretzea
zeren haudan maitatu.

Bekatutik naiz uruntzen
zuri jaraikitzeko,
ongia dut besarkatzen,
Jauna, zuganatzeko.
Oi! zureganik ez nago
sekulan ufundurik:
amaitu da, gehiago
batere bekaturik!

Zaharak eta gazteak,
eman gaíten kantatzen,
kar saindu batez beteak
Jaun ona ohoratzen.
Bai, kanta zagun gogotik
zerua goratzeko,
gure bozak baltsaturrk
eskefen bihurtzeko.

I) despreciar; 2) cesar,

I5Ó. AZKEN BPAIA

ikusi *Kantikak,* 36'gn orialdcan.

Aditzen da turuta lazgafia:
etori da Jaunaren eguna.
Egun itun, egun lotsagaíia,
egunetan egun andiena.

Ihurtzuri[1] eta ximista pean
lehenago Jauna mintzatu zen;
bainan egun bere aintz gurenean
andiago zerauku agertzen,

Aspaldi lur biurtu aragiak
eraustuak ziren «zutetan,
osaturik, lipar batez, guziak
pizten dire, xutituz batean.

Orduraino gordeak egon diren
iíunpeko lan gaixto guziak
agertzen tu guzien bistan emen,
o Jesus, xuíe argi biziak.

Aingeru onek ematen dituzte,
merezitu duten arabera,
gaixtaginak eta onak bi parte,
Jesu-Kristoren bi aldetara,

Obendunak ezkercko aldetik
ikusten du Epaila asafea,
eta onak Jaunaren eskuinetik
altxagafi den begicartea.

—«Zoazkidate, madarikatuak,
zoazkidate ufun ni-ganik!
Sekulako surat kondenatuak,
zoazte efetzerat orai-danik!»

Itzultzen da eskuineko alderat
afaiturik Jaunaren bisaia;
íxurtzejí du zintzoen biotzerat,
oi, zer bozkariozko ibaia!

Oi, zer gozo aditzean: —«Zatozte,
ene Aitaz benedikatuak!
Ar zazue ene lorian parte:
an dire zuen koro, tronuak».

Bat-batean zerua da zabaltzen
ta zintzoak, arima ta gorputz,
kantuz dire zerurat altxatzen,
izaiteko an betikotz urus.

Oi, egun ziur bezain lazgaíia,
zeivi aldetara ikusi beav nauk?

Bekatari ain lastirnagaria,
oren ura ixilka eldu zauk.

1) trueno

154. EGUN OORIA

lkusi Orixe, *Uri? guiiko Meza bezpera/t,* 1350 of.

Egun gori egun ura,
Jainkoaren asareak
auts biurtuko du luía.

Zer ikara gizartean
auzi-Maisu zorotz ua
auzira datorenean!

Turutak otsa lazgariz
ilak esnatuko ditu
ta auzitegira ekaíi.

Bai bildufez izuturik
bizia, naiz erioa,
zer erantzun ez jakiñik.

Oben aundi eta txiki
oro dauzkan liburua,
ara Jesus'ek idiki.

Auzi-Jaun ofek Alkian,
obenik izkutuenak
ipiñiko agerian.

Zintzoa bildur ba'dago,
ni bezalako gaiztoak
nor arkitu bitarteko?

Jaun bildurgafi, zerura
ururik baiteramazu,
ni ere eraman nazu.

Oroi zakit, Jesus samur,
nigatik gizon egiña:
egun artan ez ni galdu.

Nekaturik nere bila
jasan zenun eriotza:
lan au alper ez dedila.

Jaun zuzen eta zofotza,
Zuk neri barkatu gabe
ez betorkit eriotza.

Lotsaz gor! nago, aren,
barkatu nere obenak
kontu-eguna baño len.

Jun ziran zerura bide
Madalen eta lapura:
ba-dut nik itxaropide.

Otoitzez ez dut merezi,
bañan egizu, Jaun ona,
sutan ere ez nadin beti.

Bezat toki ardietan
akeretatik ufuti,
jar nazazu eskuiñetan.

Gaiztoak oiuz sutara
bialtzen dituzunean,
dei nazu zeruetara.

Belauniko nago, Jauna,
biotzez damu dutala,
eman neri azken ona.

Zer egun negargaria!
Ilda pizturik, auzira
dijoa pekataria.

Jesus, erukiz betea,
idazti barkamena
ta animeri pakea.

6) PASTORALAK

Ona emen, cuskal-antzcrki enda berezia, ta antxiñakoa noski, batzuk diñoenez, X Vl'garen gizaldi auretikoa dogu ta Bai cte? Jakin ez, ziur, noiz asi ziran Bidaso'z andik gaur be antzeztu oi dabezan *Pastoralak.* Onela Orixe jaunak: «Xubero'ko Pastoralak edo atarian istiatzen dituten komeriak cztakigu noiz asi ziran, baino XV'gareu mendean, beintzat asi bide ziren frantzia'ko misterioctoiik aukeratuak edo dire...» *E Alde,* 1937, 16> or. Aro erdiko autzerkiakaz ba cte dabe antzik? Webster jaunak dirauskunez, gerkar antzezkilariak, ots.Eskil, Sopokel, Euripide, Aristopan eta abarek taiu ortan idatzi eben. Atari edo zelaian gertatzen dira; musika, dantza ta kantu ugari; asitik amaira, ara ta ona dabiltza antzezlariak, iñoiz bere ez geldi. Emakume ta gizonik nastean ezta sartzeo, edo gizonak edo emakumak, baiña soilki naste barik. On eu gaizto gai, «urdiñak» eta «goriak»; baita aingeru ta deabruak be. Olerki cdo poesiz ez dira gauza aundirik, gatza ta ozpiña ba daben aren. Erdelitzez jori, ta oso luzeak; gibel ta iraupen aundia bear, areik osorik antzeztu arte begira egoteko. Ez dakigu nok egiñak diran, .ta gaiñera len-zatiak erdizka ta mozturik el yakuz. C. Hérelle jaunak liburu ederik asko atara ebezan *Pastoralok* dirala-ta, gaiak oro onela banatu ebazan.- I. Antziña aroa (gei bi); Il Itun Zar aroa (8 gei); III. Itun Bafi aroa (9 gei); IV. Santuen Bizitzak (18 gei); V. Gudu-abestiak (5 gei), VI. Adur-elebefiak (Il gei); VII Ipuin-edesti aroa (1i gei); VIII. Aratuzte-antzerkiak (gei bi), ta IX, Zintsafots (IGgeiJ. Guztiok ziberutarez idatziak; gaur be, Bordcl'cko cri-liburutegian daukaguz geienak, eskuz idatzita. Ikusi: G. Hiirellc 1) *Une Pastora/e de l'an 1500:1) Repertolre da Théalre basque;* 3) *Eludes sur le fhéalre basque:* 4) *Nollees sur quelques Pastorales basques,* RIEV, V, VI, VII, W, Webster. *El Teatro Popular Vasco;* Or. Jauregibcri, *Las Pastorales;* RIEV IX, 80 or.

135. KLOBIS Irajedi
(*Zathxon)*

Klotilde efegearen emaztegaiak. Jesus'i ta Andra Maria'ri egindako otoitz sentikofa.

Adoratzen zutut, Jauna,
zeluko Eregia.
Zeliaren, turaren eta
gaiza ororen Kreatzalia.

Guk zer behar dugun,
Jauna, Zuk ba-dakizu.
Zure grazia handiaz,
otoi, gida gitzazu.

Jauna, otoi, erakats dazu
zer egin behar dudan,-
Klobis siñetsi ala
refusatu behar dudan.

Zu adoratzen zutielarik
hitza dit abantzatu;
bena, Jauna, bestela,
otoi, Zuk libra nezazu.

O birjina María saintia!
Balia zakitzat arestuosa,
Jesus Seme Jaunaren
kretzian, otoi, ontsa.

Gidatia izan nadin
hutsik batere egin gabe,
ene Salbatzale justua
Jesus ofentsatu gabe!

136. SAN ROKE PASTORALA
(Zatitxoa)

XVIIJ'gafen mendeko jiaper zafetatik artua; 471'tik 487'gafeneraiñoko ahapatdíak, 23'garen orialdean asita.

RoJce. Jauna, besarkatzen zútutj
bihotz oroz, segurkij
otoi, begira nazazu
ifemuko sutik.

Ene Jainko Jauna,
handia eta eztia,
zuren susmetitzen dit
ene korpitz tristia.

Oro zuria nuzu,
Jauna, salba nazazu,-
zure graziaz arima,
Jauna, xaba[1] izadazu.

Elas! enauken
piañurik egin gabe;
Jesus eta Maria,
otoi, hel zakiztadíe,

Orai da enen ordia,
ba-nua hiltzera;
otoi, gin[2] zakiztadie
enen faboritzera.

Enen Aingeru begiradia,
Jainkuak haitatia,
hiltze triste huntan
zakizat balia.

(Etzan; Gabirel aingerua sar ta mintza)

Gabirel. Roke, koraje adi,
ehadila lotsa,
ehua ez orano
segurki hiltzera.

Zelutik huna nuk
hiren minaren herstera[d]:
sendoturik behar duk
orano tzuli etxera.

Enen hersliak diek
hiren mina sendoren,
eta liiren bihotza
oro establituren.

Ager ezak plaga
hers dezagun berhala,
urano osagaria
ukenen duk hartzara.

Roke. Reniestiatzen zutut,
zelietako ainguria,
merexi gabe uken dit
zure sokofia.

Gabirel. Jinkuaren grazia duk
zihautan ezagulzen,
bai eta tentazioniak
aisa goituren.

Ba duk orano
kurutze sofritzeko,
bera behar duk
zeliaren irabazteko.

Gloriazko kaidera*bat
nahi derat adelatu[6],
zuintan eternitatian
izanen behiz plazatu.

Adió efaiten deriat,,
uken koraje beti;
munduko penak
sofri itzak gogoti.

(Ba-doa aingerua)

Roke. Remestiatzen zutut
zuk egin hungia,-
otoi, emadazut '-''
zeuren argi saintia.

1) inundar, *1)* venir,- 3) cerrar; 4) silla.- 5) preparar.

137. JENOBEBA **D**ONEAREN TRAjÉD)
(Zatlfxoa)

Guztiz, 1.155 ahapaldi lautiako ditu; ta 23 antzez-lagun sartzen dira.

Jenobeba. *(Presondegi-atetik)* Elas! eta, enejaínkua,
sofrutiren duzla
izan nadin heben[J]
hain gaizki trataüa?

Duzunaz geroz Zuk
beti ezagutu
inozenzian nizala,
hain gaizki tratatu?

Zeren enaizu Zuk
hebentik idokitzen,
eta ene inozenzia
ezagut-erazten?

Ene pazenzia
nahi ba'zunian borogatu*[1],
zeren beste punizionerik
eztuzu xerkatu?[8]

Nihauren gaitziaz
eunkian axolik,
beno ene ohoria da
orai tefestaturik.

Noiz artiño, Jauna,
diferjturen duzu
inozenzia izan dadin
gisa huntan tratatu?

(Oaío presondeglra sartu ta Jenobeba'gana doa)

Galo, Madama, otian[4] nula
B denbora iragaiten duzu
presontegi zola hortan?
Otoi, eran izadazu.

Jenobeba. Ene penarik handiena
hire ikustia;
ken akit hortik,
animal lotsagafia.

Oaío. Posible deia
otian, madama,
presontegiaren zoían
hola mintzatzen zirela?

Eztuzia otian nahi
zure bihotza umiliatu
eta urguilu handi hori
orai apazeatu?

Hitz emaiten ba'deitadazu
zure amortara,
seguratzen zutut
horti libratzera.

lenobeba, Efekiritzen ait,
ken adin horti,
ezi-ezin ikusten **ait**
bortxa handiz baizi.

Hiri obedi beno lehen
ilcusrren duk heben
tonba baten zolan
xixariek **jaten**.
(Oaío ba-doa)

Otian, ene ji'nkua,
sofrituren duzia
izan nadin huía
heti turmentatia?

Ene otoitza xipiez
ba-nizun experantxa
fortuna irusago bat
obtenituren niela.

Arauz merexi tit,
ene Jainko maitia;
konplitu dela beti
zure borontate saintia.

Ezpadut merexi
pena baizi deusere,
ene sabeleko frutiaz
ukazu pietate.

Gaizki egin ba'dut,
harek eztien ogenik;
hil behar ba'dut,
harek eztu merexirik.

Agian egun batez
ezaguturen dizie,
ama inozentaren haufa
deituren beitie.

Ama afligitu zerola,
beno ogenik gabe,-
kondenatu ziela
krimorik uken gabe.

Ene arima gaxuak
ukenen du ordian
kontentamentu handi bat
Jinkuaren aitzinian.

Zuri efemetitzen dit,
ene Kreatzalia,-
Zuk gida nazazu
zeluko gloríala.

1) aquí; 2) probar; 3) buscar; 4) ¡conque!

158. MOISA'REN PASTORALA
(Zal/txoa)

1.019 ahapaldi ditu onek; ondoren doazanak, 56'tik 82'ra bitartekoak dira,

Moisa. Elas! Ene Jinkua!
hanitx zutut remestiatzen,
zeren zure haur bezala
mundian naizun ikusten.

Zure haur nuzu, bai,
hobeki ikus nezazu;
moien harez zelian
nahi zutut adoratu.

Zure grazia saintia
nitara egoitz' ezazu,

eta ene zahartarzuna,
otoi, ikus ezazu,

Amorekatik ahal zitzaidan
gero han adora
eta merexi duzun bezala
beti remestia[2].

Mundian kitatzeko
jin[3] zitadazut denbora,
ikusiren ene zahartarzuna
untsa handi dela.

Hanitz dangeraturik/ Jauna,'
naizu konserbatu,
hala nula Faraon'en eskutik
bei-nunduzun libratu.

Maniak hartu nituzun
Tabor'ako montaiñan,
hari batetan Zuk emanik
letera gorietan.

Izkiribatu zitizut
libru handian
eta zure maniak
hedatu mundian.

Deitu behar naizu, Jauna,
otoi, Zuregana,
amorekatik goza dezadan
zure tronua.

(Aingerua agertu ta onduan ¡an)

Gabriel. Moisa abilua,
ore[5] kasernala,
eta ore jentia
zer ari den jakitera.

Jainkuaren manuz[9]'nuk
jiten hiregana,
eta Harén ordren
hiri emaitera.

Balan ari duk
perediku egiten

eta Jinkuaren kontra
manu emaiten.

Benga-erazi behar duk
ore jentia oro
eta madinadita guziak
odoletan ezar-erazi oro.

Hamabi mila gizon
prestatu behar duk
eta Fine Jeneral
egin behar duk.

Moisa abilua,
orai búhala
eta Jaunaren ordriak etxekuta,
nik eran bezala.
{Aingerua ba-doa)

Moisa. O, zelietan zirena,
egidazut miserikordia,
eta nitan etxerka
zure grazia saintia.

Adoratzen zutut, Jesu,
zelietan zirena,
ene Kreatzalia eta
buruzagi gehiena.

Esperantxa dit hebe
konserbaturen naizula
eta zure haur bezala
nitzaz oharturen[7] ziela.

Ba-nuazu kantika baten
orai Zuri kantatzera,-
Ainguriak, zirausteie,
otoi, ene laguntzera.
(.Gabrielaingerua sartzen da)

(Kantuz) Zure suiaz era nezazu,
zeliko Jainko handia,
eta beti lagunt nezazu,
Izpiritu dibinoa.

Aingerua. ***(Kantuz)*** Zelutik gu jaitsi gutuzu,
Moisa, zure laguntzera,

zeluko Aitak igoíirik
zure faboritzera.

Muisa. *(Kantuz)* Emaidazut, aren, grazia
etsaien defendatzeko,
bai eta ere betiere
tentazionen goitzeko.

Aingerua. *(Kantuz)* Lauda eta dugun adora
zeluko Jinko handia,
zeren Harek oro bei-zutian
kreiatu miindiala.

Moisa. *(Kantuz)* Gure aita Adan lehenak
oro kokatu[6] gutu,
bena Natura dibinoak
oro xahaturen gutu.

Aingerua. *(Kantuz)* Hanitz arima tristerik duzu,
Jauna, aiíageratzen,
eta SatanVn ponpatik
oro gutuzu libratzen.

Moisa. *(Kantu gdbe)* Izpiritu dibinoa,
bcliar duzu juan berhala
Fine jeneralaren
bere *Tantán* edireitera[0].

Jainkuaren ordre bat ba-dudala
eta luma jín dadila,
Jaunaren manía fidelki
etxekutatu behar dugula.

Aingeru. Profeta justua, ba-nuazu
zure ordren etxekutatzera,-
otoi, zuaza zu ere
apur bat repousatzera.
{Biak doaz)

í] lanzar; *1)* dar gracias; 3) llegar; *4)* peligro; 5) tu, 6) orden, 7) acordarse, 8) cootaminar; 9) encontrar,

159. UOLAN'EN TRAjEDI
(Zntl/xotí)

linda ontako antzez-Ianctan, euskeraz beintzat, ederena <logu au, Soral handi ta Leizaola jaunen eritxiz; ta euskal-antzcrklcuko zarena nunbait; XVI"

garen gizaldiaren len-zatikoa? Ba-ditu itzik ugari erderatik artuta, baiña, alan be, bikaiña. Kalderon aundiaren «El Principe Constante» ta onek, ba ei dabe alkaren antza. 17 antzezlagun ditu; ez dau ekitaldirik ez agefaldirik; alan be ixtoriko antzez-une bereziak, ikusle ta entzuleak obeto aitu dagiezan, antzezlarjak eurak banatu oi dabez, sartu-urtenka. 1796'tik gaur arte, zazpi bidar antzeztua, or emen. 1.200 bat inguru biñako ahapaldi ditu; baiña azken-urteotan Saroihandi jaunak 343'ekin argitara emon dau. Ikusi *LaPastorale de Qoland:* Texte basque établi a d'aide de plusieurs manuscrits, avant-propos, traduction francaise; comentaire, par J. Saro't'handy, professeur supléant au Collége de France (Bayonoe, *917).*

Roían

{Karlemain eta Ganefon Jokoan)

Eskefak nahi deritzut, ene Jinkua, eman,
Zeren konfesatu nizan, ¡garan egunetan.
O, ene Jinko Jauna, eta Salbatzalia!
Birjina ganik sortu zira, o ene kuntsolia!
Zure pasioniaren meretxiez, nahi zutut otoitu,
Egin dutudan bekatiak, plazer deriztazun parkatu.
Etzitian orit haietzaz suplikatzen zitut,
Bena bai ene dolumenaz: orai hit behar beitut.
Pietatus izan zira, egundanoz geroz,
Eta miserikordius otoitzen ziren aldi oroz.
Madalena bat ere zuk salbatu uken duzu,
Erhi' sakratiaz hunk[2] eta bekatiak parkatu.
Zure begi pietatusaz so egin ezadazu,
Ohoin[8] hunari bezala, otoi, eran ezadazu.

(*Trunpeta eragin eta pot ezpafari)*

O ezpata baliusa, hire parerik eztuk;
Hanitz arnés azkar hik trenkatu[4] duk.
Infidelen odolak hik iradoki dutuk,
Etsaiak hanitzetan susprenitu dutuk.
Hanitz paganuen menbriak hik trenkatu dutuk,
Hire ahuan sakorik[6] ezin izan ahal duk.
Eskietarik utzi eta, egiten deriat,
Kiristiek ediren heien Jinkua otoituren diat.
Elas! ene Jinko huna, edefa eta emia,
Otoi, eman ezadazu egun zure argia.

(fie/Vz *trunpeta eragin)*

{Balduena sartu)

Balduena, ene anaie maitia, eniak egin duzu;
Hur-xorta baten gabez, egarik hiltzen nizu,

Ba ¡duena

Koraje, ene anaie maitia; xerka ba-nuazu bertan;
Zamari igain-eta, partitzen nuzu galopan,

{Inguru bat eman)

Rolan

Nitarik hufunt ezazu, Jesus, zure kolera,
Eta nttan etxerka zure miserikordia.
Ene bekatu itxusiak ahaztera utzi itzatzu;
Deus hunik egin ba'dut, hurak kontsidera itzatzu,

Ba/duena

Anaie, hurik ihunere nik ezin ediren[8] dit;
Behar dizugu pentsatu beste efemediorik.
Zure ezpatak grazia ba-diala, orok ba-dakizagu;
Benturaz Jinkuak ere egin dizu mirakuilu,
Anaie, emozu txixta bat hafi-peña hori;
Ikusiren duzu hur bat jalkiten abundanti.

(Rolan'ek eman txixta hafiarl)

Rolan

Jinkuaren graziaz, hura, jaiki hadi peña hortarik,
Ene Durandalak balin badu poterik.

{Hura ¡alkiatxelik; Rolan'ek edaten. Tieri dukea sartzen da ondoren)

Zer so duk, Tiefi? Ezagutzen naika?
Aments[7] ezagutzen ezpa-naik ere, so egin ezadak untsa.

Tieri

Elas! Zer ikusten dut, ene kapitain maitia"?
Elas! eradazu, aments! Hiltzen ari zinatekia?

Rolan

O Tiefi, Tiefi! Eta, zer duk pentsatzen?
Hire kapitain maitia ikusten duk finitzen.
Ez teia hau, efak, infideíen etsai handia,
Eta Jesus-Knsten legen, beti sustengatzalia?
Ene egunak finitzen dutuk, elas! dolore handitan,
Oiheneko animal salbajen artian,
Ez tireia hoiek besuak, lantza handirik ekarliak?
Ez tireia hoiek eskiak, kolpu handirik emajjiak?
Ez takiziela nigafik: oro sortu gira hiltzeko.

Orai be'tta ene orena, eraiten deiziet adió.
Adió, Xarlemaiña,- adió, enperadore ilustria!
Adió, aren, jeaeralki, zure korte noblia,
A, miserablia Canelón! Hi hitzala kausa nuk huia,
Are-ta enenian egin sekula demendren ogena.
Oliberos eta ni, hik gal-erazj gutuk.
Bena Jinkuak miserikordia, balin ba, eginen dikuk.
A, Oliberos, Oliberos, zu hilik zirade!
Are-ta abantsu[8] nuzu, segurki, ni ere.
Jiten nitzaizu ikustera, bena ez nahi beno lehen;
Esparantxa dit Jinkuak derizkula parkaturen.
Jinkuaren gloria saintian, biek algareki,
Plazer harturen dizugu saintu eta sainteki.

(*Trunpeta eragin)*

T i e r i

Eias, Rolan, Rolan! Biotza erdiratzen[3] deritazu.
O, zeruko Jinko huna, Zuk argi gitzatzu!
Zu zira ororen Aita huna, arima ororen bakia,
Bekatore eta heratien argi eta gidatzalia.
Rolan, koraje har ezazu, etzitiala lotsa,
Ez eta munduko egitekuetan zure bihotza okupa.
Desertuko anirnalen artian, salbaczen ahal zira;
Solamente Jinkuareki etxeka2u[10] bihotza.

Rolan
{Ezpateari pol egiñik)

Adió, Durandal! Adío, ene ezpata maitia!
Jinkuak kontserba dezala hi re bertute handia.
O, ene Jinko maitia! Otoi, entzun nezazu.
Gaizki mintzatu baniz, otoi, parka ezadazu.
Hel zakitat, otoi, o Birjina Maria!
Zure gomendatzen derizut ene ezpiritia.

(Hilik eror)

I) dedo; 2) tocar,- 3) ladrón; 4) quebrantar; 5) mella; 6) hallar; *7)* a lo menos; cerca; 9) desgarrar; 10) adherir.

Il'GAREN SAlLA

L A U G I Z A L D I

1) XVI: Gizaldi edo eun-urte ontan ernea dogu euskera idatzia; ordurarte ez genduan ao-izkera baiño. Afezkero, zelai baria, mardul ta bizigafi, jarten yaku begi-aure. Ken albora jakin-lanabasez burua orazten dabenentzat, erdel-liburuetan or-emen agiri diran euskal-itz banakak, trargintza asmatua zan aufetik be, baiña euskal-idaztirik etzan argitaratu, Etxepare'k berea (Bordel, 1545) atera arte. Geroago, mende artan, beste bi gitxienez agertu ziran: Beraskoitze'ko Joanes Leizaraga'ren *Testamentu Befia* (1571) ta Baigon'ko Bertrán Etxauz'ek bere anaiari egiñiko eskutitza (1584).

2) XVII: Mende bikaiña ete, euskerarentzat? Txara ez beintzat, ezta erdi-merdikoa be, on samara baiño; idazle-sail yaioa bai-dagerkigu: Etxeberi Ziburu'koa, Oihenart, Gazteluzar, olerkari goi-mafara igonak; Aita Matere (1617), Haranburu (1635), Argaiñaratz (1641), Axular (1556-1644), Pouvreau (1656), Harizmendi (1658), Aranbilaga (1684), Belapeire (1696), idazkera askatuan ederto mintzatu ta gure ele zafa, ezkontide lerden antzera, bizi ta adoretsu jan ebenak.

3) XVIII: Len ta orain, batasun gitxi erakusten dogu euskal-Iiteraturan; idazle bakotxak bere bidea artzen dau, ta andik ibili oi da bere buruz, iñori jaramonik egin gabe. Epai-eritxí au K. Etxegarai jaunarena dogu; ta badau, tamalez, bere egi-aldea. Lapurdi'ko literaturan, ostera, etzan órela jazo, osoan beintzat. Axular ta Etxeberi saratara buruzagitzat arturik, arein inguru ibiliak ditugu ango idazlerik geienak; baita Gipuzkoa'n be Aita Laramendi'ren uratsez. Sareran esan dodanez, mende onetan auíekoan asitako olerki-kate edefa ausia dogu nunbait, edo beintzat zabar-erdoiz dirudi. Ezta bat be, mende osoan, ganorazkorik. Osterantzékoak, bat, ba-ditugu, ta ez ozkÜ-epelak: Lafamendi (1690-1766), Kardaberatz (1703-1770), Mendiburu (1708-1781); ta mugaz andik, Joanes Etxebefi (J668-1749), Mikel Xurjo askaindara (1720), Joanes Haraneder(1749), Mihura (1757), Beñat Lafegi (1775), Martin Maister (1757), Lopez benapartara (1782), Baratziart (1784).

4) XIX; Ez yaku mende au pirtxila. Ta, gauza angaria, euskera askatuan baiño olerkiz joriago dagerkigu, noski. Mintzo zarari aintza-bideak ura tzen saio ziranak askotxo doguz Bizkaia'n, Gipuzkoa'n ta Laburdi'n; izkelgi guztietan txairo ta lerden, iñoiz baiño erdel-kedats gitxiago eriela, erabíTi eben idaz-lumea; izkuntzaren eragozpen eta oztopo aurean etziran kikiltzen, ezta itzul-inguruka ibili be, bekoz-beko begiratu ta gaitzlubanak garaitu baiño. Elizanburu'k, esaterako, zelako atsegiña ixuri eban bere olerkietan! Alan be, urezko gizaldia urengoari deitu bear.

BEÑAT ETXEPARE

Saraskete'n (BN) jaioa nunbait. Ez dakigu noiz. Lenengoz, 1545'an, iraria dogu bere *Linguae Vasconum Primitiee* (euskal-leen-zituak) liburua; ta arezkero be, sei bidar bai: 1847, 1874, 1888, 1887-1893, 1893 ta atzenez)933'an, Urkixo jaunaren arduraz, RIEV aldizkingian; baita banaka, urte berean, Tolosa'ko Lopez-Mendizabal'en irarkolan, len-irarkaldiarea antzera. Geroago, 1950'an, R. Lafon jaunak *Boletín de Ia R. S. de /os A. dei País'en,* 1847'an bigarenez argitaratzean Artxu alegi-giieak lez, prantzeraz atera ditu, oso egoki. XVI olerki dira guztiz: 3 uzkurtz-aldeko, 10 maita-lelo (gordintxoak banaka batzuk), giltzape egou zanekoa, ta 2 euskeraren gorapenez. Batzuen eritxiz ezta olerkari gailena,-Lafon[1] ek, ostera, baietz diño, ta nire ustez egi-bidetik dabil. Idazkera gogor-zabartxoa, baña biotzondo bizia.

140. KONTRAPAS

Heuskara,
jalgi adi kanpora.

Garazi'ko heria
benedika dadila;
Heuskarari eman dio
behar duien tornuia[1].

Heuskara,
jalgi adi plazara.

Bertze jendek uste zuten
ezin skriba zajteien;
orai dute porogatu[2]
enganatu zirela.

Heuskara,
jalgi adi mundura.

Lengoajetan ohi intzan
estimatze gutitan;
orai, aldiz, hik behar duk
ohoria orotan.

Heuskara,
hábil mundu guzira.

Bertzeak orok izan dira
bere goihen gradora;
orai hura ¡ganen da
bertze ororen gaiñera.

Heuskara,
Baskoak orok preziatzen,
Heuskara ez jakin aren;
orok ikasiren dute
orai zer den heuskara.

Heuskara,
Orai daño egon bahiz
inprimitu bagerik,
hi engoitik[3] ebiliren
mundu guzietarik.

Heuskara,
Ezein ere lengoajerik
ez frantzesa ez bertzerik,
orai ezta erideiten[4]
heuskararen parerik.

Heuskara,
jalgi adi dantzara.

I) honor; 2) probar; 3) ya; 4) hallar,

141. SAUTRELA

Heuskara da kanpora,
eta goazen oro dantzara.

O Heuskara, lauda ezak Garazi'ko hería,
Zeren hantik uken baituk behar duian tornuia;
Lehenago hi baicintzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz ¡zanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
Zeren ezein skriptuian erideiten ezpaitzen,
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
Ezi huien lengoajia ¡zanen da floria,
Prinize eta jaun handiek, orok harén galdia,
Skribatuz ai balute ikasteko desira.

Desir hura konplitu du Garazi'ko naturak[1],
Eta harén adiskide orai Bordel'en denak,-
•Lehen inprimitzalia Heuskararen hura da;
Basko oro obligatu jagoitikoz[2] hargana.

Etai, lelori, bai lelo leloa, zarai leloa.
Heuskara da kanpora, eta goazen oro dantzara.

1) BeDte; 2) por siempre.

142. KRISTAU HONA

Munduian den gizon orok bear luke pensatu
Jangoikoak nola duien bat-bedera[{] formatu,
Bere irudi propiara gure arima kreatu,
Memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitu.

Ezein[8] jaunek eztu nahi mutil gajxto eduki,
Ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik,-
Jangoikoa ari duzu hala-hala gureki:
Gloriarik ez emanen hongi egin gaberik.

Mutilek gure zerbitzutan deratnate urtia,
Soldata apur bategatik hartzen pena handia,-

Jangoikoak bear luke guk bezanbat baüa:
Zerbitzatu bear dugu emaiteko gloria.

Ogirik eztakusat biltzen hazi erein gaberik;
Nork zer hazi erein, biltzen dizi komunki.
Obra honak ukenen du goalardona frángoki;
Bai eta-re pekatuiak punizione segurkj.

Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari bai^aiguj
Guk ere hala bear dugu Hartzaz untsa oritu;
Gure haste eta fina Hura dela pensatu,
Goiz eta afats orituki Harén izena laudatu.

A f a i 3 i a n

Aratsian, etzitian, gomendadi Jeinkoari,
Eta otoi begirezan peril guzietarik.
Gero, iratzar adinian, orit[1] adi botarik,
Zenbait ere orazione eraitera debotki.

O o i z i a n

AI badagik, joan adi elizara goizian,-
Jeinkoari han gomenda bere etxe sainduian;
Han sartzian, pensa ezak aitzinian nor duian,
Norekila mintzo izan han agoen artian.

//-heria/}

Hez untsa orit adi il-herian sartzian;
Hi nolako ziradela bizi ziren artian.
Hek bezala hil bear duk, eta ez jakin orduia;
Otoi egik Jeinkoari deien barkamenduia.

Batei-aria

Elizara izanian so egik batei-aria,
Pensa ezak han duiala rezebitu fedia,
Jeinkoaren grazia eta salbatzeko bidia.
Hari egin al baiteza lehen ezagutzia!

Gorputz sainduia

Bertan gero so albaitegi non den Gorputz Sainduia;
Pensa ezak Hura dela hire Salbatzalia.
Adorezak debozionez eta galde[3] grazia,
Azken finían, eman diatzan rezebitze diñia,

Kurutzea

Kruzifika ikus-eta, orit adi orduian
Nola izan redemttu Harén odol sainduiaz.
Hark erio haritu dik hirj leian bizia,
Pensa ezak nola eman Hari bere ordia.

Andre Dona Maria

Andere liona den lekura ailtxa izak begiak;
Mundu oro eztakidik hura bezain balja:
Jeinkoaren huranena hura diagok glorian,
Graziak oro bere eskuian nahi duien orduian,

O Andere gloriosa eta Ama eztia!
Zutan dago bekatoren esperantza guzia.
Ni zugana niatorkezu bekatore handia,
Arimaren salbatzera zu zakiztan balia.

Sa in du ¡er

Sainduier ere egin ezak neure czagutíia,
Singularki nortan baituk heure debozionia.
Zein sainduren besta daten orit egun berian,
Eta noren izenetan fundatu den eliza,-
Orituki[&] otoi egin, dakizkian balia.

1) cada uno; 2) Diogun; 3) acordarse,- 4) demandar; 5) con conciencia.

143. AMOROSEN GAZTlGUIA

Bertzek bertzerik gogoan, eta nik Andre Dona Maria;
Andre hona dakigula, guzior, otoi, balia!

Amorosak nahi nuke honat beha balite:
Hon litzaken gaztigurik[1], agian, entzun liroite;
Amore bat hautatzeko konseilu bat nekeie.
Balinetao sekulakoz gogoan sar balekie!

Nihaurk ere uken dizit zeinbaitera amore;
Bana hantik eztut uken probetxurik batere:
Anitz pena, arima gal, harena eta neuri ere.
Amoretan, plazer baten mila dira dolore.

Amoretan, ote date leial denik batere,
Hitz ederez, ezpa ioiaz, muta eztadin hura ere?

Hoben uste duien ori, anitzetan traidore;
Hobena date gahzenik, arimaren beierc.

Bekatuzko amoria beti date traidore¡
Erioa dauginian* egia sogeri date;
Hartu duten plazer oro orduian iragan date.
Bekatuía gelditzen da penatzeko gero ere;
Anitz plazer uken badu, anitz behar dolore.

Amore bat nahi nuke liadutanik egia,
Bizi eta hilez gero, hain lakidan balía.
Zerbítzatu nahi nuke halakoa bizian,-
Heben labur bizia da, jagoitikoz bertzia.

Mundu oro iraganik[a] ez eriden bertzerik.
Jeinkoaren Ama hona grazia oroz beterik.
Harén amore izateko ezta ehor diñerik;
Untsa zerbitza dazngun, maite gitu bertarik.

Amoriak baño dira hartzaz bertze guziak;
Behar handien denian faltaturen bertziak.
Liste baño lehen gira hiltzen bekatoríak;
Hark aiuta ezpagitza, nola giren galduiak!

Andre hona bar dazagun orok gure amore;
Bertze oro utzi eta egin hari ohore.
Hala egin badazagu, ohoratu gírate;
Bertze gatik, hura gabe, oro galdu girade.

Jeinkoaz landan[1], mundu orok eztu hanbat balia;
Zeruia, lura, itxasoa harén peko guzia;
Orotara edatzen du behar bada eskuia,-
Bera handi izan aren, preziatzen xtpia.
Halakoa utzi-eta, non dukegu bertzia"?

Bertze amoreak baten-bezi eztirade perestu[5],
Nork beria bertziari eztu nahi partitu;
Ama Birjin gloriosa hanbat bada konplitu,
Ororentzat bera baita leial dela abastu.

Amorosek ba'dagite bein bere nahia,
Handiago giten zaie bertze nahikaria¡
Ezin uken beiñere bere konplimentuia;
Beti peitu deramate bere mende guzia.
Emazte eta gizon orok, bar amore Maria,
Eta orori bajtekegu berak konplimentuia.

Andre honak uken dizi ederetan grazia,
Ehork hura gaizteriaz ezin lezan inbia,
Bana btstaz hiltzen zuien nahikari satsuia.
Figuraren ekustiaz, dakikezu egia.

Itxasoan hur guzia, zeruietan ¡zafa,
Oihanetan itzal ori, tur guzian belhara,
Egunari iguzkia, gau beltzari ilhuna,
Lehen fakaturen, ezi hura gugana,
Balinetan egiazki gu ba'gaude hargana.

Zeren bada ero gira, gaixo bekatariak?
Andre leial honegana goazen, oroi, guziak.
Elas! oroi, aribira[6] bertze amore falsuiak,-
Harekila segur dugu behar dugun guzia.

Eiasf amoros gaixoa, hire enganatuia!
Erogoatan ba'daramak eure mende guzia!
Ene Andere grazíosa ezpa dakik balia,
Bai bizian, bai hilian beti oha galduta.

Denbora duian artian, egik ahal hongia;
Erioa dauginían, miraz dukek orduia.
Orduian ere nahi baduk ontsa jalgi-dagia,
Ontsa hari gornendadi; nik diotsat egia:
Finían ere, eztik uzten hark galtzera beria;
Orduian ere, bere eskuian dik grazia guzia.

Mundu honek anitzjende enganatu darama;
Jagoitikoz bizi ustez harén sehi[7] dabiltza;
Guti uste duienian, ehor utzi darama;
Ero jokatuia date hartan fida dadina.

Mihaur ere ebili niz anitzetan erorik,
Gaoaz eta egunaz ere, hot2ik eta berorik;
Loa galdu, pena aski, bana ez arimagatik;
Orai oro nahi nuke liren Jeinkoagatik.

Ni bezala anitz duzu halakorik munduian,
Mende oro dohatenik beti banaglorian,
Ohart gitan buruiari denbora den artian.
Andre honak har gitzake gomendutan, agian;
Hanbat bada graziosa ama ororen gaiñian!
Jin dadinik eztu uzten hartu gabe grazian.

Kulpa gabe ehor ezta baur, da segur egia;
Bekatuiaz damnatzen du Jaingoikoak munduia.
Bekaturik ezta izan zutan, Andre handia;
Ararteko zakizkula digun barkamenduia.

Bekatoren salbatzeko Jeinkoak egin zinduzen
—Bere buria egin dizi juje justiziaren—
Zu miserikordiaren igesleku zinaden;
Nola Berak justizian ezin salba lizake,
Zure miserikordiaz remedía litezen,
Balinefan egiazki zugana gin ba'lite.

Egundano ezta izan, ez ¡zanen jagoitik,
Bekatore hain handirik ez eta-re satsurik,[9]
Bere bidian jaugin bada zuri gomendaturik,
Uken eztuien barkamendu zure amorekatik.
Ez galdu da, ez galduren zure gomendukorik.
Zuri gomendaczen gira, hilik eta bizirik.

Bertze emaztiak ama dira zenbait haurto xipiren,
Eta gero obororik[6] puntzela[10] ezin dirate.
Zu, Anderia, Ama zira, Birjinarik, Jeinkoaren,
Eta geroz Efegiña zeru eta luraren,

Jeinkoa Jaun den gauza ororen, zu zirade Andere,
Arazoin da mundu orok dagien zuri ohore,
Ezi hala ari zauku Jesu-Kristo bera ere;
Zuk bezanbat diñitate mundu orok eztuke.

O Anderia, ezin date ehor zure bardiñik;
Gainekorik zuk eztuzu Jeinko beraz bertzerik;
Jeinko ezten bertze oro dago zure azpitik;
Jeinkoaren Ama, zira mundu oroz gaiñetik.

Mundu opok eztu egin zuk bezanbat Hargatik,-
Orogatik baño oboro Hark ere daidi zugatik;
Bere Ama ezin utzi obeditu gaberik.
Otoi, grazia egtguzu giren zuienetarik.

Untsa zuk har ba'nentzazu, gomendutan gogotik,
Ezin damna naindeiela, ziñesten dut segurkj.
Anitz begiratu duzu galduren zenetarik;
Niri ere hai zakizat, otoi, galdu gaberik.

Ehonere gaitzik ezta zuk ken eztirozunik,
Ez eta-re hontasunik zure eskulan eztenik;

Denbora eta leku orotan, ezin duda gaberik,
Graziak oro zure eskuian Jangoikoak emanik.

Nahi duiena hala duke amak semiagatik;
Seme honak anitz daidi amaren amorekatik;
Gure natura haritu du, zutan, amoraturik,-
Jangoikoa ezafi duzu gure anaieturik.

Harén eta gure ororen Ama zira diñerik.
Amak eztu sofrkzeko semen artian gerlarik.
Samurturik[11] ba'dakusu gure gaizkiegatik,
Ororen Ama zira-eta, bake gitzazu bertarik.

Orai egiten diraden gaizki handiegatik
Jeirtkoak ondatu zukeien lur guzia engoitik,
Balinetan zu ezpazina ararteko gugatik.
Oro sostengatzen gicu zure otoiegatik.
Gu gaixtoak izan aren, ezten zutan faltarik;
Fin lionera hel gitzazu, giren salbuietarik.

Ama ezcia, nik ba'dagie zure kontra faltarik,
Zuk gaztiga eta dreza nazazu, otoi, bertatik.
Elas! norat ihes naidi zu, neure Ama, utzirik?
Neuretako eztazagut zu nolako Amarik.

t) aviso; 3) próximo; 3) pasar; 4) excepto; 5) activo; 6) fuera; 7) servidor; 8) inmundo; 9) ya más; 10) doncella; ti) airado.

\44. AMOROS JELOStA

Beti penaz izatia gaitz da, ene amore;
Beti ere behar duta nik zugatik dolore?

Amore bat uken dizit miragart jentilik;
Harekila nintzanian, enuien nik faltarik.
Nik jagoitik[1] ezin nuke hura bezain maiterik:
Harén miñez orai nago, ezin hilez, bizirik,

Nork baítere amorta nire daraut mutatii;
Nik eztakit zer den, bana estamendu[2] beri du.
Ohi nola aspaldian nahi etzait mintzatu,-
Zerk, andere, haritu[8] duien behar dizit galdatu.

Sekretuki behar dizit harekila mintzatu,
Ordu hartan, jagoitikoz, etsai ezpa baketu!

Niri untsa ezpadagit behar dizit pintatu,-
Ene buruia ziaidazu harendako abautü[4].

Amoria, nor izan da gure bion artian?
Mutaturik bazabiltza ia aspaldi handian.
Nik zugana dakidala faltatu eztut bizian;
Biok bein sekretuki nonbait mintza gitian.

Ehonere eztakusat nihaur bezain erorik:
Nik norgatik pena baitut, hark ene eztu axolik.
Zuhur banintz, banintzande ni ere hura gaberik;
Alabaña, ezin utzi bein ere gogotik.

Jende honak, bihotza daut betiere nigarez,
Neure amore xotiltua galdu dudan beldurez.
Gaoaz, lorik ezin daidit harén gogoan behafez;
Gogoan behar handi dizit bete nuien adarez.

Jangoikoa, edetazu amoria gogotil<
Eta harén irudia ene begjetarik.
Hark nigana eztaduka untsa leíaldatorik;
Ni ere elikaturen[5] niz orai, hura gaberik.
Saroia[6] da loitu, eta eztut harén behafik;
Nahi badut, ukenen dut orai ere berirk.

I) jamás; *1)* actitud; 3) inflar; 4) ser suficiente; 5) alimentar; 6) granja.

145. AMOROSÉN PARTITZ1A

Partí al ba'nengidio, hark ezluke parerik;
Alabaña nik eztizit hain hon deritzadanik.

Amore bat onetsi dut guztz soberatukij
Ene arima eta bihotza josi dira hareki;
Harén irudi eder ori begietan ehoki[1];
Hartzaz orit nadinian, bihotza doat ebaki.

Nik hargana hanbat dizit amorio handia!
Harekila egoitiaz ezpaneinde enoia;
Harganiko partitzia ene eihargaria*,-
Befiz ikus dirodano beti malenkonia.

Elas! ene amoria, nola nuzun penatzen!
Zurekila ezin batuz, bihotzian eratzen!

Ene gaizki penatzeko, segur, sortu zinaden;
Penak oro hon lirate, zu bazina oritzen.

Mintzatzeko zurekila gau bat nahi nikezi,
Hilabete konpliturik hura luza baledi,
Araguren[8] kondatzeko asti nuien frangoki,
Ezein-ere beldur gabe egoiteko zureki.

Orai porogatzen dizit dakitenen efana;
«Ehork utzi eztazala eskuietan duiena>.
Elas! itzul al baneza iragan den denbora!
Segur orai enikezi dudan gogoan behara.

Denbora hartan ohi nizin nik zagatik dolore,-
Orai aldiz, zure faltaz, mutatu niz ni ere.
Malenkonia ezitela, badukezu amore;
Bana ordu bazinduke zentzatzeko* zuk ere!

Ba-dakizu, dolorian partaide niz ni ere,
Eta zure mutatzeko ez ogenik batere;
Neure gaizki penatzeko liar zintzadan amore,
Jagoitikoz ukenen dut nik zugatik dolore.

I) tener; 2) que seca; 3) tormento; 4) formalizarse

146. POTAREN GALDATZIA

Andria, Jeinkoak drugatzula; orai berdin girade:
Ni erege balin ba'nintz, eregina zinate.
Poe' bat, otoi, egidazu, ezaizula herabe![2]
Nik zugatik dudan penek hura merexi dute.

—Eia, hofat apart adi; nor uste duk nizala?
Horlako bat eztuk uste nik ikusi dúdala,
Horelako hitz gaixtorik niri eztaradala;
Bertzer eran al baititza; enuk uste duiana.

—Andre gaixtoa ba'zinade, nik ez nahi kondurik;
Ziren zirena bai zira, zutzaz pena dizit nik;
Ene ustian, eztut eran desonesta den gauzarik:
Pot bat niri eginagatik, ezinduke laidorik.

— Hire potak ba'ziakuiak, bertze gauza nahi dik,
— Anderia, azti zira, nihaurk eran gaberik.

—Bada, utzi al bainentzak ni holakoz ixilik.
—Orein gaitz ziraden gero, eginen dut bertzerik.

Bizi nizan egunetan, bada, ezitut utziren,
Nik zer orai nahi baitut heben duzu eginen.
—Uste diat eskuiarki[a] ezttzala burlatzen,
Gizon hunek, orai, nuia heben laidoz beteren;
Ejagora\ nik zer daidit? —Zauden ixilik hanbaten[1].

Etai, lelori, bai (eio! Pota franko! bertzia bego!
Andria, mintza al baizinde, bertze aldian, emiago.

I) beso; 2) repugnancia,- 3) verdaderamente; ^ £en)iclQ; 5) *ua* instante,

147. EMAZTEN FABORE

Emaztiak ez gaitz eran, ene amorekatik;
Gizonek utzi ba'Jitzate, e'laidite fakarik.

Aniíz gizon ari bada andrez gaizki eíaiten,
Arizki[1] eta desoneski baitituzte aipatzen,
Ixilika egoitia edefago litzake;
Andrek grzoneki bezi hutsik ezin daidite,

Zuhur gutik andregatik gaizki eran diroite;
Halez ongi eraitea onestago litzate.
Emazteak zerengatik gaitz efanen dirate?
Handi eta xipi, oro baietarik girade.

Balentia sinplea da andren gaitz eraitea,
Bat gaitz eran nahi ba'du, oro bardin sartzea!
[xii ladin nahi nuke halako den guzia;
Damu-gaitzik emazteak hari eman ditia.

Andren gaitz-efaile orok bear luke pentsatu,
Bera eta bertze oro nondik ginaden sortu,-
Ama emazte luten ala ez, nahi nuke galdatu.
Ama gatik, andre oro behar luke goratu.

Gizonaren probetxuko emaztia beti da,
Oro, bein, haietarik sortzen gira mundura;
Sortu-eta, MI ginate, hark haz ezpaginjza;
Haziz gero, egun oroz, behar harén ajuta.

Harén eskuz osoan behar soinera eta jatera;
Eri denian, andre gabe, galdu gizon egura;

Hil ba'dadi hura, nola? nor doake gaiñera?
Ordu oroz behar tugu; ezta heben[2] zer duda.

Emazterik ezten lekuan eztakusat plazerik;
Ez gizona, ez etxia beiñere xahurik[3],
Etxian den gauza oro gaizki eíeglaturik.
Parabisuian nahi enuke, emazterik ezpaliz.

Emaztiak eztut entzun lehen gizona jaukirtk[4];
Bana gizonek emaztra betiere lehenik.
Gaízteria jalgiten[5] da beti gizonetarik.
Zeren, bada, daraukate emaztiari ogenik?

Bertuteak behar luke gizonetan handiago;
Emaztetan, nik dakusat hongiz ere gehiago.
Mila gizon gaixtorik da emazte batendako,-
Gizon baten mila andre bere fidean dago.

Hek gizoner beha balite, elitzate bat honik;
Eztiroite deuskai denik utzi jauki gaberik;
Bana anitz emazte da eskapatzen zaienik,
Anderetan zeren baita bertutea hobenik[6].

Nik eztantzut emaztiak bortxaturik gizona,
Bana bera, zoratürik andriari daraika.
Zenbat andre hel ba'ledi oneriztez hargana,
Zein gizonek andriari emaiten du ogena?

Jeinkoak emaztea maite mundu oroz gaiñetik;
Zerutik jaitsi zedin, hartzaz amoraturik;
Emaztiak ezaíi du gure anaieturik,
Andre oro lauclatzeko harén amorekatik,

Irudi zait emaztia dela gauza eztia,
Donario guzietan guziz gauza emia.
Gaoaz eta egunaz ere ba-du plazer handia:
Hartzaz gaizki eraitia bilania handia.

Nor da gizon modoroa[7] hartzaz orhit eztena,
Eta gero halakoa gaitz eraiten duie'na?
Ezta gizon naturazko egiten duiena.
Zeren eztu ezagutzen hala ongi egiña?

I) ligeramente; 3) emen; 3) limpio,-4) atacar; 5) proceder; 6) excelente; 7) rústico.

148. AMOREZ EREKERITZIA

Benedika fortuna! ala enkontru bona!
Orai begietan dizit desiratzen nuiena.

Ene maite-maitena, egidazu zuzena:
Joan duzuna ekardazu, ezpa eman ordaiña.

—Nik dakidan gauzarik eztadukat zurerik;
Lotsaturik jan nuzu, ezpaitakit zegatik.

—Eztuzula beldurik, eztukezu perilik;
Gure auzian ezta ¡zanen zuhaur bezi jujerik.

—Eztut egin gaizkirik ukaiteko perilik;
Ez eta-re zerengatik behar dudan auzirik.

—Bada, neure maitia, nik diotsut egia:
Arobatu[1] nuzu eta balia bekit neuria.

—Ni enuzu ohoina[2] arobatzen nizana,-
Orai, otoi, enadila ogen gabe difama.

—Enetako ohoin zira, ohoin ere handi zira:
Nik behafen nuien gauza daramazu zurekila.

—Ni enuzu jakintsu,- klarki eran ezazu,
Ehork untsa adi zizan nahi balin ba'duzu.

—Gizonak duien maitena, bai eta-re hobena,
Bihotzeko pausuia[8] du eta bere lo huna.

Orai lorik ezin daidit, bihotzian ez pausurík;
Haielc biak galdu ditut, amoria, nik zugatik.

Llntsa pensa ba'dezazu, gaizki arobatu nuzu,-
Zor handian zaude eta, otoi, untsa egidazu.

—Galdu balin ba'dituzu, zeren ogen derautazu?
Nik dakidan lekutarík ni baitara eztituzu.

—Orai egun batetan zenaudela pentsetan,
Hanbat zutzaz amoratu geroz nuzu penetan.

—Horla eraitia efax duzu, ero bozen' ba-dakizu;
Zure pena diozunok nonbait handj bide ituzu!

—Hanbatere handi tuzu ezin eran nizakezu.
Egiara ba'ziniakj, urikarj nangídizu.

—Penak handi ba'dituzu, atxeterik[5] aski duzu;
Sari sendoturen zira; lafui ori oso duzu.

—Zauri ba'nintz laruian, ba-da atxeter berian;
Ene mina sendo ez liro, zuk bai ezik bizian.

Zure irudi edeíak eta maiña jentilak
Gaizkiago zauri nizi, ezi dardo zorotzak.

Bihotzian zauri nuzu eta gatibatu[6] nuzu.
Amoretan har nazazti; nik dudana, zure duzu.

Ametsetan, agentan, ni zugatik doloretan;
Hitz bat honik efadazu hil ez nadin, otoi, bertan,

—Zer nahi duzu dafadan gauza hofen gaiñian?
Ni nolakorik aski duzu, bertzerik ere herían.

—Bertze oroz gaiñetik hanbat maite zitut nik;
Mundu oro utzi niro zure amorekatik.

AI ba'nera egia! Nik dut pena handia.
Sekretuki mintza giten biok, otoi, maitia.

)) robar; 2) Jndrona,- 3) calma; 4) disimular,- 5) médico; 6) cautivar.

149. JUDIZIO JENERALA

Judizio jeneralaz nola orit eztira?
Bekatutan bizi dira beti bere aisira[1].
Egun hartan gal ezkiten aizinetik begira,-
Han orduian eztukegu ehork ere aizina[2].
Hartzan untsa oritzia, zuhurtzra handi da.

Arma! arena![8] mundu oro, judizio handira!
Zeru eta lur ororen Kreadore handia
Munduiaren jujatzera rigoroski heldu da,
Nola gauden apaindurik bat-bederak begira!

Manamendu igorten du, mundu guzietarik,
Jende oro bat dakion, Josafat'en bildurik,
Ehonere ehorere eskapatu gaberik.
Zeru eta lur guzia daude ikaraturik.

Erioa manatzen du, ezein falta gaberik,
Hilak oro dakazela aitzinera, bizirik;

Hantilc harat eztukela botererik jagoitik.
Mundu oro jafiren da bi lekutan hersirik;
Glorian ezpa ifernuian; ezta eskapatzerik.

Manatzen du ifernuia, handi ela bortizki,
Han direnak igor-izan luzamendu gaberik:
Arima eta gorputzetan nahi tuiela ikusi,
Eta emanen dara i ela zer baitute merezi,

Jende honak, ontsa pensa juje lumen gaiñian;
Nola duien guzietan potestate handia,
Erioan, ifernuian, zeru eta (urian.
Zeren dabil harén kontra, bada, bekatoria?

Gure artian, haur dakusat: itsutarzun handia,-
Nola dugun zerbitzatzen hanbat gure etsaia,
jangoikoa deskonozi gure Salbatzalja!
Eta orok ezagutzen dela bide gabia.

Harén bier einanen du sententzia pizuia,
Elgareki pena diten ifernuko garian,
Sekulako suian eta ezein pausu* gabian.
Orok, otoi, ontsa pensa zer deu irabazia!

Egundano ezta izan, ez izanen jagoitik,
Judízio hain han di rik ez eta-re bortizik.
Sortu eta sortzekoak, hiíez gero pizturik,
Orok hará bear dute eskusatu gaberik.

Anitz gauza bear dira judizio handian:
Jujeak duien potestate parte ororen gaiñian,
Demandaotak eran dezan bere kausa egiaz,
Bai eta-re defendentak bere defensionia,
Porogatu datenian nork dukeien zuzena,
Sententziaz eman dezan jujiak nori beria.

Egun hartan juje date rrjundu ororen Jabia,
Baitu ororen gaiñian potestate handia,-
Akusari bera date eta konzienzia.
Bekatu oro publikoki ageriko orduian.

Bekatoien kontra date ordujan mundu guzia,
Zeren duten ofenditu haien Kreatzalia.
Ordu hartan ixil dauke, triste, bekatoria;
Orotarik zeraturik daude pausu guziak.

Juje Jauna iraturik egonen da, gaiñetik;
Irestera apaindurik ifernuia, azpitik;
Etsai gaitza akusatzen, ezkefeko aldetik;
Bekatuiak eskuinetik mtntzaturen publiki:
— «Hire kontra heben gituk, ihauroíek egiñik!»
Gaizkienik kontra date konzienza, barnetik,

Estaltzeko ez ¡zanen ehonera lekurik.
Agertzera nork eginen ordu hartan batirik?[5]
Mundu oro egonen da haien kontra jaririk.
Sainduak ere ordu hartan oro egonen ixilik;
Jujeak ere ez entzunen ezein ere otoik.
Egun hartzaz orit giten, otoi, hará gaberik,

Non dirate egun hartan hebengo jaun-efegiak,
Duke, konde, markes, zaldun eta bertze jaun nobüak?
Eta haien arrnadako gizon sendoen balentiak?
Ordu hartan, baliako guti haien potenziak.

Jurista eta teologo, poeta eta doktoriak,
Prokurador, adbokatu, juje eta notariak?
Ordu hartan ageriko kíarki haien maliziak,
Eta guti baliako kautela eta parleriak.

Aita Saindu, kardenale, apez eta prelatuiak
Berez eta ardi oroz eman bear han konduia.
Egun hartan handiena izanen da eratuia[6],
Eta bardin jujaturen handia eta xipía.

Alfer date egun artan hari apeJatzia:
Ehonere eztazagu jaunik bere gaiñian.
Malizia gaizki zaika eta maite egia,
Elas, otoi, orok egin orai penitentzia,
Egun hartan gero eztugun egiteko handia!

Seinaliak ginen dira aitzinetik, tristerik-.
Elementak ebiliren oro tribulaturik,
Iguzkia, ¡(argia odoletan etzinik,
Itxasoa samurturik goiti eta beheiti;
Hango afainak iziturik ebiliren jalgírik.

Eta lura izigafi, oro ikaraturik!
Zuhamuiek[7] dakartela odolezkoizerdi;
Tenpestatez, igorziriz[8] aire oro samufik;
Mendi eta hari, oro elgar zatikaturik.
Mundu oro jaíiren da suiak arasaturik.

Juje Jaunak manaturen, bera jaugin[9] gaberik,
Gauza oro xabu dezan bein suiak lehenik,
Satsu eta kirats oro doen mundu guzitik;
Eta hala jariren da lur guzia ererik.

Tronpeta da mintzaturen, mundu guzietarik;
—«Hilak oro, jaiki huna, zuien hobietarik!»
Arima eta gorputzetan, oro bertan pizturik,
Orok hará bear dugu, eskusatu gaberik.

Justu oro ¡ganen da bertan goiti airian,
Eta egonen eskoinetik Jujearen aldean;
Bekacoreak dolorezki su-garjan, lurian,
Harik-eta dantzuteno sententzia gaiñian,

Dagoenian jende oro aitzinian bildurik,
Jauginen da rigoroski sainduieki zerutik;
Josafat'en egonen da, airian, gora jaririk.
Bekatorer eginen du aíangura[10] handirik;
Harén hitzak ezariren oro erdiraturik.

Hartu nahi zuienian pasione saindua,
Harén kontra gin zenian armaturik jendia,
Hitz huts batez iziturik egozitu lurian...
Jtriatzera dauginian, majestate handian,
Nola eztu lotsaturen ordu hartan munduian

Eranen du bekatorer, dolorezki, orduian:
—«NJitzaz etzineten orit bizi zinetenian;
Hanbat ongi nik egiñik zuier zuien mendian,
Esker hon bat uken eztut zuieganik bizian.

«Zer-ere hon baituzuie, oro dira eniak,
Gorputz eta hon guziak, bai eta-re arimak;
Zuiendako egin ditut lura eta zeruiak,
[guzkia, ilargia eta frutu guziak.

«Suiak bero, urak xahu, hats hartzeko airia,-
Ainguruiak zuien goarda, ararteko sainduiak.
Zuiegatik ezari dut gero neure bizia.
Hoiegatik orogatik zer da zuten paguia?

«Ikusirik anitzetan bearian pobria,
Eri, gose, egafia eta buluzkoria,-
Ene izenian anitzetan galdeginik limosna,-
Zuíek uken baituzuie hetzaz guti ansia".

«Bai eroki konplazitu ene kontra etsaia,
Demonio, aragia, bai eta-re munduia.
Orai dela zuiendako maradizionia,
Ifernuko suia eta jagoitiko nekia,
Eta zuien konpainia demonio guzia!»

Ezta anitz luzaturen etxekuzionia;
Bertan date irekiren lura oren berian)
Su hareki iretsiren oro bere barnian:
Haur ¡zanen bekatoren undar irabazia.

Elas! nola ¡zanen den heben damu handia,
Damu handi izigari remedio gabia,
Hanbat jende sekulakoz damnaturen denian!
O Jaun huna! Zuk gitzazu, otoi, hantik begira.

Beretara itzuliren ditu gero begiak:
— «Goazen oro elgareki, ene adiskidiak;
Beti eta sekulakoz gauden ene glorian,
Desir oro konpliturik alegría handian».

Hantik harat ezta ¡zanen bi efetatu[12] baiezi:
Damnatuak ifernuian, beti dolorereki,
Salbatuiak Jeinkoareki, beti alegeraki.
Jangoikuak dagiela gure partía hoieki!

Zeruia ezta ebilíren hantik harat jagoitik;
Iguzkia egonen da orienten, geldirik,
Ilargia sarkaldian, begiz-begi jaririk;
Egun honek iraunen du heben, eta jagoitik;
Alabaña ez ¡zanen heben gauza bizirik.

O Jaun hona! Zu zirade gure Kreatzalia.
Bekatore ba'gire-re, oro gira zuriak;
Gure faltaz gal eztadin, otoi, zure egiña,
Bekaturik garbi zazu, otoi, gure arimak.

Baldin erideiten ba'da gutan falta handia,
Are duzu handiago Zutan pietatia.
Zuretarik giren, otoi, egiguzu grazia,
Zure Ama Anderia dakigula balia!

1) a placer; 2) tiempo; 3) alerta; 4) sin descanso; 5) encuentro; 6) desamparado; 7) arbol; 8) trueno; 9) venir; 10) tormento; II) cuidado; \7) reino.

150. OTOITZA

Abe Maria Anderia, grazia oroz betia,
Jeinkoaren Ama Birjin berak ordenatuia,
Zeru eta lur ororen Eregina diñia,
Bekatoren adbokata eta konfortaria,

Ni zugana niatorkezu, bekatore handia,
Karioki otoitzera zu zakiztan balia.
Diñe ezpanintz aipatzera zure izen sainduia,
Ez gitera aizinera, zeren bai-niz satsuia.

Miserikordiaz bete ziren Andere handia,
Enazázula, otoi, iraiz[1] eta ez menosprezia:
Zuk gíbela ba'didazu, elas! Ama eztia,
Ordu hartan díakusatzut galdu neure buruia,

Hanbat nuzu gauza orotan ni bertute gabia,
Oren oroz bekatutan nabilena galdula,
Eta beti efatuia nola ardi itsuia,
Mundu hunek, haragiak beti enganatuial

Zu bai-zira grazia ororen Ama eta iturburuia,
Bertute eta hon guzien tesorera handia,
Egundano bekatutan makulatu gabia:
Bertutetan segitzeko egidazu grazia.

Zutan dago bekatoren remedio guzia,
Esperantza, osagafi eta salbamenduia.
Zuk gíbela demazuna nola baita galduia,
Zure gomenduian[2] dena halaber da salbuia.

Jeinkoak zuri eman dlzi potestate handia;
Harén Ama ziren gero, Ama ere maitia,
Zeru eta lur orotan duzun hanbat balia
Zer zuk galde baitagizu den konplitu guzia,

Eta zure eskutik duten bertze orok grazia,
Eta salba zuk dezazun zuri gomendatuia.
O Andere exelente, ezein pare gabia,
Salbatuietarik nizan egidazu grazia.

Zuri gomendatzen nuzu, hila eta bizia,
Neure gorputz eta arima, eta dudan guzia.
Otoi, behar orduietan zu zakitzat balia;
Eta, otoi, zuk goberna ene bizi guzia.

Eta irabaz Jeinkoaganik indar eta grazia
Bekatuiez egiteko untsa penitenzia,
Eta gero bertutetan deramadan bizia
Eta egin gauza orotan Harén borondatia.

Begira, otoi, meskabutik" ene gorputz pobria;
Bekatutan hil ez nadin egidazu grazia,
Sekulakoz damnaturik enoian galduia,
Bana zure eskutik salbatzeko bidia,

Eta gero, dauginian[4] ene eriotzía,
Arimaren partltzeko oren ¡zigana,
Ordu hartan behar baitut eman kondu hersia,
Egin oroz rezebitu neure merexituia:

Eta ez jakin lehen gaoian non date ostatuia,
Ez eta-re, zu ezpa-zira, nor dakidan balia,
Ordu hartan hel zakitzat, otoi, Ama eztia,
Ararteko leial eta neure aiutaria.

Otoi, zure gomenduian har arima tristia,
Ordu hartan jo eztezan ifernuko bidia;
Zure Seme Jaunareki egidazu bakia,
Bekatuiak barkaturik didan parabizuia.

Eta nik han dakusadan zure begitartia,
Eta sainduieki lauda Harén majestatia.
Zeren untsa orit ziten nitzaz, Ama eztia,
Gogo honez efanen dut zuri Abe Maria.

Orazione haur derana, Andre Dona Maria,
Otoi, gomendatu duzun, hila eta bizia!

1) arrojar; *7)* recomendación; 3) infortunio; 4) cuando venga.

PEDRO EZKURA

Au etzan urean olerkari onen egiazko izena, Venegas de Figueroa baiño; ta 1609'an beintzat Iruña'ko Cotzain zan, ta olerkiz be sari idatzi oi eban. Ta urte aretan, iruñarak, Kristo'ren Sona eritxon jaia ospatzeko, olerki ta itz-lauz norgeiagoka bat antolatu eben, bai euskeraz bai erderaz. Egitarauak onela ziñoan: • Eta Naparu'ko erenu ontan, onelako jaiak goraltzen dirala, emengo izkuntza atzera gelditzea egoki ez dalako, sariketa ontan amabi koplako efomantze bat, Irutik iruna ondapetxo bat daroana, eskatzen da». Ezkuia jaunak jaso eban lensarja: *Iru kana tapetan.* Ondorengo olerki au saritua.

151. ALDAREKO **GORPUTZ SANDUARI**

Jakitea izan ba'nu
borondatea bezala,
ene anaia, efanen nizu
nor daukagun maiean:
zeruetako Jauna dugu
gogoz jausten' zaiguna:
zeruan bezain oso dago
guretako ogian.
Zeru eta lur betetzen du
aren gorputz sanduak,
badarik ematen zaigu
osorik amen[2] batean.

Gure anaia egiñez gero
maite ditu gizonak,
anbat eze barkatzen du
paradisuko jatea.
Eta bakeak egiteko
bere gogo sandura,
gure artean geldituze
ala nola zeruan.
Egun[4] Jainkoa Jainkoagatik
gizonari ematen da,-
baina Jainkoa, Jainkoa gabe,
jaten duena iltzen da.

Ongi ohartuz jan-egazu,
il etzaizan begirauzu.

Ongi ohartuz jan-egazu,
il etzaizan begirauzu.

Eri ziran amen[8] batez
munduan gizon guztiak,
eta egun eman drauk
bertze batek bizia.
Ezin jan zindukean zuk
anbateko amena,
alabera xipituze
zure aguaren neufira.
Baia nai du jan dezazun
garbiturik anima;
ala ezpada, guretako
bizia ez, baia erio da.

Ain gozaro apaindu digu
orai digun jatean,
eze gizonak nai ba'du
ilkul daite jatean.
Ongi janturik nigafez
biotzean damu duzula,
bekatuen uíikirekin
zarezkio guztiak.
Jende guziei ongi egizu,
fedean oso zaudela;
Jainkoa baitan etxidezu,[6]
ala zaizun bakean.

Ongi ohartuz jan-egazu,
il etzaizan begirauzu.

Ongi ***ohartuz jan-egazu,***
il etzaizan begirauzu.

1) descender; *7)* porcioncita; 3) inotneato; 4) gaur; 5) abandonar.

MIKEL ALDATZ

Olerkari au dogu, lea esandako norgeiagokan, bigaren saria —*Olandako kana bi* - jaso ebana. Ez dausku biotzondo nabarmenik erakusten; alan be, ordurako zerbait. Be-napar usañekoa da bere izketa. Olerki au, orduko beste biok tez, Iruña'ko «Revista Euskara»n agertu zan, 1879'an,

152. GORPUTZ SANDUARI

Egun gizona deitzen du
Jainkoak bere maiera,
eta dakar zerutik
ematen dion ogia,

Ikusazu gozo daten
ogi bedeikatu au;
eta xauro[1] jaten dela,
ba-demaken bizia?

Alaber eman diroke
damureki iltzea,
jaten dela bidegabe
aren ogi sandua.

Jainkoa dugu ¡atean;
jan ezazu grazian.

Emen dago cstalirik
zeru guzien argia,
guztian bezain oso dela
den xipienen zatian.

Gure begi bekatorek
eztakuske jguzkian;
ala orai estalirik
datorkigu jatean.

Nai du jan dezazun zuk
lege sanduen arora'[2],
zure arima eramateko
sandu guzien artera.

Jainkoa dugu jatean;
jan ezazu grazian.

Beti danik ba-daki
jale dela gizona,
ala jatean il ba'zen,
jatean dauko bizia.

Baia gaizki jaten duenik
ezin doake zerura;
zeren onen jatean dago
aren irabaztea.

Gizonak bozik jan diro,
zeren baitio fedeak:
bide dela jaten ba'du
graziaz Jainkoa dátela.

Jainkoa dugu jatean;
jan ezazu grazian.

Jan baño len orit[0] zaite
nola bertze Ortzegunean,
onen artean eman zuen
gaizto bati ogian.

Emen dago gerturik
erioa eta bizia,-
elizak eraten digu
bata nota bertzea.

Otoi egiozu, ongi,
jatean eman dizula,
eta gero bereki
zeruan bizi luzea.

Jainkoa dugu jatean;
jan ezazu grazian.

1) garbi; 2) según; 3) recordar.

JOAN ELIZALDE

Ona, Iruña'ko jai aipaga/i areitan, irugafen saria —*esku-nafuzkú irubf-ko* - irabazi eban neurtitza. Ez da erez. bere euskera nongoa dan asmecca,- baiñ,:, esaera geieoai so ezkero, Goi-napar ipar-aJdekoa dala esan gengike.

153. GORPUTZ SANDUARI

Ola goazen Igitafa:
ari gaitezen lanean;
zeren garian, zoriturik,
dago Jainkoa lurean.

Mantena ezpa-gaizki ere
ogi utsak mundu onetan,
Jainkoaren itzak dezake
gizon guztiei bizi eman.

Ala nai du jan dezagun
aragi ere onetan;
eta bizi gaiten-gatik
dabil beti gure atzean.

«Zatozte, zatozte,
nai ba'dozue jan
Jaungoikoaren itza,
ogi eta aragian».

Doan guztiari emanen zaio
nekearen alokairuan,[1]
igita dezanareki
aragi-jate otorontzuan.

Mundu onetako aragia
agotik sar dadinean,
egiten da gure aragi
estomakaren suan.

Baña onek biurtzen gaitu
bere sustantzian berean,
eta jainko egin gaitezen
dagogu onla otoitzetan:

<cZatozte, zatozte,
nai ba'duzue jan
Jaungoikoaren itza,
ogi eta aragian».

Jaietan ezin gabilzke
bertze garien igitan;
baña au igitu daiteke
Korpus Krjsti egun berean.

Trabaja ezkindezen-gatik
gari onen berezitzean,
ultziturik[2] eman zigu
gurutzeko larañean.

Gari lindo au saltzea gatik
dabiía kariketan;
eta eros drakogun gatik
pregonatzen du onlatan:

«Zatozte, zatozte,
nai ba'duzue jan
Jaungoikoaren itza,
ogi eta aragian».

Asara ezkindezen-gatik
ogi au efepartitzean,
bati anbat ematen dio
milarí nola milatan.

Eta zati ba'dezazu ere
zati nai duzunetan,
beti osorik gelditzen da
len zedukan guztian.

Ogi beti dirauena
ekarten da mai ontan,
eta ontan Jainkoa jatera
Jainkoa dagogu dettzean:

«Zatozte, zatozte,
nai ba'duzue jan -
Jaungoikoaren itza,
ogi eta aragian»,

1) salario; 2) trillar.

JOANES ETXEBE&1

Zuberotar idazle azkar ta olerkari bikaña. Bere idaztiak; *Manual debozionezkoa* (1627), /Voe/fi/r(i63I)ita *Elizara erabiltzeko* (1636). Guztiotan olerki asko dakaz, sakon, biozti ta gozoak. Zernaitarako euskera darabil. Zenbat ikasi daikegun bera irakuñ'z! Len ta írugareuak Axular'en izena daroe baimenekoan.

154. KANTA ARIN

Kanta arin, mundutarak,
suntsi beitez bet-betan
sendimendu kaltekofak,
hil beitez bihotzetan.
Abia gaiten goratzen
efegen Efegea;
baltsan[1] lehiaz kantatzen
eman duen legea.

Ala baita, Jaungoikoa,
Zure Lege saindua,
guziz nahikarazkoa,
gozo eta zindua.
Orotarat tu hedatzen
plazefik bizienak,
oiñaz gabe tu ezartzen
saminduak direnak.

Oi zuek, urguileriak,
itsutzen zaituztenak,
munduko ezdeuskeriak
bilhatzen tutzuenak!
Ontasunak, ohoreak
ditutzue prezatzen:[2]
nik batzu nola bertzeak
bozik tut arbuiatzen.

Bake maite bat dafaio
Jaunaren legeari;
zer eskasten ote zaio
hartan bizi denari?
Izpirituak askatzen
ditu ilunbetarik,
bihotzak ere sendatzen
zauri guzietarik.

Zure legeak, Jaun ona,
behar gaitu salbatu;
ez da zeren zoriona
bertze nihon bilhatu.
Gidaririk zuhurena
ba-dakit hura dela:
hari jafaikia dena
ez daite efebela.

Lege harén uztaria
efex da jasaitea;
ez, ez da nekagafia
harén karga maitea.
Jartzen naiz harén azpian,
hartaz naiz gidaturen.
Hura dut bizi guzian
bakafik maitaturen.

i) en común; 2) estimar.

155. HERIOA

Gizonari da ra i o

Gizonaren ihizian[1] gau eta egun dabila,

Eta sosegurik eztu, non eztakusan hila,
Ezen amaganik haufa denaz gero mundura,
Pausu gaberik dafaio oin-hatzetik ardura.
Gu non gare, hura han da, gizonen nigarera,
Den uratsik fipiena galdu gabe tristera;
Bañan ondotik dafaio hala nola itzala,
Bi ahotako eskuan dakafela nauala.[2]

A tze ma ten du

Sari[3] edo berant ditu atzematen guztiak,
Ezen ¡tzurtzeko* dire bide guztiak hertsiak;
Mortu zaraturik ezta, non eztezan idoki,
Ez aintzirarik iragan, non eztezan ideki;
Leku guztietara du artikitzen[5] tragatza,[6]
Eta uruititik ere tzarkatzen bihotza,-
Harén gana darauntsagu nola uhiñak kostara,
Berak erakartzen gaitu nai duen kozkara.

Hi I tzen tu guztiak

Hurbiltzen aiz, Herioa, odolez egafirik,
Bekokia zimur, eta begia bihuririk.
Biztaz ikaratzen dituk buruzagi gogorak,
Eta ematen daroztek transiniendu agorak.
Gutienik noiz baikare geure hitzaz arhoitzen,
Alabañan orenaren ez guk jakin beria,
Eta paradazkoa hik hautatzen duk astia.

I) a la caza; 2) navaja; 3) pronto; 4) huir; 5) arrojar; 6) cuchilla.

156. BALEA ZALEEN **OTOITZAK**

O Jaun, Tobías gaztea ungi begiratua,
Guardaritzat bidaldurik Arkanjelu Saindua,
Eta kostara araña erakar-arazia,
Aren hiltzeko egiten ziñoela grazia,-
Guri ere ekarguzu hurbilera balea,
Segurkiago armaren Iandatzeko[1] koipea.
Biziaren gatik dugu hifiskatzen bizia:
Aren egiguzu harén gelditzeko grazia.

Balea kolpatu-eta

Jauna, geure arte[2] baño gehiago zureaz
Balea zauritu dugu arponaren kolpeaz.
Aren, bada, egiguzu, Jaun Puxanta, grazia
Sari gelditzeko arain itsasoko handia.
Gutarik garabik[3] zatirtu gabe bere indaraz,
Segadetan dabilala buztan edo bulaíaz,
Edo xalupa irauli gabe gilaz gañera,
Edo berekin eraman gabe urtan behera.
Aren, begira gaitzatzu gaitz hauk guztietarik
Eskefak dieczazugun, itzul lehorerarik.
Irabazia da handi, periía ere handia,.
Begira diezazugu printzipalki bizia.

Balea bil ondoko eskefak

Jauna, ditutzula esker, eta laudarioak,
Millón eta milion baño gehiagoak,
Zeren egin darokuzun liberalki grazia
Idekctzeko* liandien arañan bizia.
Gure indarak etziren deus hunenen aldean,
Zure fagorea dugu senditu konbatean.
Ezen zure baitan Eufoin batek etsaia
Urutik izi[5] dezan, nahiz dela hangaia;
Hala guri ere egin darokuzu dohaña
Bentzuteko itsasoan den sendoen araña.
Lehorera dakarkegu egiñik safaskia,
Bizi zela aztapafez[0] zebilan ihizia.
Hala dugu naturaren mirakuluz baztera
Ohoratzen, Jaun-Goi koa, zuk duzula ezkera.

I) meter; 2) destreza; 3) ninguno,-4) quitar; 5) cazar; (S) garra.

157. HAUR TIPIENTZAT

Haura eri denean

Jesus Kristo, karitatez araitziña[1] efana:
Haur tipiak utz-kitzue datozen ene gana,
Afen, bada, edari emozu osasuna,
Eskefaren bihurtzeko ikus dezan eguna.
O Jaungoiko, Eliseaz haur tipia biztua,

Eta ama tristeari sendorik bihurtua,
(ndafera itzul-azu haur gazte hil-hufena,
Noizbait diezazun itzul esker ungi hunena.

Sendatu denean

Ana desolatuari Samuel aitortua
Eta ordain mila esker Tenpluan izátua,
Mila eta gehiago ditutzula eskerak,
Zeren haufari itzuli diotzozun indarak.
Berak ere lauda egun batean zaitzakela,
Zeren guardatu zinduen hikzetik haurtxo z

Hil denean

Jauna, zuk hautetsi[2] duzu haur tipia muí
Nigar eta miseria baizen ezten lekutik.
Eta sar-arazi duzu Sainduen Jauregira,
Hekin baltsan emateko ufeztatu kadira[3].
Maleziak gatx-arazi etziozan bizia,
Zure gana deitu duzu hain laburki tipia.
Orain bada sentitzen tu plazer sekulakoak,
Agian ba'tzitukeen pena ifernukoak.
Hala bada, láudano duzula neuri gabe,
Zeren erakutsi zaren hain arduradun jabe.
Sinesteaz segur gare, batre gabe agerú,
Tronuaren aitzinean dagoela Aingeru,
Baita dohatsuen baltsan[4] eresten kantari
Eta zure fin gabeko ontasunen koplari.
Garazia egiguzu salbatuen artean,
Gure amoreak-gatik dagoen otoitzean,
Fin gabeko nola baitu ardietsi[0] gloria,
Han gu ere hel gaitezen faltatzean bizia.

poco; *2)* elegir; 3) silla; 4) compañía; *5)* obtener.

158. AMEN BIHOTZ-MINA

(nozenten ama onak
guziz ziren hafitu,
soldaduak zirenean
Betlehem'erat hedatu;

Izialdura[1] zitzaien
etori bihotzera,
nigafa begietara,
ikara gorputzera.

— O haurtxoak, —zuten eran—
zuek bada hain sari
behar zaituztegu galdu,
bihotzean hiragarí.
Madarika dadila
Herodes barbaroa!
Zeinak hanbat asaldatzen[2]
baidu gure gogoa.

Batzu ziren abiatu
haurtxoekin ihesi;
laster ordean zituzten
bufeuak ardietsi:
berehala bere hannak
ateratu zituzten;
eta haurtxoei lehoinak
legez, jautsi[3] zitzaizten.

Besoak zaduzkatela
airean altxatuak,
amek ekarten zituzten
aitzinerat eskuak.
O buíeu kruelak! ama
nigartsuek diote:
— «Helas, gure haur gaixoek
zer gaizki egin dute?

Baldin hutsik bada, dituk
oro gure aldetik,
eta ez ezagutzarjk
ez duten hauíetarik.
Guri iguzki-gutzue
Heriozko kolpeak,
eta utz bizirik gure
Jaio-befi umeak».

Bainan etziren hargatik
batere gibeJatu[4],
aitzitik zuten eskua
hauíetarat hedatu.
Hortik tira, handik tira
hari ziren guduan;
bureuek tuzte garaitzen
amak azken buruan.

Bere hannak tuzte sartzen
krudelki gorputzean,
eta haur gaixoak uzten
hedatuak lurean.
•Zaurietarik, zurutan,
zarioten odola,
ituritik ur garbia
etortzen den bezela.

Ama gaixoak zitzaizkon
eman deihadarari,
eta, bihotzak zaurturik,
osoki nigafari.
«O haur maiteak, —zioten
bere damu minean —;
oxala! hií ba'zinete
zuen sor-egunean.

Jaio bezain sari, bufeu
pietate gabeak
eman zaituzte lufera,
nola brumak loreak.
Ala gu baigare ama
ongi ondikozkoak[5]
ikusteaz safaskitan
helas! gure haurtxoak».

)) espanto; 2) tumbar; 3) cierj 4) retirar 5) desgraciado.

1&9. JESU-KRISTOREN PIZTUERA

Ea, girixtiñoak, Bazko-egunean pizt gaiten!
Egun hunek betan gaitu hartara gonbidatzen,

Argi-zagiek orobat gonbidatzen gaituzte,
Zergatik bere dolua egun utzi baitute.
Eguzkia nahi bezain goizik ezta agertu;
Alba gona ere ez nahi bezain sari uratu.
Lehor tristea ere da pagutu' miragari,
Zergatik baitzaio bere artizara goiz ilkt[2].
O zuzi handia! zure adatsaren izpiak
Tonbatik ilkitzen dire, nola ufe-izpiak.
Xukatzen datozkigute bere ara¡ez begiak,
Iguzkiak hala nola erepira[v1] bustiak.
Zure hiltzeak tristetu zuen mundu guztia;
Argi-zagi berek zuten hartu dolu handia.
Egun befiz dakuskigu direla alegeratzen,
Ezen doiu beltza dute argitara mudatzen.
O Iguzki klara! nihoiz etzare goibelduren',
Aitzitik beti araiki zaizkigu agerturen.
Zuretzat ezta ¡zanen negurik nihoiz ere:
Aitzitik denbora eder eta uda betiere.
O fénix saindua! egun biztu zare gazterik,
Zeruetan bizitzeko beti gloriosorik.
Han beti ¡zanen duzu gaztetasun gordiña,
Han beti aJegeraki eramenen adiña.
Guri ere egikeguzu, aren, otoi, grazia
Han berean pasatzcko bozki bertze bizia.

1) regocijar; 3) salir; 3) ribera;-|) obscurecer,

AlLANDF. OIHENART

Legegizon jakitun ta euskaltzale poíokatu au, **L**izara-Maule'n (S), jaio zan 1592'kO Dagonilaicn 7'an; 1675'an il. Gazíctatik euskeran lotua, eundaka esakun, súpita ta atsotitz batu ebazan or-emen. Bero idaz-lanen bigafen írarkaldiak onela dino, *euskarazko zu/iur hi/zak, Aiíande O/henart'ek bildíak. Uskara2eg¡n zituen neuri hilzak,* Bordeauv, Propper Fayc 1847 M. Francisque de Michel'ek itzaura». **L**enengoz 1 W a n argitara ziran zuhur ta neurtitzok. Maite-olerkiak ditu geienak, gero jainkotiak, ta garai artako gizon ¡atoren gorapenez egiñak. Zuhur-itzak, 537 guztiz, Artxu'k prantzerara itzulita. Ruskera garbi ta txukuna; bertso ebagi, arin ta berezkoa; era bilduan darabil aditua geinez, oso zaloi. Edesti saican, *Notitia utrfusque Vasconiae* (1638) berea dau **L**an edera, noski.

160. ERANEN DUTA?

Eranen duta? Ahal dezaket
egia dena bezala;
zu begistatuz geroz, laket
zu bezi ehor ez zautala.

Non ere, noreki ere bai niz
pena dut zutan pentsatzez;
halere, hanbat neure etsai niz,
laket[2] niz hortan penatzez.

Baña zer hobe, zuk gofeti
ba'dagidazu zur' aldeti?
Baña zer hobe, zuk gofeti
ba'dagidazu horla beti?

Noiz ere batzen baizitzautzat
bidean iragaitean,
miñak zatiz arintzen zautzat
zuri bi hitz efaitean.

Geroz oihana lilitu da,
baitare orstatu[1] lauretan;
uda ere negu, negua uda
gertatu da hainbertzetan.

Ur-xortak, ardura arduratuz,
haría xila zirozu;
ni zuri, beti-beti, eskatuz,
zintzur arhetsik[3] niagozu.

Arte hartan, zer ez dut egin
zureki adiskidetzeko?
Zuk nizaz, nik zuzaz atsegin
biek oroz bat hartzeko?

Niri *bai* baten eraitera
ez zentozke ehoiz ere?
Orai, zure miñez hiltzera
nohela ikusiz berere?

Zeren berhetuz[4] zuk goreti
baitagidazu zur' aldeti?
Zeren berhetuz zuk goreti
baitagidazu hola beti?

I) florecer; 2) placer; 3)rouco; *4)* aumentar.

161. MARGARITA

Margarita,
ba'daidita
ote huts zin egitez,
begiz urdin
bezain gordin
zarela zure egitez?

Bertze lanik
ba-duta nik
diela hanbat denbora,
zur' artatzez,[2]
zerbitzatzez,
et' onhestez kanpora?

Nik, zupertuz,
ba-dut gertuz
maitasare zugana;
zer profeitu,
balin peitu'
ba'zara zu nigana?

Alabaña,
enegana,
orano eia zurerik
heldu denez
deus, ogenez
eta gaitzez bertzerik?

Hanbat beti
gotofeti
egiten derautazu,
ba'nintz bezain
zenbat belzain[1]
edo ilhagin zarpara.

Haur hai' ez den?
Ardiresten
bailzituket batzutan
ez ageri,
ez entzueri
ez dateien lekutan.

Han erasten[4]
zerik hasten
bainaiz ene gaizkiaz,
eta, nure
bezain zure
nola nizan egiaz.

Zu bertarik
artetarik
ez trostaz[5], ez urliatscz,
bana zoaz
latir hefoaz
ene eranak pustatzez,

Horiegatik
orogatik,
ez zintzuzket ehula,
ba'nintz fida
zuk gupida
noizbait nindukezula.

Bana bertze
ez ikertze
gaurgoitik ukeiteko,
oradrano
duzun baño
ongi niri egiteko,-

ez nendauke,
ez elauke
bertze bat hunla oboro,
net bilaizi,
ba'litz baizi
zentzuz edo bur-zoro.

Egia ba-da,
ordua da,
zutetan has ziteen
ene hartzen,
et' onartzen
zeren zordun zaudeen.

Nola nizaz,
motil gisaz,
ziren iragainean
zerbitzatu,
et' ohatu
neska ororen gaiñean.

Zenbat nizan
zutan izan
beti tink eta ekuru,-
zein, manura
eri, ardura
erne beti eta aiduru.

Gero zuzaz
zeiñen luzaz
ukaturik nagoan;
eta halaz
hanbat alaz!
efekeitu gaixtoan.

Horik, aren,
oro baren
galkatuz[0] bihotzera,
bertz' atunik',
bana hunik,
gogo egizu hartzera.

Eta uztazu.
gutiziazu
nizan hori berere
anierstera,
pot-egitera,
dudan zuri boterc

Gero azkenik, Margarita,
behaíenik Jin-konjita
emadazu dudana: gauan behin zugana.

1) faltar; 3) cuidar; 3) pastor de ganado vacuno; -1) hablar; 5) trote; 6) apelmazar; 7) costumbre.

162. ARGIA DARITZANAR1

Gauik, egunik,
ez dinat Itunik
hireki ez ba'niz, Argia,-
hireki ez ba'niz,
itsu hutsa niz,
zeren bai hiz ene argia.

Kadran-oratzak,
burdin-aitz latzak
hunki eta buztan mehea,
xuxen, han hará,
eguerditara
diadukan punta xehea,-

Hirekila, aldiz,
bederatzi aldiz,
bazter lekutan baturik
nonbait ba'nago,
nun bozenago
ezen Efege gertaturik?

ni hala hala,
tiraz bezala,
bik joz geroz bihotzean,
hiri gorpitzez
beti, edo orhitzez
narain, baitare lotzean.

Lagun artean
bel nadinean,
elhaketan, erhogoan,
ez nun dostatzen
ez nun mintzatzen;
hi beti, beti, aut gogoan.

Bana herabe,
atakuru gabe
dinat, Argia, jitera
hire etxe-irira,
leku agerira,
jenden mintzeraziiera.

Nik dudan lana,
ezin erana,
zer koeinta dudan higati.
Ene ixil, eta
maiz pentsaketa
egonak ziotsan higati.

Beraz higanik
egin, jadanik,
noiz nakidina dakidan
jin eta nura,
gorde-lekura,
eta bi han bat akidan.

165. ZUZAZ BERTZERIK

Zuzaz bertzerik
nehor maiterik
ez dudalarik herían,

zu bezain gorik,
ez hain gogorik
ez dúdala da agerian.

Zu gabetarik
dohatalarik
aspaldi hontan denbora,
ba'naiz jaíkiten,
ba'naiz etzken,
zu zatozt beti gogora,

Bana, nabaski[1],
zuretako aski
ez naizela sinetsirik,
zuk ni zureti
—aiher naiz'[3]— beti
nadukazu berezirik.

Atsegin ustez
Kar, zure ikustez,
beti, zu zaren lekura
so xuxen ari
naiz, zenalkari
okeraren eredura.

Zuk zenbat usu
haur bait-dakusu
begi baztefaz laztana,
alabadere
soz behin ere
ez zindezke jar nigana.

Zu nahiz batu
eta mintzatu,
hora nola erbiratzean,
bazterez bazter,
beti ere laster
ari naiz zure batzean;

bana jagoiti
beheiti, goiti,
zenbat ere bai nabila,
zure oldez egun
bat ez nainte ehun
urtez behin zurekila:

aldiz naiz latzen,
bühatuz batzen,
bana ez ber zaitudanean;
zer gaitz jasaiten
dudan eraiten
ezin derauzudanean.

Edo zoriak
nonbait, bi-biak,
noiz ere heltzen baikitu,
han, ni nigartsu
ikusiz, hark zu
gogo-eritzen ez ba'zicu.

Ni honen bero
nakusun gero
zure gogoz maitatzera;
zu zerk hain haitu[a]
egiten zaitu
nizaz ez gogoratzera?

Hel daite, asturuz'*,
bertze anitz buruz
norbait ontsa eginagorik;
bana ni baño
ez egundano
nehor zuretafagorik.

1) tal vez; *1)* suponer; 3) fatigado; *4)* por ventura.

164. NIK EZ DUT EHOR MAITE

Nik ez dut ehor maite zu beizj,
zuk zeren nahi nuzu ireizi?
Engoitik ordu zinuke kontu,
eta nizaz enuki kontu,
nai ez ba'nuzu net hil-urhentu,

nola bai-nuzu ia hurentu;
ezi bihotza, zu beti hala
inkusiz' gibel zauztadala,
hotz-ariturik orai liil-hila,
hoboro aitan ez dabila.
fla(¡a zuk nahi ba'duzu sari
liartzara piztu eta iratzafi,
iionbait egizu, Jainkoaren partez,
inkus zitzattan zenbait artez:
bana zureki nahi nikezi
ez zizan nehor zuhaur bezi,
eta ikuslerik ageri ez zi/.an
lekutara zindiaurizan.

Batzutan, luzez luzez otoituz,
zure bihotz gogora goituz,
norabait jitez hitz ba'didazu,
hura ere gero ez dadukazu.
Nonoait bi-biak heltzen ba'gira,
zu beti lehiatu zira,-
orduan, bi hitz zuri eraiteko,
zure eskuari ba'naxeko,
bertañk nola, samur-samufa,
belar hori ziniur-zimufa,
utzi zitzadan manuz baitzauzat,
exekiterago ez niz auzat.

Gauaz, epaizkaz[2], zure etxen sartuz,
eme ibiliz, eme hatsartuz,
eta hastatzez[J], ganbara-bilan
iraganik, beldur handitan,
net hat sfsarcurifc, zure olie ondora
ba'natora, ni hautsenianik;
eta ordu hartan, gaixoa nik,
leihoti jausiz, ohoin-iduri,
hil-penan behar dut itzuri.

Noiz ere bai-naiz hauzaz orhitzen,
zin-zinez ba-niz hil-nahitzen;
hiltzea gaitz da, gaitzago bana
maite uken, eta ez maite izana.
Harén gaurgoiti zerbait hongoaz
urgaz nezazu Jaungoikoaz;

ezi ez da deuskaí edertasuna
lagun ez ba'du hontarsuna;
aintziti, ederik gaitz dena, duzu
berhala, nola esnea uluzu
denean, edo sagara harzu,
haur edera buru zakarzu,
edo anderauren begitartea
pikot orbainez net betea.
Beraz, zirentzat xahu estakuruz
hel zazkio, sobera aiduruz,
zugatik hiltzen ari denari
eta hura, otoi,Jurikari;
ezpere, hura hilen da, eta zu
hartzaz huts zirate hospazu,
gizon bat galdu dukezulakotz.
Zergatik? maite zintielakotz.

I) ikusi; 2) a hurtadillas; 3) a tientas.

165. EZKONTIOEAREN HIL-KEXUA MUSEEN KONTRA

Andreak, luzez zerbítzatu
Zaituztet, eta nik ospatu
Dut heri hautan zuen izena,
Lehen gutí ezagutu zena.
Nik zuen azturat et'atunak,
Gu baitan oraino ez entzunak
Argiratu tut ilhunbeti
Et' aterarik heratzeti
Guretu, et' eman bek Euskara
Kobla-hontzalen eskuetara.

Aspaldi nola zuen nofhabe
Izan bai-naiz, zuek ene jabe,
Uste nuen nihaurk er'elkaitzak
Jo ba'nenza, neure zurkajtzak
Zintuzkedal'eta habeak
Neur' aizolbe, neur' aterbeak;
Uste nuen hala, ban' eskierki,
Enganatu izan naiz elgerki;
Ezi behar- be harén ear
Hel-helez egon naizenean,

Etzitzauzte hurbiltu, ez lieltu,
Aitzitik zitzauzte gibeltii:
Utzi derautazue hiltzera
Joana, *ene* bizi-erazitera
Berainik lurer'etoria,
Edo zerutik igoñ'a.

Joan'en emazte karioa,
Ene bihotz, ene gogoa!
O ser hiltze latz enetako!
Hura galduz gero, zertako
Hemen, ata gaitz-beha nago?
Egonago eta sordexago
Oukedala dakusat, ezi
Orai alderdi ezpainiz bezi
Aitzinara naiz hebainduko,
Gnbaldituko et'ezdeustuko,-
Zeren bainaiz hartzaz gabetu
Uste bainuen, zahartu ondoan,
Nol'izan bainaiz gaztaroan.

Lehen neur'egitekoen haxe
Bakoitza bai-zautan zortaxe,
Orai bai-titut baten biga,
Harén', enea, nol'ez biga?
Aspaldi du, hark areukura
Ezpal'ukau nilzaz, 2upura
Joan nintzatela, eta xixari
Ehunen egin han janari;
Hura, noiz ere bainendukan
Ohaturik miñak, dut ukan
Neure zan, et'egon zait beti
Igitu gabe saihetseti,
Geldi han ern'et'iratzafi;
Et'ebilten has bezain sari,
Zerbitzatu zait besapeko
Erorteti begiratzeko.
Hark erian nol'eheinatzen,
Sendoan er'enc geinhatzen
Zakien, bait'arc pausu emaiten,-
Bihotxak zautankal ehaiten,
Hur ene soberaren doitzen

Ene samuregu'izanaren,
Noiz ene bihotz epelaren
Car behar gauzetan gortzen
Et'egin bidean gogortzen.

Heriz kanpoan nenbilano
Bertzen koeitak, neureak baino
Hobecsiz, heier jaraikiten,
Hark zauztan neureak egiten.
Nangoenean noizpait udalen,
Andreak, zuen albor zabalen,
Nihaurenak gibel emanik,
Et'egin gabez hetan lanik,
Ikusten nituel'hesteialtzen,
Hark zerauztan hutsak estaltzen;
Egiten nik egin-behafak:
Berak hartzen golde-nabarak,
Bera jartzen itols emaiten,
Ber'eraiten, ber'ogi epaiten,
Et'oro berak lant'ahala
Lantzen, izan ba'litz bezala
Ez aitor-alab'et'emazte,
Ban' ezein nekazale gazte.

Horik jakiñik zuek gertuki,
Etzinaten hitzeraduki
Hai tzaz bcrt' art' idukitera,
Utzi gabe hala hiltzera?
Ba-dakit eranen duzuela
Lurean jagoitik cztela
Izan xipirik ez gehienik,
Zein bere mugan hil eztenik.
Bizi hunek —aitor dut hori—
Ezin dirauke beti ehori.
Baina hur' ezta hil zahartuz,
Baizik higatuz et' eihartuz,
Erekeituak eman gabez
Et' ez; hek hartzera herabez:
Nola baratze lantzekoan
Cirofleiak, uda beroan,
Ur peituz lehenik ximaltzen
Baitir'eta net gero galtzen.

Ezin ba'litu Jainko axeter
—Zeiñen bai-tzarate bereter—
Izenez Phebus daritzanak,
Hartan egin ber' esku-lanak,
Eta luen ikertu eta lotu,
Segur da zatcla sendotu,-
Bainan ezpei-tzauzkoi' otoitu,
Hala hur' er' ed' ezt' orhoitu,
Edo zauke' orobat izan
Joana hil edo bizi lizan.

Beraz, nitzaz hain axol guti
Duzuen gero, zuen zerbitzuli
Naiz, oraidanik, ment' orotan
Jalkilen, ez itzullzekotan
Bad'ez nehor niri obororik
— Eztudan gero egin gogorik—
Eske jar kobl' cdo kantore,
Baizi nigar eta deitore.
Ezi eztuket berhain asperik,
Joan'cnea zenbait hil-berik
Lurpean, air'cdo zei uan
Derakustano den lekuan.

166. ASPALDI NEURE GOGARA

Aspaldi neure gogara,
libertatez bizi izanik,
orai dakusat hartzara
neure buru atzamanik,
gotor[1] eta gor izatez
galdu nahi naien batez.

Eran ba' derautzat ezi
oro harena nizala,
nehor eie, hura bezi,
onhetsirik eztadula;
bana horegatik hura
ezta nizaz afcngura.

Alabaina nik ez dakit
zerbitzatzez, ohoratzez,
ote niroienez akit''
ene beti hon lakatzez,
edo berun' ene penez
nozpait kexa laiteenez.

Maite, otoi, ikuskizu,
mirakulu zaukezu.
Nitan hotzak Ilazten dizu
oren oroz gortarzuna,-
zu niganat hoztenago,
ni zuganat gortzen-ago.

Ufuntzun nizauzunean,
nizaz eztuzu orhilzerik;
ez hufentzen nizanean,
zein ere den ikertzerik;
ez behin ere gogorik
niri hunki egitekorik.

Ene dixa gaitzegieki
ardura dut borogatzen;
zure hontarsunareki
nitan gainen gudukatzen,
batak ezitukedala,
baietz bertzeak dioztala.

Zein ahal den egiati
-zuk bezi ehork ez-iakizu.
Baiñ' engoiti,[5] Jankoagati,
dakidan nik ere egizu,-
ezi ordu dut jakintsu izan,
hil ala bizi-gei nizan.

I) akjwO; 2) agotar,- 3) ya.

Í67. XURIAR]

Befitzen ar' iz, Xuria,
nitan egun guziez,
noizten begiez
egin erautan zauria,-
et'ene bihotz gaxoak
higanik, maita-sari,
herokaitu ordari,
zitin tragaza'-ziloak.

Beti, joz-joz, darizana,
inkudeak[2] bezala,
diraukedala.
Ez, ez, ahal aint' engaña,
eztun altseiru, ez burdiña,
ez-eta berun hotz:a
ene bihotza,-
bana aragiz dun egiña.

Hiltzen nun,- itzur-biderik,
ez deus salba nezanik,
eztun higanik
ahal nukeenaz bertzerik.
Hobe duken ainitz ere,
honki egite' engoiti;
ezi ez jagoiti
hel akit, berant bad' ere.

Zerbait eur' ontarzuneti,
bihotz hunen pizgari,
emadan sari,
begiratzeko hiltzeti.
Ezpa-didan, lur orotan,
zeren bik hil banuken,
aipatu duken
hire izen, izen gaixtotan,

Sendotzen ba'nun aitzitik
zeren nuken idoki
balaz osoki,
zartzeraz[4] geroz hobtti,
hire sendagaila hunen
beria heri orori,
ben hon hori,
dinac goraki erantzunen[5].

1) cuchilla; 1) yunque; 3) por ci contrario; *4)* eyari; 5) publicar.

168. BELXARANAR1

Nik hanbatetan efana
nahi eztuna sinhetsi?
Aizela onhesti
nizaz, anhitz, Belxarana?
Bada, dela hori egia
prest nun erakustera,
et'egitera
mana[1] nezana guzia.

Ezar nezan porogutan",
ordea hanbateki
ez iz ireki,
har den'eztela burutan.
Zer proetxu edertasuna
da hire gorputzean,
tink bihotzean
badaxen gogortarzuna?

Zor din maitatu izateak,
ordainetan, maitatze;
zer al'ahatze[3]
zauzkin maiteri-legeak?
Aldiz[4], dun maitariaren
mait'orde higuin ukena?
Eder eztena
hi bezalako ederaren!

Halaz gaizkitze hunetan
nun alabain'ezari;
dolu egingari,
huna niagon hit miñetan;
ezpa-nun hant'idokiten[6],
zordun izan bezala,
hik hil nunala
dinat hil-aitor[6] utziten.

I) mandar; 2) probar; 3) olvidar; 4) al contrario; 5) quitar; 6) testamento.

169. ASPALDIAN NABILA

Aspaldian nabila,
hor-hebe, laztan bila;
et'orai, nahi-nola,
batu naiz batekila.

Hur'ezagutzen duten
oro harén bertuten
goresten eta bertzer
ari dira erantzuten.

Harén eder izana
da hain gauza bekana,
ezi eztuela kiderik
baita jenden erana

Nola arai' miratzea
baitu, eme mintzatzea,
gozo-gozo ere handi
da hari behatzea.

Gorputza duelarik
luzekara, halarik
xuxen du, et'ezta lodi,
ez mehe soberarik.

Begi-xiloak ditu
izar bigez garnitu[2],
begitartea hanti
zauka hanbat argitu.

Buruko bilo[8] hori
urhea bezain hori;
bana gordatzen du, eta
salatze'ezta zori.

Kristalez du belara[4],
sudur oro zilara,
mazelak xuri-gofi,
perla hutsez bidaia[0].

Ezpainak ba-diduri
dela koral-isuri;
hortzak, lepo, bulara,
elura bezain xuri.

Horik nik hautemanik
eta gogoan emanik,
hanti nago orai harén
saretan atzemanik.

Oin tipiz, erotsduna",
zango aratsu, xuguna';
eskua argi, nola
araultze befi eruna.

Nagoen han, nahi bada,
ezi fordex ezpada,
harén presondegia
ene laketgia[8] da.

i) afable, 5) guarnecer,-3) pelo; 4) frente: 1) barbilla; 6) ruidoso: 7) licroo; 8) placer.

170. MAITENAREN GAL-KEXUA

Amets al'egia d'ote nik entzuna?
Emaiten duzula zur'edertasuna,
hon ez darizozunari,
moien apur baten sari?

Laur urte du zuri beti jarikitez
Higatzen naizela, bai zerbitzu egitez;
esteiari[1] gertatzea
da auheretan higatzea.

Eztuzu zer uka, zarela ogenduru,
Ez zer bar ait'amcn rahia estakuru";
ezta maitezko gauzetan
ha uren bortx ahalik hetan.

Egundan'ez ai-liz jaio gaixtana,
Onaren edertza neskato segin[3]
Edo jaio-eta berhala
Iiii ai-liz, inhar[4] bezala!

Onarsun-truku huts, alan ezkontzea,
Ezta hori ezkontze, bana da saltzea
Harén erosle senafak,
zer merezi luke? — Adarak!

Ikus, jen de Itunak, ikus ene pena,-
Altxaten darote nik nuen maitena.
Huren uste nuanean,
haur dakusat urunean,

Gau-egun, goiz afats, edate-jatean,
Ebilte-gelditze, jaikiie-etzatean,
zuzaz dizut pensamendu,
neure penen luzamendu

Kexeri, deitQre, nigar-herakiak,
Hek ene barazkaP, hek auhal[9]-jaliiak;
zipruk' ene lo-lehenak;
gauko orongak, liasperenak.

Behar dudan gero zuzaz net etsitu,
Et'esteiaritzat lurean gelditu,
betor, betor herioa;
bizi'ene hastioa.

1) atribulado, *1)* pretexto,- 3) caprichosa, 4) chispa; 5) comida, 6} cena zizpuru.

171. LAUR KARBARIEN ERESIA

Hora, gaban, laur karbari
karban hanxe ziren ari:
egariz bortx egon-eta,
nehork ez hek urikari.

Noizbait, ala dioite elgafi:
«Aho hoien hezegari,
nonbait zerbait ezpa-dugu,
galdu behar gara sari!>

Hori eranik, hauk doazala,
hetarik biga berhala
baratzez —baratze xori —
ihiztariak bezala.

Ezta izan ehon hesirik
lianbat goraki hersirik,
non eztituzten gaiiUim
oilafasiki" jausirik.

Joanez, joanez, azkenean,
unhe luirán" zirenean,
sagardoi baten barnera
sar ziten, oren honean.

Han pikotze bat baturik,[3]
frutaz oro kargaturik,
pot eta besarkaz lotu
zauzko, belauna!, gurturik:

—O, zuhatz orsto-zabala!
(dioitela) luzez izala,
hori' ukentsu/ hori' ekoizle[5],
orai izana bezala

Zuhatzetan hi lehena
aiz, h'oben et' edcrena;
dohatsu hir' orsto adarak,
dohatsu hir' ekoizpena[1]

Ezen ez deitatzekoa,
noizfen, frutu bizizkoa
Eba amasok jan zezana,
bana bai, o hi, pikoa!

Zeren harturik alhatu[6]
zclakoz, zen herioztatu
Eba,- baita harén leiñu
oro minberaz kosatu'.

Aldiz, pikoa, higanik,
hil-hurenean izanik,
zitikeguk guk biziak,
osagafi hik emanik—.

Hanbateki bata jausten
adaretar', eta hausten
ari da aldaken[6],- bertzea
zuhatzaren ihafausten.

Bildu uken duten bezala
biekjasan ezin-ahala,
herenak[9] karbategiti
hetara haur datofela.

Laurdenak ezpai zakien
bere egonik zer zaidien:
sorgin et' ohoinen lotsak
auzora laster zegien.

Hango, atea barax jorik,
moroin bat han berekorik
ager zekion, begitartez
andera uren gizakorik.

Ustez zen andera urena,
ager zezon bere pena
bai eta eska hur edo arno
apur baten ahamena[10].

Hark zer zen gauza ikasirik,
barnera sar-erazirik,
esnez efegala zezan
bere suhati erautsirik.

Hanti landan ere urtzeki
zezan gogo handiareki
karbategira, bait' egin
karba-aldi bat han hareki.

Gero bertzen, urundanik,
jin-erotsa hautemanik,
berez ziten, trist' elgafi
pot eta besark emanik.

Arte hartan hauk direla,
jauziz-jauzi, nola igela,
bertze hirurak, altzoak
pikoz bete dakartela.

Laurdena, puntsu" jafirik,
herenak han bera utzirik,
kexa zedin alegia
egon zela galetsirik.

Herenak: —Zinhardetzana
eztinat nik ogen; bana
hihaurk falta hirea dun
eneki jin ez izana—.

Moroina beha, aurkintzetan[12],
baizauten aldarte hetan;
zer egin ziroen oldar bat
egon zedin pensaketan.

Gero oharturik gazt-ara
hizkatzetik[18] eskutara
jin zaitezkiela joan zedin
gordailuti hek beitara.

Han jafirik ararteko,
bilakaiden[H] bakatzeko,
igor zezan arno-bila
pikoekin ezkontzeko.

Noizbait, bakeak egiñik,
arno ere orduko jinik,
uxtia zedin pikoekin
garbaitu gabe utzikinik.

1) gallardamente; 2) a punto de desfallecer, 3) encontrar; 4) poderoso; 5) productivo; 6) alimentar; 7) coutagiar; 8) ramilla; 9) tercera; 10) bocado; 11) ofendido; 12) de lejos; 13) disputa; 14) luchador.

MIGEL SLIESKUN

Cizon jakitun onen —irakasle dedu-izena eban— olerkia, Isasti jaunak dakar lenengoz bere *Compendio historial de Guipúzcoa* (1625) liburuan. 171* garen oríaldean. Bere euskerea, antxiñakoa dala, gaurkoa ez danik nok esan? Lope de Vega'reo *Yo para qué* /vac/zortxikoa dozu, euskeralduta.

172. NI ZERTAKO

Ni zertako jaio ninzan? Salba nedin.
Il bear baitiket nik? Bai, gertu date.
Jainkoa ez nezan ikus kondena al nedin?
Gauza tristea lizake, ordea ba-date.

Ba-date, eta fara, lo, eta josta nedin?
Ba-date, eta ikusi alaz nai al naite?
Zer ari naiz? Zertan abil? Aritu al naiz?
Erotu ni bidenaiz, Santu ezpanaiz.

BER-BERA

(AITA J. I. ARANA'K AMAREKOAN)

Zertako ¡aio nintzan, ezpada
Igo nadien zerura?
Il bea fa dei.. Ia are geiago
Eror nlniekc infernara.
Eror nlnteke ..? Ela ba nabil
Bell begira mundura?
Eror nlnteke... ? Ela maita dei
Oauz ezer ezen itxura?
Oso zoro naiz, g/aize ezpa-naiz
Santuen bizi lekura.

SILVAIN POUVREAU

Euskal idazle trebea. Bere liburuak: *DoktrinJ kristlana* (1656), *Phlloteu* (1664), *Ondu Ezpirituala* U665) ia *Imltazionea,* geroago; baita euskal iztegi bat eta Bidarte'n ta Kanbo'n egindako eleiz, itzaldi batzuk be ba daitu. Euskera ikasia darabil, sortzez ezpaizau euskalduna; ugaria, alan be, baiña legartsua.

175. JAINKOAREN MANAMENDUAK

Jainko bat adoratuko
duzu zure biotzaz,
Hura duzu onetsiko
zure indar guziaz.

Eztuzu juramenturik
primiña bage eginen,
ez hain guti arnegurik
aotik ateraren.

Zaren oroit igandetan
sainduki ibiltzeaz;
lanik gabe, bai bestetan[1],
orobat egiteaz.

Lurean nai ba'duzu
bizi zaren luzeki,
burasoak ohoratzatzu[2]
ahal bezain umilki.

Eztuzula nihor ¡len,
obraz, gogoz, eranez;
etzaizkola jafiren
lagunari gaitzez.

Haragizko bekatutan
etzara lizunduko;
zure esposaz kanpoan,
bertzerik ez hartuko.

Nihork duen ontasuna
eztuzu ebatsiko[3];
bai nori bere zuzena
diozu bihurtuko.

Etzara lekuko falso
sekulan gertaturen[4];
ez eta kontrariozko
gezufez mintzaturen,

Eztezuzala desira
nihor ere lizunki;
ezkondua ezpa-zara,
ezpaitzara zilegi.

Bertzeren ontasunera
eztuzu behatuko[5],
zuzen diren legeen kontra
bat ere jabeizeko.

I) fiesta; *7)* honrar; 3) robar; 4) prestar; 5) mirar,

HARIZMEND1 APEZA'

Lafitte jaunak bere *Eskualdunen Loretegia'n,* 42'ean, onela diño.- «Sara'ko jaun bikario eta predikari zen Ha'rizmendi apheza, hamazazpigaren mende erditsutan». *Ama Birjiñaren Ofizioa* itxi euskun 1658'an euskerara itzuli ta argitara emona. Ele garbi ariña berea!

174. TE DEUM

Jaungoikoa, zu zaitugu
bihotz osoz laudatzen:
Zu zaitugu geure Jauntzat
ahalaz defendatzen.

Aita betierékoa,'
zeren baitzara segur,
handik ernaiten darotzu
Iurak ohorez agur.

Zuri beti darozkitzu
kantaz arkanjeluak;
kerubinak, serafiñak,
bai halaber tronuak.

Saindu, saindu, saindu zara,
o armaden Jaunkoa:
hala zara nitzaz ere
beti laudatzekoa.

Zure Ioriaz beterik,
gora daude zeruak;
lurean ere baitutzu
sendagailen kantuak.

Apostoluen korua
zuri zaitzu mintzatzen;
Profeta sainduak beti
zure justez prezatzen.

Oraino martiren ere
armade triunfantak;
bozkarioz darabiltza
zure lorien kantak.

Mttriduaren bazteféra
Eliza da hedatzen:
zenbat ere handi baita,
hark zaitu zu laudatzen.

Maiestate handiz Aita,
beti zara betea;
orobat duzu loria,
Harén Seme maitea.

Hekin bien bardin zara,
Espiritu Saindua;
hala bardin darotzugu,
geure laudamendua.

Loriaren Efegetzat, ,
Kristo, zaitut aitortzen,
Aitaren betiko Seme
zaizkularik etortzen.

Gizonaren libra tzeko
noiz baitziren gizondu,
Birjiñaren sabe, hura
etzitzaitzun higundu.

Bentzuturik herioa
behar bezain trebeki,
ungí fidelei zerua
zenerauen ideki.

Aita haste-gabearen
loria bardiñean
han, Jauna, jafirik zaude,
Jaunaren eskunean.

Etoriko zara noizpait
gure jujamendura:
erosi gaitutzun nola
duzun gutzaz ardura.

Aren, golarda[1] gaitzaitzu
liberalki sariaz,
zeure sainduen artean
sekulako Ioriaz.

Kaltetik defenda zazu
gure galkor mendea:
eta zeure primesaren
benedika jendea.

Zuk goberna, zuk mantena,
zuk mukuru[2] faborez,
egun oro zuregana
gatozintzat ohorez.

Laudatuko zara, Jauna,
orai eta sekulan;
aren, egun eztakigun
bekatuaz nihon lan.

Urikal bekizu gure,
ufikal ondikoa[8];
zeren baitzare guretzat
pietaten Jainkoa.

Esperantza hark naduka
zure baitan josia,
zeren baitnaiz lehen ere
zuk maitez erosia.

I) recompensar; 2) colmo; 3) miseria.

175. BENEDICTUS

Israel'go Jainko Jauna,
zaren benedikatu,-
zeren duzun pobluori
urikaldez salbatu.

Zeren ateratu duzun,
beren lazeriatik;[1]
librarior bidaldurik
Dabid-katen etxetik.

Prometitu zenerokun
beti danik profetez;
eta Patriarka saindu
zure leial tronpetez.

Behin noizpail bidaltzezo
gure Salbatzalea,-
eta herosen artetik
gure libratzalea.

Gure buraso zahafen
hunla kontentalzeko;
eta zeure testamentaz
jendeak orhoitzeko.

Gure Aita Abrahan'i
zin egiñik hunela:
gure salbatzera zeror
etoriko zinela.

Etsai heros gosearen
menetik libratzeko,
cta beldurtasun gabe
guk zu serbitzatzcko.

Onhetsirik saindutasun
eta bai justizia;
hemen zure aitzinean
bukatzeko bizia.

Fta zuk, o ene Haufa,
Gurenaren Proteta,
liaren bideen apaintzeko
aitzindurik tronpeta.

Erakutsiko diozu
pobluari bidea;
penitentzi sainduaz
salbatzeko jendea.

Jainkoaren urikaldez
hau behar da gertatu[3],
zeren Jainkoak darokun
gain hartarik behatu".

Heriotze "dunean
ez ilunik (izteko,
baina bide dohatsuaz
gu zerukoiz hazteko.

I) miseria; 2) suceder; 3) mirar.

176. MAGNÍFICAT

Jainko Jaunak ezafi nau
bihotzean bozturik;
zeren ñauen sekulakotz
ezari salbaturik.

Ene humiltasunera
ungi zuen behatu,
hora nondik behar naizen
dohatsutzat faniatu.

Ezen jaunak egin derot
hainbertze garazia,
nola baita saindutasun,
botere,[1] zuliurtzia.

Hala beti danik hura
ohi da bihotz-bera,
harén beldurti direnen
gizakumen aldera.

Urguluen alderakotz
eztu hala usatzen,
baina ditu bereganik
bere besoz haizatzen.[1]

Erege printze handiok
egotz kadirotarik/
eta humilok han ezar
boterez altxaturik.

Goseak betetzen ditu
dagoten ontasunez,
aberatsok bai bilusten
eztagoten moianez.

Israel bere haurtxoa
hala zuen tratatu:
bere miserikordiaz
zeren baitzen orhoitu.

Promes hau egin zerauen
Abrahan'i lehenik,
eta hunen hazikoei
sekulakotz hurenik.

Aitak duela loria,
bai Seme gizonduak;
hala duela loria
Espiritu Sainduak.

I) poder,- 2) espantar; 3) sillón.

177. DE FROFUNDIS

Zuri, Jauna, oihu datzut
leku beheretatik.
Zuk, Jauna, entzun ezazu
ene oihua amulsurik.

Idekazu helaría
zure bihotzarena,
aditzekotzat oihua
ene otoitzarena.

Caizkiei zagozkenean
beha begi samuíez[1],
nola zure aitzinean
irakuts daite beldufez?

Ezen zu ganik gizonak
behar du barkamendu,
hartakotz zure legea
ene arimak maite du.

Zu baitan ene arima
betikotz da fidatzen,-
zu zaitu gogo gu2iaz
bere jauntzat autatzen.

Israel ere goiz-arats,
egun edo gau ilhun,
Jaunari dagoko galdez[3],
ba'litz bezala zorduri.

Alabaina, Jauna baitan
da miserikordia,-
Jauna ganik heldu zauku
gure erospen handia.

Eta hark erosiko du
Israel bekatutik,
baita argira helduko
bere beltz ilhunbetik.

1) asare; 5) suplicando.

AITA P. ARGAIÑARATZ

Liburu bi dazauguz idazle onenak. *Abisu eta exortazioneaprobetxosak* (!ó4l),u *Devoren Brebiarioa* (1665). Ba-ditu na nía olerkitxoak be. Ziburu'ko eleiz ir.larí bikana.

178 ARANTZEZKO KOROA

Ene Jesus, ezin tzaket
altxa gora begiak...
Nola dietzaketzuket
eskerezko graziak?

Huna non zaren oraino
odoletan, Jeinkoa!
Sartuiik fuineUraino'
arantzczko koroa.

O odol preziatua,
ixuri zinduena!
Nauzun hartaz zeuretua,
entzun dazu auhena'

Ezar dazu bihotzean
arantzczko koroa,
mundutikan partitzean
dudan graziazkoa.

\) médula; 2) lamento.

ANDRE DENA MARIARI

Zeruetan ene zaren
adbokatzat jafia,
¡duk azu beti, aren,
enegana begia.

Ikusteko non nabilan,
ala zeure ondotik,
ala menean[1] nabilan,
hastantzeko[T] bidetik.

Senti nauzan bezin laster
noala iiastantzera,
egizu zuk ere laster
ene faboratzera.

Bitartekotzat ugatza
emozu Semeari,
cta Semeak bemotza
bortz zauriak Aitari.

Zeruraiño afibatu
eta ikus artean,
Aita, Seme, Espiritu,
zu hekien batean.

1) a punto de; *1)* alejarse.

179. DIES IRAE DIES ILLA

Egon ¡karagaria
azkeneko eguna,
mundu akabagaria
ikusiko duguna.

Berehala Iiii guziak
diratezke orduan
hobitarilon ilkiak
tronpetien soiñuan.

Aitzinera trnnuaren
joan beharko dukete,
nork bere sentenlziaren
beriak han luzkete.

O ikara ordukoa,
jugea ikustean,
gurutzatu den Jenkoa
uonuaien gaiñean.

Obren examinatzekotz
dagoeh jaria,-
o examen huntarakotz
bihotz transigaria!

Aitzinera ekariko
daiteke liburua,
bat bederak aditzeko
bere obren kontua.

Egin digun obretarik
hala nola munduan,
ahantz edo estalirik
ez daiteke orduan.

Zer defaket ordu hartan,
nor fabore aldean?
Justua bera penetan
kausituko denean?

Ikarazko majestate
handiaren Jenkoa,
duzun nitaz pietate,
nadin zerurakoa.

Zcrutikan enegatik
jautsi zara lufera,
ene salbatzeagatik
gurutzean hiltzera.

F.ztakidan alperetan
beraz, Jenko maitea,
gerta, baiñan faboretan
zure heriolzea.

Juge justu bengantzaren
orduan zaitezkena,
zaizkit barkamenduz, aren,
baliaizen zarena.

Kriminel nai2, eta hala,
bizi naiz ikaretan,
baiñan ikus, Jauna, nola
nagotztm nigafelan.

Barkatu Madalenarl
hanitz falta diozu,
gurutzean ohoinari[1]
halaber diotzatzu.

Esperantzan beti ere
nagoke hek bezala,
uhkalduko ni ere
agian natzaitzula.

Hala gaiztoetarikan
apart onen artean,
naitekela emanikan
eskuiñeko aldean.

Madarikatu guziak
bistetik kesaturik,"
naukela zure graziak
benedikaturik.

Otoitzez, Jauna, humilki,
bihotzetik nagotzu,
naraitzun beti fidelki,
zeork gida nazazu.

O egun nigarezkoa,
beharko dukcguna,
guzion jujatzekoa,
azkeneko eguna.

Barka, barka kreattirei,
Jauna, duten zerua,
emotzue defuntuei
sekulako pausua[a].

i**) ladrón; 3} turbar,-** 3) descanso.

AITA GAZTELUZAR. S. J.

Ziburu-Bexinean jaio 1614-III-l?'ao, ia Paben il 1701-1 V-15'an. 1686'gnfcnean, *Egia Kalolikak* deritxon liburu atsegingarri argitara eban. Baditu berton olerki bigun ta zaintsuak be, eíez ta ao-goxo egiñak. Laburdieraz idatzi aren, ba-dara biltza itz asko l.apurdiz beste euskalgietakoak be. Neurtizlarl jatofa, egiaz.

180. Bl MUSAK

Urun hadi, Parnase'ko
Musa zahar profanoa,-
eta zu zato, zeruko
Musa befi dibinoa.

Jesu-Kristo gure Jauna
ekar bezate bihotzek;
ituriek Ur saindua,
fruitu bizia haritzek.

Adió Phebus! Hire etxe,
dire itsaso guztia
etzarete aski hiltzeko
ene egari handia.

Erazu, zeruko Musa,
nola erdi den Birjiña,
nola duen Jainko Haurak
izatu lehen eguna.

Erazu nola egin den
gizon, zeruko Jainkoa;
eta nola Jainko egin
gizon, gu bezalakoa.

Nola Dabid'en kastatik
gizon egin den munduan
egun-dainotik Jaungoiko
izatu zena zeruan.

181. IFEHNUTIK BEGIRATZEKO OTOITZA

Ifernua! o ifernua!
Calduen suzko etxea!
Hire penak ziarotatek
buruan latzten ¡lea!

Beldur nauk gaua, kara, hará
sofritu beharko tildan;
cta oraino beldufago
Jainkoa galduko dudan.

Kruelki pairatzen' tik sutan
gizonak suplizioak;
bainan zerua galduz, hartzen
tormenta kruelagoak.

Espantagari penatzen duk
galdurik bere koroa,-
bainan pairatzen gehiago
galdurik bere Jainkoa.

O Jesus, utziko tut ponpak,
plazer guztiak galduko,-
Zu, Jainkoa, on inmensoa,
zeruan ardiasteko.'

Indaitzu sofritzeko pena
nahi tutzun tenporalak;
bainan ken dietzakidatzu
elementa eternalak.

Ezta ífernu gonraino
zure odola hedatzen:
eztitu hiltzen hango suak,
bai gehiago befetzen.

Zure odolak tu egiten
egun ederak zeruan,
eta arimen garbitzeko
ur '..•il.i.iui.i munduan.

Ene - !¡'.'r'.il. hunekien
nahasteo ditudanean,
xaliutzen darozkit osoki
bckatuak bihotzean.

Pulunpa zazu kar handiar,
arima dohakabea!
Eginen tu beti nigarak
Iiii gabe kar harén kea.

Bainan asko tugu munduan
gure ni garen bi xorta,
liautsiko dute ifernuko
kar handiaren tormenta.

1) sufrir; 3) conseguir.

182. BIRJIÑA AMA MARIA JESUS AURAREKIN ERETAULA BATEAN PINTAUTA

Ikusten duken Haurtxo hau duk
Gizona eta Jainkoa;
Eta Haurtxo hunen Ama hau
Eregi ña zerukoa.
Posible da beraz munduan
Ikustea pintaturik,
Pintura handi hau den baño
Handiago daitekenik?

liiegiña Birjiña hau duk
Munduaren ilargia;
Eta Jainko gizon Haur hau duk
Munduaren iguzkia.
Posible da beraz munduan
Ikustea figuraturik,
Figura argi hau den baño
Argiago daitekenik?

Birjiña Amak ziadukak
Afosa bezain edera,-
Hauíak lilia bezain xuri
Iduritzen dik izara.
Munduan beraz posible da
Ediretea gauzarik,
Gauza dohatsu hau den baño
Doh.ati.uago daitenik?

Birjiña Amak ziadukak
Besoetan bere Haura:
Elhura zidurik Birjiñak
Haufak zidurik elhura.
Posible da beraz munduan
Ikustea pintaturik,
Pintura xuri hau den baño
Xuriago daiteketik?

Haur hunek tik ihortziriak[1]
Erabiltzen hedoietan:
Dostetan* hau bera ari duk
Ama baten bulaíetan.
Munduan beraz posible da
Ikustea espanturik,
Espantu eder hau den baño
Ederago daitekenik?

Ama umil bat dut Birjiña,
Jainkoaren gidaria.
Amari Jainkoak ekartzen
Ziok obedientzia.
Posible da beraz munduan
Ahal daiten pinturarik,
Pintura eme hau den baño
Emeago daitekenik?

Esnerik baizen ez duk Haura,
Guztia ezti-eztia.
Ama ere Hauraren gisa
Ezti-eztia guztia.
O Jainko ona! posible da
Pcntsatzea iigurarik,
Figura ezti hau den baño
Eztiago daitekenik?

Haur hau ber-bera izatu duk
Guztien Salbatzallea:
Birjiña Haurtxo hunen Ama
Gure Ungi-egilea,
Jendeak, posible da beraz
Ediretea molderik.
Molde glorios hau den baño
Gloriosago daitenik?

t) truenoj *1)* jugar

183. IZAKI GAIZTETSIA

—Izaki gaiztetsia,
zerk hauen oinazetzen;
zer dan hire su bizia,
hire miñak zer diren
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk?

—Ezin eran dirot hitzez
zenbat dudan jasatzen,
ene oiñaze bortitzez
basten ba'nintz mintzatzen,
deusezak, deusezak
litezke hitz guziak.

—Ez ba'dezakek esplika
zenbat ilukan pairatzen,
senditzen dukan bezala,
erdizkaxe bederen
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk?

—Ene zorigaitzak ez du,
ez du bertze neuririk
Jainko guziz boteretsu
baten samiña baizik,
betikotz doatsu
izan nintekelarikt..

—Hire pena zertan datza,
zerk darozkik zilatzen
arima eta gorputza?
Has adi ba agertzen:
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk?

—Gorputzak eta arimak
ditu beti efetzen
su mirakuiluzkoenak,
bainan ez du higatzen:[1]
sua dugu hemen
jaten eta edaten...

—Su lazgafi horen karak
zenbat iraun behar du?
Su-Ieze horen indafak
noiz behar du jabaldu?[7]
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk?

—Ez diro deusek iraungo
behin piztu denean;
iraun beharko du beti,
beti indar berean,
Jaunaren sumiñak
buhatzen* duen suak.

—Hire pena guzietan
zein den lazgafiena,
gehienik hire baitan
erdiratzen liauena?
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk?

-Oroitzean ene faltaz
gabetua naizela
betikotz ene Jainkoaz,
erotu bat bezala
oiñazez, xangrinez
jartzen naiz liaren miñez.

—Zertako haiz hi oroitzen
galdu dukan Jainkoaz?
Zergacik ez duk etsitzen
liaren amodioaz?
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk.

—Higuintzerat bortxatua
naizen Jainkoagana,
Ez dakit zerk hertxatua[5]
une oroz narama,
beti bereganik
kasatzen[8] nauelarik.

—Nola dukan merezitu
Jainkoaren kolera?
Zerengatik kondenatu
hauen min hoietara?
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk.

-Dela madarikatua
sortu nintzen eguna,
eta lehen pekatua
egin izan nuena!...
Hoben hark, ondikotz
galdu nau sekulakotz!...

—Bekatu astun bakar bat
aski ba'da galtzeko,
milaka ein tuztenentzat
zer pena ote dago?
eraguk, eraguk:
argitu nahi gaituk.

—Caztiguen hedadura'
gaixtoek Icze human
bere krimen arabera
behar dituzte jasan
azken bako penak,
ez ordean berdiñak.

1) cousumirse; 2) debilitarse,- 3) apaRar; <) soplar, 5) apretar, 6) expulsar; 7) extensión.

184. IHIZTARIA

O Salbatzale dibinoa,
indazu zure grazia;
ene xarea bete zazu,
bete nere ihizia.

Ez utz munduko sareetan,
sartzera ene bihotza,
eta ez harén plazeretan
galtzera ene gorputza.

Ez nazazula abandona
mundu hunen oihanean.
hemen nabila ihizian,
animalien ondoan,

Eztut antzia zer atzeman,
otsoa edo orkatza¡
asko dut, Zuk hartzen ba'duzu
linean ene bihotza.

185. ARANTZALEA

Amu hunek mila herio
beti egiten tuenak,
hemen hartzen tik egun oroz
jende huretan daudenak.

Laster egiñik apastara[1],
herioak tik hesitzen.
Elas! hora ni ere nola
munduak ñauen trunpatzen.

Tropa bat diat atzematen
ene sareen erdian,-
hautan dostetan dabiltzala
itxasoaren negian*.

A, Piares aíantzalea!
har nazak hire sarean,-
zeruetara altxa nazak
hire araiñen artean.

i) cebo, 7\ borde.

186. LEKU SAINDUAK

«Salutatzen zaitut, Olibes,
mendi saindu, aberatsa,-
zure baitan zuen finkatu
Jesus'ek azken-uratsa.

Herioaren Efegea
bere tronu ederean,
zure puntatik zen altxatu
hedoi Aingeruz betean.

Zu ikusiz geroztik nago
bozturik noiz hilen naizen:
etzaitut sekulan utziko,
zerura joatekoz baizen.

Ez, eztitut ikusi nahi
eregen jauregiak,
ez eta bertze palazio,
begien trunpagariak[1].

Argitzen hari dire hetan
zeiñek obeki argiak;
ufe, zilar, perla, diamant,
elepant-hezur xuriak.

Hemen behin ikusiz geroz
leku adoragariak,
zeruak baizen eztet^ake
kontenta ene begiak.

Jesus Jaunak bere ufatsez[9]
sakratu leku sainduak,
adoratu tut, eta egin
guztiei ene musuak.

Bakea guri eman nahiz
han gerla zuen hautatu[3];
heriotzea sofnturik,
han herioa garaitu.

Bisitaiu zaituztet Lurak.
lur miletan doatsuak,
aroka, eribera, liaran,
landa, mendi, cremuak.

Bethleem! lkusi zauk sartzen
hire leze ilunean-
ikusi nauk, Jordan'go ura,
eíiberaren aldean.

Jesusl Zu segituz geroztik
leku saindu hautaraiño,
zer behar dut, Begitu baizen
zeruko gloriaraiño?

Mendian egin tut nigarak
non erostekotz gizona,
Semeak pagaturik Aita
galdu baitzuen eguna.

Elas! ez nintzen Iiii dotorez
Kalbariaren gaiñean;
hilen nintzela amudioz
Olibes'ko baratzean.

Ez nazakela ken hemendik,
o amodio saindual
Eman nahi czpa-darotak
lumen ondoan zerua.

Amodio sa i nd ua k, beraz,
ene otoitzak entzun tu;
aroka limitan barna darot
ene tonba preparatu.

Jadanik estaltzen darozkit
ene bi begi-argiak;
ez tu nahi ikusi dctzadan
hain leku miragariak.

Jainkoak sakratu leku I'.auk
nekez nituzke utziko,
kikatu behar ezpa-nitu
zeruetara joateko.

Beraz asko nigar egin duk,
ene arima, munduan:
hoa; hire beira ziagok
hire Jainkoa zeruan.

Jesus, Jainko eta Gizona,
on guztien ituna,
zure maitatzeaz plazer dut;
aren, indazu gloria».

Hauk hunela eran ondoan,
begiak ditu zaratu,
eta arima Jainkoari
amudioz efendatu.[4]

1) engañador; 3) paso; 3) escoger; *) rendir.

187. SAN FRANTZES XABIER

(Sanzion'go ugartean iltzer)

Sanzian deitzen den Isla da
eremu urun batean,
leku afoka biluziez
eta hareaz betean.

Kanton'go hiri famatua
dakusa alde batetik;
halaber itxaso zabala
dakusa bertze aldetik.

Saint Xabier apostolua
harat etofi zenean,
huna zer eran izan zuen
hiltzerako orenean:

«Fiñean bizi izatu naiz!
ahalkearen handia!
Deusik egin gabe joan bait zail
ene bizitze guztia.

Bagadek oraino burua
ebaki ba'lerotzate,
edo Fiirandeko jendek
sutan efe ba'nindute!

Idukak, iduk, herioa,
hire ezpata zorotza;
egozten dik Txinak'Iufera,
bere muraría bortitza!

Bañan non naiz? edo zer diot?
Zer kutalez biíuzia?
Zer diot, gate, presondegi?
Zer bufeu? Zer su bizia?

Hunelako heriotzea
eztuk jende guztientzat;
bañan geraur, fama handi,
eta mártir nobleentzat.

Laxo bati ezpaitarozkit
ofrítuko herioak,
sainduek merezi dituzten
zeptroak eta koroak.

Bañan kutalesak ezpadu
ene odola ixurtzen,
eta ezpadu su handiak
ene gorputza efetzen-,

ezperen barbaroen islek
túíik naute ikusiko.
pauretiak eta elurak
mártir naute kausituko.

Jainkoa banu predikatzen
presondegian sarturik,
libra nezake zenbait gizon
deabruen gateetarík.

O diamanten Maitasuna!
o perlen distiadura!
Zeri gagozka hunen bertze
galtzen dugula denbora?

Jaiki behar dut; kikatu nau
jadanik ene sukafak.
HutUt Txina! Idckitzen tu
bere pórtale cdefak.

Bañan ago, Frantzes Xabier,-
lufik asko duk kuritu:
geldi adi, gargoro geldi;
urik asko duk pasatu.

Hire begira zíaudezak
Sainduak biri sainduan-
ire begira Jainko Jauna
Aingeruekin zeruan».

Jadanik higuindu[1] zitzaion
bere xarmekin mundua.
Jainkoa ardietsi runtz,
desira zuen zerua.

«Ikus-agu ene eskuiña,
o ene Kreatzailca!
Zure Gurutze sáindua dut
guztien salbatzaiíea.

Faltak garbi deitzadazu
zure odol-zurutetan*.
Dolu dut; Jesus, har nazazu
zure izar ederetan.

Elas, Birjina! Elas, Ama!
Ama Birjina handia!
Hiltzen diren gaxo guztien,
o esperantza guztia!

Otoi, ufun diezadazu
deabru tropela gosea;
begitarte on egidazu,
erakus zure Semea.

Erakus dazu zer botere,
zer esku duzun lurean;
hauts-kitzu Japón eta Txina,
honda muruak urean.

Leku hautarik kasta-tatzuz
idolen intsentsu hatsak;
eta emaitzu zure Seme
Jesu-Kristo'ren apezak»».

Hora, nola ilki[8] zitzaion
gorputz eritik arima,-
eta nola ediren zuen
Jainkoaren eresuma*.

I) aborrecer; *2)* fuente; 3) salir,- 4) reino.

AITA FRANTZISKO ALESON

Jesus'en Lagundiko seme argia, Bíana'n Jaioa. 1635'tik aurera, Iruña'ko josulagunen Ikastetxean, edozenbat gaietan irakasle. Napa ru'ko edettiegile Moret Aitaren lana onek jarraitu eban Neurtitz au, Pilipe Aundia edo IV'garena il zanean (1669), aren ilobirako egiña da.

188. GURE EREGE FILIPE ANDIAREN ERIOTZAN

Emen lur guti onetan
dago Efegea sarturik,
baña ez mundu guztian
aren fama estalirik.

Dagian negar gizonak
Filipe'ren eriotzean,
aren obrak dirade onak
itsasoan ta lurean.

Urtu beitez biotzak
negarez faltagatik,
eta gure begiak
beude itunak egiñik.

Auts, Efege, biurtu zara,-
yustentaria zeruen,
nora —ai nizaz!—joanen gara?
Zeruak daude erortzen.

O Nafaroa léala!
Orai bear du akabatu;
onekin bizi izan da,
onekin ere Iiii bear du.

llunbetan dago emen,
orai mundu guztia,
zergatik itundu den
aren iguzki andia.

O Kometa gizonen
lotzazale bortitza!
Joan ai ziñan Turkoaren
buró' kruela gentzera...[5]

Filipe'ri zertako,
biotz amoltsu zuenak,
bertzek baño geiago
bizi merezi zuenak?

Dolore andi eta damu
daukana biotzean,
Nafafoa'k ezafi du
Efegearen obian.

I) maldición; I) quitar.

JOAKIN L1ZA&AGA

Apaiz napartar onek badau bertso-üburuío bat, *Koplak (Londres'cn*, 1868) deritxona, ta L. Luziano Bonaparte jakitunak argitara emona, batez bc goi-napar aldeko izkera ikasteko egokia. Guztiz 729 kopla ditu, launakoctan. Bereak ditu beste bi oneik be: */esukristo'ren Ebanlelio Sandua Juan'ek dakaten gisara,* Bonaparte berak argitaratua, ta *Urteko Igande guztietarako Plalikak edo Itzaldiak* (Dono«tia, 184b).

189. JESUS ORI

Jesus ori, enegatik,
ain andia ta ain xipi!
Ba-dakusat zergatik,
amorostea-gatik ni.

Jesus onak maite ni,
nik ere maite Jesus,-
ere ta il ba'nindedi,
ojala, amorezko suz.

Ainorezko su andia
Jesus or ixekirik;
encgana su-xindia"
sar ba'lcdi bizirik!

Nola nola eguzkia
ala dago altxaturik?
Ala ere ni guzia
aia nauka suturik,

Orgo suak, orgo garak
ene craiak erotzen;
aiotsak eta negarak
orek, orék atraizen*.

Gloriako Erege bera
emen ala aldaturik;
jautsi da zeri/rik bera,
gutaz amorosturik.

Nola dauka apaldurik
ain apal majestadea?
Ain gora goraturik
gure zamara' pobrea!

Bei ra Erege zerukoa
gure 1 uf eraturik;
he i ra Gizon Jangoikoa
zamarez jantzirik.

Antxume laruareki
beira gero axuria*,
gu gaiztoen kargareki
gure gisa ta iduria.

Bcira preso gure amorez
asko gisaz loturik;
beira penaz ca dolorez
azkeneko galdurik.

Bere amaren sabelean
beira lenik bildurik;
ganbelaren agotzean
xipitio paraturik.

Beira preso baratzean,
geroxago pilarean,
andik beria gurutzean,
ta betikoz aldarean.

Naiz iganik zeruraño,
ta jafirik goíenean,
emen dago preso oraño.
Beira preso aldarean!

I) chispa, 2) ateratzen) 3) carne,- 4) cordero.

i

190. JESUS ETA NI

Ez gara, bada, bardin
ori, Jesus, cta ni;
deusez ni, ta deus ezin;
on guzia berori.

Bizi bear dut guziz
bertze gisaz jadanik,
kondizio zarak urriz,
gizon beria izanik.

Ikatza, goriturik,
iñar eder itzultzen da,-
or arima suturik
senda eder egiten da.

Ez naiela bizi ni
ni baitan, ori baizik,
eztaien emen aurki
oren kontra den gaitzik.

Ori biz ene sukar
ere nazana guzia;
maite gaiten beti elkar,
ori biz ene bizia.

Nere Jaunak nai duena
nautela nik ere bai,
Reroíek nai cztuena
nik ere eztutela nai.

Galtzeaz etsiturik
nago ni neregatik;
negó kondenaturik,
ezpalitz ofengatik.

O Jauna, emen ezpada,
nion ez salbaziorik,
zeren noin ere ezta
ori bezalakorik.

Ezta glorian dagonik
ezpada oren amorez;
ori gabe, gauza onik
ezta nion, nion ez.

Bitartaño den lekuan
ori, nik emen umil
utzirik oren eskuan,
nai dut bizi, nai dut il.

i

RAFAEL MIKOLETA, APAIZA

Bilbao'ko semea, ia idazle acko-ikasia 1655'gorenean, *Método breve de aprender ¡a lengua vizcaíno* .. argitara emon eban. Azkue jaunak bere *Morfología Vasca'a,* sari aitatu oi dau onen izena.

191. AMOREN KONTENTUAK

Amoren kontentuak eztaude irauten,
kanpoan lorak legez dira galtzaiten.

Lar adi ba'zagozaz fabore bateri,
etoriko yatsu gatxa bertati.
Ta aztuten ba'dozu, ezcau ondo eiten,-
kanpoan lorak legez dira galtzaiten.

Alkar on ba'deretxe, bertan zeloak
penaz betetan ditu bien gogoak.
Onegaz amoreak dau gogaituten;
kanpoan lorak legez dira galtzaiten.

Atzerengogiño kontentu izanik,
ezta iñor joango amoreaganik.
Uretan bitsa legez dira joaten;
kanpoan lorak legez dira galtzaiten.

192. DENPORA BATEN

Denpora baten on oi neretxun',
baia mudatu nindia,

zeren penatan bior ekidan
emon zengidan zoria.

Alper-alperik iminikozu
zeure inaara ta izana,
zeren eztozu biortuko
lengo biotza zeugana.

Zeren eia guztiz ain gogora
zein diamantezko aria,
zeren penatan bior ekida
emon zengidan zoria,

Nire gogoa biorturik
berba iabanez zuritu,
esan zengida bestegaitik
ez neidizula trukatu.

Baia besteren[1] aztu zengian
nigazko on-eretxia,
zeren penatan bior ekida
emon zengidan zoria.

Besten biotza neugaz darabilt,
bestek darabil enea.
Nik nola, beri, sufri ezazu
zeuk bere zeure penea.

Alper-alperik izango dozu
nigaz daukazun temía:
zeren penatan bior ekida
emon zengidan zoria.

I) te amaba, *1)* besteagaitik.

J. t>. LA&EGI

Basusari ta Uztaritzcn beñola crotore. *Royaiimonl'en* Bibli edo Liburu Santua cuskeraldu eban; baita Santu batzuen bizitzak eta zenbait kantika bc bereak ditu.

195. ESTAING JAUN KONTEAREN LAUDORIOAK

Gure solasak bailez d'Estaing jaun konteaz,
Eskadren aintzindari parerik gabeaz;

Eresuma guzian bedi aipatua,
Ez bedi gutienik gutaz laudatua.

Zuk gerta gizonetan, o d'Estaing noblea,
Daramazu, segur da, zuzenki lorea;
Elorkiz zare jausten puruenetarik
Franzia'"! diren etxe zaharenetarik.

Maiz zure arbasoak dire seinalatu,
Franzia'ko koroa dute sustengatu.
Zenbat ere odolak baitzatzu goratzen,
Zure bihotzak zaitu hobeki biztatzen[1].

Behafik zaituela Luis'ek hautatu,
Aintzindaritasunaz, jauna, fagoratu.
Zer ez du irabazi zutaz kondatzeaz
Bere intres miñenak zuri fídatzeaz?

Zenbat angles-untzi duzun eskuratu,
Eman tiroka, sutan ere ondoratu?
Kar handirekin zare urez gudukatzen,
Frantzes bandera duzu ohorez betetzen.

Itxasoan bezala zare leihofean
Supean seina!atzea premia denean,-
Guzietan guzia zare guzizkoa.
Oi, nun kausi' bertze bat zu bezalakoa?

Gure bazter ufunak tutzu indarztatu,
Etsaien eskuetarik ongi begiratu;
Ez da hortan guzia: konkesta beriak
Egin izan dituzu progotxugariak.

Granada duzu hartu gabaren minean,
Zeroni zinelarik tropen aintzinean:
Zu behar zinen hola agertzeko,
Hanbac alimurekin hartaz jabetzeko.

Ez uzteko Granada Frantzes'i hartzerat,
Biron da lehiatu harén laguntzerat.
Angles suhar[1] huni zer zaio gertatu?
Bereak harturik da ihes abiatu.

Biron'ek eman dio usain Granada'n;
Ausikirik ez dio eman frutu hofi,

Karatxegia zaio naski iduritu,
Hala eztia baitu d'Estaing'ck aurkitu.

Anglesak dituzu ikaran sartuak,
Ikusteaz Prantzesak liortaz nausituak.
Itxasoko erege zioten zirela;
Egun[4] ikas bezate mintzatzen bertzela.

Gerlata huntaz dire minki oroituko,
Bere isla maiteak dituzte galduko;
Angleteíaz beraz ez dut ihardesten,
Prantzesak, Españolak, han ba'dire jausten,

O d'Estaing! eresuma izan da tristatu,
Entzunik zintuztela bi tirox kolpatu.
Orai zu sendatzeak gaitu kontsolatzen,
Fagore huntaz dugu zerua laudatzen.

Zure behaía ba-du oraino Prantziak,
Ni gisa mintzo dire Frantzes on guziak;
De profundis'tn ordez gure elizetan,
Te Deum da eranen leku guzietan.

Nazionc supera, etsai mutiria,
Ez duk zeren kantatzen aurten biktoria,
Frantzia'ko eregek hau eskolatuko,
Eskola-saria duk ongi pagatuko.

reanimar; *1)* hallar; 3) bravo; 4) hoy.

194. BELTZUNTZE BIZKUNDIA

Nafartafen arazá
hila ala lo datza?
Ez dut endelgatzen!
Beltzuntze Bizkundia,
hain kapitain handia,
ez baitzait mintzatzen:
hori zait gaitzitzen.

Hauretik zerbitzura,
ela arduran' sura,
gogotik joaten zen;
hanitzetan kolpatu,
eta beti sendatu.
Hala behar baitzen:
hiltzeko domu zen.

Hanovre'ko aldetik,
gudarozte erditik
Eregek deitu du;
itsasoz bertzaldeko,
undaíen beiratzeko,
hura hautatu du
eta inglesa izitu.

Heien bolbora piñak
eta libera escerlinak
ez ziren askiko
Beltzuntzen garaitzeko.
Cutiago saldu(zeko:
zintzo Efegeren,
orai eta lehen.

Hura joanez geroztik
ez du ha ral inglesik
batere hurendu;
egin dute espantu,
bai eta abiatu,
nahiz atakatu;
bainan ez menturatu.

Bere egitekoak, naski,
egin dituzte hobeki
ondoan Habana'n.
Zenbait tiro tira eta
sartu dira jauzteka
hirian triunfan:
Beltzuntze ezpa'uzen han.

Gotingo'ko aldean
entzuten zutenean:
Beltzuntze heldu da!
elgargana bil cta:
Nun da ene baioneta?
Oiuz: armetara!
Bainan oro ikara.

Beltzuntze'ren izena
eta harén omena
ufun da hedatzen*.
Eregeren gortetan,
hiri ta kaupañetan
nork ez du entzuten
Beltzuntzez mintzatzen?

Zuhauren heritarek,
bai eta Lapurtarek,
goraki diote:
Eskualdun lilia,
eta ohoragailia,
zu zira, Beltzuntze!
Luzaz bizi zitc.

Prantziak gero ere
hanitz denbora gabe,
etsaik baituzke,-
zure odoletikako
aintzindari ongizko
Exegek on duke:
Otoi, ezkont zite.

* * •

Etori da beria,
bihotzen hausgaria.
Kantak ixil beitez'.
Caudezen auhenetan*,
oiñaze minenetan,
gaudezen nigarez:
Egin da Beltzuntzez!

Nehork ez garaitua,
garaitzen ohitua,
izan da garaitua.
Oi, herio garaia,
hi haiz harén etsaia!
Hik duk gudukatu,
bakarik zebatu*.

I) coa frecuencia; 2) zabaldu; 3) lamento; 4) dominar.

BEÑAT MARDO

MaryLaíon'ek, bere *Tablead hlsloríqut el lltléralre de Ia Largue partee deus le mldi de Ia r'rance* liburuan diñoskunez, auxe dogu Zubero'ko bertsolaririk urtenena, XVHI'garen mende bafuan. Agustin Chaho'k be bardin diño

bere *¡Haritz entre les Pyrénées et l'Océan'n,* ego aldeko Euskalerian izenik aundiena berak dabela. Onen olerkilan guzciak batean bildu ezkero, 20 ak lodi er'ez egin ci daikez. Zoritxarez, iru emen jariak ezik, ez doguz ezagun.

195. X1PA ETA BATEZ

Adiskide eli batek ba-zicla junta,
Ixilik egireko algareki besta,-
Alde guzietan da hedatu beria,
Goiehenetxia zela haitatu etxia.

Han etzaitze (aitatu aragi hon freskak,
Oiío eta pulardak', arain eta xipak[2];
Ardo xuriak ere, behar tzu pentsatu,
Burutik-buru dila besta ohoratu.

Hazezpi pitxer ardo, zazpientako
Etzen sobera, bena bai aski íranko,
Gero zutuzun lanak etxerat juiteko,
Zamarik hezkatx* hcltü makiñuentako.

Gibelaz aitzinila bat zaie igaiten,
Bestaldi bat buruz-piko beste bat erorten;
Zerbait ere gisatan dira afanjatzen,
Gaiaz gai eta ez barur, etxerat partitzen.

Partitu ondun tite xenda zien galdu,
Etxerat jun lekutan oihanian sartu,
Begiek ez ikusten, berak burura-guru,
Beharko ote zaie bidian baratu.

Bestaliarer zaie otsoa huilantu*,
Gai honaren emanez dutu ohoratu;
Bena baratzan hoiek zamarik lotsatu*,
Laurhazka zuin lehenka oro abiatu.

Ezpeiziren egari gure makiñuak,
Luak cgaixten zeitzen gaikuer buriak:
Betik iña ziren pare, galtzen zamariak,
Pilota bezain biribil dira ur tokiak.

Lurila crorteko ihafaus-aldiak
Segurki iratzari zutian guziak;
Gustuki atzamaiten beren buriak
Bide bandín hedaiío[6] lohin nahasiak.

Etxerat zamariak zinkaz' zaitze heltzen,-
Etxakuk keheilala berala agertzen,-
Nausiak falta ikusiz, dira desolatzen,
Eta hen xerkatzera laster abiatzcn.

Nonbait argi hasteko, franko preskaturik,
Etxetarat liuilantzen dira nUntipaitik;
Segurki hunak ziren untsa markaturik,
Oro sako, hur, lohi, bonetak galdurik.

Otoi, eran zallar hau untsa han ezazu
Ohorez biziteko maienak ba'tuzu,
Orotako hobena segurki hau duzu,
Ardura beti doin erabil ezazu.

1) pavos,- 2) bermejuela; 3) indómito; 4) acercarse; 5) asustarse; 6) de bruces; 7)rebuznando

196. BESTALIAUAK

Etxebarne, Etxegoien,
Elixalt eta Alandc
Barkoxe'rat bestaliar
Laurak kimit dirade.
Heltzian plazer egiten
Eta juitin haboroxe[1].

Bestaliarak nahi dinat
Jaun her adresa bite,
Kimitia bezain laster,
Laurak jausiz han dirade.
Heltzian plazer egiten
Eta juitin haboroxe.

Laur gizon eta laur zamari
Horik zortzi aho dirade,
Maiatzian sabaietan
Belar guti denian...
Aratoak paseiuko
Aitzina franko ordian.

Aho auher hen jitian
Nor da ez lotsatzen?
Eta naien partitzian,
Nor ez elegeratzen?
Heltzian plazer egiten
Eta juitin haboroxe.

Laur egun Barkoxe'n, janak,
Ditiñak igaraiten,
Entzun gabe merexiak
Segur ezta partitzen,-
Harén konpaña edefak
hori du merexitzen.

1) nías, *1)* ocioso.

197. NI DEITZEN NUK

—Ni deitzen nuk Beñat Mardo, Barkoxe Baxabilako:
Otoitzen hait eztizadala kantorerik' hunt haboro,
Hztakika ni nizala buruzagi baitako?

—Kantore huntzaia hizalakoz düka hartzen banitate?
Aprendízik etzaik ez jinen Gain'etarrk batere;
Baxabilako laurentako nihaur enuk ahalke*.

—Kobla hofen eniailia ezta laboraría;
Zunbait markis edo kunte edo kardínalia!
Burduñarik dianían, zintzafi egilia.

—Zintzari cgüe nizala ehadila ez duda:
Ar' eta ehait imerunpitü izigari ardura
Burduñaren xerkara jinik hire magasiala*.

— Hitzaz gütük estunatzen, Museña'ko kuntia,
Zerentako hartzen dian Gaiñetaren altia[4]:
Ar' eta nik ere eztiat hiretako antsia[6].

—Kunte, markis, kardinale ezin izan gintake;
Hobe diagu bai egonik hartu gabe banitate,
Hi talur[6] hizan beza/a, ni zintzari egile.

I) canción; ?) tener vergüenza; 3) almac^P; 4) a favor de; 5) cuidado; 6) guadañero.

AITA BERNARDO RECIO, S. J.

Etzan sortzez euskalduna, Alaejos Valladolid'eko eritxoan iaioa baño 1711' eaa. Bizi, ostera, Oñati'n luzaro; emen ikasi eban euskeraz, ta gero eriz-eri mixiolari ibili. I743'gn. urtean, Felipe V'garena ¡i zala-ta, Salamanka'ko Ikastetxe nagusiak, zaratatsu egin ebazan efege-iíetak Bernardo Recio Aitak, eregea andietsi ta euskera jasoteafen. neurtitz au antola ebah.

198. JL OTF, **D**A?...

Il ote da Felipe?
Baietz esaten da;
bai, bada eregtfak ere
biurtu bear dute bcriro Jurera.
Aurten il da —diote—
gure erece ona;
esan bear da, alere,
bera if zela ez aurten, baize aintxina.

Eregen iltzea zer
da? Koroia utzitzeaj
a zenbait urte da, ze
utzi zuen gure Pelipe'k koroia?
Ez negar oregatik,
españarak, ez negar,
baldin ain aintxinatik
ba'dator gure eregearen eriotza.

Ordu batean, diotenez,
eroan zion eriotzak;
baño berak urte asko
pozik egin zituan eriotz-oroitzean:
odolka su sartu
zan Pelipe España'ra;
bere eriotzak oregatik
kentzen eztigu daukagun bakea.
Ain ondo bizirik
ez bildur bere animar,
baize itxain dizakegu
sartuko dala bakean zerura.

Igo dedin luretik
ganbara urdin artara,
beti zenean da egongo
Jaungoiko danezen betiko ereñuan.
Iru seme eíegekin
L • La-
bera erege bintan,
izentatzen da oegatik
Pelipe au bi bider bostgarena.
Bizi dedila Fernando,
ir I f • J I-J
Karlos bizi dedila.-
bada Luis aintxina dago
aingerua legez, aingeruen artean.

AITA A. KARDABERATZ, S. J.

1703 1770 Prnanitara. Amazortzi urteko zala, Villagarcia'n josulagun Meza emon ondoren (-739). Bilbao'ra dator, Ander Deunaren Ikastetxean, irakasle Emen asi zan sermogiñan, ta geienez Jesus'en Biotz Curgaria eban gai. Loiola'n egoala, emeretzi urtez bai, mixiolari ibilia dogu Cipuzko, Bizkai, Araba ta Napafu barna 1767'an, Karlos III eregearen aginduz, Itali'ra jo bear, ta ari il zan, er

bestetuu, Boloni ondoan, 177U-X-l8'an. Bere azurak Loiola'n datzaz. Asko idatzi eban: *Euskeraren Beri Onak* (T76l), *Ondo /Itzen Ikusteko eta ondo ¡Itzen laguntzeko exerzizlonak* (1746), *Alta S. Ignazlo Lo/olakoaren Exerzlzloak* (1816), *Esku liburua* (1646), t. a. Bredu blkaña edonontzat; goabiozan ondotik.

199. OO'RPUTZ ILARI

Ari batek
sekulako estaltzen du
izenik den andiena,
mundu eruak, emen ainbeste
estmiatu oi duena.

Aberatsa,
zeure diruak non dira?
Zer daramazu mundutik?
Estalgi zar bat, ez geiago,
zeure ondasunak utzirik.

Gero egin
izan nai zenuukeana,
bereala egin zazu,-
zeren ¡lez geroko negarak
ezer balioko eztizu.

Zertako da
orain egitea, gero
damutu bearko zatzuna?
Rztakizula, artzeko damu
emango zaitzun denbora...

Lagunen bat
ondo zenduke, gizona,
eternidaderako bidean;
bada obra onak egin itzazu
bizi ziraden artean.

O betiko
bizi bearen luzea
glorian, edo penetan!
Bai, ta suerte biok daudela
instante baten mendean.

u

AITA S. MENDIBURU, S. J.

1708-1782. Oiartzun'go semea. Edozenbat idaz-lao itxi euskuzan josulaguo argi onek: *Jesus'en Bioizaren debozioa* (1747), *Jesus'en Amore nekeeldagozten zenbait Otoitz gai* (17*0), *Euskaldun onaren biziera* (1763). Idazle sakon, bizkor ta garbia; Axular aundiaren antzera, bizitasunez jantzia. Gaur be, ari beglra ba-dogu zer ikasi, idaztankera erez ariña lortu nai ezkero alan be Olerkiz ez eban askorik idatzi; baña i.lain cbaneun ez dogu solas utsik idoroko. lkusi *Revista Euskara* (Irufla).

200. JESUSEN BIOTZARI

Gure poza, gure atsegin
gure Jesus maitea!
Zere Biotzeko suari,
ere zazu gurea I

Gure obenak, gure loiak
lenik kendu bear dira,-
ura zara: ken itzatzu,
galdu gara bestela.
Ba-dakigu zaudela Zu
gure amores betea.

Zere Biotzeko, eta abar...

Etzeuden bakarik loiak
gure biotz gaiztoan;
busti ta ur egiña dago,
pekatuen kutsuan.
Garbia da, idor dago,
Jesus ona, zurea.

Zere Biotzeko, eu abar...

Argiaz dago beterik,
Jesus, zure Biotza;
ilunbean gurea ta
elura bezain otza.
Emen gatoz, ager zazu
zuganako bidea.

Zere Biotzeko, eta abar...

Noizbait, noizbait arkitu det
bular ori idikia!
Sartuko naiz, ar nazazu
Biotzean guzia.
Egon bear ez ote det
nik or beti gordea?

Zere Biotzeko, eu abar...

Zure suak, zure gafak
auts egiten naute ni?
Geroztik egoin nintzake
amorez urtzen beti.
Jesus, zu zaran ezkero
gure animen labea,

Zere Biotzeko, eta abar...

Au zer da? Zer pena dira
dituzunak barendik?
Zure Biotza utzi dute
dena nekez beterik!
Zein aundi ta gogora dan
daramazun nekea!

Zere biotzeko, eta abar...

Zure Biotza arkitzen da
lantzaz erdiratua:
nere kulpen burdiña da
lantz erdiratzailea.
Damuz ausi al ba'ledi
nere baren tristea!

Zere Biotzeko, eu abar...

Arantza zorotzak baizik
ez dezu nere eskutik:
nere kulpen arantzakin
dena zaude odoldurik.
A! ni baldin ba'negoke
negar-damuz asea!

Zere Biotzeko, eta abar...

Gure kulpak egin dute
gurutze sendor[1] ori;
ezartzen diote kulpak
zure Biotz onari.
Kulpa gaizto, oben gogor,
oben-kulpa nerea!

Zere Biotzeko, eta abar...

Zer nai dezu? Zertan zaude,
Jesus ona, aldarean?
Txarkeriak artzen dago
amorezko lekuan.
Txarkerien pena nai du,
nai du gure amorea.

Zere Biotzeko, eta abar...

Eztul bearko maiutu,
Jesus, zure Biotza?

Artu bear ez nuke nik
zure nekeen damua?
Eske nator, zabal zazu
sar-bideko atea:
Zere Biotzeko suan
ere zazu gurea.

1) pesado.

MARIA LUISA LEKAIMEA

Cure artean antxiña. Gabonetan batez be, olerki ta irx-neurtuak abestu oi ziran, elizkizunak ziranean. Azkoiti'ko Efuki-etxean bizi zan monjatxo au, oso ezaguna ¿an koplakari lez 1767'an, kanta-txorta bat argitara eban, Azkoiti'ko elízan abestuteko. Andik artuak dituzu kopla jostalu oneik, gatz-ozpinez ixikorturik azal ta mamin

20!. KOPLA JOSTALUAK

Ezagun du munduak Jesus jaio dena:
Ain dago mudatua, ez dirudi lena.
Len guzia zan pena, negar, naigabeak,
Ta orain atsegin, gusto, algara, íareak.

Goroto, erierta, auziak ta gera,
Gaitzak, gose, «ezur, ta intenzio okera,
Juanik: ia ez dago ezeren bildurik,
Ta ala dago mundua zeru bat egiñik.

Abogadu, eskrioau, eta merikoak,
Mediku, barbero ta botikarioak
Ez dlra bear; ta argatik izango da safi,
Ipokrates gaxoa saguen janari.

Ezpatak eta lantzak eta beste arma guziak
Erositzen dituzte eremeiiLariak;
Ta alíefikan ez dedin galdu burni ura,
Enpleatzen diaz gure probetxura.

Atxur, burdiñara ta golde biurturik,
Nekazari langiñak ongi giaturik,
Emango digu lufak garia ta artoa,
Gaztaña, sagardoa ta ardo naikoa.

Garia eta artoa merke ta ugariro,
Gaztaña ta saga/a, bariz, urte oro;
Ta ardoak galdurikan lengo malizia,
Ez gaitu mozkortuko,- edan, zia-zia!

Ez d« onezkero esango gezurik batere,
Egia esango dute dendariak ere;
Juan da emendik tranpa, ta fede gaiztoa,-
Ia ur bage saltzen da tabernan ardoa.

Bas-arteko pistiak, malso-malso egiñik,
Ez dute ia alkar jaten, ta ain gitxi gizonik.
Bat egiñik guziak, alkafen artean,
Bizi dira etsai gabe, kontentuz bakean.

Otsoa eta ardia zelai zabalean
Safi ekusten dira biak jolasean.
Alberdanian[1] txita azariarekin,
Portugesa laztanga Kastalauarekin.

Auxen bai dala egiaz denbora urezkoa!
Ta ez len Koplari zarak erausitakoa[2].
Orain aien amesak egia sorturik,
Ekusten ari gera pozez zoratürik.

Baña kanta befi au geitxo luzatu da,
Nere eztan tristea ia ufatu da.
Naiago det ixildu kataratu baño.
Agur, nere jenteak, ufengo urteraño!

1) bromeando; 2) decir.

AITA DOMINGO MEAGHER

17)3-1772. Jatofiz **Irlandar,** jaiotzez Donostikoa. 14 urtedun zala, Jesus'en Lagundiko jantzia artu eban. Galizia'ko Santiago'n jakintza-irakasle, baita Salamanca'n ta Valladolid'en Urtziztia luzaro erakutsi be. Bai itz-lauz bal olerkiz, asko idatzi eban erderaz. Bere izena ospetsu egin ebenak, oraitiño, etziran erderazko lan oreik, **euskal-olerki batzuk baño;** batez be *Ardao* izena daroenak. Gaixo-aldi baten egiñak dira eurok, osalariaren aginduz artutako ardao baltza ongaíi bai yakon izan. Gizon argia, toles bakoa ta maitatia.

202. NI NAIZ

Ni naiz txit gauza.gozoa. iluna eta argia,
eta pozkida osoa; indafa det eta garboa,
beltza naiz eta zuria, eta izena det ardoa.

Noe, gizon aditua,
zedofen pentsamentua
izan zan gauza andia
ipintzen mastia,
Zu zaitugu ardoaren autore,
O zorioneko Noe!

Edari maitagafia,
tristearen alegría,-
alaitzen dezu begia,
kentzen melankonia;
mutua ipintzen kantari,
eta efena dantzari.

Ausi, atera, ebakia,
miña dala, edo zauria
kuratzeko belara,
klareta edo naiara,
moskatela edo Malaga,
edozein ardo, ona da.

Pasatzen du aste osoan
aitzurtzen batek soroan,
nekaturikan guztia,
dariola izerdia;
laster legoke au galdurik
ezpalu jaiean ardorik.

Jateko ez bada gogorik
eta ezin egin lorik,
eritasun oben
edo beste edozeñen
kuratzeko balsamoa,
da, mats onaren zumoa.

Ardo gabe ez da funziorik,
ez mezarik eta ez festarik;
bada au faltatu ezkero,
ez da arkitzen gero,
baizik naigabeko tristura,
iluntasuna ta malura.

Galeno'ren medezinak
ta farmazia guztiak
du botikik onena
ardoaren taberna;
todo lo sana, guztia,
ardo ona daukan zagia.

Barbero, mediku guztiak
eíemedio aundiak
dituzte besteentzat;
baña ba-da berentzat
efemediorik oberena:
ardo zafik dan onena.

Ardoa eranik neuriz,
bein ïTa, pizten du befiz;
baña ba'da asitzen
belaunak limuritzen
eta irakiten buruan,
ez da gauza onik orduan.

205. MATSAREN ZUMUA

Efoma'n eta Paris'en,
Jerez'en dagoan
ardoaren usaia
dáukate gogoan; '
monjak eta frailiak,
baita ere abadiak,
guzti-guztiak dira
ardoaren zaliak,

Ez da teologorik,
ez filosoíorik,
ardoari neuria
artutzen dionik.
Gizon aundiak ere
ikusi ditut nik
eren mozkofa ezin
disimulaturik.

Gizon bat, ardo bage,
dago erdi-ila;
marmar dabiltza tripak
ardoaren bila,-
baña edan ezkero
ardoa txit ongi,
gizonik txataíenak
balio ditu bi.

Edari guscosoa
matsaren zumua,
onek daduka orain
galdurik mundua.
Na pa rak zer lirake
ardorik ez ba'litz?
Beste indafik bage,
guztiz dira bortitz.

AITA AGUSTIN BASTE&ETXEA

Jaiotzez Lekeitiara. Liburu bal dau guztiz entzute aundikoa *Jcsu-Kristo gure Jaunaren Pasioa,* bertsotan, 1750 alderuntz egiña. Gaur bc, Gipuzko, Bizkai ta Naparuan, sari abestu oi da, batez be A-.tr gurenez- lkusi Txomin Agiré apaiza ren *Kresala,* 4'gn. aula, -il'tlk 43'raño. Gipuzkera-z ipiñi ta argitara emon eban Aita Kardaberaz'ek, eu izkelgi ontan ia ezagunago dogu. Ogei bidar gutxienez argitaldua izan da; lenengoz, Bilbao'n, 1760'gaferia baño lenago, Aita Uriarte josulagunak diñoskunez. Azkenengoz, Galdos'tar Eromal Abak, aztertu. ta, bizkaieraz ta gipuzkeraz. Donostia'n, 1928'gn urteko Asteazken Doñean.

20-1. JESU-KRISTO GURE JAUNAREN PASIOA

(Zetitxoa)

Safera

Jesu-Kristo'ri kendu ezkero
bekatuakin bizitza,
Baldin ezpadet negar egiten
arizkoa det biotza:
guziok lagun,
kanta dezagun
bere penazko eriotza.

Mundua baño lenagoükan
señalaturiko eguna
Alderatu zan obratzekotzat
gizonaren osasuna,-
argia bera
alde batera,
besterik egun Hutía.

Getsemani'ko ortuan

Ostegun Santu afal ondoan
bere lagun zituela
Jesus'ek iru dizipuluak,
itz egin zien onela:
—«Triste nago, ta
lo ori bota,
egizute emen gaubela».

Getsemani'ko ortu santuan
auspaz lurean jafirik,
Eskatzen zion, libra zezala,
Aitari, Kaliza artatik:
Jesus penatzen,
odolez usten,
eu ez det nik negarik?

Izerdi otza arpegian, ta
biotza penen artean,
Triste anima, gorputza lari
agoniako tranzean;
baña ala ere
zegoan firme
Aitaren borondatean...

111

...

Ka I barí- mendiruntz

Bide onetan zijoanean
Kalbarioko mendira,
Bere Semea kontenplatzeko
Ama zegoan begira;
an dira penak,
an tormentuak,
martirioak an dira!

«Ama Birjiña atlijitua,
itxi itzazu begiak;
Estali zaite; aingabe ere
asko darama Semeak
tormcnturikan...
Bat ere itzikan
ez dizu utziko negarak».

Bidaltzen ditu Amak begiak
Semearen ikustera:
Bañan biotzak, "arrita ezin-ta,
biurtzen ditu atzera,-
datoz argatik
begietatik
biotzak itz egitera.

Semearenak esaten dio:
—«Ba-dakizu, Ama maitea,
Asko sentitzen ba'dezu ere
onela ni ikustea,
bestela ezin
zeruarekin
egingo dala bakea.

«Nere Aitaren borondatean
zeurea beti daukazu,-
Aren esanak narama: Agur!
bendizioa indazu;
nere ordeaz
bekatariaz
kontua zeuk idukazu».

—«Zoaz,nere Seme maitea—Amak—
iltzera ordu onean;
Bañan nola ni utzi nai nazu
bakardade ain tristean?
O, nola bai nik,
eta ondo pozik
jaraituko nizukean»,

JOAN BATISTA GAMIZ

Urteetan Iruña'n bizi aren, etzan angón a raba ra baño, Sabando'n jaioa, ta txikitatik euskeraz ekiana. Ederto jaso ebazan neurtitzez cdozenbat napartar gertaera. Bein, ostera, zirika mindu eben, erderaz ainbat olerki idatzirik, euskera aiztu-edo egin yakola ta< Aíezkerokoa dogu bere euskai olerkitxorta Erdal-sunda pizkat ba-dario, baña tira,,.

205. DABILTZENTXOAK

Erderaz eztuzu nai, ene biotza,
Euskeraz kopla egiten eztut nik lotsa.
Ikusko degu
AI ba daigun egin zerbait,
Nola bear degu.

Gaizki ba'doaz ere, oía euskeraz,-
Ifin naiz au egiten nere bilduraz:
Egizu fafe,
Gaizki mintzatzen ba'dut,
Lotsarik bage.

Txoriak arboletan dirade pozik
Euren libertadeaz kantatzeagatik:
Alan nai nuke
Egon ni ere, baña
ezta posible.

Ai, ene txori ariñak, egatzen duzu;
Jaulako kartzel baga fortuna duzu:
Nik ezin ala,
Zeren loturik nago
Prisione baga.

Lenago ezaun da; baño uste duei guziak
Nerone bat zela; bai zera eztiak,
- eder ta gozo!
Zugatik gauza guztiak
Izten dut oso.

Ene zuertea da gogora; zu gogorago;
Ezpazaizte bigundu, galdurik nago.
Bigundu zaizte;
Orekin gure gauzak
Dirade naste.

Bare egiten ba'duzu, dirudi aingeru,
Ta ¡fin ba'-zadiz seria, guzia da ilundu,
Ene iguzkia!
Odei baga ikusko dut
Zure aurpegia.

Zure urezko uleak nauko galdurik,
Kateia oíekin nauko ondo loturik.
Ene maitea!
Askatu ta emadazu
Libertadea.

Ai, ene begi beltxak! Ilik naukazu;
Euki egizu erukia, (a piztu naizu.
Ai, ene mina!
Enetzat gauza guziak
Dirade ozpiña.

Zure begietan dago ene zuertea;
Nai ba'duzu bizia edo eriotzea.
Ene laztana,
Zugatik egingo dut
Nik al daidana.

Duzu begitxo batzuk ta arpegitxo bat!
Aegaz joateko dut tentazio bat!
Gaode geldi;
Obeki da ondo egon
Ta ez gaizki ibili.

Jazmiña eta karmiña daode nasturik
Zure mate) bietan ondo íffñirik.
Guztiz da edera;

Anparatu nauzute,
Ai, ene perla!

Eskuak duzu leun, lepoa txuri,
Elurezko bulara, zureak dirudi;
Or bildu duzu
Munduko perfezioak,
¡Mola bear duzu.

Bekoki duzu zabal eta ortzak txuri,
Sudufa edet ta txuzen, ezpanak gori;
Guztiz kunplitua,
Zure amodioetan nomai
Daude galdua.

Cet'ia duzu mea ta ona txiki,
Gorputz duzu galanta, nornaik ba-daki.
Onek il nau ni:
Nai duenak bizi onekin,
Ezpedi ifini.

Ain laster zein da eza un du josita biotzen
Iltzeakin zure amodioa, ta ezta ataratzen,
Dago n'xorik:
Beiñere eztut artuko
Ta eztut damurik,

Aski da esan dudanak disparateak:
Barkatu bearko duzu eroaren itzak.
Juizia galdu dut,-
Zuk eraman dustazu,
Ta itzul bear dust.

JOSE JOAKIN ORMAETXEA

Deba'ko seinen? An bizia bai, beintzat; jakituna ta biorz-zabnla; eusko-litc-raturan Os.naa lecua. Bere olerkirik ez clogu ezagun, gitxi batzuk baiño. Ondo-rengo au Sapho, Lcsbos'ko einíiUume okrkariarena da, Paon'en deduz egiña, euskeraz. Ezta itzulpen osoa, ta XVlJCgaren mcndckoa izan aren, Oraiiitsukoa dirudigu izkeraz. Ikusi Materola, *C. V., 1* zlea, 31 or.

206. ZUGATIK

Zuoatik zure ondoan zispiratzen duena
Mila eta mila bider zorionekoa da;

Ezin izan diteke ditxa andiagoak
Zugatik zure ondoan zispiratzia baizik.
Berotasun gozo bat, zaiñetik zaiñera,
Nere gorputz baruan, orduan pasatzcn da;
Gustuaren pasioz jartzen naiz ikarak,
Kasik itziikan ezin asmatu dedala.

Frantzisko Xabier M. MUNIBE ETA IDIAKEZ

(Peñafíorirta'ko ¡(ondea)

Azkoiti'n, 1729'an jaioa. Gizon argi ta ikasia, Euskalerin biotzez maite ebana, *Real Sociedad de los Amigos del País* deritxou bazkuna, berak irasi eban 1763'garenean. Naita bere antzekoak Sari erbestera begira bizi, ooek gure lur maite ontara begi-biotzak makurtu, ta ele zara zerbait jasotcaícn, «CI Borracho burlado» Opera irigaria, euskeíaz ta erderaz, eskintzen dausku, euskerari sarera emon eutsan lenengo antzerkia. Lenen Azkoiti'n antzeztu zan 1764'ari, uren£0 urtean Bergara'n San Martin Agiré donetu ebeneko jaiak zirala-ta, Mur ua sendiaren jauregian. Nortzuk antzezlarp Egilea berbera, Peljx Maria Sanvaniegn Yureamendi, Pedro Baleütio Mugartegi ta beste Zalduntxo aidrakoak. Bada artzain operado bat be «Gabon-sari a- izenez, jaun leial oneri egozten yakona. Ensko-antzerkian lea-saio bi ditugu, lkusi *Eludes Busques* (1907), 383 or.

207. AI, NIRI ZER?

Ai, niri zer egin ote zat?
Onez ibilten aztu zat.
Burua jaso ezin det,
Jura ediro[1] ezin det,
triste dut biotza guztiz,
Edan dezadan, ea! bariz.

Edari eztitsu gozoa
zerutik jatsitakoa,
zenbait eta ondorago
ainbat aiz gozoago.
Jainkoak bed'mka azala,
nik bedinkatzen audan bezala.

Jaro onetan i ikustean,
poz artzen det biotzean;
emen begiraturik
ba'naikak txoraturik,
zer egingo ez dek barunen?
Sar akit bada, aren, lenbailen.

1) hallar.

J. ANTONIO ABOITIZ, APAIZA

1751 -1824. Lekeitio'n jaioa Noznai ifipara ezpan ea D ia zorun ñírñ cr kolkoa, ainbat olerki alai itxi euskuzan; geienak, oraitiño, bariaka batzuk izan ezik, aaotz-orbelpean diraue, eskua nok emongo.

208. TXANTON PlPIPJ

Txanton Pipiri emen dago,
limosna on bat ba'lego.
Kanta bear dot, baldin al ba'dot,
neure sabelean gosea,
eruki dedin jentea.

Iru lagunak Ispaster'en
apostua egin eben,
jango ebela goizik gauera
amar efaldeko txala,
nerau laugaren nintzala.

Pozez nengoan zoratürik
jateko lauren bat osorik.
Neure kontuak beti alanguak;
joan da poza potzura,
amesak diran modura.

Lekeitio'ko kalean
besigu-denpora danean,
ogei txitxaro eta geiago,
eta guztiak gauean,
sartu dodaz sabelean.

Orduan kontentu nago
gauerdi osteradamo.
Andik goizera neure sabela
beti dago gur, gur, gur, gur:
bartko aparia, agur!

Guztiz zab:da dot sabela,
bardin-bardin dot gibela;
este bakotxak kabiuko leuke
ganbela bete okela;
baña noz izango ete da?

Ez da erotan aririk
neure agina langorik.
Neure agiñak zatiuko leuke
ogi andi bat osorik,
ba'lego bigun-bigunik.

209. PERU DUBAKO

Peru Dubakok uste eban ze
etzala diru-bearik,
makalau ona ekariteko
Bilbo'ko Barenkaletik.

Guztiz dotore makií bategaz
sartu zan Bafenkalean,
txakur gofi bac oin zuriakaz
ebala aldamenean.

Sartu zanean Barenkalean,
makalau asko ikusirik,
eskatu eban emon eiuela
lepoa bete dubarik.

—O gizon tonto, zer esaten dok,
asto salbaje andia?
Euk bere ez euke duban emongo
eure kortako idia.

— Makala u of ek ilda dagoz-ta
nire idia bizirik.
Usteldu ete botau ez daizun
gura nituke dubarik

—Ene gizona: gura ba-dozu
zeure lepoko kargea,
amalau lauko kostako yatzu
mak.lau onen librea.

—Toto pintotxo, goazen etxera
ainbat lasteren emendik.
Ez gaiaukazak beingo-beingoan
Barenkaleak arturik.

JUAN A. MOGEL APAIZA

Mogel'darak iru dira: Jtía ii Antonio, Juan jose Ca Bizenta; Juno jose ia Bizenta neba-arebak, ca Juan Antonio bien osaba. An etzan jaiotzez niarkiíiara, —Eibar'en jaio bait-zan 1745X11 6'an—, baila bai egoitzez ta maitasunez; angoeretorc emon eban, ba, ia bizitz osoa; an bertan il zan 1804-V I l'an, 59 urtegaz Bere idaztiak: *Kristinaubaren jakinbidea* (Cazteiz, 1805), *Konfesio ta Komunioko Sákramentuen gañean tfrnkyisienk* (Iruña, 1800), *Peru Abarka* (Durango, 188)), ta abar euskeraz, ta erderaz beste asko. Amaika bat ¡poin edo alegi be neurtu ebazan; alegiak, A. Zabalaren ipniñcn arteaa argitara oi ziran iñoizka; baña itzaurean eta aurkibidean garbi esaten zan zciutzuk ziran A. Zabaia'renak eta zeintzuk Mogel apaizarennk lkusi *6/íideS Basques* (1907), 8S or.

210. ATSO EZAIÑA

Atso azal tximur begi gofia,
bizartsu baltza eta sur andia,
argal, makur, ere», larogei urtekoa
eta aoan agin bakoa.

Bestetik, bariz, zan piztaz betea
ta zuri eukana ulea;
betseiñetan[1] zirudian katua,
bizaretan sagua.

Ezin zantar ezaiñago izanik,
eztau entzun nai alan danik.
Diño: «Zer da au? Betor espilua
ikusteko neure burua».

Ikusten dau, bada, zuzen egia.
Espilu guzurti»!
Diño: «Emon yat bare egiteko
eta ez neu nazana esateko;
dago espilu au txarto egiñik.

Guzur uts! Ene matraila zuria
non dok? Non azal lean-garbia?

Ik gau baltz egiten deustak eguna,
eguzki argia, ¡luna:
bela baltz, epera;
ezainduten[2] dok edera.

Neskatx! gazteak dozak zartuten,
gorputz liranak makurtuten;
ausiko aut ausi, ostikopean:
ez aut eukiko, ez, etxean».

Bakotxa bizi dau bere zoroak,
orixe dirausku atsoak.
Ez dogu ezautu gura burua,
ez entzun egia diñonik,
ez siñistu berba onik:
eta ausi nai da espilua.

I) pupila, *1)* afenr.

211. ANDRA ALARGUNA TA OlLO ARAUTZAGlLEA

Andra alargunak eban
zorionez etxean
oilo arautzaria;
ta zan ikusgaria
egunoro ifintea,
utsik baga, arautzea,
Diño bere artean:
«Emon yeutxadanean
aldi batez artoa,
arautz egunekoa
beti yeustak egiten.
Zer, bada, eroaten
ba'yeutsat nik bi bider?
Aíautz bat ez dok ezer
emonik jan-a!di bi:
egingo bere nork ni
andi tzar biren jabe.
Zelan, bada, ez yauek
asmatu onangorik?»
Aian ero-erorik
gizendu zan oiloa,
ta arautza batekoa
alpertu zan guztia.

Beti izan da egia:
geiegi bilatzea,
utsean geratzea.

212, OlLO SOÑULARlA TA LAPURAK

Etxe baten lapurak dira «artu,
gura dituez bazteíak aratu[1]

goi-goicik eta bera.
Cero bere ez dabe e2er atera;
oilar zar bat bai, ze izakaria![2]
baia lapufentzat ona guztia.

—«Artu yaiagu au geure ede
gangargori, panpar, buru aroa,
lumaci, ailatsu[3], lodj, mardoa,
guretzat izango dok, gaur epera.
Gaur bat gure ezteguak!»
Alan diñoe lapur txantxa-gurak.

Ba-eroen Ollar zara ¡Itera,
lapikoan egosten imintera;
emon eutsan oilarak negarari
biotza biguntzeko ¡apuran.
—«Zetako nozue ni, o gizonak!
e2pa-dodaz aragi samur onak?»

Guztia da alperian,
lapufak ez dau erukirik arean,
Oilarak ekin ta ekin berbera:
—«Zetako naroazue neu iltera?
Artu ba'ninduzue oilaskotan,
samur izango nintzan jatekotan.

li bedi oilasko bigun gozoa:
oilar zara, ze jateko zozoa!
Nakutzue zarturik,
gogor, gauza-eza eta zaijdurik.
Ez naz bizi neu iñoren kaltean;
orduak tragartuten gabean.

Bizi nazala ba-naz zerbaitako;
ilten ba'nozue, ez ezetako.
Neure soñua da tx.ito artua,
ca iratzartzeko loak artua».
—*Egiñaren bizara!
gangar andiagaz az gangafa.

Emon dok ilteko erabagia,
idun[4] ori izateko ebagia,
Dozala gizonak iratzartuten,
jagi yitezan gabaz soñututen?
Ori, bariz, lapuren aurean?

Galdua az gaur geure batzarean,-
onetantxe yagok gure kaltea,
ta iretzat, eioa, orain iltea».

*

GaiztogUeak ez dau nai argirik,
ezta bete izatea ezauna,-
okererako gura dau iluna,
ta ez eukitea ekuslaririk.

I) registrar; *1)* objeto; 3) rabudo; *A)* cuello.

215. OTSO GAIXOTUA TA ARDÍA

Otsoa dabil basoetan
baztefak guzciak galduten;
emen ostu, bestean il,
jausi da txakufen ortzetan,
Eta aginka ebagirik
itziten dabee gaiztoak,
galdurik bere Jau zangoak,
baia onegaitik bizirik.

Egun ta egun zerbait da ondu,
ra estuturen dau goseak:
ez deutso emoten eizeak
ta beraragaz[1] ez atondu.

Ardi bat dabil antxe jaten.
—«Ator ona, dirautso otsoak,
eruki bear dok gaixoak.
Ekardak ura ontzi baten>—.
—«Ura nai dok nik ekartea?
dirautso urtento" ardiak,
ez arabil eu egariak;
gosea dok, luki, gosea.
Gura eunke, malmutz, garbitu
polito-polito zintzufa,
ta atarako neure azufa
ire aginetan apurtu.
Arinik ezin doanean
asmatu dok ire egaria

eta azala efukaria:
guzur utsa daukat minean.
Ilgo al az, il, ortxe bertan,
asko-jakin, txar, artosoa[3],
ez natxak ni oren zoroa,
jausteko eure aginetan».

*

Bai: bakotzak gorde burua
gaizto deunga guztietatik,
fa euren berba leunetatik,
izan ez dedintzat galdua.

t) hierba, *7)* osado, 3) mañoso.

214. KATAMOTZ KAIOLATUA TA TXAKUR AZKEA

Kaiola burdintíuan
katamotz uzua' dago sarturik,
dakusala txakur bat poztmik,
kate bagarik, parlantzuan[2].
Gora-bera au ikusi ebanean
sartu zan katamotza aseíean;
zerua besoz nai dau arapatu,
eta eukazan burdiñak uratu.
Diño, bada, deadafez,
biraoz ta araoz ta asafez:
— «Zelan, ain itzal-ariña ni izanik,
naiaukek emen estu ta katigu?
Niretzat az, txakur, gauzez, katibu,
ez doana ez erparik ez zanik.
Alan bere, ire alegerea!
Ara t'onako eure bizitzea!
Ni, bafiz, atsekabez,
burdiña artean emen naigabez...»

- «Ondo dok, diño rxakuíak (parkatu)
egotea eu orian, ni askatu.
Az erpatscia, ta odol-zalea.-
neu gizon-etxeen jagontzailea.
Ta ezpa-intz alangoa,

ez natxak ni eu baizen mistoa[3].
Euk sartzen deutsek guztiai bildura:
egia dok au eta ez guzura>.

*

Zetakotra indar-putzak lurean,
izango baira norbeien kaltean?
Zeinbat obe biguntxu izatea,
ta biotz efukioía agertzea?
Ez dozu nai kaferik?
Ez bada zuk iñoz egin kalterik.

1) iodóraito; 2) jugueteaudo; 3) bravo.

215. ARANTZALEA TA TXlBl BAKARA

Afantzaleak bot eban sarea,
biar dan-dana arañez betea
egongo zalakoan:
lorik bere ein eziñik egoan.
Jagi zan goizean goizetik
nagi andi bagarik oetik,
ta doa jasotera,
zenbat artu eban ikustera.
Dakus baia amuz beterik
ez yakola jausi besterik,
ezpada txibia[1] bakafa.
An zan ernegua ta an deadara!
eta an esatea:
—Onetako ezafi yoat sarea?
Txibia bategaitik gaba galdu,
ta pozen zoroz ezer ez afaldu?
Noan guzti au naiaroiala loak;
ta sabela ilten jan bakoak?
Semearen galdua!
Nekatuen artean nekatua!

Onelan egoala emegetan,
biraoz bazterak betetan,
esaten deutso ikaraz txibiak:
—Gizon ona, ken niri anak.
Itxaso-bidea emon'gidazu:
nozbait-noz darntituko ez yatzu.
Egingo naz txibi eskergca[2]:
botako dozu bafiro sarea
itxaso bazterrera:
etofiko naiatzu sarera
andi, mardo, gizendurik,
ez deutzut sartuko guzufik.
Txibia bat, ze izakaria!
Zelan zuk nigaz aíaria
egingo dozu gaur gabean?
Ez dozu obe datofen urtean
neure jabe izatea,
ta apari galant bat egitea?
Etor/iko natzatzu lagunakaz:
zeuk orduan afañakaz
aterako dozu diru andia,
ta esangozu: Ai txibia,
egia zale ta berbakoa!
Siñist ez deutzuna da eroa.
Siñistu neuntzun ordu onean:
imiñi nozu gaur egun obean.
— Bai, euri siñistu nik?
Ez dok ikusiko beste egunik

Obe dot afaín txiki bat eskuan
balea baño, au askatuan
bai-abi)e batera bestera.
Noz geroko ogiak, noz gosea
kenduko dok? Eta noz asea
itzi sabel argal makajdua?
8urdunczira, zital galdua—.

*

Asko ta asko izangoak
ezer baga itzi dituz:
eskukoari eutsi zuk,
ba-dau zerbait oraingoak.

I) jibia; 9.) grande.

BIZENTA A. MOGEL

Idazle yaioa an, 17S2-Vl-6'an. Azkoni'n jaio ZSD, andik laster, bere aiia osalaria il zalako, Markiña'ra eroan eben aurki. Elcuterio Basozabal'ekin ezkondu zan emcn; alargimdutn gero, Abando'n il zan, 1854 VI-29'no. Bere liburu sdefa: *Ipui onak, zei/itzucrati ürkituko dituzten euskaldun nekazari eta gazte uu~z"tik, erakaste ederrik beren bizitza zuzentzeko* (Donostian, 1804). Mordoska ontan 50 ipai» saii(\ ebazan bereak, baita azkenik bere osabak itz neurtuetan egindako 8 be. Gai\era, pizeatnk herak egin eban ondoren go i puna neurtitzetan, A. Zabnla'reunkaz batera argitara zana. Osaba-lobok bai euskaltzale piriaki K. Etxegarai jaunak diñoskunez, E(rsk<ilizainrfia sortu baño leuagogoko etrskaltzañaV ditugu.

2I6. PERU ALPER TA JOANE ZINTZO

— «Ez daukat gogo onik aurtengo urtean
pozagaz kantetako suaren aurean:
koltzan arlorik ez, ta gelia auzoan,
koipe asko ez dago gure lapikoan.
Ibili bearko dau, bai, gure atsoak
uritik ekarteko tremes ta artoak.

Baia, dirua non da? (or dago untzea).
Saldu bearko dogu daukagun guztia.
Gajizia'tik dator sardina gazia,
gure lauko[1] apuren eroan-garia.
Urak ez deusku ilgo aren egaria;
zegaz erosikogu txakolin baria?

Ondo otza nik daukat utxa kisketea,
ez asko beroago ziskuko pokzea:
idi makar bi dagoz geure okuluan,
saldu bearko ditut aurtengo neguan,
Beti yagot alboan Maria geurea
negarraren soñuan joten iletea:
ardaoa ta pipea itzi daidazata;
lenago itxiko dot daukadan azala.

Ugazaba jaunari neuk esango deutsat
igazko erentea itzi parkatutzat;
aurten jausi yatana abustu ostean
pagauko deutsadala diru ederean*.

— «Ai Peni, Peni! zara zu beti alpera.-
sari izango dozu alkondara zara;
belauna agirian prakaen zulotik,
adufa ta mokoak okotz ingurutik
Sistiriña[2] dariozu ukondoetatik,
txapelaren atala belan ondotik:
alkondara baririk ez yatzu ikusten,
gorurik zeure etxean ez dabe egiten,

Nik etxean daukadaz zezin ta urdaia,
artorik ezpa-dago jango dot ogia.
Ene troxak[3] daukadaz gariz beteturik,
urte baru onetan ez daukat goserik
Etxean azi beti bigae mardoak,
gero euki daiezan beterik eroak.
Esnetxu gozoagaz, ai ze edera!
esan leiteke bada, zerutik jatsia.
Etxean aziriko zekortxu ederak
egin oi daroadez soloko beafak.

Ez deutset Montañafai dirurik emoten;
mer!<aturik merkatu ez naz neu ¡bilten.
Zuk bere ba'zenduke egingo bea™,
eta ondo nekatu gariko azuía,
ez eldu iñoz bere ardan tokietan:
dirua ba-zunkake esturasunetau».

— «Ai, Joane, eraz da kontuok esaten;
baia nik eztot efez diñozuna'giten.

Zelan euki giñaike ainbeste ganada,
biri zer jaten emon ozta ba'daukagu?

Udaberian artu, negurako saldu:
bitartean bidetan etenten ditugu;
irabazten doguna, lenaz dago janik;
ez dogu guk urtengo bizi onetatik».

—«Euki ezkero, Peru, daukazun bazlera,
zuk bere artu ztñai labore edeía:
naboa ta berara ganaduentxako,
esnea ta aragi?, jat-orduemko.
Itxi ibilteari beci karioan;
beara egin zoli etxeko soloan.
Ez dau luíale onocen berez ondasunik,
atxur til laieagaz eragin bagarik.
Pipa motxa aotzean*, txapela okerik,
zeure zopita zarak arasiau eziñik,
beti zabiltz bidetan gelditu bagaiik:
alan izan ezingo arto ez garirik.

Aldatu bear dozu bizi-modu ori,
benetan gura bozu ondasunak euki;
seme-alabei bere lanen erakutsi,
eca bildur onean familia azi.
Ez daiela ikasi iapurkeriarik,
ezta bere esaten iñoz berba txaíik.
Ez jaietan egoten tabernan sarturik,
jokoan, edanean, ta gero moskorik.
Kendu alde batera biotz-gorotoak,
gogotik maite izan lagun ca auzoak.
Jaunaren egindua da parkatntea,
gorotoak ei dakar an-emen kaltea.
Gazte-gaztetxuratik beti eleizara,
zuen abadearen berbak entzutera;
iíean bein konresau ta arimak garbitu:
biziera on-on bat osoro jarairu.

Zuzen gabiltzan beti jaunaren bidean,
ta ez berbalekurik imiñi erian.
Alan egin ezkero erbeste onet?n,
orain ondo, ta gero, ondo zeruetan,

Agur, Peru neurea, uíengo artean,
alkar daigula ikusi dacoren urrean:
ganbarea becerik, upea ganezka,
txaltxu jaio-bariak atetan saltólo.
Jesus'en izenean eroan nekeak,
alan irabazteko atsegin beteak.
Itzi gaurtik aufera tabernazuloak,
eta ondo atondu baso ta soloak».

I) moneda de cuatro maravedises; 2) colgajo; 3) rtranero, *A)* labio.

SALABE&I

J. Urkixo euskaltzain argiak, bere RIEV (1907) aldizkarian, A. Zabalo'k itxitako ipuiñak azaldu ebazanean, onein artean, esan dogunez, J. A. Mogel'en amaika, B. A. Mogel'en bat, eta Salabeii'ren beste bat sartu ebazan. Nor cte dogu Salaberi au? Dana dala, ba-eban ozpiña ipuin edesten.

217. EZKONGEIA TA EMAXTEGEI BIAK

Ez zar ta ez gazte,
bere ule erdia
zuritzen asia,
ta nonbait bere
gogoeta asko igaro ondoan,
gizon zikotzto[1] bati jan yakon buruan
bebaía noz-edo-noz ezkoiuzeko ordua.
Gure ezkongeiak beban dirua,
bai zea, bai azia,
ta, egiegia,
ondo kostank
baldara[2] batua.
Berak, azkenik,
beban emaztegei naikoa:
guztiak nai zirean azaz,
edo obeto aren poltsaz.
Geure gizona agaitik
etzan lantzen:
ariñegi gauza onik
ezta egiten.

Neskatila biri zirudian
itzi eutsela biotza artuten,
ez agaitik guztiz jabetuten.
Bata oraindo adin onean zan,
bestea ia
galtzen asia,
baia apaiñez eukezana estalduak
denporeak ostu eutsazan urteak.
¡NJeskatila aek zoratürik
euken gizon au guztizko,
bakotxak izateagaitik
altzoan,- ta biak ule-ustuteko,
jolastaka legez, efotik
gaztenak zuri guztiak
ta zara]< ule baltzak
eufez[J] ideki eutsezan,
oren ondo eze kaíboturik
gerora imin eben.

Amodioak ez eban guztiz itsutu
zekeoto tzar ori,- zanean kontutu
esan eutsen andrageiai berak:
—«Esker mila, neskato ederak;
benetan danau nozue mutildu,
baia oregaz eztot ezer galdu».

Ondo da, irakurle maitea,
zer direan neskak jakitea:
Askotan ba'zabiltz
aekaz txantxetan'[1],
gorputz-arímako ondasunak
kenduko deutzuez danak.

I) avaro, 2)aDaquel¡ 3) en abundancia; -i) bromeando.

AITA MATEO ZABALA

l~77-IMO. Bilbao'tara, San Anton'go eleizan bateatua. Luzaroan Zarautz'ko koubeniu i\.ila bizi-lcku izan aren, Bizkai'ko criak batez be inixio-zelai; ernea ibili yakun sutsu siñijmena sendotu ta susiiajizen. Itzaldietan izkera gozo ta yaion erabili egian, sakoukiro ikasi eban euskera, batez be aduza; baita eriz-eri

ebiíela, itz erikoi asko jaso be, geroago iztegia egiteko ustez. Jolas antzean, ogeita lau alegi be eskiñi euskuzao, beste lan askoren artean. Eta ez edozelakoak; onela Aitzol jaunak: «Etzaigu alegi gaietan Zabnla baño olerkari jaiogorikjaio Bere añckorik ez degu eduki. Idazle bezela gure izkera sokonkiro ezoguezen zuan. Ba-ditu bere aiotsak, baña olerkiok darioten irakaskuntza biltañenctakoa degt¡>. lkusi *Eusko-A/eg ¡ak* (Donostia, 1934), I/'or.

218. KARDANTX1LOA TA MlftUA

Kardantxiloa, ernea abian
egokanean berotzen
arautzatxoak, bera gauan
aureko zugazto baten
kanta ta kanta
dago, eztanda[1]
egin bearez soñutzen.

Ain zan edera luma nabafez
ta ori-gori guztikoz,
ze ama-alabak ao zabalez
ari begira dagokoz;
euren zentzunak,
agan etxunak,
dituez pozaren gozoz.

Amak neskari: -Potxo maitea,
eztantzun aren soiñua?
Zoragaria aren samea,
zoragaria kantua.
Ai, ze polita
geu]c ikusi ta
ia intzunagun txoritxua!

--Ai ze polita! —dara un tso amari
neskatxi orek urturik.
—Ai ze edera! Ezin geuk ari
eskti ezaíi, ta arturik
eron gurera
an eukitera
kaiola baten sarturik!—

Egozan aian ama-alabak
ero-ero txoriagaz,-
bariz onetan miin itzalak,
zerutik jatsirik egaz,

zart txoriari
erpak ezari
ta dau igesten beragaz.

Ez dituz ainbat gauzak baiztuten
gau ¡tunaren iluntzak,
zein da miruak dituz iluntzen
ama-alaben biotzak,
kendurik ari
txoritxuari
edefa, sama, bizitzak.

Beren-berengi[2] neskak damuaz
ez euan, ez, asko bear
antxe egiteko txorienagaz
taska-taska, negar-negar,
begi bereak
urez beteak
damuz biotza samur lar,

Amak orduan ondo esanezka
dirautsa bete-betean:
—Ail<on[a] ementxe garbiro, neska,
emengo poza zer donan:
orain bizirik,
puntuko ilik.
Gozoak aia parean.

I) revea ta r; *1)* por su pacte; 3) he aqut

219, ZALDI AROA TA ASTO APALA

Zaldi aroa bitxiz ia zirafez
tint' apaindua, jabea ganean
eukala, joian ibilte galantez
bere bidean,-

onen betea daroa burua,
baita an dago buru-eretxia,
ze, zabal dala, ...datorko estua
bide guztia.

Astoa bariz azuruts, goseti,
buruz berarik, araiñen azpian
etoren geldi aureko bideti
bere andiran.

Zaldjto putzak, buru jagiagaz
¡rintz egiñik, zearka begira,
bete-betean ta abrigu txafagaz
dirautsa: —Cira!

Asto íkuski[2] ta lotsa bakoa
niri bidean ez egin aldera?
Bada ostikoz... Ken laster; ken; oa
bide-munera!

Asto gaixoak bilduraien nekez
daki ez nor dan, ta konort guztiak
joanik daukaz, jo ba'leuan legez
oiñaztafiak.

Zan andik ara bularez idigi[3]
zaldia; eta jaunak satz-lorean
gaJdu zalako, apaiñak edeki
ta agindu euan.

Cerora astoak zaldia zamari
egiñik dakus ta aroa zimaurdun
eta dirautsa gaiztoz inakalari:
—Agur, o lagun!

Ea, gizona, egiten ba'dozu
geriz apur bat/ ez, aren, arotu;
nornairi berba gozo egiozu,
ez ostikotu.

!) muy; 11 trasto; 3) abrir,

220. UGAZABANDRA TA NESKATILA

Etxe bateko andrea
zan bada guztiz kirmena[1],
begiratua ta mena,-
berba baten: egilea.
Erabilen ak etxea
lar'egiz ondo aitua;
beafean zan urtua,-
eta otseiñai lanerako,
oiíafak jo ordurako,
egiten eutsen oiua.
Neskatoak, gogaiturik
oren goiz jagi beafez,
diñoe erdi asarez:
—Zer? ta loa erditurik,
ta bein ez bein osoturik,
beti geuk jagi bearko?
Au ta, nok aturateko?
Ez bada,- guzuía, abafa;
ilgo ionagu oilaía,
bai, bai, geure bakerako.
Esan ta egin; ilten daue,-
ta iñok ez igarteko,
luki[2] gaiztoa jateko
egingo iakale jabe
zabalduta, oilar gabe
andra ori da gelditu.

Neskak pozak artu ditu
lo ta lo egitekoan.
Alpefik neskak: sasoan
andrea oi don igitu.
Llgazabandreak, bada,
zelan eztaukau oifafik,
amajketan bagarik,
ta goizago bear bada:
—Mari, —diño— ta txagada
ordu da; ea ta jagi.
Nagi zagoze, ta nagi
al zagoze izerditan?
Dei eginda, lau ofitan
jagi bearko don, Mari.

Ator bada, otseinrxuak:
on ekafi beafean
buruari, kaltepean
parau dituez buruak.

Zeinbati onrak, diruak,
osasuna izateko
egiñak, ai! okereko
guztiak deutsez (ortuak!
Zuk gazatxu arazuak
munduan ondo egoteko.

I) Bel; *1)* zorro

221. ASTOA TA IRU JABEAK

Astoak euan jabetzat
atxurlari esku eutsia,
t'eguneko janaria
uri da astoarentzat;
nai leuke onek beretzat
jango dauena ugari;
baia geure atxurlari
orek ez: deutso emoten,
t'oregaitik eroaten
dau gosea ondo sari.

—Ai, au —diño—, ugazabak
naiaukak beti ni gosez,
niri noz elduko iadak?

Ai, ta ene gosekadak!
Nik jan-ez au ba'yaroat,
laster egin bear yoat
emengo egotaldja.
Jabe esku-ugaria
nik bein izango ez yoat?

Gero jabeak, salduten
deutso lapikogiñari.
Au bariz zan emolan
txara, eta ez da urten
lazeritik[1], ez kenduten
astoak go«e bizia.
Bestetik ortuaria
iñoz ostu eroiana
ez dauko; ez orain jana,
ezta aza baten oria.
Ofegaitik astotxua
ebilen beti ta beti
noz onen agindupeti
aterako'uan burua
ta ez bizi ain artua.

Salduten dau zorionez,
edo obeto, adionez,
ta, zelango jabean?
Narugin atsituari
nor ilgo ez dan emonez.
Naru gordiñen azpian,
edo ondurikoen pean,
egunean-egunean,
dabil joan-etoíian,
gosez edo jan gitxian,-
ta bildufez dagoala
noz berari bete azala
kenduko deutsan bizirik;
oregaitik erdi-ilik
ta ikaraz bizi dala.
Gerora: —Au —esan euan
kontu onak aterarik—,
ez beste ugazabarik;
ze, ba'naioak onelan,
txar bat itxi ba'naieuan,
besteakaz nok deungago. .

ó

Bakotxa txit ondo dago
Jaunak jariko tokian,-
Agan burua itxian
Izango dau obeago.

I) penuria

222. AZERI MATS-GUREA

Lukia, baten, joan zan mastuira,
egozanean dingiiizka mordak.
Aitu-ezkero[1], diño: —Ai! begira,
eta ze onak!

Oraingo onetan beintzat, bear yoat
ase ta bete nik sabe] gosea.
O ze eguna! ene mats-mordoak!
gaur bai neurea!

Abiadu da, Gero nondik nora
ekingo deutsan mats aek jateko,-
oraingo saltuka egiten dau gora
aoz artzeko.

Gero atzeko oin bien ganean
zutunik jari, ta agaitik atxina[2]
igo nai leuke. Zer da azkenean
ak ez egiña?

Bein egiñari gitxi eretxirik,
beste askotan abantetan yako,
indafak, putzak bariro usturik
arrapetako.

Guztiz alperik izan zan,- ofenbat
eze egin-alak ta ezin-eginak
emon-ezkero, ez dau ez lakain[3] bat
ostu agiñak.

Ostean gero gure lukitxuak
matsai begira epe doilorean:
— Ez dozak gauza, ez dozak efduak—.
esaten euan.

Berein'[4] onango gizonen artean!
Zerbaitegaitik buruak uratu,
al dana egin, t'ezin dauenean,
atxakiatu.

1) al mirari *1)* adelaotc; 3) graoo; •)) mucho.

223. MADRIL'GO ITSU BARI-ZABALTZAILAK

Zan une baten gera tint itzal bat
españarakaz frantzesen artean;
ta ilten euen gizon makiña bat
alkartutean.

Izan zan bada, geure malpekadu,
Irun aldean atake eskergea/
biok il asko, baita asko galdu,
batak bestea.

Madril'go kale, plaza, baz te retan
ebiltzan gero bertako itsuak
paperak saltzen eta zabaletan
geuk eginduak.

Dedarez bada eta turunt zarai
ots eragiñik, ziñoen itsuak:
—Bai, españiarak deutsez frantziarai
eio buruak.

Bagilearen ogeigafenean,
or Irun'etik zertxubait arago
bitzuok ekin eutsen; geu giñean
¡zan geiago.

Lau mila gizon lurean etxunik
gelditu yakez,- eta bost milan
oratu deutse gureak, eta artunik,
onantz ekafj.

Bertan egoan gizon azartuak
dirautso: —Itsu, eta guretatik
zeinbat il dozak? ta zeinbat artuak?
aren, esa'gtk.

Erantzun eutsan geure itsu orek
—Ori MadriPen ez dok esan bear,-
Paris'ko itsuak ebatziko[2] yoek
artez, nai zear.

Zerbait egiten gaituezan berbak
or darabilgu? beti gorabera;
bariz txikitzen gaituen besteak
ez bein atera.

I) enorme, 2) resolver,

224. LEOIA, APTZA TA LUK1A

Leoiak eta antzak bein aurkitu eben
Mendian baruan arditxu galdu bat
Deslai' ebjlena,- baita gura leuken
Biak, bakotxak beretzat.
Artza nonbaít egon lekuz uíerago;
Ta leoi jaunari (otsa jagon bagan,
Ardi gaixoari esetsj[2] lenago
Deutso, il ta bota bertan.
Leoi usuari ori dakusala
Su goritan sartu ta oroi egiñik,
Bazterak guztiak bera dakazala,
Gara dario danetik.
Ez dau onen arin ojñaztari batek
batetik bestera bidea egiten,
Ta il jo dauena, zeinda leoi orek
Deutsan artzari ekiten.
Arez bildurgaíiak lazturik uiíeak,
Aoa zabal ta erpak luzaturik,
Arpegi emoten deutso, zelan aitxak
Olatuai gogorturik.

Batak gogor-gogor, ta gogor besteak;
Erpaka bat onek, besteak erpaka;
Biak ortz-aginka; índar-putzak biak,
Alkar apurtu guraka.
Ai, ango oroiak ta desgarioaí
Ango buruka-auskak, ta apurtzea alkarl
Ez, ez zirudian ez-bada trumoia,
Edo lura zala dar-dar,
Onelan luzaro ibili zirean,
Arik eta danok ebai, indar-ustu,
Ta nekeen nekez etzunik lurean
Biok zirean geratu.

Gelditu ezkero, arik puska baten,
Azeri jakiña dator ara laster,
Ta bien aurean ardía dau jaten,-
Eurak bariz ezin ezer.

Oi, ta zeinbat bider auzilari txara!
Au jazoten yaken! Diruak utsitu;
Enkon nastariari eta letraduai,
Ezer-ezean gelditu.

)) descarriada; 1) acometer.

225. BASAUNTZ MATSORJ-JALEA

Eiztariak basauntza
artuterakotz,
txakufakaz atzean
arin daraikoz.
An zan lastera;
ta txakurak lau-oinka,
basauntzak ega.

Geure berna ariñak
aufe-bidea
artu deutse txakurai;
baita luzea.
Eta azkenean,
ostendu yake ederto
mats-on pean.

Bildurak eraginda,
an geldi-geldi
dago eskutatua,
or ordu erdi;
baita ain ixilik,
ze, ez ots bat egin dau,
ezta zirkiñik.

Bildura joan eta
dakus oria;
kili egiten deutso,
kili bizia.

Andik sabelak
dirautso: —Ei! ekazak
ofako orbelak.

Kili ta kili gero
deutso ekiten
matsoriai zein; baiñan
ez da gelditzen.
Ta geroago
dator bina jatera
edo geiago.

— Arerioak —diño—
jun dozak ortik;
ez dok aen usaiñik,
eta ez otsik.
Jan ta jan, bada:
bildurak dok aldia,
dok bere janak—.

Onen ibil tetik
gizon argiak
goideari igarten
deutse tokia.
Arin bai arin
antxe dira guztiak
txakur ta annakin.

Txakur-zaunkak tnats-tara
daue uxatu,-
eiztariak su egin
ta lureratu.
Agur basauntza!
Emengoa eginda,
plaust, besterantza!

Au da esker txar batek
oi dakarena;
kaltea kalte gane,
noizbait atzeoa.
Il az, patari?
Ez euntsan ik parkatu
mats ongiíari.

226. GURASOA TA UMEAK

Ilteko etsita[1] ia egoan
guraso batek, urneak
aurera ekari, ta ondoan
dirautsez olango berbak:
—Ene semeak,
guztiz maiteak,
nik laster il bear yoat.

Ia niretzat ez dozak ezer
mundu onetako guazak;
zuentzat ortxe, bai eta laster
itxiko yoadaz danak:
ortxe bazteía,
etxe edera,
eta mastui galantak.

Baia, ez neukek nik joan gura
zeuei au esan bagarik,
onen mastuitan zaintsu atxura
erabilita sakondurík,
katanarua,
bean sartua,
topauko'zue beterik—.

Andik, guraso au i! ezkero,
aren esan ganera
semeak (ana bero bai bero
egiten abiau dira:
mastuia atxurtu,
zoiak[2] apurtu,
ta azpiko lurak ganera.

Katanarua ez zan agertu,-
ez eta beste dirurik.
Baia mastuiak alan atxurtu,
eta mats-mordoz beterik,
euren saria
irabazia
gonburu[0] deutse ekafirik.

Ganezka, bada, upakerea[4]
bete daue txakoliñez;
ta batzuk edan, saldu bestea,
kontuak jota, azkenez,
seme bakotxak
dituzan poltzak
bete dituz ufe onez.

Dirautsa, bada, bat-besteari:
—Ze katanafu oberik?
Nunbait aiteak au iragari
nai yeuskuan, ez besterik—.
Ea, gizonak!
lan on sakonak;
onexegaz aberatsik.

1) convencerse; *7)* gleba; 3) colmadamente; 4) tonel.

AITA J. A. URIARTE

Arigofiaga'n jaio (1812) ta Zarautz'en il (1869). Lekaideak, Mendizabal'en aginduz, euren etxeetatik bota-erazi ta sakabanatuak izan ziranean, A. Uriarte Markiña'n ostendu zan, Bonaparte jaunaren adiskide ta lagun egiñik; onek esana betetearen, *Itun biak* euskeraldu ebazan. Garbia noski bere idazkera, ta geienez Markiña'ko izkelgia darabil. Bere idaztiak: *Maria'ren Ilo* (1850), *Jesus Sakramentaduari ela Ama Dontzela Maria'ri Bixi/ak* (1856), *Doktrina kristiana* (1862), *Alegi ba/zuk bizkaieraz* (1878), ta abar,

227. NESKATlIA ESNE SALTZAILIA

Neskatila bat uri batera joian
esnia eroiala bere pitxafian,
ondotxu saldu ta aberastuteko,
eta egun onak gero igaroteko.

—«Salduko dot diño— esnia,
egingo dot irabazi ezin obia,
eun bat arautza ditut erosiko
eta onek laster iminiko
oiloen lumapian,
eun bat txitatxu egin dagizan.
Salduko ditut gero oilaskuak,
oiíandak biurtuko dira oiluak,
arautzak oneetatik,
ta askora igongo dot gitxitatik,
Au poza! Urte biren epian[1]
diru asko izango dot aldian.
Zori onekua onelan ni!
Erosiko ditut bei eder bi
jaioko yataz gero txalak[2],
egingo dira bigak ta zekorak,
bigaiakaz beiak
eta zekorak azita idiak.
Esnia, bariz, izango dot ugari;
esango deutsat otsein neskatiliari
karutxo saldu dagiala
ta gona bari bat egingo deutsadala
Idiak ditudaz lodituko,
zezin-geitzat gero salduko;
eta, azkenian,
diru gofi asko nere etxian».

Asmo onekaz zororik joian,
aberastutia ebala gogoan;
onelan itxuturik,
ba'lego legez diruz josirik.
Gogorazino oneetan aztu
nun eban bere esnia sartu:
labandu ta joten dau beia.
Agur, pitxar! ta agur, esnia!
Negafak dafaiko pozari,
ezerezak aberats ustiari,
eta neskatila efukafia
gelditzen da galdurik guztia.

Ipuin onek zer deusku esaten?
Neskatila eruak zer erakusten?
Ondo jakin nai dozu?
Belari biakaz entzun egizu:
«Darabiltenak ondasun makala
pitxar auskor ta argaletan,
ezer baga, esku utsetan,
geldituko dira beriala».

1) al cabo, *1)* becerro.

EUSEBIO MARIA AZKUE

Lekeitio'n jaio 1813-1 V-13'an.- il be bertan, *WS-WWzn.* Ume-ikasketak Zamudio'n egin ebazan; gefo$_r$ mutil azitx,o, Bilbora aldaturik, Frantziskotar semeakin latin-izkuntz eta pilosopi-gaiak. Karlatar guda ostean, Ferrol'era doia, itxasgizon izan nairik. Bermeo'n itxas-ezaupideak erakutsi, gero Mundaka'n ta azkenik Lekeitio'n, batez be 1861'tik auíera. Kobla-doaiz ornidu eban Goikoak, eta asko idatzi eban eta beti gizonkiro. Ikus zer diñoan Manterola jaunak bere *Cancionero Basco* deritxon liburuan. Geienak Mundaka'n egiñak dira, irakasle egoala. Ba-dau Bilintx'en antza, ta eztogu txori antzo abesten dauana; ondo dazau euskera ta euskal-olerkía, ta ba-dixuri gatz-ozpiña, batez ziri-bertsoetan eta eriekanduak margoztean. Bere seme R. M. Azkue apaiz jaunak argitara emon ebazan aren olerkiak, *Parnasorako Bidea* izenez (Bilbao 18%).

228. ASTOAK... ARANTZEA

Asko dira gaur, eta len bere zirean,
Antzak ez diñotsenak zer ete direan.

Iruditxu bategaz sartu yat gogoan
Argitutea egi au zortziko bertsoan.

Asto bat dotorea, cria batean,
Salduteko imiñi zan zaldien artean:
Guzur-ule baltzakaz kokota apaindurik,
Eta zaldi-buztana atzean loturik.

Neurian ebagi ta beren belañak,
Zaldia ta ona zala uste eben guztiak:
Oraztu ta garbirik anketako ulea,
Azkor[1] eukan lepoan naruzko txalmea[2].

Beren jaubeak eukan kolkoan bildura
Noiz ezagutuko zan astoan guzura.
Eldu zan erosteko baseriko jaun bat,
Eta agindu ebazan irurogei dukat.

Atsegiñez beterik baseíitar ona
Asi zan bilatuten auzoko gizona,-
Bialduteko laster pisti au etxera,
Beste bere kortako zaldien artera

Ataraten ebala ziskuti dirua,
Jaso eban astoak zerurantz burua,
Egiteko arantza bat miragarizkoa,
Ikaratuko ebana Balan'en astoa.

Ariturik egozan baseritar biak
Eta euren inguruko gizonak guztiak:
An zirean santzoak, bare ta gedafak!
An ikusten zirean egunaz izafak!

Orduan esan eben basoko gizonak:
«Zeinbat dagoz munduan, a langO... lagunak!
Isilik, dirudie kadera" bikoak;
Berbaz asten ba'dira, lau kaderakoak.

I) airoso, 2) albarda. 3) pierna.

229. AINTXINARIKONAÜ...

Biztuko balitzete orain Jaun Zuria,
Ezaguteko eleuke gure gizaldia.

Oreturik ona egin dau mundu zarak bira,
Len goian egon zana etofi da azpira.

Erakusten zirean lenago arpegiak,
Orain baiña gabiltzaz maskaraz erdiak,
Aiztuta bizi gara Euskera gozoa;
Eztogu ezagututen lengo Jaun-Goikoa.

Eíoma'ko gudari zar eta gazteak
Ona etori yakuzan ezarten kateak:
I.uganakaz' egozan gogor Gaztilburun
Baiña bota zituzan euskaldunak ufun.

Ia mila urte gero, Leon'go Infantea
Etori zan Bizkai'ra botarik plantea
Etzala geldituko lebre Bizkaitank
Ezpata eta dardakaz azpiratu barik.

Orduan Jaun Zuria eta Iñigo Estigez,
Agurak ta gizonak ta mutiíak aurez,
Urten eben batera biotz sendoakaz,
Neurtuten Leondarak makila puntakaz.

Uribe ta Markiña, Orduña ta Orozko,
Ralmaseda ta Auna, mutil ta morosko,
Santzoka eldu zirean Padura-ganera,
Burdiña-makilakaz godoen aurera.

An izan zan orduan Titan'en gudea...
Goitu eben Euskaldunak; nok dauko etca?"
Leondarak galduta euren nagosia,
Mendirik-mendi igeska gorde eben bizia.

Arek bai zireala mutil ta gizonak,
Egun pare bakoa Bizkaia'n emonak!
Finaren izena, aldakuntza baga,
Guda au gomutatuko da Afigofiaga.

Ordukoak zirean zintzo Bizkaitarak,
Iñok goitu ez ebazan munduan bakarak.
Bizkaia'n jaio ta azi Euskaldunak danak,
Euren Iegeakaitik ilgo zireanak.

Nun dira orduko gizon geure Patriarkak?
Nun txapel punta zorotz txartez eta abarkak?
Etzan mando-burdirik gizaldi aretan;
Nagosiak ebiltzan zaldien ganetan.

Bizkaia'n egin dira bide laun-zabalak
Bertora sartuteko ekandu zitalak;
Orain gagoz egiten burdiña-bidea,
Fueroak igesteko bear dan atea.

Len bizi zireanak pozik baserian,
Orain zorak egiten bizi dira urian:
Lengo asaba-etxeak dagoz utsik ta otzak,
Iñor eztala bizi ezpada gabontzak*.

Nun dira Bizkaitaren jaketxu laburak?
Nora basoetako iges dabe egurak?
Areitz ta egurak saldu, ta erosi gabanak;
Onetan dagoz gaurko gizonai! joranak.

Gaur dabiltz Bizkaitarak mando-burdietan,-
Zetarako da indara euki belaunetan?
Preso gabiltz burdian zarak ta gazteak,
Aintxiñako Bizkai'ko gizonen semeak.

Paris'en erneten da moda bat astean,
Sustraiak dituzana laster geure artean:
Zeinbat diru daroian urtean kabuan,
Gure artetik modeak, ez daukat buruan.

A Ia Pranzesa berba, *a Ia Franzesa* jan,
A Ia Pranzesa jantzi, *a Ia Pranzesa* edan,-
Euskalduna gorputza, prantzesa arimea-
Au da len esan dodan geure maskarea.

Guztiz azpiratuta Ingelesak gaukaz,
Geuri egiten dauskuzan zitalkeriakaz;
Ogeta sei urtean dogu adiskidea,
Beli emoten dauskuna galtzeko bidea.

Au da bizi-modua orain daukaguna,
Lengo gizaldietan etzana ezaguna;
Ezta gurasoak lez oraingo gizona:
Munduak bira egin dau aintxiñarik ona.

I) crinchera, 3)cquiíu duda?; 3) lechuza.

250. EMAKUMEEN SENDOTASUNA

Salomón eregea, gizon jakintsua,
Andrakaitik aurkitu zan galdurik burua,-

Gazteak eta ederak ebazan laztanak,
Zuri, baltz, eta gori, ta asko baltzeranak.

Salomón zan gizona besteak langoa,
Baiña izan eban maisu geure Jaun-Goikoa;
Alan esan ebazan gauza jakintsuak,
Jaun-Goikoak berari buruan «artuak

Eztau emakumeak —Salomon'ek diño—
Guztiz maite gizonik izan oraindiño.
Salomón egon zala uste dot zororik,
Edo egia esateko ez eukan gogorik.

Emakumeak dagoz mundu zabalean
Edeak legez zalak[1] maitetasunean.
Alango bat egoan aintxiña eri baten,
Ta aren biz-modua orain noa esaten.

* *

Joaniko'k ta Teresa'k, diñodan erian,
Ez euken galduteko alkar urte bian:
Gurasoai esanda ezkondu zirean,
Ibili barik beti alkaren atzean.

Urte bat igaro eben memento bat legez,
Alkari begira pozik eta baíez;
Baiña gaiso txar batek artu eban Joaniko,
Ta uste eban medikuak etzala biziko.

Asi zan emaztea burua apurtuten,
Iñoren esanik ez ebala artuten;
Matraketan eukazan negar-anpuluak,
Eta ezin kontau leikez beren zizpuruak,

Amaitu da —ziñoan— neure bizitza ona.
Zegaitik artu neban maitea gizona?
Ai! laster-lastcrka ¡Raro da nitzat mundua!
Zer naiz aldendu ezkero etxeko burua?

Betor eriotzea, betor neure bila;
Bizi bedi Joaniko, ta neu il nadiia,-
Eztot nai osasunik, ezta bizitzarik.
Zetako dot bizia, neure Joane barik?

An agertu zan laster negardunagana,
Abel il zanik ona, aseten eztana:

Aragi bako agura sega andidun tzara,
Ereiten dabilena munduan negara.

—Nor kentzen dot mundutik? —diño eriotzeak-
Gizona? Edo gura dau etori emazteak?—
Arimta Teresa muturik egoan;
Baiña asmorik ilteko ez eukan gogoan.

AI ¡zan ebanean eragin miñarí,
Bizkor erantzun eutsan eriotzeari:
—Baldin nai ez ba'dozu joan lagun barik,
Neure senar maitea dago or il gurarik.

I) correoso.

231. ENBASUKO NESKATlLrZN KANTAK

Aro ona dago; kairantz goazan,-
kanpoan dabil ipara...
Gaurkoa da bai itxasaldia;
eztago taiua txara.
Otzaratxu bat,
otzaratxu bi,
araiña dator
portura beti:
besigu, lebatz, sardina ta atun,
eta beste asko ganeti.

Palu ta eremu, bela ta korde!,
masia ta ura bere bai,
sartu daiguzan txalupan laster
itxaron barik gizonai.

Afantzaleak barua ausi ta
kanpora doaz zintzorik,-
betoz guztiak osasunagaz
eta iñor bere ez gaisorik,

Efira datoz ipar aldetik
belak betean ontziak:
ondo dirudi egun argitan
belan dabiíen ontziak.

Berogei aratz' besigu dakaz
txalupa andiak egiñak,
ogeta amar bat txikerak, eta
larogei lebatz potiñak.

Ogerleko bat egin dau bertan
besigu aroiak guztiak;
eta amar lauko ta erdi libreak
lebatz amuan josiak.

Erbaixeruak or goian dagoz
araiña iminten naretan[4],-
garbitu arin, lagundu daigun
asto ta mando zametan.

I) cesto,- 2) trineo.

252. MOGEL ETA TXARAKA

Markiña-Etxebari'ko senar-emazte bik
Alaba eder bat euken zeruak emonik;
Eta amar mila dukat lurpean geldirik,
Ikusten ez ebela egunen argirik

Maiterik gurasoak azi eben alaba au;
Parerik bakoa zan basoko lafosa au:
Magalpean ebala amak estalduten,
Aizeak usain ona ez eutsan kenduten.

Sartu zanean dama au amazortzi urtean,
Aiztu[1] bat topau eban etxerik ufean;
Au asi yakan berbaz eraso gurarik,
Ete eukan ezkontzako emonda berbarik.

Baíeka erantzun eutsan bere bizaíetan,
Zelan ez eban ¡gari berak karietan?
Alper aiztua izan zan igesten ariña,
Eldu yakan zankora txakuran agina.

Markiña'ko zaldun bat, etxagun andia,
Gazte dirutsua ta kristiñau garbia,
Bizi zan bere etxean umezurtz ta bakar,
Laguna nai ebala maite izateko alkar.

Gomuta eban bere aitak esaten eutsala
Zaldun bat mundurako gizon erdi zala;
Au ondo siñistuta zan bere gogoa,
Lenbailen izateko bera bere osoa.

Ez yakan ondo egiten geure zaldunari
Iñok ez esatea aitatxu berari,
Eta Markiña'n iñor, orain ez lenago,
Ezta izaten bere aita baño gitxiago.

Apainduta gorputza, egun goiz batean
Joan zan erdi-bila zaldien ganean;
Arteztu eban zaldia damean etxera,
Izateko beretzat mandatari bera.

Zaldunari entzun eutsan aitak bere eskea,
Ta luzapen baga egin zan egiunea[2];
Irakuri ebazan abadeak deiak,
Eta ezkondu zirean pozik gazte biak,

Alkafentzako baño ez euken begirik,
Bata besteantzako egozan bizirik;
Eta laster seme bat agertu zanean,
Ez egozan munduan, ezpada ganean...

Andiena zanean euren zoriona,
Oera gaitz andi batek bota eban gizona:
Alperik eragin yaken botikako drogai,
Gaitxak gizon gaisoa ez eban itxi nai.

Medrkuen aginduz egoan gogoketan
Etorkizuneko ta oraingo gauzetan,-
Ta eskatu ebazan, kristiñau modura,
Mogel abadea ta Txaraka eskribaua.

Biak joan zirean aureko salara,
Banan-banan sartzeko gaizdunan gelara;
Au egoan Jaunari eskaria egiten,
Aren, itxi eiola geiago biziten.

—Esan barik dakizu, Jauna! neure barí,
Eta ilteko bildufak zelan naukan lafi;
Emazte edera daukat, zeuri Jauna eskerak,
Bai ta seme bi bere bera langO edefak.

Daukat urdaia ugari, zezin-troko andiak,
Eta zotz emon barik barika guztiak.
Ni naiz gorako zara, berako gaztea;
Eta ez yat gogoratuten erdiko nastea.

On bat bear ba'dozu, Santua lakoa...
Or dago Mogel Jauna, bana-banakoa;
Txar bat gura ba'dozu, eroan bultzaka,
Ez iñon bila íbiíi: or dago Txaraka,

Baldin izango bada bien bitartean,
Or daukazuz ugari atso-agura artean.
Oraindiño ezta galdu nire adorea:
Iau urtean biri tan emon dot semea—.

Mogel eta Txaraka egozan entzuten,
Zer egoan gaizduna Jaunari eskatuten;
Ta Mogel'ek edura baño zuriago,
Esan eban: «Gizon au zoratuta dago».

iges eben etxetik, jantzita kapelak,
Bilduragaz nastuta buru ta sabelak.

Mediku Jauna eurakaz joan zan betiko:
Etzan bere bitartez gaisoa biziko.

Entzun eutsan lez baiña Jaunak eskaria,
Sendotu ta gorde eban luzaro bizia.
Au zan gizon arteza, bíufik bakoa;
Bizkaitar euskalduna, ta Markiña'koa,

I) adivino; 2) contrato.

235. GABON-AFARIA

Gabon-eguna da, egun labura, erlojuetan bakarik;
Eztot eukiten iluntzerako belaun bietan indarik.

Neure Maria dabil goizerik intxaut-saltzea gietan:
Inor eztau nai subil ondoan egun guztiau berbetan.

Zazpi ta erdiak emoten dituz etxeko erloju txikerak:
Jezarten gara guztiok maian Jaunari emoten eskefak.

Zatituten dot ogi biguna eta lenengo kuskura
Sendotuteko da amunifurik dagoan txakur adufa...

Lenengo dator orio-azea ondo egosi ta bigunikj
Eztago zeian aza ta lora bere ideko lagunik.

Izan dogun lez, Jaunari eskefak, etxean ugari rnatsa,
Betor txakolin pitxarkadea, ta aren ufengo lebatza.

Ekazu, Txomin, goiko baldad txetxu bateko edontzia;
Gabon dogu gaur, etxeko andrea, eutsi Jenengo zufuta.

Lebatza dago gozoa, baiña eztot ikusten ardaorik;
Ezta euskalduna egin deutsanik Enojan biraorik.

Edan, gazteak, txolindu artean,- ez itxi ardaorik basuan,-
Gaur edozeiñek itxi bear dau garbi basua bafuan,

Ekazu, Kontze, subil ondoti maira makaíao-saltzea;
Jan sendo, neure maiteak; efukia da galtzea.

Eztogu edaten gaur aparitan; edan, maiteak, ugari.
Gabon-gaubean egon bear da, apaldu ezkero, kantari.

Jesus! Maritxu, ze besigua orain dakazun, eíerjk!
Naiago neuke ia onezkero maira ezpaletor besterik.

Ardoa gitxi gaur emen edan da, lau pitxarkada bakarik;
Eztogu egingo dantzarik gero, baruak lagundu barik.

Ura, Maria! Ura, guztiok! Au da intxaur-saltza gozoa!
Urte guztian eztot nik euki gaur baizen pozik gogoa..,

Ea tragu bat, bai ta bi bere edan, maitea, zia lez.
Balitz saíitan Gabon-eguna, bein baiño urtean eztalez!

Baita egin deusku geure Maria'k kafea lapiko baten;
Au da edari gogora barik eztana gogoz edaten.

Betor kopea bete-beterik: kafetara botateko bat,
Beste bat gero neuk edateko, kafea artuta ostekotzat.

Nundi ekafi da neure eskatzera, orain bigafen argia?
Eztogu bear argia geiago, lengoa baiño, Maria.

Dantzan asi yat orain eskatza, eztogu bear besterik;
Eztot ikusten, ai, ze bafea! gazteak, oera biderik.

Zer da, Maria? Eztakit zelan gaur aurkituten nazan ni;
Senar bakar bat len euki dozu, eta daukazuz orain bi.

Eskatu daigun, neure maiteak, oera goiazan baiño len,
Batu gaizala Jaungoiko Jaunak betiko zeruan. Amen,

Eta bi, eta iru, eta lau, eta bost,
Ardaoak moskora emon dost.

254. ANDRA ORDIA

Emakumea bada mats-salda zalea,
Aldean daukaz beti buruko alea,
Ta esteak koroka, eta ordu armiñak[1]
Emoten deutsez gabaz atso sorgiñak.

Ur sutsua oi bada bere edaria,
Sabelak safiago deutso eskaria;
Bada baruan dabil, orduan,
Urdaiía zaunk-zaunka, txakur moduan.

Sua baiño deungago[2] bizitza baten
Da andrea neuri barik ba'daki edaten;
Betiko sua cla aren barua,
Ur sutsu eta ardaoan traganarua.

Andra diru bakoak bakoitxean bat
Etxeko gauzak ditttz edarientzat,-
Erdiak saldu, besteak galdu,
Ta bere ekandu txara ezin estaldu.

Jan ta ausnar bakarean matsen oria,
Amuruturik sari dago andra ordia;
Ba'dira atsoak ardaozoroak,
Miazketan dituez liga moltsoak.

Jazcekotxu bategaz dabützaz beti
Sekula kendu barik gorputz ganeti;
Ba'dauko loirik etxean oirik,
Garbituteko eztauke iñoiz jaboirik,

Andreak dabenian moskor aldia
Laskiturik[3] darabil ule guztia;
Gorputza astunik, begia ¡lunik,
Eta egon ezinda, sari zutunik.

Andrea da barautan berba-gurea,
baiña ordirik ba'dago, ¡tuxurea,-
Bare gangarak daukez zantarak,
ta noizik beiñean zoro-negafak.

Atso bat moskaragaz ituri ondoan
Egon zan makurturik gau bat osoan;
Egun sentían moskor ostean,
Afadea ekusan zala iturian.

Alkaregaz atso bi taberna baten
Egozan ate ostean ardaoa edaten;
Bien artean, aratsaldean,
Txopinka edan eben oiñen ganean.

Ezta bazkalduteko maira agertuten,
Oera bidea baiña erxako aaztuten;
An amesetan dago, ilunetan,
asko edaten dabela at'atsaldetan.

Eskutetan dau gero gelan pitxara,
Eta bere bafuan matsen negara,-
Safi izaten da oean egari
Ta eukiten dau mosuan pitxafa sari.

Amaitu dein baiño len bere egafia,
Siku geldituten da pitxar guztia;

Ames zoroak, pena bakoak,
Gero goizerartean daukaz atsoak.

Puzkor begiak eta bekoki iluna,
Dirudi bost gizonen andra alarguna;
Daukaz begiak itzal-argiak
Eta laster ilteko marka guztiak.

1) apurado; 2) malvado; 3) desgreñar.

255. ALPERAK

Askotu direanik munduan alpefak,
Bardin askotu dira, ai! gizon okeíak.
Gudea dabil orain, isil ugaria,
Zabaldu danik ona alperen azia.

Ondo jan, bardin edan, eta gauza edefak
Bearik egin barik dituez alperak;
Zintzoak jaten dabe bedar ta lastoa;
Zintzoa beti izan da alpeien astoa.

Erlea dabil zintzo egiten eztia,
Ezta baiña ain gozoa bere janaria:
Oraingo gizaldian bakarik alpefak
Eztia jaten dabe, erleai eskerak.

[zanaren ardia patari maitea,
Iñok kenduten deutso esne ta ulea;
Ardi otzana legez dira gaur zintzoak,
Bada lepoan daukez biloiztutekoak.

Ezta idien beafa beretzat izaten;
Berak bear egin ta iñok deutso jaten;
Eztau bere jaubeak gozetan erdia,
Oi dalako zintzoa alperen idia.

Txoriak gizonakaz daukez antz-uneak,
Bada ez oi dabez azten eurentzat umeak;
Txoriai kentzen deutsez umeak alpefak,
Eta gizon zintzoai kintak eta gefak.

Ondo bizi dira alper sasi-jakintsuak,
Baiña ez ondo onek legez koko bafitsuak.

Sasi-letraduentzat eztago legerik,
Eurak daukez saltzeko sakelak beterik.

Txoriari begira dagoan mirua
Alpefa da, ezpa-dauko ziskuan dirua:
Sari egon bearko dau kartzelan loturik,
Juezentzat ezpa-dau topetan dirurik.

Baiña libre edo lotuta, dagoan lekuan,
Zintzoa baiño obeto bizi da munduan:
Gaur alpera izateko eztago lotsarik;
Gizaldiak eztauko bizi-modu obarik.

Asko dagoz alperak eztirudiela,
Gizon onen izena osturik daukela,-
Asko dagoz geldirik bearik bakoak,-
Onek eztira alperak, ezpada zintzoak.

Bai ta ba-dagoz alper eskekoak,
Batzen yatorkuzanak uzkur etxekoak:
Onek basaurdak legez eri guztietan,
Arto-gariak daukaz iñon soloetan.

256. ELISA

Eztakit zer, neure maitea, neure aspaldiko bizia;
Koipea sutan urtuten danez, urtu yat gorputz guztia.

Ai, lengo egunak odai bakoak zituzan neure biotzak,
Eta oraingoak dituz dunak, odaiz beteak ta motzak.

Aingeru batek dama jantzita nauko gaur atsegin barik,
Bere gomuta gozo-mindunak eztettst emoten bakerik.

Bere irudia beti egiten dot nagoanean bakarik,
Bestetarako neure arimeak eukiten eztau indarik.

Gorputz zuzena, gabi-ardatza (ez, dauko, ta bere garia
Ereztun batek artuko leuke, oratz batek lez aria.

Bere ule edefa, seda biguna, da baltza, eroja lakoa;
Ta bekokia zuri ta launa, izur-unerik' bakoa.

Bekan-uleak dira ostarkuak, eta aren bien azpian
Dagoz eíeten zaldun gazteak, mitxeletak lez argitan.

Arpegi baten bizi daitezan matraila bialc bakean,
Sur *baña bako* eder bat dago aizta bien bitartean.

Ago txikiko ate-ofi biak dira ezpan gori koralak,
Zaldun gazteak bioztuteko badira eurenez argalak.

Agin zuriak eta bardiñak, Cuzarateko periak lez,
Daukaz agoan, neure biotza beti daukenak negaíez,

Iduna dauko dama eder onek tornuan legez egiñik:
Siñistuten dot eztagoala mundu guztian bardiñik-

Bere atzaroafak luze ca meiak, azal argi gofiakaz,
Iges eztaien zerura, dagoz loturik ereztunakaz.

Oin txikitxuak dituz politak, estuak eta labufak,
Eta sedatan dagoz gorderik euren aragi ta azufak.

Bakizu nor dan, Elisa edefa, dama bardiñik bako au?
Itandu-iozu ispiluari, ta ak artez erantzungo dau,

Zagozanean, neure guztia, ispiluaren aurean,
Orduan dauko neure maiteak bera langa bat urean.

Irakuíizu maitetasuna neure arimako libruan,
Ikasi daizun eztagoala bera langorik munduan.

Baldin ba'neki gura dozula Inglatefa'ko koroia,
Botako neukez Printzipe Alberto ta bere emazte baroia.

Euren lekuan, sultana edefa, iminteko zu bertati;
Nai ez dabenik Londres'en bada, ¡en eskegita samati.

Gura ba'dozu zartuta gero, luzacutea bizia,
Ekanko dot Paradisuti onetarako jakia.

Eta, osagilak, euki daizuen orain ta beti lotsea,
Eurakaz naste dakarenean, ilgo dot eriotzea.

Ugarte[2] baten zeuk nai ba'dozu atsegin utsen tokia,
Zeru-zaci bat ekafiko dot, eta biontzat gloria.

Ezin neinte ni zu barik bizi, eta au da egia ziufa:
Zu zara, Elisa, neure arimea, ta zu barik ni... lufa.

Eztot nik ezer munduan gura, ez bear bere, zu barik:
Neure biotza betetuteko ezta gaur bizi damarik.

Batu gaitezan beti-betiko, Elisa neure kutuna,-
Neure atsekabak amaituteko, lastertu daigun eguna.

I) dobladillo; *7)* isla.

PEUPE ÁRESE BEITIA

Otxandio'n jaio ta i!; 1841-V-26,1906-1-16. Gaztetan ikasi eban Gazteiz'en santugintza, cta bere bizian irudi askoak, bai zurez bai ariz, egin ebazan; baita altara ederak be. Txikitatik olerki-zale be, *1*<\ urteko zala argitara ebazan lenengoak, karlatar gndaczaz. Sorr-lura ca euskera ditu maite, ra ezta antzekoa, oraindik bere egunetan Gernika'ko Zugatz-pean Batzafak egiten ikus zituan-eta. Kliz-OJidoi», Maule'n, Iruña'n, Gernika'n, Durango'n, Araniaio'u, ta abar, amalau aldiz gitxienez, sarituak izan ziran bere olerki eder argidunak. Bein, Iruña'n, Kanpion jaunak itandu entsan: "Zelan eta nondik atera olerki oren edera?» Ta Aíese zintzoak: «Biotzetik urten daust, jauna». Bere neurtitz geienak *Ama Euskeriaren Liburu kanloria'o* batuta argitara ziran, 1900'garenean, Bilbao'n J Astui'ren moldetegian. 125 dira guztiz, ta Kanpion jaunaren ítzaurea dakar. 1930[1] ko iraliaren. 21'an, jai ederak egin ziran Otxandio'n bere opaz; Mezako itzaldia Eguzkitza jaunak, eta ostean, efiko zeian, Ufeta, Aristimuño, Lauaxeta ta Otxolua izlari. Orixe'ren olerki saritua be anexe irakuri zan.

237. AMA EUSKERIARI AZKEN-AGURAK

Neure biotzeko Amatxo zara,
Antxiñako Ama Euskera,
Seme leial bat orain datortzu
Azken agura emotera;
Ainbeste gera goitu ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu-galduta,
Amatxo, zoaz ¡Itera.

Zorigaiztoan negargarri ta
Dot sentimentu andia,
Geure lur maite dakustalako
Gaztelatuta jaria;
Bestela erdu, erdu ikustera,
Tubal euskeralaria,
Baña ez dozu ezagutuko
Orain zure jatoria,

Nun dira, bada, zure semiak,
Foru ta euskera zaliak?
Nun dira, bada, Tubal, gure aita,
Zure ondorengo garbiak?
Nun dira, bada, zure ume zintzo
Eta leialen legiak?
Nun dira orain, orain negarak,
Nun dira nire begiak?

Agur ilun bat egin deuskue
Guraso zaien legiak,
Umezurtz batzuk gelditu gara
Biloxik Foru bagiak;
Izan ba'giña eurak legetxe
Euskeriaren zaliak,
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura ain miragariak.

Erazoiagaz esango dabe
Gure urengo umiak,
Izan giñala, duda bagarik,
Ero ta zoro garbiak;
Jakingo dabez eu^keriagaz
Genduzan eskubidiak,
Erdera-zale giñalako egin
Galdu zirala guztiak.

Zorioneko arkaitzak eta
Zorioneko mendiak,
Orain artian zuek zare izan
Foruen gordelariak;
Zuek goietan beti euskaldun,
Ez alan beian efiak,
Ora zer gero ekaii deuskun
Azkenian erderíak.

Beiatan ia ez dot ikusten
Tubal'en ume zintzorik;
Ez dalako gaur emen entzuten
Erderaz baño besterik;
Onexek dauka nire biotza
Naigabez erdibiturik,
Ez dodalako gure Euskera
Osatuko dan usterik,

Euskeriari goroto eta
Gozau nai bere Foruak,
Dirala uste dot bafu-barutik
Auterestia' zoiuak;
Izan leiteke ori alan, baña
Niri ezetz diñost goguak:
Baldin Euskera bizten ezpada,
lltzat daukadaz Foruak.

Geure efuz, bada, ekafi dogu
Eriotzako uñera,-
Berbeta eder gozo ta leun au
Beste munduko atera;
Norbait ezpada laster minduten
Osasuna emotera,
Mundutik laster juan biar dau
Ama Euskerak bestera.

Ainbeste seme emon zituzan
Itsasorako zoliak,
Liorerako ez gitxiago
Gudari bildurgariak;
Liburuetan ta izkuntzetan
Ugari miragariak,
Il ziran danak, ta orain il biar
Euskera maitegariak,

Or Gernika'ko Arbojiaren
Oñian dago etziñik,
Eztu ta lar i, ia iiian,
Arnasaz bete eziñik;
Au ikusita, ez ete deutsa
Iñok artuko erukirik?
Ez ete datoz bere semiak
Osagafiak arturik?

Ai! neure Ama, gauíko semiak
Deritxat dagoz aztuta,
Eztura onetan lagundutera
Iñor ez da agertu-ta;
Il zaite, bada, bakar ta soilik,
Paradisu'ko izketa,
Sei mila urtian ainbeste damu
Garata mingotz iruntsita.

Zer al dalketzut, Ama, bakarík
Agonia estu oietan?
Zotin, zizpuru, negarez urtu
Etziñik zure onetan;
Parka eskatu seme danentzat
Biotzez bene benetan,
Zure arimia lagun ipinten
Jainkoaren eskuetan.

Zuaz mundutik orban bagarik,
Zuaz mundutik garbia
Zuaz mundutik adorau baga
Ez idi ta ez beia,-
Beti gofotau, beli zapaldu
Zenduan idolatría,
Ta orain zagoz Jaunari emoten
Fedian zintzo bizia.

Il da Euskera! il da Euskeral
Betiko itxi dauz begiak!
Negar Araba'k! negar Cipuzkoa'k!
Negar egin bei Bizkaia'k!
Negar arkaitzak! negar mendiak!
Agortu arte itunak,
Ainbeste geixo, ainbeste gatxen
Osasun emongariak.

Negar Napara'k, geure anaiak,
Ta euskaldun Frantzia'kuak[1]
Neugaz batera danok uratu
Sentimentuz soñekuak!
Aztu istoria edo kondairak
Emengo antxiñakuak.
Ta euren lekuan asi bariak,
Aurera erderazkuak.

Eta nun dozuz, zeruko arbola,
Zuk bere jantzi berdiak?
Zure efamok bilox dakustaz
Igar ta ezkur bagiak.
Ai mingafia! Gaztela'ko afak
Jan deutzuz sustrai guztiak,
Baita biotza, baita baruak,
Azala itxita bestiak.

Zagoze oraindik zutik, artkaitzak?
Doilortu* baga, mendiak?
Samur emoten Somoíostro'gaz
Zeuen ondasuntegiak?
Erotak klan-klan, taun-taunka olak,
Eta pil-pil itunak,
Biziro erekak, baita itxasoak
Opaka araintza ugariak?

Geiegi da-ta, ausi, arkaitzak,
Onegi ez izan, mendiak,-
Lurpetuteko Euskera ila ta
Bere ondasun biziak.
Bera, tontorak, bete aruak,
Erdue Gazteí-lau igarak,-
Agortu erekak, lurtu itxasuak,
Agur, euskeldun ibaiak!

Geure Eria, gizaldi danak
Zugaz dira gomutauko.
Ez dabelako beste eri bat
Zu duin garbi aurkituko;
Etsai batzuek alper-alpefik
Zure izena zikinduko,
Zeure Jaungoiko egi bakarak
Dau oso garbi gordeko.

1) pretensión; 2) derrumbarse.

238. BIZI DA AMA EUSKERA

Iru gaubela Amari egiñaz
Nenguan arbolapian,
Neure begiak liortu ezinda
Bere buruko zapian;
Jaunak ez ba leust gorde bizia
Ainbeste miñen erdian,
Bakezko lotan arimiau ta
Gorputza neukan obian.

Irugaíengo gau erdirako
Eztari au zafatu zan,
Begiak agor, pultsuak geldi,
Ozta-ozta bizi nintzan,-
Gizon argitsu bizi eder bat
Nun dakustan zeruetan,
Zuriz jantzita, odei gain baten,
Lauburu'gaz eskuetan.

Eguzki ederak ikuste ezafen
Negargari au lurlan,
Odei iíun bat ipiñi eban
Arpegiaren aufian;
Baltzez jantzirik agertu oi zan
Damuz gojzian-goizian,
Gorde iTargia, lotsaz izafak
Gabaz azaltzen etziran.

Ule luze ta bizar urdiñez
Agura itzaltsu bat zan,
Odei ganian puzkaten geldi,
lkusi neian, egon zan;
Asi zanian, baña, beruntza,
Ez dakit nola, ez zelan,
Oñaztafi bat baño lenago
Jausten yat albuan bertan.

Ni gixajo au, Amari munka
Bekoki ca begietan
Sur, ezpan, okotz, matrala biai,
Esku eta oin otzetan,-
Erdeldun askok ikusi aren
Estura samin oietan,
Ezer-ez utsa ba'zan legetxe
Aufera euren bidietan.

Justuri batek alako otsik
Ez dau, ez, iñoz atera;
Mendiak dar-dar, aitzak lokaka,
Euskeleria ikara;
Ari bat legez, ni otz ta legor,
la zentzun asko baga,
Ots gozo batek bertatik diñost:
- «¿Jaunak gorde zagizala.

Balda zugaz, baita anaiakaz
Natortzu iragartzera,
Tubal aita naz, zerutik nator
Amatxo osatutera,-
Atsegin eta pozez beterik
Zerutar danak batera,
Kantetan dabe: «Izketa artian
Carbiena da Euskera».

Omen artian, baña, nituzan
Entzun nik zure negarak,
Aitu nituzan zerurañoko
Zure dei eta tleadarak;
Beian itxirik itargia ta
Eguzkia, zein ¿zarak,
Oraindik gora igoten eben
Amodio oren su-garak.

Baña nasaitu, atseden zaite,
Seme maitea, ez da i! Ama;
Ume gaiztuen atsekabiak
Geixotu dabe órela,-
Orain guztiak negar dabe egin
Ezaguturik okefa,
Il dalakuan beti betiko
Euskera Ama laztana.

Negar dabe egin Bizkaia'k eta
Araba ta Gipuzkua'k,
Negar dabe egin Napafa'k eta
Euskeldun Frantzia'kuak;
Orain arteko uts egitiak
Daukazuez parkatuak,
Baldin ba'zare aurera izaten,
Anaiok, alkar artuak».

Auxe esanda, putz egin eutsan
Ama geixuari aotik,
Eta bertatik, gazte bat legez,
Onen ganera zan zutik;
Eta dirautsa: —«Ama, jatsi naz
zeruetatik zugaitik;
Seme leial au il ziñala-ta
Neukalako otsez luretik.

Biziko zara, baña, zu emen
Munduak diraun arte,
Lur onetara etori ziñan
Neugaz, orain lau mila urte;
Etsai gaiztuak gera min asko
Ta zauri egin dautzue,
Baña oraindik, Ama, bizkorik
Ikusi biar zaitue.

Agur, zerura ba-nua». Eta
Ceiago etzan ikusi;
Ama bakafik neuri begira
Eta ni, bariz, berari;
Zabalzabalik bere besuak
Eustazan laster ezafi,
Sotil ta umil entzun neutsazan
Berba samufok berari:

— «Pasiño latza irago dot, ai!
Juan diran egunetan;
Neure arimiau neukan ala ez,
Ez dakit gorputz onetan;
Indar bari ta bizi-bizi bat
Biotzian dot sometan,
Odol gaztia darabildan
Uste dot neure zanetan.

Seme guztiai esan eiezu
Bizirik nazala emen,
Ta datozela txar eta onak,
Danak ikusi nagien;
Mundua mundu, arbolapian
Bizirik euki naizuen,
Berbeta gozo eder onetan
Saiatu danok egiten.

Egia da, bai, ume-zurtz gagoz
Foru baga lotsarian,
Baña emongo Arbola onek dauz
Oriak udabarian;
Negu gogor ta ekatx andiak
Artu gaitue erdian,
Ainbeste gatxez ez gara egon
Lenago Euskel-erian.

Zuaz, bariro dirautzut eta,
Neure bedeinkaziñuaz,
Zuaz anaiak argiturera
Emen ikusi dozunaz;
Baña ez, aren, geiago nastu
Erdeldunen oiturakaz,
Neugaz bakarik biziko zare
Munduan acsegiñakaz>.

(rakatsiok entzun neutsazan
Malkuak gorde eziñik;
Aldendu nintzan esku-oñetan
Laztan gozoz mun egiñik,
Neure eriari iragartera
Ez dala, ez, il Amarik,
Eta anaiok gaitiala izan
Euskeldun garbi bakarik.

Neure anaiak, bat izan beti
Euskeldun siñiskeretan,
Bat izan geure uste, eretxi,
Gogo eta asmuetan;
Fede bizi bat baldin ba'dogu
Biotz eta arimetan,
Bakez oraindik biziko gara
Mendi, atx eta ¡baretan.

259. ARBOLA BAT

Arbola bat zan Paradisuan
Jaunak apropos jana,
Mundu guztiak artu egion
Lotsa ta itzal andia;
Bere azpian bizitea zan
Aita Adan'en gloria;
Andik kanpora, zer topau eban,
Ezpada negargafia?

Arbola santu aren azpian
Bizi zan,: Zeruan legez,
Eukazalako atsegin danak
Eta nekerik baperez:
Ai, begiratu baleutsa beti
Lotsa on eta itzalez!
Mundua etzan gaur aurkituko
Onenbeste atsekabez.

Arbola bat zan Bizkaia'n bere,
Neure anaia laztanak,
Zeiñen azpian, pozez beterik,
Egoten ziran asabak;

Kerizpe zabal artan jaririk
Eginda euren Batzarak,
BuzLafi baga, nasai ta libre,
Bizi ziran bizkaitarak.

Bere azpian umildu ziran
Efege Gaztelakuak;
Eta lekurik ez eben izan
Sekula, bariz, moruak;
Atzera gura ba'dogu izan
Libre, len giñan (akuak,
Itxi daiguzan erdeldunentzat
Erdaldun diran kontuak.

Aztu daiguzan geure artian
Izan diran asaíiak,
Izan gaitezan anaia eta
Euskaldun zintzo garbiak:
Betor guraso zaren fedia,
Betoz asaben legiak,
Bere negarak legortu datzan
Ni jaio nintzan Efjak.

O neure Eri maite-maitea!
Zakustaz triste negarez,
Zeure alabak euren buruak
Baltzez estaldu dituez;
Trentza mardoak tiraka atera
Ta sutara bota dabez,
Gaur euskaldunak dirala ofek
Ezin ezagutu leikez.

Ixildu ziran neskatxen kantak,
Mututu artzaintxistuak,
Zelai zabal ta jolas-lekuak:
Afoak-bera, itxasoruntza,
Doiazan erekatxuak,
Gau eta egun txilioz dagoz:
«Ai, gara Gaztela'kuak!»

Bakafik dakust pozgaritxo bat,
Euskaldun amen fedia,-
Benturaz onek bigundu leike
Jaungoikozko asaría,

Eta zerutik jatsi bariro
Galdu zan libertádia,
Mundua mundu, bizi dakigun
Gernika'ko Arbolia,

240. AGUR, UME

(Bere alaba PJJar/xoren eriotzan)

Ez al nozue gogortzat, aren, iñok eukiko;
Ez nagizue atx-arizkotzat iñok bota;
Ez nagiala zentzun bagakaz iñok bardindu,
Nire biotz au erdibiturik gaur dago-ta,

Ez deustazue ausaz[1] malkorjk gaur ikusiko,
Begiok malkoz dodazalako goriturik,
Ain luzaroan nire biotzak eukan patina,
Dalako oso ia gelditu agorturik.

Nok esan daike baña beraren kordeJ meietan
Amaitu dala soñututeko indar dana,
Jtufkxo bat mututu oi dan eran bardin
Agofilean sikatutean urik baga?

Nok esan daike berau aurkitzen dala galduta,
Basamortuan galtzen dan legez bidaztia,
Laño artean dabiíenean topau ezinda
Berak atseden gura leukean baseria?

Bidetik alde daben bat legez orain bizi naz;
Ezin dot topau.atzo nekusan goiz-izara,
Ezin dot jaíai zeren erendu bere egin nazan,
Eta aldatzok iragoteko nago zafa.

Oregattiño agurtzen zaitut, Probidentzia,
Luferatzen naz ezkutapenok adoretan,
Nire asmoak ba'dira bere oker atera,
Zureak beintzat zearo dira gertaketan.

Parkatu, Jauna, parkatu, Jauna, baldin geiegi
Maite ba'neban eta ametan alabea,
Zeren eskiñi neutzun azkenez biotz guztiaz
Artu zengion zeuk besoetan arimea.,

Zergaitik oren gazterik baña nai ete eban
Nire loratxo guri-guriak amaitzea,
Galtzen ebela bere matralak guritasuna,
Ta bere begi ízarezkoak ikustea?

Lafien lafiz, zergaitik aren estu jart zan,
Goregi igoten danean legez txoritxua,
Bere biotza gelditzen zala taupada baga,
izten eustala neure au baña taupatsua?

Oraindik zortzi urte bagarik, o mingaría!
Gorputza itxi arimak eutsan deslaiturik,
Aita ta ama onen ondoan aurkitu giñan
Zer jazoten zan ezin ezelan bafuntaurik.

Marmola bera zirudiala geratu yakun
Len biziduna izan zan nire alabea;
Ez dakit zelan geratu nintzan neu biziagaz,
Zalako bera aitarentzako bizitzea.

Emon neutsazan laztanak asko berari, baña,
Larosatuten etxakon mosu zurbildua;
Ez eben bere ezpan politak zabaldu gura,
Deitu egidan «ene aitatxo gogokua».

Egazti batek goiz jagitean bere abia
Beti izten dau otzitu baga, epeltxorik;
Modu berean gelditu aren aren aoa
Geratu yakon laster gerora otziturik.

Zeren etofi etxakon ari urten eutsana,
Egaztitxoa datofen legez bere etxera;
Ezpada nire umeak eukan uso zuriak
Egatu eban ez biurtzeko ona atzera.

Ordurik ona agaitik nabil beti artega,
Damuz ezin dot iñon bilatu atsedenik,
Biotz oneri eukan biotza il yakolako,
Aitaren biotz onek nor eukan biozturik.

Itxas-azalez dabilan ontzi polita zelan
Baga[2] eskerga batek oi daben ondoratu,
Baletzar batek ao zabalaz ene umea
Niri ostuta sabeleraño eban sartu,

Lora eder bat atzo zan eta gaur da zimela;
Atzo zan nire poza ta gaur yat naibagea,-
Atzo zan nire etxean agaz udabaria,
Gaur bera baga au yat negu baltz ilunpea.

Uste bagako aldakuntze au ikusitean,
Zer egin daiket? noruntz zuzendu nik begiak?
Zeruerarunczz eregitean biotzak diñost
Araxe egan ebala nire alabeak.

Bizi obea aitu ebala fedeak diñost,
Bizi obea artuteafen egin yat il;
Bizi obea goian gozetan dagokit, eta
Ni, bariz, beian onen negarti zelan nabil?

Arbola batek, baña, adar bat galdu ezkero
Agertzen ba'dau sentimentua dabela artu,
Aitaren biotz onek biotza galdurikoan,
Zelan clamurik egingo ez dau gaur agertu?

Ez da mirari, neure umea, zu gomutauta,
Aita au negafez oraindik bere asitea,-
Ez da mirari entzun neutzuzan berba andiak
Neure burutik oraindik ezin kendutea.

Zuri, zuri bai, alabatxoa, entzun neutzun bai,
«Osatu baño zerura joan dot naiago»-.
Ez dakit nundik asmau zenduzan itz ofek, baña
Niretzat gauza ezkuturen bat or ba-dago.

Gauz ixüen bat sentietan dot or ba-dagola,
Gauz ixilen bat, batek bakafik dakiena,-
Ezin erantzun bestela alan zinaidan, Pilar,
Zaíago batek dalako ori al daikena.

Osatu baño joan naiago zenduan legez,
Ontzat artua izan zan goian zure naia;
Osatu baño joan naiago zenduan legez,
Egiaztu 2aii euki zendun erabaia.

Ofexegaitik urten eutzuen bidera, Pilar,
Zeure nebatxo aingerutxoak laguntzera,
Euren erdian igo zinaian izafez gora,
Eurakaz nasi, kantu artean bizitera.

Eurakaz naste erubageen artean zagoz,
Iñoz orb^ndu etzendulako arimea;

Edufezkoak zure jantziak dirudie ta
Eguzkia duin argia dozu arpegia.

Ortxe gozetan bizi zaitez bai, alabatxua,
Orban bagako Bildots otzana adoretan,
Efeguturik egunen baten zure aitamok
Igo daigula oraxe bera alabetan.

Ofexegaitik zuk ez daukazu damurik orain,
Aita ta ama balcarik emen itxiteaz,
Eriotzea irago[a] eta zagozalako
Atsegiñetan emendik ora igoteaz.

Zure gorputza ba'dago bere lurperatuta,
Egunen baten aterako da ain edefik,
Azuzena ta lirio zuri-zuriak baño
Zuriago ta iñon orbantxo bat bagerik.

Agur, umetxo, ikusi arte ortxe zeruan;
Agur, agur bai, gelditzen gara gu lurean,-
Agur, biotzak zeren eroan zeuk deuskuzuzan,
Agur, ume, guk pozik ez dogu emen bean.

I) por ventura'; *1)* ola; 3) pasar.

241. ANJELA

Ez dot tintarik edo ur baltzik bapere bear,
Begietatik odola darit gaur naikoa;
Utsik bear dot paper Mun ta baita luma bat,
Labañearen aldean ondo zoroztua.

Guztiz biziro gaur eskribidu dagistan berak
Garbiro nire baruan dana iragoten';
Nire damu au zelakoa dan mundu guztian
Malko goriaz ipiñi eta leidu daiten.

Sabel au daukat laba bat legez gori-goritan,
Garak kanpora urten nai eta ezin urten;
Ok egiten deust eztaíian ta lafiak legez
Suzko boladak asi bearko dot botaten.

Urten zaiteze nire agotik, suzko efekak,
Urten zaiteze estuen-estuz enadín il;

Urten zaiteze, kolkoan zuek zaituedata,
Ito gura ta ito eziñik, ai! gaur nabil.

Urten zaiteze, zuen beroak zergaitik naukan
Topin bat legez gar gar-gar oso irakiten;
Alan basoan, zelan etxean, ain gitxi oian,
Atseden pixkat gozetan bere ez deust isten.

Asteak doaz, asteak datoz,- baña su onek
Garen indaíik apurik bere ez deust galtzen;
la mamiñok ezer-eztu ta unetaraño
Asirik daukat kiskaltzen naben gar au sartzen.

O Amodio benetakoa! ze desbardiñak
Direan zure ain egitada zurgariak!
Len poztu eta orain tristetu egiten nozu.
Zelan al dozu nigan kontrako gauza biak?

Gauza bi oneik eragin deustaz amodioak,
Azur usturik jarírjk nauka igartua,
Jaririk nauka anka bakar bat oi dan erara,
Nai eta nai ez bear dodala makulua,

Jaririk nauka soldau eridu baten antzera,
Iñor bagarik leku uriñean non topauko
Ongiíaren bat; eta dei triste oneik entzunda
Nortxobsit etxat erukiturik azalduko?

Iñondik bere ez da izango nire zauri au
Kurauko deustan biotz onen bat agertua?
Ai! ez ete yat norbait onuntza uferatuko,
Jagiko ba'naz, luzatutera bere eskua?

Sorura zelai adore baga jausia nago,
Nire lagunak bakarik dira naibageak;
Nire etxeko zurkuluetan ez da besterik
Lenago berau zer izaten zan señaleak.

Non da an argi egiten eban izar bizia?
Gaurko argi-gei danen aldean eguzkia?
Ogei eta bat urtean pasan amatau baga
Bere garagaz ni argitzeko zan zuzia?

Non da beraren arpegi eder erañutsua?
Non da ak niri egiten eustan abegia?
Non aren txera, ongi-etori ta ago gQzoa,
Eztia baño jausten etxakon ituíia?

Non da gureko egazti zuri ego-zabala?
Txitatxu biak euren bafuan gordetako?
Non ama samur eta apatza bere aingeru
Biak altzoan beso artean estutzeko?

Zer da gaur gure ezkaratz edo su-ingurua?
Kantu bafiak egiten ziran tokitxua?
Nora biurtu yaku kaiola euskerazko au?
Zelan jari da ain basamortu mututua?

Non da bertako arbola eder besangatsua[2]?
Kerizpetuten ebana bere etxadia?
Zeñek girotu egingo gaitu uda eíean,
Gaietan jagi egiten ba'da eguzkia?

Non da arako karidadedun andra andia?
Gazte, pobre ta bilox tristeak jantziteko?
Zelan itxi dauz gaur emen bere zatiak deslai[3],
Len besterenak izaten zanak jasoteko?

O! zenbat umezurtzek beragan euken ama bat!
Orain bereak aurkitutean ama baga,
Zer diñozue, zeru gogofok, zer diñozue?
Alan saritu nai gaituzue, alan bada?

Au da ordaña, au da eskera, au alogera
Aingeru baten antzera bizi zanarentzat?
Nor izango da bere lekuan beste aingeru
Gordetzaía bat bere umezurtz gaixoentzat?

Bakit, Anjela, zeruak naita, zelan egin zan
Jaio Aingeru Goardakoaren egunean;
Bakit Abade Jaunak eutsala Aingeruaren
Izenaz deitu ura burura botatean.

Bakit izen au loitu bagarik ebala gorde,
Egitadakaz ebalako ak erakusten;
Alan ezpada, itandu bedi auzo guztian
Ea zer daben Anjela'gaitik erantzuten.

Bera izan zan ume-denporan pitxi-lora bat,
Lirio zuri niri eskua emotean,-
Gero izan zan Aingeru-Goarda gure etxean,
Eriotzeak korañeagaz jo artean,

O! zein ederto ak bete eban Aingeru lan au!
Niretzako zan bere betiko ardurea;

Nik ezingo dot lumaz ipiñi norañoko zan
Bere biotzak niretzat eukan amorea.

Bera izan zan gure etxeko ondragaria,
Bera izan zan ni gordetako gaztelua,
Bera izan zan ekatx. mueta guztien kontra
Buru gañean jariten yatan eskudua,

Bera ¡zan zan neu legez arte eder zalea,
Bera liburu asko ebana irakurten,-
Nire lumeak eskribietan ebazan letrak
Berak zituzan borau ta asko obeluten,

Bera izan zan, egia garbi kantau nai ba'dot,
Gauza askotan ni zuzentzeko irakasla;
Bera izan zan, tantai bat legez aretx motzetan,
Anjela, andra askotan buruz jaso zana.

Agaitik zeñek osatu leiket bere faitea"?
Zeñek ornidu alboan itxi eustan utsa?
Ze garatza dan edan beara kalizatxo au!
Alako lagun bagarik, ze min alarguntza!

Nok lagun egin leiket urteten troka ain sakon
Sastraka baño besterik ez dan onetatik?
Zegaitik alan largau ninduan neure usoak,
Iges egiñik moldau genduan abiatik?

O ez-beara! odeiak kontra jagi yatazan,
Oñaztafi bat gure gelara jaurtigirik;
Negu otzeko gaberdi baten itxi ninduen,
Neure bizitza erdia zana ebagirik.

Itxi ninduen mendi zorotzez inguraturik,
Itxi ninduen atx-arte baten txito preso;
itxi ninduen bide guztiak zaíatu eta,
Txarago dana, begietatik itsu oso.

Itxi ninduen ontzia ausi ta oratz bagarik
Itxas asare amoíatuan ilunpetan;
Faroí bat bere ezin begiztau iñon nebala
Ezelan bere Euskal-eíiko portuetan.

Itxi ninduen nafu-gorian lotsaz bilosik,
Itxi ninduen biotz bikotx au bakartua;
Nafas, lurean, loíinka, lan, gafasi baten,
Eztari danau jari artean zaratua.

Ooiai laguntza eskatutera beartu nintzan;
Baña len bigun yatazan atxok gogorturik,
Sortu, leortu, gortu, dolortu danak egiñik,
Ai! batek bere ez eustan egin kaúsiñorik.

Izarai gero poza eskatzen bildurtu nintzan,
Bat jausi eta bertan zapaldu enengian;
Bildurtu nintzan lufak uts einda bear nebala
Ondatu bere eraietako sutegian.

Jauna, eiiintzan neure Anjelaz betiko batu?
Jauna, eneutsan beretzat emon nik biotza?
Jauna, beragaz bat-bat nintzan ta batera ilik
Zelan ez dogu bardin guk igo Zuganuntza?

Ausaz enintzan, Jauna, ni jaio Anjela legez
Zu gozetako beti-betiko urtietan?
Jausiko naz ni agiñ-kurízken lekuetara?...
Ez, ene Jauna, artu naizu zeuk besoetan.

Gorde naizu Zeuk, Jauna, betseiña oi dan erara,
Ezkutau naizu Zuk zeure beso zabalagaz;
Jan naizu Zuk, Zeuk dozun orduren baten,
Goiko erian gozau zaidazan Anjelagaz.

Ai! bitartean, baña, ba'neki baso ixil bat,
Bertan egiñik txabola txiki bari baten
Neure emazte, neure zatia len zanagaitik
Negar inalkoak utsik edanaz bizi naiten.

Antxe bai pozik emongo neukez ordu osoak
Gogoratuten nik Anjela'ren birtuteak;
An bai egunak emongo neukez irakufiaz
Itxi eustazan gomutagafi ain luzeak!

An bai beraren espirituak ninduke poztu
Egingo gabaz, lotan nagola amesetan;
Agertuagaz edufa baño zuriagorik,
Kontauko leuskit zelan bizi dan zeruetan!

1) suceder; *7)* frondoso; 3) abandonado

242. ANTXIÑAKO DENPORETAN

(Urkiola'ko bernan eka/x andiko gau baten batu zirean sei bertsolariak),

Lenengoa, O/e/a'ko bidari bat '

Gaur eldu yaku gau bat, ain otz eta tristea,
Odei-piío afeak dabiltzaz batuten;
Gorde dau llargiak arpegi zurbildua,
Zeruan izartxo bat ez da agertuten.

Len erdí-entzuten zan aizeen durundua
Oiz aldetik ora, ora nun datoren,-
Troketan jausten diran ur minduak ez dira
«Ai ene!» ta «ai ene!» txilioz ixiltzen.

lien zelaiko zugatz oriak ikaraka
Aizerik bere baga daukazanagana
Ontz bat uluka joian, zeren bere azpian
Gizonen bat lurpetu ei eben bein bada.

Gañera ikusi dot Anboto'runtza egan
Joiala azufuts bat koraña bategaz,
Eta desagertu yat oñeztu bat legetxe,
Norbaiti ekitera, uste dot, goguaz.

Beintzat txakur-auziak Atxin baño gorago
Txabola baten ziran estu ta lanak;
Duda bagarik esan nai ebela uste dot
Nausia il yakola aren intziriak.

Aize-putzak txistuka pago erarnatzarak
Baibenka darabilen ausi agiñean,-
Soñu ofeek entzunaz otso bat topau neban
Lotan ta koíozaka baten adarpean.

Gidariak ezin íei biderik bilatu gaur,
Zeren zeru ta 1urik etxakon agiri,-
Bildur ikaraz dabil lokatz ta aritzan
Egingo ete daben ankea ipiñi.

Bardin sartzen da nartzan, bidetik aIdendurik,
Bardin zelaian bere tabandurík jausi;
Ereken murmuloa entzun gura (eukela
Nun doian jakitearen dabil baregari.

Tope egin ez daian mugaritzafen baten
Eta bertan ez dedin ilotzik geratu,
Gura leuke odeiak, burukan egiñagaz,
Oñeztüak ba'leiez sari-sari sortu.

Mamu bildurgarriak ara-ona dabiltzaz,
Areak, zurbilak ta zuri eta baltzak.
Gaba gabekoentzat, gizonentzat eguna,
Niretzako ez dira ilunezko gauzak.

Orain ulu triste bat, orain ixiltasuna,
Orain sunbil bategaz bildurtuten nintzan;
ilak obietatik urtenik dabiltzala
Gabetan uste dot nik deslaituen gisan,

Nekez emen eldu naz benta onetara gaur,
Gaba au edola bere bertan egitera;
Erukitu zakidaz, zeren galdurik nator,
Ostatu onetako ugazaba jauna.

Bigafena, Atxarle'ko eizari bat

Goietan aizeak indartsu ebiltzan,
Euria jausten zan geratu baga;
Mendi-megopea Atxarte'n ebilan
Batetik bestera eganjiraka.

Bere ots eskergak, trumoien antzera,
Bildur ta ikaraz bat eben jarten,-
Atx-afien batzuk jausiko ete ziran
Neu beiñik-bein asko nintzan izutzen.

Urakan gogorak mendi goietatik
Beor eta beiak bota dauz beera;
Eurien euriaz, otzak kiküdurik,
Gaizoak joiazan atxpeíetara.

Erekak sendaro bitza dariela,
Doaz zezenduta, amofaturik,
Ez da azartuko saltoz iragoten
Arískurik baga ni lako zafik.

Atxarte'n dagoan txabolatxo atan
Eizariak gara sustoz esnatu,

Aize-putz zoíotzak zeren iíizkitu
Guztiak zituzan laster askatu.

Danok asi aren bedar ta orbelez
Zaratu gurarik arapataka,
Txarko bat sarturik uste-uste baga
Bear izan dogu urten kaíaka,

llinti igarak eukiafen surtan,
Bat-batean zeatz deuskuz amatau;
Biar izango dau ara eltzen danak
Eurakaz su-gafik samur bafistau.

Artzain gizajoak atxera igo dau,
Berak an dakian koben batera,
Gabau joan arte beraren baruan
AI daben modura atsedetera.

Nire lagunuoak artzaiñari deutse
Jaraitu atzetik toki atara,-
Ez nebalako nai arei jaraitzerik,
Bentaria, nator Urkiola'ra.

/rugarena, Zaibegi'ko ikazkiñ bat

Mendietatik aizeak beeraturik sakonera
Ikazkiñai loak artzen ez euskuen itxite»;
Alako baten tantai bat ondotik ausi dabe ta
Gure txaboiea joaz ondoan yaku jausten.

Ordu erdi tertzioan txabolatik ni urtenik
Pago zugatz aro baten gorde bear izan naz;
Gau guztia iragoko bertantxe poz-pozik neban
Galduko nintzan bildura euki ezpaneu otzaz.

Zaibegi'ko tontoíean lañoz erdi-estaldurik
Ilargia agertzean arpegi motelagaz,
Gauza txarik uste baga, bideari ekitera,
Damutuagaitik gero, gizajo au asi naz.

Ekatxen iragarlea zala laster ezautu dot;
Oñeztu, trumoi, trujuak, laster dira abiau;
Arnasaz bete eziñik ito bear ninduala
Aldi baten erabüi bisutsak dongaro nau.

Zeru goian eralgiten ziran odeizko armadak,
Or-emen zituezala bitarteak jareiten;
Euretatik begi oneei pozgaritzat nozian bein
Izartxo bat edo beste eutsen erakutsiten.

Espiritu ekatxgiña ikusi dot ain asare,
Belea baño baltzago, ain ¡lun, ain itzaltsu,
llargi motela zelan mendi ostetik agertu,
Ikatzezlco kapeagaz bereala dau batu.

Onagiño igotea, bizia salbeta aren,
Gura neban, bentazaña, gaur al neban moduan;
Emen nozu efukafi, il ez nadin otzen otzaz,
Efezki artuko nozu zure benta baíuan.

Laugarena, mandazain bat

Amaitu ziran ekatxak danak,
Ez datoz atzera geiago;
Garbitu zeru-aldea da-ta,
Indriskak zirean írago.
Izafak argi dira ikusten,
Ez dira len lako erdi-ilak;
Zeruak ondo bizirik daukaz
Beraren begi biribilak.
Odeiak, eurakaz bat aizeak,
Emendik ba-doaz igeska;
An goian orain Iratargiak
Bareka arpegia dauka.
Erekak asi dira makaltzen,
Arbolak dagoz ain geldirik,
Bakean zerua eta lufa
Dakustaz adiskideturik.
Gaba len ezaiña ba'zan bere,
Ai, orain guztiz da edera!
Askotan mandazañentzako au
Eguna bera baño obe da.
Mamurik ez da iñon agiri,
Ontz danak jafi dira lotan;
Gautafak eta sorgin guztiak
Ostendu ziran zuloetan.
Zerua, ara zein edefa dan,
Mendiak ofa ¡¡argitan;
Zutunik ofa atxak dotore,
Soldadu zaintzaíeen gisan.
Zeintzuek ixilik egonafen,
Are nik ba'dot egiten,
Mandazain ba'lira legez eurak
Bertatik: «afe!> dabe esaten.
Ai! baña neu eta bai manduok
Aurkitu baten txarto gara,
Ez neban bizirik urtetea
Sinisten Garaitofe'n bada.
Gefeak baña zelan atzetik
Seguru dakafen bakea,
Denporak modu berean dakar
Txafetik onaren txandea.
Bildufak iñoz baño geiago
Irago zelan gaur ni naben,
Lo puskat egitea nai neuke,
Ostatu-zaña, orain emen.

Boskarena, Alt un'go artzain bat

Egia da, bai, gaba puska bat dala argitu,
Baña alan bere ez da zerua oso garbitu;
Odeizko belak Iratargiak daukaz oinpean,
Keiak legetxe igo dabeenak Gorbeia aldean.
Baita izarak apurkaapurka doaz estaltzen,
Zeru zabala geldi-geldiro ezkutatutzen;
Mendi, atxak ta ibaiak dagoz orain itxusi,
liuntasunak ia guztiak dituz iruntsi.
Oíarak zelan ots egin daben «ba-doa gaba>,
Iratzari naz lo nengoana bere kantua,
Eta txabolan ilda egoan sua dot biztu,
Autsen azpian obipeturik zana aurkitu.
Eizari batzuk an itxi dodaz jana prestetan,
Egunerako gelitiontzuak surtan eíetan,-
Txakurak bere gelditu dira an jolasean,-
Estu egozan urten gurarik eizen atzean,
Baña oraindik nire ustean luze da gaba,
Ez dot sinisten urtenik dala izar goietara.
Bada-ezpada agaitik nator Urkiola'ra,
Kamañan egon gura ez neban goiz arte ala;
Ekatxak baldin asten ba'dira lengo ganoran,
Ezin leiteke busti bagarik egon txabolan.

Seigarena, osta/aría

Zer deusku guri eguraldia
Bildurgaria
Izanagaitik kanpuan,
Ona ba'dogu bainan?
Zer deusku guri gura ba'dabe,
Naiz ezpadabe
Jausi cdurtza andiak,
Bardin edafaz euriak?
Zer deusku bariz orain aizeak
Txistu tristeak
.loaren, eta landarak
Triskauagaitik dan-danak?

Zer deuskun diñot baldin ba gagoz
Ogi-ardaoz
Gertaurik urdai ta babaz,
Zezin, arto ta gaztañaz?...
Jausi beitekez ekatx indriskak,
Edur zurizkak
Andi naiz pixkak;
Mamuak bebiltz aidean,
Cura ba'dabe lurean,
Eurak nai daben aldean.
Dantzau begie atso-sorgiñak,
Tximur, ziztriñak
Akelafe'ko zelaian,
Gau lenean zein amaian,
Eurak nai daben garaian.
Dantzau guk bere ba'gendu gura,
Aren modura,
Etxean ba-da txistua,
Edera txilibitua,
Obea danbolintxua;
Baita alboka éntzungaria
Zoli-zolia,
Polit-txikia
Adartxo bigaz egiña,
Joten nebana antxiña,
Nintzan sasoian artzaiña.
Mari, zuk egin bizkor taluak,
Ez mordoluak,
Ta bai meetxuak,
Ostriaren antzekoak,
Arintxo efetakoak,
Esnetan ondo itorik
Jan dagiezan gozorik
Afotzok pozez beterik.
lk bitartian jo tuntuntxua,
Txomin gaixua,
Peru'k txistua,
Praisko'k alboka zolia,
Juana'k atanbor baria,
Txilibitu txikia nik.
Jolas-aldi bat egiñik,

Emendik puska batera
Goazen guztiok oera
Lo apur bat egitera.

245. ZOAZ ONDO, AMA!

Onelan zuk, Ama, largauko gaituzu?
Onelan ainbeste seme-alaba?
Zergaitik ez gozuz, zergaitik ez gozuz
Zeugaz eroaten zcruetara"?

Gure zizpuruai ez entzun eginda,
Aíiturik nago zelan zoazan.
Ete zoaz, Ama, ete zoaz, Ama,
Pozik baga emen bizi gaitezan?

Zugan ipiñirik daukana biotza,
Zure besoetan nai dabena lo,
Ama, zu ba'zoaz, Ama, zu ba'zoaz
Zelan aurera da bizi ¡zango?

Zugaz nasi egan egin gura neuke,
Zure mantuari nik oratuta;
Baña ezin igo, baña ezin igo,
Nagoalako, ai! luraz lotuta.

Zoaz ondo-ondo, zoaz, Ama maite,
Zeru gurenean jezaíitera,
Eregiña antxe, Efegiña antxe
Falta dabe-eta, agindutera.

Begira dagotzuz zerutar guztiak,
Noz igoko dozun euren Er ira;
Ongi-etofiak, ongi-etofiak
Egiten bidera urtenak dira.

Naiz ta gu gelditu, Ama, zu bagarik,
Ume zurtzak legez emen lurean,
Ez gagizuz aztu, ez gagizuz aztu,
Jaíjagaitik zu zeru ganean.

E&ENTERIA'TAR GORGONI, «EREBIDO»

Elantxobctara. Olerkitxo edernk argitara ebazan Pilipinas'en bizi zan euskaldun onek. Egia esan, euskal-biotza edonun kanta-zale, baiña atzeriai» ba'dago, azkor-miotsuago kanta oi dau

244. LORA BATERI

Ede/a ziñan atzo goizean
lora guztien artian,
usain gozoa jartzen zenduan
zeure inguru guztian,-
beste loratxu danen ganetik
buru erakutsi naian,
margo askoko ofiz beterik
aro ikusten ziñian.

Naikoa ez-ta, atzo goizeko
zeure izate guztia,
arratsaldean agertu ziñan
asko gorago jaría;
ostuten zeutsan beste lorarj
eurena zan eguzkia,
biotz zeurean betiko itxirik
erukiaren atia.

Ta gaur goizean ikusten zaitut
bien ganera jausita,
arotasunen astuntasunak
sustaretik apurtuta;
zure inargodun (ora ederak
iñuritxuak artunda,
guztiak dabiltz or eta emen
banaturik zabalduta.

Beste loratxu guzti-guztiak
zu olanik ikusirik,
geratu dira azi nai ezta
sustaretik loditurik;
zure kaltea ikusi dabe
geienak pozez beterik;
eta zelan ez, ez ba'zenduan
zeuk be eurentzat erukirik?

Edertasunak ta arotasunak
ezpa-dabez sustrai onak,
bi-biak dabez euren buruen
areriorik txarenak.

245. URUNTASUNA

Jakitun batek esan ei eban,
—ez dakit nungo lekuan—
uruncasunak maitetasuna
kentzen ebala beineuan[1].
B

Jakitun onek, nire eritxian,
ez eban euki goguan
beste guztiak ez zireanik
bera lakuak munduan.
Urun daukat nik Euskalefia
joan dan aspaldi onetan:
asko ba'neban lenago maite,
geiago dot gaur maitetan.

Uau eta egun, lo ta itzarturik,
beragaz naz gomutetan:
Jakitun onen esaerea
ez da euskal-biotzetan!

Munduko toki deuntu[2] edera,
noz ikusiko ete zaitut nik,
neure jaio-lur maitia?

Zure semien ufuntasuna,
erbestetasun-nekia,
beti negafez zeuri opaurik[3]
biotz eta gomutia.

Ufuntasuna deritxat dala
maite diranen artian,
zauri andi bat beti negafez,
arik uratu artian.

Ortik dabiltzan euskal-semiak
Euskera entzun naiezik,
urren daiela, gure antzera,
euskal-lur maite-tnaitetik.

Maite ezpa-dabe euren izketa,
Euskalefian bizirik,
egongo dira gau eta egun
negafez entzun gurarik,

1) al instante; 2) santificado; 3) ofrecer.

ARZUBIAGA

lkusi *«Euskalzale.»* alclizkiugia (1897), 387 or.

246. SORKUNDE GARBIAK!

Amaitu da gaua ta Febo'k
buztartu ditu zaldiak...
Abtetan da bere burdian,
ia igo ditu mendiak,-
aro panpafoi a ikustean
zabaltzen txinpart argiak,
dakust benetan gaur dakazala
bari on ta pozgafiak.

Amaitu ziran Eba gangafak
ekafi euskuzan penak;
ufundu dira gau baltz iíunen
berunezko odei astunak;
gaur sortuten dan eguzkitxuak
uxatu ditu dan-danak
Pozez beteak izango dira
aurerantzean egunak.

Aingerutxuen talda andiak,
jira-biraka zeruan,
dabiltz kantetan eta olgetan
Maria'n tronu albuan.
Euren eguak ega-beraka
astintzen dauen lañuan
eskiñiagaz eres bigunak,
kantaurik arpa gozuan.

Dontzeía gazte guri-guria,
txukun lirañik jant-zia,
lirio lora polita legez
guztia zuri-zuria:
Lora sorta bat dua eskintzera
neguak ezerik itxia,
ta lora artean biotz biguna
opatu dautzu, Maria.

Koblakariak alde batera
itxirik kantu tristeak,
ipinten danez euren Uretan
gaur kordel alegereak;
bazter danetan zabaldu daizan
kanta gozuak aizeak,
kantau daruez Ana'n alaban
birtute guztiz nobleak.

Ni bere nator, Ama maitea,
zure altara eder aurera;
Ez dakart baña kanta bigunik,
ain gitxi loraik Zugana;
bakar-bakaíik daukat (ira bat
beti negafez dagoana,
eta biotza armin-armiñik
minberatua dan-dana.

Kantau nai dautzut orelan bere
zeure Sorkunde Garbian;
kantau nai dautzut, baña itoten da
kantua nire eztarian;
kantau bear da pozezko kanta
gaur dogun egun andian,
eta ez dago kanta gozorik
nire lira negartian.

Zuk egin zeiket, Mari edeía,
Aingeruagaz bialdu
lira baria, zoli-zolia;
edo bestela zolitu
kaden negarti daukan neurea;
Ama, zuk ori egizu,
eta bertatik kanta samuíak
arek gaur kantauko ditu.

Kantauko dautzu Zu zareala
beti-betitik autua,
izan zaitezan uiol andian
kutxa santuan usua,
Zuk ekartean zure pikuan
kimatxu eze-dontsua,
bildura kendu ta poztu daiten
Noe aitalen gaurkua.

Kantauko dautzu Zu zareala
izar diztiatzailea,
gure auretik beti doiana
erakusteko bidea;
Zuri begira ondo doiala
mariñel gizon trebea,
beti seguru, joko ez duala
atx gogor ta eskergea.

Lirio lora-sorta batean
zara Zu berarizkua,
beste guztien gaiñetik gora
dozuna agertzen burua;
zeure kolkuan gaiñezka dozun
iñontza eta garúa
osasungari da, egon daiten
sortu guztia eztia.

Zara Zu, Andra zoragaria,
orban bagako andrea,
deabruaren arerioa
ta buru-apurtzailea:
orexegaitik kantetan dogu
dala zure Sorkundea,
garbi-garbia ta pozgafia,
bape obenik bagea.

BALBINO OARITA-ONAND1A, APAIZA

Eleiz-gizon on eta langiiea; Duraugo'ko Ana Donearen eleizan, luzaro egon zan arima-zain. Ba-ditu garai artan idatzitako euskal-liburuak. Itz-neurtuetan be, nozik-bein, ustu eban bere biotz-azpia.

247. JESUKRISTO GURE JAUNARI

Zerura dua, zerura dua,
Jesus gure txit maitia,
Lur giro txar ta elkor-elkor[1] au
Itxirik onez betia.
Zakustaz, Jauna, inguraturik
Aingeru ederez guztia.
Ta zeru goian Zu artuteko
Dakust, nor?... Aita zuria.

Zerua dago urdin-urdiña,
Muru-garaiak[2] pozturik,
Mendi-zelaiak, padura[3] danak
Lora politez jantzirik;
Apostoluak ta Ama Birjiña
Dagoz bakarik tristerik,
Euren Maisua dakuselako
Bere Aitagana goiturik.

Aingeru batzuk agertzen yakez,
An, supituan[4], aurian,
Eta dirautse; «Zeren, gizonak,
Zauze emen, mendi-ganian,
Gora begira?... Jesus berbera
Etoíiko da airian,
Itzaltasunez, mundu guztia
Juzgetan datorenian».

1) estéril,- *7)* collado; 3) cacnpiña,- 41 de improviso.

248. ZAZPI EZPATAK

O, ze oñazak, Jesus'en Ama,
Zeuen Biotzen erdian,
Simeon zafak bioi ezpatak
Aitatuteaz batian!...

O, zein mindua, Ama, Jose'gaz
Jesus zenduan gordeko,
Ijito alderuntz gabaz ígasi
Erodes'ek ez ilteko!...

O, zein iluna Biotza eukazun,
Ama, minduraz betea,
Iru eguntan uri guztian
Ezin biíaurik Semea!...

Nok esan, Ama, zeure naigabe
Gogorak, ikusitzean
Zure Semea kurutze-kargaz
Samintasungo kalean?

Ama zelan iraun, ainbeste miñez
Kalbarioan jaigita,
Zeure Jainkoa zekusazula
Kurutze baten josita?.

O, ze negarak, Ama gozua!
O, ze anpulu malkoak,
Kurutzepean Gorputz ilotza
Artzean zeure altzoak!..,

O, ze samiña, Gorputz santua
Obi barian itxirik!
Ama Dontzela, gorde gagizuz
Beti grazian bizirik.

MELTXOR ANDONEGI, APAIZA

Begiz ikusi ta eskuz ikutzen dogun zerbaitek eskeñi oi dausku sari-askotan olerki-gaí bikaiña; gero, geure antze ta barne-suz jantzi oi dogu kanpotik artutako gai ori; ta or, etxegileak ari landuz etxe lerdena lez, eder-zalcak itzez oierki joria neurtu. Órela dagi gure apaizak Begoña'ko muña ixilean. meadi-zugatz-armaiíak begipe izanik.

249. ANDRA MARIA ZERURA

Andra Maria, Zerura zoaz
Seme Jesus'en bcsuan;
Antxe bai ondo artzen zaitue
Atsegiñezko kantuan.

Ai, ene Ama! Nok al eikean
Zure jantzitik oratu,
Mendi santura gaur igon eta
Aingeruakaz gozatu.

Atsegiñeko soñu gozuak
Zedron aldetik dantzudaz.
Ama laztana! zerutar danak
Poztuten dira gaur Zugaz.

Urezko jantzi edefa dozu
Apaingaritzat soñean,
llargi zuri zilafetua
Sapingotzako oñean.

Sion santuko gain buru baten
Eder ik dozu jargoia,
Zeure burua izan edefez
Apainduriko koroia.

Eba'ren seme erbestetuok
Begira gagoz Zuganuntz.
Ama samurai Biur egizuz
Begi bigunok guganuntz.

Egun-sentiko izara legez
Eguzkiaren aufetik,
llezkofezko argi dontsua
Emon oi dozu zerutik.

Biotza dozu samura eta
Eskuak guztiz zabalak:
Jaunak Zugaitik artu daizala
Adan'en seme-alabak.

250. GARBITEGIKO ARIMAREN DEADARAK

Ortu santuan nenguancan
Gaberdi baten bakarik,
Arigarizko dedar itzalak
Urteten eben lurpetik.

Garbitegiko arimak ziran
Ainbeste neken artean,
Su-lokariak eten ezin ta
Laba goriko garpean.

Baleitez bigun gure biotzak
Eskatuteko Jaunari;
Ainbat lasteren igon dagien
Zerura Garbitegiti!

Aita ta ama, neba, areba,
Senide eta lagunak,
Sugar biziak ereten ditu
Garbitu arte orbanak.

Guraso batek laririk diño,
Suzko izerdi bitsetan:
«Esker gaiztozko seme alabak,
Aztu nozue benetan...»

Guraso-dedar lanetara
Gortuten dana munduan,
Beste ainbeste igaro gabe
Ezta sartuko zeruan.

Gaztetxuterik guraso kutun
Beti zan alaba onak,
Suzko gelatik negarez diño:
«Ze laster aztu nau amak!»

Adiskideak, edola bere,
Eruki zaite gugaitik,
Ainbat lasteren igon dagigun
Zerura Garbitegitik.

Jesus, gizonen Salbagilea,
Ba'gunzke presontegian,
Alegin dana egingo geunke
Aterateko ustian.

Garbitegiko arimakaitik
Jesus'ek diño samurik:
«Aien onean egiten dana
Neuretzakotzat daukat nik».

Gau eta egun eskatu daigun
Arima onen pakea,
Ainbat lastefen igaro daien
Sion santuko atea.

EUSTAKIO MADINA

Ez eban askorik idatzi, baiña ba-ditu bertso politak: eta banakaren bat izan ezik, guztiak Jainko-leiazkoak. lkusi *Euskalel-ia* (1886), XV'garen alea, 270 or.

251. AMA BIRJINARI

Birjiña maitia! ots-edeíeko
JaunarenAma garbia,
Zeruetako «jauregi-acea»;
euren poz, geure ustea.

Naaren arteko lirio zuzen,
Uso guztizko edefa,
Gure zaurien osagaria
Oindik dakafen, Maria!

Tore-sugiak artu-eziña,
Ontzi galduen izara,
Cuzur-bidetik gaizuz gorde gu,
Guri argi zuk eginda.

Kgi-auste baltzak astindu egizuz,
Laban-aíiak aldendu,
Bidez galdurik dabiltzazanak
Egizuz zear-bidetu.

Jesus, zuretzat gorantzak beti,
Dontzeliaren Semia,
Aitagaz beti bedeinka dila
Megope dontsu maitia.

AZKUE TA ABERASTURI'lar PIZKUNDE APAIZA

Lekeitio'n jaio 1864'an; Bilbao'n ii, 195)ᵛan. Euskaltzaindiko buruzagi, bere lanik aípagarrienak: 1) *Euskal izkindea; 2) Bein da betiko:* 3) *Vizcaytik Bizkaira;* 4) *Iztegia;* 5) *Cancionero Vasco;* 6) *Txiristadak-,* 7) *Morfología Vasca;* 8) *Ardi galdua;* 9) *Oipuzkera osotua;* 10) *Euskalerriaren Yakintza;* 11) *Urfo, Ortzuri,* ta abar. Orixe'k diño: «Euskeraz ari geranok Azkue jaunari zor diogu geienik, eta euskerak ere bai. Gizon mardula gorputzez, apaiz eredua, biotz oneko gizona... Gure oroimenetik ez da beiñere galduko aren izena, euskera bizi daño. Ark atera du gaixoa bere zarpaiíetatik, eta soiñeko apaiñez jantzirik ikusi», lkusi *Euzko Gogoa,* 1951, azila, 16 or. Noizka olerkiak be idatzi ebezan. Azken-ataiek© euskaltzale oneik geure roendekoak diran aren, euren olerki-lanik geienak igaro-mende azkenean egin ebezelako,jarten doguz ementxe.

252. ERIMIÑA

Dardaia baizen bizkor ta lerden
egaz abilan usoa,
Lea[1] ondoko etxeno baten
egazperagiño oa.

LJru ta uíu sar adi bertan;
bildura aizetan utzirik:
Iñortxok ere eztik ikusten
an pisti erpe-zorotzik.

Eztakusk dena zein garbi, txukun,
egazpe ortan dagoen?
Bete-betean esan dezakak:
«Euskaldun bat bizi da emen».
Atal-ondoan kukuruku-ka
ari dan oilar putz ori
Auzo-munetan dabil edatzen
toki ortako, o ze zori!

Su-baztefeko egur arteko
pipizulodun seaskak
Amets gozoak, nere aur-ametsak,
oso gorderik zeauzkak.
Igon ote da batxo munduan
ametsak baño gorago"?
Or ur-aria baizen be-bean
dituen bat emen dago.

Galde uda naiz negu-usaiñez
goi-be dabiltzan lertxunai,
Seaskeíitik zein goi ta uruti
bizi naizen ni. Bizi? Ai!
Aizeak ere nekatzen dituk
ortik onera urbiltzen,
Ta iñork etzekik, neronez landan,
zein asnas-bear nagoen.

Orko etxandere ure-biozdun
gibel-min gabe orixe
Det lur gaiñeko ondasun bakar,
ni maite ñauen amaxe.
Maite diat nik, o egazti ixil,
ik or dakuskan txokoa,
Txoko ori baño txit maiteago
or bizi dan gurasoa.

«Ura ufatxua» entzutorduan
ta artoa ikusi ugari,
Ego-zuri laztantxo, i ere
oilasko artean sar adi.
O zein gozo ta zein mamitsu
amak emandako artoa!
Agokoaren oroipen utsa
arimaraño dijoa.

Aur nintzanean nuen bezela,
gabero Jotarakoan
Oraiño ere amets gozotan
ama det nere gogoan.
Aur nintzanean nuen bezela,
seaskondoan gabero,
Ama maiteak oiu egin bezait:
«U-au-atxoa lo ta lo»,

i) rto de Lekeitio.

253. ILLARGIA

Atafatze'ko Paradisutik
odei-seaskara urbil
Bi nere eritar bidaiderekin
ninjoala orain bi il,
Auñemendi'ren tuntur gaiñetik
agertu zenidan ixil:
Ezpura-sagar bat baizen txuri,
ziza bezela biribil.

Ura zan afats ta gau-giroa,
OTOtmengari benetan!
Zure irudia gekusenean
Onize-ibaiko uretan,

Arain lotiak, esnatu eta
ziíarturik apafetan,
Zebilzenean zure masailan
musu artu-emanetan.

Nere lagunak txoraturikan
biak zira oiuz ari:
«Txoriñoa» ta «Urzo txuria»,
«Agota» ta «Oi laboran».
lbai-ondoko arkaitz baíuttk
norbait zan atzerakari.
Lamiña ote zan, sorgiña ote zan
zerantzuna gure otsari?

«Nola gau itzal goibel antzuak
erne dezake argia?
Eguna gautu orduan, nola
gaua eguntzen ari da?»
Galdetzen zuen bidezti batak
itxadonik gure epaia.
Nola litekenargi iletik
zu sortzea, ilargia.

Aita nuen nik ereslaria,
ama det argizalea.
Ez ote dit biotzak nun gorde
—gordailutxo bat txumea—
Ereslarien ostargi-txinar,
argidun ulerpidea:
Zuri gaur oiuz zorarazteko
ta antz-arazteko bidea?

Zure argitan baratze-oianak,
soroak zerua diruri,-
Laborarien etxol apalak
jauregi txukun ta txuri.
Zure begiak, biregin aren
giza ta eme maiz beltzuri,
Eztigu ikusten musu goibelik
ta erío-jantzirik guri.

Su epelezko bil oren aufez
odeiak aiena bediz,
Lorik datzazten efitar auek
esna ditezten zu ikusiz,
Argi oietan jakin dezaten
nor diran beron jatoriz
Ta aitor dezaten biotz bakafez:
«Bat izateko jaio naiz».

Ez al zinuzten, iíargi eder,
lengo Euskaldunak loisintzen[1]
Ta orbelezko oge bíguñetatik
ez al ziran ateratzen,

Ifadaz, oiuz zure izen ona
eki gaiñean goratzen;
Sakon ta egien[2] bafi ixilak
oiartzun gozoz ozentzen?

Xuberotafak egodun zanko
zaintsuak sorik al dauzka?
Gipuzko-seme ezpain-biguña
nola ez dantzugu oiuka?
Kantai-altxordun ñapar mazalak
atera bediz elika[3],
Euskaldun zafen eresi txauez
al zezakezten elika.

Ezkontz-egunez emaztegain
baizen apain eta lerden,
Argi gautafa dabiíenean
itzalik-itzal afaitzen,
Zaude, eguzki, lozko lerdetan,
nagiz gaua luzatutzen;
Zaude, ta gogoz iretsi itzatzu
suzko estai[4] oiek bafenen.

Edefa zera, maite zaitugu,
gereka[5] ta aldakor argia;
Eresi belaz gozatzen dezu
maitalarien bizia.
Zu baizen eder, zu baizen gozo,
zu baizen maitagafia
Degu EHskaldun banakatuok
gure ama Euskal-Efia.

Mendi auetan bein ere ez dezu
entzun euskal-itza baizik.
Erdal ubelde[6] afe-indafez
ba'zekus iñoiz itorik,
O gure asaben lagun zar ori!
zoaz ospurura[7] emendik,
Izargiñaren bizi-tokia
jafi dezazun apaiñik.

1) acariciar; 2) colina; *i)* en tropel; *4)* rayo; 5) inquieto; 6) diluvio,- 7) firmamento.

TXOMIN AGlftE APAIZA

1865'an jaio. Ondaroa'ko seme argi ta azkara, tole* bako ta bioztin. Oñati'ko Batzaretik (1919), Euskaltzaindikoa Axnlar ta Txomin Agiré doguz, noski, euskal idazlerik bikain-jatofenak. Bere lan ederak: t) *Auñemendiko lorea*, «Euskalzale» albistariak 1897'Bafeo urtean eragiñiko Batzaldian sariztatua; *1) Kresala* (Durango, 1906); *¡) OorCa* (Dttraugo, 1912); I) *Ni Ia Ni, Lafeldeko lorea, Joanelofi bal Eroma'ra*, ta beste artikulu ta olerki asko. I930'ko urtafiíareu M'an Jaunak betiko atsedena emon eutsan. Il zao urtean bertan, jofailaren 25'an *Euskal Esnalea'rLn* arduraz deduzko batzar bat eratu eben Donosti'n; eta batzar aietan, bai K Etxegarai iztunak, bai Azkue jaunak, guztiz ederto itz egin eben aretzaz.

254. SEASKATXOA

Ara emen aur bat, jaio-beria,
Jaungoiko izanik luíez jantzia...
Begira bago, Aur pozgaria,
Nola daekazun, zer miraria!
Esna biotza, lotan begia.

Lotan zaude Zu lasto gañean,
Esna ta deiez alai gurean,
Intzez beterik gau ilunean,
Afenez eske, dei samuiean,
Ar zaitzagula guk, biotzean.

Ai, nere Jesus, atoz nigana!
Zorioneko Zu zaukazana!
Zuretzat det nik biotz dana,
Ta naiz Zuk eman samin ta lana,
Zaude nerekin, Jesus laztana!

Gizon lurtarak, esna ta jaiki,
Jaiki ta zabal biotza ideki.
Jauna da eskale! Zein ezta eruki?
Egin animan, epel ta garbi,
Seaskatxo bat Jesus Aurari!

256. SARA'KO LOREA

Madalenatxo Laíaldekoa,
Sara'n sortu dan lorea,
noraiño zoaz ain goiz t'apaiña,
ain eder eta gaztea,
gefa-denpora bildurgaíian?
Nora bakarik, maitea?
—Bera'rontz noa bilatu naian
arimarentzat pakea.

—Baiñan etzera, Malen, bildurtzen
Bakaíik gazte eder ori?
—Nere bidean ni bildurtzeko
zer egin diot iñori?
—Zer egin dezun? Zer egin dio
arkumeak otsoari?
Zer egin dio txori gaixoak
mirotz erpe sendoari?

Ai! bildur zaite, Madalenatxo,
SaraYen edergaria!
Mirotz guztiak t'otsoak baiño
txarago da geraria:
bere legea da gofotoa
t'amesa odol-egaíia;
laguntzat dauka bandera bettzdun
eriotz negargafta.

Pinet gogora da Sara-aídean
prantzes martitzen burua,
betosko Mun, begirada txar
t'itz garatzean maisua.
Gudari askok egin bear du
martitz oren agindua.
O, Jaun-Goikoak egin dezala
biotz samur t'onekua!

* *

Or dator Malen... Arpegia du
gozo, biribil, leuna;
maitasunezko begiak dauzka,
begirada txit atguna,
gorputz lirain ta ondo betea,
sasoiko azkartasuna.
O, zein eder ta zoragaria
dan Madalena txukuna!

*

^-Nondikan zatoz? —galdetzen dio
gerari batek, zoíotzjk—.
—Bera'tik, jauna, —erantzuten du

Malen gureak—, Bera'tik.
— Zer egin dezu gaur Bera'n? —Jauna,
autortzea bakarik.
—Eztet siñisten; salari[1] zera:
lotua zaude bertatilc.

Ai! Ba-darame gaizkiie gisan
euskal mendiko usua.
Gezur txiki bat ezan nai ezik
galtzen du bere burua.
Gazte zera ta bizitzagatik!
gezur bat, Malen gajua!
— *Salbe fíejina.* Gaztea ba'naiz,
gazterik nai det zerua.

O mingarla! Men egin zaio
Pinet'en aginduari.
Zer egin dio txori gaixoak
mirotz erpe sendoari?.,
Zer egin dio arkumetxoak
otsoko amoratuari?...

I) espía.

256. ZERGATIK NI KOBLAKARI?

Neure emazte
Manu Mari,
zeiñek ein nau ni
koblakari?

Zugaz bizi nintzanean
basefi zar txukunean,
gorputz sendoa neukan, ta
maitasuna biotzean!

Maite neban emaztea,
zar zanean naiz gaztea.
Maite neban! eta nintzan
era berean maitea.

Gorputzean odolak otz,
buru zuri ta zofotz,
gaur... bakafik bizi naz ni
neure efian bertan afotz!

bl eure emazte,
Manu Mari,
zugaitik naz ni
koblakari.

Baiña zu baizen obeto
maite dot neure mendia,
euskaldunen jaio-leku
ta aitona zaien obia.

Arotza emen ikustean
zaunkaz oi da zakurdia,
peril-ordu estuetan
crestun koplakaria.

Ta eresiak berotzen dau
euskal baso gudaria,
ta zaunkatik ez dago urin
zakuraren ainkadia...

Zenbat bidar uraiu dot
oiuka neure eztaria!...
Ozinbeltzek zenbat bidar
entzun dau nire ifintzia!

Zenbat aldiz berotu dot
euskal gizonen biotza!
Zenbat bidar ikusi dot
nire ondoren eriotza!

Zenbat aldiz odoldu dot,
neure aizkora zorotza!
Zenbat aldiz amaitu dot
bizar gendun arotza!

Zenbat bidar ikusi dot
gure mutil menditara,
besoetan ipiñiaz
ekaitz guztien indaia!

Begietan tximistea,
ta infernuko su ta gara...
Ta aren auretik igesi
mendiz beera prankotara.

Gaur naz zafa, ta atzo gazte!
Zein arin doian guztia!
Bitartean idoro dot
urtien erakutsia.

Gaur ba-dakit eztala ondo
sentzun baga zaunka eitea
ta bakean doianari
ortz-azurak ezartea.

Geldi orain, menditarak,
bakotxa geure lekuan:
elduko da ereti ona,
ta aupa, mutiiak, orduan!

Neure emazte,
Manu Mari,
Jaunak ein nau ni
koblakari.

llargi ta eguzki eder,
zeru goietako izarak;
baso, txara, zugaztiak;
be-aldeetako ibaiak.

Mendi tantai, efekondo,
ibai zabal ta itxasoak,
gizonentzat sortu ditu
gure Egile Jaun-Goikoak.

Beragaitik bizi naz ni,
Beragaitik gaia euskaldun..
Gauza guztien gaiñetik
euskaldunok maite daigun.

Maite dot nik sorteria!
Maite neban emaztea!
Baiña bien gain-gaiñetik
maite dot neure Egilea!

Neure emazte,
Manu Mari,
Jaunak ein nau ni
koblakari

JUAN I. IZTUETA

1767-1845. Zaldibi'ko semea. Liburu bi beñik-bein, guztiz edeíak, bereak ditugu: *Qipuzkoa'ko dantza gogoangarien kondaira* (Donosti, 1824), ta *Gipuzkoa'ko kondaira* (Donosti, 1847). Dantzari, ta eri-musikan oso aitua. Euskalsoloan, ostera, langlle gartsu agertu zan beti; gure gauzen onerako zeitekean edozetan jarduteko beti zintzo ta gertu. Zenbat oitura, zar ta ernegafi, berari mila esker, gaurkuok dazauguzau! Naita iñoiz baldau ta zabartxo, nasai ta jori darabil geienez euskera. Gizonki landuak doguz bere neurtitzak. Ogibidez kapagina, gizon apala ta gogo giro eztikoa.

257. KONTXEXI'RI

Maite bat maitatzen det maitagaria;
Begi edefa du ta guztiz argia;
Daukat ufuti,
Bañan ezin kendu det burutik
Aren itxura.
Saldu al ba'liteke pisura
Uriaren truke,
Nork erosi faltako ez luke.

Ogei ta lau leguaz nago aparte,
Bitartean ba-dauzkat miloi bat ate,
Guztiak itxirik.
Nai afen, ezin egon ixilik;
Beti negarez,
Nere maite-maitearen galdez:
Ote dan bizi,
Biotz-biotz nereko Kontxexi!

Egunaz argi gutxi, gauean ¡Jun,
Kontsuelorik ez da neretzat iñun
Maitea gabe.
Egin ote nadin aren jabe
Oroitutzean,
Zenbait pena nere biotzean
Dirut igaro!
Maite det, eta ez da milagro!

Ai! au bakardadea eta tristura!
Nere biotz gaixoa ezin piztu da;
Ain dago ¡la!

LAU Ü1ZALDÍ: XIX

Beti dabil kontsuelo bila
Bere artean.
Ba'nengo maitearen aldean,
Ordutxo biko...
Pena guztiak lirake ilko!

Nere maitea, zutzaz ni oroitzen naiz,
Egunaz, baita ere gauetan txit maiz,
Lotan ere bai.
Zu ikusitzera ni joan naiz;
Libre ba'nengo,
Or nitzake egun bigarengo;
Naiz orduan il,
Ez nuke izango batere min.

Leengo gau batean egin det amets
Bañan pentsamentuak beti aldrebes
Irtetzen dira:
Ustez nengoen zuri begira;
Maite polita,
Rorrearen gañean jafita,
Kontu kontari...
Nai nuen, bañan ez nintzan ari.

Maite nerea daukat beti gogoan:
Ai, orain ba'nengo ni aren alboan
Iñoiz bezala!
Jaunak amets au kunpli dezala,
Ba'litz konbeni;
Kontsueloz ilko nintzake ni,
Nere ustean,
Maitetxoren biotza ikustean.

Nere maite polita, ez da zer etsi;
Bigar ez ba'da ere, or nauzu etzi
Lengo lekuan,
Alegatutzen naizen orduan,
Ai, ura poza!
Nere maite-maitetxo biotza,
Zuri begira
Pena guztiak aiztuko dira.

Zure gauza polit bat oi det nerekin,
[zkribaturik dago letra birekim

K ta B dira;
Askotan nago oiei begira;
Ain dira piñak!
Maitetxo polita, zuk egiñak
Sedaz ederki;
Kolkuan gorderik dauzkat beti.

Esperantzetan bizi, maite gozoa;
Noizbait kunplituko da gure plazoa;
Eta orduan...
Gauza txafik ez artu buruan,
Lengoai utzi;
Ez degu pasatzen pena gutxi
Preso sei urtez
Onduko gaituzte nere ustez.

258. GURE EUSKARA MAITE

Gure Euskara maite jakintsun eztia,
Aienatu nai zuten arotzak guztia.
Iguin ba'dute ere bera ikustea,
Urteak joan aren, txit dago gaztea.

Erdaldun mingain latzak, orain zenbait urte,
Euskara gaztetzerik ez baitzuten uste.
Alegiñan aundiak txit egin dituzte,
Galduko dutelako: bañan ezin dute.

Bere Seme prestuak ongi apaindurik,
Agertu da Euskara aitz zuloetatik.
Sasoikoa dago ta pizkora oraindik,
Ez da izkuntza bat au berdintzen duanik.

Gozoa dalarik da guzizko zintzoa;
Inkera guzietan lendabizikoa.
Beraren egile zan gure Jaungoikoa;
Argatik da Euskara ain gain-gañekoa.

Nagusi eta buru dala egiazki,
Egin izan diote ixukarik aski;
Erabiíi ere bai etsaiak txit gaizki.
Bañan orain guziak azpian daukazki.

Euskararen etsaiak dirade argiro,
Mavans'ekin Llórente eta Osorio.
Asmatu aren zenbait gezur ta sesio,
Aien esker gaiztoan gañera da igo.

Beste anitzek ere txarkeria asko
Esan izan dituzte Euskararentzako,-
Batzuetan inki ta besteetan inako,
Izulurik txokoan egondu dalako.

Mavans eta Armesto, gorputz bat egiñik,
Ari ziran Euskara puskatu eziñik:
Jo ezak andik, eta jo ezak emendik,
Moldatu bai-tzituen Aita Lafamendi'k.

Uste etzuten gauza zitzaien gertatu,
Etzekilen lanean ziralako sartu:
Asi ba-ziran eta bai aiei damutu,
Astin aldia txarak etzituzten artu.

Maitaro naiko zuten Euskara ikusi,
Baldin bear bezala ba'lute ikasi.
Ezagutzen ez ta mendekalzen asi,
Nola nai zuten, bada, ba;a irabazi?

Ondoren agertu zan Don Joakin Trajia,
Naspilatu naiean Euskara garbia,
Aotan artzen zuela Ñaparen eíia;
Ustez etzuelako izen berekia.

Guztiz gauza aunditzat Trajia'k esanak,
Desegindu zituen Astarloa jaunak.
Ain ziraden traketzak eta txit baldanak,
Ezagutu ditzake eroa ez danak.

Astarloa'ren obrak dira agiriko,-
Alakorikan iñon ezta nerekiko:
Mingain latz aro zenbait astotzar lapiko
Ixilduko dituzte sekula betiko.

Mundu guzi-guzia jakiñean bego;
Biziko da Euskara orain eta gero.
Beraren aundizkatzen gogaltsu ta bero,
Izkribatzen ari da aspaldian Ero.

Atera ditu onek bi obra beriak,
Esaten dituela beretau egiak.

Aiek irakurtean etsaien erdiak,
Ezur uts egin ditu sabel afabiak.

Txori buru puztu bat egiñik txit aundi,
Etsai irten zitzaion gure Euskarari;
Apez jantzian zuen izena estali,
Aditu bai-tzituen bereak eta bi.

,v Luma lodi zatar bat zorozturik gaizki,
Asi zan izkribatzen afoturik lazki,
Euskara ¡xiltzeko asmoetan naski.
Efonkak botatzea ezt' ordea aski.

Kakoa ortik eta emendik makoa,
Esaten zuen zala Montuenga'koa.
Uste ba-zuen ere zala goapoa,
Astin bat artu zuen, a! zer noiakoa!

Maiz joan batera ta naiz joan bestera,
Non-nai arkitutzen da argiro Euskara.
Eman bear diogu zor zaion eskera,
Bestela gu beraren semeak ez gera.

Euskara piztea da erdaldunen miña;
Ez dakit nondik duten ofelako griña.
Mundu guzian dago sustraiak egiña,
Itz egin oi zalako bera txit antziña.

AGUSTIN P. ITUPJAGA, APAIZA

Ernani'n jaio zan, 1778-J-3J'an; 185l-Ml-30'an il. Apaiztu ta laster, bere erian bertan, gaztedia buruz apaindu ta gogoz indartzearen, ikastetxe bat irasi ta antola eban, gerora oso entzute aundikoa. Irakasle argi, ekian baño geiago erakusten ebala esan oi eben efítarak. Euskaldun oro ¡puin-zale garea'a jakiñik, karlatar gudu ostean Laburdi aldean igaro zituan urte (1839-1840) bietan, neurtu ta egiñak doguz, antza, bere alegiak: antzez, bakun, era berezian noski; iñoiz mordolo agiri bada be, ezta aintzat artzeko. Onela Aitzol'ek: «Aldizka bertso kaskar samafak, eíezegi neurtuak ba'dirudizkizu ere, neurtitz yaioak, esakera jatorak, auraldi zorotzak eta alako eder-erakusketa apañak arkituko dituzulakoan naukazu». Ikus *Ituriaga 'ren Ipuiak* (Tolosa, 1932), itzaurean. Birjjli'ren *égloga* batzuk be euskeratu ebaxan. Ipuiak eta beste moldaera batzuek (Tolosa, 1884). Ikusi onezaz gañera' G. Muxika'ren *Ernaniar ospetsuak: Itur/aga, Kardaberaz, ürbieta* (1910).

259. ESNE-SALTZAlEA

Neskatx bat zijoan bein plazara neguan, eskuan txantxila ta kaikua buruan,

Gorputz liraña zuen,
gerra txit mea,
ilea orporaño,
ure-kolorea,-
ortzak periak bezela,
aoa txikia,
begiak beltz, aundiak,
ezpana goria,-
ibilian iñori
ezer zor etzion;
itz batean, jendeak
begiratzen zion.

Lasterka bere-buru
zijoan izketan,
itz egiten zuela
izkera onetan:
—Esne au nerea det,
aitak ala nairik;
au salduz diru asko
artu bear det nik-
Gero bearko ditut
arautzak erosi...
saski bat bete-bete
izango det noski?
Laister udabeíian
nik nere burua
txitoz ikusiko det
dana inguratua.
Egiten diranean
oíanda, oíasko,
artuko det aiekin
dirurikan asko,
erosteko perian
aufera txeíia,
berexitzen dedala
albait umazia;
ugari izan baít-da aurten
mendian ezkufa,
joaraziko diot
laister tripaz lufa.
Ta izango duelako
urdaia lodia,
artuko det onekin
nik diru aundia,
eta erosiko det
txaltxo bat urixa,
umeak egin ditzan
etxekoen gixa.
Ta urte asko baño len
ba-det nik ustea,
arkituko naizela
ganaduz betea.
Ta ozta izango al da
efian neskatxik
ezkontz-sari nik aña
izango dueník"?

Baña asmo oiek egiten
ari dan artean,
ifixtatzen zaiozka
bi onak lurean...
Agur aren esne ta
araultz ta txitoak,
agur txefi, txal eta
sari guztizkoak!

Maiz oi dirade berdin
gure uste utsak,
ta txakur gosearen
gaberdi -ametsak;

260. ASTOA TA TXERIA

Asto zar bat bizi zan
ukulu batean,
eta txeri bat beriz
aren bazterrean.

Txeíiari astoa
zitzaion bekaizti
ikusten bait-zun ura
lasai zala bizi.

—Ori —zion— or dago
guziz ugujturik[1];
ez dezake ezertxo jan
iriñik gaberik;
ni befiz emen nago
gosez idikirik:
jan-tokian ez daukat
lastoaren pixkik.
Noizik bein baldin ba'det
inilizkatzen zaia,
ba-nago jai ote dan
edo ta eztaia.
Goizetik aratsera
auxen da aren lana:
Tripa ezin jasoa,
ezer ezin jana,-
ni beriz ortxe nabil
beti zamaturik,
indarak galdu eta
ezin igiturik.
Atz egiten diote
ari bizkarean,
«maitetxoaü» esanaz,
jana ematean;
ni zamaren azpian
iñork ez uriki,-
austeituzte egunean
nerekin makil bi.
Zenbat eta daukadan
indar gutxiago,
ainbat eta gañean
det makil geiago—.

Au oi zan astoaren
goizeroko izkuntza
Jainkoari esanaz:
—Indazu laguntza!

Ostegun-gizen egun
deritzan goizean
dan-dan-dan asten dira
etxeko atean.

Esnatzen da astoa ta
eietik du ikusten
arakiña batena
deadarka sartzen,
esanaz: —Goazen, goazen;
non dago txeria?

Neskameak arturik
eskuan pazia[2]
gaxoari idikitzen
dio azkar eia[3].

Irtetzen da txeria
doi-doi ixtegitik,
ta artzen du arakiñak
belarietatik
eta sartutzen dio
labaintzar zorotza
eta ematen antxe
gogor eriotza.

Nork esan astoaren
bildur labofia,
noiz elduko beretzat
eraso gona!

Burutik onetara
izerdiz bustirik,

an zegoan gaxoa
txokoan ixilik,
Baña alde egin zuan
noizpajt arakiñak
eta bukatu ziran
astoaren miñak.

Orduan esan zuen
bere barenean:
—Jainkoari eskeíak
bizi naizenean!
Nik nere lagunari
espa[4] pixkat nion,
ez bait-nek/an, ba, zer
íltze zegokion.

Bañan gaurtik aurera
ez det nai iriñik,
baldin i! bear ba'da
órela gazterik.
Betoz nere gañera
amar mila makil;
askoz naiago det nik
onela zafik il—,

Berdin ikusia da
ez daia atsegiñik
mundu onetan iñon
zerbait gabetanik,

I) harto; 2) caldero; 3) pocilga; 4) eavidieja.

261. AUNTZAK ETA AKERAK

Munduan espa txara
batak besteari
maiz izaten diogu,
edo obeto, beti.

Auntzak ikusirikan
zirala akerak
jendeen arabera
guztizko ederak
eta berak eragin
oi zutela para
berak etzutelako
zintzilik bizara,
jun omen ziran beren
Jaungoikoagana,
esanaz: —Jauna, gatoz
gaur berorengana
adierazotzera
zeñen Jotsagari
dan gutzaz egitea
abereak jri,
kokotzean ez omen
degu-ta bizarik
akefen motakoak
gu ere izanik.
Jauna, gure kokotza
bizarez betea
gelditzeko asko da
zuk nai izatea;
ta ustea ata degu
etxera emendik
biurtuko gerala
bizarez jantzirik—.

Jaungoikoa onetan
zegoan glorían
auntzak entzunaz, jfiz
lertzeko zorian;

eta esaten die:
—Zoazte einendikan
ez esan orelako
txorakeririkan—.

Baña negafez auntzak
omen ziran asi,
arat onat ibiliz
beeka sasiz-sasi.

Kupiturik orduan
Jainkoa guztia,
eta artzen zuela
izkera eztia:

—Ora, —esan zioten—
bertatik bizafa,-
danak egingo dute
orain zuez para—,

Bestela gertatzen da
gaurko egunean,
akerak auntz nai dute
izan geienean,-
gizonak andrezkoen
itxurak arturik
ikusten dira maiz,
tximu biurturik.

Auntzak auntz bear du, ta
akerak, akera,
gizonak indartsua,
andreak edera;
bestela buruz bera
jungo da mundua,
eta geldituko da
betiko galdua,
ematen zaiolarik
efu Jainkoari,
nork eman bearean
bere buruari.

262. SUGEA ETA NEKAZARIA

Gizon bat zijoan bein
zelaitik etxera,
goiz guztian lan egin
eta bazkalrzera.

Ikusten du bidean
etziñik sugea,
otzak erdi iíean ta
korderik gabea.

Kupiturik sartzen du
gaxoak kolkoan,
ango bero gozoaz
pizteko asmoan.

Etxera jun zaneko
sugea asi zan
kolkotikan kanpora
atera nairikan.

Ganetik botatzeko
gizonak artzen du
eta suge gaiztoak
orzka pozoitzen du.

Ora esker ederak!
Zitalen eskutik
ez du izango iñork
beñere gauz onik.

líabete baño len
suge ura bera
otzak ikaraturik
dator sukaldera.

Oiuka asten dira
etxeko guziak,-
jaraitutzen diote
moroi-nagusiak.

Sartzen da ukuíuan,
ba-dabiltza bila;
arkitzen dute eta
uzten dute iía.

Zicalkeriak ez du
beñere gauz onik,
eta iñork ez du nai
ikusi zitalik.

263. 1TUÜIKO ORINA

Nekez, baño arkitu
zuen ituria
orín batek, il nairik
zeukan egafia.

Ta edan zuanean,
gaxoa zan ari
urean begiratzen
bere buruari.

Ez da zeri par egin,
irakurtzaleak,
ba'zerate iñolaz
neskatxa gazteak;
jakin bear dezute
jaio ezkerozcik
ez duala oriñak
beste ispilurik.

Guztiz edefa dala
zaio iduritzen,
batez ere adarak
dute txit txoratzen;
baña ditu arkitzen
aren mesedeak
txit itxusiak bere
zanko luze meak.
-^Zanko laburagoak
baldin ba'nifcuke,
nere berdiñik —zion —
iñon nik ez nuke,

A! eman ba'zizkidan
gure Jaungoikoak
egokixeagoak
nere bi zankóak! —

Onela dagoala
mar-mar ituíian,
zaunkak aditzen ditu
ez txit urutian.

Laxlerka asitzen da
mendira igotzen,
zakurak ondotikan
diote jaraitzen.

iges egin duela
uste diranean,
gelditzen da loturik
otadi batean,
nastu zizkiolako
bere bi adafak
otetikan-otera
an zegoan larsk.

Zakurak ganeratzen
zaizka gaxoari,
il eta bertan uzten
die nausian.

Ora, adar ederak,
ca zanko itsusiak:
oiek txit onak eta
aiek galgariak,

Txoroa txoratutzen
dik itxura onak;
bañan iñolaz ere ez
zentzudun gizonak,

261 ÚRDALA ETA GORPUTZAREN BESTE ZATIAK

Ao eta begiak,
oin eta eskuak,
urdalarekin zeuden
txit asaretuak;
begiak esan zuten:
—Gu gau eta egun
or gabiltza jana nun
ikusiko degun —.

Aoak zjon beriz:
—Nere ort2-agiñal<
kamusturik daukatzi
lan asko egiñak —.

Onak esaten zuten:
—Naiz ez izan gura,
joan bear degu beti
jana dan lekura—.

Azkenean eskuak
zeuzkan neketuak
beti-betiko ezin
jan ala bilduak.

Danak asare ziran,
úrdala bakarik
zegoala lanikan
egin gabetanik.

Egiten dute, bada,
danok batzarea
guzcizko bizi eta
guztiz asarea,-
eta bukatzen dute
esatearekin:

—Ez degu guk geiago
bear Janik egin!
Batak jan, besteak lan,
da erokeria;
urdalak eramaten
digu lan guzia—.
Esan zuten bezela
ba-daude geldirik,
bi egunean lanik
egin gabetanik.

Asten zaie orduan
aitutzen indara,
urdalak barendik.in
egiten du para.
—Zer da au? —esaten dute-
Zer zaigu gertatzen?
Indara pixka bana
ari zaigu juten.

Orduantxe esaten
diote urdalak:
—Lengo antzik ez ditek
gaur gure masalak.

Nola nai dezute izan
ni gabe indarik,
zuek bildutakoa
urtutzen ba-det nik!

Ez dezute ikusten
ortz eta agiñak
erot-ari antzera
daudela egiñak?

Oiek txetzen dutena
nik dedala urtzen,
eta gero danontzat
odol biurtutzen"?

Ta ez ba'det nik artzen
egunero jana,
zuen neke guzia
alper-lana dana?

Ora nola egun bi
ozta igarorik,
zaudezten indar gabe
eta erdi-iíik -,

Afazoi au aditu
eta ondorean
guztiak sartu ziran
beriz batzaream
deiczen duce urdaía,
antxen da lasterka,-
artzen dute erdian
emanaz besarka,
eta esanaz: - Orain
diagu aitortu,
i bezin mutil latzik
ez dek iñon sortu—.

Nork esan zezakean
ezkutuko lana
zala gorputzarentzac
beafena zana!

Askotan gutxiena
uste dan gizonak
egiten bait-dituzte
lanik bearenak.

Ta ontaz nai ba'dezu
ikusi egia,
irakuri ezazu
ufengo ipuia.

265. TXANGURLIAK

Txanguruak[1] itz egin
zuten batzafean
aufeka ibili obe
ez ote-zutean.

Atzeraka ibiltzea
ez da egokia;
paragafia baizik
ta lotsagaria,

—Nork bere umeari—
danak esan zuten—
erakutsi bezaio
aurerontz ibiltzen;
eman danoi oitura au
jaiotzen danetik,
utzi gabe egiten
atzerantz oinkadik —.

Biaramon goizetik
omen dira asten
umetxoai aurerontz
ibili-erazten,
atzaparak bigunak
zituzten artean
aurerontz eraginaz
atzerontz ordean.

Ari dira, ba, onela
ziñez gurasoak
egunoro zuzentzen
umeen pausoak;
baña alpefik egiten
dute alegiña;
ezin garaitu dute
semetxoen griña.

Atzerontz ikustean
aita eta ama,
ikusteak umea
atzetik darama.

Argatik txangurak
gaur ere dabiltza
beti atzerontz are!
soka-gile-gisa;
esaten digutela:
— Ez esan ez, egin
nai ba'diot besteri
edozer eragin —.

I) cangrejo.

266. LEOIA A ASTOA

Leoi andi bat zar» bein
goizetik atera
asto bat bere lagun
arturik, eizera.

Artzai txabol batean
uzten du astoa,
bidetxigor batera
bera ba-dijoa.

Astoak bear zuen
andik arantz egin,
leoiaganontz eiza
guztia jan zedin;
gogoz egiten bait-du
astoak arantza,
ba-du leoi beraren
ofoaren antza.

Abereak an dabiltz
batetik bestera;
ta gero an dijoaz
bidetxigofera.

Astoak sartu zien
ikara-bildufa!
Ez bait-zuten ikusten
begiz ere lura,

Leoiak jaten ditu
ca utzi ezurak,
usaiez ase ditzan
astoak sudurak.

Ezurak ikustean
esan omen zuen:
— Pizka bat lentxeago
egon ba'nintz emen,
ez nuen, ez, utziko
bakar bat bizirik,
ez zezen, ez katamotz,
ez otso, ez artzik—.

Aditu zuanean
bere arokeria
leoiak egin zuen
algara aundia.

Onen sabela betea
gelditu zan eizez,
astoarena beriz
len bezela aizez.

Para eragiten du
gizon bildurtiak,
esaten asten ba'da
bere ausartiak.

JOSE BIXENTE ETXEGARAI

Eri-olerkari, ta eresilari be ez makala. Berogei (18I3¡853) urtez, beintzat, kale-jira, lag>to arteko jan-edate, batzoki zabaltze, edo beste taiu ontako jairen bat zaneao, bera aukeratu oi eben egun oreik gatzozpíndu ta etleregiteko. Geienez, Donosti'ko jai erikoi ta antxiiiakoak kanta gozoz goratzea atsegin yakon,

267. EGUBERI-KANTAK

Asierako jolasa

Zelebra dezagun,
nere kristauak,
gure Jesus'en jaiotza;
zeruetako obra onakin
alegra bedi bakoitza:
eman zaiogun
fedearekin,
biotz
esker onean,

Onetarako
adora zagun
pozez, kontentuz lurean,
bere graziak ipiñi gaitzan
zeruetako bidean:
sinisturikan
biotz osotik
beti beraren
legean.

Uriki zaite
pekatariaz,
zeru-luraren Jaubea,
Eredentore gizonarena,
Jaungoikoaren Semea;
barka gaitzazu
ofenditua
j.
zure ontasun aundia.

Artzaiak

Guazen lasterka,
guazen Beien a;
Jesus de guabea,
jaio beria,
dezagun arte
zeru argia
galtzen utziko
ez gaitu.

Adora zagun
biotz guztitik,
aingeruekín
batean:
bere grazia eta pakea
digula beti lurean,
zeruetako bere gloria
eman dizaigun artean.

Adora zagun Trinidadeko
bere bigaíen persona:
alaba zagun Jesus gurea,
gaur egin dana gizona,
obra zeruko miragafia,
zorionean egiña.

Eska zaiogun iduki gaitzan
bere grazian, munduan,-
libra gaitzala eCsaitatikan
eriotza-orduan,
eta ondoren artu gaitzala
bere glorian, zeruan.

1. BlZKAftONDO, «BILINTX»

Donostia'n jaio zan, l83MV-30[J]an; il, bariz, 1876-VI-21'an, Karlatarak Aratsain rmenditifc jaurcitako granada batek zaurituta. Donosti'ko kale batek bere izcoa daroa, 18$4'garenetjk, Etzan gizon ikasia, baña alan be bertso eíez ta biguoak egin ebazan, geienez mnitatiak; bere ziribertsuak be zabal dabiltzanak dira. Bai itz-lauz bai olerkiz, idatzi eban oro, *Euskal-Esnalea*kargitara eban ale baten, 191 Pgn. urteao

268. JA-JAI!

Bein batian Loiola'n eromeria zan,
Antxen ikusi nuen neskatxa bat plazan;
Txoria baño ere ariñago dantzan,
Uraxen bai polita, an polítík ba'zan!

Esan nion desio senti nuen gisan,
Arekin izketa bat nai nuela izan.
Erantzun zidan ezik atseñik ar nezan,
Adituko zidala zer nai nion esan.

Arkitu giñanian iñor gabe jiran,
Koloriak goíitu-arazi zizkidan.
Kontatuko dizutet guztia segiran,
Zer esan nion eta nola erantzun zidan.

—Dama polita zera, polita guztiz, ai!
Bañan alare zaude oraindik ezkongai;
Ezkon gaitezen biok. Esan zadazu: bai.
—Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin? JA-JAI!

269. KONTXESI'RENTZAT

Kantatutzera indar aundiko
desio batek narama;
Kontxesi, zuri nai dizut eman
merezia dezun fama:

Gure probintzi Gipuzkoa'koan
berdiñik gabeko dama,
Bedeinkatua izan dedila
zu eman zinduen ama!

Zedoíek uste ez zenuela
egon nintzaizun begira,
Lendabiziko onetara, ta
ufena beriz gefira;
Onak dituzu txtki-politak,
gustagafiak txit dira;
Geriai, beriz, eman litzazke
kana bat zintak bi jira.

Andik ufena ipiñi nizun
efeparua petxura,-
Orduantxen bai eman nizula
aingeru baten itxura.
Jaungoikoak berak deitu izan bali
igon nedila zerura,
Zure ondotik ara juan bearak
emango zidan tristura.

Ondoren jafi nintzan denboran
begiratuaz lepora:
Biotzak salto egiten zidan
irten naiean kanpora.
Irten ta zuzen, ba-dakit ziur,
juango zan zure kolkora;
Nik jakitera nai zenuela,
utziko nion gustora.

Atentziüa begietara
paratu nizun segiram
Ez dakit ziur begiak edo
eguzki ben bi ziran;
Ondo ikusi ez nizkitzun-ta,
nola esango det zer diran?
Begiratutzen nizun guzian
bista kendutzen zenidan.

Ue beltz eder dizdizaria
oparo dezu buruan:
Konparatzeko balio duen
sedarik ez da munduan;
Trentzak egiñik zenezkan dana
eregin baten moduan,-
Diamantezko koroe eder bat
palta 2Ítzaizun orduan.

Ointxo politak, gefia mia,
grazia mila petxuan,
lepo biribil, dirudiena
egin befia tornuan,
Berdin gabeko begi argiak,
ile edefa buruan:
Zu baño aingeru politagorik
ez da izango zeruan.

Beti ariko naiz Jaunari eskaka
ondo izan zaitezela:
Etzazula uste, nere bizian
zutzaz aiztuko naizela.
Esku-muñak maiz biga! nazkitzu,
orain artean bezela,-
Ainbeste egin bear didazu,
penaz ilko naiz bestela.

270. LORIAK UDAN

Loriak udan intza bezela maite det dama gazte bat;
Ari ainbeste nai diotenik ez da mundan beste bat,
Iñoiz edo bein pasat2en ba'det ikusi gabe aste bat,
Biotz guztira banatutzen zait alako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabia, apiriíeko afosa,
Izara bezin dizdizaria, txoria bezin airosa:
Oraintxe baño gusto geiago nik ezin nezake goza;
Zori onian ikustea zaitut. Nere biotzak au poza!

Ez al didazu antzik ematen nik zaitudala naiago,
Ai! mariñelak gau ilunian izafa baño geiago?
Nere ondua» zauzkatalako pozez zoratürik nago,-
Zu ikusteak alegratu nau, triste nenguan lenago.

Nik ainbat iñork nai dizunikan, aren, ez zazula uste;
Nere begiak beren aufian beti desio zaituzte.
Eguzkirikan ikusi gabe txoria egoten da triste:
Ni ez nau ezerk alegratutzen zu ikusteak ainbeste.

Arpegi fina, gorputza, befiz, ez dago zer esanikan;
Izketan ere grazi edefa, ezer ez dezu txarikan.
Mundu guzia miratuta're zu bezelako daroikan,
Agian izan leiteke, bañon ez det sinesten danikan.

Nere betiko pensamcntua, nere konsolagaria,
Zu gabetanik ezin bizi naiz, esaten dizut egia.
Zu ba'ziñake arbola eta ni ba'nitzake txoria,
Nik 2U zjñaden arbola artantxe, egingo nuke kabia.

Amodiuak nere biotza zureganuntza darama,-
Eri guzian zeren daukazun neskatxa finaren fama.
Beste fortunik mundu onetan ez det desiatzen, dama:
Aur batek berak izan gaitzala ni aita eta zu ama.

Falta duenak logratutzeko itz egitia txit on du,
Eta nik ere saiatu bear ote gintezken konpondu,
Gaur nagon bezein atrebitua sekulan ez naiz egondu;
Argatik gotpez galdetzen dizut nerekin naizun ezkondu,

Ezkondutziak izan bear du preziso gauza txafen bat.
Ala esaten ari zait beti nere konsejatzale bat.
Alaxen ere aren esanak, oso utzirik alde bat,
Ongi pozikan artuko nuke zu bezelako andre bat.

Zerorek ere ongi dakizu aspaldi ontan nagola
Zuregatikan penak sufritzen, bañan ordean au nola!
Alaxen ere nigana ezin bigundu zaitut iñola,-
Ni zuretzako argizaria, zu neretzako marmola.

Nere biotza urtzen dijua, eta ezta mixterio:
Penaren kargak estutu eta zumua kendutzen dio,

Begiak dauzkat gau eta egun egiñikan bi erio;
Beti negara dariotela zu zeralako medio.

Zu zeralako medio, baldin juten ba'naiz lur azpira,
Gero damua eta malkuak alfefik izango dira.
Bein juan ezkero, oien birtutez beriz ez naiteke jira.
Ori gertatu baño lenago, izazu nitzaz kupira!

271. ZALDI BATEN BIZITZA

Ora sei bertso kale-garbitzaíeari,
Zena, bere izenez, dan Joxe Mari:
Eíeza lezazkike iru ABE-MARI,
Indara etorrzeko zaldi zuriari.
Animali ori
Efuki zait neri,-
Falta da ugari
Egoteko guri:
Kartoiakin egiña diruri,

Goizero biar dio eraso lanari,
Zikiñak bildu arte efi danari:
Beriz ere obeto bizi ez danari
Nabarmenduko zaizka ezufak ugari;
Ez naiz txantxaz ari;
Eta, Joxe Mari,
Zaldi gaixoari
Nai aña janari
Eman zaiozu, ea jartzen dan lodi.

Dago eskeletuen itxurak arturik,
Diña jan ezak dauka oíela galdurik.
Nola ez da egongo oso argaidurik,
Irukitzen ba'dute askotan barurik"?
Zaldi ori nik
Ez det esperorik
Ezer ikusterik
Ezurak besterik;
Ez du, beintzat, izango odol golperik.

Lana sobra du, bañan janaria falta;
Urikigafia da dakaíen planta:

Gaixoak ez lezake luzaro aguanta,
Flakiarekin ezin mugitu du anka;
Pentzu gutxi jan ta
Kalean jiraka,-
Gaizki bizi da-ta
Indaíik ez dauka;
Ezin kariatu du karo bat kaka.

Munduan ez liteke zaldirik arkitu,
Duenik ofen aña pena sufritu:
Biotzik gogorena lezake kupitu.
Ez du zartzaro txara gaixoak atxitu:
Pausua nagitu,
Ezin da mugitu,
Zaldi ofek ditu
Zazpi espiritu,
Bestela bizirikan ezin gelditu.

Gizagaixoaz danak pena artzazute,
Baldin biotz biguiñak ba'dituzute;
Asi zan egunetik eta orain arte,
Zerbitzua egin du efian bastante;
Igande ta aste,
Jaiarekin naste,
Makiña bat urte
Pasa dizkizute;
Orain efetiru merezi luke.

Indafa zeukan arte zikiña kano,
Eragiten zioten makiña bat saio.
Banan, miñez jafi da! indafa juan zaio!
Nekearen pagua balaz eman zaio!

Azkenak emen daude zaldi argal baten,
Zeñak ez zuen iñoiz pentzu on bat jaten.
Gelditu zaizkan mami-puskak eramaten
Beleak lan askorik ez uste daukaten.

272. POTAJIAPENA

Egunaren izena ez dakit nola zan,
Bañan señalagafi partidu bat ba-zan,

Pilotan jokatzeko Oiartzun'go plazan.
Nai det nere orduko gertaera esan,
Urengoan beste bat eskarmenta dezan.

Partidua jokatzen bukatu zanian,
Ostatura juan nintzan zuzen-zuzeniao;
Maiera jana ekartzen asi ziranian,
Apaiz batzerbitzen zan auren-aurenian,
Sartu zan makiña bat aren bafenian!

Nere ditxa guztiak ba-dute ajia;
Noski naiz Jaungoikoak aztuta lajia,
Gosiak egin nuen ango biajia;
Kulpa zuen arentzat daukat korajia,
Apaiz batek jan zuen nere potajia!

Zintzur ona zuela ondo sinaliak
Eman zituen apaiz baberun-zaliak;
Dozenaka tragatzen zituen aliak,
Maskatu ere gabe tripazai jaliak;
Alako aisa nola antxoa baliak.

Tragatutzen -zituen igar ta ezeak;
Ez ziran aren diña zetozen klaseak;
Agertu orduko zeuzkan tripara paseak,
Kortesia gabeko'txapela luzeak.
Arek naikua jan ta ni beriz goseak!..

Geroztik ostatuan sartu ordurako,
Galdea egin gabe ez det nik faltako,
Egun artako apaiza ote dan arako;
Ez apaiz jaun guztiak berdin diralako,
Baizik batek bildura sartu ziralako.

275. GAZTETAN DAMA BATI

Argitasun aundiko perla garestia,
Nere osasuna ta nere eguzkin,
Baita ere zu zera, maitetxo eztia,
Mundu ontako nere desio guztia.

Ezin fiñago dala da txit segurua,
Zuganako daukatan naitasun purua;

Beti dauzkat zugatik, nere aingerua,
Sentitzen biotza ta pentsatzen burua.

Ixilik gorde aren, asko dira penak
Nere biotz gaxuan zugatik daudenak;
Beazuna baño-re minkatzago denak;
Bañan zuk nai ezkero goza litezkenak.

Dauzkatan pena oiek ixilik gordeta,
Uts biurtuko dira zuk naizazu-eta,-
Bertatik jariko naiz kontentuz beteta,
Neria izatera konforma zaite-ta.

Ez naiz mutil edefa, au lana! au lana!
Ez naiz aberats ere, maitetxo laztana!
Bañan biotz bat ba-det oberik ez dana,
Betia zuganako amorioz dana.

Auxen eskeintzen dizut guztizko suabe,
Afen, egin nazazu zuriaren jabe!
Bestela, penaz ii-ta, laster naiz lura be,
Bada, ni ezin bizi niteke zu gabe.

ANTONIO ARZAK ALBERD1

Donosti'ko semea. Jaio. 1855-VN-26'an,- il, 190-1 X-IJ'au. Olerkari goxo, ap^l, lastera; geienetan bulkoz ta itzez be motza, Doizpeinka goi urdiñeruDtz egada jaso areri. Bere bost poema bertsoz- *Jose Marltxo, Amona, Zerura, Sufriten.* Euskal jaiak antola ta eratzea oso azkara. *Euskalcf-la* aldizkariarco zuzendari urteetan.

274. MENDIKO ALABA

Mendian bizi zan,
txabolan,
bildotsen ondoan.

Zer pozez udaran,
garotan,
saltoka soroan!

Zer itun neguan,
el ufa
datofen orduan!

Bildotsak goseak
iíeak,
geldi zan bakafik.

Ta etzan geiago
izandu
beretzat pozarik.

Ta uda-befia,
gozoro,
etor! zanean...

A!... Il zan goiz eder
batian,
bordarxo zafian!

* * *

Onela pasa zan
mundutik...
bildotsak maiterik.

275. Bl KABIAK

llunabartzen zuen
pasarik bidia;
ta nere inguruan
dena zan pakia!
Ontan, bazter batian,
untzek estalia,
begitaratu nuen
afi-gurutzia,
entzuten nueJarik
ixiltxo, eztia,
musika bezelako
marmariz txikia:
ta zan gurutziaren
untzetan gordia,
umez bete-betia
txorien kabia.

*

Nere biotzak ere
an dauka beria!

276. AMA MARIAI

Ama guztien Ama, gure maitia!
Amorioz betia, mantxik gabía!
Zugana gatoz, grazien ituna!
lkusi zazu zurea dala Euskal-Eria!
Zurea, bai, guk degun biotz guztia,
Zurea lotearen usai eztia,
Zurea txoriaren kabi txikia,
Zurea gure auren eregu txia!

Ta Zu zein zera?... Gaitz da nik esatia!
Ufikaldu gaixoen izar argia,
Oen alargunaren lagunuaíia,
Beren alabatxoen gordetzaíia,
Zenbat negar tristeren txukatzalia,
Eriotzako orduan txit pozgafia!

O zenbat dezun maite pekataria!
Zerura daramazu! Nola ordia?
Esanaz: —Atoz, atoz, nere semia!—
O Amatxo, Amatxo! Ama maitia!
Zugandik etori zan Jesus guria!
Ezagun da nor zeran: Abe Maria!...

277, OSTO BA**T**I

Kabi baten ondoan bizi ziñan,
Txoriñuen jolasak entzunik;
Ega ziran, geldi ziñan bakarik,
Bereala igartzen asirik,

Zenbat biotz ote dira munduan
Zure antza aundia dutenak,
Arkiturrk bakardade tristean
Zu bezela igartzen daudenak!

A!... baña zu laster zera lurean
Jiran-biran betiko galduko;
Ta gu, befiz, gera, obiratzean,
Amorioz Zeruan bilduko!

278, iLAK GERA'

Zer ikusten det ufuti artan biotza puslcetan joanik?
Zer ekaitz ilun ikaragari dator, Euskaldunak, andik?
Ai!... esatea libre ba'nuke, esango nuke, bai, pozik;
Baña penetan bizi gaitean, supri dezagun ixilik!..,

Ixilik atzo, ixilikan gaur, ixilik bigar eta etzi,
Ixilik beti! kantatutzea ez degulako ziíegi,
Ordu txafean, gure artean, giñalako, ai! berezi,
Anaiak bear genduelarik len, orain, gero, ta... beti!

Naigabe pisu, leor-leor bat, doakabe ark dakarkit,
Negar egin nai, baña malkorik bat bakafik ez datorkit,
Len ixurjak ditut guztiak. Dar-dar gorputza dabilkit,
Eraso beltza ba-dator eta Euskal-Efia!... Zabilzkit!

Lengo oitura miragafiak, zar eta maitagafiak,
Gure aitonen akonetatik Jaunak guri bidaíiak,
Denbora joanik beti beriak, beti txit afigariak,
Nora dijoaz? Nola t3 noizko? Au lotsa!... ana maitiak!

Gure semetxo eta aitonen erdian gaude jefiak;
Aek seaskan, oek zerutik, guri begira guztiak;
Eta guk norontz geren begiak daukazkigu ipiñiak?
Zorigaiztozko lotarki batek dauzkigu oso itxiak!

Gauza tristea!.., Paregabea da gaur nere dolorea;
Semeak aita ikusten du ta aitak ez, befiz, semea!..,
AI balitz aitak, gaurko egunean, seaskara begiratzea,
Izango luke bere biotza su bizi baten labea!

Baña!... Itzali zuen su bizi ura etsaigo negargafiak,
Miñak izanik, esan ditzagun, garbi ta soilik egiak;
Éuskal-biotzak sentitzen ditu eriotzaren su-garak,
Odol-ustu zan... au nere miña! nere eritar laztanak!

Euskal-Efiko semeak: esna! altxa gaitean gaur bertan;
Ara aurtxoak, guri begira, seaskatxo otz-otzean!

Ama non degu, Ama Euskera? Ara an txokoan, penetan!
fltzen ba'zaigu, ilak gera ta... ¡lak aurak seaskan!

Bai, gure Jauna! Il bitez orain ama ez ezagutzekotz,
Gu bezelako esker-gaizcozko seme txarak izatekotz,
Cure Legea, paregabea, oirtperafczera jartzekotz,
Berak galdurik, beren Amari, bizia galtzen uztekotz!

Guk; gurasoak eta semeak, gaurko Euskaldun erbalalc
Zer erakusten drotegu? Ai! Non dira Euskal-oiturak?
Eraso beltza ba-datorkigu, aziczen datoz aurtxoak,
Oitura on aek ba-daramatzL berekin ama gaixoak!

Gu: gurasoak eta semeak, zentzu apurik gabeak,
Euskal-izkuntza eta oituren galtzale locsagafiak:
Bereak ditu gure animak, sekulako, lotarkiak?
Etzaituzte gaur esnatu bear amaren azken-antziak?

Ezta batere! Ezta batere! Il bedi triste beingoan,
Ez gerade gu bere semeak, ez gaude Euskal-lufean!...
Au esan eta, odei lodiak, agertzen dira zeruan,
Eta aurtxoak joan nai luteke amon onaren kolkuan!

Ama joan zaigu!... Baña umeak emen gelditzen zaizkigu.
Ai, dira anditzen, eta erasoa aldera datorkigu,
Odei lodiak, beltz-beltz egiñik, argia digute kendu,
Eta dunbotsa turmoiarena nunbaitik aditzen degu.

Kantauriako kosta guztiko itsasoaren orua,
Dator ondoren iretsi naian Euskal-Eri izandua,
Goraintzi nairik mundu danari Jaunaren Lege santua,
Zenak danari esaten dion: —«Onra zazu gurasua».

Aur txiki aek gizon egiñik biurtzen zaizka aitari;
«Aita gaiztoa! —esan diote—, utzi zenion Amari!
Saldu gaituzu, zu galdu zera,- orain nagafak... ugari?
Ba-zenekizun, aita gaiztoa! etziñala ondo ari».

Bai, atzo il zan ta gaur emen dator eraso beltza ganera;
Bein damutu ta piztu zenduan, joan ziñan befiz atzera;
Urte oetan ibili zera be»in batera, bein bestera,
Baña, azkenik, il zaigu! eta... goazen guztiok... lurpera!

Aizea ere usteldu da-ta, ezin arnasarik artu;
Aitasemeak lura jo dute,- nai, baña, ezin altxatu.
Estutzen dira, aitak, orduan! Nai du semeak salbatu;
Eta semeak, madarikatzen, aita nai dute uratu.

Odeiak ontan lertzen dira-ta, negafez dago zerua!
Eiiskal-Ena izandu zana, beltzez jantzia, galdua!...
Esker gaiztozko bere semea, len gozoro bizitua,
il nai ta ezin il zofotz batekin, damuak arantzatua!

Ai, lufak berak du Ama il ura! Guk baña geiago maite,
Ama ark onía eman ziola beste Lurak ba-dakite,
Joan nai du bada aren atzetik, urak estaldu lezake;
Sar bedi bada Done Joanetik Santander jotzera arte.

Dizdiz txumistak, mafu turmoiak, ofu itsaso edefak,
Estal diczazu Euskaldun lurak, etsaigo gaiztok galduak,-
Adío orain, agur betiko atsekabe emengoak;
Barkaturikan, berarengana, gora gaitzala Jainkoak!

JOSE MANTEROLA

1849-1 JI23'nr\ jaio zan, ta 1834 JlOO'an il. Donosti'ko kale batek beie izena daroa, 1902'cík. Oso ikasia gendualako, ainbat gauza txalogari itxi euskuzau bere bizitz tahurean; etisko-jakinizari iñok ez lakoxe bultzada emon eutsan, or-emenka enskaltzalctasuu bizia sorturik. Bere le i>-lo na, guztiz ja kin garia: *On ia manual geográfico descriptivo de Ia Provincia de Guipúzcoa* (1871). Cero, 1877-80, *Cancionero Basco,* 9 zenbaki 3 sailetan, azaldu eban; sajl bikaña orduko. Eteskioarpen eta beste argibide asko dakaz, olerkari ba kor izar i dagokiona polito jafiaz. dmahosteroko aldizkari *Eushal-Eria* sortu eban, í880'an,- baita beste zenbaitek lagunduta, eusko Lore-jokuak be. Idazle trebe, olerkari ez makal. Euskera ta lege zar su txiupartez gaztedia pizuiceko egin eban Pos' *tvnebras spero lucem* deritxon poema luzea.

279. AITA MENDIBURU'»]

{bere eriotzaren 1 ° euntean)

Zure izen ona gaur befitzen da Euskal-Efian
Koroi galantaz agerturikan gure aurian,
Ta Euskaldun leial guztiak daude gaur zoratürik
Zure birtute eta doaiak ezaguturik.
Danak diote txit zeradela prestu ta azkaía,
Zure lanakin goitu dezula Euskera zafa,
Mila itz edefez gozo ta eztiro apaindurikan
Eta liburu oso bikaiñez orniturikan.
Euskaldun ona, kristau fin eta fedez betea,
Izdun edefa, izkribalari berdingabea,
Zure semeak gaurko egunean zaituzte agurtzen
Eta efamu-lorez zure burua dute koroitzen.

Mundura danak ekartzen degu lege gogof.i,
Eriotzan ordain zenion zuk zere zora;
Zure anima zeru alatra joan zan beriro
Bere Egilea ikusi nairik aurkez garbiro,
Baña emen bean gelditu zaigu zure oroipena
Eta eriotzak ¡udarik ez du iltzeko aomena.
Kunki bat joan da, ez dio ajolik! gerore aurera
Euskera bizi dedin artean biziko zera,
Izanik beti izar galant ta dizdizaria
Nai ditunentzat ikasi gure izkuntz eztia,
Ain aberatsa, ain otseztia eta gozoa,
Dirudiela Zeruan bertan sortutakoa.

Ikus ditzazu, o Mendiburu! zure semeak
Oiartzun artan nola dabiltzan pozez beteak,
Zeru goiraño jaso nairikan gaur zure izena,
Mundu guzian zabaldu naiez zure aomena;
lkusi zazu zure lur maite Euskal-Eíia,
Biotz-biotzean penak izanik, festaz jantzia.
Zure eunteko imigaldi auxe otseztitzeko
Eta merezia dezun fama zuri emateko.
Biur zazkigu, bada, begiak gure artera,
Lagun gaitzazu jira gaitean Lege Zarera,
Sendoturikan beara degun gure fedean
Ta Euskaldun denak elkarganako naitasunean.

280. POST TENEBRAS SPERO LUCEM

izaUtxoa)

Ongi, mutiíak; maitatu zagun
beti gure Euskal-Eria,
Ipiñirikan odeiaz goiti
Gure odol ta izen garbia;
Munduan ez da, seguru nago,
Au baño eri bat obia,-
Corde dezagun, bada, osorikan
Ama Euskeraren lecia.

6

Oroi gaitean Jaungoikoagaz,
Euskal-Eriko Jabeaz;
Oroi gaitean guraso zarak
Guri utzitako Legeaz;
Oroi gaitean Euskera gozo
Munduan paregabeaz,
Ta auferontz ere izango gera
Mirestuak erbesteaz.

Ja ^ *muúhk* ospatutzeko
Anaj , b¡¡era
Koro¡tu „ eíamu·,<oroiz
.- . #aj. r i
Gure Ama Santa Euskera.
Arbol oixek eskeintzen dute
Eratuu adaren aukera;
Berealaxe, gazte ta zarak,
Guazen, bada, orain lanera.

Bizi bedi beti Ama Euskera,
Jaungoikoak gorde dezala,
Ta arekin baita ere Euskal Efia
Eta Euskaldun beti leiala.
Jaungoikoak gure Lege Zarak
Noizbait biur dizaizkigula,
Euskalduna izan dedin doatsu
Orain arte izan dan bezela.

Pakea nai degu Euskaldunak,
Pakea eta anaitasuna,-
Ta Jainkoa eta Fueroakin
Doatsu izango da Euskalduna.

JOXE MARI IPARAGIRE

Jaio 1870-Vlll-I3'an; il !88l-IV-6'an, llxaso'ko Zozabaro baserian, jaio zan efitilí ur ur; bere gorpuzkiñak Uretxua'n datzaz. 1890'ko iraliaren 38'an, eritar guztiak ordainduta, oroigaíu edera jaso zan i-riko enparantzan. Donosti'n, Bilbo'n ia abar be, badira bere izena daroien kaleak. Euskal-Eri ta bere oitura zafen maitale sutsu, berea dau *Oernika'ko Arbola,* euskal abesti maitc-samura, ta beste zenbait kanta eder. Euskaldun zintzo onek ba-ditu bere akatsak, baiña nok ez? Areik estali ta bere egite argitsuak begiratu bear ditugu Gaitezan, bera lez euskaldun zintzo.

281. GERNIKA'KO ARBOLA

Gernika'ko arbola da bedeinkatua,
Euskaldunen artian guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu munduan frutua,
Adoratzen zaitugu, arbola santua.

Mila urte inguru da esaten dutela,
Jainkoak jari zuela Gernika'ko arbola.
Zaude, bada, zutikan orain ta denbora,
Eroritzen ba'zera eras galdu Rera.

Ez zera eroriko, arbola maitea,
Baldin portatzcn ba'da Bizkai'ko Junlea.
Laurok artuko degu zurekin partea,
Pakean bizi dedin euskaldun jentea.

Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko
Jari gaitezen danok laster belauniko;

Eta biotzetikan eskatu ezkero,
Arbola biziko da orain eta gero.

Arbola botatzea dutela pentsatu,
Euskal-eri guztian denak ba-dakigu.
Ea, bada, jendea, denbora orain degu;
Erori gabetanik iduki biagu.

Beti egongo zera uda-berikua,
Lore aintziñetako mantxa gabekua.
Eruki zaitez, bada, biotz gurekua,
Denbora galdu gabe emanik frutua.

Arbolak erantzun du kontuz bizitzeko,
Eta biotzetikan Jaunari eskatzeko.
Geíarik nai ez degu, pakea betiko,
Gure Lege zuzenak emen maitatzeko.

Efegutu diogun Jaungoiko Jaunari
Pakea emateko orain eta beti:
Bai eta indafa ere zedofen lurari,
Eta bendizioa Euskal-eriari.

282. UME EDER BAT

Ume eder bat ikusi nuen
Donostia'ko kalean.
Itz-erditxo bat ari esan gabe,
Nola pasatu parean?
Gorputza zuen liraña eta
Onak zebiltzan aidean.
Politagorik ez det ikusi
Nere begien aurean.

Aingeru zuri, pare gabea,
Euskal-eriko alaba,
Usterik gabe zugana beti
Nere biotzak narama:
lkusi naian beti or nabil,
Nere maitea, au lana!...
Zoraturikan emen naukazu
Beti pentsatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute,
Aingeru ori nun dago?
Nere maitea nola deitzen dan
Ez du iñortxok jakingo.
Ez berak ere, ez luke naiko;
Konfiantza oietan nago.
Amorio dun biotz: oberik
Euskal-erian ez dago.

285. AGUR, EUSKAL-RÉIA!

Gazte-gaztetandikan eíitik kanpora,
Estranjeri aldean pasa det denbora.
Eii-alde guzietan toki onak ba-dira,
Bañan biotzak dio: «Zoaz Euskal-erira»

Lur maitea emen uztea da negargaria.
Emen gelditzen dira ama ta eria.
Urez noa ikustera, bai, mundu beria,-
Oraintxe, bai, naizela urikalgaria.

Agur nere biotzeko amatxo maitea!
Laster etofiko naiz, kontsola zaitea.
Jaungoikoak, ba, nai du ni urez joatea;
Ama, zertarako <ia negar egitea?

284. NERE GITARA

Gitara zartxo bat det nik nere laguna,
Órela ibiltzen da artist euskalduna,-
Egun batian pobre, besoetan jauna,-
Kantatzen pasatzen det nik beti eguna.

Naiz dela Italia, orobat Frantzia,
Bietan bilam det mila malizia,-
Koritzen ba'det ere nik mundu guztia,
Maitatuko det beti Euskaldun eria.

Jaunak ematen ba'dit neri osasuna,
Oraindik izango det andregai bat ona;
Nai ba'det frantzesa interesaduna,
Bañan nik naiago det utsik Euskalduna.

Adiós, Euskal-eria, ez bañan betiko;
Bost-sei urte onetan ez det ikusiko!
Jaunari eskatzen diot grazia emateko
Lur maite ontan bizia uzteko.

285. NERE ANDREA

Ezkongaietan zerbait bnnintzan. aspertu nintzan ederez:
ezkondu eta ezer ez; nere gustua egin nuen ta
eder-zalia ba-nrntzan ere, orain bizi naiz dolorez.

Nere andrea andre edefa zan,
ezkondu nintzan orduan.
Mudatuko zan esperantzarik
ere, batere ez nuan:
surik batere baldin ba'dago,
maiz dago aren onduan.

Ntrte andrea alpera dago,
ez da munduan bakarik;
gauza gozoen zalea da-ta,
ez du egin nai beaiik:
sekulan ere ondo izango ez
alakoaren senarik.

Zokoak zikin, txintak[1] jario,
auta zintzilik besoan;
adobakia[5] desegokia
gona zararen zuloan;
iru txikiko bótela aundia
dauka berekin albuan.

Larunbatetik larunbatera
garbitzen ditu zatar bi;
bere aieixek berotutzeko
egur eretan zama bi;
belaun bietan bana artuta,
ez da ixiltzen kantari.

Nere andrea goiz jeikitzen da
Testara bear d[illegible]anean;
buruko miña egiten zaio
asi baño len lanean.
Zurekin zer gertatuko zan
nik bildurik ez nuan!

I) **greña; 2) remiendo.**

286. ARA, NUN DIRAN...

Ara, nun diran mendi maiteak,
ara, nun diran zelaiak,
baseri eder zurizuriak,
¡tuíi eta ibaiak.
Endaia'n nago txoraturikan,
zabalzabalik begiak;
ara, España, lur obcrikan
ez da Europa guztian!

O! Euskal-efi, eder maitea,
ara, emen zure semea,
bere lufari mun ematera
beste gabe etoria,-
zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia;
beti zuretzat, il arteraño,
gorputz ta anima guztia.

Gero, pozik bai Donostia'ra,
Okendo aren lurera,
Zeru polit au utzi beafa,
nere anaiak, au pena!
Irutxulueta maitagaria,
bere tokia zu zera:
Benezia'ren grazi guziak
gaur Donostia'n ba-dira.

Agur, bai, agur Donostia'ko
nere anaia maiteak,
lülbao'tikan izango dira
aita zararen beriak;
eta gañera itz neurtuetan,
garbi esanaz egiak,
Su-Amerika'n zer gertatzen dan,
jakin dezaten guztiak.

287. OKENDO ILEZKORARI

Zeruetan jan al banezake
Gaur Okendo'ren izena,
Biotz guztitik jasoko nuke
AI dedakedan geiena,-
Baña zer lana au neretzako!
Ezagueraz naiz labuía,
Bear bezela ondo neurtzeko
Bere kondaira edera.

Ogei ta zazpi urte zicuala
Zan Cipuzkoatar azkara,
Etsaiak lari artzen zituana
Eman ezkero aupada,
Betiko onra España'rena,
ítxasoetan bakana,
Eta munduan bere aomena
Odeiaz goiti dagoana.

Zenbat: ibili eta jazara
Kadiz'en eta Lisboa'n?
Erendicuak zenbat gudari
Antonio'ren menpean?
Asko alditan Olandesakin
Eta mairuen artean,
Beldufa zer zan iñork ez jakin
Okendo'taren biotzean!

Kantauriako ontzi guztien
Agintari zan Okendo,
Ibiltzen zana itxasoetan
Aizea bezin agudo,-
Ala juan zan Brasil aldera
Donarioz ta garboso,
Esanez: «Goazen etsaien bila,
Diran lekuan eraso».

«Ara nun dauden—esaten 2uan—
Eman deiegun arpegi...
Gogor!... bakoitza bere lekuan,
Su! su!... il arte ez etsi!
Ez oraindilcan, ez du etsaiak
Nere bizkañk ikusi,
Agertuko da jazar ondoren
Emen zein geran nagusi».

Asi ziraden sutan bertatik
Eta Anspater aundiak
Eraso zion gogor albotik...
Orduan ziran lanak!..,
Baña Okendo beti azkarak
Oso suturik begiak
An ekin zion, su eta garez,
Zati egiñez oncziak.

Olandesak an, estu artuak,
Laritasunak an ziran!...
Geienak txeatu, ere ta jto
Itxasoaren erdian!
Ontziak ere su artu zuten
Oadatutzeko zorian,
Okendo bera zan erukitzen
Na i gabe tasun aundian!

Ala dakite gizon bio'zdunak
Erendituari barkatzen,-
Egin au bera, bai, Euskaldunak,
Gudarik ba'da izaten:
izan gaitezen danok anaiak
Eta alkartu gaitezen.
O! ez ibili, Euskal leialak,
Lufak odolez estaltzen.

izanagatik garailaria
Aíotasunik ez zuan,
Ala zan gure gizon aundia
Jazar-lekuan berean.
Burua zutik, begiak argi,
Eta ezpata eskuan,
Ematen zuan beti arpegi
Argidotaren moduan.

Fededun ona beti izana,
Eta gudari aundia,
Jainkoak deitu zuan beregana
Gizon ilezkor argia.
Alabatua bere izena
Gaur zeruetan jaria,
Bere gloriaz bete -zuana
Betiko Euskal-efia.

PEPE ARTOLA

Krisalu-egilea. Ogibide apalekoa ¡zan aren, euskal-gauíetan oso sonatu zalako ta bertsolari bikaiña, gaur be aren oioipena gordin daukie Dooosci'ko alderdi zarean. Olerkirik asko idatzi eban orduko aldizkingietan, *Euskal-Ef'ta'n*$_i$ (Oooosti), *Euskalzale* (Bilbao), *La Baskonia* (Buenos Airea), t. a. Censo lau, egoki ta ereza dau. Bereak ditu: *Bixente, Legoreko Aran/zatia ta Xabiroya* antzerkiak, ta *Pralsku, Pelo Kirten* ta *Motxa eriyan* bakaiizkecak.

288, SAGARA ETA SAGARDÚA

Lore edera, mundura zera
Osto tardan etortzen,
Arbol-adarak zintzilik zaitu
Gustora ongi azitzen,
Denborarekin gorputza zaizu
Txit borobiía gelditzen,
Aize, eguzki eta euriak
Zaituztelako mantentzen.

Baño gerora gerietatik
Asitzen zera sentitzen,
Ezin egonak dituzu eta
Indarak zaizkitzu aitzen,
Ala getatzeu zeran denboran
Ama arbolak utzitzen
Zaitu,- orduan kolpez lurpera
Amilka zera erortzen.

Luren gañean gelditzen 2era
Neke ta penak sufritzen,
ikusi aren trantze txar ortan
Zutzaz ez dira kupitzen,-
Ustelczeraño etoririkan
Munduaz dezu etsitzen;
Orduan zutzaz oroiturikan
Moizbait zaituzte jasotzen,

Jaso zaituzte! eta gerora
Zer da zurekin gertatzen?
Borero oiek, bai, sententzia
Iltzeko dizute sortzen;
Presondegi zar aundi batera
Bultzaka zaituzte sartzen,
Mazoz zanpatuz gorputz guztia
Dizute bertan ufatzen.

Izerdi odol daukazkitzunak
Azkar dizkitzute kentzen,
Azal utsera biurtu arte
Guztiak prentzan estutzen
Aritzen dira, eta nola zu
Txetua zeran gelditzen!
Geiago sufri eziñik zera
Martirizatua ¡Itzen.

Zure bertute da esatea,
Zumoa zaizuna biltzen
Zulo batean, —au da kupela—
Ondo zaituzte gordetzen;
Juiztoko eguna ere
Noizbait zaizu iritxitzen,
Eta mundura bigafen txandan
Piztua zera etortzen.

Ai! zeñen gauza edefa eta
Garbia zeran azaltzen!
Euskaldun denok zureganuntza
Pozkidaz gerade biltzen;
Bakoitzak bere aldetik mila
Esker dizkitzu ematen;
Ta gero zure zumo gozoa
Gustora degu edaten.

289. Bl ZOZO

Alde banatandikan zerbait bila tzera
Zozo bi ziraden bein sasitik atera;
Biak zijoaztela bidian gustora,
Konpondu oi ziraden modu onetara.

Alegatzen ba'ziran zerbait bi[atzera,
Bien artean bertan erdi-banatzera.
Batek ikusi zuen aidean euli bat,-
Esan zuan: - -«Utzi au, afapatu diat!»

Sarera bat egiñik, zuen afapatu
Eta esan bezela an erdi-banatu.
Andik gero zituen bigafen zozoak
lkusi ufuti bi janari gozoak.

Eta zituenian iritxi mokora,
Jan zituen bakafik, biziro gustora.
Bestia zan aguro etofi ondora,
Esanaz: —«Partitzeko orain dek denbora?»

Erantzun zion: —«Zertan ez aiz etofi len?
Ire zai egotia, pentsatzen ai ukerí?»
— «I ez aiz jtzekua», mutufera zion,
Eta bestiak ere barkatzen etzion.

Ontatik ziran biak bufukatzen asi,
Elkafi mokazuak erantsirik bizi.
Bean izugafizko putzu bat zeukaten,
Baña zoramen artan ikusten etzuten.

Eta erorikan putzura batetan,
Biak ziran gelditu itota an bertan.

Onek erakusten du, bein ere tratciak,
Eztirala egin bear modu orlakuak.
Asefatu ezkero, daukagu esanik,
Ez degula izaten bein ere gauz onik.

290. ASTUA

Bere anka lotuta
zegon bein astua,
begi bat ere zeukan
erdi itxutua;
lanerako gogorik
nola ark etzuen,
mintsu baten papera
ark egiten zuen.

Nagusiak izanik
kupira árgana,
ematen zion jankai
bear zuen dana;
baiñan eguna joan ta
eguna etofi,
etzan iñoiz pizkortzen
asto zakar ori.

Bein nagusiak janik
eraman etzion,
baizik txoko batean
ipiñi baizion,
ikusiiagatikan
ote zan mugitzen
eta zokoan zegoan
gauzarik ikusten.

Egun osoa zuen
pasa baraurikan
mugitu gabetanik
zegoen Irkutikan;
baiñan gabaz altxarik
alper aundi ura,
pozez korika joan zan
jana zan lekura,
eta gustorenian
jaten ari zala,
zupatuaz an zegoan
mami ta azala,
nagusia zan goitik
presaka etofi,
eta arkitu zuen
jaten asto ori.

Len txantxetako miñak
baldin ba'zituen,
beuelakuak laister
ark izan zituen.

trenak eta itxuak
tsit asko munduan,
tranpian bizi dira
astuen moduan;
baiñan bein gezufetan
ba'dira erortzen,
beren larutik dute
ederki pagatzen.

RAMON ARTOLA

Donosliara au be, Pepe ospetsuaren anaia. Eguneango gora-beraz olerkigaiak nastu ia biotzari oiu erazo. Órela ditu onek bc, zenbait neurtitz, ta ez mengelak gero; egia, goi-egazkarik ez dau iñoiz be, baiña bai alegi txukunak, ipuin adoretsuak eta olerkilxo eztiak euskalduna berez /zan kantari. Onek be asko idatzi eban orduko albistaríetan. Bere liburu bat: *Gipuzkoa'ko Kondaira laster bat, ¡tz neurtuzko moldáermn* (Donosti. ISK9).

291. LEGOIA ETA ASTOA

Uste gabean alkar topoz jorik biak,
Asto onari zion agindu legoiak,
Jo zezala tronpeta beldur gabe lasa,
Egin zezala oiu aundiko arantza,
Ots-egin zekiola bere lagunari,
Ia jateko zerbait biltzen zion ari.

Eta ala tronpeta jorik segiruan,
Beriala bi asto aurkeztu ziran an,
Zeñak legoiak biak itorik segiran,
Bat zuen gorde eta bestia, befiz, jan.

Eta auíera ere tranposoa ala
Bizitzen zan, astokiz mantendutzen zala.
Bañan bere astoa denboraz zan zartu,
Eta ezin zuela asnasikan artu,
Gelditu zan troupetife jotzen ez zuela,
Bere auspo zafetau min aitzen zuela.

Eta orduan legoi nagusi zuenak,
Non arinduko zizkan zeukazkien penak,
Zintzufetik sarturik bere letagiñak,
Atera zizkan auspo zafetako miñak.

Ez degu joan bearik legoiarengana,
Au da gure artean maiz gertatzen dana:
Zartuta ezin egin dau denboran lana,
Esker gaiztoz iltzea langilea zana.

»t IGELAK ETA ARBOLA OSTOAK

Igelak ur ertzean eguzkitan lasa,
Ari zutela beren kantuko jolasa,
Kolpez sorturik aizebolara aundia,
Altxatu zuen arbol ostozko mendia.

Igelak, osto aiek ikusteaz ala,
Aidean egaztiak iduri zutela,
Eta jaistean zitzaizten ustean gañera,
Denak saltatu zuten buruz-be urera.

Mugitzeko beldurez zeudela gordean,
—Ustez zeuzkatelako etsaiak gañean—
Bat asi zan esaten átiak zirala,
Edo txikiagoko gauzak etzirala:
Besteakesan zuen zirala antzarak,
Egazti lepo-luze oso aunditzarak.
Eta artan zirala, afiskaturik bat,
Irten zan ikustera zer ziran ta zenbat;
Eta ots-egin zuen: —«Ezta egaztirik,-
Putzu ontan ez gaude igelak besterik;
Ur ganeko gauz oek egaztik eztira,
Arbolaren ostoak, orbelak bai-dira».
Eta ura aitzeaz, urpean zeudenak,
Zalapartan gañera irtenikan denak,
Jardun zuten esaten, t sant xe tan zirala,
Egon izu, papera egiten ala.

Izua da denboran begitatik sartzen,
Dira ez diran gauzak begietan jartzen,-
Eta beste itxura ba-du gauzak artzen,
Orduan ezta iñor izuti gertatzen.

295. NEGUA

Tristuraz zerupea maiz dala beztutzen,
Ezta bere garaiaz negua aztutzen,-
Egunak baitirade osoro moztutzen,
Egualdiak txartzen ta denborak oztutzen:
Onek eztu pobrien biotzik poztutzeu.

Loretxo bal eztala apaingari azten,
Pobrezaz da lur berde eder ura jazten;
Berengandik ostoak dituztela uzten,
Arbolak dira laru garian ikusten;
Edertasunik eztu ezerk erakusten.

Mitxeletak urezko egotxotan biltzen
Dira, ta lorez-lore eztira ibiltzen,-

Kirkir-txiririk ezta zelaietan aitzen,
Txori txikien kantak dirade ixiltzen,
Eta aundiak dira tiropean iltzen.

Berandu agertuta goiz dala gordetzen,
Eguzkiak gutxi du kanpoa gozatzen;
Lufak izozten dira, putzuak jelatzen,
Alditan oparo du elufa ezartzen,
Eta ala lufak il-itxura du artzen.

Gizona ilik, baldin bada bein erortzen,
Ezta geiago aren odolik berotzen;
Baiñan uda beriak lufa du pizkortzen,
Euri-tanto bakoitzak lore bat du sortzen,
Eta beriz eder da kanpoa etortzen,

ROSARIO ARTOLA

Aureko bien areba. Artolaíak, agian, edcr-odola dabe zanetan ixuria, sendi osoa dogu beintzat bertsolari. Ta emakumak, onetzaz gaiñera, eder-sen bigun ta biotz eztiagoa dabe gauzak ikusi, senti ta somatzeko. Ta, zetan esanik be ez, eniaztekien olerkiak askoz atsegiñago yakuza.'.a beti

294. NAIGABEA ETA ATSEGINA

Ama gaxo bat semetxoari
begira dago riegafez,
ikusirikan gaizki dagola
gaitz aundiaren indafez.
Igafirikan semeak dio
esaten bere amari:
—«Zergatik penaz beterik dago
begiraturikan neri?
Laister, uste det, bai, nere gaitzak
duela bere azkena,
bañan batere ez oíengatik,
amatxo, iduki pena.
Orain esango diot sentitzen
duena nere biotzak,
eta egian poztuko bai-du
nere azken-eriotzak.

Bada befi bat nik izandu det
aingerutxoa re nigandik,
eta bedofi ezertxo ere
esan eztiot oraindik.
Esan didate sari deituko
didatela or goitikan,
eta betiko ondo izango
naizela ni ordutikan;
nik lagunduko diot zerutik
semetxo baten,moduan;
ez uzte izan oso bakafik
gelditzen dala munduan».

Ama-semeak, laztandurikan,
biotz bi ziran bat egin;
eta orduan aingerutxoak
gora zioten ots egin!

Zer edertasun aundiagua
izango dan amarentzat,
bere aurtxoa beti-betiko
izatea Jaunarentzat!

295. NERE GlTARTXOARI

Nik gitartxo bat bai-det,
maite eta lagun,-
au joaz pasatzen det
denbora txit legun.
Nola denok grazi bat
zerbaitetan degun,
berarekin pentsatzen
nago gau ta egun.

Denbora pasatzeko
gauz oberik ezta,
onekin non-nai jartzen
det nik naiko festa;
bakarikan bera da
nora-naiko orkesta,
au aitzez iñortxo're
aspertutzen ezta.

Triste nagoenian
bera det pozgari,
zenbait bidertan ere
auxen det igar i;
onekin atsegiña
datorkit txit sari,
soñua joaz, eta
gañera kantari,

Citara jotzez ez naiz
bein ere aspertzen,
berarekin biotza
oso zait zabaltzen,
eta burua ere
rxit asko argitzen;
onekin det zorion
guztia arkitzen.

AITA JOSE I. ARANA, S. J.

Azkoiti'n, Izaraizpeko Iraurgi deritxon ibar naroan, jaio zan Aita euskaltzale argi an, 1838'ko oriTaren 36'an, ta Onan (Burgos) il zan, 1896'ko lotazilaren I9'an. Sorteria maite eban gartsuki, ta zenbat lan eder egin bere alde! Jakituua zan, biotz oiukoa ta irudimen aberatseko Bere neurtitzak ezin esan-ala. Ta ez bakarik gure arteko aldizkingietan, *Corona Poética* (a *Semanario Calólico'u* be argitara ebazan banaka baUuk; *Liheralkeria pekatu da.* Sarda jairoak egiña euskeratdu eban. *Disertación sóbrelo Ori .'grafio euskara* (Bilbao, 18901 ta *Teoría de Ia Poética General* bc bereak ditu üsker onekoak garean aldez, josi daiguo geugao aren euskal-zaletasun bizia.

296. MAGNÍFICAT

Nere anima ots-anditzen da,
Ziñez goratzen du Jauna,
Pozturik Jainko-Osagilean
Ene izpiritu-baíuna. •

Zeren ezafi zituen nigan
Bere Jaungoiko-begiak;
Zorioneko esango naute
Ondoren jende guztiak.

Bada, egin dit Altsua danak
Mesede goien-goiena:
Bedeinka beza mundu guztiak
Santu dan bere Izena.

Eruki ona ondorengoai
Mundu dan arte mundua,
Banaturikan biotzetatik
Buru aroen utsafa.

Almen aundiko asko zituen
Beren acitkitik astindu,
Eta biotzez bekoi-otzanek
Altxatu eta goitindu.

Onez aseta utzi zituen
Gose-beartsu zirenak,
BialcLurikan ezertxo gabe
Aberats ondo zeudenak.

Oroitu zan bai erukimenaz,
Oso artutzen zuela
Israel'daien eri maitea
Bere seme bat bezela.

Nola leendanez esan baitzien
Gure asabak zianari,
Abraan'i ta bere semeai,
Beti-betiko dianari.

297. EUSKAL-IDAZLEAK

I

Euskaldunak erderaz

Ez al da emen ibar, mendi ta
Kanrauritarcn aitzetan,
Gudu-irintzaz burni-soñua
Besterik senti aizetan?...
Aitor'en seme argtdotarak
Beti dabiltza geretan?...
Ezpataz oitu diran eskuak
Ez al dakite letretan?
~" "7 TT '.". T' -
bz da Euskalduna

Tx.t ezaguna
Naiz letra ta naiz armetan?...
„. , .
Bietan dago bere izena
^ T° .
Goien mailara jasua,
Geldi diteke letra-gauzetan
Edozein bezin afua,-
Euskaldun onak, [etradun ba'da,
Izanik zaldun prestua,
Efege aundien ondoan dauka
Exeritzeko lekua;
An letra onena
Euskalduneri
[ziar dala maixua.

Araba-seme Aiala'ko ta
Gebara'tarak dijuaz
«. i . < .
Gazteletaren urietara
jakinduri* osuaz;
Liburu asko ager dituzte
(tzlafi eta neurtuaz:
- T T - - i_ i • i >i i
Ta Iñigo bera Lorola kuak,
Eri dagó|a; sutuaz
san pedro-amorez
Diardu erez
Neurtitz ederen soñuaz.

Izan ba'ditu España aundiak
Egite guztiz nobleak,
Kondairan garbi ezafi ditu
Arasate'ko semeak;
Garibai dute irakuriko
Gaztelar zar eta gazteak.
Ta Araukanoen gudu gogorak
Ezagutzeko jendeak,
Kanta goienak
Erzila'renak;
Erderaz ezin-da obeak.

Bergara'n jaio zala dioten
Jauregi'k egin zuena,
Neuttzaldi dezu goienekua
Amintd izen duena;
Juaten ba'zera Brasil'eraño,
Urestil'daren izena
Antxieta bat arkituko dezu
Latin kantari onena,
Bertsu gozuaz
Soñuratuaz
Birjiña Amaren omena.

Bizkai'ko mendi-egietan da
Ibaizabalen ondoan,
Edergaíifzat sortu ziraden,
Arbolak nola kanpoan,
Salazar, Poza, Tereros lenen,
Eta Ituíitza geroan:
Zenbat eskribu oien ondoren
Zamakola'k du gogoan,
Guzien gala
Salzedo dala,
Nola altiste bat koroan?

Ezka, Ega ta Arga ibaiko
Lljolde urdin garbiak
Beren uretan pinta zituzten
Izkribalarj argiak;
An edan zuten Erodrigo ta
Azpilkueta aundiak,
An Jabier'ek, antxe Mazeda'k,
Moret eta Esteía'k an biak,
Zabaldutzeko
Jakiundeko
Argi-erañu biziak.

Egiputzeko eíietan da,
Baitere mendi tartian,
Ara loretan letra-zaliak
Nun arki diran batian
Isasti, Gaintza, Luzuriaga,-
Eta Munjbeen aldian
Ager dirade diztiaduraz
Miner ta Ero parían,
Eta Otxoa
Goienekoa
Neurtitzlarien ganian.

Ba'guaz ere Prantzi alderuntz
Euskaldun anai artera,
Donibane'n ta Ziburu'n egin
Oiarzabal'en galdera;
ltxas-gizonak árgana datoz
Ikasbideak artzera;
Oienart'gana MauHeon'kuak
Auzi-kontuak kentzera;
Eta letretan
Baiona aldetan
Dafigol'elc du bandera.

Euskaldunak Euskeraz

Alde aietan Euskara gozo
Aintziñakoan zein ongi
Jaun Etxepare ta Lizaraga'k

Jardun oi zuten! Ta obeki
Oiez gain ere Axular jaunak
Esan-jiroa ba-daki:
Bere liburu «Geroko Gero»k
Mintzo dalako ain galaiki,
Du merezia
Eza ri tz ia
Ure-zilarez ederki.

Ango bereak agiri dira
Euskal-jzkunde jario
Apaiz Lafegi, Baratziarte,
Haraneder ta Txurio.
Zenbat neurtitza eztí-gozoa
Hiribaren'i dario!
Ta Goienetxe'k ipui onetan
Bost gauza polit ba-dio;
Asko utzirik
Emen ixilik
Bizi diranak oraindio.

Baste re txea'k Bizkai-i zkeran
Neurte zaintsuen soñura,
Jesu-Kristoren oñaze-miñak
Azaltzen ditu mundura;
Liburuz ta itzez erakus dute
Kristauen lege ta oitura
Astarloa ta Prai Bartolome'k
Miragarizko modura,
Dagola (oran
Añibaro'gan
Lora-sortaren itxura.

Markiña aldeko pozgari dira
Iru Mogel'en izenak,
Izketa-gjro berezienez
Bizkaia'n diran onenak;
Oñordekoak jafai diela
Beste bi gizon goienak,
Uriarte ta Azkue jauna
Euskera-zale piñenak,
Batak itz-lafiz,
Besteak neuriz,
(zkribalari lenenak.

Mendiburu'ren izkunde goiak
Zizeron gisa jaikirik,
Afiturikan Euskal-araza
Beragana du jafirik;
Gero Ubiíos ta Agiré'rekin
Dago Fedean bizirik;
Oien izpjde bikain leunenak
Nola ez izan eztirik?
Ta Iztueta'k
Daukan izketak
Nola ega du ain goirik?

Irakur zazu LardizabaTek
Daukan leuntasun aundia,
Itujfiaga'k neurtu zituen
Ipui ederen grazia,
Iparagire'n zortzikoetan
Euskal-Eriko bizia,
Ikus dezazun Euskera dala
Izkunde gala nausia,
España'n lenen
Ziran biztanleen
Artean Jaunak jafia,

Bañan begira guzien gañez
Laramendi'ren kopeta:
Arena Euskeraz, arena erderaz
Pare gabeko izketa;
Euskaldun gauzen etsai diranak
Daude kiskal ta efeta,
Aren arazoi zuzen bortitzen
Kontra eziñik, aseta:
Bere izenez,
Bere aomenez
Dauzka munduak beteta,

PIO M.ª MORTARA Atia

BoloQÍ'n (Itali) jaio, 1851-Vlll-27'an, Gurasoak j «chitar, bera gaztetxotik kristau. Eroma'n ikasi ta gero Lstcrao'go Kalonjüen jantzia artu. Prantzi'ra aldaturik, ücatichéiie'ko Lekíiidetxea irasi eban, beste batzuk bc lagunduta. Pranizicar marxiiiada aldian, Oñari'ratu ta Anaidi ortakoak enieo dauken etxe edera irasi. Liejaii (Beljika) il zan, 89 urte ebazala, I940-ITI-1 i 'an. Gizon argi ta bizia; Onatj'ra eldu ta laster, ango eleiz nagusian euskeraz mintzatu zan.. Bonaparte ta garai artako euskaltzale guztien adiskide ta lagunt-zaiíe trebea.

298. ARATS IZUGARIA
(ISfJ'gafen abosluaren azkeneko gabari)

Goíiak daude goiak urutiraño,
Ageri dan guzia gofia dago,
ta lur/ak baño
Jzutzen du zeruak askoz geiago.
Argitan zabaltzen da zeru goibela
iíargi gabe,
zer doakabe!
Odoiak su-garetan balitz bezela,
Ta ¡nferntiak balira gabaren jabe.

Arats ¡zugana! Ordu tristeak!
Nora begiak jaso, penen kupiran
malkoz beteak,
Zeruak ere bada etsai ba'ziran?
Uri leial gaixoa gaietan dana!
ta zeru gorak,
agitz gogorak,
Irabiatzen ditu beriz gugana
Elementen boíadan suzko kanborak[1].

Itsasotik sortuko lanbro dokaitzak,
Burunbadan igoak turmoi tartean,
ziran ekaitzak,
Eta sarratu orduko, tximist kolpean
Odoi ganeko labe sutu artatik
jasa ta ujola
eurizko eróla,
Amiltzen zan lurera, iduriturik,
Ixurtzen ote ziran sua ta odola.

Sua ta odol gofia! Naga[2] ta ikara,
Sutunpadak, antsiak, ilkintza nun-nai,

tximist dardara,
Biziak ta bizitzak gafen efekai
Ta ixil-ixil zijoan odol efeka,
karikan bera
itsas aldera,
Ituna geiturik iíak taldeka,
Ez ba'zetoren sua eragoztera.

Zeru-lufak asefe... Ustez anaiak
Atzeritik ziranak gugana etofi
ziran etsaiak.
Nora bada begiak jaso ta egon"?
Ez lur, ez etxe, ez esku, biotz tristea
noraganatu?
nun anparatu?
Burniz edo berunez laster iltzea,
Noralderik onena zan aukeratu!

Gizon ordi taldeak askai likitsan
Ecxerik-etxe dabiltz leian iñoren
diru iritsan,
Onraren zale, burniz pasatu ondoren
Arpegi eman duen aita, semea
edo gizona
¡Itzen dagona,
Sentjturik batean agoni epea
Ta antsi triste lan bat deitzen diona.

Zafak, naiz egon zaíez obtko atean,
Ez ziran barkatuak, ain gutxi eriak,
beren oiean
Iíak ziraden; ume jaio beriak,
Gorde nairik, gaixoak, amen kolkoan,
bien biotzak
burni zofotzak
Uratzen ditu, ta amak iitzerakoan
Igaro bear ditu laidozko lotsak.

Lotsa ta ilkintza... Baña nora naiz eldu?
Ez, efitar maiteak, ez det nai zuen
beta goibeldu.
Gure asaben gaba gurtu nai nuen,
Jariaz begi aurean aien kondaira,
birtute aienak

danik onenak
Zer diran bizia utzi ta argi joaira
Beti ikusi zazkigun beren izenak.

Asaba zar gureak joanak mundutikl
Numanzitar efutsu[3] aien modura
bizia emanik,
Igo ziñaten zuzen zeru txit altural
Jaunak bere saria dizute ematen
ordu ezkero;
bai, efauts bero,
Martireak bezela igo ziñaten
Sugar Donosti'kotik pasa ta gerol

1) brasa; 2) náusea,- 3) valeroso.

299. SUZKO ZEZENA

Danboliñaren jirak kalean
Daramatzi jendeak airean,
txistuaren
ta atabalen >
doñu alaiean.
Eriko biztanle guziak
Plazara dirade etoriak,
aratseko
zezeneko
suak ekariak.
O Donosti'ko zezen-suzkoa,
Izan zaitez zori onekoa!

Irtena da zezena arkupetik,
Txingara dariola atze-aldetik,
danbadaka,
ta jiraka,
jendeen artetik,
Zalapart artan zenbat naspil,
Zenbat kafasi, zer iskanbil,
¡tsumuka,
trunbuluka,
jende dena dabil.
O zu, zezen onen sortzailea,
Izan zaitez gloriaz betea!

Damatxo gazte ta galai (iñak
Elkari adi bat ezin egiñak,
arkupetan,
kiriketan[1],
ai, zer alegiñak!
Suzko zezena bada aurean,
Iges egin nairik asmoan,
zeren lari
diran jari
elkafen ondoan.
O zezen pizkor txingar jario,
Zenbat kontu zure medio!

Su-kurpilak dijoaz astera,
Suzko zezena igo dute oltzera,
argi-pilak,
su-bonbiíak
dijoaz airera.
Zeñen argi politak dira,
Maite degunari begira,
bat-batetan,
begietan
ikusten badira,
O, bai-dira, bai, txit txingartiak
Biotz suzko baten argiak!

Bejondaizula, zezen suzkoa,
Oonoscia'ren inbenlzioa,
gaztientzat
ta ¿arentzat
test gain-gañekoa.
Ez, bada, jendeak, nagitu,
Plazara joan gabe ez gelditu,
far asko egin,
dantzatu arin
ta asko dibertiiu.
Suzko zezen eder, on degizula,
Gaur ta **beti** bejondaizula!

1) .1 esconderse

300. AI, AU DOLOREA!

Iñoiz txikitan egin ote det
amen besuan ametsik?
Munduan nabil, aunditu ezkero,
arpegi baten atzetik,
Alperik beti! Ez det bilatzen
pentsamentua!) besterik.

Larogei urte ba-ditut eta
ez dit galtzen memoriak.
begiratzen nau, far egiten dit:
zeureak ditu begiak!
Iñolaz ango aingeruen bat
ikusten dute neriak.

Jesus nerea! Nere imajiña
gaur ikusi det kalean:
nere bordoian goiberatuta
ba-netoren ni pakian,
oiu triste bat bota det eta
kordia juan zail golpean.

Larogei urte: berak amasei!
Oren berandu bilatu'
Kanposantura ni nuanian
ura munduan argitu:
eta penarik aundiena del
ez ditala begiratu!

MIGEL ANTONIO IÑARA Apaiza

1898'ko jorailaren 26'an il zan 33 urteko apaiz gar-erdiko au. Oiartzun'go seme, *Etxe Txiki* etxaguntzan jaioa. Umetatik erakutsi eban eleizarako mindu ona, ta Urníeta'n ikasi eban, Oñati'n pilosopi ta Gazteiz'en ikasketai amaia emonik 1891'garenean apaiztu osletxoan. Durango'n esan eban Meza baria. Cero, Pasai-Aundt'n bizi izan zan, abade lagnntzaíe, Jaunak beragana dei egin eutson arte Ezin esan-ala dira, or-emen, bere lumatik urteniko euskal-irakurkizunak. «Iñara — diño Azkue jaunak — biotz andikoa ta burutsua izan da: gof.amcnetan sakona, esakeretan iíun samara, egikerecan biuri bakoaz. Ba-ditu neurtitz yaioak.

501. AMA GUADALUPF.'KOARI

Agur, Guadalupe'ko
Ama Andre Maria,
Itsaso ta leoreko
Izar txil garbia.

Ari dira lanean
Orain mendi ortan,
Baña Zu zaude berian,
Ez juan, ez, ortikan.

Ortik Zu irten ezkero,
Amatxo, gu nora
Geren atsekabeetan
Deika juango gera?

Egon, bada, beti or,-
Ez juan, aren, ortik,
Euskaldunak umezurtz
Utzi gabetanik.

302. AMAREN NEGARAK ETA SEME GALDUA

Masail onetatik
tanto eta tanto,
Aiña, zerengatika
dariola dago?
Zerengatika dago
dana arindurik',
iñola ere ezin
iñondik pozturik?
Zer nai du egitea?
Ona emen semea,
poz aunditzat daukana
amaalaitzea.
Agian egin diot...
eman diot, Ama,
nik, nai-ez aundiren bat
ain minkoía dana?
Ama! oraindik ere
negar eta negar?...
Nork eragiten dion
esan bezait azkar.

—«Zuk, ai, nere semea!
Zure pekatuak,
zure bizitza gaizto
pare gabekuak;
oiek izandu dira;
t'oietaz ganera,
. zuk negar egin bear,
ta far egitea».

-«Aski da, Ama, aski da,
ez geiagQ egifl;
bmnu£0 na°z orain
bedorena berdin.
Ez geiago gaizkirik,
il ere lenago
beñz beste malko bat
aterazi baño_

Betor, Ama kutuna,
neronen eskuak
txukatzeko, aterazi
dizkatan majkoak».

)) transido.

503. LEON Xlll'Rl

Ez da aterako, baña beartu
Ezkero ateratzera,
Etofi bedi beste juan
Gabe Euskaldun lurera,-
Danetacikan bereziak, gu
Iñortxoreíaak ez gera,

Ez Prantzia'na ta España'rena
Ez degu gure izkera;
Bakar-bakank
Jainkoagandik,
Auez-aujoa da onera.

Abendu ila berez iluna,
Denbora negargariak,
Ainbesteraño non Eroma'ri
Ekin diote guztiak:
Kristo'ri entzunda ez ba'geundeke,
Ai, gure eíukariak!
«Zuekin nago, ez ikaratu,
Orain ta beti, txikiak».
Onek txukatzen,
Poztu ca kentzen
Dizkigu malko lanak.

Poztu zaitea, zu, Karptneto,
Perusa ta EromaVekin,
Poztu Euskal-Erj ta Italia,
Poztu Oiartzun nerekin,
Poztu mundua, danen biotzak
Bateralu ta aikafekin,
Poztu gaitean, pentsakai danak
Utzirik Kristorenakin,
Lajarik ilun
Ta goibeltasun
Danak onerizkoakin.

O gure Aita txitez Donea,
Bere bizitza kantatzen
Emateagatik lenbizi nere
Premiziak jafi nintzeo:
Bere poz eta naigabeetan
Parte ote naizen izaten,
Baita Euskaldunak bere semeak
Gaituela ere esaten;
Bai Euskaldunak,
Portiz zaldunak,
Ez gera orekin lotsatzen.

Agur, gure Aita ezti biguna,
Ausardi auxe barkatu;

Bere semerik azkenekoena
Da izan zaiona mintzatu:
Baña nik nola aunditasuna
AI izan det berdinkatu?
Ezin diteke, eta biotzak
Bearko itugu trukatu,-
Baña nerta
Ain da txikia,
Berean gorde bear du.

304. PAKE-ZORIONAK

Tximeni luze baten
zulotikan kea,
gizen, lodi, oparo,
zuri-beltz, nekea,
ateratzen dijoa;
zabaltzen goietan,
zer? zer bezela ere?
Benetan, benetan,
aize-izpi bat ere
ez dabil ta... ara,
kea ateratzen da
bara, bara, bara,
eta geratutzen da
ain gozo etzana...
Ikusteko gauza da
ta ezin esana,
Pakean onelaxe
etxe ta eriak,
guziak, beren artu
ta eman guziak
egiten ta egiten
dituzte gozoro;
eta asti dabilen
lekua, bai, naro
ariko da ematen,
asko edo gutxi,
aberasketak eta
zoriona beti.

Ezer gutxi da kea,
eta ori bera
ez da gefateetan
beratzen, bai zera!
armen su, ta biotzen
su gogoragoak.
Aienatzen dituzte,
zer ez? Aingeruak!
Bzeztu, ondatua
uzten dute dana;
dana galdu, kiskali,
eri ta baldana.

Pakearekin kea
beta zaigu ona.
O pake egiazko,
aren zoriona!
Gerak, befiz, gauzikan
onenak, galpenak
ematen ditu, miñak
gauzikan onenak.
Bijua, bada, ordu
txarian, bijua
gera... Deabru gaizto
gaiztoak sortua.
Betor pakea, ta naiz
ke utsa ekari,
arlote ta atsegintsu,
zerua da ori.

KLAUDIO OTAEGI

Gure artean be ba'dira, atzefi-elertietan legetxe, olerkari kaskafak, itzneurtuctan jardunagaitik, azalean utsune agiiiz ta erai mamiñean alako elkortasunez kutsutuak Zer edo zertan ekin nai, baiña txepetx antzera egada labur txoak soilki, Otacgi ez dogu oren arteko. Zegama'tarn jaiotzez (1836-X-30), maisu azkara ta osoro ikasia euskal-gaietan. Bonaparte PriDtze jakitunari sarítan lagun egin eutson, gure Eri barna, euskal-gauza bila. Berein olerki goitar ta ipuin eder ditugu berak idatziak, baita gaztelerattk, prantzeratik eta ingeleseratik euskerara biurturiko lan asko be. Olerkietan itxaso ariia dirudi, apartsu ta irakiU'n. Gizon zintzoa, noski, euskaltzale jatofa ta antzclari bikaiña.

306. ADISKIDE BATEN OROITZA

Dena beltz ikusten det begien aurean,-
Ez det arkitzen pozik nere barenean,-
Triste daukat biotza, onik ez etxean,-
liul.ir.ik ere naute uzten azkenean!

Otzikara gisa zait gorputza mugitzen!
Bakarik ezin egon, zer naik izututzen,-
Gau ta egun nago, ai! negaíez urtulzeii!
Zer zaidala dezute uste gertatutzen?

Adiskide bat il zait! Zer adiskidea!
Ezpaitu iñork gaur, ez, arkituko obea!...
Zergatik joan zalzazkit, o lagun maitea!
Utzirik pena eta naigabez betea?

Zer da nitzaz izango zu gabe munduan,
Itzal uts bat ezpada baso eremuan?
Ona izan ziñan-ta, zintzoen lekuan
Atseden zazu lasai! Atseden Zeruan!

0O6. LAU ARBOLATXO

Lau aritz bigun ziran mendi lafutuan,
Jaio izanda bata besteren onduan.

Aize txirimilo ia ekaitzak zebiltzan,
Geldi gabe burukan, laurak zati naian.

Lur guri gutxi, eta azalean zañak,
Aen gorputzak ziran meak ela argalak.

Eta, balin aurkitu ba'ziran aparte,.
Garbituak izango ziran, ezpai gabe.

Bizi naiak, ordea, erakutsi zien,
Nola ezti etsaiai eraziczen zaien.

Esan zioten, bada,alkari: Mutiíak,
Gurutzatu'ditzagun irnieki adarak;

Lagundu alegiña batak besteari,
Aizearen uruñak ez ditzan ebaki.

Eta era onetan dizkigu betiko
Ekaitz setatsu oek aisa garaituko.

Alkartasunak zitun txikiak aunditzen,
Era eibaritsuak indartsu biurtzen.

Esan ta egin; euren adarak zituzten
Txirikordatu ala, non bat ziruditen.

Eta geroztik dira laurak bat egiñik,
Aritz aek doatsu alkari itsatsirik.

Zeren alpeíik dira ekaitz indartsuak
Lurera botatzeko aritz anaituak.

Euskal-Eria: libre bizi nai ba'dezu,
Ispiíu eder ontan begira ezazu.

507. ARBOLAR1 OROIPÉNA

Mila kolore dituen ibar paretsu baten erdian
Jaunak paratu zuen Aritz bat lur sendo eta gurian,
Euskaldun denok bizi gintezen doatsu bere azpian.

Murmur egiñaz aldamenean zeukazkien itunak:
Lore politez apaindurikan bide-txigor ta zelaiak;
Baso itxiaz egi, mendiska... bere inguru guziak.

Ur tartetikan agiri ziran pitxi-loreak ugari
Eskeintzen euren ezti gozoa erle beargjleari,
Ufetxiñolak oian zokoan gau eta egun kantari.

Egun-sentian agertutzen zan eguzki zoragaria
Erakutsiaz bere aurpegi ufezko diztiaria,
Eta aratsean eskutatutzen zuen goisoro argia.

Ilargi eder zilarezkoa irtetzen zan sortaldetik;
Ikusten ziran goi urdinpean argi-ontziak zintzilik,
Arkitzen lore usai gozozko txuriak intzez beterik.

Zeñen garbia, ikusgaria zeru azpia zegoen
Aize biguña eta preskura zituelarik eskeintzen!
Zeñen gozoro Aritz oriak ziran pirpir mugitzen!

Izate danok Jaungoikoari ematen zion eskerak,
Ikusiríkan egun eta afats ain eguraldi edefak;
Iai dm loretsu bat ziruditen ibar arteko baztefak.

Baña agertu zan zikintasun bat zeru Iuraren tartean,
Bi odei lodi, oso itunak, bata besteren aurean,
Zorigaiztoro alkaren indar gogofak neurtu naiean!

Nastu ziraden, sortu zituzten ujolde izugariak,
Turmoi, tximista, aize-txistuak, poroka naian mendiak,
Euren lekutik irten nai zuten koajetsuzko ibaiak.

Itsas genasi orularia zebilan oruarekin
Zelai ¡gafad berdindu naian belar soro ezeakin;
Lur larutuak baso itxi ta mintegi oritsuakin.

Alper-alpeiik egin zituen alegiñik aundienak
Irago naian, txit setatsuro, arokarik bikañenak,
Muga oriek para zizkion gauza danen Jabe danak.

Aretu ziran itun garbi kristalaren gisakoak;
Oso mastrilci udaberriko lore arantz gabekoak;
Erori arte tantai lodiak zenbat gizalditakoak.

Ala ere, ai, zatitu aren Aritz zarari adarak,
Eraman aren zituen ori guziak ekaitz gogofak,
Itxeki zion, mila aingerua! portizki gefi azkarak.

Baña arkiturik bakardadean sentitu zuen ikara,
Eta aji egin, Jainko aundia! nere umeak non dira?
Bakar-bakafik utzitzen naute umezurtz baten gisara?

Nere ii /alik ez al du bear geiago Euskal-Eíiak?
Ez ote ditu maite izkuntza cta oitura garbiak?
Egoki nere biotz-bafenen Jaungoikoak ipiñiak?

Ez ninduen ni, aren almenak bere antzera paratu,
Esanaz: —Mendi onetatik iñork botako etzaitu,
Etsaiak baldin zure semeak berezitzen ezpa-ditu?—

Kartago'tarak, Eroma'tarak, Godoak eta Mairuak,
Etziran izan Gurutzeaz ta Nitaz beti garaituak
Kendu izan nai zicuztenean nere adar ofitsuak?

Ez al zituzten nere aurean makurtu beren kopetak,
Jende-xeak ta aundi-mandiak, beartsu ta dirudunak,
Erege aundi, jaun almentsuak, eta gañera umantak?

Eta zer, ekaitz iragokofak orain izutzen zaituzte?
Amoriorik nereganako sentitutzen ez dezute?
Oztu al dira zuen biotzak? Siñispenik ez al dute?

Eta mendiak erantzun zuten: —Ai zer estadu tristea!
Ekaitz gaiztoak zaitu egiaz larutu, Ama maitea!
Non eta nola dan ori sortu ez goaz gu esatea,

Baizikan egin min-min batzuek garbi nai ditugu esan,
Zure umeak jakin dezaten nola porta bear diran
Tximista-gaia kemear-mugan sortzean berirotikan,

Zure itufi garbietatik sortu ziraden Legeak
Etsaiak ere aitortzen dute dirala ezin obeak;
Eta ala ere auzora bila seme axolakabeak!

Amoriozko Ama nai ezik, ugazamaren mendean,
Losinkerian dabiltza zenbait, beren buruan onean,
Ipar aldeko ibar libreak utzita, ego aldean!

Baña, o gauza miragaria oekin gertatzen dana!
Arako dute, eztaraziaz eskatzen gure ¡zena,
Esanaz: — Laster egingo degu Arbolaren zoriona—.

Eta atzapar donduleskin ari dirade kendutzen
Geldi zaiozkan sustar gogorak,- eta ez dira lotsatzen!...
Aundinai ero kutizi beltzak ditu oretaratutzen.

Ezkuta bitez galgiro oriek lau Probintzi oetatik,
Ezin aserik duten gosea gure bizkar gañetatik,
Ebro irago bezin agudo etsaiekin bat egiñik!

Aralar'eko Aingerutxoak daki ziradela bildu
Seme zintzoak mendi artanrxe, eta zutela akordatu,
Amari bear zizkiotela jazkai ederak ornitu.

Oiu eginaz, zoaz emendik *alkar-ezin-ikusia!*
Zu zera Arbola zulatu duen pipi zital galgaria,
Amaren bular eta eraiak jan dituen min bizia!

Zu nai zaituzte gure artean betiko etsai gordeak;
Baña ez, alkar artuko dute Aitor zafaren semeak;
Egingo dute bilkida Ñapar Euskaldun Fuero-zaleak.

Eta orduan amorio ta libertadezko argiak
Kenduko ditu gure gañean arkitzen diran odeiak,
Eta botako Aritz arbolak beriro muskil guriak.

Bildu gaitezen, bada, guziok Arbolaren inguruan,
Eta maitatu, zeren berdiñik arkitzen ez da munduan,
Landatu zuen esku santua dagoalako zeruan.

308. K. D. TXURUKA JAUNAREN OROITZARI

Eguzkia sartu da osgori tartean,
Odeitzarak pilaka daude zerupean,
Turmoiak isiltzen ez dira goi beltzean;
Tximistargiak zik-zak onen bitartean
Ez dirade gelditzen istante batean.

Urakan aundi batek ditu ateratzen
Zuaitzik aundienak sustraitik or ta emen;
Itxaso genasian zer dan gertatutzen
Bere oru gogorak dute adierazten,
Banaka ikusten da órela asefatzen.

Mila itxas-egazti egal txuribeltzak,
Urzelaiak ainbeste pozten zituztenak,
Igesi legofera datozkigu denak,
Arestian pizkorak, orain motel ta aulak,
Makalduak daukazki tristura ta penak.

Itxasora begira daude izutuak,
Otzikarak jorikan, lumak aroturik:
Zerengatikan daude, txori gizajuak,
Sekula ez eta gaur, oren mututuak?
A! Uste det asere dirala zeruak!

Ara!... Ontzi batzuek jira ta bira,
Besteak iñundikan mugitzen ez dira,

Egal gabeko txori batzuen gisara;
Uste det dijoala ura ondatzera,
Au ezin bogarikan aroka tartera.

Níola ote dezaket nai bezela jakin
Zer ote dan igaro ontzi onekin'?
Ora! Jtxas-ertzetan jendea araunakin,-
Noan lagundutzera dezakedanakin,
Ez da ta gauza onik gertatutzen berdin.

Ai! Gaitz gogorak dira noskiro irago!
Ontzidi aundiaren bat galdu dala nago,
Aroketan txetua ontzi bat an dago,
Boia batzuen gisa besteak arago,
Zenbat urbiíago ta zorigaitz geiago.

Amaika amaren ume, emen datza ilik!
Au ikusita gero, esan ote danik
Biotza ufatuko etzaion gizonik!...
Negar-malko tristeak ezin gelditurík,
Galai bat zizpiratzen dago eseririk!

—O gure aita aundia! O gure Txuruka!
Zerura begiraka, asi da oiuka;
Arazoi zenduala iñork ezin uka:
Aski da esatea, bira ta buíukñ,
Bakoitzak alegiña egitea dauka?

E2 genduen guziok bear alkar artu?
Planik gabe, zertako aingeruak altxatu?
Lendanik jakin gabe nota burukatu?
Ez dezaket nik beintzat iñondik somatu
Zergatikan gakuzten lagunak lajatu!—

Ezin asperturikan urera begira
Gazte azkar ark zion: -Auxen da tristura!
Atzo zerbait ba-giñan, gaur ezer ez gera,
Mundu ontako gauzak orelaxen dira,
Batzuetan goiera, bestetan bekoera!—

Burutik onetara dena zauritua,
Pena eta nekeak biziro auldua,
(I zan gazte galaia, ones-damutua,
Itz oek esanaz: —Ai, nere Jaungoikua!
Konta Euskal-Erian guri gertatua!...—

Ez nuke nai gaizkirik iñorentzat esan,
Baña Kondairak dio zenbat pasartetan,
Españolak bakarik zirala burukan
Finister eta beste asko jazafetan:
Auzkalo lagunaren asmoak zer ziran!

Zenbat gora-beraren ondoren Prantsesak
Balzarera zituen bildu Españolak.
Zoíotzak izan ziran oen rninlzoerak,
Alpefik ziralako beren egiñalak,
Ezpaziran obeki portatzen lagunak,

Finister'go kalteak ondo zuzentzea
Iruditu zitzaien zala askoz obea:
Ur/ben jauna zan nagusi ordea,
Eta nai zuena zan burukan astea,
Deitu ziotelako biotzik gabea.

Crabina, Baldes, Butrón, Alaba, Elkano,
Zisneros, Apódalo, Alzedo, Galiano,
Moiua, Ore, Falkon, iriarte, Kastaño,
Zuen oroitza ez da juango egundaño,
Giza-jende artatik azkenekoraño.

Zuen azana aundiak Trafalgar'ko gudan
Ezin konta litezke nolakoak ziran:
Kalmarjk aundiena suaren erdian,
Kuraia ta ufuña bular piztuetan,
Bildurtasuna zer zan zekienik etzan.

Uste du, bada, iñork, zirala izutzen
Iru edo lau ontzik inguratu aren?
Ez,- ilak il seku'a etziran gelditzen
Ezker eskubi sua etsaiai egiten:
Onfea galdu baño il naiago zuten...

309. LAROSA ETA EREKA

Erekaren ondoan
lafos bat erne zan;
edera ta galanta,
usai ona zeukan.

Ur preskoak zizkion
palakak egiten
eta bizia eta
¡ndafa ematen.

Bat~batetan, ibaiko
ura da geitutzen
eta ibar kaipetsu
guzia gaindutzen.
Ai, erui<igari3!
Larosa gaixoa
azken itunarekin
iltzen da itoa.

Bizia eman zion
ibaitxo ark berak
kendu zion, sortzean
bere ur-amilak..,

Asko ondasun dirala
cxit kaltegariak,
etzuen duda iñork,
ba-dira audigiak.
Atsegiñak dirade
gizakumeentzat
ura dan bezelaxe
lafosatxoentzat:
gutxitxo ba'da ura,
ditu gizendutzenj
baña ugari ba'da,
ai, ditu itotzen!

JOSE I. URANGA

Donostiflra, or-emen ainbat idatzi ebaoa, bai itz lauz bai bertsoetan. Baita saria lortu bc iñoiz, ots, t899'an, Zumaraga'n eratutako euskal-jaietao berú «Enadaen Elkartasun moitatia» lc»-sari~z ornidu eben.

310. EUSKERA ZAR MAITEARI

I

Euskeraz nuen lendabiziko ¡tza seaskan aditu,
Bada izkuntz au nere buruan gogoz zitzaidan gelditu,-
Nere biotza euskaldun kantak zuten txit ongi ukitu;
Obeagorik ez det geroztik ezer neretzat arkitu.

O! izkuntz eder maitagaria, iñun berdiñik gabea:
Nork esango du berdiñik ez ta beste bat dala obea?
Euükal-izkuntzik ez da egongo zoko txikian gordea,
Baizikan beti arkituko du kanpoan zabal bidea.

Caurko gazteak ez degu bear Euskera galdu nola-nai,
Nere gogotik ez nuke bada iíunpe gelditzerik nai¡
Lenago nai det biziera on au utzirikan joan artzai,
Eta itz egin mendiko lagun aiekin Exiskeraz lasai.

Gure oitura eta legeak zaitzeko ama bat dago,
Oso prestua biotzez dana orain, gero ta lenago,-
Nork balio du euskal-izkuntza maiteak baño geiago?
Nere iritziz beste ezerk ez, sinismen onetan nago:
Izkuntz beíirik ez degu bear, lengoa degu naiago,

511. AURA ETA KATUA

Katu beltz eder bat 2an basen batian,
ibili nai zuena beti jolasian.

Noiz-nai ezkutatzen zan su-burrti atzian,
Litxarka ibil naian zarpaka eltzian.

Aurak bein deitzen dio: —«Zato, mixiñatxo,
Zu zera neretzako jaro jostalutxo».

Bañan katuak dio: —«Or dago amatxo,
Zeñak berotzen didan bizkaia ondotxo.

Gañera lapuraren zai or dago txutxo,
Segjtutzen didana atzetik askotxo.

Orengatikan nago gordea bildurtxo,
Begiak ipiñirik argi ta lantxo.

Za-zajota joango da». Dio aurak:— «Toto,
Izutu gabe egin ortik bera tato;

Irten ortikan eta neregana ato,-
Pa bat ekatzu, oren ordañez, pototo».

Su-burnian atzetik katua irtenda,
Joan zan aurtxoagana esanaz, au planta!

— «Or egon da txakura nere zai etzanda;
Ao leku danetan txakur-katu kanta».

Katu petral txar arek bi belarietan
Atzamar egin zion, bada, ordañetan.

Gero segitzen zion aurak geienetan,
Makilazjo nairikan bi anka zanetan.

Geroztik katu orek etzuen koipetan,
Ibiltzeko lanikan batere kopletan.

Len beti sukaldean noiznai jostaketan,
Ibiltzen zan katua aurakin pestetan.
Bañan geroz ibili oi zan gordeketan,

*

Gure artean ere dagonak zoretan,
bili bearko du beti aroketan.

Zor-pagatzaile txara danari benetan,
Neuriak artzen zaizka bere bi onetan,
Naiz igeska ibili bide galduetan,

' 312. AUTSA

Xinits gentzake daia guztia iduripen bat bizitza,
Zeñaz iñola ezin íiteken iñor egiazki mintza:
Lan bearian arkitzen danak ufuti oi du agintza,
Estálirikan dagon landare ark duen bezela intza.

Gure bizitzak iduritzen du dala urezko baratza,
AI litzake kendu ezkero lan egin bear gaíatza.
Egunak nola oi du berekin lagungafitzat aratsa?
Bizitz gureak ere ala du zuzengarizko ardatza,

Bizieraren luze-labufa ezin liteke neurtu,
Bada askotan jakintsuenak ditu Ian onek bigurtu,-
Gure iduri txoro guztiak oi dira amets biurtu,
Jela gogora oi dan bezela aize epelakin urtu.

Zergatik gera gure bizitza maitearekin jostatzen?
Eta zergatik jaritzen gera gauzik onena jokatzen?
Makurtzen gera asten danian indafa zerbait ukatzen,
Ikusirikan nola dijuan asnase ona bukatzen.

Gure emengo biziera da bestearekiko utsa,
Betikorasun ederarekin ote niteke ni kutsa?
Azaltzen zaigu oso ilunki eriotzaren bizutsa,
Gorputza ilik biur dedien lendik zan bezela, autsa.

513. GURE PELOTARIAK

1) *San per i o*

Pelotari au beso biufez jokatzen txit da garbia,
Zankoz ere da oso azkara, ¡tz batez: ibilkaria,-
Aurera xamar sartzen danian sartu nairikan ziria,
Ez da egoten leku batera begira onen begia.

Beso biufa txit ona du ta bole^ íkusgaria,
Kontrariua iduki oi dir tantua galtzez etsia.
Aufe-jokalai gogora ez da, bañan bai atzelaria;
Makurketako nagirik ez du, bigunki dauka geria.

Plaza ederki neuritutzen du, kontrariua ere bai,
Ez da ibiltzen ajol-gabian zenbait bezela nola-nai;
Baizikan zuzen jokatutzen du plazan egonikan ernai;
Pelotaria ezagutzen da onekin, dan edo ez gai.

Pelotari txit ona da, eta musikan ere azkara,
Piano jotzen ibiltzen daki azkarkiro atzapara,-
Frantsez izkera ba-daki eta nola ezjakin erdara?
Orlakorikan ez da agertzen pelotarien plazara.

Laster joango da itsasoz aruntz, utzirik ama Euskara;
Biurtuko da uda-berian jaiotzezko seaskara.
Egaztiaren gisa orain da pelotarien pasara,
Sanperio da oietatik bat doana Amerika'ra.

2) *Ganborena*

Pelotari txit buruz abila ta begiz oso zorotza,
Xiriketako ere ba-dauzka intentzio ta biotza.
Plazan korika dabilenian ba-dirudi katainotza;
Oren odola ez da zenbaiten zanetan dan bezin otza.

lntentziua diña ba'leuka oiek indafa besuan,
Iñor jariko ote litzake arbazten kontra orduan?
Ez det ikusi pelotaririk jokatzen oren moduan;
Ziri politak sartutzen ditu plazen pareta-xokuan.

Amaika aldiz ibilia da pelotan eliz-atzian,
Eta gañera Amugileta deitzen dan etxe ertzian;
Ez du denbora alferik pasa plazan ta konsejupian,
Bada koiperik e-z du egiten txjsterarekin utsian.

Gonetan jafi zutenerako zuen pelotako griña,-
Orengatikan plazan jokatzen da mutil azkar ta fina.
Batzuek diran bezela ez da plazan jokatzen etziña,
Baizikan da txit gorputzez bigun ta zankoz oso ariña.

Iñork pelota jo ordurako ba-daki nora dijuan;
Ez da ibiltzen zenbait bezela atxitzen ia ¡tuan.
Ez da aspertzen bi paretari ematen ere beinguan,
Kontrariorik ziririk sartzen ez leike jafi kituan.

Uts-une danak bilatzen ditu Bitoriano txikiak,
Kontrariuai ederki dizka artzen goi ta be neuriak;
Lo egoteko ez ditu ofek nabar antzeko begiak.
Aritzen gera ori begira egon oi geran guztiak.

J. KASAL OTEG1

Olerkaria ez ei da gizon arunt-sustraidima, arlote ta meogel antzo zorakcriz bizi dana baiño: olerkari ta ero, askorentzat bardin. Alan be, esanak esan, ez izan órela. Olerkaria bearczko dogu gizartean, ardura gaberik asko esnatu ta indartzeko, biotz-zokoak armindu ta ekintz garaiak abesteko- Begira olerWaci oneri, ta ikus onela dagian ala ez.

314. GUAZEN, MUTIUAK

Guazen, anai maitiak, Gernika aldera,
Argal dagOi\ Arbola mardul-araztera,-
Guazen arin makiíak menditik artzera,
Eta etsai guztiak berari kentzera.

Erukaria dago aspaldi onetan,
Ostoz ezin jantzirik bere adarretan,-
Indar guztiak galtzen asi da zanetan,
Bañan euskal-semenk ez etsi oraindikan.

Lengo libertadiak ziraden jariak,
Gure aiton maitiak ondo irabaziak,-
Orain lureratuak dauzka goitakeriak,
Ta ez ditu altxako itzontzikeriak.

Gogor! gogor! mutiíak, gogor etsaiari!
Len giñuzen legiak eman arte guri,
Alegin egiogun Arbol gurean,
Igarturik betiko ez dedin erori.

515. O ARITZ GUREA!

Maitagarizko Arbol gurea,
etzaude oraindik igafa.
Zure zain oiek aspaldi ontan
daukate indar beara,-
Ustez betiko jafia ziñan,
ai! au pena ta negara,
Ikusinkan nola daukazun
gaitza sartua txit txara.

Denbora joan ta ondoren gera
zutaz semeak oroitzen,
Ez genduen guk gaitz egiterik
iñork munduan pentsatzen,-
Bañan etsaiak zital izanik
on-damua nola zuten,
Guk uste gabe egun batian
gaitz ori sartu zizuten.

Bai! egun ura guretzat izan
zan guztiz penagaria,
Ordu ezkeroz Euskal-Eriak
dauka lutua jaría;
Bañan oraindik ez degu etsi
oso zerala eroria:
Jaungoikoari eskaturlkan
ernango dezu oria.

Zer egin dezu gisa ofetan
zu órela argitzeko?
bita •zinduzen ori ederak
lurpera erazirzeko?
On besterikan ez dezu egi
euskal semearentzako,
Egin oi zuten bezela aiek
España danarentzako.

Guazen, mutilak, euskaldun danak,
etsaiak purukaczera,
Eta betiko Euskal-Erira
pake on bat ekartzera;
Iñor atzen gelditu gabe
guazen biotzez aurera:
Jainkoa lagun izango degu
zuzen ibiltzen ba'gera.

316. 1PARAGIRE ÍLEZKO^A

O Jose Mari Iparagire,
Malkuak zaizkit erortzen,
Oroiturikan len zein ederki
Zurekin giñan arkitzen;
Bañan utzirik pena guziak
Pozaz gerade betetzen,
Ikusirikan gaur koroituak
Noia ipiñi zaituzten.

Zu izan ziñan gure izkuntza
Asko maite zenduena,
Ta gure Aritz maitearentzat
Zure kanta da onena;
Presondegian kulparik gabe
Sartu izan zinduztena,
Zergatik ziñan Aritz gureak
Zuen adarik onena.

Ai! zer gustora egoten giñan
Zuri begira aditzen
Zure doaízko moldaera aiek
Zinduzenian kantatzenl
Gitaíarekin asten ziñan zu
Ezin egiñak egiten,
Su ta gar ziran gure biotzak
Irten naian ipintzen.

Esan zenduen biotzetikan
—Aritza zaitu beagu,
Euskal-Eriak ez du etsiko
Igartzen uzten ba'degu—.
Gurturik orain Jaungoikoari
Egin deiogun eregu,
Gerarik gabe lengo Fueroak,
Besterik guk nai ez degu.

Sutan geiago ez iñoiz jan
Gure baso ta mendiak,
Ur odoltsuak dakazkitela
Beren itun garbiak,
Erekatxuak goriturikan
Odolezko egariak,
Suzko txingaíak ikusi gabe
Botatzen arkaitz aundiak.

Ote ditugu lengo gauz onak
Guregana ekar/ko,
Euskal-Efiak daukan lutua
Kentzeko beti-betiko?

Bai! etsipenik ez iñork artu;
Dáñale dira etoriko,
Ta borkaturik, amorioan,
Gera oraindik biziko.

KARMELO ETXEGARAI

1865'ai> jaio. Euskalzale bikaiña, ziñez, Azpeitiar au. Il zanean (1925-XI-4'an), onela iñoan R. Intzagarni jaunak: «lEtz.au lur axaleko uaratsa; etzan pifan doi-doísn nabaritzeko gizona; luretik goruntz zebiien. fa pilan ezin txondortu zitekeana zan. Etzan orbel arteko arbasta, jain egi eder isateko goi-goiko agea baiño... jauregiko leio zabal ta goicrtetik, iñork baiño obeto ikusi zituen Amaren luralde ta alofak: EuskalEriko lorategiak, Gviskal-Eriko gari-meta orioriak. Zugatz, aritz eta ametzak, jauregi eskaratz-uren asabak ereíñak, zeazkl ezagutzen zituen, ta e.desti akcsdunak edozein ontan tartez-martez uzten dituen alde illunak, Etxegarai'k bete zituen, edo lorez, *a\o* gariz edo tautaiez. Ain zan gizon azkar ta jakintsua!» *(Eimkal~Esnalea,* 1955, ^1~> or.) Sari ustu eban barena olerkiz, batez be gaztetan,- baita sari gizcnak eskuratu be: Markiña'n (1883) urezko ontza ta makiía, *Zertako?* olerkingaitikj Iruña'n (188-1) sari bi: *ttonkal,* urezko larosa, ta *Ama Euskerari,* ure ta zidaíez aberastutako makiía. Labur: 1882'tík 1935'ra edozcnbat sari.

517. EUSKAL-ER1ARI

Aitor gure aitaren eri mendicia,
Lekobide jaio zan toki gozotia,
Berdiñikan ez dezun Euskaldun Eria,
Zuretrzako da nere izate guztia.

Zuretzat det biotza, zuretzat gogoa;
Zugatik sentitzen det otsare suzkoa.
Nola maiteko ez zaitut, Eri txit gozoa,
Izanik zure mendi tartean jaioa?

Jainkoak piztu zidan jaio nintzanean,
Maitetasun bizia nere barunean;
Maitetasun onekin biotza jaztean,
Esanaz, maitatzeko zu, gozo betean,

Efi maitea! Beltzez zakust gaur jantzirik:
Zergatik agiri dan Aritza legorik;
Zergatik gozatzen ez dezun Lege Zarik;
Arkitzen zeralako naigabez beterik,

Ixurtzen zail ugari begitik negara,
Ikusitzean 2ure miñaren indara;
Ikusirik Aritza Gernika'n ¡gara,
Ikusirik zaudela triste ta bakara.

Baña zeruan dakust miñen pozgaíia,
jaunak ipiñitako artizar, argia;
Begiratu zaiozu, nere sort-ena,
Cozatu dedin 2»re naigabe lafia.

318. EUSKALDUNAK

Ó anai maite, Bidasoa'tik
Arontz dezuna kabia,
Lapurdi'ko lur gozatsuetan
Zerana jaio ta azia!
Egia ez da or eta emen ..
a
Bat dala Euskal-Eria?
Alferik dala berezitzeko
Gizonaren nai guztia?

Or eta emen, ez da bat bera
Euskaldun denen Fedea?
Ez da bat denok maitatzen degun
Maitagafizko Legea?
Ez da guztien izkuntz gozoa
6 s
Euskera ezti maitea?

Or eta emen, ez da esaten
'
Euskeraz *Aita gurea?*

*

Odol bat degur denok gerade
Kabi batean sortuak,-
Or eta emen berdiñak dira
Oitura bedeinkatuak,-
Berdiñak dira barenbaíenen

Ditugun sentimentuak;
Berdiñak gure biotzetatik
Irtetzen diran lantuak.

Bai!EuskaIdunakgera,bai,denok,
Den-denok gera anaiak;
Or Euskaldunen kantuak ditu
Aditzen Laíun aundiak;

Kant'oiek berak esnaturikan
Emen oiartzun guztiak,
Euskal mintzatzen, or eta emen,
Asitzen dira mendiak.

. , , ,.
Itsaso baten oroak dira
Or noJa emen entzuten
Esan nai ba'lu bezela, nola
„ . , .
Sustrai batetik gatozen;
Deivdenok zuaitz bat bera degu
Biotz-biotzez maitatzen,
Agertutzeko Aitor zaran
Nola diogun jaraitzen.
. . A*. , •
Antza —esan zun Aitor ek—
^ , ..
Zazute beti maitatu,
., . , „ _ ., • , .
Nai ba dezute mk erakutsi
^ , , ^ . , . .
Dedan bezela bizitu:
Eta Uztaritz'en orko Euskaldunak
Artua zuen goratu,
Eta emengoa Gernika'n Aritz
Baten aurean auspeztu.
-p . . , , , .. . ^^
txit ígeskorak dira gizonen
Uste fa píntsaiTienluak·
Uster ge›dịtzen dira lurpea»
n i - ^i „^t «i,
Berakin obiratuak:
Ala gizonak usteagatik
Candela berezituak,
Zuek eta gu gordeko gaitu
Beti Jaunak anaituak.

519. GARÓ TARTEAN

Emen, aritz zar baten itzalpe gozuan,
Mundutik aldegin ta mendiko txokuan,
Gañean aditurik txoriak kantuan,-
Pixka bat arontzago dagon bordacxuan
Artzai-iriutil txiki bat atsegin santuan;
Bildots eta idiak zelai ta soruan...
Au bai-dala izatea, Euskaldun moduan!

Itunak, arbolak, zelai ta mendiak,
Denak dira neretzat txit maitagariak:
Garoa pizkortzen du intz dizdizariak;
Bazter guziak ditu alaitzen txoriak,
Eta betik dijoan ereka txikiak,
Geldirik daramazki bere ur garbiak.

Au da pake santua! Au da gozaera!
Emen ez det aditzen ezpada Euskera.
Eta begiratzean baseri-aldera,
Usai gozo bat dator pota ematera.

Usai orek izena dauka birtutea:
Antxen dago ixilik, ederki gordea,
Ala nola gordetzen dan umil lorea,
Naiz egon edertasun bikaiñez betea.

Euskaltasunez dago au dena beterik;
Emen ez det aditzen munduko soñurik:
Pakea, gozaera, dabil nagusirik,
Aizearen bitartez bigunki esanik:
—Maite, nai ba'dezute izan zorionik!

Maite! —dio txoriak arbola gañean—;
Maite! — ixikasunak izkuntz ederean— .
Nere biotzak ere, oiek aditzean,
Maite! maite! —dio gaur bere barenean,
Garó tartean pozez nabiíen artean.

B. ETXEGARAI

Kaimeío'ren anaia. Onek be, olerkiz ixuri euskun, gaztetan beintzat, bere giza-gogo xaio-egitia. Ta etzan aren biotz barutik ur-laiñozko tantonk jarion, nai giar ta ikara gorizkak baiño. Maite eban euskera (gaur be bai, oraindik bizi da-ta) ta euskal-oiturn ta lege zarak, ta gizonki abesten ditu guztiok; baita or-emen sariak be irabazi ebazan, esaterako, Uztaritze'n, Endaia'n, Donibaueko eusVal-jajetan, ra abar.

320. BETI, BETI EUSKALDUN

Euskaldun gera eta beti nai degu izan;
Zergatikan Euskaldun jaio ta azi geran.
Euskaldunak gerata beldur gabe esan,
Eta Euskara gatik gure odola eman.

Gure Euskara maitia beñere ez galtzeko,
Eta EuskaJ-Eíian beti itz egiteko,
Itz egin zagun, bada, ta onla ez da galduko;
Munduen azken arte ez da ez aztuko.

Gernika'n dago Aritza Euskaldun denena,
Eta gure biotzen gauzarik maitena,-
Aritz txit santu onen aundia da omena,
Au gordetzeagatik egin zagun lana.

Cernika'n Aritz ori beti da altxako,
Zergatik ez diogun erortzen lagako;
Naiz arbola santua ba'litz erorjko,
Gure odolarekin genduke altxatuko.

Euskaldun denak, bada, elkartu gaitezen,
Ea gure efian degun guk pentsatzen;
Guk au fedearekin ba'degu egiten,
Jaun aundiak zerutik digu bai laguntzen.

Itz egin zagun denok beti, beti Euskara,
Ez laga gure izkuntza maitia atzera;
«Biotzian gurutza, eskuan bandera,
Esan lotsarik gabe: Euskaldunak gera!»

521. LORE MAITIA

Zelaiko lore txuri-txuria,
maitagaíia,
Aretaz zauzkat nik txit gordia,
lore maitia!

Zuri begira ni naiz puztutzen,
Egun onaz naiz gogoratutzen,
eta pentsatzen,
Nola denbora dontsuzkoak
diran pasatzen.

Lore maitia! maitagaria!
txuri-txuria!
Negarez dago nere begia...,
malko ezcia!

Zertako dezu, lore maitia,
Intz goizUraren tanto garbia
dizdizaria,
Nere malkoak bustitzen ba'du
zure oria?

322. EUSKALDUN MlNTZAlRA

Itxaso bazteretik, urunduz lufetan,
Euskalduna sortzen da mendi bi aldetati;
Bizia gacik legez bi efesumetan,
Mintzaira bato dugu maite biotzetan.

Beti dezagun maita Eskuara garbia!
Ura baita, lur untan, bardiñik gab¡a;
Neori ez du zorik, da bere jabia,
Ez dago idekirik arentzat obia.

Eresuma[1] bezanbat, ainbertze mintzaira,
Bainan dute geienek, sortzez ama bera:
Aide bato gabe sortu zen Eskuara;
Ama nor baitu ere, da ume bakafa.

O, zoin doatsua zen, zenbat aberatsa,
Bertzenik deusik gabe, dabilan solasa,-
Gorputz eta ariman, Eskuara da funtsa,
Jainkoak eman daukun izantza[2] urusal

Izandun edo bear, ez du Eskualdunak
LItziko aantzerat zaafen efanak,-
Eskuarak apaintzen du aiten solas onak,
Nola jauntzi edefek moldatzen gizonak.

Bear eta eder da, Eskualdun maitea,
Bertze mintzaira guziz jabe egitea;
Ak dute idekitzen mrjnduko atea,
Bainan Eskuara dugu nai ikastea.

Eskualdun seme batzu ditugu ikusi,
Nfardaluz, ez baitute Eskuara ikasi.
Aundi-sudurak dire olakoen nausi,
Eskuarako fedea zertaz dute autsi.

Jo batek gelditzen du ardi efebela,
Ez baitezake senda ark egin uspela[8],
Eskualdun aantzkofa da Jura bezala,
Jinkoak, gure gatik, onerat dezala.

Ba-dira zoro batzu, iri alde ortan,
líi-gariak dire Eskualdun itzetan,-
Eskuarak ez du laket toki guzietan,
Sortzian bezain garbi dago mendietan.

Zer biotz-akxagari! gaizo m'enditara!
Zu zare Eskuararen zainczale bakara.
Etsaien uruntzelco ba-duzu indara,
Gorputzez bezain ongi arimaz azkaía!

Jinkotiafa zela ikusiz Eskuara,
Debrua etori zen aren suntsitzera;
Ez baiak, zazpi urrez, jintzen ikastera,
Ek aantzicik juan zen, zubiz bertzaldera.

Debruak egin aal guziak egiñik
Utzi gaitu bakean, ezin garaiturik.
Sekulakotz urundu ba'da gureganik,
Jinkoa gure alde zela ikusirik.

Eskuarari idukiz ba-du Euskaldunak,
Betidanik osoki maite dituenak:
Pilota, eta koblak, gero irintzinak,
Auk dire biotzetik nik azken eranak.

Eskuara! mendiz-mendi zabiltza berdiña;
Zu zare mintzaíretan, denen eregina.
Eskualdunak Eskuara il ardo laguna,-
Bizi bitez Eskuara eta Eskualdunak!

1) reino; *1)* condición; 3) herida.

J. GASPAR OREGl, APAIZA

Bakoitzari berea Eleiz-gjzoiinlt geien bat euskera goi-maílan jan ta iraunazo dabenak. Iñoiz ilgo ba'litzake bc, oraitiño, euren cruz litzake, noski. Eurak bai-dira iureko gatz iraunkor; ta oiturak ezezik, izkuntza be, uste! ez dedin, gatzicu beafa dabe. Olerki arloan, aJai ta itun abesturik, aipu edera jaritxiak makiña bat dira,

323. ZERUKO GJLTZA

Iriki nairik daude zeruak: Otoitz umila da giltza!
Biotzetikan otoitz gozoak ezpanak iriki bitza.
Jaungoikoari egiteko, bai, gure ereguen eskeintza,
Aingeru ederak beren egoak astindu nairik dabiltza!

Zerutik, beraz, txur dakigun grazi gozoaren intza,
Biotzetatik igo bekigu eguneroko otoitza,
Bata gora ta bestia bera, miragarizko {angintza!
Otoitza eta grazia pozik, alkaren jarai dabiltza!

Ala gizonak sentitu oi du Jaungoikoaren laguntza,
Eta lurean egin ere bai aingerutxoen bizitza.
Egiak adimentua eta graziak, bertz, biotza
Zokondurik, aingeruturik ikusi oi da bakoitza!

Zeruko atiak irikitzeko, o misteriozko giltza,
Biotz urntlen eguneroko eregu eu otoitza!
Zeruratzeko, zein pozgaria, beti-betiko bizitza,
Aingeru eta santu arteko otottz-zalien eriotza!

Otoitzerako zer ein bear degun nai baldin ba'degu jakin,
Ona emen nola Jaunan graziaz ein bear degun alegin:
Bekaturako bidetik alde, zerurakoari ekin,
Gurutzepean besarkaturik gure Jesus onarekin,
Bere Pasio santuan pentsa eruki aundiarekin.

Getsemani'ko baratz santuko gure Jesus'en gisara,
Izar argitan belaunak umil, umil ditzagun lurera;
Begiak, beíiz, Jesus onaren arpegi Jaungoikozkora,
Amoriozko izerdia, bai, nola darion begira,
Gure izerdizko neke-petjkan igo gaitezen zerura.

Zenbat gojzago, ainbat gozoago biotza otoitzarekin,
Egotxopean nola oi diran cxitatxoak amarekin,
Goiz-goizetikan jaiki ta goza gure Jaungoikoarekin,
Begr-begiko sena bezala zerua zabaldu dedin.

Otoitz santuak egin oi gaitu zenbat grazitxoren duin;
Santuen gisan ba'gabiltz, beriz, lo arin eta jan arin,
Jaunan graziaz egiñik beintzat nolabait ere alegin,
Egaztiturik, aingeruturik, o zenbat poz ta atsegin!
Eguzkipean ez dan bezala mundu guziko gauzakin!

Alkaren leian otoitz gozora jaiki oi geraden bezin,
Eztia baña eztiagoko biotz-minganCxo banakin,
Izarez goitik zerutar danen belarietan zer tin-tin,
Gozoa bezin miragaria zeruak aditzen ez din?

*

Pozaren pozak gañez eginta, ixildu nai, baña ezin,
Areba otoitz-zaletxo bati, anaiak zion itz egin,

324. ANIMEN EGUNERAKO OROlMENGARIA

Eriotzaren zorpettk giñan atera, eta ona emen
Biotz oneko eíukarion begira nola oi gauden!
Zakusgu pozik, kristau maitea, erukiz nola zatozen.
Gu bezelaxe zu ere zera benturaz laster egonen,
Gorputz emen obiraturik, anima Jaunganatzen!
Jaungoikoaren amorioz ta penaren penaz garbitzen!

Gerez eziña, zure eskuz Jaunak ontzat ba-digu artutzen,
Eta saritzat jaungoiko dana pozik ba-zaitu eskaintzen,
Nola zeruko otoitz ederaz zu ortxen eta gu antxen
Jesus batian zoriondurik, atsedendu ez Jenbaitlen?

Garbitegitik zeruratutzen zuk ba'diguzu laguntzen,
Edo ta emen *Aita gure* bat oin ba'diguzu esaten,
Ez oin ta ez gero, aztuko gera, aren salbatu zaitezen!
Ta alkaren lagun an zeruetan doatsu izan gaitezen.

Otoitz edera gure Jaunari ainbeste zaio gustatzen!
Zuk ezpain oiek iriki bezain laster zaizkigu asitzen
Zeruetatlk aingeru ederak pena artera jetxitzen.
Ta aingeruekin gera poz-pozik zeruetara egatzen.

Guraso, ume, anai, areba eta lengusu maitien
Obi onetara begira erukiz orain arkitzen zeraden
Otoitz-zalea, emen ba'gaitu aidetasunak alkartzen,
Zeruan danok gloriaz Jaunak zorion gattzala. Amen!

Egunen baten altxatu eta epai onaren ondoren,
Gorputz ta anima an zeruetan, o nola egongo geraden!
Santu ta aingeru artian beti, milo-miloika alkaren
Leian, leialka Iru Santua laudatzen eta laudatzen!

RAMON GELBENTZLJ BTA [RIBAR

Donostia ra. Guztiok ez gara bardintsu; ezta bear be. Ortik datorkigu, gero, ainitz gauzaren bestera ikustea. Olerkietan be, batzuk irudimen arodunak dira, aparen ikara legez; heste batzuk egctr ezearen kea dirudie; ¡rugaren baizuk, azkenez, biotz-muiña ituri garden dabe Onein saiíckoa, egiaz, Gelbentzu olerkaria, gozo ta kutun, aize-jolas antzekoa- Elgoibnr'ko euskal jaietan (1907) bera txapeldun

525. AUXEN DA BURU-NASTEA!

Alargun ta umezurtzai
Munduan zer gauza utsa!

Aur txikia nintzanean
amatxoren magalean,
besarka eta muxu ariean
egoten nintzan pakean.
Maite zuan biotzean,
bai nik bera ere nerean.

Ni gabe etzeukan onik,
ezta ere bera gabe nik;
bakar-bakarik poztuten giñan,
elkafi musu emanik;
ark aiña maite nauenik,
ez det uste iñon danik.

Batean kontu-kontari
amak esan ziran neri:
— «Zuk ilabete izan baiñan len
aitak muin emanik zuri,
joan zan itxasora (ari...
Ta ezta oraindik etori!..»

Geroztikan nik begiak
dauzkat uretan jariak;
nere egunen egile ura
ikusteko egafiak,
etxeratzen nau lanak...
Ta erezatzera biak!..

Cure Jaunari eregu
biok egiten diogu;
artu zezala bere glorian,
ori bakarik nai degu,
gabik utzitzen ez degu...
Beti erezatzen gu!.,

Txalupik bada kaiean
sartzen, bere ondorean
ama eta ni izaten gera,
aita ikusi naiean...
Eta an ez dagoenean,
ara gure barenean!..

Oroitza oso polita
daukat aitatxok utzita,
bera da Aita San Antonio,
lora fiñez estalita;
gehn an daukat jarifa,
oroitzen didala... aita!

Ez gaicu ezerk alaitzen;
ta gure biotza aitzen
dijoa penaz... a, Jaun-Goikoa!
Dizugu bada eskatzen,
zeruan gaituzun sartzen,
ea aita degun topatzen!...

Ez al da gauza tristea
semea ta emaztea,
aita itorik itxaso ortan,
bakardadean uztea,
maiterik bata-bestea?...

Auxen da buru-nastea,..!

326. TXORITXUEN NAITASUNA

Txori txiki bi ikusi ditut,
Baiñan zeiñen lirain biak!
Arboltxo baten goi xainafean
Moldatzen bere kabiak;
Lumaz ederki apaindurikan
Ta utzirik txit garbiak...
Gauz eder ari begira ia
Joan ziran nere begiak.

Lanteri ura egin bitartez
Aiek ziran kantutxoak!
Bestek ezin egin lezazke,
Bakarikan txoritxoak;
Beti kantari, noizean beinka
Astindurik lumatxoak,
Aditurikan mendi ta baso,
Zelai ta erekatxoak.

Nori etzaio kantu aiekin
Biotza pozaz urtuko?
Nork ez du pozik, txori txiki bat
Esku gaiñean artuko?
Txori oiexen kantu gozoak
Ba'lirake ixilduko...
Baiñan ez... Zer esaten det?...
Beci dute kantatuko?!

Umetxoari kontu egiten
Gaxoak dira bizitzen,
Begiratuaz zeiñen poliki
Aiek diraden azitzen!...
Azkenerako esker edefa
Ama gaxoak du artzen...
Umeak iges... Ama negarez,
Bakarikan da gelditzen!...

Ceroztik, ume itzul egiñak
Eztu iñun zori onik;
Oroitzen ezta, Ama trixte bat
Penaz betea duenik!...
Zeinbat dabiltza mundu onetan
Naigabe txarak emanik,
Iñola ezin konta litezke,
Ez bestek, ezta ere nik!

Ezin liteke Ama on baten
Maitasuna galdutzea,
Baizik, lenago opako luke
Maitatzen beti, iltzea;
Pena aundi bat oso dalako
Ume gabe gelditzea,
Zergatikan dan bear baiñan len
Biotz dana puskatzea...

ZIRILO ERK1ZIA

Ipuin bidez cria eskolatZL.-.\ ezta, dakigunez, oraingoa, erízale guztiak orela egin bni-dabe aüieralik. Kristo Jaunak, jakin-ittiri iziinik, ui\i orcr;>u jardun eban, gizalaldeari erakustea^. Junte xca nainun dogo ipuin ta egLzale. Baita gu be, ta ez gitxi gero!

527. ASTUA, EULIA ETA ARM1ARMA

Erotara zijoan asto bat kargakin
Mutil konkor txiki bat zuela berekin,
Mutila kontentu zan bere jornarakin,
N'on ote zan efota nai zuela jakin.

Aitaren leziuak uuitilak arturik,
Alai asko zijuan astoaren atzetik;
Etzan ikaratutzen bidearengatík,
Txistua juaz lasai jari zan auretik.

Bi ordu pasa ziran etxetik irten-ta,
Eta mutil koxkofa kejatzen asten da;
Astuaren ondora segidan joan da,
Bere artian esanaz: - -Eíot'ori non da!?

Beste ordu erdi bat pasatu zanian
Astua gelditzen da eiotako atian¡
Mutila sarturikan etxe bare nian,
Sari[1] zuen nausia beraren aunan.

Ango lanak egin-ta zuzen zan abia,
Ero tan arturikan trukara beria;
Astua egonikan oso ¡garia,
Zutik jaritzen zuen berak belafia.

Orla bide erdira ia alderatuan,
Etili-pila bat zegon bere inguruan:
Igarorik autua txit pauso mantsuan,
Eulian zimikuak'[2] sentitu zituan.

Ukuíura zanku.ik sarturik astuak,
Berari eltzeko prest zeuden pistitxuak.
Armiarmak, beterik an zeuden txokuak,
Astuari ekiteko guztiz zaletuak.

Karga ziotenean astuari atera,
Laster juan zan bafena lastua jaiera;
Euüak berarekin ukulu aldera,
Bai ere armiarmak orduan íanera.

Astoaren gañean joan ziran euliak
Laster gelditu ziran presorik guztiak;
Armiarma-sarean denak eroriak,
An gelditu ziraden galdurik biziak.

Oregatikan beti txit zaigu komenj
Pakean utzitzea al bada besteri:
Euliak gaitz egin naiz asto gajxuari,
Armiarmaren mende ziraden erori.

I) piorno,- *2)* picadura.

FRANTZISKO APAOLAZA

Karlatar gudu ostean batez be, elika jagi 2¡ran olerkariak, euskalpi'zkunde-bideetan zear abia naita. Cure izkun'za zara maite eben biotzetik, baita asaben sonería be; biok arnas-itoka ikusirik, barnera bil ta areik bai azaltzen biozketa zoragariak! Zenbat baru-intzirj minisn ta olerki-lan eder, orduan sortuak)

328. EUSKAL-ERIARI

Begira, ikusi, zein poliki, an,
España ederan ifar-aldean
Itsaso gaziaren egalean,
Txoko bat, begira, non agiri dan.

Mendiak, ibafak eta zelaiak
Ostoz eta loraz txit apainduak,
Ta itsas-ifafak gozarotuak,
Begira zer eder eta galaiak!

Mendien, ibaren eta zelaien
Artean ta banakafuak aisa,
Etxeak, uso ixuriaren gisa,
Begira zein ederki dirudien!

Or-emen erekatxo beritsuak,
Mur-mur egiñaz begira noia

Batean eiota, bestean ola
Darabiltzan, klin-klan, joaz soñuak.

Itzal otzanean ezkutatuak
Itufi garbiak begira non-nai,
Artzai lirain, galai bortitzai
Eskiñiaz señalpena-lekuak.

Begira ¡batera naiz mendira:
Argia, poza, aizetxo malsoak[1],
Berdantza, lorak, likurta[2] gozoak,
Alde guzcitan, ikusi... begira!..

Ainbeste mirabiíen erdian
Aras zauritua, osto gabea,
Begira zaiogun arbola ari;
Ta guztí-guztiok Euskal-Eñan
Ai! arbola ofen bertezardea
Eskatu zaiogun Jaungoikoari.

1) Suave,- 2) aroma.

MARZELINO SOROA

Idazle ugari ta bikaiña, bai euskeraz bai erderaz. *Azak eta nasie* izenez argitara emon eban liburu bat. Berak soriua geien bat eusko antzertia; t878'ko maiatza'ren 12'an, Donosti'ko *Tea/ro Principa/* deritxonean, *Iriarena,* oitura-laukia, aotzeztu eben. Ta onek izen emon eutsan. Ta gero, iñoiz be aspertu barik, antzertjari lotua ebjlen, *Anton kaiku, Oabon, Au osta/uba. Abek istiiuak, Alkate beria, Uf-utiko intxauf-ak, Lapufdk* eta abar, iri-antzera egiñik. Oler-kiak be, neurtizkera eíezez osoiu ebazan, erazko abaguneará makur. 1902'ko garagarilareo 20'an il.

329, ZUREKIN **NAI** DET BETI

Atoz, atoz agudo, atoz, bai, lenena,
Ia, nere maitia, kentzen nazun pena,-
Zure parekoetan, zu zera ederena¡
Nork izan al lezake zuk dezun omena?

Negu guztian zaude niganatu gabe,
Igaro-aziaz neri ez gutxi naigabe;
Bada zu izanik nere biotzaren jabe,
Bizi eziñik egon naiz urte bat zu gabe.

Etzaitu maitatuko bestek nik bezela;
Soroak esaten dit zu ba-zatozela,
Ta aiturikan txoriak kantatzen dutela,
Iruditzen zait zuri deitzen dizutela.

Intziar-laño, elur, ekaiztar ifarak,
Guztiak umiltzeko ba-dituzu indarak;
Zuregatik agertzen dirade zumarak
Zuriz jantzirik, eta berdiak ibaiak.

Zuk dituzu doaiak bestek ez bezela:
Denbora dago beti zurekin epela,
Ibaiak pozez mur-mur egiten dutela,
Lore ederez beteak zelaiak daudela.

Laster uruntzen dezu nere naigabea,
Ekartzen nazunian goxo-goxo aizea,-
Zurekin iñoiz ez det sentitzen nekea;
Zu zera, bai, zu zera maitetxo nerea.

Zuri zor dizkitzugu egunik onenak,
Zuri goiz oso, leun ta dizdizariak;
Zuk ekartzen dituzu gaurik edefenak,
Afats urdin garbi ta izafez beteak.

330. JUAN BATISTA

Alde bat Probintzian degu Goieria,
GoieíFn, befiz, dago eri bat txikia;
Eri ontan gañera ba-da baseria,
Baseriají bizi da Juan nekazaria.

Juan edo Juan Batista indartsu, gaztia,
Sasoi oneko ogei urteren jabia,-
Lanerako osasunaz bai ere betia,
Eri artan arkaitzik etzan ain tentia.

Etzuen Juan Batista'k zintzufian traba:
Sartuko zituan an bi lakari baba,-
Lanerako gogotik izanikan taba,
Egunaz lan eginda lo betean gaba.

Orla jan-edateko etzan ez ustela,
Bañan arkitzen zuen tripa txit motela,-

Nolapaitkua ba-zan ark zuen sabela,
Sekulan betetzen etzan nai zuen bezela.

Orengatikan beti Batista'ren ustez,
Bear ziran munduan gauzak izan gañez)
Zer-nai jan-edateko beti zegon pozez:
Apetitu galanta, bañan dirurik ez.

Diru-pila biltzeko zuen Amerika'n
Bere burua jan gogoraturikan,
Nolatan etofi zan beste bat andikan
Nekazari juan eta aberasturikan.

Eta gure Batista ara juan ezkero,
Gogotik lan egiñaz etzan bizi ero,-
Dirua gorderikan zintzo bai astero,
Pozturik izateko noizbait «Kabalero».

Bañan kupidek gabe jardunik lanian
Altsuen, diru-pila sortu bitartian,
Gaizki jan, gaizki lo ta ler egin naian,
Makaldurik jafi zan mintsuen antzian.

Kapelu aundiekin boina zaien ordez,
Apain-apain jantzita biurtu zan pozez,
Etofirik erira beterikan urez.
Zer-nai jateko; bañan apetiturik ez.

Ogei urte geiago t'elbaritasuna,
Batista'k ikusirik du bere jarduna:
—«Orain zetako diat aberastasuna?
Naiago nikek, ai! len nuen osasuna!»

JOSE GANBOA

Ez dogu olerkari makala euskal-oilurnk goratzen. Ondorengo ontan nekazaria dau begipe, urteko lau aro zear; 1898'an Zestua'n egiñiko euskal-itz jostaldien batzarean saritua. Gorengo maiíara iñoiz bc igon ez aren, zindo ta mardul diardu geienez.

351. NEKAZARITZA

Munduan asko sufridu biar nere iritziz, denetan;
ba-du gizonak lanketan, egualdi txar-on, aize, kazkabar,
nekazaritza da gogorena astegun eta jaietan,

eliz-kontuak egin ezkero
beti oitura onetan,
sosegurikan ez dute artzen
iñolaz ere ezertan:
ez ba'dira ari, jaiki orduko,
soto' ta ukuluetan,
baratza, soro, malkor, sagasti,
lare, baso ta txaretan,
legorarekin zelaian, ekin
atxurtzan edo laiketan,
busti-aldian, oritzen befiz
legorpe estalietan;
aitortu nai det erukigari
bizi dirala neketan,
urtiak legez jarifa dauzkan
bere lau era oietan,
gure Aitor'en pare gabeko
Euskal-itz neurituetan.

Uda berian

Nabaitzerako egun-sentiak
ekaitza estaltzen duela,
nekazaria leiuan dago,
erantzirikan txapela,
ermitatxoko ezkila zaitzen
ziñatutzeko berela.
An erezuak egin ondoren
jaisten da lagarik gela,
beko ukuluko ganaduari
miatutzera ganbela,-
aldaturikan belar gozua
ta azpietan orbela,
pozezjuango da pipa ereaz
edo txistuka bestela,
joraiketara, bidian oiñak
intz guria artzen dutela,
gorputza atsegin ornitu nairik
luriña ba'lu bezela,
naendixketako lore ta mendak
usaia dariotela.

Udaran

Canaduak goiz uztafiturik
sailak ufatzen dijua,
itaufian duela mutil
koxkor, girai zintzua,
bera atzetik goldearekin,
aida! egiñaz oiua,
akuíuaren dantzaz zuzentzen
dio beiari pausua.
Zelaia irauli aren uíena,
jarczen du kara-marua[2];
gero sokila txikitutzeko
pasarik sokor-mazua,
ariarekin lura uzten du
gainkiro maniatua,-
ez da gelditzen, naiz gailaz egon
eguzki kiskal gaixtua,-
muño-zuluan itzalpez dauka
aplakatzeko berua,
zotalez ondo tapaturikan
txafuan pitar preskua,

Uda, azkenian

Soruan segaz ebakitako
beratzen dauden belai'ak,
zelaietako pagotxak eta
ailorbe ondu xamafak,
eskobarian arunt bildurik
kendutzen dizka zakafak,
etxe aurian gero jartzeko
meta gailortsu ederak;
leka sartzeko bai prestu ere
estalpe eta ganbarak,

gai, baba ta artoz beterik
kutxa ta belaki zarak;
agaietatik trabes zintzilik
baburun crbai[3] igarak,
lasto tartian kontuz oritzen
udare eta sagarak;
txaretatikan gurdiz kafio
arbazta lodi-miarak,
orga' bikañez kargatzeraño
atari-zoko baztarak.

Neguan

Elementa txar ikaragafiz
euri-jario lañua,
trumoi-tximistak goitik oiuaz
burundarazko txistua...
Nekazaria, kezkarik gabe,
dago etxean sartua,
alki sendoan exeririkan
bera-antzik makurtua,
saskira aletzen lokoixatekin[1]
eskuko arlo berua...
Ulur-aizeak ebaki bear
nun-nai jeletan* putzua,-
arturik soka, itari, xarde,
bizkar ganetik zakua,
basotik giroz ekariko du
ote-jornada pisua,
ganaduari jan-arazteko
askan trabesaz txetua,
ijarak gogo ase zaizkaten,
erejiloiez nastua.

Nekazariak modu oietan
gogoz bear du saiatu.

Cañera, aldiz, uriz kanpoan
egintzak izaten ditu:
feri sonatu jakiñenetan
sal-erostak moldatu,
urtian beingo eromeriaz
fest aundietan azaldu,
oroitza-tamak jasota daukan
eliza ikustalditu,
Jaungoikoari, komen! zaion
liskañia', fin aitortu;
otoitzaz gero ereguturik
biotz barendik eskatu,
osasun onez argi-biderik
ez dezaiola laltatu.
Ondoren jolas arigariak
eíian ikusten ditu;
bañan luzaro iraun gabe
zalanizak azkar artzen du,
kaleko gauza ikusgariak
denboraz utzitzen ditu;
ostera etxean sartu artean
kezkarik ezin banatu:
basefi umil arlotetsuan
pakian nai du bizitu.

1) bodega; 2) arado; 3) carga,- 4) haz de leña; 5) mazorca desgranada; 6) hielo; 7) promesa.

532. DIZDIZARI BIAK

Batak

Zure begiak dira izafak,
zure abua, zerua,
ezpain politxu txiki paria
ezti gozatsuz nastua,-
oin ta gefi me, ain egoki,
guztia antolatua,-
gorputza ere paraisuko
lore tartian sortua!

Besteak

Zure burua ezia burua,
baizikan loretegia;
baratzan dagon landare dena
ufe kolorez jantzia.
lieidaru nai, ta ezin beidatu,
au ez da penagaria?...
Eguzki-prinizak, goitik dizdiraz,
izten naulako begia .!

FRANTZIZKO LOPEZ-ALEN

ÜODOStíara. Margolari ta idazle, ez eban egundo gogait egin arazo biotan, cuílíoictori onda rak batze ii bc, aspertu gaitza Bere itzaldi ta latiklak osotu ta edertzeko, ainbat irudi mafaztit zituan Gizon ¡kaita zalako, Arzak jaunaren eriotz ostean, *Euskol^Erla,* orduko aldizkari bikaiña, bere Arduraz argitaratu zan luzaro. Bere lanak, erderaz: *La Iconografía biografíe» dc Guipúzcoa, Estudio histórico .¡irishro de S. Tel/no,* ta abar; ta euskeraz, *p>$etxo* poema ta esan ezin ala olerki ta ídaz-lan 1910'ko (¡anlaren 27'an ¡¡a dogu.

535. LO, LO. .

Zeñek egiten dizu, maitia?
zer dira antsi-ncgafak?
Kontu gero, gure aurari
galazi algara fafak.
Ez, ez dute gau iíunean
dizdizaratzen izafak,
iñoiz garbi eta geiago
ain zure malko goiztafak.

Oi!... begira aitak gañera
zer dizkitzun gaur ekari...;
tira... askatu fárdela ta
erenkara danak jari;
zaldi... xakur- • eta bildotxak,
loturik danak alkari...

Ixo! ixo!... etzaitezela
asi orelako lan!

Nai dezu, emen, aitatxoren,
onla, belaun ganian,
jolasian balantza egiñik
zaldizkoaren antzian,
eta batera eta bestera
galope bizi-bizian...?

Ori ere ez! Ixo, maitia!
ara pi-pt kaiolian.

• * *

Zaude ixilik, danok geldirik,
ez al dezute ikusten
lo-lo gozoak í^ure aura
nola ia artu duen?
O Jauna! zer edefa dagon!
Regirá ez naiz aspertzen
eta onela, onela, zer
gauzak dizkidan oroitzen!!

554. Bl LORE-ALDI

Lore mamindu bakar jaio zan
obi otz baten belar gañean,
ta nekazari batek artuta
nastutu zuen xorta batean;
ta guztiz apaindu zuenian,
lokaii edeíian bildurik,

zion hiotzez gizonak, fedez
lore aieri begiraturik:
— A! zeñek somatu, nork pentsatu
lore guztien auen erdian,
dagola bat, jaiotakoa,
obi otz aren bakardadian!

335. EUSKALDUN LUR DOATSUARI

Nere barenak gaur sentitzen du
Poz bat samintasunean,
Cañera pozan samintasuna
Ezin esan dan anean.
Laño tartean zer agertzen da
Nere begien aurean?
Zer ikusten det! Zer azaltzen da!
Zer darabiltzu gogoan!

Ai!...Bai!Ezautzenzaitutzeinzeran,
Betiko inaitagaria,
Eta zabaltzen ari zerana
Munduan zure argia,-
Atozkit, bada, orain nigana,
Atozkit, doaigaria,-
Atozkit, ama maite-maitea,
Atozkit, Euskal-Eria!

Zeñek litzaken lira batean
Caur zuretzako ipiñi,
Kanta gozoak, biotzekoak,
Adierazteko denai,
Esanaz: Ara mendi tartean,
Agertzen dan eri ori,
Ori Jaunak eman ziona
Seaska,-. Euskalclunai!

Euskaldun oiek, oiek dirade
Doaiez betetakuak,
Oiek dirade zenbait denboran
Munduaren gogokuak;
Beren mendiak, bere itxasoa,
Ei.ikatxo ta soroak,
Oiek dirade Euskaldun lurak
Dituen jostalulxoak.

Farez bezela agertzen dira
Dituzun eri txikiak,
Agerturikan mendi-zañetan
l'olitasunez janlziak;
Bañan izanik zu ain txikia,
Dituzu seme argiak,
Azi txikitik diran bezela
Eiten arbola aundiak.

Eta bestela, ara itsasoa
Nun dagon beti esaten,
Eta lurean nola dizkigun
Kondairak argitaratzen:
Eriak onak diradencan,
Orla diraden arkitzen;
Arazak dira urien gisa
Ez diranak iñoiz galtzen.

Azaldu zaite len-len bezela
Ezer txafikan gaberik,
Etzaitezela banatu, bada,
Bein ere ontasunetik;
Etsai zureak ikus dezaten
Nola Euskaldun efitik
Jaiotzen diran guzti guztiak
Lcialtasuncz beterik.

Artzaiak nola beiratzen dion
Menditikan ardían,
Ama Euskera! beira zaiozu
Órela Euskaldunari.
Poztu ¿aitezen gañera befiz
Zure alaba danari,
Ikusi zazun Euskaraz nola
Dioten itza aufari.

Euskaldun lufa! Bizitu zaitez!
Bizitu zaitez oraindik!
Beste eriak ikas dezaten
Zu be^elakoagandik,-
Eta gañera esan dezaten
Cei alako jatofitik,
Aitarengandik esan zutena
Beti semiarengatik!

PIO *M.ª* MOPTARA AITA

Qoloni'n (Jrali) jaio. 1851-VHI-'27'an. Gurasoak judutar, bera gaztetxotik kristau. Eroma'n ikasi ta gero Lateran'go Kalonjeeu jantzia arlu, Prantzi'ra aldaturik, Bealidié rte'ko Lekajdecxea irasi eban, beste batzuk be lagunduta. Prantzitar matxiñada aldian, Oñati'ratu ta Anaidi ortakoak emen daviken etxe edeía irasi. Lieja'n (Belgika) il zati, 89 urte ebazala, 1940-111-1 l'aji. Gizon argi ta bizia, Oñati'ra eldu ta laster, ango eleiz nagusian euskeraz mintzatu zan. Bonaparte ta garai artako euskaltzale guztieu adiskide ta laguntzalle trebea.

336. ARANTZAZU'KO AMARI

Agur, Arantzazu'ko
Ama efegiña,
Euskaldunen Andrea,
poz eta atsegiña.

Euskaldunen artean
Maria jafirik,
Euskaldun denak daude
Zuri eskeindurik.

Euskaldunak dirade
zure jauregia,
zure koroi edefa
da euren fedia,

Euskaldunak ba-daude
zure inguruan,
aitz gogofak bezela
beti-betikuan.

Aitz gogorak bezela
dira Euskaldunak,
Euren etsai guziak
garaitu eziñak

Betoz aize, euriak,
tunnoiak ofuka:
Euskaldunak ez dira
izango beldurka.

Baña nola, Maria,
Arantzan zaude zu?.
A! zurekin, Andrea,
arantzan gaude gu.,.

Jaungoikoaren etsaiak
Eleiza estuturik,
gure ariman dago
arantza josirik!

Arantzazu'n ba-ziran
su-gafak piztutzen,
ta zure jauregia
oso efe zuten.

Gelditu zan bakañk,
gau2 miragafia!
zure Imajin edefa
ez irazekia.

Arantzazu'n, Maria,
zu maite izanik,
Euskaldunak galduko
ez dute federik-

JUAN KARLOS *GE&A*

Donostia'a jaio ta Arasate'n jl. Berak diñosku: «Emcn, Irutxulneta eder zoragari ontan jaio ba'aíotzaa ere, izatez basatiar jaio nintzan, eta gazterik biurtu aintzan basora, nere gurasoen jatori zarera». Eta antse, Arasate'o, Udalaitz'eko aize ozkiria aronsturik, emon eban bizitza. Zar-zale zalako, amaika euskal-gauza zar argitara eban; bai Jeñargi-ikurdiak azaltzen, bai antxiña-olerkiak aztertzen maixu dogu. Euskeraz ederto elciau, txikitan ikasita, itzaldi bikaiñak ditu, baita olerkitxo bigunak be

537. TRUEBA'REN ERIOTZAN

Zure liburuetan, o Txanton prestua!
Maitatzen ikasi det geure sort-lekua.
Zenbait gaitz miragan dituan gordetzen
Bertan bizi-bizirik diguzu agertzen.

Euskal-mendietako neskatil lirañak,
Gizon leial, azkarak ta andre biargiñak,
Baseritxo zuriak, landa loratsuak,
Sagasti, gaztañadi, ibar ra basuak,
Oituera garbiak, ipuñak... kondaira...
Zuregatik munduan ezagunak dira.

Euskaldun banderia, zuk dezu jasotzen,
Jainkoa eta Foruak, goraki deitutzen;
Oregatikan, bada, zure eriotzak
Naigabez bete ditu Euskaldun-btotzak.

Nun-nai zabaldurikan Bizkai'tik aiziak,
Abando'ko kanpaien deadar tristiak,
Negar egiten dabe Euskaldun-mendiak,
Negar zelai ederak, negar itunak,
Landetako loreak, saroiko txoriak...
Negarez urtu dira kristauen begiak!

358. ENBIKETA'RI

Edura bezelako arpegi zuriak,
Begi urdin-urdiñak, ca urezko Liliak,
Orelaxe ziraden zeruko aingeruak,
Bere gloriarako egiñak Jainkuak.

Bañan zuritasunez Jauna aspefturik,
Begi urdiñen argia epela iritzirik,
Zeruak poztutzeko asmau zun, au lana!
Aingeru bat sortzea polit baltzerana.

Guztia zan pakea zeru zabalean,
Aingeru baltzerana agertu artean...
Iriz sortu orduko, eder, maitagar!,
Santuak zutenean aurean ikusi,

Uluz eta lekatoz bazterak beterik,
Txaloka ba-zioten, o^o zoratürik:
«Auxe bai da Aingerua! Oiek begi argiak!
Begiratuz dituez alaitzen geuriak!

Au da edertasuna, sua lez bizia!
Edufa bezin otza da aingeru zuria!
Gaurtik geiagoraño, zeruko laztana,
Bai! zu izango zera, polit baltzerana!»

Ozta-ozta entzun/kan Santuen uluak,
Aingeru zarak ziran negarez gaixuak;
Ezaguturik euren edertasun otza,
Euren zuritasunaz izan zuen lotsa.

Ikustean Jainkuak Santuak zoratzen,
Eta aingeru danak lotsaz dardaratzen,
Bariz paketu dedin zerutar jentea
Bear dau baltzeran mundura bialtzea.

Alaxen zeruan zan bukau joíasketa,
Etoíirik luíera *zu,* gure Enfiketa;
Eta ba'zituzun Santuak zoratzen,
Emen biotzak diguzu zerurontz biurtzen:
Zeren, zoragai'i, izai' dizdizari,
Jaiotzan legez zera aingeru bat beti.

PELO MARI OTAÑO

Zizurkil'go senií-a; Joxe Bernardo izen aundiko bertsolariaren loba. Eriolcrkarj goxoa, euskera ta oitura zarak zintzoro abestu ebazana, lkusi bere olerkiz osotutako *Alkar* (Donostia, 1930) liburua. Zaldi ta mando peratzailc zan arco, biotz samur eztia eban. Neurtitzez gaiñera, *Artzai mutila* opera be idatzi eban, 1900'ko zczetlcan, Buenos Aires'ko- Victoria antzokian agerazoa. 1909'ko maiatzareu 7'an il zan Rosario de Santa Fe deritxon urian. Euskal kantari onek, biotzintzirika opa eban, bizitz-mu^ara eltzean, bere azurak Euskalerriko lurpean ezkutaizca¡ alan be, an urun, txit ufun, itxi bear, tamalez.

559. DONOSTIAN UXOA

Nola gizon guztiak txit aundiak diran
Eta oso txikiak denbora berian,
Batek asko pentsatu eta ondrian,
Igartzen dio nola gauz asko lurian,
Ainbeste itxasuan ala legorian,
Egonagatik anbat gugandik urian,
Jaungoikoak daduzkan betiko gordian.

Argatik dago txutik betiko galdeera:
«Zergatikan da gauz au, beste ori zer da?»
Iñolaz erantzuteko izaien da era,
Gizona iritxi da zerbait jakitera,
líunpetatik gauza asko du ateta.
Bañan jakintsunetan geiena dan bera,
Erortzen da maizena galde egitera:
«Zergatikan da gauz au, beste ori zer da?»

Ixiltzen diranian gizon jakintsunak,
Izketan asten gera gutxi dakigunak;
Aientzat bide asko daude txit ikinak,
Estrapozoz betiak eta trabadunak;
Guretzat benz denak lirain ta [egunak,
Gañera geren ustez oso ezagunak,-
Ez bestek erakutsi izan dakigunak
Edo ikasbidetik datorkizkigunak,
Baizikan ametsetan sortzen zaizkigunak.
Naiz tara egin iñoiz, aditzen digunak,
beti izango dira guretzat lagunak

Argatik galdetzian; Donostia zer da?
Ikusten da lenago diotan bezela,

Jakintsu aundi denak ixilik daudela,
Edo geienaz ere mintzatzen dutela
Lan ori erabaki ezin ditekela.
Ametsgiliak, beriz, kolpian, berela,
Bere erantzuera ematen dubela,
Esanaz: —Donostia? Kantauriko peria,
Ta beste izen asko, erezki, ofela,
Txit ondo datozenak jartzen dituela.
Nork ukatu doaia berez datorela?

NIaspilaturik beren pisuz eta neuriz,
Mundu guztia bete nai dutenak egiz,
Bete oi dutena da kopeta izerdiz,
Gauzak ezagutzeko areta geiegiz.
Nik agurtzen ditut begiramen aundiz,
Naiz berak fara egin gure umekeriz;
Or konpon ditezela beren jakinduriz.
Neretzat Donostia, ara zer dan, bertz:

—Uso bat bidaldua Noe'ren Arkatik,
Iñon legorik ba'zan jakitiagatik;
Pixu leial gaxua al zuen lekutik,
Izpi bat txintxilika zuela mokotik,
Aditzera emanaz argiro gogotik,
Azaltzen ari zala fura ujalpetik,
Biurtu zan atzera urditza artatik,
Lokabetuaz denak zeukaten dudatik.

Putzuan emanikan len ainbeste jira,
Uso ona bidaldu zutenak urdirá,
Noizbait iritxi ziran Ararat-mendira,
Lenbizi egokitu zan legortegira—.
Noe buruzariak irtenik erdira
Ta eskefak emanaz zerura begira,
Itza bireztu zuen bere familira,
Esanaz: —Sem ta Jaferh, egun etori da
Ta Jaunak aginduak egin bear dira.
Zeron emazteakin biak urutira
Joan bear dezute bizitza beríra;
Kar» ta bere andrea nerekin baitira.
Ait'amak zarak gaude, ta izan kupira,-
Ez lotsikan bidaldu gure aurpegira.
Orain bendiziua ar zazute, tira!

Era agindu zuen beste alderdira:
— Pixti denak bijoaz al duten tokira.

Ain leial legor-biía joan zan egaztia,
Ekaririk birpiztu zituen izpia,
Pixti denak bezela izan zan utzia,
Bañan argitasunez nola zan jantzia,
Aurera eramanik bere iritzia,
Laster igaro zuen legorti *guztia.*
Oroitutzen zan leku on bat ikusia
Eta bera izanik txit egalaria,
Alderdi artara zan berela abia,
Topatzera goguan zedukan tokia.
Iritxi zuenian, beriz, Kantauria,
Ementxe autu zuen zeretzat kabia.
Etzin zan, eta ez da geroztik jaikia.
Begira, non daguan gaxua jatxia:
Len uxoa zan eta orain Donostia.

Burua ageri du gaztelu oietan;
Gorputza Donosti'ko etxe ederetan,
Ta isatsa Loiola'ko ibar politean,
Eskuiko egua Ategorietan,
Eta ezkefekua Antígua'n bertan,
Edo alde artara dauden bidietan.
Beste pixti batzuek egope onetan
Ikusten dira iñoiz uda-egunetan,
Beren lumak bustiaz Kontxa'ko bagetan,
Pozkidaz dabiltzala jostatzen uretan...
Sartu gabe kondaira Juziaguetan...
Ora nere iritziz Donostia zer dan,

540. ELIZAKUAK

líunak nabarturik bideko tiñua
Zeukan, ca ixildu zan txorien doñua.
Odei tartetik iñoiz senti zan,
Bañan bian sortu zan lañua;
Argi baten auretik kolpez erañua
Azaldu zan, ta laxter —eliza siñua—
gugana iritxi zan txintxari soñua,

Txilin, txilin jo zuen bcriz txinlxariak,
Aditzera emanaz gauza mirariak,
Beti txit onak, bañan iñoiz niinganak,
Izaten diranian gaitzak ckaruk
Oso fristetu ziran gure aurpegiak,
Ta beriala azaldu zuen ibrgiak
Eskuan arturikan buru estalkiak,
Lurlan belauniko an geuden jafiak,
Ta parte artu zuen /i-ru-gau argiak:
An pasa biar zuen Jaungoiko aundiak!

bukaristi Santua jaría Maisuak,
Zijuan pasatzen, ta beraren pausuak,
Umil agurtzen ditu kristau ledetsuak;
Ta nola emen ala geron geieutsuak,
Cerlatzcn diranian alako kasuak,
Buruak makur eta biotzak jasuak,
Bafendlkan egiten dira erezuak,
Mesede? izan ditzan min duen gaxuak

I'cntsatutzen munduko izate aulian,
Kasikan lorik egin ez nuen gaubian,
Ta urengo goizian zortziak aldian,
Joan nintzan jauna artu zunaren gaklian
Ezkaratz zar batera sartu ondorian,
Kanta otsa senti zan etxe baiunbian,
Guztizko doñu alai eta ederian.
I'ozez bera aditzen nengola an bian,
Biziro befi onak ziraden ustian,
Gizon bat apaldu zan ate brinbalian,
Eta nere galdeera egin nionian,
Malko bi zerorizkan bere masnili.it>,
Ta zion: - Ortxen dago gaxua ia iiian!

Bete ama maitia zedukan oian!
Arituiik gelditu nintzakon aurian,
Ta kanta-otsa nola senti zan artian,
Esan nion: —Or nola daude umoiiau,
Agonia arkitzen ba'da etxe berian?
Ori ez da kabitzen kristauen ¡egian
Eta erantzun zidan erdi negarían:
—Ai! Or famili asko nola bizi diran,
Anbat jakingo ere ez dute, ordian,

Desgrazi au arkitzen danikan gurian!
Ezin biziak gauzka ain bakardadian,
Ixil-ixilik geren baztartxo pobrian,
Beste guztietatik kasikan gordian;
Ez ba'giña bezela jaiuak lurlan!...
Iltzia obe izan liteke, aldian,
Bizi ez danarentzat itxura obian!...

Zenbat olako, oi da, mundu zabalian!)

341. AITONA GIZAGAIXOA

Lldaberiko usai gozozko
ilunabartxo batian,
Donostia'tik ufutj gabe
uri ontako partían,
baseritikan onontz datoren
bidetxigor politian,
sagar ta gaztain, aritz, elori,
uritz ta lore tartian,-
azpi aldian erekatxua
marmariaz ostopian,
eguzkiaren azken-dizdizak
aruntzko mendi tentian,
kuku ta beste txorien kantak
baso guztiak betian,-
kabi batian lau txorikume
txilar tarteko otian.
Gauz abei denai begiratuaz
emen, gure lur maitiari,
«iñon ez dago onelakoak»
esanaz nere artian,
netofen, eta alako batez
jiratxo bat ematian,
aitonatxo bat arkitu nuben
eserieku arlotian,
berekin zeukan penaren kargak
[uíera ia botian.
Garai ta leku pozgafi artan
gizon ura ikustian,
alaitasunez inguratua
ain egoera tristian,
bereganatu nintzaion zerbait
itz egiteko ustian.

Iruditzen zait gaur oraindikan
bera ikusten nagüela,
ari tontortxo baten ganian
exerita daguela;
belaun nekatu bien tartean
ufitz-makil bat duela,
beraren puntan ipiñirik len
buruan zuen txapela,
bi eskuakin gogor elduaz,
kontu egiñaz onela,
eta kokotza oien ganian
lotan ba'lego bezela.
Kola jostatzen pil-pil zebiíen
egoaizetxo epela,
buruko ¡le txuri bakanak
egara zijoazela
esan zeikian, uste det berak
nabaitutzen etzuela,
Antxen nenguan, bere onduan,
zer egin ez nekiela,
laguntzarik nai zuen galdetu
edo aldegin bestela;
itz egin zuen, eta kezkatik
atera nintzan berela.

*

Asnas lodi bat irten zitzaion
petxu estutik jasua,
ta lenbiziko au esan zuen:
—Nere Euskera gaxua!

Esan onetan ezaguturik,
aitonak zedukan miña,
erantzun nion; -Jauna, Euskera
ez dago ain aldegiña,-
oraindik ere lur maite ontan
ba-da zeñek itzegiña...—
Bañan nere itz motxak etziran
bera lasaitzeko diña,
ta zion: —Ondo ikusitzen det
datorkigun erasua;
ez da biziko, laster ilko da
gure Euskera gaxua.

—Jauna, ez bedi orla tristetu,
ez dago Euskera juna.
Ez du nabaitzen inguru ontan
daguan alaitasuna;
ez du ikusten ez dala gaitza,
baizik dena osasuna;
Euskal-Eriko txorien kantak
ez dago pozez entzuna?
—Bai, len bezela saiatzen dira
kukua eta zoxua,-
oiek oi' daude, bañan galdu da
gure Euskera gaxua.

—Jauna, barkatu bezait, beriro
gogor egiten ba'diot:
Euskera orain baño txarago
egon dala derizkiot;
ez du ikusten nola izkuntza
ari geran biok?
Gaur Donostia'n ez dakienik
ez du aitortu nai iñok.
—Bañan erderak betiak dauzka
efia eta basua,-
alperik zabiltz, galdua dago
gure Euskera gaxua.

—Jauna, alaitzen asi gintezke
Euskera maite degunak,
ba-datoz, ustez, ia betiko
galdutzat zeuden egunak;
lan aintzakotzat artzen etzuten
damatxo txapeladunak,
gaur erantzuten dute biotzez:
—«Gu gerade Euskaldunak».
—Bañan ainbeste jartzen diote
traba edo erazua...
Nola nai dezu indartutzia
gure Euskera gaxua!

—Jauna, ba-daki, nola lenago
ez genekien erderik,
eta guraso leial on askok
umiak argitu nairik,
aldi batean, non ikusi da
izkuntz au gabeko mairik?
Orengaitikan dago Euskera
lotsaz txokuan gorderik.
—Bukatu bedi oitura oren
epea edo plazua;
izan zazute maitexiago
gure Euskera gaxua.

—Jauna, ez beza negarik egin;
esan diotnn bezela,
ikusitzen du lenago baño
askoz obeto gaudela:
luza lezake, txit zaila da-ta,
oso indartzen berala...
Ontan malkuak kolpez kendurik
erantzun zidan onela:
—Nik erderarik ez dakit, eta,
nere ¡lobak... au sua!
ni bezelaxe burlatzen dute
gure Euskera gaxua.

Au mintzatzian arkitu zuen
nonbaít ain estu bafena,
non altxarikan eserJekutik
al zezaken azkarena,

esan zidan: - Ai! Denak nai dute
lege zarak dakarena,
eta ez dute ezagututen
izkuntz dala aufena.
«Miru gaiztoak menderatutzen
duten bezela uxua,
etzazuteJa iltzera utzi
gure Euskera gaxua».

Eskuarekin agur egiñaz
arturik makilatxua,
etxe aldera abiatu zan
ain euskaldun doatsua.
Geldi geldika jafaitu nion
neurtuaz bere pausua,
iíobetara biurtu zedin
aitona gizagaxua,

342. LIMOSNATXO BAT

Mutil koxkor bat itsu-aureko
zuela aldamenian,
gizon buru-soil, bizar-zuri bat
bi makuluren ganian,
kale (i) ertzian ikusi nuen
inora ezin joanian;
ta bera nor 2an jakin naiean
inguratu ninízanian,
limosnatxo bat eskatu zidan
Ja'mkuaren izenian.

Zerbait emanaz galdetu nion,
al zan modu onenian,
jaiotzetikan ai zeukan ala
gaitzak artua mendian.
Erantzun zidan; —Ez, semia, ez,
nik indara nuenían,
ez nuen uste iritxitzerik
onetara azkenian...
Gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren izenian.

Eta jaraitu zuen esanaz:
— Lengo gerate denian,
ni auren xamar ibiltzen nintzan
beti edo geienian;
nekatu gabe, aisa igesaz
aldapik luzienian:
etzan burura asko etortzen
gu ala gebiltzanian...
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren izenian.

Odolak bero eta burua
afua daguanian,
edozein eran sartutzen da bat
alako itsumenian,-
atsekabe ta negar samiñak
ba-datoz ondorenian;
nola erabait batek bizia
utzitzen ez duenian...
limosnatxu bat eskatu biar
Jainkuaren izenian.

Iñoiz pentsatzen nere artian
ni jafitzen naizenian,
gaur ere asko dirala joango
lirakenak zuzenian,
ez luke iñork sinrstatuko
zer pena ematen didan.
Ai! orla nintzan ni ere sendo
ta gazte nenguanian...
gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren izenian,

Ai! txorakeri asko egiten
da zentzurik ez danian,-
sinista zazu ur au pasia
daukanaren esanian:
obiago da, garai dan arte,
alegintzia lanian,
negar egiñaz ibili gabe
gero denbora joanian...
Jimosnatxo bat bildu eziñik
Jainkuaren izenian.

545. AMERIKA'KO PANPETAN

Éuskal-efiko lur maite artan
jaio nintzan baserian,-
itzal aundiko intxaur arbol bat
dago gure atarian:
aren ondotik irtenda noiznai
ntaldako gaztañadian,
edo, sagafik onenak jaten
luberiko sagastian,
arbol tartian bizitu nintzan
gazte denbora guztian.

Denak utzi ta etoíj nintzan.
Lur au ikusi nai nuan!
Aritz tantaiak, pago lerdenak,
nola ez izan goguan!
Orain artzaintzan Ameriketan.
Arantxo baten ondua»,
eguna igaro lafian eta
jiratzen naizen orduan,
nere begiak gozatzen dira
aldameneko ombuan.

Ainbesteraño tristetutzen naiz
eremu zabal oietan,
arbolak, mendi eta efekak
falta diran zelaietan,
non etofi ta eserirzean
ombu zar onen zanetan,
edo igo ta osto tardan
bere adar bikañetan,
ene, amatxo! nik nola esan
zenbat gozatutzen detan?

Txabol ondoko ombu laztana,
maitatzen zaitut gogotik,
eta biotza erdibitzen zait
joatian zure ondotik,
nere burura ekartzen dezun
oroimen gozuagatik.
Zure itxura nai det ikusi,
ez dizut eskatzen irutik:
ni emen bizi naizen artian,
afen, egon zaite zutik!

Nere lagunik maitatuena,
ombu laztana, zu zera;
argatik nator zure kolkora
ni malkuak ixurtzera,
idurieurik naramazula
atariko intxaurpera...
Beti izango zaitut goguan;
bañan joan nai det ostera,
Euskal-lureko zuaizpe artan
nere ezufak uztera.

544. ZAZP1AK BAT

Zazpi aizpareu gai dan oíaia
ebakirikan erditik,
alde batera «iru» soñeko
utzirlkan, «lau» bestetik
goraiziakin berezi aren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazptak oial batetik.

Oialtzat artu zagun Euskera)
goraizítzat Bidasoa,
ibai koxkor bat besterik ez da,
utsa ba'litz itxasoa:
elkaren urbil daude Zazpiak,
muga deitzen da «Pausoa».
Zergatik izan bear ez degu
famili bakar osoa?

Arbola baten zañetatikan
sortzen diran landariak
bezela gera, Bidasoa'ren
bi aldetako jendiak:
berdiñak dira gure jatofi,
oiturak eta legiak,
Ama Euskerak magal berian
azitako senidiak.

Ama Euskera! Bere semiak
gu Ameriketan zenbat
arkitzen geran! ta urutitik
maitiago degu, anbat:
emen ez dago Bidaso'rik
ta beste trabik an ainbat;
Ama maitia indartu dedin,
bizi bedi «ZAZPIAK BAT».

L. LATIEGO

Ona emen beste euskaltzale zintzo bat. Cizon jakituna bertsolari-niaiían. Bere bizitzako gOJti-beitirik ez dakigu asko; gure gizonik geienak, laño ta iluopc biziak ditugu. Alan be, curen egiñak ez izan ed o ze langoa k. Ezta kaxkar, Jainkoak emondako doai ta bame-suz be.

545. PETPJKILO JAUNA TA ZAPATAGlLEA

Z.— Zer moduz arkitzen da
gaxo daukan ori?
zer egin bear dion
gixaraju ori?

P. — Gaizki bainan ain gaizki
gezura diruri;
moztu biarko diot
bi oiñak jaun ori,
bestela gaur gabian
il eingo zait neri.

P.— Ez daukat zer esanik,
ez ori t'ez ari,
gaitzak erakusten du
eskua nun jaíi;
nere eitekua da
sendatzia ongi,

Z.— Baiñan esan al dio
bedorek berari,
kontu eman baiño
jaungoiko onari.

Z.— Adituko al nazki
orain bi itz neri?
Laster esango diot
ementxen beon,
bestela galdua naiz;
ez naiz txantxaz ari.

P.— Zer esan bear dezun
azkar esan neri,
berandutu baiño len
tajuz nadin asi;
denbora gutxi daukat
eta etzait komeni,
emen zurekin onla
egotia neri.

Z.— Jauna, lau egun dira
gaxo dagon ori,
neuria arturikan
bere bi oiñari,
—beorek oiñak moztu!-
ta nik zapatari
zer egin biai' diot
esan bear nau neri?...

P. — Nik bialduko izkitzut
oren oiñak zuri,
Lxukun-txukun jarteko
zure zapata bi.

Z.— Bañan da konienia
pagatzia neri,
nola kobratuko-iot
gixaraju ori?...

P.— brex, gizona, eíex;
esango-izut zuri:
lendabizi zapatak
zuk jantzi oiñari,
gero mostradorian
garbi salgai jarc-
ien zapatak balio
zuten zuretzat bi,
orain bere oiñakin
eskatu amabi.

JOSE ZAPIRA1N

Zapiraindarak bertsolari ditugu, geienak beintzat; eta ez edozelangoa noski.

546. NERE LUR MAITEARI

Euskal-Eri maiteak batera, aren bildu
Eta ume zur onak lurera azaldu,-
Ausarkiz aurera danok juan beagu,
Seme leial onak baldin ba'gera gu.

Zeñek Lege oik jari dizkigute guri?
Galde zaíogun gure etsai gaiztoari.
Aita zarak guriak ba'ürake bizi,
Seguru naiz esango luteketa ori.

Oroitzen naizenean unúltasuna, bai!..
Oraindik umilago erdaldunak nai;
Efegututzen diot Jaun aundi danari
Lengo Legeak, aren, emateko guri.

Ain maite det lur au nik biotz-biotzetikan!
Ez deritzat, ez, dala iñon oberikan-
Zer-nai gauza egingo det nik zuregatikan,
Nola ama onak bere umiagatikan.

Nola oroi lezake gure lur maiteak
Bear dirala artu onela nekeak,
Anaiak, lenbailen, bai, bai egin gaitean:
Ordaintzeko Euskera gu bildu gaitean,

Nik esaten dedan au, ez *a* da onela?
Etzait iruditutzen tlanikan bestela.
Munduan beste asko dirade» bezela,
Ara zuretzat seme bat guztiz leiala.

647. GAZTEKO BERTSOAK

Maite bat txukuntxukun ala animatik,
Maitatutzen det nola biotz-biotzetik-
Berak ez dakit nola al ñauen beretik,
Befiepin nik maite det guztiz baíenetik.

Ikusl utsarekin sartu tzen dit poza,
Esatia ere au batere ez naiz lotsa,-
Alderdi guztietan gustatzen dan gauza,
Auxen bai dala uda-befiko arosa*

Dama ori lengoan toki batian zan,
Pozaren indarez nik ezer ezin esan;
Zalantzan bera ere noski egondu zan,
Beñepin lagun batek ala zidan esan.

Amaren sabeletik dator alakoa,
Polita ain da guztiz zoragaíizkoaj
Ez da arkitzen beste bat ura añakoa,
Aingeru bat dirudi pare-gabekoa.

Etor bidea ba'lu nere ingurura,
Biok bat egiteko leku segurura,-
Askotan etortzen zak, ai! pentsamentua,
Esanaz egoten naiz, nun da dama uva?

Oroitzen jari eta, Jesus au tristura!
Nere baren gaxua biziro estu da;
Aspaldi"! clatorkit gauza bat burura:
Dama bat maitatzen det, bañan nola ura!'

TORIBIO IRIONDO

Ba-ditu onek be olerkiivoak, eleízarakoak geien bat *Eltskafeffa'n, Ibaizabalen* eta aurkitzen dira.

548. ANDRE GUZIEN ARTEAN BEDEINKATUARI

Bedcinkazio ugaritsuak
zure garbitasunari;
lur-zerutaíen, Jaun-Goikoaren,
guzien poza danari;
izar edefez koroaiurik,
eguzkiaz jantzian;
paradisuko suge dolora
menderatu zuanari.

Odeiez goitik, zeru goietan,
agertzen dan itargia
zeru Eregin aundiaientzat
da oin-azpiko alkia,-
bene-benetan dizut eskeintzen
biotza, anima, guzia]
Ama maitea, zure alabaz,
aren, izan eruki!

349. BIRJINA MARIARI

Nere Ama, txit laztana,
alabatzat ar nazu;
anparatu ta giatu,
zeruratu nazazu.

Goietako izar argi
lausorikan gabia,
sortu ziñan momentutik
Jaunak doaiz betia.

Amorio edefaren
Ama maite gozoa,
esperantza zugan daukat
konfiantza osoa.

Negaíezko erbestean
asko gaude sufritzen,
gure malko samintsuak
asi zaite legortzen.

Begira zaguzu, Ama,
erukiz zerutikan,
ikusi dezagun Jesus
zuk lagun egiñikan.

Nai ba'dezu, dio Amak,
Jesus onegaz bizi,
pekatuzko ariskuak
bene-benetan utzi.

Serbi dezagun guziok
gure Jesus leialki,
zeruetan gozatzeko
Birjiñarekin beti.

ZAPIRAIN'DAR JUAN KRLITZ

Bertsolari bi kaia oacü bizitz xcetasuuak, bcrtsola.risaiíean emongo ditugu.

550. ANDREAREN ERIOTZEKOA

[poi txiki bat kantatuko det
gaba eguna autu-ta;
baju-bajutik astera nua
ez nago oso altu-ta.
Daukadalako nere laguna
kanpo santuan sartu-ta;
etzait biotza konsolatutzen
pentsamentu au artu-ta,-
negar-malkuak saltatzen zaizkit
despeira akordatu-ta.

Uriko ilaren iruga/ena
San Brantzisko'ren bezpera;
ua iJtzan, baño bizi geranak
oraindik aztu ezkera.
Neri lagun bat eman zidanak
Berak kendu dit ostera;
gure despeira nolakua zan
nua esaten astera:
kontseju asko eman-ta juan zait
mundu ontatik bestera,

Bezperatikan eskatu zidan
San Brantzisko'ren jantzia.
Egun artantxe iltzeko zeukan
desiua ta antsia,
«Jaungoikuaren grazian ustez
jari det kontzientzia.
Itzalditxo bat nai dizut egin,
eduki adbertentzia.
Caur azkeneko gaba det eta
artzazu pazientzia».

Txokora-aldera begira zegon,
ni silan erdi-negaíez;
galdetu zidan ia zer nuben;
erantzun nion: «Ezer ez».
Enkargatu dit entierua
zer-nola egin, par-pafez.
«Gaiñera nai det nere gorputza
eramatia bizkarez».
Arek orduan esantakuak
kontatutzen ez da erez.

Biek bakafik geunden kuartuan
goizaldeko garaian;
agindu zidan jeiki-aldera
jira nezaía oian.
Jafi nuben ta: «Txit ondo nago,
asko itz egin naian,
San Agustin'en jakinduria
baiieduka mingañian,-
baiñan alpefik; denbora joan zait,
eriotza det gaiñian».

Begira-begira jan zitzaidan...
uste nuben nik il zala.
Agindu zidan ume gaxuak
zintzo lezia nitzala;
ofetarako ejenplo ona
auretik eman nezala;
gurasuentzat erakusteko
bide oberik etzala.
Agindu nion kuidadu oiek
munduan utzi zitzala.

Ur preskua maiz ematen nion,
an negon aldamenian:
«Ni onla zeiñek sebrituko nau
miñez jartzen naizenian?»
Ala esan zidan: «Mundu ontatik
bestera zuazenian,
alabarekin aterako naiz
bidera, zatozenian,
arpegirikan eztet gordeko
ikusten zaitudanian».

Begiratu ta ikusitzen nau
malkuak nerizkiola...
Ala esan ziran. Iltziak aiña
pena ematen niola.
Zeru edeía alkantzatzeko
esperantzetan zegola;
ara juatian Jaungoikuari
eregutuko ziola;
munduko nere bakardadia
aztuko etzitzaiola.

Esan bait-ziran ara juatian
nitaz oroituko zala,
agindu nion nola bizi zan
karta bat egin zezala,
—Banekiela ua baño len
jakintsun asko juan zala:
Lege Zareko Propetak eta
Salomón ere an zala;
baiñan oraindik iñorengandik
kartik etori etzala.

Zorioneko iíunabaía
San Brantzisko'ren eguna!
Iltzera juaki, ta ua zan poza
manifestatzen ziguna!
Au esan zidan: «Zu izan zaitut
mundu ontako laguna;
momentu au da alkafengandik
partitu bear deguna.
Auxen da ditxa Jesus maitiak
efegalatu diguna».

Begiak gora jaso zituben,
burua befiz makurtu;
azkeneko itza: «Agur betiko!
gaizki egiñak barkatu»...
Aren anima nora juan zan
nik ez nezake juzgatu;
baiñan Santuak eskatutako
ezer etzion ukatu:
ezaguera edefarekin
ora mundua bukatu.

PEDRO MIGEL URUZUNO

Elgoibar'ko Lasaka baseflan jaioa. Apaiz OD eta euskaltzale trebea. Lenen Elgoibar'en ta Mendaro'ü gero, arima-zain erne, zar ta gazteen ardura izan eba[1] Da. Egizko euskeldun agertu zan beti, baita ipuiu eta bertso gatz-ozpinduak idaz-tean be. Onekin osotuta liburutxo bat dazaugü: *ütuíunotar P. M.'en Ipuiak* (Iruña, 1930).

551. IRU EREGEAK

Efegeak dijoaz
mendietan bera,
berai lagunduaz
goazen Belen'era.

Begira, bai, begira, kontuz sortaldera,
Ara non agertu dan izar txit edera;
Beti onen bat dakar zerutik lufera,
Efegeen giari dijoa aufera.

Eregeak ondoren datoz izararen,
Baltasar, Meltxor eta Gaspar ¡rugaren;

Jesus adoratzera, umil egon aren,
Anditasun guztia ora non datoren.

Izara zaielarik Belen'en gelditu,
Beren adimentuak dizkie argitu;
Estalpe baten Jesus dutela arkitu,
Bere pobrezaz dira osoro aritu.

Bigungafitzat dauka askako lastoa.
Nola ez da egongo Aurtxoa oztua?
Asnasaz berotzeko idi ta astoa,
Ora nola dagoan justuen Justua.

Ba-dakigu zerala zeru-lufen Jabe,
Ona ure ta mira, intzentsua ere,
Eskeintzen dizkitzugu dan bezela lege,
Bada zera Jaungoiko, Gizon ta Efege.

Etori gera, Jesus, zu adoratzera;
Ori egin ondoan ba-goaz atzera,-
Zeruko aingeruak betoz kantatzera;
Agur, Jesus maitea; ba-goaz etxera.

352. 1ÑES ETA EÉOSA

(Maialzeko I oree lan)

—Ai, au egoaldiaren
Eder eta alaia!
—Eta lurbira dana
Lorez estalia!
—Goiz-goizetikan beíiz
Txoriak kantari.
—Maria a)abatzen
Pozik dira ari.
—Efekatxoak ere
Dijuaz mur-mur-mur...
—Esanaz guzioi
Agur, agur, agur...
—Eta oiek danak, zer
Nai digute esan?
—Maria onfatzeko
Lureko bizitzan.
—Eta guk zer diogu
Berari esango?
—Daia guzi-guziak
Baño ederago.
—Eta maite degula
Biotz guzitikan?
—Egi ori eztago
Esan beafikan.
—Nola maitetasun au
Berari agertu?
—Egonaz bera beti
Serbitzeko gertu.
—Baña zer serbizio
Egin guk berari?
—Lorerik edefenak
Bildu ta ekari.

—Goizian-goiz jaiki ta
Lenbiziko lana...
—Loreak biltzea da
Egin bear dana.
—Uste oíetantxe gaur
Atera naiz bila.
—Baita ekari ere
Lore-eder piía.
—Egiaz edefa da
Efamiletia,
—Baña kostare ba-zait
Bera egitia.
—Gañengo lore ori
Zer dezu, Efosa?
—Ori da, bada, eun
Oriko lafosa,
—Begira nagokio
Aspertu eziñez.
—Zuk ere ba-dituzu
Ain edefak, lñes.
—Guziak poz-pozikan
Gure Amarentzat.
—Baita Amare pozik
Iduritutzen zac.
—Ama pozikan eta
Alaba pozago...
—Zorion oberikan
Iñun ete dago?
—Maria degu gure
Ama maite ona.
—Bera dagon lekuan
Dago zori-ona,
—Beti, beti dedila
Arkitu gurekin.
Eskatu degiogun
Biok alkarekim

«Eskari bat egiñaz
Gatoz gu Zugana;
I-zan zaitezela Zu
Beti gure Ama;
Eta onla ematen
Dizugun omena
Izan bedi lorerik
Eder-edefena».

SALBAT MONHO, APEZA

Isturitze'n (BN) jaio 1751'garen can, apaiztu 1774'an, arima-zain luzaro Azkaine'n, Uzta ri tze'n, Bardotze'n eta Irisari'n, 18"21' D il zan. Beñat Mardo ca Etxahun'ekío batera, garai ontako olerkaririk ugariena dogu Eleizkautn asko idatzi ebazan, baila zenbait abesti be orduko naste-zale ta bari-rnin ziranen koncra.

355. BAKUSEK TENPLURIK EZ

Bakusek ez du tenplurik, ez aldarerik nahi,-
Gauza bat baizen ez dio manatzen gizonari:

Garboski edan dezala urik gabe arnoa,
Nahi badu bere ganik uruiidu herioa.

Bizia laburtzen bada tristezian egonez,
AJegera gaiten beli kolpe onak edanez:
Biziaren (uzatzeko bide seguragorik
Kausitzen ez denaz geroz, dugun edan gogotik.

Dugun edan befiz ere; beti dut adirzea
Bien ondotik on dela hirugaren koipea:
Oraino triste badire gure bihotz-barenak,
Alegeratuko ditu menturaz laugafenak.

Sail on bati lotuz geroz, ez bara biderditan:
Pixerak hxitsa'k badire, bete bitez beritan!..
Gogotik gal arteraino gure nahigabeak,
Eta goibeltzen gaituzten oroitzapen tristeak.

PIERE TOPET, «ETXAHUN»

1786-1862. Baikoxe (S) olerkari guren onoi sorteña; ainbat zorigaitzen lekuko, zutik d.atza oraindik bere jaiot.ctxe Etxannia. Ogei ta bi urtegaz, emaztea artu eban, Garazi Pcleoto, 23 urtekoa. Bera baño zarago zan emakume augaitik, saritan jan bear gilczapeko ogi-kitzkur latza. Olerkari gurena diñoe, eta egia: euskal-elerciko Vilon edo Verlainc'tzat daukie askok. Sail bitan banatu gengikez bere neurtitzak: I) *Ziri olerkiak;* 2) *Negar-olerkiak.* Lenengoak, batez be, gaztetan egiñak doguz: sarkor ezten antzera, zimikoi barne kezka lez, gorj burdin bizi baj'litz. Bigarenak gizon umotuarenak dira, baña zotin garatza darioeuak, itz eta esakera uzu ankerez jostak. Leo-begi-kliskaz ezagutu dagike bere idaztankera: labur, ebagi, bizkor, exau. lkusi, aren, *Le Poete Piere Topef, dit Etxa • hun, el ses oeuvres,* P. Lhande et J. Larasquet (Baiona, 1946).

354, OFIZ1ALENAK

Oi laboran gaxua!
Ihauk jaten duk artua,
Ogi eta ardu eraikitzen, auheren' asetzekua:
Halere hain haie maite, nula artzañak otsua.

Artzaña ba'da beztitzen,
Josler deie gomendatzen
Zaragolen gibel-aldia oial hobez egin dezen.
Halere bigaturen dila aitzinia beno leh^n,

Dendarik berant agertzen,
Aratsen goizik utzultzen;
Eta mundiaren jofatzen arte hartan abusatzen.
Ezpeitie jaten diena hulantzeko* irabazten.

Egun uruliak oro
Idofian nahiago.
Hanitz lan agertu beharez, hari oro txori lepo;
Halikatzen balin baduzu, zehian lau oropilo.

Ehulia hari galto,
Ukenik ere han franko.
Undar harien ebatsi nahiz, oial'uzten zeratzeko,
Hariak gaxto zutiala fornizaliri eraiteko.

Hari'giliren adreta!
Harek ba-daki zer pentsa:
Muria gaxki egin eta erdiuak lohiz tapa!
Etxia lurtatu denian, harien gaxtuak falta.

Benuser'-maiasturiak
Oi! lan guti egillak!
Dena gaxki egin eta zurak du estakuria!
Pasta zela adarondotsu edo beta bihuíia!

Eskalanpu egiliak
Ebasten tu materiak.
Zazpia sos balio dina saltzen beitu hamabia:
Ostatin edan saria eta etxen gosez familia.

Biñer batek bestiari
Estakuru[4] eman nahi.
Zuñi bere kopadura hobe betzaio iduri:
Aihen gabe nahi datinak hura beza usu beri.

Oi taharnari fidela!
Jakile ezpaliz igela!
Arañuak juje har eta hek hintzakie kundena.
Haien etxe lejitimua guri saltzen deikiala.

Efijent[5] bat ba'da hiltzen,
Harek eztu prozesik uzten:
Huntarzunak beititu harek hein hun batetan ezarten:
Zuntzuíin kuntrola eta pantzolin ipotekatzen,

Jaun apezak edsortatzen
Karitate egin dezen.
Berek aldiz pakatu gabe hitz bat eztie ereiten:
Hefiko praubik gosez eta haien urhik erdolatzen.

llhaginak aberasten:
Arimak hain untsa galtzen.
Pezian eta kuntietan zer eztie hek ebasten?
Haiekila behar duke Jinkuak aizina uken.

Kinkilari suin hutsak
Bortaz borta dabiltza.
Haien prenda ordinaria ixkilinb'eta ligeta!
Astin emazter ebatsiak igantian gero joka!

Oian zañak eta guardak
Kuntzentziazko gizunak!
Xakolak bazaitze farzitzen, ihesiren tie postak;
Laguner har-eraziren bardin gaizo sinheskorak!

Sarjanten golde-nabarak
Dirade gizun okerak.
Haien egitekuetarik egiten dira «Amerikak»:
Aisa pergut[6] ¡zanen dira haier behatzen direnak.

Sarjant eta notariak,
Oi! arnés nesesariak!
Haien elhe itun gezufek nahasten gaiza txipiak:
Ezta lagun segufagorik bertan husteko etxiak!

1) alper; *1)* eldu; 3) zurgiña; 4) akatsa; 5^ maixu; 6) galdu.

355. GAZTALONDO'KO NESKATILAK

Bi berseteh huntzera nuzu abiatzen,
Gaztalondo handiko neskatila gazten.
Nahi ote dutienez dirade trufatzen;
Intertan' gaxuak etxetan zahartzen.

Hamar etxekalaba ba-dirade aizo:
Nurk zer estakuru din beti dirade so.
Algargana bil eta efjz-efiz gero:
Ai! Zer denbora hori! Eztait nuiz artiño!

Caztalondo handiko hiru etxekalaba
Abiatu izan dira Maidalena'ra.
Bideti utzulirik juaiten Landa'ra,
Entzunik xalantak* zaitzela jun hará.

Sentorale haiek eguna segreki
Igaran uken die Muntoriese'ki,-
Utzultzian hora Soskori aldeti,
Maídalena'n zirela erakusti gati.

Persuna gaixo horiek etxera ziranin
Uha eta einhez[3] ziren ezin bestin;
Flakaturik zirala plañitzen ziradin,
Ezi bidaje handin izan beitziradin.

Etxekuak afatsen trixtetzera dira,
Beldurturik alabak eri dutiela,
Ezpeiteiere jaten usatu bezala,
Landa'n jan baitukte kusciía sobera.

Neskatila gaztik ohilatu arunt"[1].
Am ek tefixot[6] bat begiratu ondun,
Horiek ez nahi, alegia ez hun!
Landa rik beitie bia pitxer kolkun.

Muntoiesak, ziek naizi'estunatzen:
Barkoxe'n tuzieia emaztik fxerkatzen?
Untsa dakizie eztiela zien,
Ezpazie haboro biñatze lantatzen.

Muntoi'ko motikuak, abisa zitie:
Landa'n emaztiak haita itzatzifc:
Hurak kuntent dira godalerik[6] gabe,
Mesturaz eta broiaz asia badie.

Barkoxek'emazten usatu legia:
Zopak jan tienin, arduz godalia!
Ez Muntoi'n bezala, hur erdi lohia
Bargera-xilutara uhariz bildia!

Barkoxe'n nahi denak gaiaz paseatu,
Zaragoíak behar tu untsa butuatu:
Ezi faxerja izan zaiku heltu
Emaztek diela gizun bat zehatu.

CazUlondo handin, ibar-lur gizena!
Sentó ere beita han hazirik dena,
Hanfcorik hartzera ihur ezin dena,
Beldurez lien heztik eman dizen pena.

Gaztaiondo handiko ahuñe sentua,
Eri luzaz egonik, iruski sendua!
Zure gaitza baliman etzuzun, gaxua,
Arauz gaiherdiko zerena gaxtua!

Gaiherdi alteko zerena umitik
Eritzen umen tu neskatila gaztik,
Eta sendotzeko behar hilabetik:
Hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzik!

Neskatila gaztik, abisa zitie!
Gaiazko zerenari ihes egizie:
Segretian zunbait libraturik ere,
Jakiten direnak haboro dirade.

Kantoren egilia da ezkuntzeko,
Emazte baten nahiz múdela[7] huntako;
Edale, gormanda, auher, «mari-motiko»;
Gaztalondo'n íida niz ediren[8] halako.

I) augatik; *1)* maitale, 3) nekatu; 4) bereala; 5) katiíu; 6) edari bat; 7) era,- 8) aurkitu,

356. ETXAHUN ETA OTXALDE

—Agur, adtxkidea, Jinkoak egun un!
Zer beri den eíadazut; zuk, ocoi, Xuberu'n.
Ezagutzen duzuia Barkoxe'n Etxahun?
Halako koblaririk ez omen da nihun:
Bijitaz juan naite ez balitz hain hufun.

—Jauna, ezagutzen dit Etxahun Barkoxe'n:
Egun oroz nitzozu huíantik ebilten.
Beti gazte ezin egonez ari duzu zahartzen,
Laur-hogei urtik tizu mundian huíantzen:
Bersetez eztuzu hanbat orai okupatzen,

—Jauna, behar dautazu gauza bat onetsi,
Bainan etzautzu behar hargatik ahantzi,-
Huntaz egiten dautzut gomendio aski,
Konprenituren duzu hitz labufez, naski:
Ene parrez erozu milaka goraintzi.

—Zure komisionia nahi dizut egin,
Komenitzen zitadazut hanitz plazerekin.
Heltu nahia zira aren jaun harekin?
Huna Etxahun bera present da zurekin:
Nik ere eztiota zu nur ziren jakin?

—Jakin ere behauzu dudarikan gabe,
Zeren egin datitazun erespettiz gaJde.
Aditu izan duzu nitaz lehen ere,
Nor nizen eraitera ezpeitut herabe:
Lapurdi'n deitzen ñute Jan Batixt Otxalde.

—Bihotzaren erditik egin dizut eri,
Zure ganik entzutez parábola hori.
Damutzen ezpazaio zeluko Jaunari,
Behar dizugu eman zumait berset ben,
Eta ber denboran eskiak algari.

—Amodioz derautzut eskua hedatzen,
Zonbat atsegin dudan ez duzu pentsatzen.
Juje batzuek naute lazki acakatzen,
Ez dúdala ¡kasi bertsuen moldatzen:
Zuk laguntzen ba'nauzu, ez naute lotsatzen.

—Etxahun Ziberua'n, Otxalde Lapurdi'n,
Buruzagi dirade kantoren egitin.
Ezkutuzu gu beldur nur nahi jin dadin,
Eranen diezugu orotan Uskal-Herin,
Jokaturen dugula her plazer zaienin.

—Jauna, ez gitian sar sobera urguluan,
Etsaminatu gabe nork gure buruan,
Irakurtu izan dut lehen liburuan
Jaunen jaunak direla gertatzen munduan,
Erbia lo dagola uste ez den lekuan.

—Lehen zaharetarik nik entzun dit hori,
Nurbnit beti ba-dela besten buruzagi,

Nahi balin badira gure kuntre jari,
Uneski kantatzeko zumatt berset ben,
Lotsa gabe gutuzu ororen zerbutxari.

357. MARIA SOLT ETA KASTERO

Maria Solt eta Kastero,
Bi amoros zahar bero.
Hirur-hogei-hamarna urtetan hartu die amorio.
Kastero jelostu gero, Maria Solt ezari kanpo.

Maria Soka dua nigarez,
Izora dela beldurez.
8arnet5-3ordako anderiak kontsolatu du elez:
Emazte zaharjk okupu agitzen eztela ez.

Maria Solt'ek afapostu:
— «Santa Elisabet ba-duzu:
Saintu zahar bateganik okupu agitu duzu:
Kastero ere bada saintu, hala nizan beldur nuzu».

— «Kastero eztuzu saintu;
Sobera burhauti duzu:
Elizalat juan eta taharnan egoiten duzu:
Kastero dena garik saintu, Maria Solt, antzu zira zu»

558. SARANTZE'KO SENTORALAK

Hasten nuzu kuntatzen
egiaz bai mintzatzen,
nahi dinak sinetsiren.
Bt sentoralek[1] nundien estunatzen,
debozione txipi bat, en'ustez, beitziren:
ezpenintzan trunpatzen.

Kanderaíu egun'm,
ekien[2] jeiki puntrn,
bidin jari ginandin.
Ondoz-ondo ¡garan Eskiula'ko hegin
lehenek eguruki[3] Ihasik'oianin,
hala hitzak beikuntin,

Aitzina gira juiten,
Dona-Marín egotten,
orazione efaiten...
Arain bat han edera ezin-lieltin jaten,
indarak hartu ordun gírela juanen,
Sarancze'n mez'entzunen.

Eguerditan Sarantze'n.
Hará einherik'[1] heltzen,
kujnentiala sartzen.
Hanti berean elkitzen[5], meza eranik zen.
Bazkal-ondun gumita otoitzik efanen,
debozionik eginen...

Arain behari zabala,
hunki jin hízala
gure mahain'iala!
Ikustiak emaiten deitadan plazera!
Esparantxarekjla janeko haidala,
ene lagunekiia...!

1) eromes; 2) eguzki; 3) itxnron; *i)* auldu,- 5) urten.

359. Bl AHIZPAK

— Katalina, entzun diñat egia segurki,
Maitia deitañala hik nahi ideki.
Segretrilc behar dutun bai utzi hareki,
Nahi ezpalinbatun olbuak eraiki.

— Maider, enun ebilten ez ihuren ondun,
Ez eta huna jiler nahi ihesi jun.
Ust'uken balinbadun hirik diel'en'ondun,
Eztítzañal'utzi eb/Itera kanpun!

— Ai! ahizpa falsía! ai! hi lotsagarri
Ene zopa hunen jaten beti izan hiz ari!
Sortu nintzan axuri, izateko ardi;
Bena beldur nun egin hizaia ahari!

360. IDAROKI OLHA

Idaroki olha[1] Ziberua'n da;
artzain baliusik liara beitua.
Han gertatu izai) da Etxahun gaizua:
laguner diezu huntu bi kobla,
uduriturik ezi merexj ziela.

Kartkiri-borda edo Zankartile,
ai! zer laguna hura, atzin[2] lo egile!
Bezpera gaiei dua olh'aizulat ere;
bihamenin jiten, nahasterik gabe,
ardien berhezcera beitu herabe.

Etxahun'ek dio Carai'ri:
«Ardien berheztera abil ordin hi!»
Harek eztutiia ezugutzen berik kasi!
Nibau jun nuzu eta berhezerazi:
ojhaizokuer kobla horiek sari!

Karikiribordak zei" zian egiten,
ardik zeitzenin bestek berheztenl[1]
Jun eta salduan zietzun sartzen,
berak aldiz olhalat laster egiten:
harén lagun zena ordian laket zen.

Artzain egon zenian herabereki,
arankara jun zuzun zakiareki,-
aran soben» janik, tripa ilorterazi[3];
ardier etzeitekin aisa jeraiki:
gai hartan hirur-hogei zutien ments[1] utzi.

Etxahun gaizua, hik aztura^ beti
bortian heltzekua lagun huneki!
Bazia hamar urte edo hamabi
ehintzala bortian i"¿an orai baizi,
bena builta baten haie aserazi.

Adió, Lexauri eta Idaroki!
Enaizi ekusiko haboro jagoiti.
Aspaldín berhezirik emaztiareki,
orai egin nahi nuk, bortia, hireki!
Otsuk janen deitzak ardik, ene gatu

1) txabola,- 2) artzaia-ogca; 3) ustu; *4)* palta,- 5) oitura.

561. AHARGO ETA KANBILU

Ahargo eta Kanbitu,
Ardura da hetan lanhu.
Aspaldian ebiti hiza dendariaren ondunl[1]
Gantza loditzen hasi ziok, gaxua, sabel-ondun.

Barkoxe Burguburia;
Aizuan Laragoria.
Anioros batek salatu dizu kulunkaz bere buria:
Zeren etzen leihoti jauzten, gaizo asto handia!

Ebili niz Oloraen,
OIKo erosten manduen.
Hulantxiago merkexiago: olliua franko Barkoxen.
Olho franko Barkoxen, hi bezalako astuen.

562. URZAPAL BAT

Urz'apal bat ba-dugu berian trixterik,
Nigarez ari duzu kaloian barnetik,
Bere lagun matiaz beit'izan utzirik:
Kuntsoia ezazie, ziek, adixkidik.

Oi! ene izatia dolorez beterik!
Mundian ez ahal da ni bezain trixterik,
Ni bezala maitiak tradicu dianik.
Abil, amodiua, huíun ene ganik!

—Traditu zutudala deitazut eraiten,-
Bata eta bestia, gu biak bat ginen,
Ene bihotza zaizu bizikoz egonen:
Behar zutut utzi lotsaz etxekuen.

—Oi, ene traidora, zer duzu jaukitzen?
Ele faltsu efaitez etzíreia asetzen?
Ene flaku izanez zira prebalitzen:
Hortarik ageri'zu nunko seme ziren.

—Maitia, nahi zutut segreki mintzatu,
Afazuez nitzaizu behar elestatu;
Nik bihotz oroz zutut osoki maitatu:
Utzi behar beitzutut, hiltzera nuazu!

—Tunba bat nahi dit lurpian ezari,
Ene korpitz trixtia gorde mundiari,
Ene ixter-begiek egin dezen eri:
Haieki zirate, zu ere, hain sari.

365. MUNDIAN MALERUSIK

Mundian inalerusik hanitx ba-girade,
Bena ni bezain denik ezta ihur ere.
Ni lia uren funtsecan[1] nahiz izan jabe,
Hamar urteren gaierak enetzat dirade.

Desertuko ihiziak[2], jenten beldurez,
Abisatzen dirade egoitera gordez.
Nj ere, liurak bezala, gaxua nigarez,
Ene bizi crixtia kuntserbi beliafez.

Hogei eta bi urtik bete egun iii,
Emazte bat artu nin ene zorigaitziri;
Efaiten ahal beitut zereki zeitan jin,
Ene urlea bulufa gorderik altzopiív

Ezagutu nianin zer nian erosi,
Nahi uken nian bortxaz kunbertirazi.
Harén jabe handik liaren aite jafi
Eca ni, ogen gabia, gaztelin ezari.

Emaztia hartu nin aitaren gustukú;
Nihauren kuntre jaiki zeitadaneko,
Desunionian jan familia oro:
Gaizak untsa partitu eta gaztelilat gero.

Hamar urte huntan bizi niz esklabo;
Erdia presu eta bestia sordeisago.
Jeloskeria batetarik hatsaria oro,
Nahi gabez izar» osoki sorhaio[3].

Ene lehen aizua, bahin bai hiria,
Utzirik enetzat ene emazte flakia!
Bestek eraman dik hile behar kolpia,
Bena kupera diok orano hartzia!

Ene lagun gaxua bai eta flakia,
Zerk ote dereizu nahasi zentzia?

Galerazi gutuzu ni eta etxia,
Desterin ezari familia guzia.

Kuntatzen ahal dit nun o a 11 i kunpañan:
Zuk eman duzun eskandalian,
Galerazi tuzu bi gizun galant
Eta tunatu hirur (eñu xannant.

Kamar urtez deitazut eman buruko min,
Bai eta bost urte ¡gan-erazi gaztelin,
Lagunguarik gabe, nahiz han hil nendin:
Holako emazte bat nurk sofri saietsin?

—Hamar urtez eztuzu ni gatik sofritu:
Ene osaba jauna kausa izan duzu,
Nitan gertatu dena ezpalitz agitu,
Behar izan zunukin gaztelin peritu.

—Emazten dohaña! Hurak beti birjina,
Agertzen ezpazaie írutu ereña!
Ni ere, —ekusirik harén ekospena—,
Trixtia! izan nintzan, oi! baten hartzera!

Musde Haritxabalet jaun eretora,
Etzunin edukiten ogendant zure loba.
Orai sogin-izozu: hor duzu proba,
Makaleren sarjant zerbutxatu zirela.

Bostetan deitazut penitentzia eragin,
Etsaiak ene etxen, ni aldiz gaztelin.
Hurak deus nuünen jaten, lotzen ene ohin,
Ene desuhuatzen, trankílitatin!

Ene aita fidela, aurhidik hareki:
Aberastu zidie ene malureti!
Prosesari eman, defautak eraiki:
Gisa horez eni etxaltia ideki![4]

Jujen aitzinian ere izan nuzu:
Hamasei jakiletan zortzi ziren faltsu.
Haier izan beitira jujiak behatu,
Eta halaz naie ni sekulakoz galdu,

Zu ere, Justizia, injusto zirade:
Ogendant zaitzu txipik, handik ogen gabe,-
Zure jujamentik halaxe dirade:
Dihariarentako kuntzentzía saltzale!

Egizie, gaztik, ene zorciri so:
Gei dinak ezkuntu, ez jar esklabo!
Emaztia ez bar enia bezalako:
Apezt zite lehen, edo jun soldado.

Hanitx mintzatu niz ene etsaien kuntre,
Nahiz eztudan eran gezufik hal'ere.
Duda gabe estakurik ba-ditit nik ere,
Ezpeitu Jinkuk egin gaberik batere.

Adió, ene haufak, gaxo ogen gabik,
Aitak eta amak esklabo ezarik[5]:
Eztitzatzie jefaik aicamen edsenplik,
Bena zuhaien buruz ahalaz Jesus-Krixt.

Barkoxe'ko lurian ez txerka Etxahun,
Harén hatzaman nahiz dabiltzanak ondun,-
Bere kantoren egiten ari da Igelun,
Halako olalterik ezpeita Ziberu'n!

!) etxe-lurak; 2) piztiak; 3) min gabe; 4) ostu; *5)* czamk.

364. AHAIDE DELEZIUS HUNTAN

Ahaide delezius huntan bi berset gei tit kantatu,
Ene bizitze mulde gaitza mund'orori deklaratu:
lhuri sos bat ebatsi gabe, ez eskandalik txerkatu,
Hamar urteren galeretan nahi uken naie sartu.

Ebili nuzu kaíiketan, ene bidaje handitan,
Amorioz nindaguelarik xarmagarien huñetan,
Ixter-begiak zaudelarik eia nun sarturen nintzan;
Bena halen ororen gatik, ni maittaren (ekian.

Zelietako Jinko Jauna, zutzaz nuzu estonatzen,
Zerentako hain desbardin gutuzun heben egiten,
Batak indafik gabe, besteak zentzu gabe, beti praube agitzen,
Mundu huntarik bestila baiko, han gira denak bardintzen.

Mundian ba-girade hanitx malerus girenik,
Bena ihur ere ez etxekuak nik bezain krudeí ukenik.
Areta[1] amak bost etxetako prhnu nintzan sorturik,
Munduz-mundu igorten naie, deus nutinak idekirik[2].

Jinkuak maradika beza Gaztalondo Topetin,

Bai eta neskatila praubetan amorio ezartia!
Nik batetan ezari dudalakoz, izan niz desprimutia,
Egüzaitak egin zereitan ordeñiaren haustia.

Hazi bear nin puntín lanin nintzan hasi,
Desprimut nentzan lotsaz, nahiz aita trenderazi;
Osagaria, hari kausitu nahiz, benin gal erazi:
Bizipjdia gal beldurez, hura nian irabazi!

Eni aitak destinatia uken nian esposatu,
Efanik nahi zeitadala primajia erendacu.
Ene maite fidel ezagutia hore-gati kitatu,
Eta beste maiterik zin bat ene pena-gei hartu.

Bi hilabetez egon niz presu, ene emaztia gati,
Hura xaíantareki etxen; ni hain nintzan jelosi!
Ber denboran anaiak defautez prosesa jujerazi,
Ene hunaren gozatu nahiz, ni kundena-erazi.

Ene anaie maltzufa, aski hitzaiket mendeki,
Eta lehen utzitia orotan fraudaz ideki.
Orai korpitzeko xangriak behar nik eihar-erazi:
Presutegin hi I behar diat edo amuinan[3] hasi.

Ene seme nik pritnutia, egin deitak traditzia,
Anaik zeitadanin utzi-erazi Frantzia.
Adixkidez nahiz libra-eraz nentzan, egin nihauren bilaiztja,
Eta hik, ben ixilik, egin kundena-eraztia.

Musde Dufis, jaun.Presidenta, eta Musde Andurein jauna,
Galdurik niz enialakoz semireki nin deseña,-
Zien letera eraman ba'leJtade Pau'eko jaun-jujen gana,
Libraturen zien bere aita, bizia zor zieiona.

Pau'eko jaun jujek balie hire finazia jakintu,
Frauderiaz hila ene lekia bilatu:
Enundia ez kuodena-eraziren, bena aita hik traditu,
Eta ni kundena-erazi naik, nahiz ene huna gozatu.

Oi! Justizia injustua, igon naizu heíiti,
Ebatsi deitan etxaitin den anaiaren ihesi!
Ene semik ez nahi hazi, hari nik eman huneti:
Behar dut bil presutegin, edo bizi amuinati.

Bi urte igaran tiat España'n pelegri gisa,
Hire ganik deus ezin ukenez, bizien bila.

Orai jin nitzaik sokori galtoz, helturik ezin-bestila:
Ene etxerik bik igon, eranik han deus enila.

Bi [illabetez egon nuk, lotsaz sabaietan ikara,
Ezpenundia hik utzi nahi ene sukaltila sartzera,
Ez hik, ez hire emaztik ene ohin lotzera:
Justugo zia lo zedin hire kuñata, izofa!

Adió eraiten deizut ene pena-gei harria,
Bena orai, zutudano, zu ene kontsolu guzia!
Atora bat eman deitazu, destrenpien[4] erekeitia[0],
Ikara zinadelarik ereñak eraiki, crixtia!

Zortzi urteren eraiten deizut bihocz-minez adió;
Haboro[G] bizitzen ezpaniz, Josafat'era artio.
(n-kas eta bizitzen ba'girade biak mundin orano,
Algafeki ¡zanen gira Jinlnik berhez artiño.

Ene etxalte zabalin ezari ninak zureki,
Sar enendin, gai oroz, bortak diztatzu esteki[7],
Ezpetzeion penarik, haurak utzirik zureki,
Amuinan ene igortik, bi acora xilo-eki.

Semiari neionian egin poteren uztia,
Beste haufer nirezun egin borten zefatzia,
Eta zu ezari neskato etxen, malerus Crixtia:
Aita eta ama, sogizie zer den haufen bilaiztia!

Adío eraiten deiziet, ene haur doteiik gabik,
Ene suberte malerusak, trixtik, hola ezarik;
Har itzatzie, ene gisa, pazentziareki kurutxik;
Zien salbamentia hetzaz cxerka, imita Jesus-Krixt.

Adió eraiten deveiñat, ene alaba bakotxa:
Etxen eduk-ezan usatu diñan kunduta,
Kuñat kuñater eman beria, haufer jinkuen kreinta,
Senafaren hun izan eta zahafak efespeta.

Etxahun, nausi famatia, galdu duk libertaria;
Eta orai duk trixcezia, hareki ezin-bestia.
Hire ixter-begiek aísa goihera die efia:
Amuinan behar duk ebüi, edo harru pelegri bidia.

Izan nuzu Jondane Jakan, Efuinan eta Loretan,
Beci, jente humen medioz, brz'izan niz bidajitan.
Orai ere abiatzen baniz leheneko ber gisaran,
Jinko Jauna, iagunt nezazu ene behar-ordietan.

Zelietako Jinko Jauna, zuri gomendatzen nuzu,
Ezi beste lagunguak akabi ziztadatzu.
Libértate huna eta uburiak galdurik agitzen nuzu,
Korpitzaren gal lotsaz, munduz-mundu ba-nuazu.

Kantore horik huntu dutut Uñufitz'eko bortian,
Eruma'rac abiun nintzalarik, hoiek ezari heñían.
Hil ba'nendi ere nolako bidaje luzian,
Ziberua'n kanta ditzatzien, ene oritmentxian.

I) naita; *1)* kendu; 3) eskean; 4) amore txora; 5) janaritu; 6) geiago; 7) itxi.

565. Bl BERSET DOLORUS1K

Bi berset dolorusik nahi tizut kantatu,
Plazer duzielarik, jente hunak, behatu.
Berogei ra lau urtez naie persegitu,
Nun etzeitadanjn íamilia jelostu.
Oroz arnegaturik nahi nuzu abiatu.

Ene persegitzien hatsaria[1] zer zen,
Egia den bezala deiziet eranen:
Aita batek zian ogen hau bere haufaren,
Harenegiterik gabe amak nundila sortu uken,
Ezpenínczeon aski jiten zeiztan primajen.

Ni, gazte denboran, ez lagunak bezala:
Hurak libertitzen, ni nigarez ardura.
Entzun ninin eguzaitak aita bildu zeitala
Bere hiru etxakez ene desprimutzera,
Jari nintzan huían fi-gaxto egitera.

Hartu nin emaztia aitak haitatia,
Ustez egiten nin hareki bakia;
Bena egin beitzin harén alte jartia,
Eginerazi nin funtseo partajia,
Presu jan-erazteko amak utzi partía.

Ni Ajen'an libratu, etsaien artin sartu:
Hunak galdurik, liaufak dohakabe baratu:
Eni hen ekustik odola a I te ra tu;
Egitate trixte bat kartarik heltu:
Justiziak harzara[9] ni presu afa-hartu.

Hamasei jakiletan zortzi faltsu ba-nutin,
Her behatu ba'lira, galtzia segur uin.
Zeluko Jaunari hitz neion egin,
Jaun haien eskuti libre ezarten ba'nundin,
Ebilien nintzala Jinkuaren bidin.

Etsaier parkatzen dut, eni ogen egiler,
Hala-nufa Jesus'ek egin zian berer.
Bena eztut parkaturen ene hunak dutiener,
Ezpatie erendatzen ene haur dohakaber;
Berset hofez mintzo niz kuñat eta aurhider[3].

Bi urtez Ajen'an libre nintzala ustez,-
Bena aita ez orano ase mendekatzez:
Jaun haiek uken zien otoritatez
Presu begiratzeko, librantxarik gabez,
Eta ere eduki hamar hilabetez.

Ene lehen aizua, eskandal gaxtua,
Huruntu zaikek orai ene epantxugua'*:
Utzi ezak ingoiti ene emazte gaxua:
Ba-dik hire ganik aski doha-gaxtua:
Eztizoiala galeraz, senara ta Jinkua.

Abel'en denborati beti da jaraiki,
Jinkxtk haitatik oro kurutxiareki:
Oro hartzen tizut boztarioeki,
Mundien huín-petan nagolarik umilki:
Haur maitik, hitz horez orit zitie beti.

Musde Alkat Barkoxe, zutan dit sineste,
Zuri egiten deizut ene poterez trite[5],
Ene haur dote gaber aita jar zakitze,
Heen tritez balia ene etsaien kuntre:
Zure karjtatia Jinkuk ohart duke.

Espíritu Saintia, dohakaben sustengia,
Zuri egiten deizut hauren gomcudia;
Ezpetzaie faltatuko hersiki ¡zatia,
Erakuts izezu sainíuki bizitzia,
Beste mundin dezen goza alagrantzia.

Hunik eztit nahi, ez eta uhurcrik,
Mundu huntan gozatu, Jinkua bera baizik,
Adió huntazunak bai eta uhurik,

Askazi[a], adixkide, haurak eta bestik,
Oro uzten zutiet, jeraikitzeko Jesus-Krixtr.

Alaba, etxekan[7] usatu kunduta,
Kuñater beria eman, haurer Jinkueu kreinta,
Senararen hun izan, zaharak erespeta,-
Plegadi gaztett nahi-gabe orota,
Gazkiti begira, Jinkua so beita.

Barkoxtarak, adió, zaharak eta gaztiak,
Jente praubiari urikaltzen zidienak;
Zien gomendian uzten tut gaxo haurak,
Lagunguarik gabe diren malerusak.
Jinkuk orit tuke ziek egin hunkiak.

Ene seme-alabak, haur gaxuk, adió!
Josafat'eko sohun afa-ekus artio!
Ukena gati bizin apur bat eskernio,
Edukazie jinkuai beti amodio,
Sendoturen deitzie zien zaunk oro.

I) jotoria; 2) bariz; 3) anai-orde; 4) erago-zpena; 5) titulu; 6) seuidarceko; 7) gorde.

BELTZUNTZE BIKONTEA

I796-V1M-28. Frantzi'ko Karlos X'garen a re o erege zaintzako nagusi; Meharín'en eukan gazteluan, Beira'ko erege-alabari ostatua emon eutsona. *Hisloire primitiva des Euskariens basques,* A. Chabo'k asia, berak jaraitu eban. Olerkari me-eztja dagerku kanta onetan

566. GABAZKO KANTUA

Ene izar maitia,
ene xarmagafia,
ixilik zur'ikustera
jjten nitzauzu leihora;
koblatzen dudalarik
zaude lokanurik:
Eauazk'ametsa bezala[b]
ene kantua zauzula!

Zuk ez nuzu ezagutzen,
hori ere zauc gaitzitzen;
ez duzu ene beharik,
ez eta aiolarik.
Hil eta bizi nadin
zuretako bardin!
Zu aldiz, maite Maria,
zu zare ene bizia!

Amodiozko pena zer zen
oraino ez nakien!
Orai ez nuzu biziko
baizik zu maitatzeko.
Norat den ixurkia'
harat ituria:
orobat ni, maitena,
jiten niz zugana!

Gaua dago garbirik,
zerua eztjrik:
han ba-dira bi izar
urhe eta zilar,
baraiatzen[2] dutenak
elgaren lagunak:
ez dirade berexten,"
sekulan kitatzen.

I) vertiente; *1)* disipar.

J. B. ARTXU

Zuberoar au, Réole'ko lenikaskintzako begirale izaos dogu ainbat urtean Ez ebao aurki gauza aundirik berenez egin euskal-saiíeati; alan be, naiko itzulpen daukaguz berak egiñak, bai pantzer.-uik euskerara, bai euskeratik pantzerara. Olako lauik aipagníiena: *Lafoniolnaren Alegia bereziak, neurt-hitzez fran-fzese/ik uskarara itzuliak* (La Réole, 18-ị8). Bere asmoa txalogarj dala be, arotz ipuiñok bere erara josi ta eusko-gogoz abeíastu ta edercason-txinpartez apaintzean, eizan goi-goiko mailaraño igon, [tz-joskcra baldana, irudipexi eratsia.

567. AXERIA ETA AKERA

Axeria bidian zoen
bere adixkide akefareki;
bonen adaíak gora ziren ederki,
bena etzien ikusten
sudura beno urunaeo;
bestià lalťsukerîrako
¡garan zen nausia.
Biek zuten egafia;
puzu baten barna erairsi ziren,
era urez asia edan zuten.

Axeriak akerari dero eraiten:
-«Hemen orai zer dugu eginen?
Edatia eztuk aski,
hemendik behardiaeu ¡alki.
Aĺtxa itzak
niŕe zanko aitzinekoak
eta adaíak;
harisiarí
huiíant adi:
bire bizkararen gaineti
rgaranen nuk adaretara,
eta hanti
aisa joanen nuk gora,-
zilo hontarik gero
hi bait idokiko».

Akerak derio: —«Ene íedia!
hire izpiritua
¿^ handia
hi beza|ako jemiak
nïtaz dutuk laidahak;
egundano mk en.a jakinen
hemendik nola gmen jalkiren».
Axf,·ja|kitzen da pu2utik/
bere laguna han utzirik.
Gaiñera beltu denian,
eraiten derio; —«Ago pazentzian:
bidafian bizar dian bezain zentzu
izan balin banu,
puzu hortarat ėnìntzan eraitstren
eta hor ere orai ge^ituren.
Adió! ni hortik kanpoan nuk¡
jaiki adi hi ere, ahal baduk.
Badiat zonbait egoiteko,
eztjat denborarik>.

Urlientziari so'gitia da hobenik,
gauza guzietan,
xipieneían, handienetan,

568. BEL1A ETA. AXERIA

Zuhain baten kukulan jaririk,
Bele jauna zagon gazna bat moskonn.
Axeri jauna usainaz deiturik,
gelditu zen zuhainaren ondoan,
Hitz oiek diotzu liegaltariari:
— «Egun hon, agur, gure jaun Reliari!
Zoin polit, zoin eder den!!
Egiazki, zure botzak zaiaren
balin badu iduria,
bortutan diren ihizi ederenen
zu zira eregia».

Beliak, hitz oietzaz hanturik,
bere botz edera erakutsi nahi du,
mosko dandi bat zabalturik,
gazna Jurerat uzten du.
Axeriak, gazna aczamanik,
Beliari eran zuen ordian:
— «Jakin zak, jauna, lausengaria,
hari beha denaren kostuz mundian,
beti-danik izan dela jankidia.
Ene leztoneak, arauz, balio dik
gazna bat seguiki».

Beliak/ beranzki,
bere tontokeriaz ahalketurik,
zin egin umen zuen
geiago etzutela atzainanen

GOIETXE, APEZA

Laburditar elizgizon onek be eskiñi euskuzan zenbait jpnin-gai. Baekian antza, cuskal-eria guztiz ipiíin-zalea da'a, ta euskerari ernai eusteko alegi erikoiak bear dirala, efez ca goto idatziak. Asmo edera, ta ortan saiatu zan; alan be, bizkor ta bizi erabiíi bear dan iptúnlariak bere luma, in jolaska, bare-antzean; au ez eingo, bariz, edozeñen mende. Or idazle onen akats bar. *Fobleak edo alegiak Lafontanetarik berexiz hariuak. eta Goyhelxe apezak* (Yünizesetik cskoara-ra bertsutan itzulirik (Baiona, 1855).

569. ASTOA 1H1ZIAN

Eiaran zagon astoa, lun-laruz jantzirik,
kaskoz baizen aroskoa, goan zen bein iluzira,
bere lagunak utzirik, buruaren arintzera.

Bai-zabilan aroputza,
aras iduri leoina!
Ikusten zuten orduko
lun ain kaizu edereko
(aur atzetako abreak,
izu-ikara aundiz beteak,
iges zoazin guziak.

Ongi zoakon oldea,
jostatzen zen nahi bezala;
baina eiara-mutila
ilkia zen aren bila,
berekin bere makila.
Ikusten duen unetik
ezagutzen *ch*\ urunetik,
beari-muturetarik.

Aisa gorde ezin zicuen
luzekoak bai-ziraden¿
eta makil-ukaldika
darama aurean, laurenka,
eiara aldera atsangaka.
Antuak oro zeuden
gizon ura nola ari zen
eiara luna biiatzen.

Orla andre batzuek ere
¡bizira ilkitzen dire
bertzen jantziak soiñean
iduri ederean,
ez dutela behar deusik
bafeneko lotsa baizik.

Baina ariesten ez dute,
laster ezagun baitire:
astoak bt bearitik,
ek bertze zerbaitetarik¿
eta ilki ziraden bezela,
beronen naiak bertzela,
doaz oin bere etxetara
zarpil utzien artzera.

570. PEGAR ESNEA

Aneta zoan haterik
biri auzokora goizik;
pegar bat esne buruan,
burute eder bat estrainan.
Ba-zaraman hark hargatik,
buruan afaniaturik,
pegar esneaz bertzerik.

Husu eta arin zoala alegera bidean,
bere baitan huna bada hark nolatsu zerasan:
«Nere esnea saldu eta harek eman diratik
afoitze dozena zenbait erosiko ditut nrk:
xitotarik, axeriak nalii edo ez nahi,
urdefo bat erosteko geldituko zait aski:
ene urdea yataroa, janikan ainitz bihi,
artatuz ongi, zait niri eginen urde handi:
hau saltzearekin, aldiz, enbrazu handi gabe,

um ed un behi baten naiz betan eginen jabe:
horla dotea bildurik, falta egin ez dezake,
ezkontza on baten bidez naiz eginen etxeko andre>.

Bainan hementxet Añera
gertuz behafz topatzen cla,
era doako pegara
bizkaia gaindi lurera.
Adió xito eta urdeak,
adió dote eta ezkontzak,
eta fortunako ametsak.
Nere neska gelditzen da
lehen zen bezala Aneta.

Fable hunelc irakaspen ainixko ba-ditii2ke,
zuk bar ezazu gogoan ongi bedere hauxe;
Geroaren gobernua otz ozu bertze bati,
aitzitik hotz emozu zuk oraikoari beti.
Gogoetan dabilana maiz da behatz topatzen,
izarer beha zoana, zilorat erori zen:
gaztelu egiten hari Espaíñia'n ba'zare,
Fiantzia'n ez daigikezu ez borda (zar bat ere.

M. HEPGAPA1E

Be-napartar nlegilana. Ez eban, dakigunez, asko idatzi, ta gañera ez dira berak barnetjk sortmk. atzeriko alegi-zaleak erabilitako gaiak euskeraz jantzita baño. Ta an ¡a geienak, naita goi-maUko izan, egiña dogu; berenez gitxi sortzaile. Esopo'k sorkaldcko orí ¡piiiñetaük ar ebazan bere olerki-gaiak, Pedro'k, Esopo' ren geienak; flartzeobuscb, Campoamor, Samaniego ra (riarte'k Espaiña'n, La Fnntaiiie'k Prantzia'n, Roberti, Bertola ta Piggootti'k hali'n, Lessing eta Gellerc' ek Alemani'n eta Cny'k Inglaters'n, beste ainbeste egin eben. Alegi-gaíetao efva dogu, ba, asmatzale azkar; ta gurea batez be.

57). BELEA ETA AXERIA

Jasan-ahalikako
zitzt bat mokoan
Belea zagon behin
hattz baten kaskoan.
Axeria, ihizin,
han gaindi ba zolian.
Belea ikusirik,
trikatzen zaio han.

—«Agin, Musde Belea,-
zoin eder zaren zu!
Zure luma pulitaz
líluratzen nauzu.
Kantua luma bezein
eder ahal duzu,
Ai! entzun nahi nike:
otoi, kanta zazu».

Koak-koak, arai basten da
Belea kantatzen,
mokoa duelarik
zehebat largatzen.
Haragi puska zaio
luferat erortzen.
Axeriak ez zuen
bertzerik asmatzen.

Bazka hatzeman eta
dio Beleari:
— «Ez gaitela, to, fida
lausengariari,
ez zerbeit garelako
gure ustean.
Xitxi hau zor derautak
httz on hoíen sari».

EkOBlN APEZA

Euskeraren mnitale gartsua dagerkigu noznai. Paper ta liburu austuetatik, amaika aldaki eder egin eban, euskal-bitxi baztertu areik osoan galdu ez zeitezan. Ba-ditu bertso jagiak bc, orduko bari zalekeriaren a ur ko koak geien bat. 1802'ko urilaren Q6'ao, Cetari'n komentu barí bal jaso ebenean, gai aretzaz egiñak, esaterako, gu-ztiz zorotz eta irikoiak dira.

372. ZER EGIN ZARE?

Zer egin zare, koplari zahafa,
Gure anjeren[1] xaxari[2] zuhura,
Zure antzearen
Eta doñuaren
Emen gaude eske,-
Behar handi ginduke,-
Hel bada, aren,

Donibane'ko panpina beriak
Zu entzun nahiz daude egafiak;
Zubi-burukoak,
Gure ximinoak,
Ez dauzka gutiago
Zure aditzeko
irits.handiak.

«Herdoildu* zak —diozu— antzea,
Ahantzi nuen kopla moldatzea,
Harén xerdentzeko
Eta zofotzteko
Ez da ez bergararik,
Ez gaiña petitik,
Aski jakiñik».

Egun bakotxak dautzu ornituko
Efan-gai franko bertsu moldatzeko.
Perma zaite, beraz,-
Ez egon ikaraz;
Ordean zure lana,
Hartzen duzun pena
Zazu paga-araz.

Hora katixak non duen ahantzi,
Bere funtatxak bazteíerat utzi;
Mutil bat bezala,
Mandazain bat nola,
Buru muritz dabila,
Ahanzten duela
Neskatxa dela.

Mairu-herian, ez da ez ikusten,
Guk mende huntan duguna miresten;
Olan emakumea,
Zahar bai gaztea,
Estalirik dabila,
Beldur handi dela
Jainko (altsoen,

Helaz! nork du ífernuak baizen
Aitzin degien asmatu hanpatzen?
Ñongo portaleta,
Ñongo efetaublek
Hanbat dute eskandala
Ematen bai nola
Oraiko andrea

Esku batean zakuEo bat dute
Zeina, ridiku!, deitzen baitute;
Eran komuna da
Gure zahareña
Jabea hifigafi,
Tresnek han iduri
Eran komuna.

Gure Zezili, oi zer ikuskari!
Beso guzia dabila ageri,
Hezur puska batzu
Beltz eta zhnurtu,

Jitano bat diduri;
Hain da nardagaíi
Gure Zezili!

Orai zer ote da eskaz bertzerik,
Gaitza pare bat manatzea baizik?
Emanteki antza
Neskatxaren tratza,
Osoki ahantzteko
Eta bofatzeko
Jende artetik?

Tenplu sainduan aingeruen baltsan
Ikusiko da aparailu hortan,
Jainkoaz, munduaz;
Luraz, ifernuaz,
Guziez da burlatzen,
Kopeta du ezen
Gora altxatzen.

Jende xeheak ezin aldarerik
Lezake ikus andre hunen gatik;
Burua du arin,
Tinpola baten berdin.
Ezkila dorekotzat,
Haize seinaletzat,
Non hulakorik?

1) muñeca; 2) chazador; 3) roñarse.

AGUSTIN ETXEBEÜI

Saratara. Zapatagin ta olerkari batera. Neurtitz bikaiñak egin zituan,- baita Sariak irabazi be: Sara'n (1869), Bera'n (1880), *Desertufa* deritxon olerkia bigaren garai-saria eroana, Donosti'n (1886 ta 1888). Hugo Schuchardt euskaltzale aundiak, berau artu eban maixu, euskeraz ikasi gura izan ebanean. Ikusi *Zur Kenntnis des Basklschen von Sara* (Labourd), von Hugo Schuchardt in Graz (Berlín, 1922).

573. TXORJEN BESTA

Bein, orai duela ¡a ainitz denbora,
Uso jaun-andrei eldu zaiote gogora:

Guan baino leenago egoko partera,
Bear dutela eman beste bat *eder¿¡*
Adiskide guziak bildurik batera.

Gonbídatze» dituzte bilkura ortako:
Belatxa, afanoa, jaun amia-moko,
Zigoina, bas-antzara eta beste asko¡
Eta gero egun artan utsik egiteko
Non ez den zoriga'ttza eri izateko.

Andre usoak ez du deusik gupidesten,
Ase baten ari da ona preparatzen:
8ii, aza, aragi, aíain-puska biltzen.
Ango usain goxoan ila piztuko zen!
Bainan murde Belea gonbidatu etzen.

Egunto artan, ara airetan Belea,
Mokoan darokala ari bat andia!
Orantxet jan eta jan ari duk xoria:
Biltzafaren erdira idukiz begia
Uzten du erortzera mokotik ana.

Kaskü aria lurean zenean puskatu,
Batek: maingutu dela, bertzea okertu,-
«Biziaren lanyeran nork nai dik bazkaldu?»
Eta usoen kontra egiñez ernegu,
Bestalierak ziren laster égaldatu.

Okiía"eta¡fika usoen onetan,
Bertze exonerara dire gatekotan,
Ez ditezentzat geldi asare fuius-ortan.
Bainan ez zirelakotz berak gonbit bestan
Zioten: «Ez gaiten sar bertzen aferetan».

Adiskiden bilkura duenak biíatzen,
Obeago da asiz denak gonbidatzen,-
Ez ibil bat ar eta bertzearen uzten,
Zeren askotan etsai zare bilakatzen;
Gero ari-kolpentzat aíískuan jartzen,

374, MARIA ALEGIAZKOA

Afatsa zen. Negu asi berian
Maria xoil, kiloa geíian,
Antxe ari, bere gelan írutert,
Boz batek du kanpotik kantatzen:

«O Maria! ene maite bakafa!
Ager zaite apur bat leiora,
Zeru-zolan usu dire ¡zarak;
Aizeari gan zaizko ingarak»,

«Aitz-adafen erasiaz bezenbat
Zure kantaz axola darokat;
Ezen noa, utzirikan leiora,
Itsas-zolan afain bixirtzera».

«O Maria! zu ba-zaitut ikusten,
Itsasoko afain bilakatzen,
Afantzale, ba-noa ur anditan;
Zu bizirik artzera saretan».

«Afantzale, zuk gaixo mariñela
Botatzean sareak urera,
Ni xoria egaztin arin, airez,
Lafez-lafe gan niro egalez».

«O Maria! zu ernerik begia,
lar ba-zinte airezko xoria!
Iztari nindake biurtuko,-
Kaiolara zu artez bilduko»,

«Martutx-xori eper, kaia denboran,
Zu segadan edatzen astean,
Ni, lorea naiz sortu ren bet-betan,
Ta gordeko lan-soroetan».

«O Maria! baldin zu soro-lore,
Margarita egiten ba'zare,
Ur-xifipa garbia naiz sortuko,
Nik freskatuz etzare istuko».

«Afok'ura jar ba'zinte efekan,
Ni, edoia andirik airetan,
Gan nindeke itsasoz bertzaldera,
Ameriken azken desertura».

«O Maria! edoiaren itxuran,
Indierara nai ba'zare gan,
Itsasoko aizea naiz eginen,-
Aizian zaitut éramanen».

«Itsasoko aizea zu sortzean
Yar nindake mendi gain batean;
Ni iguzki adafik andiena;
Elur, ormak urtzen dituena».

«O Maria! baldin iguzkiaren
Eraño a ba'zare biurtzen,
Artuko dut muskeraren bizia;
Zu ¡zanen zaitut azkuria».

«Zu ba'zare sortzen musker berdea
Jariko naiz iíargi betea,
Dituena, sorgin beltzak argitzen,
Gaunz kufi direnak ibiltzen».

«O Maria! eztirik arpegia,
Jar ba'zinte iíargi xuria,
Ni, lañoa altxa niro lufetik;
Ene-pean zu kukutuko nik».

«Laiñopetik ezin ba'nio argi,
Ez nindake zuri bea geldi.
Ni afosa lore-bote guzian
Zabaldua, jar nire sasian».

«O Maria! jar ba'zinte afosa,
Ni, apetxa nindake urosa:
Etortzean, oi zure aidaxketan
Pausatuta, zuganat airetan».

«Zoaz ortik, zoaz aldi untako,
itz legunez ez nauzu bilduko,
Leenago biíakaturik ni aitz,
Oian-pean bakez biziko naiz».

«O Maria! arbolaren itxuran
Yar ba'zinte, nonbeit mortuetan,
Ni nindake ezker-aien bilaka;
Bozik zuri lotuko besarka».

«Besartean artu nai ba'nauzu,
Aitz zaar bat tinkatuko duzu,-
Jauntzi-xuri ni serora lastefik,
Komentuan nindake sarturik».

«O Maria! komentu zeratuan,
Kaperatik zu kantaz astean,
Oiartzuna nindake atzariko,-
Zure boza erepika nio».

«Komentuan ustez ene boza den
Oiartzuna ba'zine atzartzean,
lien kanta zinezake zuk eda
Erioak ni gorputz zilora».

«O Maria! zure il-ezkiletan,
Mundu petik suntsiturik betan
Eginen naiz zure kabiko lufa,
An izanen bai-tzaitut segura».

«Orai danik asten naiz zu sinisten
Ez nauzula falsokí biíatzen,
Eíeztun bat ori ene eritik;
Beira zazu nitaz oroíturik».

575. DESERTURA

Biziaren primaderan harmetara joaitea
Zorigaitzík dorpeena zitzautan jasaitea.
Desertatuz uste nuen hobeki izaitea¡
Pentsamendu zoroa, hík egin naukan kaltea!

Buru-kolpe itsua, bik egun batzuen gatik
Sekulako zertako nauk gal-arazi heritik?
Aita-ama, hauride ta adískiden artetik?
Gebiago ote naitek ikusiren bizirik?

Gaizkitik den gutiena egin gabe nihauri,
Gaixtaginik handiena naizela dut iduri.
Zer malura, gehiago etzautaia zilegi
Agur baten, eraitea nere sor-lekuari!

Nere baitan gozo onik orai ez da sekulan,
Bihotzeko bar batekin jzpiíitua alhan/
Ametsetan ere beti mugarien ikaran,
Beti beldur aintzinegi zangoa sar dezadan!

Gauaz eta egunaz dut begien aintzinean
Sor-etxola, nere hura^ larain-bixkar batean.
Bixta-bixtan hantxe dago, itun bat aldean.
Oi! nik nuen zoriona han bizi nintzenean!

Non zaituztet, mendi urdin, xifipa, itunak,
Nere bei, auntz eta ardi bizkar guriak"?
Non lenengo nere bide, xingola iduriak,
Amets histu bat neretzat zaretenak guziak?

Besta egtrn herikoan nere gazte-lagunak,
Xirula joz, ba-dohatzi kantuz plazara denak;

Gaur pilotan, bihar dantzan hekien atsegiñak!
Ni, betarik uíundua, zer nere bihotz-minak!

O ezkila! hik neretzat lehenik jo huena,
Hik orobat joko bahu nere azken-orena!
Hire itzalean nian bizirik urosena,
Aditzean mendi hetan hire aCs-beherena.

Nere ama orai ufun kausitzen dut niganik;
Gehiago ez dut hemen harén begitarterik.
Nihor, ez adiskide bat nitaz arta duenik;
Nihor, nere oiñazetan kontsolatzen nauenik.

Hemen jende afotzetan ni biltzen naizenean,
Bihotz-mínik gabe naute ezariren lurpean.
Nork daut gero, noiz-edo-noiz, oroitzapen batean,
Loreto bat pausaturen tonba gaiñean?

Bozkarioz bizitzera, ukaturtk heria,
Desteratu bertze behin ez nindake abia.
Bai, ondikotz! kiratsa zait desteruko ogia.
Hemen ezin bertzean dut higaturen bizia!

Ur-xiripa ez da galtzen nihoiz bere ohetik,
Ez eta ere aíoka sartua den menditik.
Hek bezala, sor-lekuaz amodio izanik,
Zuhur denak kanta beza beti bere hericik.

JEAN AÜOSAGARAI «BORDELE»

Luzaide'ko (BN) semea. «Bordele» eban izena bere jaiotetxeak, eta geienetan órela izeupetu oi ebazan ostaturik ostatu kanta ta egin eroazan bertsolanak. Karlatar geratean oso sumiokor ei zan, aren aurka. 1875'an il zan. Izneurtu asko dicu, oso bikainak.

376. MENDEKOSTE PESTETAN

Mendekoste pestetan,
aurten Arnegi'ko erekan,
ixtorio bat gertatu da kasik ezpeitiot eran:
Bost emaztek edan dituzte hamalaur pinta arno betan,
jokaturik kartetan.

Jokua zuten florian
Arnegi'ko Madrilenian,
atso gaixoek uste zuten zrrela zeruko lorian,

saindu ororen erdian, bere botoilak aldian,
bai eta plazer handian.

Batak zion bertziari:
«Haura, hire grazian,-
arnoño hunek alegrantzen ditan bihotzñua niri,
ene plazefa hola huken banu zonbait ogi poxi
arno ezti huneki».

Katrina eta Katalin,
auzo biak elgarekin,
arno edaten ari ziren kuraia handi batekin,-
gero onduan ba-zuten gibel aldian zer egin,
bere fanfareriekin.

Hirugafenak ederki
tanteatzen omen daki;
hamafekuak harek zituen omen markatzen orori,
ondarekotz nahasi zen eta lurerat erori;
orduan etzen egari.

Laugaren hori, zer peza,
Maria zapatainesa,-
musa esplikatzen zituen eskuara ein fiantMM
bai eta ere aisa egiten bide handian esa;
horixe da harén letra.

Bostgaren hori zoin ote da?
Pentsatzeko ez da pena;
Caraxane gaizo hoiek nola ezpaituke lehena;
«Benedika daiola, dio, mahatsari aihena,
arno ekartzen duena!»

Ahuntzez jokatu eta
hasi ziren kolpeka;
Gastón deitzen zen guarda gazte bat, kanpotik jinik lasterka,
hak partitu izan zituen, ez uste bezain aisa:
afazoinik ezin pasa.

Zuk ere, Etxek'anderia,
eran bearzu egia,-
solas hortan zu ote zinen horien buruzagiak
Bost emaztek egiteko horixe da komedia!
Huren baitzen zahagial

577. ENE ANDREGAIARI

Andregai gaztea, otoi, barkatu,
Enetzat nola ote zira mintzatu?
Egundaiño etzaitut tpensetan xerkatu;
Zeren gaiñian zira hola deklaratu?
Biluak[1] ufetu
Behafak ba'nitu,
Zuk ez nahiz hartu,
Zu ez bezalakorik nahi dut hautatu,

Abisatzen zaitut, andregai gaztia,
Izariz[2] har dezazun banitatia.
Fortunaz izan ba'nu nik borondatia,
Ez omen zinazteken nitaz hautatia.
Aise da, maitia,
Kunkil izaitia,
Urgulu hartzia.
Oraino zerbait bada gogoan pastia.

Ororen burukoa, alegera zaite,-
Zu afrontatu gabe kontsola naite.
Hola mintzo zirela aditzen ba'dute,
Zure mina dúdala ais'efanen dute.
Eíeklama zaite
Ahal bezain fite.
Nork nahi zaituzte?
Holako filusak[8] nik ez ditut maite!

Zu maite zaituna ez da ene baitan,
Etzaitela egon ez nahigabetan.
Iduritu baitzaitzu sober'amodiotan,
Uste ba'duzu ere, ez zira feiletan.
Egon naiz miletan
Beste zonbaitetan,
Nahiz alferetan,
Bakarikan ez zurekin desiretan.

Desiretan egon naiz efekontratzeko,
Bizpahirur afazoinen esplikatzeko
Zer zinduen suyeta ene aipatzeko
Zuhaur iduriekin eíeformatzeko.
Sekulan saltzeko,
Beldur baratzeko,

Ez da (idatzeko.
Pare gabia zira murniuratzeko.

Murmurasen ditutzu iduri zaizkitzunak,-
Horiek dira zure jendetasunak;
Xarmatzen bide zaitu zur'edertasunak
Geien konplimendiak egiten luzunak.
Uroski goiz hunak
Pasatzen tuzunak,
Emanik fortunak.
Odal hunik in diro zurekin gizonak.

Cizonaren bizia andrek laguntzia,
Konbeni dute elgar eztiki hartzia.
Bainan batzuk ba-dute mila fantesia
Beren baitarik eldu ziela grazia.
Oro malezia,
Ez da abilezia
Urgulu hartzia.
Hiltzek sortua da mundu guzia.

1) ule; 2) oeufiz; 3) malmiitz.

LAÜAL**D**E SEN**D**AGILLEA

Gizon jakitun au hai oleikari egiña! Gure izkuntzak ez izan beretzat izikuturik; cícz, giar, gizonki darabil beli; biotz zir'ara ta idurupenez zelai loratsu baizen oparoa Sara'ko euskal jaietan (1864) bere *Mutil zahala* urezko antza ta makitaz sariziua. Donibane Loitzuoe'n, luzaro, sendagile egona

378. TXORINOA KAIOLAN

Zertako ni kaiolan,
zer egiñik gaizki?
Ez ote dut bada izan
bihotz-minik aski?
Airetan ibiltzeko,
Jaunaren dohamak,
eu ez preso egoteko,
ditut nik hegalak.

Behar bada nigarez,
barur atzo danik,
ene haurak ni galdez
daude goseturik,
laster hel-arazteko
idek beraz bortak!
Maiz heien bazkatzeko
ditut nik hegalak.

Primaderak, oraindik,
sentį du negua
eU ume ^ bakafįk
daukat [aaatmį
bertzek ez pairatzeko,
onets nere otoitzak!
Hekien berotzeko
ditut nik hegalak.

Alargun bat naizela
ez dautzuet eian,
helas! il zitzaitala
laguna segadan[1]!
Harén miña arintzeko,
eta egin-bideak
bienak betetzeko
ditut nik hegalak.

Iragan aratsean
egin dut nik amets
(eta umez dohanean,
amak zer ez siñetsi)
Ohatzetik[2] hurbilxko
zabiltzala etsaiak.
Ai! lanjera aitzintzeko[3]
ditut nik hegalak.

Baiña berantegi den
nago beldurturik,
nihon ez dut aditzen
auhen[4] miñik baizik;
ez, ezta dudatzeko,
galdu ditut haufak!
Orai, nik deusetako
ez ditut hegalak.

Doluz efebel, Jauna,
hasi naiz mintzatzen.
Bai, nere azken orena
hari da hurbiltzen;
zerurat airatzeko;
umentzat alfefak!
Zaizkit baliatuko
agian hegalak.

I) lazo; 2) nido; 3) prevenir; 4) gemido

579. AMA HAURAREN SEASKAN LOHAK ARTZEN

Lo! lo! nere maitea;
lo! ni neiz zurekin,
lo! lo! paregabea,
nigarik ez egin;
goizegi da! munduko
gelditzen ba'zira,
nigafen urtatzeko
ba-duzu denbora.

Lo! nik zaitut higitzen;
lo! lo! nonbait goza.
Ez duzuia ezagutzen
amaforen boza?
Etsai guzietarik
zure begiratzen,
bertze lanak utzirik,
egonen naiz hemen.

Lo! lo! nere aingerua.
Bainan ametsetan
dabilkazu burua.
Hifia ezpaiñetan,
nerekin ote zare?
Non ote zabiltza?
Ez urun, ama gabe,
gan, ene bihotza!

Lo! lo! zeruetarat
airatu ba-zare,
ez bihur zu lurerat
ardietsi[1] gabe
ungi zure altxatzeko
enetzat grazia;
guziz eni hortako
zait ezti bizia.

Lo! lo! gauak oraindik
nonbait du eguna;
ez da nihon argirik
baizik izafena.
Izarez mintzatzean,
zutaz naiz oroitzen:
zein guti, zure aldean,
duten distiratzen!

Lo! lo denbora dela
eduri zait, albak
histen hari tuela
eki gabazkoak;
xoriak arboletan
kantaz hasi dire;
laster nere besoetan
gozatuko zare.

Bainan atzarl zare,
uso bat iduri;
huna nik zenbat lore
zuretzat ekari!
Ametsetan ait-amez
ote zare oroitu?
Ai! hifi maite batez
baietz eradazu.

1) alcanzar.

580. BIOLTXOA

Alferetan haiz sortzen, oi lore maitea,
Baratze baztefetan uinilki gordea.
Bafada[1] goxoenak hu beti saiatzen;
Hire egoitza bakotxak aiseki kausitzen.

Orai erak zertako haizen hoin herabe:
Eder duk modestia, bainan gaindi gabe.
Bertutean orobat, bertzetan bezala,
Jakizak, ez badakik, neuri ba-dela.

Bertze lore guziak sortu bezain sari,
Afai, dantzan bizi-tuk, zefir soinulari:
Hi aldiz belarpean, burua behera,
Alargun bat iduri, lufari begira.

Bainan diok Jainkoak hauela landatu,
Ez dukala lekua heronek hautatu.
Hori baizik ez bada, hoi bada guzia,
Adi nezak zer gertuz hagon ehortzia.

Ezunak hire hasia hola estaltzean,
Bere ustez bertze zenbait zaukaian eskuan;
Ezen dukan soin hori ez duk ilunbeko,
Hain guti hire liatsa lurak iresteko,

Ez dik Egile onak bere mila gauzetan,
Ni non, deusik agertzen egiña alferetan;
Bada, bahintz munduan gordea egoteko,
Hire dohain guziak, erak, zertarako?

Hora beraz argitan zeruko xedea[2];
Egun etzaik zilegi duda egitea,

Orai behar duk jakin, entzun nezak ongi,
Hiregana zertara ni nauten igofi.

Hire lagunek haute berengana deitzen.
Jelosia bera ere heier duk juntatzen?
Altxa beraz lufetik, ez uka etorkia:
Arosaren aldean duk hire tokia.

I(hálito de viento; 3) designio.

581. MUTIL ZAHALA

Bakafik bizitzeaz unatua franko,
Xede zerbait ba-nuen lagun bat artzeko,-
Banan ora andreak zenbat ez du bear!
Ez, ez, nahiago dut egon mutil zahar.

Efunka guzietan estatuaz gaindí[1],
Egun oroz bai-tugu mila moda ben,
Oinbertze gasturekin, nola menaian sar?
Ez, ez, nahiago dut egon mutil zahar.

Grizetik utzi dute molones polita,
Ustez obeki doan loredun boneta.
Zer! boneta buruan neskatxa bat nik ar? „
Ez, ez, nahiago dut egon mutil zahar.

Sederian sartuak, printzesak iduri,
Fu! egiten diote oin telapintarj,
Ofela uste dute zenbait xoro lokar,-
Ni ez bai-naiz lógale, nagon mutil zahar.

Andiek ba-dakite musikan kantatzen,
Bañan ba-dakitea botoin baten lotzen?
Dendari jornaletan, zenbat ure, zilar!
Ez, ez, nahiago dut egon mutil zahar.

Mirail baten aldean, goizetik josiak,
An dituzte miratzen aurkintze[5] guziak,
Egun gauza bat exkas, bertze zerbait biar,
Nor ez da lotsatuko? Gauden mutil zahar.

Zenbat senar munduan, gaizki gertatuak,
Leporaño sasian direnak sartuak!
Orai egiten dute berantegi negar.
Anbat gaizto berentzat; nagon mutil zahar.

Ezkontzako bideak, Jegun eta garbi,
Urundik begiratuz du belus'iduri;
Bañan da urbiletik, dena ari, bizkar...
Nola bai-naiz lausuzko, nagon mutil zahar.

Segur da, deituko nau, batek galat otza,
Bear bada bertzeak arpagon zíkoitza;
Laidoen[8] jasaiteko senti baitut indar,
Askoz nahiago dut egon mutil zahar.

Oi! auxe da mendea gizon gaztendako!
Orai andreak djre jaunen larutzeko;
Ez ote da, diozu, xuhur zenbait bakar?
Ez nezake zin egin, gauden mutil zahar.

Obeago zuretzat ote da zoria'?
Zuri nago, neskatxa, goregi jaría!
Utzazu sobraniak, izanen da senar;
Non ez, egonen zare buruaz[4] neska zahar.

i) por; 2) lugar; 3) injuria; 4) indarez.

E. INTXAUSPE KALONJEA

18l6-'903. Apaiz oso jakituna. Bere idazi i batzuk: *Le verba basque* (Baiona, 1858), *Jesu-Kristen Im'ttazionia, zuberoko uskaralai ¡ilzulia. - Egiazko efe/lgion/a* (Baiona, 1883). Euskaltzale bikain-bikaña. Bere ilariezat berberak egiñak, onela diño.J. H. S. Heben dago - araphiztjaren haiduru - Enmanuel Jnlxauspc - Harizmendi aphezaren korphivza, Hil izan da - setemenreo 35'ao !9Wan - adinaren *86* ourtKetan. - Bi kar i general zan - Aphczpikuaren lagun - Batikaoo'ko kontzílíoan - Euskaren eta Euskaldunen - mathazale eta eraikizale».

582. GARIZUMAZ

Bihotz tefirekín haustez
goure beitan sar gitian;
eztakigu daigun ourtez
bizirik giratekian.
Hautsak burutik behera
zer giren gutu saiatzen:
lufetikjinak lurpera
beriz gjrela utzultzen.

Barour, amoina, otoitze,
hirour aurhide saintiak;
hek zelurat deramatze
batekin ebiltzaliak.
Goure jaidura gaixtoak
barourak dutu zebatzen:
goroxeman ofizioak
hori dereiku kantatzen.

Barourak goiti altxatzen
fidelen izpiritiak;
temamentiak garaitzen
eta Ilazten bertutiak
Barouraren ohoria
hanitz goratu Jinkoak,-
arimaren unhudia
deitu llrhezko ahoak

Barour egun manatian,
dezagun janariari
zerbait idok apairian
emateko beliafari.

Behararen eskietan
ezarzu soberakia;
Jinkoak gero zelian
emanen beitu pakia.

Bihotzetik, karitatez
egiten dugun amoina,
esku gorde ixil batez
utzuitzen da gihaur gana.
Baroura eta amoina,
eta otoitza haiekin,
haiek hirourek arima
baketzen Jinkoarekin.

38ó. AINOERUEKIN

Ots, aingeruekin,
Arkanjeliekin,
gaur kantatzera,
gour'Efegiaren,
Jinko Semearen
adoratzera.

Ez izotzagatik,
ez ilunpegatik
egon herabez.
Har fedia gida,
Jinkoatan fida,
goatzan lasterez.

Ba-doatz'artzainak,
arinik belainak,
lascer zoin lehen.
Ikousi behaíez,
otoitztu beharez
Jesus Betlenen.

Goatzan gu ere,
billotzez bedere,
Karpe hartara,
Jinko Gizonaren
Jesus maitearen
adoratzera,

hjarentzat etxerik,
ez eta oerik,
etzen kausitu;
zeluko Eregia,
goure Aferoslia
ihourk ez hartu.

Jesus bafukian,
gaiaren erdian,
sortu negian;
Maria'k oihalez
trozatu bertanez,
etzan lastoan.

Ziñez dut sinesten,
begiez ikousten
banu bezala,
Mari'ren Semia
Betlenen sortia,
Jainkoa dela.

Zelutik jin dena,
hain apaldu dena,
altxa dezagun.
Guk laidorioa,
guk amorioa
eman ditzogun.

MIKEL ELIZANBURU

1895'an il zan lekaide au, euskalzale jatora dogu. *Sakeleko ¡iburuxka* (Baiona, 1892), argitara eban,- baditu benoo olerki goxoak. J. B. Elizanburo olerkari garaia-rcn lengusua.

384. HEL GAJTEN.

Hel gaiten guziak
lie! Betlemerat,
Jesus maitearen
adoratzerat.

Aingeruek dute
han dela eran.
Kristauak, zatozte,
han da mañateran.

Han dago etzana
beia batean
zer'luren Jauna
lasto arpuntean.

Goazen artzainekin
Haufaren gana,
ikustera hekin
troxetan emana.

Ahuspez umilki
dugun adora,
bihotzez, kartsuki,
Jesus zerukoa.

Nahi ditu egun
gure presentak;
eskin diotzogun
lehenik bihotzak.

Bihotz kartsuenak
ditu prezatzen,
bainan garbienak
hek ditu hautatzen

JOANATEGI APEZA

Antxiña Uharte-Mixe'n (8N) arima-zain egona. Ez da bada-ezpadako idazlea, izkera erez zaintsua darabilena baño. Ikus Aita C. Lertxundi, *Kantlkak* (TOURNAI, 1946), 188'gn. orialdean.

585, OGIA GORPUTZ

Sakramendurik handiena,
—Jesus'ek berak dionez—
Jainko bat berekin duena,
gurekin bizi beharez.

Jesus'ek hil-aintzin egiña
aldarean da befitzen,
apezak hitzak eran-eta
ogia Gorputz itzultzen.

Ostian da Jesus ernai ten
nehork ezin eran nola;
den guzi-guzia da hemen:
oi Jainkoaren ahala!

Ogia da dena itzali
aldarearen gaiñetik,
orai ez da hemen ageri
iduri hutsez besterik,

Ezin daite ikus, ez hunki
itxura hutsez jauntzia,
bainan sinets batere ziuki
Jesus hor dela guzia.

Zeru goran jaria dago,
berdin hemen atdarean,
gu bere ganat altxatzeko
gutara jausten denean.

Dugun bada izan lehia
ogi hortarik jateko,
Jainko biziak cskainia
gaitz ororen sendatzeko.

Ogi saindu noren indarez
garbi dagola gogoa:
ikusiren du egun batez
gorderik daukan Jainkoa.

M. LARALDE-BORDAXURI

Ezia kantari makala, hazpanclar seme an Gitxi baiño ez ditugu ezagun bere bertso-lanik, tamalez Adu gaiztoak erabili eban, antza, moroi ordezko, ta jakiña, arek erasotako negar miñak abesten ditu geienez, lkusi *Eskuttldun Kantuak* (Chile, 1900), 76 or. 18-t6'ko uriíaren 30'an, Baiona'ko eguneroko *Adotir'cñn* argitara zan bere kanta bat, oso sa mu ra, bederatzi ahapaldi dituna, Montpensicr dukearen ezkontza gaiñean.

366. OALERIANO'AREN KANTUAK

Mila sortzi ehun ta hamabortz gafena,
Ni Ahazpamen preso hartu nindutena:
Pluma gaineko preinu[1] orok dakitena,
Galcretan ¡hartu beharko naizena.

Kantatzera nihazu alegera gabe,
Ez baitut probetxurik trixtaturik ere,-
Neliun deusik ebatsi, gizonik hil gabe,
Sekulakotz galerak enetako dire.

Ala zorigaitzeko prcmu izaitea!
Harek eman baiteraut betikotz kaltea;
Aitari galdeginik sortzeko partea,
Galeretan eman nau, hauxe duk dotea!

Ene aita da gizon kontsideratua,
Semia galeretan du segurtatua,-
Nun-nahi otoitzean belaunikatua,
Saindu iduri debru madarikatua!

Ene lehen kusia, Kadet Bordaxuri,
Fagore bat banuke galdatzeko* zuri;
Ongi adreza zaite ene arebari,
Ene saltzeko zonbat ukan duen sari?

Aita aitzinean'ta areba ondoko,
Osaba burjes hori diru fornitzeko:
Ez ordian enetzat bi sei liberako,
Galeretan bederen leher egiteko!

Elizan sartzen dire debozionerekin,
Iduriz badohazila saindu guziekin;
Beren liburu eta afosarioekin,
Debruak pesta onik einen du heiekin.

Zortzigafen bertsua aneiaren dako;
Kontseilu bat banikek hiri emaiteko:
Ontsa[3] goberna hadi, etzauk dolutuko,
Ni baitan etsenplua erex duk hartzeko,

Zuri mintzo nitzaizu, oi, aita zilafa!
Ardura[4] dudalarik begian nigara;
Zure eta ene arazá Bordaxuritara,
Galeretan naizeno ni bainaiz baleara.

Kantu hauk eman ditut Paube-ko hirian,
Burdinez kargaturik, oi! presondegian;
Bai eta kopiatu denbora berian,
Orok kanta ditzaten Hazparne herían.

Hok eman izan ditut, ez xangrinatzeko;
Ahide, adixkidek, kuraie[5] hartzeko,
Eta partikulazki, aita, zuretako,
Kantu hok aditzean, semiaz oroitzeko.

I) heredero; *2)* eskatu; 3) ondo; 4) sari; 5) indara.

PARISTA6A

Azalaz pitxi yakuz ¡tz-aeurtu oneik. Olerkariak ba-ekian nunbait gauzea zelan esan eu adi-erazo. Mamiñez, ostera, irakatsi edefa dakarsku.

587. ARA1NA ETA BERE UMEAK

Etsenplu hau hartu dut Paris'ko hirian;
Gertatua omen da hango ur nausian.
Arain bat han bizi zen ur harén erdian,
Umeak gal-beldufez ikara handian.

Beldura erakusten zioten eranez:
«Mesfida[1] zaizte, haufak, ur hunen baztefez;

Bazterak oro dira beteak etsaiez,
Arantzaleen amuz, orobat belatxez».

Ama ona zaioten horela mintzatu;
Bainan gazte ergel hek doi-doia aditu,
Azkenckotz amaren eranez burlatu,
Gero, beti bezala, ifi-trufak sartu:

Apirilan mendicik elurak xuritzen,
Haizeak urtzen ditu eta jauts arazten.
Urak handitzen dire, gero ateraczen,
Bazter guzietarat !ufez-lur hedatzen.

Oiuka hasten zaizko amari umeak:
«Zer du balio, ama, zer zure eleak?
Jin bite amuekin, jin arantzaleak;
Gu gare gu itsaso huntan eregeak.

Beha zazu ureri, beha zeruari,
Arbolak gehiago ez dire ageri.
Guk diogu manatzen urai, munduari;
Uholde jeneral bat dela du iduri».

Amak du ¡hardesten zuhurtziarekin[4];
«Ez zaiteztela josta, haurak, urarekin,-
Llrceak ditu bizi naizela hunekin,
Ezagutzen dut bere gora-beherekin.

Sinhets, beraz, sinhets ni, xuhur ba'duzue;
Denbora gutiz ura sartuko zaiczue.
Baztererat joanez irisku duzue;
Erditik, zolaz-zola, segi nazazue».

—«Ba! —diote, kexurik, ergel hek amari—;
Lehengo efepika bera duzu hori.
Adío, ba-goazi; ez eran deus guri,
Bisica egiterat leku berian».

Gure buru-gabeak, hola mintzaturik,
Atera dire oro uraren zolatik.
Bafaiatuak[8] behin amaren ondotik,
Gz dagozi, ez, befiz alderat bildurik.

Huna zer zitzaioten orduan gertatu:
Hek uste baino lehen ur guziak sartu,
Eta nahi bezala, etsaiak hek artu,
Bizirik hala-hata zartainan frutu.

Haurak, etsenplu hori dezugun balia,-
Ergel bekien gisa, otoi, ez abia.
Aita amen menean progotxa bizia,
Aita-amen aldean zeruko loria!

I) desconfiar; *1)* prudencia; 3) diseminar

G. HAROZTEGI, APEZA

Olerki eder au, 1859'ko poesibatzaldian, bigafen saiiz sariztua izan zan

588. ETXEKO XOKOA

Ori'ko xoria Ori'n bakean da bizitzen;
Bere lare-sasietan ez da hura unatzen.
Han zen sortu, han handitu, han ari zen maitatzen,-
Han, bere limen artean gozoki du kantatzen.

Urusa[1], liarek bezala, egiten dakienai
Ori'n sortu eta Ori'n gazte-zahartzen dena!
Aditzez baizen ez daki zer den kanpoko ona;
Bainan aldiz dastatzen du etxeko zoriona

Bego etxeko xokoa oraino norberari!
Bego ait'amen etxola haurik hazienari!
Etxea beti etxea da, zenbat den itsusgari;
Kanpoa beti kanpo da, zenbat den edergafi.

Etxean pena guziak dirade kontsolatzen,-
Etxean zauri miñenak norat-baitere hersten.
Iriak, solas gozoak, non dirade han baizen,
Cau-aldera familia denean bateratzen?

Familiako bizia, zein zaren plazertsua!
Zutaz gabetua dena, zertaz da jabetua?
Ume-zurtza baten pare dabila heratua,
Ezin bere bihotzaren aurkituz sosegua!

Zenhat urikari dudan bizi dena kanpoan!
Bera da beretzateko mundu limitan osoan;
Jcndez da setiatua*, eta da desertuan!
Laguntza onik ez duke bere behar-orduan.

Etxeko txara hobe da ezenetz atze ona,-
Aizeak ez du balio etxekorik txafena:

Hori da alde orotan kuri dohan erana;
Bainan ongi aditzeko frogatu behar dena.

Nik segurik ziñez dakit nolako den kanpoa;
itxura hainitz du eta funts hainitz txaíekoa.
Etzaitela hari fida, (eguna du mintzoa,
Bainan gero sartzen dautzu ezten pozoatua.

Beraz, gutarik bakotxa etxean egon dadin!
Ori'k sortu balin ba'da, egon dadiela Ori'n!
Zertako hainbertze urhats zorionketa egin?
Etxean du zoriona nok-berak berarekin.

I) Feliz; 2) inguratu

B. BORDA, APE2A

Ba-eban euskaltzale onek asmu bedegar ta bakana: geroaren exámetro antzera egin nai ebazan eusko bertsoak bc. 14 orialde ditu Laf6te It>iuralde apez on ta zerbitzariak eskuetarv jnri eustan idaztitxo argitara gabeak, geienez laborarían aintzarako ta Perkain, Azmuza ta orduko beste pelotari askoren gorapc-•ez egiña; ta (854'ko dagonilaren 13'an, Labastide-Chirence Kaskoin ertcík, euskal'jaietara bidalia ta Hariet apezari, Baiona'ko Ikastetxe Nagusiko Zuzendaríari eskiñia.

589. LABOR OMNIA VINC1T

(apur bat)

Nere xaramelari jadanik zuk, andre pulita,
Lehen erakutsi zenbait kantore diozu;
Noiz'ta artzain baten auhenak\ edo noiz'ta laburzki
Uso samur baten inurak, lan eztia, bilduz,
Bai nituen gogotatzen, edo xaren itxal ilhuna,
Eta, erle ernearen janharia, loren iriña
Noiz'ta aldiz ditut eran izan, gonbitua izanik,
Panzart[2] handiaren guduak, bizia eta plazerak,
Eta harén ere zori gaitza, eta ere azken.eguna;
Efesuma[3] xipi baten, lhauteria izenaz,
Bertze orduz zena, omen, Panzart erege doatsu,
Zoinek gaztedanile, xoilki xiribika"* soiñuz,
Bai gabaz, lorian, bai bere boterea cgunaz,
Baitzuen haizearen pare, nola uholdea, hedatu
Lur guzian.

Person hauxetan laboraria-lanak
Eran orai zatzu, andre guztiz jakiña, zerorek,
Bai laborarían bakea, eta harén ere plazerak.
Erazu nola ontasun guzietan igeri,
Zoin zorion gozo duen hark jastauea* egoitzaz!
Dire zeru-Iuíak harén. Oí, sobera dohatsu
Landatafa, ezagut baldin bere ona ba'leza!
Lz dute borta bihotz-penak setiatzen harena,
Da gezura hiñan, bertutea landan ikusten.
Landa zahara aitek mende betan iraulia irauliz,
Hark bakean gaba, hark bakean du iragaiten eguna.

Dire bizi landa hartarik soldadoa, apeza,
Dire bizi guziak, da eregcren ere mahaina.
Bazteretan hari frutuz elementa dilindan
Dago ifiz, madari, tuaxa[0] eta bihi, sagar edera.
Ontua da bata udan, neguan bertzea erorten.
Du beti primadera, dio behcrapena beti
Eskaintzen (urak, egiazko ama ona, ba'Iutc:
Maite haurak, maite haur guziak, maite elgar oraino.

Maiz berek dute biíatzen laborarla ohorek:
He fian aspaldi da efege laudatua jari;
Sortzean hark ditu listaíak *inhetsia itotzen,
Jainkozko legean gauzak dituela iniatu.

t) gemido, *1)* kaskoin uza, gure iñauícií, sabctkoieu zaiudarí; 3) reino, -i) vio-Un; 5) gustar, 6) raertxika.

DUVOISIN KAPITAINA

1810-1801 Ruskaltzale ixAlogaria. Gai askori ekiñik, baita ba ren-gauza i be ta 18S6'an, Paue'n ager azo eban Kristo'ren *tmitazionea* bat Azkue jaunak be-retzaz: «Duvoisin'ek liburu asko ta guztiz ede rak egin ebazan Geienak dagoz ilunpcan. Beren lan guzucu aricas onena ta ardurat&uen egiña, Iztegia da» lkusi *Euskalzale,* I unea, 273 or. Idazti Deunak osoan laburtlerara itzali ebazan, baita ba-dau beste lan polit bat be. *Laboranfzako liburua.*

590. SAHATS-ADARETIK...

Babilonia'ko uren bazteíean,
Miñez gare jari ipuru gaiñean;
Eta han, oi Sion' zutaz oroítzean,
Oro eman gare nigar-nahaíean.

Gure arabitak sahats-adafetik
Dilin-dan or daude... Beude or isilik!
Kendu gaituztenak gure eritarik
Entzun nai dute bango kantetarik.

Hunat gaituztenak ekari gatibu
Entzun nahi dute hango zenbait kantu.
Oi, bainan guk nola, zer kantu sakratu
Atze-heri huntan kanta dezakegu?

Ahantzten ba'zaitut, Sion onetsia,
Bertan ihar bekit eskuin alderdia!
Oroitzen ez ba'naiz zutaz, oi heria,
Aho gainari lot daidala tnihia!

Zutaz, beti zutaz ene asmuetan...
Zurekin gogoa, bihotza zu baitan...
Zutaz kanpo banu ifi bat ortzetan,
Nihon pozten ba'naiz, bil banedi bertanl

Oroit zaite, Jauna, Edon'en senieaz,
Sion efausteko egun gogor liartaz;
Edon nola zagon izkola mafumaz:
«Txahu, txahu dena burdin eta suaz!»

Babilondar andre gaiztagina, hiri
Niri egin gaitza behakin itzuli.
Mauía bezaiane bota hafiari!
Ez azala nihork izan urikari!

PIAFES HAPJSPE

Txit ugari ta atsegingaria lapurditar idazle au. Jainkotiak noski bere neurtitz-laoik geienak. 1886'gafeaeao, *Karmela,* iru ekitalditako antzerkia, bertsotao, argitara emon eban. Ondorengo olerki onetan pelota-zale agertzen yaku; gizonkiro aizatzen ditu, beintzat, Perkain Aldude'tafa ta Azantza Kanboara, XVIII'garen gizaldiko pelotan ospe aundikoak.

391. PERKAIN ETA AZANTZA

«—Nora zoazi, zu, adixkidea?».
—«Donapaleora dut egungo segida,-
Ureño bat deramat bertze baten bila,
Baldin Lapurtar hoiek jalgitzen[1] badira».

Lapurtafak jin ziren, trebesak doblezJ<a:
Joko sakiren orde bazuten nobleza;
Galdu duen gaixoak **buruan** har beza
Ez dela, egun oroz, Lapurtaren besta!

Azantzako semea nik ez dut mendratzen,
Bere parerik ez du pilota botatzen;
Bai, bainan Perkain hori ez zuen lotsatzen*,
Plaza guziarentzat bera aski baitzen!

Hek zazpi joko eta gurek bederatzi;
Halere Lapurtaíen plaza ez zen aski,
Hasafean bezala trebesian beti:
Urguiluz nahi zuten guri irabazi!

Orai betetzen ditu be4eratzi urte,
Baigorin trufa[3] hunik egin zinaukuten:
Gure gasna-sariak joan zinituzten...
Ordainak baitiaguk, hor konpon zaitezten!

Orai, Lapurtar jaunak, zper zer zaitzue?
Monedako etxea hurbilxko **duzue;**
Eskasten bazaitzue, hartarat zoazte,
Ukaiten baduzue... harturen duzue!

Ehunbat ufe galdu, gastuak bertzalde;
Hork ere, ene ustez, zerbait baidirade!
Gizon bat aberatsa izanikan ere,
Holako zimikoak" senditzen dirade!

Amikuzeko duzu bai Donapaleo;
Hango ez bada ere, hurbildik daraio...
Aldudiarak eta **hainitz gehiago,**
Handik hasi zeraizku diuru karerio.

Azantzako Jaun Pedro, artexa zirade:
Mainuak hartu tutzu... babainan debalde;
Akizko uretarat zoaz befitz ere..,
Jiten zireneko, prest egonen girade.

Ur epelez mainuak, saldako oilaki!...
Gorputzari bereak emaiten badaki;
Antzara ixter zenbait jan beharko ditik,
Dirurik ekartzekotz Donapaleotik!

1) salir; *7)* atemorizar; 3) engaño; 4) picadura.

MARTIN GILBO OSAGlLEA

1839'ko dagonilaren 2'an, Uruña'n Jaioa, Baiona'n, Bordele'n cta Paris'ea egin ebazan bere scndakintza-ikasketak Donibane Loitzune'n osagjíe 1868'tik. Laralde jaun argiaren antzera; baita iñoiz ango alkate be. Gaztetatik euskaltzale amoratua, amasei urteko zala bai eban idatzi *Euskaldun baten btotz-mínak Indician* olerki mardula Cero, poesibatzaldietan, sari txapeldun, Sara'n (1859) cta Uruña'n hatez be. Einen jartea dodana, Birjili iíezkorak egin oi ebazanen antzera taiutua.

392. LABORAftlAREN DOHATSUTASUNA

Híun hirietako afabotsetarik,
Gortctako atsegin galgafietarik,
Dohalsu! pena gabe, bizi da bakafik;
Hark baizen nork ole du liolako zorterik!

Goizean goiz jeikirik, ba-doha lanera,
Bere neke-izerdiz lufa bustitzera,-
Eguna igan[1] eta eldu da etsera,
Apur bat familian lana ahanztera.

Gauak harentzat tz du atsegin gorderik,
Harén goiz-albak ez du agur egileiik.
Nork ote du zorion hark bezalakorik?
Nork ote du munduan liaren sosegurik?

Ungí prezatzen ba'du bere zoriona,
Hartan du aurkituren zorte hoberena;
Jelosiarik gabe du hark bake ona,
Harén etxetik ufun dago bihotz-mina.

Bai miletan *dohalsu* da laboraría!
Bakean bai darama gozoki bizia,-
Ez du ez ezagutzen zer dan eskasia:
• Guzientzat hark badu bere pobresia.

Ikustekoak dire liaren haur xumeak,
Eder eta freskorik dagozi guziak.
Eta non ote dire soldadu hobiak?
Azkaragorik ez du aurkitzen Franlziak.

Udako beroctan bazkaldu ondoan,
Errankara" jaririk dago itzalpean.
Oi, dohatsutasuna ez dena hirian,
Bake pare gabea aloren[3] erdian!

Urun eresumetako[4] nahasmenducarik,
Ez daki zer den befi, badén ez gerlarik.
Bizi da soseguan; ez da efegerik,
Ez printze, ez aberats, hain dohatsu denik.

H entoñi *1)* aoz-gora; 3) so)0| 4) efi.

593. EUSKALDUN DÉáTtRATUA

Triste jaría desteruan,
orai noa kantatzera
zer dudan maite mundu untan
dolu miñez efaitera.

Sort-eria,
lur maitia,
sekulan
bizian
ezin antzia!

Adiós, adiós, mendi ederak,
nion parerik gaheak!
Adiós, adiós, ibai bazterak,
eta oiartzun erneak!
Adiós, Lapurdi'ko alorak!
adiós, ene amoreak!
Adiós, adiós, ene eritarak!
adiós, ait-ama maiteak!

Denbora iragan ondoan,
orai dut orai ikusten
ez dela efia sekulan
ez aski nioiz prezatzen,

Guti nauk huti itzaz goza,
oi lur adoragaria!
Ire miñez ene biotza
urtzen ari duk guzia,

Ire oroitzapen samiñak
tristatu naik sekulako,
zeren ditudan makerenak
or utzi sortu orduko.

Oi, zerua zoinen eder den
¡para garbi denean!

Eta zoinen den goibe) afen
mendebal edoi denean!

Alaala ene urteak,
aian len eder zirenak!
I begietarik galtzeak
ilun-arazi tik denak.

Elas! i ganik urundua,
oi eri ainitz edera!
biotz miñeraiño zaurtua,
itxuftzen diat nigara.

Ala-nola du arantzeak
zauri miñena gaixtatzen,
ala du ene doíoreak
biotzean iardesten.

Ezin sobera maicatuzko
aran benedikatua,
ire ganik noiz arteraiño
¡zanen nauk urundua?

Lur atzean laster da isten
lore ederen botea,-
asi orduko birlandatzen,
ala da istu enea.

Zoinen gafatz den destefuan
orai dut ikusten;
ez dut, ez dut uste munduan
min dorpeagorik badén!

Sort-eria,
lur maitia,
sekulan
bizian
ezin antzia!

EDMON GIBERT

Laresoro'ko semea. 1869'aD, Sara'n ospatutako bertsu-norgeiagoaa saritua. Polito egiña da ondoren damogun neurtitz sentikora. Bordel'en il zan, oindiño gazte, 1872'an.

594. ANOREGEIA

Gau erdi da eriko oreneari;
Nion ez da argirik lurean.
Ez ditake mendian adi deusik,
Aizearen afabotsa baizik.

Jautsia da loa begietarat;
Txoil alere neskatxa gazte,
Bere leioan, gau ura bezen triste,
Atzaria dago orai arte.

Zazpi urte bete dira jadanik,
Joanez geroz maitea efitik,
Eta una urte bat Maria'ri
Ez diola beririk egofi.

Idortean lorea laster isten:
Tristezian Maria iratzen;
Ezpaiñetan ia il zaio iría,
Betea du negafez begia.

Urso batek galduz geroz laguna,
Kantatzeaz eztitzen du pena,-
Andre-geiak, egaztin bat iduri,
igortzen tu itz auk airean:

«Joan denean, oraino aura nintzen,
Anaia bat kasi neretzat zen;
Efeztun bat ait'amen aintzinean,
Eman darot, adiós eraitean.

«Orduz geroz maiz egiten dut nigar.
Ain eder zen, ain erne, ain azkar!
Etzuen ez mendietan parerik;
Urundu da... nik ez dut beririk.

«Biotzean duda bat dut sentitzen:
Maitea bildur naiz il oten den;
Nere amak gaitzak niri joan dautaz,
Oiñazeak gabetu nau aitaz.

«Gelditu naiz nere amatxorekin;
Sustengatzen gare alkarekin;
Nik gidatzen ditut aren uratsak,
Ark txukatzen dait nire nigarak

«Emaiten dut nere ustea Jaunear»;
íodara dut artzen otoitzean:
Bainan ez da neretzat zorionik,
Maitearen ez baitut ben'rik».

Kolpez, bortan jotzen du esku batek;
Botz batek dio: «Idekazu, ¡dek!»
Andre-geia, botz au ezagutzean,
Xutitzen da, ikara zainetan.

[dekitzen du amatxok atea;
Maria'ren an zagon maitea!
«*O* Jaun ona» et'altxatuz eskuak,
Bedeinkatzen ditu bere aurak.

(duzkiak argitzen du mendian ..
Mari orai ez da tristezian;
Elizako ezkilek bozki jotzen...
Andre-geia egun da ezkontzen.

M. P. MENDIBIL

LapurdiUr'au bai, eder-zale bigun ta eratsua! *Ar/z<iin dohalsua,* 1859'go urtean, Sara erilxoan antolatutako olerki guduan saritua ¡zan zan. Ez eban askorik idatzi, baña bere himalik urtena guztiz dogu samur eztia.

595. ARTZAIN DOHATSUA

Etxola[1] bat da ene jauregia;
Aldean, salatzar, hariztegia,-
Artalde bat,
Halakorik ez baita hanbat:
Bazait nire behar bezenbat,
Ai! etzait itsusi!..
Ni naiz etxola huntako nausi!

Goiz-aíatsak beti deskantsu ditut,
Deuseren beldurik nihondik ez dut;
Hemen nago

Erege baino fierago;
Nik zer behar dut geiago?
A! ez da itsusi!..
Etxola huntan Piafes nausi!

Goizetan jaikirik argi-aldera,
Igortzen[2] ditut ardiak lanera;
Eta gero
(tzalpian jaririk nago,
Nor da ni baino úrusago[8]?
A! etzait itsusi!..
Ni naiz artalde huntako nausi!

AJtonen semeak gazteluetan
Bihotzak ilhunik daude goguetan.
Alegera,
Nik ez dut denbora sobera,
Kantuz nabila gain-behera.
Ai! etzait itsusi!..
Etxolan nor da ni baizen nausi?

Jan onegiak barnea beterik,
Aberatsak nihoiz ez du goserik:
Eta beti
Ene trenpuaz da bekaizti,
Diruz ez baitate erosi.
Ai! ez da itsusi!..
Etxola gazteluaren nausi!

Noizbait Jaunari nik damu egiñik,
Igortzen ba'nindu aberasturik...
Zorigaitzez
Nasturik nindauke bihotzez,
Eta etxola hunen miñez.
Jauna, barka niri,
Utz nazazu etxola nausi

I) txabola; *7)* bialdu; 3)zoriontsu.

JULIEN VINSON

1843-1926. Euskaltzale benetakoa. Lan ederak ttx.¡ euskuzan kantika-sailean, Paris'en argitaratzen zan *fltvue de Linguistlque'en* eta Berlin'go *Euskara'n,* baita Argaiñaratz, Harlzmeodi, Pouvreau ta abaren liburu zar-auftuak bariro azaldu ta argitara emon be. Irurogei urte bai euskerari lotua, bere eretxia baliotsu noski.

596. AMALAUDUNA

Eli2e-zela¡etan arima handiak
elgafi elaketan dire paseiatzen,-
leku ederrenean obi dira biltzen
Etxepare lenena duten Euskaldunak.

Gizon famatu hoiei martxoaren hilak
bozkario handi bat diote ekartzen,
erdian Manterola delarik agertzen,
lora eder, emana zeruan lufak.

Imortalitatean sartu ziraneko,
jose, pentsatzen dugu hamen, guk, nigafez,
etzaitugula behin araz adituko,
Jaizkibel beztitu da tristerik elurez,
marumaka dobakon olari eranez:
«Hura bezalako bat non da kausituko?»

S. E.

Polito egiña dala egi au,- egia esan, jabea ezta olermen exkasekoa. Nor ete dogu? lkusi *Kantuz.*

597. XAKUR ETA GATIA

Xakur eta gatia, — Minitz era Potzo —
Gasaiían[1] ari ziren kasik egun oro.
Bakean egon zaizken ez izanez zoro,
Bainan gerlan zuketen hatzemaiten gozo.

Xakufa, unatua[2], noizpait kalapitaz[8],
Gogoeta hasi zen... bakearen onaz;
Gatiari bi hitzen eraitera, beraz,
Deliberatu zuen laster gauza horlaz.

Potzo'k zion laburzki gatiari eran:
— «Ez dik ainitz balio ar gaitezen gerlan.

Gaiten bakean bizi gu elgarekilan,
Bizi izana gatik aspalditik heran[4].

Gatiak erepostu irkaizño batekin:
— «Bakea nahi diat bai segur nik egin¡
Hilzemaitea baita erexenik bahin,
Segurtatu dezagun zerbait bermerekin.

Kaiolan egonen haiz hi beti nagusi;
Sukaldea enetzat beharko duk utzi:
Hire uzten dauzkiat, ez izan gosegi,
Hezur, arto-axalak balin bazauk aski».

Ben direno gauzak xuri zauzku denak,
Zahartuz, aldiz, dira laster histen berak.
Minitz eta Potzo'ren arteko bakeak
Bururatu zituen asteko egunak!

Ahantzirik tratua, igande goiz batez,
Potzo'ren kaiolara Minitz juan zen... xixtez,
Hanxakuraren bazka hatzemanik... zortezü
Urikirikan gabe jan zuen... kolpez!

Gatuaren lanari Potzo zen ohartu;
Ordu beretik zuen bakea trenkatu.
Sukaldean nagusi gogotik zen sartu,
Eta Minitz'ekila gasailart lotu.

Xakur eta gatien iduriko ainitz
Gutartean berean dabil egun guziz:
Bakea nahi lukete, bai berdin erosiz,
Beren hutsen kentzeko bakea aski ba'litz.

I) riña; 1) nekatu; 3) camorra; 4) rencor.

J. DABID, MIRIKUA

Ezpeletara. Garai artako olerkari tartean ez doga atzena noski. Ele zara zer-nnirara makurtzen zan bere lumape, ta ba-ditu ziri-olerki txa o be (i nak. Bert ídaz-tankera, bariz, dizditsaa.

598. MUTIL ZAHARARI

Oi, mundu gaixo huntan zenbat den mutxurdin[1]!
Eta denak sobera eta denak higuin,

Izan dadin Piares edo den KaEalín!
Nola maite dituzten behar dute jakin.

Emaztekia bada, zer mihi luzia!
Biziki debota da, bainan itsusia!
Gogoz daki heriko kaseta guzia;
Haufek efaten diote: Mari-nahasia.

Bainan barkatzeko da neska zaharari;
Zeren mutxurdin bada, ez da harén nahi;
Ezkontzaz izan balitz bakafikan nausi,
Lepoa joka nezake, einen zen aspaldi!

Zafra dezagun... diona: «Gauden mutil zahar!»
Jaunak, harén gaiñean etsenplurik ez har!
Aberats balinbada, dena da paper tzar,
Eta behafa bada, segur dena piltzar!

Bizioz betetzen da gizon mutxurdiña,-
Tabakoz usaindurik, sudufa zikiña:
Sosa du bere Jainko, elkor-tzar egiña,
Edo dena tripan du bere atsegina!

Eta zein gaixto den gaixoa emaztentzat!
Guretzat oro haizu[2], deusik ez heientzat;
Guri josteta dena, heien huts handi bat!
Jaunak, balio duia, guk, heiek bezenbat?

NJexka ariña bada, nork egin du hola?
Etxian balinbadu sos era farbala,
Donado, *zer* diozu? nondik du ahala?
Ixil, ixila diote, zuk badakizula.

Naiz, donado zahafa, ase eta alfer,-
Neskatxen huts guzien altxatzen du plazer;
Eta izan dain bera maingu konkor, oker,
Segur bere burua kausiczen du eder.

Non-nahi ezautzen da gizon mutxurdiña:
Beti soiñean zerbait huts edo zikiña;
Atora-fola makur, autsia potoina,
Ez zen amorian naski neskato sorgiña.

Maiz, donado zaharak bizitze idofa,
Maiz ber'etxian dago tris'eta mokora,-
Ozpina bezala du sehia[8] minkora.
Bi putzurdin batian! zer gauza gogora!

Eta ados badira, ez da fama onik:
Mihi txafek ez dute axola handirik;
Jende prestu guziak, ihes heietarik!...
Ez, ez, hobe da, hobe, Jaunak ezkondurik!

NJexkatxak, orai zueri, huna bi hitz bakar,
Ene eíana haitik, otoi, ez gaizki har,
Samurtzen bazinezte, ein nezake nigar,
Zeren ez baitut nahi egon mutil zahar.

NJexka, nahi bazira segurki ezkondu,
Balios izaitiaz beti eizu kondu:
Eder izana gatik, zertako zaitut zu,
Ez bazira emaiteko gattzetan bi pondu?

Aberatsentzat bego toUeta handia;
izan zaite modesta, bainan bai garbia;
Mila aldiz hobe zaut pentzeko loria,
Edo zoin floka baino gori'do xuria,

Krinolina bezenbat izanzu bertute,
Kanpotik bezen eder barnez izan zaite;
Mutil zahar guziek, orduan, nik uste,
Andre bana lasterka, hautatuko dute!

Hala nahi duena, dagola mutxurdin,-
Hatik, detzala ongi gogoetak egin:
Zaharru, kaskaildurik et'ileak urdin,
Denek eginen diote: «Fu zikin, Fu zikin!>

Kopla oriako huntan emaiten dut: finí!
Percsu txar hauiendako barkamendu eni;
Ez dakit efan dutan sobra edo aski...
Ez baziezte kontent, egizue hobekil

I) ezkonge; 2) bidezko; 3) nioroe

599. MAIATZA

Otoiztera eldu nautzu, Maria,
zure oinetarat eroria,
goratzeko" izan dezan zoria
zurekilan zeruko loria.

Maiatzeko egunak, zoin diren edefak!
beritzen ari dela irudi du lurak:
denetan lili, xori ajrosten baztefak:
jende onak bidaltzen Jaunari eskerak.

Egun hauk Mariari berexiak dire,-
altxa, Gtrixtinoak, arentzat aldare,-
ekar edergailuak, ekar argi, lore;
guziz biotz garbi bat, otoi, ekar ere.

Mariaren otoitzak lañoki egiten,
bainan ez dakit nola, biotza unkitzen,
aratsean, kantika denean kantatzen,
oartzen naiz begitik nigar bat erortzen.

Makurerat mendea zoin apal erori!
gaixtoeri sariak... penak prestueri!
Munduaz asperturik, itzultzen naiz zuri,
zuri, Maria, eta Jesus Jainkoari.

Oi Jesus! aterazu Frantzia íezetik,
sinisterik batere ez dutenen ganik;
altxaitzu prestu zenbeit, hele lagun eskutik;
zuzeník ez ditake, zu kanpo emanik.

Zorigaitzez lurean gaizkia da nausi;
eliza zimendutik nai da nahasi;
pagano nai luke oro bilakazi;
Kristok egin duena nai luke autsi.

Ar dezagun xedea oraitik betiko,
guk gure sinestea gora aitortzeko;
ez girela einean Jesus ukatzeko;
etsaiari beatu finki bekoz-beko.

Una, Ama maitea, bi)duak non giren,-
biotzaren erditik dautzugu galdetzen,
emen giren guziak noizbcit kausi gaiten
elgarekin zeruan. Amen! Amen! Amen!

ELIZALDE-TIPI, APEZA

Ufuña'o jaioa. Bertso bikaiñik asko neurtua. Biotz biguo ta leiala zalako, eritarak beio onela agurtu eben: «Heii huntako Jaun eretor beria, - eraíten dautzut egia, - egun guziez segitzen duzu - Jesukristo'ren legia», *Napoleón III* deritxona, 1857'an, egiña dau.

400. NAPOLEÓN IIIL

Mila zortzi ehun eta befogoi hamabi,
Eman nahi nintuzke zonbeit bertsu befi,
Ohore emaiteko Napoleon'i;
Zori onean dela gu ganat etoíi,
Guziak nahi gaitu trankil ezafi,
Bakea emanikan efesumari.

Huna nola jin[1] zaukun gure iruzkia[2],
Argitzen duelarik Frantzia guzia;
Aspaldian ginauden berandecsia;
Zonbeifcek hartzen dute hortaz jelosia,
Zeren emaiten zaion bere merezia,-
Orai ez baita lana gaizki hasia.

Napoleón, Frantzia'n hirugaren zare,-
Biga ezagutu ditut lehenago ere,
Oseba eta kusia[3] enperadore.
Gu heien zerbitzuan ibíliak gare;
Zerbitzatuko dugu zuretako ere,
Adinez zahartuak ¡zanikan ere.

Luis Napoleón, har-azu kuraie;
Zure zerbitzatzerat borondatez gaude,
Efesuma guziak ikaran daude;
Norat-nahi juaiteko orai gauzak gare,
Baldin zu gurekilan etortzen ba'zare,
Etsai guzien kontra beldurik gabe.

Autrixiajin zaiku umiltasunean,
Bere behararekin xapela eskuan;
Leheneko obra onak dauzka goguan;
Napoleón gaztea han galdu ondoan,
Ez baitzuten pentsatzen batere orduan,
Bertze Napoleon'ik bazen munduan.

Autrixia bezala Inglesa ere,
Uste dut ez dagoen beldurikan gabe,
Afera pasatuez oroitzen dire.
Napoleón zahara lian galdurik ere,
lloba emen dugu harendako orde,-
Laster eginen dugu enperadore.

Napoleón zahara hortan zen tronpatu[4]:
Inglatefa zuen egoitzaz hautatu,
Kriminel bat bezala zuten tratatu,
isla Santa Elena'rat zuten ekxilatu,
Haroka baten puntan hanxet zen finitu,-
llobak nahikoitu zofak pagatu.

Egin izan diote hofen bertze obra,
Oraikan ez batere gaixtorikan sobra,-
Erekonpentsa onekin iloba hor da.
Ez, otoi, berandetsi; jinen da denbora.
Zuiek izanagatik burua gogora,
Afazoina nork duen ageriko da.

1) et ori; 3) eguzkia; 3) sobrino; 4) aUipetu.

401. DAMA GAZTri XARMANT BAT

Dama gazte xarmant bat jiten zaut bixtara,
Iduritzen baitzeraut zeruko izara!
Ama batek hazteko, hori zerbait bada;
Gure salbatzaileak kontserba dezala!
Traía tratara tralara, kontserba dezala!

—«Gau on, gizon gaztea, konpañiarekin!
Gostu du egoitiak ixtant bat zurekin,-
Badakizu mintzatzen eíespeturekin,
Jainkoak har zitzala hil-ondoan berekin!»

—«Ene maite polita non ote den bizi,
Bazinakíkeia zuk harén zerbait beri?
Aspaldi ikustera joan nahia beti...
Efozu ene partez, milaka goraintzi».

—«Ez zinukeia hobe zuhaurek joaitea,
Nitaz igon gabe komjsionea?
Samurturen[1] ote den ez daitela fida;
Zato enekin eta, biak joanen gira».

— «Jin ere banindaite zurekin gogotik,
Ez banu bihotzian deus efangurarik:
Kanbiatua dela norbaitek efanlk,
Hdrtako ez naiz joaiten,- deus ez dut bertzerlk»:

— «Zato eriekin, eta erozu berari;
Leheneko hitzetan dagoenez beti?
Disimulatzen badu, utzazu laburzki,
Ni hemen ¡zanen naiz zure zerbitzari».

— «Ene maite polita, nolaxe zirare?
Berantxko ikustera heldu naiz ni ere...
Ni pobrea naizela mintzatu zirare,
Gure alientziak betikotz joan dire!»

— «Ez zireia oroitzen, o gizon gaztea,
Duela zazpi urte —ez dut ahantzia! —
Ez zinuela aski gogoan harczea,
Ez baitzinuen ekartzen hitzeman dotia?»

— «Duela zazpi urte, etxe buotan, behin,
Ez zirea oroitzen zer zinuen egin?
Ezkonduko zinela segurki enekin,
Hitzeman zinerautan juramenturekin!»

— «Ene hitzemaiteak ez zuen balio,
Gogoetan egon naiz ait'amekin gero;
Doterik ez duzula mintzo dira oro,
Hortaz ez dut gogoa lehen bezen bero».

— Emaztegai bat badut egiña beria,
Hogoi mila pixtola duena dotia,-
Bertze bat atzemazu ni baino hobia;
Ni neureaz kontent naiz,- adiós, maitea!»

— «Zazpi urten buruan, despegida horil
Aise egiten duzu orai nitaz in!
AraTerian[12] zerbait nik eran» gatik,
Ez nauzun galdaturen sekulan doterik...»

—«Zuhauren falta dela, kontsidera zazu,
Aspaldian baitzira zu nitaz trufatu;
Dolutu zautzu, bainan ez duzu probetxu;
Adiós, bai, maitia, fortuna egizu!»

—«Eni emanarazi hitz eta fedea,
Hortan kolpatzen duzu Jaunaren legea,-
Afasta bat han bada ikaragarria:
Fede ukatuentzad ifernu garia!

—«Kontzientzia garbi, adiós, maitea,
Nere ganik hor duzu orai despegída;
Zure ala enea ote den egia,
Lekuko ¡zanen da zeruk'Eregea!»

—«Belaunikatzen nuzu zure aintzinean,
Ene falta guziez pena bihotzean,
Ez nezazula kita orai ez bizian,
Biak biziko gira gostura munduan!»

—«Xuti zaite, maitea, indazu eskua,
Bihotza arailtzen[8] zaut hola ikustea!
Ez zaitut kitaturen egun, ez bizian,
Biak biziko gira gostura munduan!»

—«Urtubiak'alaba begira zaudena,
Zuk emaiten dautazu bihotzean pena!..
Zu zaitut bigafena, hau nuen lenena:
Hau galtzen dutanean, jinen naiz zu gana»,

—«Ez ote naiz bada ni hori bainon hobe,
Nahiz gorputzez eta ontasunez ere?
Nik badicut neureak sei mila untz-ure,
Heien erdiak zure zerbitzuko dire...»

—«Zuk sei mila untz-ure, nik bertze hainbertze.
Cu biak elgafekin ongijin gintazke...
Bainan, fedea diruz ezin eros daite,
Hura huni emana orai zazpir urte!..

—«Ene maitiarekin gostura naiz emen;
Otoitz egin dezagun oro salba gaiten,
Hil eta zeruetan sar gaitezen xuxen,
Ene esposarekin sekulakoz, Amen!»

)) aseratu; *1)* buen humor; 3) partir.

E. S. DODGSON

1857-1922. Inglatera'u jaioa izan aren, ogei ta amar uttetik gora euskal-barutiao emona. Or-emenka, gauza zar bila erne ibili zan, asko irakuri ta idatziz. Berein eletaa idatzi ta be, eusko-idazle izan oai eban. Bertsoak neurtzen be saia zan, garai artako gizonik ospetsuena^ Beoedjto XV'garenari, Españia'ko eregeari ta abar, eskiñirik.

402. KANARI TXORITXOA

Nik bai-nuen árame kaioltxo bat,
Non barnean jartzen txoriño bat,
Maítagafi anbat eta alegera
Non pentsatu ez daite geiago:
Ori baitzen kanari txori bat.
O kantatu nola zuen ederki,
Eguzkia ilki zen orenetik
Sartzera eldu zen arartiño!
Eta zuen bere kularatxoa
Ots-autsiaz beti anbat betea,
Non kantatxo bakotxaren emaitez
Erdikatzen iduri litzaioken.
Berdea zen aren luma jaunzkia,
Eta beltzak, gaua bezain, begiak,
Zeiñek ikertzen al zarotzuten
Ain (eialki kanpora mundua.
Egun batez aren boaustatxoa
Otseztetik, ai! gelditzen asi zen;
Kaioltoan etzana una baitzen,
Otztatu zen bere biotz berua!
Egurezko boeita txipiño bat
Eman zakon aren i]-kutxarentzat;
Nik ekari dut gaur obiratzera,
Argi zaiten ordu dirdirantenaz.
Jagoitiko lo dacza txoritxoa
[saiaren ondoan, belarpetan;
Diamanta nigafez bustitzen du
Gabek aren obiaren baldía.

BETTIRI OLHONDO

Cizonki antolatua dogu itxas-olerki bikain au. 1862'an, Uruna'n eusfcal-poesi-jalak,an saritua baita ondoren damofzudana. Ba-ditu geiago be, oso politak.

403. MARIÑELA

—Mariñela, leihor-baztefetik huna
Bihotzño bat zutaz oroit dena!
Itsasoa zoin den aldakofa!
Zu, mariñela, ez, otoi, kanbia!

—Ez, maitea, ez zaitut ahanzten, baiño
Gau-egunez, gogoeta nago!
Itsasoak badu oío frango:
Ene bihotzak zutaz gehiago.

— Mariñela, altxa bi begiak goiti,
Jainko Jaunak beira zaitzan beci!

ítsasoak du axola guti,
Gure biziak diten biak fundi.

—Ez, maitea, ez beldurik izan, zeren
Uhin[1] beltzak saltoz ari diren!
Itsasoa bezenbat bederen
Ene bihotza zuretzat da jauzten*.

—Mariñela, galerna gauetan nola
Ez ni orok urean zarela?
Itsasoa, oi, etsai krudela!
Bai hastio[0] hut ohoin[4] bat bezala.

—Ez, maitea, itsaso ederak ez du
Gure ganik merexi afruntu!
ítsasoak hazi behar gaitu
Eta portuan elgari juntatu.

I) olatu; *1)* salto egin; 3) narda; 4) lapufa.

ETIENNE DECREPT

Bere opera edera: *Maitena,* Ots aundia atera eban XlX'gafen gizaldi azkenerantza. Ekitaldi bi ditu, itz neurtu ta lariz. Bilbao'ko *Campos Elíseos* antzokian antzeztu zan lenengo aldiz, 1909'ko maiatzaren 29'aij. Ba-ditu ipuin politak be.

404, MAITENA

(Zatika)

Txomin

Amodioa zer den aitzazu, Maitena:
Gizonaren nausirik izigafiena,
Hegal-ukaldi batez ukitzen duena.

Maitena

Esklabo izatia: oi, zer zoriona!...

Txomin

Zorion handiena ginduke oraitik,
Elkarenak ba'giñe nausi horen gatik.
Bañan libro ba'zare harén ukalditik,
Ez bazaitu gidatu ni ganat eskutik,
Eztut pena kenduko ene bihoczetik.

Maitena

Zorionian nahi dut bizi oraitik,
Elkarenak ba'gare nausi horen gatik.
Kolpatua naiz ere harén ukalditik.
Aspaldi gidatu nau zu ganat eskutik:
Penak kenduko ditut zure bihotzetik.

Zu, maiteño puíita, ikusi geroztik,
Jan, edan, lorik eztut egiten zu gatik;
[gaiten zarenian etxe aintziñetik,
Eztezakezut eran nola nagon xutik...

Xa din

O, zer nigafak! Zer egun beltzak, ene ahaizpa maitia;
Zer trixtezian utziko duzun bihar etxe hau guzia!
Gure aldian, nahi ba'zindu, uros zinduke bizia;
Etzen balio mutil batentzat zorion hofen gaitzia.

Maitena

Behexi[1] dutan mutil hofekin nahiago dut sofritu,
Ezenez eta eskasik gabe bertze batekin zaharcu.

Xa din

Segi zazu, ba, oraintik beraz, hautatu duzun bidia...

Maitena

Ez naiz ez segur ¡zanen dela beti arosek gordia...

Xa din

Erortzen bada zure gañerat pena bat aski handia,
Oroit zaite nik nahi dutala hartarik beden erdia...

Maitena

Zoin ona zaren, ene Xadin, ene ahaizpa maitia...
Zoin trixte naizen zutarik ufun eta betiko gatia...[8]
Zure aldian nahiko nuen uros iragan bizia..,
Amodioak gomendatzen daut zorion horen gaitzia.

Piares

Uutsa eginen dun emendik gatia
Ezpadun nahi nik bortxaz bialtzia.

Xa din

Ez erakuts, aita, bisai bortitz hori
Halako penetan ibili denari.

Piares

Berak bildu penak kafia detzala,
Lenengo loriak zituan bezala.

Ba/ix ta

Xorokeri hetaz egun da ahalke.

Ma i f en a

Gau hartan egiña gaur egin nezake!

Piares

Entzuten duzue madarikatua,
Gorago kantzaten bere pekatua!
Hua bereala! Hua, ba, emendik!
Senafik eztun! Eztun aitarik!
Hua, bidez-bide, denen azpiko,-
Batez esker tzar, bertziaz ostiko!
Hori dun hori, hik nierezia!
Gakoz besten haut gure etxia!
Hua berehala, hua, ba, emendik!
Senafik eztun... Eztun aitarik!
Eztiñat behar neska galdurik!

Xa din

Nahi ba'duzu egin uros bat,
Otoi, efazu baietz, Maitena!

Maitena

Eztut eranen hitz bakar ori,
Nahiz bihotza bildu dautazun,-
Sobera apal bainaiz erori...

Aita, egoitza, anaiak egun
Eta betiko galdu onduan,
Bizi nahi dut etxetik ufun.

Mantalin beltxa befitz buruan
Aintziñat nua!.. Milesker zuri.
Jafi artiño zure lefuan

Eztut efanen hitz bakar ori.

Ganix

Orai, efazu baietz, Maitena,
Bat bertziari estekaturik"
Segi dezagun bide xuxena...

Maitena

Zurekin banaiz, eztut beldurik:
Gerta ditazken itzulientzat;
Mun har nezake lagun hoberik?

Ganix

Zato, ba, ziñez, gure etxerat,
Han izateko denen lehenena.

Den ek

Nahi ba'duzu egin uros bat,
Orai efazu baietz, Maitena!

Maitena

Ba, efaten dut, eran nuena!

Denek (kantaka)

Zorion handi bat egun
Guk ere kanta dezagun,
Gure kopetak egon ditezen
Beti orain bezin legua

1) aukeratu; 2) juan; 3) lotu.

KAMOZARI APEZA

Zubero'tar gazte au, apaiztu ta laster, gaitz epelaren mende jausi zan, ta lar txarto dirudienez. Zer egingo? Baztefean etsitu? Bai zera! Naita mia-oean etzuna odola zanetan oztu, bereak bai gogoeta cdefak eriotz aurean! Sakon ta oskidetsuak, ziñez, kanu onen azkenasperenak! Ba-ditu beste zenbait be: *Mendlkula. Bertsu eskasak. Nere adiskide baten herioaren gaiñean, Lamusaregl'rl, Harlspe jeneralari, Ene Uraren auhenak, Eskal/ma bat Oarazi'n* t a. Guztiok ez dabe oindiño argirik ikusi.

405. ENE GOGUETAK

Menditik nola doha ura itxasorat,
Hala ni ba-niola, lastefa, tonbarat.

Akabo da, akabo, neretzat denbora,-
Ba-noa sekulako hilen hefítara,

Bildotxari otsoa nola zaio lotzen,
Aranoak usoa nola baitu hartzen,
Hala nau herioak krudelki besitzen.
Oi, nere heiagorak[1] ez du, ez, unkitzen!

Aspaldian fuñetan nakarken sartua
Hil-heíirat naraman min pozoatua.
Dotorezko ohean orai itzatua[2],
Senditzen dut zanetan odola hoztua.

Segó nola baitu su goriak urtzen,
Hala ene bizia du gaitzak iraungitzen[3].
Ez dut, ez, gehvago senditzen bizirik;
Hil baino lehenago hila naiz jadanik.

Trunko baten pareko ohean etzara,
Ene gorputza dago gaitzak uren jana,
Ezin ditazke higi ene menbro hotzak;
Mihia dut lodi, begiak zorotzak.

jadanik ezin adi mintzo zaizkidenak,
Erdi ikusten, erdi, nere maiterenak.
Hela hil aintzineko izerdi hormatuak
Dauzkit behin betiko gogortu inenbroak.

Orduan apezari oihu deihadarka,
Hiltzen naizela hari, har dezan lastera,
Ama zaizko eman nígar maraskarí;
Helas, etsimenean nigafa sokori!

Eriaren otoitza duela egiten,
Daut azken-laguntza apezak ematen;
«Arima girisrino, Jainkoaren haura,
Hoa, parti hadi, - dio—, Abram'en soñera».

Dolamenekin gero, zeruko sainduak
Neretzat bitarteko dire galdatuak.
Jendeak belauniko ene ingurutap,
Halabiz erateko nere ingurutan.

Bolsua zaut baratzen, xipitzen bihotza:
Ai! ezin diot hartzen, ezin diot hatsa.
Har zazu, o Jainkoa, har ene arima!
Ba-noha, a! ba-noha,- adió, ena ama!

Ene arima gan da, bertze mundura gan;
Dohatsua hil ba'da Jaunaren bakean.
Lurean da gelditu ene gorputz hotza,
Harag'erdi usteldu, hiratu afrusa.

Bertzek dautet zaratzen aho gogortua,
Bertzek eriez hesten begi obeldua.
Mihise zahar baten barnean gordea,
Naute kaxan ematen. Oi, nere zortea!

Oihu suiñez ezkilak mezutzen' du jadan,
Gizon bat heriok duela eraman.
«Jainkoak dioela miserikordia»,
Diote berehala, et'hofa guzia.

) gemido; 2) untzatu; 3) coosumir; 4) publicar.

XALBADOR

Bertsolari iiun samara. Alao be, iduripen egalaria dau, ta goxo> tankera. Ikus urengo au.

406. OILOA ETA MIRUA

Oilo batek umeak
ba-zituen berekin,
hegalpean gordea
ahalez artarekin.

Haurak gosetu zaizko,
norat egin ezjakin;
laster hetaratzeko
mokoan bazkarekin.

Doha oilo gaixoa,
bihotz-minez artua,
familia osoa
ohatzean bildua.

Betan etsai gaixtoa
jausten zaio mima;
oi! zein bertzezkoa
ama hunen gudua!

Umeen auhen-inina
aditu dueneko,
airez-aire da jiña
liekien salbatzeko.

Oiuka: — «Gaiztagina,
hatsa daukat kenduko.
Halere nik fin-fina
ohatzea zainduko».

Miruak ihardesten:
— «Egaritua nago;
odola dut edaten,
zuena nahiago».

— «Behar ba'duk odola,
oilo-odol garbia,
eranen dauiat nola
hil hire egaria.

«Hire moko zorotza
sar bihotzean niri;
egin ase bat gaitza.
Bainan deus haureri».

Ixildu da doi-doaia,-
hor dohako gainerat
oiloari etsaia,
biziaren kentzerat.

Moko eta ezproina
sarturik biotzean,
ase da gaixtagina
amaren odoíean.

Hire pareko, Satán,
miru gaixto debrua,
zorotz az ta pa fe tan
funditzen dik mundua.

Ume begien pare,
aitor zazu egia;
zu, gizona, zu zare
odolaz erosia,

Oilo-ama maitea
da Jesus gure Jauna;
guretako hiltzea
jasan izan duena.

Ifernuko miruak
paradisu-lurean,
lehen bi burasoak
eman zorigaitzean.

Galduak ikusirik
Ama Salbatzaileak,
odola ixuririk,
begiratu umeak.

MARTIN EGIATEG!

Urindjk entzute gnitzez, ara ezkero ezer ez, sari gertatu oi yako eusko gazteari; ofelaxe Rure olerkari oni be. Itxasoz-andiko abarotsak sorteria izteko su-larna biztu-erazo, ta gero, sabela zimurik, amesen bildurik, begia ¡lunik, doi-doi bizirik. Zori gaiztoa! 1853'gu. urtean, Urune'ko J3¡etara bidalia dogu olerki au, ta *Mesager de Bayonne-n* argitaldua

407. ESKUALDUN

Gazte nintzen oraino,
Aski efana da,
Adin hartan gutiño
Gauza pisatzen da:
Aditu nuieneko
Montebid'en fama,
Hefiaren uzteko
Lotzen zaut su-lama.

Ni airatzeko bezen
Tratantek hertzeko,
Sareak prest zauzkaten.
Dena eraiteko,
jaun hekien mihian,
Ez da dudatzeko,
Ontasunen herdian
Nahjz behin betiko.

Ederki lildratu
NJutenean elhez,
Ninduten amafatu
Ziñez eta legez;
Gero, atxikitzeko,
Portuan auhenez,
Bizitzen ikasteko
Nituenak janez.

Pasaiko denboraz
Gaitzik efaiteko
Nihorke2 du menturaz,
Klarki mintzatzeko:
Xardin begi-gofi
Han ziren jastatzeko,
Bihotz altxagari
Aíain zuri amuko.

Hala ginduen ere
Sabela zimurik,
izan gabe batere,
Ametsen beldurik;
Goiti-beiti agudo,
Begia ilhunik,
lkusi Montebido,
Doi-doia bizirik.

Biziaren erdia
Baita esperantza,
llntzíko miseria
Ahantzirik datza,
Zelakotz leihorian
Zioten, multzoka
Ure, zilbar hician
Biltzeko ahurka[1].

Bainan enganioa
Orai dut ikusten,
Ene erokeria
Ongi deitoratzen^.
Amets eder batetik
Nola den ikitzen,
Ontasunen erditik
Eskale huts níntzen.

Uruneko eltzea
Erana da urez,
Ikus beza etxea,
Aurkitzen da lurez.
Zer eran gutxiago
Atzeman gaixoez,
Ogian gehiago
Gasnaki emanez?

Alde guzietarik
Hunat etofiak,
Edo zoin motelarik
Gizon galgariak:
Irabaziak xuhur,
Ardura gastuak.
Gaizki ez laizke segur,
Kartzelan sartuak.

Nonbait balu jendeak,
Nonbait deskantsua,
Ba'dire langileak,
Non da sosegua?
Batean gerla eta
Bert-zean ohointza[8];
Nun-nahi kanibeta,
Noiz-nahi hotza.

Lur batetarik salto,
Ia bertzera kufi,
Hemen gabiltza suelto
Nigar egingari.
Hain ongi nintakena
Nere sort-hefian,
Zer jan-edan nukena
Aita-amen aldian!

Nun zarete gazteko,
Oi! lagun maiteak?
Nun dire pestetako
Gure jostatzeak?
Zer alaitasun eta
Zer alegrantzia!
Hala iraungi baita
Orduko bizia.

Aldiz hemen trumilka
Gabiltza, trísteak,
Elgaíentzat beldurka.
Zer dohakabeak!
Ardurenik halere,
Mairuak iduri,
Eman gabe batere
Kondu arimari.

Oraintxe ezagutzen
Dut ziñez egia,
Beranxe auhendatzen
Ene haurkeria.
Bat bederak hargatik
Gerorat guardia,
Bederen[4] kasko dunik
Hunat ez abia.

Har zazue etsenplu,
Nere Eskualdunak,
Ez zeren enganatu,
Gazteko lagunak.
Hor berean duzue
Segur ontasuna,
Beiratzen ba'duzue
jaraikitasuna.

Hitzño bat zuretako,
Areba Katalin,
Xuri guziak oro
Ez dire, ez, irin.
Ezaitzu gaitzituko
Eraitearekin:
Presuna ohorezko
Barño hunat ez jin.

Bat bederak dezala
Jaio den befia
Preza, ama bezala,
Lur maítagafia,
Duelarik segitzen
Bizitze moldea:
Hortantxe da aurkitzen
Zeruko bidea.

!) eskuka; *1)* negar egin; 3) lapuret.i, <0 beintzat,

ÑABAftO

Bidarai'n sortua. Ez eban, damuz, askorik idatzi. Baiña ba-dau idurimen azkar.! ta edera agertzeko bear dan antze, Ikusi *Eskufíldun Kantaria,* 102 or.

408. BI ARAÑO HIRUR BELERI

Prantsez hefia, gure Jainkoak
Híre gaiñean zauzkak begiak!
Orai artiño hedatu dauzkik
Ongi handiak zerutik.
Hogoi bat urte dituk iragan
Bakar-bakarik zoko batean;
Egun, Frantzia, Ipar-aldetik
Adixkideak jin zauzkik.

Gau ilun eta beltzetik landa
Izaiter huen azken-kolpea,
Belek ez nahiz jeiki hindadien,
Sendatzerik ez onesten!
Eta orduian gure hefia
Oino sobera ez azkartuia,
Ikaran eta auhen-minetan,
Hindagon hortzak kafaskan!

Bainan, Jainkoa bitaz oroitu,
Hire bihotza ordutan boztu:
[pafetikan jin zauku guri,
Laguntza eta sokori!
Nort'Aranuak eman dik boza,
Hegal-koípe bat gero guardia!
Orai zatozte, hirur *beteak;*
Biga gaituk nagusiak!

B¡ aranoak hirur beleri
Beti guardián beha dagozi,
Noiz igituko diren hirurak,
Noiz altxatuko banderak!
Gure Jainkoa eta Rusia
Prantzia'rentzat balin ba'dira,
Jin ahal daizte ifernutikan
Beleak oste handian.

Rusia, beraz, da gure alde,
Orduz geroztik beleak gorde,-
Ordutik ere gure zauriak
Oro dire estaliak!
Nort'aranuak hek perekatuz,
Hemendik hura guk sustengatuz,
Hegalak zabal airea gaude
Sekulako adixkide!

Urte gutiren barnean dugu
Adixkidantza ongi finkatu.
Geroztik elgar dugu pestatu;
Ba-goazi eskuzesku.
Bien indarak baten emanez,
Nor trufako da bi afanoez?
Goraki diot: —«Biba Prantzia!
Biba, bai, biba Rusia!»

409. B1DARA1TARA

Mila zortzi ehun eta hemeretzian,
Uriaren hilaren bederatzián,
Umore ona nuien hauien kantatzian,
Gazte eta alegera, trankil bihotzian,
Ontasuna frango badut interesian,
Deusik ez etxian;
Orai bezain aberats nintzen sortzian.

[SJor-nahik zer-nahi eranikan ere,
Bidaraitafa nuzu, bai nahi ere;
Etxeko seme ona, segurki halere,
Nlahiz ba-den herían hobexagorik ere;
Ba-ditut bortz haufide, enekin sei dire;
Oro adixkide,
Dotiaren gaiñetik sumurturen ez gire.

Aita ezkondu zen gure amarekin,
Ama aitarekin, biak elgafekin;
Orduian gazte ziren, bertze zerbaitekin,
Eta orai zahartu miseriarekin:
Ontasuna igofi bertze haufidekin,
Parte bat enekin;
Enekin baino haboro bertze bortzekin.

Aita zen etxeko, ama kanpoko,
Jainkoak egin'tu elgafekilako.
Hirur mutiko eta hirur neskatoko,
Haurik aski ba-dute aisa bizitzeko.
Balin-ba bertzerik ez zaie sortuko,
Ez da fidatzeko;
Arazá nasaietik bai-tire, hora zertako.

Adinen beha gaude egia efaiteko,
Gure ontasun ororen partitzeko.
Diru idora ere ba-da bizitzeko,
Jainkoak daki zenbat den bakotxarendako;
Zaiteo ba'dugu, ez dugu utziko
Auzokuendako;
• Bainan ez daikugu sakelarik efeko.

Hemen ba-girade orai zenbait lagun,
Botoila bana arno edan dezagun.
Lehenik, ona denez jasta dezagun,
Ona baíin ba'da bira edan detzagun.
Trinka dezagun, plazer bar dezagun,
Bila zenbait lagun,
Diru dianak ¡zanen dik ezagun.

Etxeko anderia, zure trixtia.,
Iduritzen zaitzu gírela diru gabia.
Dirua ba-dugu, bainan dugu (aria;
Zor utziren dautzugu gaurko afana.
Etxeko anderia, emazu guardia,-
Har pazientzia.
Noizbeit ¡zanen duzu pagamendia.

J. MARTIN HIRÍBAGEN, APE2A

egin ez-deuse(arik;
betidanik zen ber-bera,
zena bere baitarik
Mundu hunek ez du nihor,
Jaungoikoaz bertzerik,
ez haztetrk egiterik,
ez iraun-arazlerik.

Jainkoa da izate bat
diteken bandiena,
betidanik zen bezala
beti ¡zanen dena.
Izpiricu gai bi bat da
gorputzik ez duena,
ezin ikus, ezin uki,
ezin negur daitena

Ontasun bai edertasun,
indar eta bocere,
nausirasun, jabetasun,
guziak ditu bere:
gu denak harén meneko,
harén eskuan gare;
hark emanik baizen ez da
gutan onik deus ere.

Iraganak, oraikoak,
etorkiznnekoak,
gure gogoetak berak,
bai nola-nahikoak.
Guziak ikusten ditu
agerian Jainkoak;
debalde dire harentzat
ilunpe ta zokoak.

O Jainko egiazkoa:
zu zaitut adoratzen;
ahuspez, ni hain ez de usa,
natzaizu ezeztatzen.
Naizen guzia zuk nauzu
egin cta betraizen.
Oü ni zer bihotz gabea,
ez ba'zintut maitatzen!

465. HlRURTASUN SAINDUA

Sinesten dut Jainko bat
hiru presunetan,
Aita, Seme, ízpiritu
deitzen direnetan.
Bakotxa Jainko bat da
biru henetan.
Bainan Jainko bat baizen
ez da hiruretan.

Aita lehen presuna,
Semia bigarena,
ízpiritu Saindua
da hirugarena.
Zein da zahafen edo
boteretsuena?
Hiruek berdin dute
bakarak duena.

Hiruak betidanik
berdin dire denez,
izatez, bai boterez,
bai Jainkotasune^.
Hiruak bat izatez,
bererxak presun<?z;
hiruak jainko bainan
Jainko bat baizen ez.

Ene adimendua,
hemen suntsi hadi;
human har zak fedea
argi ta gidari,
iSinesten zaitut» efok
mixterioari,
bat beizik ez denaren
Hirurtasunari.

Aita, Jainko zarena,
zure botereak
zeru-lurak daduzka
gaindizka beteak.
Bizia, herioa,
egunak, urteak,
dire zure nahien
egin~ara?.leak.

Aitaren ganikako
Seme eternala,
Jainko egiazkoa
Aita den bezala;
zu gizon egin zare,
iiii ere bai hala,
gure annodioak
ekafiz hortara.

Izpiritu Saindua,
zu ere Jainko,
Aita-Semen batasun
ainodiozkoa,
bien zafaizkoten
argi ta gozoa.
Susta diezadatzu
bihotza, gogoa.

466, JAINKO GIZONA

Jesus ona,
Jainko gizona,
Zu zare, zu, gure zoriona.

Oi! zein gaitz zen, zein etsigafi,
bekatuaren kaltea,
ez ba'litz gutaz urikari
gertatu Jainko-Semea!

Bekatuaren hutsa nor zen
ezeztaraz zezakenik?
Aitari buruz Semea baizen
ez zen ahala zuenik.

Zuhaur zinen, Jainko-Sernea,
gure ordain bilakatu,
eta mundu dohakabea
hola zinuen salbatu.

Hartuz gureak beza lako
gorputz eta arima bat,
Birjina baten sabeleko
haur zinen jaursi gutarat.

Izpiritu Saindua ganik,
Birjina guziz garbia,
Zu beti birjina izanik
amatu zinen, Maria.

Hora izate jainkozkoa
gugatik haragitua,
Jainko-Gizon, Gizon-Jainkoa,
ordutik Jesus deitua.

Jainkotasun, gizontasuna,
bi natura ditu betan;
bainan bakara da presujia
bi natura horietan.

Jainkoaren zinezko Ama
baita Birjina Maria,
izen hoi du zuzen emana,
jainko-Semetik jafia.

Gizontzeak ez du gutitu
Jesus'en Jainkotasuoa,-
Jainko-Gizonak du goititu
berekin gizontasuna.

Gizonaren jainkoztatzeko
Jainkoa da gizon egin;
su zeruraiño a I txa tzeko
zerutik da luíerajin.

Guretzat gizon egin eta
Iiii zarena, Jesus ona,
zuk merezituz baizen ez da
salbatzen ahal gizona.

Jainkoaren Ama saindua,
guk ere Ama zaitugu.
Ama maite boteretsua,
ai! uri kai zakizkigu.

467. JESUS'EN AZKEN-APARIA

Adora dezagun
mendeen meodetan
Jesus Jainko Jauna
Sakramendu huntan.

Jesus amodio? bihotza gaindian,
Zein miragañ zen azken-afarian!
Guretzat zelarik hiltzerat abian,
Gcrokolz ere zen gurekin nallian.

Apostoluen eraten diote:
«Ni gaur saldua naiz; bihar hilnen naute.
Aitaren ganako denbora zait bete,
Huna orai zenbat zaituztedan maite»,

Ogia harturik mintzo da Jainkoa;
«Hau da ene Gorputz gurutzerakoa».
Cero kanbiatuz orobat arnoa:
»Hau dut ene odol ixuri gogoa».

• Ene gorputz hau da zuen janaria;
Ene Odol hau da zuen edaria.
Hautan dut (inkatzen Testament beria,
Zuekin neraukan bihotziokafia».

Sakrifizio ta Sakramendu Saindu,
Jesus'ek egoitza gurekin hemen du,
Gu nahiz altxatu, bera da apaldu;
Oro nahi gaitu bere gana bildu,

Ogi eta arno itxurez iduri,
Itxuretan Jesus itzaltzen da guri;
Izatez bargatik ez amo, ez ogi;
Jesus ber-bera da Sakramendu hori,

Aldare sainduko Sakrifizioa
Ber-bera da nola Galbario'koa,-
Berdin-berdina da bien balioa,
Bietan bera da Bitima Jainkoa.

Gurutzean Jesus odolez hustu zen;
Odol bera dugu Mezan ezagutzen.
Bainan Mezan ez du odolik íxurtzen,
Pizturik ez baita gehiago hiltzen.

Iduri bakotxa zatitzen denean,
Jesus osorik da zati bakotxean:
Jesus ez da hausten, ostia haustean,
Ez eta mendratzen, hura gutitzean.

Mixterio huni, o kristau maitea,
Gorputzeko begiz bakafik ez beha;

Huntako begia da guziz Fedea.
Bihotz garbiak du bixta lioi bobea.

Jaten du juscuak, joten du gatxioak;
Barnez nor -¿er garen ba-daki Jainkoak.
Cerokotz hargatik zer ondorioak!
Loriazko edo zorigaitzezkoak

Hutía Aingeruen Ogia nun dugun,
Zeruko bidean hazkuru ta lagun.
Nor ere ez baita gaibi, ez fededun,
Huncarikjan gabe geldi bedi ufun.

Jesus'ek nahi du gohazkon guziak,
Arimak xahurik, xuritan jauntziak;
Ez bagare harén haragiz liaziak,
Ez dezake iraun gu bailan graziak.

Jesus'ek ,';u baitan delarik egoiten,
Oi! zenbat ¡grazia darokun emaiten!
Cu ere lortos Iiii eta pitz gaiten,
Bera da hazitzat gutarat eraiten.

Adoratzen zaitut, o Jesus maitea,
Aldarettk zaude orai niri beha,
Ezagutzen nauzu ni bekatorea,
Lirika! zakizkit, o Salbatzailea!

46S. IZAR DISTJRANTA

Izar distlraiita,
Jaunaren lilia,
Dugun orok kanta:
Agur, Mana.

Zu zinen hastetik
berex ezafia,
Lehen bekaturik
garbi-gaibia.

Sainduen artean
denetan gorena,
Jaunaren gorteail
zare lehena

Zu zare Jesus'en
Ama dohatsua,
Zu be ka to rosen
ilies lekua.

Zu zare sainduen
zeruko gozoa,
Eta Aingeruen
bozkarioa.

Zeruko grazien
ardiestailea,
Zu zare guzien
laguntzallea.

Cure etsaiekin
guduan, zu gabe,
Gure Indarekin
gu deus ez gare.

Munduak engaña
eta gal ez gaitzan,
Har gaitzatzu. Ama,
zure gerizan

Oren latzgaria
heltzenzaikunean,
Zaude, o Maria,
gure aldean.

469. OTOI, AMA MAITEA

Uholde baten pare orai bekatuak
Gaindiz bazter guziak ditu hondatuak.
Nun dire fededmiak? nun dire justuak?
Azken eguna hurbil ote du munduak?

Otoi, Ama maitea,
ufikal zaizkigu,
Jainko zure Semea
hasafe baitugu.

Nor da gure artean eran dezakenik:
«Ez naiz ni deusen beldur,- nik ez dut hobentk?»
Zuk dirozu, Maria, hain garbi izanik,
Gure grazi ardiets Jainkoaren ganik

Gizonen arbuioek aserik Jainkoa,
Bere azotearen higítzera doa.
Nork orai atxik jiro Jaunaren besoa?
Zu zare, zu, Maria, indar hartakoa.

Jaunaren justiziaz ikaretan gaude...
Otoi, Ama, jar zaite zure haufen alde.
Harén gana nor hurbil, nor ager zu gabe?
Zu zaitugu zu harén bihotzaren jabe,

Jauna, aitortzen dugu: gurarik hainifzi,
Zuri zer zor dautzugun zitzaigu ahantzi.
Gure Fedea dugu apaltzerat utzi. .
Eskualdunaren ganik hori zaitzu gait2i!...

Lenengo Fede hura befiz pitz dakigu»,
O fededunen Ama, zuk gaitzatzu lagun.
Bai! Eskualdunek hemen hitz eman dezagun,
Beti ziñez ¡zanen garela fededun.

Elizaien argia Efoina'n hain handi,
Gai;xtaginen nah'ra laíte hrl balad)...
Zuri gare, Maria, denak oihuz ari:
Emozu bitoria Aita Sainduari.

Otoi, Ama maitea,
urikal zaizkigu,
Jainko zure Semea
basare baitugu,

470. APEZ BER1 BATENTZAT

Apez soberanoa,
O Jesus, zare zu,
Gure apez huntarik
saindu bat egizu.

Gure apez gaztea
hora aldarean,
Jesus'ek ezana
bere podorean:
Heritarak Kor gaitu
oro bihotzean:
Guretzat ari zaiku
orai otoitzean.

Konsekrazionean
zure efanera
Zerutik jausten zaitzu
Jesus aldarera:
Jainko gizon egiña
bizirik ber-bera,
Zuk einaten daukuzu
ogitzat jatera.

Horen aita'mek dute
ohore atsegin,
Beren semea apez
baitzaiote egin.
Haur hauretik zioten
Jainkoak galdegin;
Dohainik ederenez
du orai beregin.

Jesus'en hunkitzeko
zer esku garbiak,
Ahal zaduzkan Aiña
Birjina Maria'k!
Zureak ere dire
sakratu beriak,
Krismaren gantzudurez
oraino bustiak.

Oi zein dohatsu zaren
zu, gure apeza!
Zein hunkigari zaikun
egun zure Meza!
Zure bihotzak Jesus
hor besarka beza,-
Zorion handíenaz
orai zaite goza.

Zu behar zare izan
arimen argia,
Zerurako bidean
Iieien gidaria,
Ardi galdu direnen
artzain bilharia,
Guziz bertutearen
ecsenplu garbia.

Hor zure inguruan
Aingeruak tre
Jesus'en adoratzen
ahuspeka daude;
Zu xutik, hor, hek baino
gehiago zare;
Ez dute zuk bezenbac
hoiek hor botere,

Apezaren bihotza
beti zabaldua,
Be1<atorosarentzat
zer ihes lekua!
Huni aitortuz geroz
egin bekatua,
Uriki duenari
zaio barkatua.

Azken orenecarat
hurbildua denak
Apezaren laguntzak
ditu beharenak.
Hark eman Sakramendu
biziko azkenak
Dire ondioa
eterna! dutenak.

1THLI&1A-HEUTI

Donibane-Loitzuoe'koak. lkusi Lafltte-Ithwfalde, *Le Basque et Ia littérature d'expression basque en Lobourd, Basse Navarre et Soule,* 51 or, ta *Efepikan, 61* oí. l3a-ek¡eo egileak, eta ondo samar, gure andratxo eleiz-zokoíaleen fjafi.

471. BEATA.K

Kantatzera noa ni omore onian,
Sujeta kausíturik Azkain'go herían.
Nahi dautzuet eran hemen konpainian,
Zer liliak ditugun beaten artian.

Elizan kantatzen da: «beatam me dicent!»
Holako egiarik guti da aditzen,-
Orai hastera noa ni noren fragatzen,
Bertsutan naizelarik beatez mintzatzen.

Beatez mintzatzian, erazu non-nahí:
«Dotzena bat beata, medisent hamabi!»
Zonbaitez xoiiki hemen naiz mintzatu nahi:
Heiek izanen dira guzientzat bahi.

Elizatik ez ufun dira lau presuna
Atábala karikan jotzen dakitena:
Tatxaío bat ba-dute, orok dakitena:
Mihia luze, sarkor, iduri eztena!

Hola nola erlea, kofoin-bazteretan,
Lorez-iore dabila egun ederetan,
Hala gure beatak dabiltza etxetan
Nondik zer beri ikas, saltzeko bertzetan!

Oraino aditua eraiten balute!
Bainan joste-brodatzen ederki dakite;

Berga bat eros eta biga saltzen dute,
Ofizioa oncsa ikasi baitute!

Ibiltzen dira bada usu konfesatzen-.
Zer ote dute hantxet xilorat botatzen?
Erdiak eran-eta, bertzeak gordatzen.
Mendisentzia ezta etsaminan sartzea.

Igande-aste-egun elgafekin dire:
Lan eginaren aras adixkide dire,-
Trufan eta musikan bertzez ari dire,
Ez balute bezala tatxarik batere.

Aitzinetik pereka, gibeletik jora,
Da egun bakotxeko heien lan bakara.
Imitatuz ederki anímale tzara,
Zoínak baitu eskuaraz izena «zakurav

Adinak ez diote zentzua Eipitu,-
Ez dute egundaiño untza bat izatu!
Beharko dute naski mutxurdin gelditu,
Ez hartzekotzat zenbait kabeza xuritu!

Bizpahiru ba-díre ezagut-erexak,
Denborak baitiozte eman bere tatxak:
Batek larua ximur, bertzeak hortz motxak,
Berogoi urte segur baituzte bakotxak.

Guzjek balukete ezkont-gutizia,
Norbaitek nahi balu andre hilz-untzia;
Inkanta dadiela botiga guzia,
Azkaine'n ez dadin gal beaten hazia!

ZlBURU'ko XANTREA

Iñundiko barikeriak, era oroz, sartzen yakuz guri be. Oneik jasez cok astindu izan dogu zorionez, ta geienean bertsolariak. Olerki adoretsu ta gurenak egin dabez, gizarteko ikusi ta gertaketak gai arturik- Ikus *Ef-epikan,* 36 or., ta *Cskualdun Kantariak,* 64 or.

472. KRIOL1NAK

Bertsuak nahi ditut orai atera;
Ixilik ba'nindago, banuke pena;
Bainan neke da,

Kriolinaz besterik solasik ezta,
Hauxe da pesta!
Satan'ek etzezaken hobeki pentsa!

I ¡.ninian berga oihal, ezta itsusi,
Kriolina batentzat eztela aski!
Ez gaituk gaizki!
Moda befi lehenik nork du ikasi!
Egiten asi!
Paga nezake ongi nor den ba'naki!

Batzuek aisa eta bertziek nekez:
Bazterak bete dire bai kriolinez,
Gauza ederez!
Dupela bezein zabal dire belierez,
Konkorak gaiñez...
Gorde behar litezke jenden ahalllez!

Iragan egun batez zen komedia,
Plaza baten gaiñean ikusgaria.
Hango ¡ria!
Andre bat zen karosan gana nahia,
Ezin abia!
Karosan ez ziron sar... gibelaldia.

Postiluna kaskoina, juramentuka,
Beti kriolinari eskuz pusaka,
Hori dun anka!
Bazterak hautsi nahiz, zalapartaka,
Kopeta joka!
Karosan ez daiteke... hola enbarka!

Lehen mintzatu ginen gu elgarekin
Artoz ezin asea zela gurekin,
Ba-zen zer egin!
Orai andriak denak kriolinekin,
Alabak bardin!
Nola han zaizkigun, nork diro jakin?

Urgulu malurusa! hi habilana
Guri eman-arazten hoinbertze pena,
Bai eta gerla!
Kriolinak emaiten balauk orcna
Hilen hauena,
Gal dadien betikotz hire izena!

JOSE MENDIAGE

Hnzparne'ko semea Gaztetan Ameriketara jo eban, antza; Argeotina'o eta Txile'n luzaro bizirik. Alan be, ez eban bere izkuntza amaren bular gaiñean ikasia, sekula be aiztu.)900'an, *Zazpiak bat, Eskualdun Kantuak* argitara eban; liburu ontako olerkiak, irurogei ta irutik ogei ta bi, bereak ditu.

475. ESKUALDUN BERTSULARIAK

Lehengo bertsulari, zanaren izenak,
Ez ditu ahatzi behar, Eskualduna denak;
Heiek egin dituzte beti obra onak,
Zerbeit ikas dezake hetarik gizonak;
Estimagafi dira halako presúmale,
Ontsa mereziturik ba-dituzte famak.

Bertsulari onak ziren Katxo eta Etxeliun;
Halakorikan orai ote dugu nehun"?
Heiek egin dutena guk egin dezagun,
Debruia utzi eta Jainkoa har lagun;
Bi pelegriño ziren, ohora ditzagun;
Agian Jainko Jaunak, berekin cu egun.

Amesket Sara'n eta Uruña'tjk Tjpi,
Guzíer mintzo ziren eresperuz beti,
Ofentsarik ein gabe sekulan nehori;
Etziren fantesiaz kantu emaiten ari,
Etsenplu ona frango eman dute orori,
Ez dakigunek nahi ba'dugu ikasi.

Aditu dituenak Fermín eta Mados,
Heien bertsu ederak ikasi tu gogoz;
Ez da izan balakorík buruz eta ahoz,
Etziren aise ixiltzen, behin asiz geroz,
Cuzier mintzo ziren beti amodioz:
Hartakotz izan dira, maitatuak oroz.

Zer gizon jakintsuna zen Iparagire;
Hura bezalakorik ez da izan batere,
Hak egin tuien obrak handíak dirade;
Denak amiratuak, heier beha gaude,-
Beti kantatu izan du eskualdunen alde,
Gure kontrariuen beldurikan gabe.

Juan Bautista Otxaide eta Elizanburu,
Heién obrak oraino goguan ditugu,-
Erakutsi daukute nola erespetatu,
Ez ginduke behar nehor ofentsatii;
Jaun heíeri kontseiluak behar tugu hartu,
Ez dakienak bete ikastia on baitu.

Putxuna, Bordaxuri, huna bi hazpandar¡
Isturltze'n kafankak eiten zuen indar.
Oi! Zer bertsularia, Kanbo'n, Lohjotzaf!
Ezin bentzutu dute egundaiño elgar!
Bat bertzia baino hobe, norbeit izan behar;
Guzientzat nagusi izan da Xenpelar.

Bertie bertsulari ainitz izan da munduan,
Ontsa estimatuak gizonen artian,
Kantatu izan dutenak omore onian,
Jendez inguratuak trankil bihotzian;
Guk desira dezagun, betaz oroitzian,
Jainkoak atxik ditzan bere saihetsian,

474. KANTUZ

Kantuz Sortu naiz eta kantuz nahi bizi,
kantuz ¡gurtzen ditut nik penak ihesi;
kantuz izan dudano zer-bait irabazi,
kantuz gostura ditut guziak iretsi:
kantuz ez dute beraz hiltzea merezi?

Kantuz iragan ditut gau eta egunak;
kantuz ekari ditut griñak eta lanak;
kantuz biltzen nituen aldeko lagunak:
kantuz eman dauztate, obra gabe, famak;
kantuz hartuko nauia zeruko Jaun onak!

Kantuz eman izan tut zonbaiten beriak,
kantuz atseginekin efanez egiak;
kantuz egin baititut usu afruntuiak,
kantuz aitortzen ditut ene bekatuiak;
kantuz eginen ditut nik penitentziak.

Kantuz egiñez geroz munduian sortzia,
kantuz egin behar dut, ontsalaz, hilczia,-
kantuz emanen badaut Jainkoak grazia,

kantuz idekiko daut San Pterek atia,
kantuz egin dezadan zeruan sartzia...

Kantuz ehortz nezate, hiltzen naizenian,
kantuz ene lagunek harturik airian;
kantuz ariko zaizkit lurean sartzian,-
kantuz frango utziko diotet munduian,
kantuz has diten beti nitaz oroitzian.

475. ESKUAL-HERIA GURE AMA

Lapurdí eta Baxenabare,
Zibero eta Nabafa,
Gipuzko herí eta Bizkaia,
Zazpi-g^rena Alaba!
Guziek elgar atxik dezagun,
Nliholere ahal bada.
Aiten kostumak segi ditzagun,
Uka ez dezagun Ama.

Ala Frantzian nola Españan,
Etsai batzu erabian,
Gure mintzaia galdu beharez
Ari dirade lanian:
Ama utz-eta amaizuna liar,
Gerta litake orduan!
Geldi gaitezen gu Amarekin:
Hoberik ez da munduan!

Eskual-hefian gaizki gabiltza
Zorigaitzez aspaldian;
Hantxe kastilaz, hemen frantsesez
Ari gira solasean;
Denen ikastia gizonak on du,
Dabílalarik munduan;
Bainan eskuara, ahantzi gabe,
Beira dezagun buruan.

Aita eskuaraz mintzo da eta
Semeak afapostua:
«Soy vascongado, pero ahantzi
tipitikan ikasia!»
Ez dea hori Amarendako
bihotz-erdi ra-gari a?
Berak mundurat eman ondoan
Semeak arnegatzea!

Zezar-en manuz tropak jin ziren
Eskual-herjrat milaka,
Kostumatuak denen ibiltzen
Beren aitzinian lasterka.
Bainan orduan ikasi zuten
Zer den Eskualdun-afaza:
Mendi-zokoan dagon lehoina,
Handik kentzea neke da!

476. EZKONDUA ETA DONADUA

—Adizak, ezkongeia, bi solas gu ganik,
konseilu on hau hartzak ezkonduetarik:

Cizonak izaitekotz neliun deskantsurik,
gazterik familia formatu behar dik:
zahartu-eta ez dadin egon doluturik.

—Zuie'n konseilu onari Kemen nago irjz,
donado gelditurík aras kontent bainiz,
ikusiz penatuak zireztela ainitz,
miseria gofian liaurak ezin hasiz;
Jainkoari eskerak hortarik libro niz.

—Ez duk bada nobia donaduen planta;
urgulutan sarturik ez hadila banta,
Ilik ere izanen duk noizbeit zerbeit falta;
etzakala sobera victoria kanta;
donaduen zahartzia aras trixtia baita.

—Trixtia dela diozu gure zahartzia;
zuk ere ez dukezu mila alegrantzia;
guziek badakigu zer den ezkontzia:
gazte danik gizona esklabo jartzia;
gure gostuko, hori ez da zuhurtzia.

—Gure esklabitatiaz tronpaturik hago;
guk manatzen ditiuk familian oro,
andre ta hauretarik badiuk kariño;
eta gelditzen denak beldufez donado,
harek bizi behar dik guzien esklabo.

—Guk ere ikusten tugu, jaunak, zuen faltak,
ez gaitu ilusitzen ezkonduen plantak;
haurekin lana frango amak eta aitak,
batek xapela falta, bertzeak zapatak;
zonbeit aldiz izertu behar du kopetak.

—Kuraie ona dukek, donado gaixua,
haurak ez nahiz bazi hola gelditua;
orai hiretako duk etxeko zokua,
eskarnio frango eta. maiz esker gaixtua;
mando txar bat bezala beti tratatua.

—Jauna, etzazula egin sobera espantu,
nehorentzat zahartziak gauza onik ez baitu;
ezkontzen denak ere ondorioak baitu;
heldu diren bezala behar ditu hartu;
Jainkoak daki zu ere etziren tronpatu.

—Gure penek baltie ondotik plazerak;
egin ditagun lanak ez dituk aiferak;
zahartzia pasatzeko baditiuk haurak,
lagunduko ahakie beren alta-amak,
Ikusiz beien hazten izan tugun lanak.

—Uste nuke sobéra ztrela fídatzen,
ainitz ikusi dugu munduan tronpatzen;
belek ere dituzte beren umiak hazten,
gero umek amari begiak jalgitzen;
ainitz ezkondueri hori zaie gertatzen.

—Hori egin bádeza semiak aitari,
zer ein dezake ilobak bere osaban?
Hauíen hazteko lotsaz gelditu denari,
tipi era handielc eiten die in,
denen esku-makiltzat behar duk ibili,

—Zuk ere ¡zanen duzu zerbeit arangura,
etzirade biziko nai duzun gostura;
zure hauren hauren zain egon behar zira,
nahi ez eutzun presentak izanez eskura:
guziendako zerbeit sortzen da mundura.

-^Sinesten ahal dituk ene konseiluak:
deusik ez dik balio kobarde izaitiak,
gizonen einbidiari ihes egidak;
Kiri ez emanagatik Jainkoak haur tipiak,
debruak emanen daik iloba handiak.

—Ixildu behar dugu aitzina juan gabe,
gelditurík zoin gure arazoinen jabe;
beti-danik izan dut libertada maite,
ehun mila konseilu zuk emanik ere,
sekula ez naiz ¡zanen ezkontzaren alde.

Kantu hauien emailia izan da donado,
ontsa probetxaturik ezkondu zen gero,-
aise emaiten ditu ben hauiek oro,-
dakienikan bada zerbeit gehiago,
oraino paperian bada leku frango.

ALANDE A1NTZIBURU

Zabalztará. Ba-ditu olerkari onek, bertso txukun eta aratzak, inetidi-bera datoíen urzidara lakoak. Jolastankerak bai ederto erakutsi, oor nor dan!

477, NAUSIA, MUTILA ETA ERBIA

Behin mutiíarekin nausi bat ari zen
Lare zabal batean iratze pikatzen.
Toki hura erbiez famatua baitzen,
Han jhizlari zenbait egun hartan ba-zen.

Bet-betan tiro batzu hor ditu aditu.
Cure gizonek ere buruak goititu,
Erbi bat heier buruz efestan zen heldu,
Gaixoak bereala indara du galdu.

Nausiak laster batez erbia harturik,
Ezpai baten pean du ezartzen gorderik,
Iii gozo batekin erten duelarik:
—«Erbikiz aseko nuk, mutil... ni segurik!B

Mutilak bere baitan hitz hoik entzun-eta,
Zioen: —«Jasta ere enetzat ez dxika?
Ai, merezi huke, to, gantz andi gormanta..!
Jabeak jin ba'lite, eta gal baheza».

Hain sari bi jaun ziren hetarat etori,
Galdez eian erbi bat zutenez ikusi.
Ezetz zeien nausiak muritz ihardetsi,
Eta bere lanari lotu zen zofozki.

Mutilak aldiz keiñu ezpalen aldera,
Salatzeko bezala han zerbait ba-zela,-
Jaun heiek hatz emanik erbia órela,
Jotzen dute nausia lioa bezala..!

Pasoz erbi Kantua nigafez utzirik,
lhizlariak urun ba-zoazilarik,
Mutilak erten dio iriz dagolarik:
— «Nausia, hartu tuzu zanpak, zuk segurik..!»

* *

Egintza hunek dauku ongi erakusten,
Nola garen lur ontan elgaren beartzen.
Zorionean beltzez ez dena oroitzen,
Zorigaitzean lagun guti du izaiten.

478. BASERITO BATEAN

Basefifo bateko rriehdlska artean,
Urtereka aldean nihauren etxean,
Alor-oian-soruak denak inguruan...
Gizonik urosena bizi naiz gustuan.

Bixtako eremua oro dut neurea,
Munduaren partetlk ba-dut nik bakea.
Auzoetarik ufun nere destefuah,
Neor unatu gabe, bizi naiz gustuan.

Ogi-arto-ilafez beterik alofak...
Gaztain, intzaur, gerezi, sagarez oianak...
Idi, bei, anari, ardiak soruan...
Ni orietazjabe bizi naiz gustuan.

Baratze eder bat da ene etxaldea,
Ituri sano baten uraz freskatua.
Bazter loredun auek edatu gozuan,
Pausua biotzena bizi naiz gustuan.

Andre un baten artaz beti lagundurik,
Familia azirik etxean ba-dut nik
Bi seineto azkarak, alaba onduan:
Oiekin amodioz bizi naiz gustuan.

Txoritoen kantuak iatzar-arazirik,
Goizetan niz lanerat jalgitzen etxetik.
Eguna zait joaiten laster deskantsuaii:
Beti zerbait egiñez bizi naiz gustuan.

Aberats izan gabe ba-dut sosegua;
Ufe zilar goseaz ez niz kexatua.
Bear dudanarekin osasun senduan,
Ufe-ametsik gabe bizi naiz gustuan.

Ager nadin eliza ala merkatura,
Edo egitekoez gizonen artera,
Ezagunetan ez dut neor etsaiguan;
Efaguarik gabe bizi naiz gustuan,

Atsegin oroz nekez bai-titake goza,
Etortzen ahal bai-tzaut bardin zorigaitza;
Jaun ona dut ut2ia nik ortaz autuan:
Aren borondatera bizi naiz gustuan.

Xoko untan prestuki bakean bizirik,
Nahi nuke adinez joan au utzirik;
Luzazki 2ahartzeaz ni ola munduan,
Zergatik lotsa naite? Bizi naiz gustuan!

M. ETXETO, «KATXO»

Hazparne Itirnlde guriak ainbat bertsolari soi' ditu gizaldi zear. Au be angoa, ta ez makala, bere egunetan zarata atera ebana dogu-ta. lkusi Meodiage, *Eskualdun Kantuak* (1900).

479. NAHI BALIN BA'GIRA HIL

Nahi balin ba'gira hil eta salbatu,
Artean behar dugu denek konbertituj
Bekatu egiteko kostuma kitatu,
Lehenago egiñez; ufikitan sartu,
Ez beriz leratu,
Ahalaz beiratu,
Ongi kofesatu,
Hiltzeaz oroitu:
Denbora joanez geroz, ez baita probetxu!

Sortuz geroz guziek zor dugu hiltzia:
Deusik ez duzu gure munduko bizia.
Kita dezagun, beraz, heniengo auzia.
Garbiki dugun ¡ker gure kontzentzia;
Bertze munduan da
Cure justízia:
Azken-sententzia,
Zer oren trixtia!
Oi eternitateko penaren luzia!

Pena hetaraz geroz ez da libratzerik,
Ez, eternitateak ez du nnitzerik:
Zonbat arima gaixo han kondenaturik,
Sekulan libratzeko ez esperantzarik.
Hetaz oroiturik
Gauden lotsaturik,
Humiliaturik,
Ecsenplu harturik,
Noiz-nahi prest joaiteko lur trixte huntarik.

Jaunak ¡goriko du zerutik galdia,-
Herio ebaslea *du* mandatari;
Harek eranez geroz, joaiten ahal gira;
Gure bideko lagun hor ¡zanen dira.
Guk egin ongia,
Bai eia gaizkia,
Heien arabera
Jujaturen gira,
Memento lazgafiak ordukoak dira.

Andre dena Maria, Birjina garbia,
Zure laguntza onen beharetan gira,
Ofentsatu baitugu gure gidaria,
Zure Seme dibino Jainko Jaun handia,
Gaiten humilia,
Denboraz balia:
Bai, beti bizia
Oroitzen ba'gira,
Zeru-ate sainduak idekiren dira.

BALITA OTXANDA

Badaki koblari onek be, goxo ta samur, zelan biotzari negar eragin, zelan gai indartsuz gizüntasuneají gara biztu. Cudaiiaren zoria, etsaiari buruz, bizi-bizi margotzen dau.

480. KOLPATUAREN OTOITZA

Mende huntan jadanik bigaren gudua,
Lehena birikitao etsaiak galdua.
Beriz ere bet-betan nahasi mundua,-
Jendea armadetan multzoka bildua.

Egun 2inez dorpea abendu eguna,
Frantsesek tranxadetan iragan dutena!
Kanoiaren huxtua goizetik entzuna;
Gizonaren ondotik airean burdiña.

Zerutik ilargiak jadanik argitzen,
Lurean han-hemenka obuzak lehertzen.
Aranoak leioan gorputzez jabetzen,-
Soldadoa ikaran Jainkoaz oroitzen.

Oihan beltzaren pean lurean jaria,
hJigaíez dago Beñat kolpatu beria.

Gogorat orai heldu bere sort-heria;
Biziaren uztea gauza latzgaria!

Etsaiaren suari nahiz ihardoki,
Gordagia zilotík bet-betan da jeiki.
Bainan burdin idorak bulara idoki,
Zauritik orai galtzen odola nasaiki.

«Hogoi ta zazpi urte emanik munduan,
Bakean bizi nintzen amaren ondoan,-
Hamalaueko gerla hasteko punduan,
Etsaíek aita zena jo zuten buruan...

«Ene ama maitea, munduko izara,
Hemendik diot zuri en'azken agura.
Odoletan dut galtzen zuk eman indara,
Lüfak beretuko du zure haur bakana.

«Ait'amekin zerurat Jaunak deit nezala,
Frantsesentzat dut orai eroaiten odola;
Alemán aranoak galdurik llégala,
Bizi dadin munduan Eskualdun arbola!»

Akabatu deneko Beñat'en otoitza,
Arimak laster utzi munduko egoitza.
Amato! Galdu duzu haufaren laguntza,
Bainan zurekin duke zeruan bihotza.

Beñat'ek oihan petik: «Birjina Maria!»
AmaEok sukaldetik: «Bigaren zauria...»
Apezak aldaretik: «Zeruan saria!»
Aingeruak gaiñetik: «lili sit gloria».

DIHARA5ARI APEZA

Idazle trebea, ziñez, Kanbo'ko arimazain aufjoskera zaintsuajo liburu guztiz egoki ta onak idatzi ebazarv Maria'ren lia, Antonio donearen bizitza, Mezarako esku-liburua, Ede^ii deuna, ta azkenik, beste askoren artean, Kriscau-lkasbidc euskeraz cgiodakorik ederena. Garbi ta argia nunbait, bere idaz-lunoa zorotzetik urtena. Poesi gara be ba-eban, ta ez una. Oodorengo neurtitza, 1896'an Maule'n ospatu zan euskaljaietan saritua dogu, lkusi Lafitte apez argiaren *Le Basque*, 65 or.

481. MADALEN LARALDE

Elizak utsak ziren, apezak ihesi,
Debruaren mutilak Frantzia˅n nagusi^

Gure Eskual-efian, orotaz gaiñetik,
Giristino jendentzat etzen bizitzerik.

Primadera goiz batez, argi uratzean,
Saratar bat eldu zen Bera'ko bidean:
Nexka gazte guria, Madalen Lafalde:
Bakarik, otoitzean, zoan etxe-alde.

Bet-betan sasipetik, otsoen pareko,
Soldadu batzu oiuz ateratzen zaizko,
~ «Non abiía, neskatxa? Zertan intzen Bera'n?
Ots, egia dena den, guri laster eran».

Ba-daki Madalen'ek, egia eranik,
Ez dela arendako luzaz bizitzerik.
Ala ere nai da egiaz mintzatu:
— «Kofesatzeko —dio— naiz Bera'n izatu».

—«Zer! oin lili freskoa, oin laster ebaki?
Ez, nai indukegu bizirik atxiki;
Ez aitor, beraz, zertan indabilan Bera'n.
Xuri edo beltx, bertze zerbeit asma ezan».

— «Bertzerik eíatea gezufa litake,-
Gezur ortaz arima zikinduko nuke.
Il bear balin ba'dut, il nadila garbi,
Garbi bizi dena da egiazko lili».

Eta Madalen beti itz berean dago,
Nola Sara'n lehenik, Donibane'n gero.
An dire, Donibane'n, jujéale bildurik:
Ba-doakote nexka, begia lañorik.

— «Bai, bai, jaunak, ala da: kofesatzen nintzen¿
Ez dut egin dutana batere gordetzen».
— «Aizen bezelakoa, ba-dinagu aski:
Lepoaren moztea din orek merezi».

— «Lepoa dautet, beraz, s^ri pikatuko.
Ez naiz ordutik irudiz mintzatzen ahalko;
Bainan or izanez dut odola lekuko,
Gogotik il naizela egiaren-dako».

Jendez da, Donibane'n, estalia plaza,-
Plazaren erditsutan giíotina gaitza.
Aingeru bat iduri debruen artetik,
Madalen agertzen da, eskuak loturik,

Oro nigarez daude, ura aldiz kantuz,
LoríetaiT ba-doa ¡lezeari buruz,
—«Salve Regina», —dio— «Agur Eregina,
Zutan dut esperantza, Ama guziz ona!»

Iganarazten dute tresna lazgarírat;
Burua pikaturik ba-doa lurerat,
Bainan arima xuxen altxatzen zerurat:
Egiak du betikotz artzen bere ganaf,

IZEN GABEAK

Euskal-idazleok bai gareala izen-orde zale! Zergaitik órela? jakin ez. Zerbait locsor gaituznla esana dot, ta ba-leiteke auxe izatea gure izen orde zaletasun ta makur orco zio ta sustrai.

Azken urte oneitan, idazlerik garaienak be akats ortan —akatsa ba'da beintzat— jausi dirala autor bear. Olerkariak bakarik aitatzeko, Adema kalonjeak «Zaldubi» erabiíi oi eban; Elizanburu'k «Salaberi», «Berjes», «Harlnxe-Dafupe», t. a,- Orkaiztegi apaizak «Oiparena»,- C Muxika'k «Jeme»; Elizaíde'k "Zerbitzari»; Sagartzazu'k «Satarka»; L, Jaurcgi'k «Jautarkol*; Bedoña'tar Jokin'ek «Loramendi»; J. M. Agire'k «Lizardi»; N. Ormaetxea'k «Orixe"; Urkiaga'tar Escepan'ek «Lauaxeta»; A. Onaindia'k «Otari»; E. Erkiaga'k «Endaitz»; Zaitegi jaunak «Udalaizpe»; Lontzi Abak «Ormalda»; Moulier apezak «Oxobi»; A. Iraizoz'ek «Urtsuia»; Etxezaraga'k «Zidora». Ta órela beste askok.

Erbesteko idazleak be noizka beste ainbeste egiña dabe; *E^amuntxo'rtn* egileak, esaterako, bateoko Izena Julian Viaud izan área, Piere Loti erabiíi oi eban geienez; ta ezta bear bada akatsa izango. Baiña naste apur bat emetik datorkiguna ezin ukatu. Ta ainbarik idatzi ezkero? Nok asmatu orduan norena dan? Ba-dira orlakoak be gurean, olerki bikaiñak izan aren, norenak diran ez dakiguzanak, iñoiz antz emon al izanda be.

Or zergaitik ¡zen gabeko olerki-zerenda au. Askoren artean, *16* bati tokia damotse^ bilduma ontan

482. AMAXO BERE ILOBAREK1N

Ikusi P. Aradoi *Xaramela,* 37 or.

Emakume xahar bat buruko xuritan,
Opularda beltx eta zai ile goritan,
Neguko egun batez zagon iguzkitan,
Altzorat alabaren haura, harturikan.

Ana Eikiak dio bere amaxori:
— iMolaz duzu, amaxo, ilea hoin xuri?
— [kus-azu mendian, haura, elur hori:
Ene adinak ere negua dirudi.

-—Arpegi polit hori zertako, amaxo,
Ez duzu amak bezen legun eta goxo?
— Haura, urak maldari erekaz doatzo,
Nigarek naute egin ni ere hoin atxo.

— Zertako egin nigar, amatxo maitea?
Zure kontsolatzeko ez niza zurea?
— Bertze asko neureez, ai! ene umea,
Ikusi dut denboraz etxe hau betea,

— Amaxo, zein baraxe zu zaren ibiltzen!
Zalukiago naiz ni Fíkitik higitzen.
—Haura, ni ere lehen zu bezala nintzen...
Urte soberek naute orai dorpegitzen.

—Bizitzen balin ba'naiz zu bezenbat urte,
Amaxo, zu bezala ¡zanen naiz ote?
-Haura, zenbat munduan luzaz bizi uste,
Menturazko agintza beizik ez baitute...

—Jainko maiteak, beti, amaxo, zertako
Ez gaitu elgarekin bizi-araziko?
— Bizi huntaz bertzerik, haura, guretako,
Ba-dagoka hoberik, eta sekulako.

— Ai, amaxo, biak gu ba'gine zeruan!
Ai... zer dut nik? Eri naiz... Ai, min dut buruan!
— Haura, goazen barnera; liobeko dugu han:
Xakura pleinuz dago gure inguruan.

Handik bi aste gabe bi gorputz elizan,
Etxe hartarik ziren ekaíirik izan;
Eta bien arimak zeruan zabiltzan,
Lureko gaitzetarik betikotz gerizan,

485. JUDIO ERATUA

Ikusi *Ef-epikan,* 3'garen onbidean,

Jesus heldu zelarik kalbariora,
Kurutzeaz bizkaia ongi kargatua,
Galdegin izan zautan, umiliatua,
Eian utziko nuen bortan pausatua?

Nik erakutsi nuen hain bihotz krudela,
Ezetz eran bainion, ezetz berehala:
«Aparta hadi ortik, gaixto kriminela!
Hi bortan pausatzea afruntu dúdala!»

Ez da nehun gizonik, ez alimalerik,
Judu efatuari kunpara daitenik:
Ez dut uste deus badén munduan bizirik,
Ni bezala herestan malurus dagonik.

Pasatzen nintzalarik hiri batetarik,
Bi burjes zitzarzkidan jafaiki ondotik:
Eranez ez zutela ikusi gizonik,
Oi, nik bezain luzeko bizafa duenik!

—Sar zaite ostatura gurekin, gizona!
Curekin edateko amo gori ona...
Pasa zaitzu pausatzen gau eta eguna,-
Guk konplituko dugu desira duzuna.

—Sar ere ba-naiteke etxean gogotik,
Zuekin edateko amo on gorítik;
Jariko ez naiz, bainan... egonen naiz xutik;
Tonnentek hartzen naute, oi, jariz geroztik!

—Jauna, efanen duzu kurios girela,
Zure adinen befr galdetzen dugula,-
Ehun urte ditutzu egiñak gisala,
Edo zure bizafa tronpos da bertzela!,..

—Ene hezufak dire aras gogortuak,
Eta ene denborak ez akabatuak...
Bi mila urte hurbil baitut pasatuak,
Hortaz izan zaitezte, oi, seguratuak!

Izan naiz henetan, bai hiri orotan,
Certa ahal daitezken gerla guzietan:
ízigaíiko froga egin dutheietan.-
Herio beltzak ez du indafik ni baitan.

Mundua pasatu dut bortzgafen aldian:
Guziak hiltzen dire zoin bere orduan,
Eta ni ezin hilez ibilki munduan!...
Azken jujamendua etofi artean!...

484. IXKERA'REN ZAMARIA

Izkera'ren zamaria
bilo urdintzen hasia,-
zanko-besuak gogor eta bizkafian zauria,
bai eta istant guziez lufilat erorlia.

[xkera, sal zak zaldia,
balin ba'duk eroslia,-
hofekin oianilat juaitia, oi! eztuk, ez, zuliurtzia;
belek eta afanuek hofenganat die lehia.

IxkerVren zaldi hori
establian xarmagari;
nik ¡a nahiago nikek ardura huñez ebili:
zaldarez aserik ere batez eztaiteke igi.

Ixkera'k zaldia perestatu,
eni hartzia doJutu;
belek e£a aranuek bidian naie atakatu:
Jainkuak daki nula nizan jaon betarik libratu.

Etziok xeha artorik,
ahuan ezpeitu armarik,
harentako ezta jiten España'tik olorik;
Ixkera'k hartuz geroztik eztaki aziaren befirik.

Ixkefa, enaintek mintza,
zamariak balu bixta,-
nurat nahi juanik ere eror eta itzulafika,
aitzin-gibelez ez kuka, sal zak fíte edo truka.

—«Eztiat, ez, nahi saldu,
ez eta ere trukatu,-
ene zamariak bear dik uda bortian pasatu,
handikjin datekenian nahi hait untsa trufatu».

—«Ixkefa, ago ixilik,
eztuk eginen trufarik:
hire zaldiak eztik janen udan bortian belarik;
arte huntan eginen diekafanuek ase ede/ik».

Kauter batek lxkefa'ri
eihera bertan berari:
zamariaren haitatzen eztiala ikasi,
emaztiari so'gin zerola, hartu zinian, hobeki.

Ixkefa, otoi, parkatu,
etzaizu behar gaitzitu;
alaba-izuna dela kausa, koblato hoik uken tuzu;
etxeko beriak kanpuan oro saiatzen dereitzu.

485. IKAZKETAKO MANDOA

lkusi *Eskualdun Kantaria,* 61'gar'eo orialdean,

Hauxe da ikazketako mandoaren traza:
lepoa mehe du eta ilia latza,

itxura gaitza;
bastape' guzitikan zauriak balsa;
hauxe da salsa!
Kristaurik ez daiteke aldetik pasa.

Lepoa mehe du, eca buruia handi,
macel-hezufa seko, dena behari,
begiak eri;
bi sudur-zjlotarik mukiak dari,
ezpajnak lari;
hortzik ¡zan badu ere ez du ageri.

Bi itzez aitzazue laur batzen fatlak:
belauna handi eta makur gidailak,
lurera zailak;
kortesia eskatzen belaunez ari da;
gero ezin altxa;
Hauren mantenatzeko zer abantaila!

Fantasía asko ba-du mando lapurak:
laur zangoak trepel eta juntetan hurak,
anka makurak,-
ezpata bezain xofotx bizkar liezura,
ez duk gezura!
Moiz laruturen zautan ni naiz beldura.

Mando itsusi, zikin, lotsagaria,
galtzera bota didak osagaíia,
okagaria!
Sartzera eztio utzi nai ostaleriak,
harén sartziak
unntzen zaiotela etxe guzia.

Buruko krapestuak grandeza ba-du,-
erostunikan ba'lu, nai luke saldu,
ahal bezain zalu:
xiki bat amoren saria ¡ten ahal ba'lu,
xarantxak[2] salbu,
tratu hortan hainitzik ez Uro galdu,

Aitzineko petrailaz dago espantuz,
zeren dagota du ein.erdia espartuz,
bertz' erdia trapuz,
hatzeman puska guziak (uretik hartuz;

ase niz tratuz.
Enfadaturlk nago botigan sartuz!

Sokak palupan eta lazoa trostan,
erekati behera juan zaizkit postan
ezpainak oskan,-
ehun goropilo eta befehun buztan
bakotxaren puntan:
hek baino hobé likek batere ez ukam

Galtzera bota didak manta bat fina,
atunaren denboran Kadiz'tik jiña.
Oi, manta fina!
Oro goropilo eta zilo et' ezkilla,
petatxuz iña;
sekulan etzautjuanen mantaren mina!

Sakerdi bat befia ba-du bereki;
beldufa dago ladronek nonbait edeki.
Dabil' ederki;
kapusail zar puska bat laru bateki,
kunputuz beti,
zirdina[8] dariola anketan beiti,

Ene manduak duen zingila korda
juan den zazpi urtian botigan zor da;
denbora sobra!
Merkarariarekin ereitut bordak,
testigu obrak!
Nik ere hartzekoak etzaizket kobra.

Ikatz zaku edefen jabe nabila,-
aoak non dituen ezraite bila,
poíoska mila;
zazpi-zortzi petatxu elgarekilan
ziloekilan:
heien betatzaileak ba-dik aski lan.

Eskuaraz <*z¡ngi/a*> eta erdaraz <*cincha*>$_t$
hofen gaiñian ere ba-dut zer mintza,-
biluaren gisa
trenka dakidan beldufez eztirot tinka,
kargak egin'ta;
Kortan gezufik bada, lepoa pika,

Mandoa zahartu zaut, krastuak hautsi;
erostean ein zofa oraino bizi;
ba-dut Ian aski.
Norat nai juan nadin, zora dut nausi:
hobe dut naski
ferak atera eta laferat utzi.

Neskatxa ba'nintz eta maiora falta,
ikazkinik ezkontzaz ez niro trata,
Jainkoak barka!
Lastimagari baita ikazkin hauta,
dabilan planta,
etxetik eztirola beti atera!

Ikatza saldu eta ondoko traza,
gaitzeru" bat artoren saria falta;
etxera juan da,
andriak nigar eta liaufek mafaska;
ezin balaka[a]!
Talo baten gauk ez dio hafapa.

Abarkatik has nadin emeki-emeki,
haragi ustel urin bat ba-du bereki;
haler' ederki
aztal eta beatza kanpoan beti,
ziloa petik:
zangoak eretzeko perilik eztik.

Galtzazpien beriak erain tut garbi:
botoinak tiki eta xiluak lafi,
xotxak ezari;
befehun lekutarik lan ageri,
bragetak ifi...
Jainkoa parte! pikorik ez duke sari.

Barneko motx bat badut anitz edefa,
uratuaren hutsez ez dirot zera;
andre alfefa!
Oratza duenian hariaz gerla,
apo fárdala!
Sukaldían lo dago jaiki eta beria.

Hará ikazketariek duten girua:
bonetaren kaskoan xuxen zilua,
puntuz bildua;

laur eri[0] trebesetan xuti biluaj
enemigua!
Nik eztakit zer'iten duten dirua!

* *

í) iñon tura, *i)* freoo; 3) pingajo; 4) cuartal; 5) líala gar; 6) dedo.

486. PARTITZEKO TENOPIA

ikusi P. Aradoi *Xáraniela,* 99'garen oéialdean. Uzlarizcar batena ei da.

Mila zortzi ehlin'ta befoi hemeretzl:
Kantore[1] beri batzu nahi tut ezafi,
Penetan direnentzat, oi, kontsolagafi!
Gauzak har ez ditzaten sobera barnegi.

Kantu liauk eman ditut neure buruari,
Zeren bihotzian dut hainitz sofrilcari:
Corte egiñik nago izar eder bati,
Eta ni malurusa zortian erori!

Partitzeko tenoria* huna non den jiña,
Ufikaltzeko" baita kasu human dena,-
Izar baten uzteak emaiten daut pena,
Zeren hura bai-nuen munduan maitena.

«Izar xarmegafia, oi, penetan gira!
Pena doloriak oro gure gaiñean dira;
Zure hitzetan fidel egoiten ba'ziía,
Jainkoaren graziak gu ganako dira».

Graziak hausten* dira, oi! denborarekin,
Eta partikulazki, zure'ta nerekin;
Ezkontzekotzat beraz biak elgarekin,
Armadetako beri behar dugu jakin..,

)) cauciÓD;")) momento; 3) compadecerse,- 4) debilitarse.

487. OKERTUAK BERE ÓKE^TZALEARI KOPLAK

lkusi *Eskua/dun Kantaria,* 49or.(ta *E/'epikan,* 33'garenean.

Fortuna erori zait burutik behera,
Zuri baicauCzut esker, gure jaun Barbera'.

Hafiturik bakotxa niri dago beira,
Bi begiez,
Nik guziak ikusten begi bakar batez.
Lehen biez$_y$
Orai batez,
Oro ikusten begi batez.

Mundu hau betea da zenbat nahigabez,
Barberak okertu nau, aklitxe izanez.
Lehen ba'nindagoen ardura[2] nigarez
Bi begiez,
Zertako biez egin? Aski daite batez.
Lehen biez,
Orai batez,
Jaun liari esker, begi batez.

Nonbait balin badira bi bortz liberako,
Bietarik ohoinak[3] ez dik bat utziko,
Zuhuía den gizonak ez beza egin lo
Bi begiez,
Barberak manaturik, egiten dut batez.
Lehen biez,
Orai batez,
Zuhuíen gisa begi batez.

Zure ohoratzeko, gure jaun Barbera,
Lau kopla ez dirade izanen sobera:
Lehen ikusten nuen Betirisants bera
Bi begiez;
Milesker, jaun Barbera, egundanik batez.
Lehen biez,
Orai batez,
Hobe lizate niholaz ez.

1) médico; 2) safitan; 3) lapuía.

486. ÁP>EZ BELTXAREN KANTUAK

ikusi" Lafitte apezaren *Efepikan* edo *Kan/uz'en* jaraipena, 102'an

Igande-mezak efaitian, Hafixuri'ko gaiñian,
Eskopeta kargatu nuen —neuretzat zorigaitzian—
Ba eta ere deskargatu apez[1] beltxaren gaiñian.

Altzak ez du maiten ezkufik, ez gaztanberak hezurik;
Ez nian nik uste ba-ze(a Jalnko-semetan gezunk.

Apez beltxaren areba, serora begi-ñabara!
Ni gal-araziren nun, bainan, ez zain pizturen anaia.

Ehun behi nik ba-ditut, oi! beren zezenarekín:
Guziak eman bai-nítzazke bizia ukaitiarekin.

Ene seme Eramunto, Eramu-goizian sorcia,
Damurik aditu behar duk «Ait' urkatiaren semia»;
Ait' urkatiaren semia, bainan ez ait' ohoinareo semia!

—Aita, zoazi bai etxerat, ene afopak harturik;
Ene haurer emazkotzute, beren neufian josirik.

—Ez, ez, ez nuk ez joanen, hire aropak harturik:
Nik Baiona'n utziren diat aropak baino hoberik!

Bartegarai Ortzaitzeko, Bortairu Ezpeletako!
Hi Bordale'n, ni hor Baiona'n, a ¡zer gizonak galduko!

...Antzarak doatzi karankaz[1] Donibaneko karikan;
Bottegarai hori ba-doa semjaren miñez maraskan[3],

Urtiak zonbat egun ditu? Hemezortzitan hogoi tu...
Bottegarai gazteño horek pertsu hauk oro eman tu.

1) golondrina; ") graznar; 3) verter lágrimas.

489. PIAREX LABORARÍA

Eskual-heíiko jaun gazte batek
laguntza bat daut galdatu,
Edozoin moldez nunbait hirian
nahi delakotz plazatu,
Etxean omen akiturikan
aski duela pairatu;
Arapostutzat beresuño batzu
hori baitazkot moldatu,-

Bertze zonbaiti. oren berean,
nahi njntuzke kantatu.

Udabeíiak eder heldu tuk
eskualdun henetara:
Oihan-mendiak, zelai-bazterak
zoin xoragari bixtara:
Liliak iriz, xoriak kantuz,
esker bihurtzen zerura!
Beraz, Piafex laboraría,
zer zaik hiri jin burura?
Eskualdun haufa, ez zaika jausten
nigara begietara?

Dudarik gabe noizbait entzun duk
h¡rjfar)agun gaixtQa
... ,. c ,_ , , • .
In aditu raltsu batekin
, , , n . —
eran dauk: «Gaixo tontoa,
-7 t i 1 J 1 ¿_ • i.
Zertako, bada, turan buruz
ar izerditan itoa?
Hortik aberats sinestekotzat
behar dik izan zozoa.
Haugi gurekin, hirian dukek
hiretzat bizi gozoa».

Urgulu zoroz ez ahal dituk ,
hire ait' amak utziko?
Zahartuz geroz, hi gabe, haufa,
nola dituk, ba, biziko?
Ihesi joanez hire aitari
bihotza diok hautsiko.
Hik hil-arazi buraso onak
auzo batek ehortziko:
Zer bihotz-mina seme batentzat
eternitate guziko!

Ez, otoi, sinets hirian xoilki
direla gauza edefak:
Ez duk deus ere edefagorik
nola sort-heri bazterak,
Beren usain on gozoekilan
lorez estali zelaiak...
Beha zak, bada, zer lezakeien
hiritarxkilen indaíak,
Langile faltan alfer eta lo
gelditzen ba'lire lufak?

Iguzki-suak ontu jus hura
mahats pikor molkoetan
Behar diagu ardura edan
odolik izaitekotan.
Berdin udetan, urhe distiran
den ogia zelaietan
Hik guretako bildu behar duk,
xeha dezaten efotan-..,
Mahats-ogirik ez duk, ez, sortzen
hiriko jauregietan.

Urte bakar bat geldi ba'ledi
laboraría lanetik,
Asunez kanpo, lapafez kanpo
zer bil litáke luretik!
Oro handiak entzun litazkek
hiri-muruen barnetik,
Eroturikan, hilak iduri,
heldu hobien zolatik:
Batak bertzea jan lezakeie
jendek gosearen gatik,

Erainzkik, beraz, laboraría,
hire lufak artarekin:
Alofetako lanak ez derauk
biotzean emanen min.
Bai, xutik ago, zeruari so,
besoz azkar, gogoz arin:
Emak lanari, emak airoski:
Beldur ez har pildak zikin.
Jaun-andrexkilenjanari hauta
duk ongafitik behar jin.

Eskual-hefian uda-befia
beti jinen duk edera:
Burzoro-aldi itsu batean
hiririat, otoi, ez lera...
Soizak mendiko belaretarik
nola bizi den epefa...
Soizak pentzeko loren gaiñean
erlea dagon alfera...
Otoi, Piafex, ez utz ariman
sartzerat luraren hefa.

Azken-oihua, zeruko Jauna,
zuri derautzut egiten,
Amentzat hauren amodioa
zuk duzulakotz emaiten.
Eskualdun seme lur-langileak
beti xuxen ¡bil diten;
Bai, beren ama, zuk eman lufa
bihotzez maita dezaten,
Hola egiñez ez ahanzteko
zeru hortarat igaiten.

490. ZAHARTZEA

Mila zortzi ehun ta berogoita zazpi,
Sorteritik joan nintzen ahul eta Eipl.
Geroztik hemen nabil goiti ta beheiti,
Nehoiz hil gabe, bainan iriskutan beti.

Ez deia, bada, pena bizi naizen plantan!
Urhe bat ez dut izan nik sekula santan.
Egunean ardit bat alderatu faltan,
Ene denbora joan da geroko peskizan.

Denbora joan zait eta hasi naiz pentsatzen:
Zahartzeak ez dauku gauz onik ekartzen.
Pixa labufago dut jaz-danikan aurten,-
Zapatak hasi zaizkit puntatik usteltzen...

Jaz zapatari eta aurten belaunari...
Diferentzia gaitza, urte batez, hori!...
Lehenago paretak kolpez hautsi nahi,
Orai, ezin heldurik, xortak xiri-xiri!

Haginak galdu ditut, puskatuak hortzak.
Sudura joiten deraut engoiti kokotsak,-
Ezpainak ere dauzkit pipa gider motzak...
Orai zer gostu duke munduan bihotzak?

491. HITZ ZUHUREN KANTUAK

Otoi, denak zatozte plazaren erdira,
Nere eian zuhufen gogoz Ikaslera:
Mendiak baino ere zahafago dira,-
Arnoa ontuz doa urtetik urtera.

Itsasoak, bixtan da, ez du, ez, adafik,
Ez eta gaztanberak erdiko hexnfik;
Nehoiz ez da ikusi su gabeko kerik,
Bainan ez daiCe juja deus itxuietarik.

Duenak, azer biper emaiten ohi du;
Ez da behar ixtupa suari hurbildu,-
Tripa hutsari ez da emaiten konseilu;
Barur egonez norbait, noiz zaitzu afaildu?

Xakur txara gisala da dena kukuso,-
Haurak aita-ameri dagotzi beti so;
Bi begi baino hobe dauzkagu bi beso,
Baso bakafa baino ez ote bi baso?

Ez ar' ziminoari sino erakusten;
Orotan jaunen jaunak dirade kausitzen;
Arbola fruitutik dugu ezagutzen,-
Pozoinek osasuna maiz dute sendatzen.

Asko kanpoan bildotx, ta otso barnean;
Zoin den eder itzala, iduzki denean!
Ziminoa gorago igaiten arbolan,
Ipurdia hobeki ageri orduan,

Laguna lagunari beti iduria;
Nolako aita eta, halako semea;
Uriaren ondotik heldu ateria...
Aita biltzale batek haur xahutzailea.

Hala-beKara beti denen nausi dago,-
Norat dohan aizea, harat aiseago,
«Gero» dionak usu eran nahi «bego».
Presatzeak dakarke ondore txar frango.

Amiltzean haria ez cla goroiditzen,-
Gizon ibilkariak zer ez du ikasten?
Busti nahi ez dana urean ez sartzen.
Ifiskatu gaberik nork du deusik biltzen?

[ndarari nausi da lausengu eztia;
Azkafen arazoina da beti hobea;
Nola bizi, hala hil, askoren leloa.
Jaunak bakarik daki zer daiken geroa.

Gauzarik hoberenak finitze bat ba-du,-
Behar niz, ba, sail huntan nolazpait gelditu,
Ao hetsian ez da nehoiz íitsik sartu,
Bainan ez tronpatzeko behar da ixildu.

492. SENAR-EMAZTEAK

Ikusi *Eskua/dun Kantaria,* 98 or.

Ene auzotegian bi senar-emazte
Bakean bizi dira hasaratu arte;

Goardia elgarekin behin samurtzetik,
Heien xuxentzaileak lan ona bear dik!

Lehenik intzirinka, gero deihadarka,-
Gero beriz eskainka, azkenekotz jokaj
Hora zer bizimodu duten maiz segitzen,
Dudarik gabe gostti diote kausitzen.

Gizonari on zaio zorta bat goritik,
Emazteari, befiz, fofa bat oritik;
Emaztea ixilka, senara haltoki,
Bakotxa bere alde dabiltza abilki.

Ostatutik lekora, bapo eta eder,
Senara ez dadila sukalderat ager!
Goardia eman bezo bere andreari,
Tofaren ondorio oinore txarari.

—«Gizon etxe-galgari, arno edalea,
Ahalke behar huke hola bizitzea!
Haizen bezalakoa araila goizetik,
Hoakit, higuin i/ara. begien bixtatik!

—«Neje andre gaixoa, ez bada hasafa!
Hi bezalako baten ba-dinat behara.
Emazte baliosa eztia, ixila¡
Holako bakar batek balio-tin mila!

